



Iturria: *Testamentu zarreko kondaira (I eta II)*, Francisco Ignacio Lardizabal (Blanca Urgellen edizioa). Euskal Editoreen Elkarte, 1995.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LardizabalZarreko.htm>

## TESTAMENTU ZARREKO KONDAIRA EDO HISTORIA

Francisco Ignacio Lardizabal

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetasun Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## ITZ-AUREA

Nere euskaldun maiteak: Gizonaren gaiztakeriari atek isteko, bide onenetatik bat, deritzat, Jaungoikoak gizonagatik egin duena, jakitea dala. Egiaz nor gizonaganako Jaungoikoaren amorioa ezagutzen duena, Jaungoikoak gizonaren alde egin izan dituen mirari andiak dakizkiena, jarriko da berari min ematen, eta kontra egiten, aren agindu santuak autsiaz? Guziz esker-gabea, eta dollora izan bear da, alako erantzupidea ain Ongille oparoarekin gordetzeko. Argatik Elizako guraso santuak beti leiatu izan dira, Jaun-Egilleaganako esker-ona Kristauen biotzetan sarerazotzen, begien aurrean ipintzen diezteela artu izan dituzten mesedeak, eta eskeñtzen diezten zori-onak: eta, ara emen, nere lanari ekiteko izan nuen eresia, agerturik. Itzkuntza guzietan dituzte beren liburuak, erakusten diezteenak, Jaungoikoak egin dituela, Eskritura Santak dion, gauza miragarriak: eta zuek ere, nere erritar maiteak, mesede au merezi zenduten, zeron begiakin guzia argiro zekusaten. Egia da, aita Fray Juan Antonio Ubbilosek Apaiz Fleuriren esku-liburutxo bat, zenbat gertakari dakarzkiena, eman zizuela, euskarara ederki itzulia; baña nai litzakean baño laburragoa da. Franziako Apaiz-Larregik ere, orain irurogeita amar urte diralarik, argitaratu zuen *Testamentu zurreko eta berriko Historiaren* izenarekin liburu luzeago bat, munduaren asieratik, Jesu-Kristo gure Jauna zerura igo zan arterañooko berriak zerbait zearoago eta zabalkiago ematen dituen; baña liburu onek ere, batetik Labort-euskarari ipiña, bestetik zuen artean txit urria eta bakana dalako, dezuten utsunea ez du, nai bezala, betetzen. Nik, bada, nere ez-jakiñari gogor egiñik, artu nuen, Gipuzkoako nere euskarari berri bat ipintzeko, eta argitaratzeko asmoa. Badakit, nere lanak uts andiak izango dituela; ala-ere, beste obeto egindako eta ezarritako bat eskuetaritzen dezuten bitartean, Jaungoikoaren obra miragarrien berriak ugari emango dizkizuten, zeñak ikusita, zuen biotzak, arrizkoak ezbadira, artuko dute, ain Ongille onarekin leialak izateko gogo, nere nekearen saririk naiena izango dana. Jaungoikoari ala nai dakiola, beraren onrarako, eta animaen onerako. Agur.



## LENENGO IRAKURGAIA

### 1. Munduaren egitea

Jaungoikoak mundu au, eta emen diran gauza guziak ezer ezetik atera nai izan zituen. Sei egunean guzia egin zuen. Lenengoan zerua, lurra, urak, sua eta argia egin zituen. Bigarrean firmamentu edo gañean daukagun estali urdin ori egin, eta onen gañeko urak beekoetatik berezitu edo apartatu zituen. Irugarrean beeko ur oiek batu, edo leku batera bildu zituen, eta leorra agertu zan; urai edo ur-lekuari deitu zion *itsasoa*, eta leorrari *lurra*. Gero lurrari belar, eta zuaitz mota guziak emanerazo ziozkan. Laugarrean eguzkia, illargia eta izarrak egin zituen, argi-egin zezaten, eta oien ibillietatik egunak eta gauak, asteak, illak eta urteak zuzendu zitezten. Bostgarrean Jainkoa gauza bizi gabekoetatik bizikoretara igaro zan; urai arraiak emanerazo ziezten: eta egun berean aireko egazti guziak ere egin zituen, eta nork bere antzekoa sortzeko indarra eman zien. Seigarrean lurrari agindu zion, abere eta lur-gañean dabil-tzan beste bizikari guziak eman zitzala, oiei ere beren gisa, edo antzekoak sortzeko eskua emanik.

Seigarren egun onetan egin ere zuen gizona, bere lanen atzena, eta guzietan beteena, zeñarentzat osterontzeko guziak egin zituen, eta doaitsuena, bere Egillea ezagutzeko eta maitatzeko gai, bera bakarrik dalako. Lur zati bat artu, eta gorputza moldatu zuen; eta anima edo espiritu uts bat ezer-ezetik sorturik, gorputzari erantsi zion, eta gizona egiña gelditu zan.

Zazpigarrean Jainkoak ezer egiteari utzi zion, edo atsedean zuen.

Ona emen, itz bitan, munduaren egitea, eta asiera. Egite, eta asiera miragarria! *Zerua egin bedi*, Jainkoak dio, eta zerua egiten da. *Lurra egin bedi*, Jainkoak dio, eta lurra egiten da. *Egin bedi* indartsua! bada, onen bitartez zeru-lurrak, eta oietan diran gauza guziak sortzen dira. O Jainkoaren esku altsua, eta gizonen biotzak beretu bear litukeana!

Eskritura Santak, munduaren asieraren gañean itzegitean, ezdigu aingeruen aitamenik egiten; baña Elizaren guraso santuen iritzian, *argia egin bedi*, Jainkoak esan zuenean, espiritu oiek sortuak dira. Aingeruak, Jainkoak egin zituenean, onak ziran, eta batzuek beti onean iraun zuten; baña besteak, Jainkoa bera bezala izan nai izan ziralako, gaiztotu ziran, eta

Jainkoak infernuko su-leizean, Luzifer buru zutela, ondatu zituen. Jainkoak ordutik, aingeruak bezain izate eder eta doaitsuai emandako ain kastingu latz, eta gogorrarekin erakutsi zigun, arrokeria edo andiustea zein gaizki artzen duen.

### 2. Adan lenengo gizona lurreko Paradisuan ipiña

Jainkoak zerua, lurra, itsasoa, eta beste gauza guziak ezer-ezetik atera, eta gizona bere antzera egin zuenean, *Paradisua* zeritzan lorategi edo baratza eder batean ipiñi zuen. Leku zoragarri onetan Adani Jainkoak atsegin-kontentuzko gauza guziak eskura eman ziozkan. Emen zorion guzian, eta neke gabe egongo zan, Jainkoak zerura aldatu bear zuen bitartean. Baña bere leialtasuna zenbaterañoa zan, ikusi nai izan zuen. Baratza onetan zuaitz edo arbola frutadun gozo ederren guziak arkitzen ziran, eta erdi-erdian bat, ona eta gaitzaren jakinduriako arbola zeritzana. Beste guzien frutak jateko eskubidea eman zion, baña erdiko onenik jatea zorrotz debekatu zion, esanaz, baldin debeku au austen bazuen, bertatik eriotz-pean jarriko zala. Gero abere guziak aurrean ipiñi ziozkan, nori bere izena emateko, eta Adanek guziaz zegokienarekin deitu zien.

Adanek biderik asko bazuen, bere Egille andiari leial izateko; Jaun eta Jabetzat ezagutzeko; atsegiñik gozoena aren mendean egoten zuela, adierazteko; eta zan guzia argandik zetorkiola, aitortzeko; baña itsutu zan, eta bere ondorengoan galmena ekarri zuen.

Adan Paradisuan bakarrik, eta bere antzeko iñor gabe zegoan, eta lo pisu batek artu zuen. Lo onetan zetzala, Jainkoak saiets-ezur bat atera zion, onen lekua aragiz beterik; eta ezur onekin lenengo emakumea egin zuen. Adan esnatu zanean, Jainkoak begietan ipiñi zion, eta ikusitakoan, esan zuen; au nere ezurren ezurra, eta aragiaren aragia da; etorkizunean gizonak bere emazteagatik ait-amak utziko ditu, eta biak ezdira aragi bat baizik izango. Gero emakume oni Adanek deitu zion *Eba*. Jainkoak au ere doai eta bertute eder guziakin janzi zuen, baña Adani bezala, oni ere debekatu zion, izentatutako arbolatik jatea. Ara emen munduan lenengo izan zan ezkontza, eta gizon guzien iturburu, eta sustraia.



### 3. Adanen erorikoa

Adan, eta Eba Paradisuko naikera, eta atsegiñak gozatzen asi ziran bezain laster, etsaiak kriptura bi aien leialtasunari ekin zion; aien erru-eza edo inozenziari eraso zion. Bera espiritu utsa izanik, urgulleri edo arroke-riak galdu zuen: eta Adan, eta Eba lurrez eginak, Jainkoaren serbitzari, bera izan zan baño, leialagoak izatea ezin eraman zuen; argatik artu zuen berai gerra emateko, eta lenbiziko gurasoetan oien ondore, eta etorkin guzia galtzeko asmoa. Onetarako, suge pistirik sotillenez baliatu zan. Emazteagandik asi zan, au irabazten, errazago zala, uste bide zuelako. Zergatik, etsaiak sugerean aotik esan zion, zergatik Jainkoak agindu dizute Paradisuko arbolatik ez jateko? Ebak Jainkoari zor zion leialtasuna oso agertzeko, pozonizko galde oni belarriak itxi bearrean, erantzun zion, esanaz; Paradisuko arbolaen fruta mota guziak jaten ditugu; baño erdian dagoan arbolatik jatea, eta ukitzea debekatu digu, il ez gaitezen. Etzerate, ez, illko, etsaiak esan zion; Jainkoak badaki, fruta hura jaten dezuten egun beretik, zuen begiak zabalduko dirala, eta Jainkoaren parekoak, eta ona eta gaitza dakizutenak izango zeratela.

Ebak fruta debekatuari begiratu zion, eta ikusirik, txit ederra, eta jateko ona zala, eskua luzatu zion, eta jan zuen: berebat artu, senarrari eman, eta oni ere janerazo zion. Jan zorigaiztokoa! mokadu negargarri, ainbeste ondamen ekarri zuena! Bereala bai begiak zabaldu zitzaiezen, ez ona eta gaitza, etsaiak eskeñi izan zien bezala, ikusteko; ezpada beren gaiztakeriarekin ekarri zituzten kalte, eta ondamenak ezagutzeko. Beren buruak billosak edo larrugorrian ikusi, eta lotsatu ziran; eta lotsagarri au kendu naiez, piku-ondo batera joan, eta piku-ostoz gorputzak estali zituzten.

Adanen aldi onetako argaltasuna andia zan, bai; Jaunaren aginduak baño, emaztearen esanak indar geiago egin zion; eta debeku estu hura autsi naiago izan zuen, emazteari atsekaberik eman baño. Ordukoa da, Santuak ezin esan-alakoa deitzen dioten, bekatua; ordukoa da, ainbeste kalte ekarri zituena; ordukoa da, ondorengo jatorri guzia mendean artu zuen, bekatua; Adanen hume guziaz eriotza ematen diena, eta gizona deabruaren azpiko egiten duena.

### 4. Adanen kastigua

Adan eta Eba bereala asi ziran beren eroriko kaltarkitsua ezagutzen, billosik ikusi ziranean: etzuten, alabañan, beren billostasuna ikusten, arte-

raño erru edo kulpa gabeak ziralako. Aingeruen garbitasuna bera zeuka; aien gorputzak espirituaren mendean zeuden; gaitzik gogoan etzuten: argatik, erori orduko, lotsatu ziran, eta gorputzak piku-ostoz estali zituzten. Andik laster Adan eta Eba Paradisuko baratzen Jainkoaren otsa entzun zuten; baño onekin, lenago bezala, poztu bearrean iges-egin nai izan zuten, eta beren buruak gordetzera egin zuten. Non zera? Jainkoak Adani galdetu zion. Adanek erantzun zion, etzala agertzera benturatzen, larrugorrian zegoalako. Jainkoak bere desobediencia arpegira eman zion, eta esan ere bai, bere billostasuna bekatu ark ezagutuerazo ziola. Adanek lanbide gaizto artatik garbitu naiez, gaizki-egiña emazteari ezarri zion, esanaz, fruta debekatua onegandik artu zuela. Orduan Jainkoak emazteari galdetu zion, zertako ori egin dezu? Au ere orobat garbitu nai izan zan, sugeari errua egotzirik; eta erantzun zion; sugeak engañatu, eta jan nuen; baño onelako apuko eta aitzakiak Jainkoaren aurrean ezer balio etzuten, bere lege santa ain argiro bein autsi ezker. Jainkoak sugea lenengo mada-rikatu zuen, oker aren iturburua zalako, esanaz; sabelaren gañean arrastaka ibilliko aiz, eta ere bizi guzian lurra jango den. Esan ere zion, emakumea engañatu zuen bezala, berari ere emakumeak burua noizbait lertuko ziola. Gero bere epai edo sententzia bi errudun aien kontra eman zuen; esan zien, zer kastiguak beretu zituzten, zeintzuek orain ere guban badi-raute. Aurrena emazteari esan zion; oñaze eta arazoak askotu edo ugari-tuko dizkizut; miñez aurrak egingo dituzu; gizonaren mendeko izango zera, eta onek aginduko dizu. Bereala Adani ere esan zion, Jainkoaren otsari baño emaztearen esanari obeto jarraitu zitzaion ezker, lurra neketakoa izango zuela; elorrilarrak emango ziozkala; eta kopetako izerdiarekin ogia jango zuela, irten zan lur berera itzuli arteraño; zeren, esan zion, autsa zeran, eta auts biurtuko zeran. Jainkoak epai ikaragarri oiek eman, eta gero, abere-larruzko soñeko batzuekin Adan eta Eba janzirik, atsegiñezko leku Paradisu eder artatik kanpora bota zituen. Bereala Paradisuko atean Kerubin bat suzko ezpatarekin ipiñi zuen, biziaren arbolari kontu artzen.

Ona, bada, naikunde, eta atsegin guzien leku artatik gure lenengo gurasoak nola irten ziran, beste nonbait negar-malkorik samiñenak beren gaizki-egin zorigaiztokoagatik isurtzeko. Ordu hura ezker lurrak aientzat sastrakak baiziz etzuen, alde guzietatik bekatuaren siñale negargarriak, eta kastigu miñak agertzen zitzaiezen; orañago zeuzkaten ondasun ezin esan-alakoaz oroitzen ziran; eta beren leialtasun eskasak ekarri ziezten neke eta gaitzak non-nai ikusten zituzten: izaera batetik besterako desberdintza ezagutzen zuten; eta naigaberik andiena onek ematen zien. Eta



berak galtzeaz gañera, ondorengo guziak ere ondatu, eta eriotz-pean ipiñi zituztela, baziakiten. Oroipen onek bi guraso aien biotzak illuntzen zituen; baña Jainko errukitsua kupitu zan, eta adierazo zien, munduak bere Zuzentzalle, eta Salbatzallea izango zuela, eta uste onekin, aien biotz illak poztu ziran; beren bekatuagatik negar egin zuten, Jainkoak barkatu zien, eta bere adiskidetasunera artu zituen. Geroko egunak, neke artean, eta izerdiarekin koipetutako ogia janaz, munduan egin zituzten. Bizitza luzea izan zuten; bada, Adan bederatzi eun, eta ogeita amar urtean bizi izan zan; eta biak Jaunaren grazian il ziran.

## 5. Abelen eriotza

Adanen bekatuak laster erroak eman zituen. Adan eta Ebak, bekatu egin ezkerio izan zituzten seme-alabaetatik lenengoa Cain zan, eta bigarrena Abel. Abel artzaia, eta Cain nekazaria ziran. Biak Jainkoari eskeñi edo ofrendak egiten ziozkaten, baña Jainkoak Abelenak, bai, eta Cainenak etzituen ontzat artzen, Abelek bildotsik obenak, eta gizenenak eskeñtzen ziozkalako: eta Caineak, berriz, bere abuztuetatik gitxi bat, eta au ere gogo gabe ematen ziolako. Gertakari onek Caini bere anaia Abelganako gorroto eta iguin bizia sortu zion, eta galtzeko asmoa artu zuen. Cainen pozoña Jainkoak ezaguturik, eta bere sustraiean sendatu naiez, esan zion, zergatik aserretzen zera, eta bekokia illuntzen dezu? Oraindik esan zion, ona egiten bazuen, bere saria izango zuela; bestela, berak bere gaiztakeriaren kastigua eramango zuela. Baña, ezin ikusia sartuta dagoan biotzarentzat ondo-esanak alperrik dira: zenbat geiago esan, ainbat aren indarra goragotzen da.

Jainkoaren deiak baño, Abelen ezin eramank ematen zion damuak, Cainen biotzean geiago zezakean. Goazen kanpora, Caineak Abeli esan zion egurastu bat artzeko aitzakiarekin, baña bere gogo gaiztoa gordeta. Abel, berez paketsua, eta gaitz gabea izanik, gaitz-pensatu etzuen, eta alako asmo galdurik bere anaiagan uste izan gabe, jarraitu zitzaion. Etxetik zerbait aldegin zutenean, Caineak, bere anaiaren kontra altxatu, eta Abel il zuen. Lenbiziko odol-isurtze au egin, eta bereala Jainkoak Caini otsegin zion Anaia Abel non dezu? Ezdakit, Caineak eranzun zion. Zer bada? Ni nere anaiaren kontu-artzallea naiz, onen berriak emateko? Zer egin dezu? Berriz esan zion; zure anaiaren odola lurretik deadarrez dago-kit. Jainkoak bere aserre bidezkoa agertu zion, esanaz; anaiaren odolare-

kin loitu zuen lurrean madarikatua izango zala, eta bizi-leku jakin gabeko arrotz bezala, eta beti igesi ibilli bearko zala. Cain, bada, bere biotzeko arra ezin kendu, eta eramank, gurasoen etxetik irten, eta Edendik kanpoan, eguzkiaren sort-aldeko bazter batean bizi izan zan, arreba batekin, arteraño emakume atzeagorik munduan etzalako, ezkondua; eta ondore txit biurri eta gaiztoaren guraso eta aiton izan zan. Jainkoak ordutik erakutsi zigun, bera dala erru gabekoai egiten zaiezen bidegabekeriaren ordaintzalle eta kastigatzallea.

Adanek, Abel illa, eta Cain igesi joan zitzaionaz gañera, Seth zeritzan beste seme bat izan zuen. Onen ondorengoak luzaro Jainkoaren bildur andian bizi izan ziran; baña Cainen ondorengo neskatx ederrai on-iritzita, ezkontzaz nastu ziranean, gaiztotzen asi ziran. Gizonak munduan zabaltzen ziran eran, gaiztakeria ere berekin zeramaten, alako moduan, non, gizona sortua eta egiña Jainkoari damutu zitzaion, zeren mundu guzia gaiztakeria eta bekatuz betea ikusten zuen. Geroean gizona eta onekin batean lurreko bizikor edo bizidun guziak ondatzeko asmoa artu zuen; baña mundu galdu onetan arkitu zuen Noe zeritzan erru gabeko gizon zuzen bat, zeñari begiratuta, bizidun guzietakoak gorde zituen, gero mundua berriz ere beren antzekoakin bete zezaten.

Munduaren asieratik, ugolde izugarri baten bitartez ondamen au egin zaneraño, milla, eta sei eun, berrogeita amasei urte igaro ziran. Denbora onetan, Adangandik Noegana amar belaun edo gizaldi izan ziran, guziak urte asko munduan egin zutenak. Ara zenbat.

Adanek, 930 urte egin zituen.

Sethek, 912.

Enosek, 905.

Cainanek, 910.

Malaleelek, 895.

Jaredek, 962.

Henochek, 365.

Matusalenek, 969.

Lamethek, 777, eta

Noek, 950.

Eskritura Santak ez digu esaten, orduko gizonak zergatik ainbeste urtean bizi izaten ziran; baña Erakusleak zenbait argibide gai onetan ematen dizkigute. Lenengo; mundua, Jainkoak ezer-ezetik egin, eta ainbeste gauza on ederrekin janzi ezkerio, giza-seme-eske zegoan; eta lendabiziko gizonak luzaro bizitza on zan, lenbaitlen bizilariz bete zedin. Bigarren-eko; lurra berri eta garbia zegoan; ugoldeak gero utzi zion koipe gaiztorik



etzeukan; eta ematen zituen jan-gauza guziak gaitz gabeko osasuntsuak ziran; eta oiek janaz batetik, eta aragi-gauza sendo, eta ardo gabe bestetik bizi ziran gizonak berandu zartzea eta erortzea, etzan zer miretsi. Irugarren, denbora aietan etzan eskribatzen, eta mundu asi-berriaren, eta are geroko berriak ondorengoai emateko eta gogoan obeto idukitzeko, ezin bide obeagorik, aitonak seme, illoba, eta oien humeen humeakin itzegitea baño. Adan berreun eta berrogeita bi urtean Matusalen seigarren oñeko illobarekin bizi izan zan. Matusalen bere illoba Noerekin seieun urtean. Argatik Noek mundu asi-berriaren gauzak jakiteko, etzeukan Matusalen bere aitonari aditu baizik, eta onek eman ziozkan, Adani ikasitako eran, eta berri aiek guziak gurasoetatik semeetara onela aldatuaz, luzaro, eskribuz ezarri artean, gorde ziran.

## BIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Noeren kutxa edo ontzia

Jainkoak, gizonen gaiztakeria ezin eraman-alako muga gabea, eta mundu guzia loikerian sartua, eta kutsutua zegoala ikusirik, orañago esan dan bezala, oso garbitzea erabaki zuenean, Noe gizon on eta serbitzari leialari esan zion, zer asmo zuen; baño bere ontasan eta zuzentasunagatik Noe berari, ondamen ark etziola ukituko, eta gordeko zuela. Onetarako agindu zion, kutxa, arka edo ontzi zurezko, kanpotik eta barrutik betunez igortzia, egin zezala. Zer neurri, eta gisakoa izan bear zan, erakutsi zion. Noek kutxa au egiten, urte asko igaro zituen. Bitarte onetan gizonak baziakiten zertako zan, eta guziak ondatzera zetorren ugoldea edo dilubioa zerk zekarren: baño onduaz Jainkoaren eskua atzeratu bearrean, beren gaiztakerian aurrera zijozzen; eta Jainkoaren esan, eta keñadarik etzuten ezertan artzen. Jainkoa kastigurako baño barkaziorako prestago zegoan, aien aldetik zerbait damutasun ikusi ezker; baño dei ondonaezko guziak alperrik ziran, eta merezi zuten zigorrada latza erori zitzairen.

Jainkoak agindu guzia Noek egin, eta kutxa bukatu zuenean, barrunen egongo ziran egunetarako bear ziran janariakin bete zuen: ugoldea asi zan aurreko zazpi egunetan kutxan sartu zituen abere edo animali-mota guziak, bakoitzetik pare bat, ar-emeak; eta Jaunari sakrifizioan eskeñtzen zitzaiozkan abere garbietatik, iru pareatu aldi, eta bat bakarkea edo laguntzaka. Lan au berez nekeza badirudi ere, Jainkoak erraztu zion, kutxaren ate-aurrean guziak ipiñita. Noe atzenean, bere iru seme Sem, Cam, eta Jafet, eta lauren emazteekin kutxan sartu zan, eta urik sartu etzekion, Jainkoak kutxako atea itxi zion.

Noe bereakin kutxan sartu zaneke, euri-jasa izugarri batek eraso zion, eta berrogei egun, eta berrogei gauean atertu gabe iraun zuen. Eurir oiek bazter guzietara zabaldu ziran, eta mundua osotoro bete zuten. Mendirik altuenak ere zazpi kana, eta erdiz gorago estali ziran. Gizonak, lurreko abere eta pistiak, aireko egaztiak, guziak itz batean, ugolde izugarri artan galdu eta ondatu ziran. Kutxan gordeai bakar bakarrik bizi utzi zitzairen, denboraz mundua berriro bete zezaten.

Berrogei egunen buruan aterrunea agertu zan, baño eunda berrogeita amar egunean urak gora-beerarik egin gabe, mundu guzia estaltzen



zutela, iraun zuten. Egun oiek igarotakoan, aize andi bat irten, eta urak piskaka beeratzen asi ziran. Emendik larogeita zazpigarren egunean *Ara-  
rat* zeritzan Armeniako mendi gañean kutxa gelditu zan. Amar illabeteren buruan mendi-tontorrek agertu ziran. Onela berrogei egun igarotakoan Noek kutxaren leio bat idikita, belea bialdu zuen, eta etzitzaion itzuli. Gero usoa bialdu zuen, eta non oña ipiñirik arkitu bide etzuelako, kutxara biurtu zan. Andik zazpi egu era berriz ere usoa bialdu zuen, eta olibo-  
adar-osto berde-duna mokoan zuela itzuli zan. Orduan Noek ezagutu zuen, urak beeratu zirala; ala ere beste zazpi egunean itxedon zuen, eta irugarren aldian usoa bialdurik, etzitzaion geiago etorri.

Noek ikusi zuenean urak beren lekura joan, eta mundua txukatu zala, kutxan sartu zanetik urte betera, bere emazte, iru seme, eta iru errañakin irten zan; lurreko eta aireko bizikor, kutxan iduki zituen guziak, berekin atera zituen, eta nor bere erara munduan zabaldu ziran. Kutxatik irten, eta lurreean jarri zanean, aldare bat egin, eta abere garbi zazpigarren banaka pareatu gabe aiek Jainkoari ofrendan eskeñi ziozkan, beraren esku oparotik artu zituen mesede andiakgatik esker onak emateko, eta bere aitormena erakusteko.

Jainkoak ofrenda hura txit onetsi edo estimatu zion, eta esan ere bai, gizonakgatik etzuela berriz mundua madarikatuko: mundua mundu dan artean ereite-itaiteak, otz-beroak, uda-neguak, gau-egunak elkarri jarraituko zitzaiztela. Gero Noe, bere emaztea, eta oien iru seme-errañak bedeinkatu zituen, eta esan zien, semeak sortu, ugaritu, eta mundua giza-kumez bete zezatela. Kutxan egondako abere, pisti eta egaztiak oien mendean ipiñi zituen, eta Noeri esan zion, gogoak ziona, oiekin egin zezala; bada bere mendekoak zituela. Atzenean, igaro zuten ondamen latzik berriz ikusteko bildur gabe, lenagokoan bizirik gelditu ziran zortzi lagun aiek egon zitezen, Jainkoak esan zien, etzuela ugolderik geiago lurrera bialduko, eta bere itzaren sinisgarritzat ostrellaka eman zien, esanaz, zerua odeiez estaltzen danean, ostrellaka agertuko da, eta zuekin egin dedan batasunaz, orduan oroituko naiz.

## 2. Noeren mastia

Jainkoak, mundua gizakumez betetzeko, esan dan gisan, gorde zituen Noeren iru semeen artean bat izan zan, bere aitaren eta Jainkoaren madarikazioa bereganatu zuena. Ara nola. Noe kutxatik irten zanean,

nekazaritzari eman zitzaion, lenengo bekatua gizonak egin zuenean, kopetako izerdiarekin ogia jateko eman zion epaia betetzeko; baña laster ezagutu zuen, lurra elkorragoa, eta lenago bezain gozoa eta ugaria etzala. Ala ere, bere lanari etzion utzi. Beste gauza askoren artean masti bat ipiñi zuen. Gizon justu ark etzuen, noski, ardoaren indarririk ezagutzen; matsari zumua kendu, edan, orditu, eta loak artu zuen. Cam bere bigarren semea, lo zetzan lekura joan zitzaion, eta onestasanari ezdagokion erdi-agerian ikusi zuenean, estali bearrean, irten eta farra-irrian beste anaiari esan zien, aita nola zetzan; baña oiek albista onekin lotsaturik, kapa bat artu, eta begiak alboronz zituztela joan, eta begiratu ere gabe estali zuten.

Noek, esnatu, eta jakin zuenean, Camek zer egin zion, bere madarikazioa bota zion, ez bere buruan Cami kutxatik irten ondoan, Jainkoak bedeinkatua izan zalako, ezpada Camen laugarren seme Canaani; eta esan zion beste anaiaren mendeko izan bearko zala. Gero Sem eta Jafet bedeinkatu zituen, eta adierazo zien, zer etorkizun andi zorigaiztoko, eta bukaera negargarriaren begira zeuden; zeintzuek denborarekin munduan, gero aitaturiko dan bezala, ikusi izan ziran. Sem eta Jafetek Jainkoaren bedeinkazioa, Camek madarikazioa bezala, beretu zuten, gurasoa onratzen, eta onen argaltasuna estaltzen jakin zutelako; zeñak erakusten digute, zer begirune edo errespeto gurasoai zor diegun, eta zein bildurgarria dan gurasoai farra egitea, eta naigabeak ematea.

## 3. Babelko Dorrea

Noeren humeak zabalduaz zijozzen: eta eun urteren buruan ainbeste askotu edo ugaritu ziran, non elkargandik aldegin, banakatu, eta nor bere bazter jakinñean bizitu bearrean arkitu ziran. Ordea lanbide oni burueman baño lenago, elkarri esan zioten: Ots, uri bat egin dezagun, eta uri onetan zerurañoko Dorre bat, gure izena mundua mundu dan artean gordeko duena. Lanbide onetan ogeita hamar urte igaro zituzten; eta Jainkoak oien arrokeria beeratu naiez, arteraño guziak izan zuten itzkuntza bakarra, bat batetan nastu, eta batak besteari ezin adierazoz ipiñi zituen, eta lanari laga bearrean arkitu ziran; argatik uriari deitu zioten *Babilonia*, eta Dorreari *Babel*-koa, zeñak esan nai dute *nasmena* edo *naspilla*.

Denbora onetan etxejaun edo familiaetako buruak irurogeita hamar ziran; zeintzuetatik bakoitzari bere itzkuntza berezi bestek etziekiena Jainkoak eman zien, eta beren arrokieriarekin beretu zuten elkar ezin aditua



ikusirik, or-emen, mundu guzira, nor bere etxeoakin, uste baño ere lenago, zabaldu bearrean arkitu ziran, eta ogia irabazteko bidea guziak sakabanatuta, artu zuten.

Eskritura santak ez digu esaten irurogeita amar itzkuntza oiek zein ziran, baña jakintsuen iritzian oietatik bat gure Euskera zan. Tubal, Noeren billoba, edo Noeren seme Jafeten semea bere etxeoakin etorri zan munduaren alderdi au gizakumez betetzera, eta Españan lur-egin zue-nean, itzkuntza au emen sartu zan, eta geroz badirau, len Erreinu guzian bezala, orain bazter menditsu oietan baizik gordetzen ez bada ere.

Noek bere hume, eta ondorengoan banakatze au ikusi zuen; baita ugoldea mundura erakarri zuen gaiztakeria berriz ere gizonetan sartu zala, eta bere atzeneko urteetan min onekin bizi izan zan, eta bederatzi eun, eta berrogeita amar urtekoa il zan, Jainkoa bere egunetan leialkiro serbituta. Bere aitona Adan, eta beste Patriarkak landu eta erabili zuten lur-bazter-raren jaun eta jabetzat bere seme Sem utzi zuen.

## IRUGARREN IRAKURGAIA

### 1. Abranen deia

Semek ere munduan sei eun urte egin zituen, eta bitarte onetan hume eta humeen hume asko ezagutu zituen. Oien artean batzuek gaizto-biurriak izan baziran ere, asko txit on-kontuzkoak, eta Jainko egiazkoaren sinismena, eta ezaguera-dunak ziran. Oiek, Jainkoak biotzera emandako berezko argiak edo *lege naturalak* erakusten ziena egiñaz, bizitutzen ziran. Oietan Jainkoak besterik ez bezalako bat arkitu zuen, *Abran* zeritzana, Tareren semea, eta Noeren billoba amaikagarren belauneko; zeña ugoldea izan zanetik irureun eta berrogeita amaikagarren urtean *Ur* zeritzan Kaldearren Urian, jaiio zan.

Abran au, bada, bere emazte Sarairekin Mesopotamian bizi zala, Jainkoak bere asmoak agertu ziozkan, eta itzegin zion onela; zere erri eta etxetik bereala irten zaite, eta nik erakutsiko dizudan lekura atoz; ezin esan al-adiña jenderen guraso eta aitona egingo zaitut; eta zure izena ots andikoa izango da; eta lurrean sortuko diran jende guziak zugaran bedekatuko ditut: esan balio bezala, munduaren Salbatzallea zure odoletik jaioko da.

Jainkoaren ots oni leialkiro erantzunda, Abran bere emazte Sarai, eta illoba Lot, berekin zituela, gauza guziak utzirik, etxetik irten zan. Jainkoak bereala adierazo zion, Canaango lurra zala, arentzat aututa zeukana. Bazter au zan Adan, eta ondorengo Patriarkak bizi izan zirana, eta munduan lekurik eder eta gizenena. Bidean egun asko egiñik, Abran lur onetan sartu, eta Sikeneron joan zan. Jainkoa berriz ere agertu zitzaion, eta esan zion; lur au zure ondorengoai emango diet. Bere Jaunari eskerrak emateko aldare bat egin, eta ofrendak eskeñi ziozkan. Emen zebillela, gosete andi bat sortu, eta Egiptoronz jatsi bearrean arkitu zan: baña Erreinu onetara alderatu zanean, bildurraz artu zuen, eta emazteari esan zion; badakit emakume ederra zerala, eta Ijitoak ikusten zaituztenean, esango dute; onen emaztea da; ni il, eta zu gordeko zaituzte; esan ezazu, arren, nere arreba zerala, nik gaitzik izan ezdezadan, eta zugatik bizirik gelditu nadin. Abranek itzketa onekin etzuen gezurrik esan, zeren Hebrearren artean aide urrenai anai-arrebak deitzen zitzairen; eta badira diotenak, Sarai Abranen illoba zala; baitaere Abran eta Sarai ama biren humeak





baziran ere, aita bat zutela, eta sabel batekoak ez izan ezkerro, ezkondu zitezkean; beintzat, jakintsu askok diote, artarako baimena Jainkoak eman izango ziela, ain ondore gogoangarria izateko aututa zeuden bi guraso aiei.

Esan eta egin; Abran Ejipton sartu zaneko, Sarairi begia ezarri zioten, eta bere edertasun andiari on-iritzirik, Faraoni (zeña zan Ejiptoko Erregeen izena) adierazo zioten, nola emakume eder bat agertu zan, eta bereala aurkeztu zioten, ezkondu zedin. Jainkoak Sarairen garbitasuna zaintzen zuen, eta Ijitoak artutako asmoa etzan egin. Erregiñatzako autuak ziran neskatz gazteak, sei illabetean usan-belar, eta olio gozoz igortziaz iduki oi zituzten, ederrago egin zitezen. Sarai ere, artarako zeukaten lekuan ipiñi zuten; eta Abran bitarte onetan naikera guzian bizi zan, iñork gaitzik egin, ez ezik, ondasun andiak ematen ziozkatela, Sarairen anaia zalakoan.

Denbora onetan Faraoni eta bere etxeari zauri eta neke andiak Sarai-gatik sortu zitzaiezen; eta Faraonek gaitz aien iturriaren aztarna eta zantzua nonbait izan zuen; eta Abrani otsegin, eta esan zion, zer egin didazu? Zergatik esan ez didazu, Sarai zure emaztea zala? Zertako esan zidazun, arreba zenduela, berri onekin, nik nere emaztetzat artzeko, niri biderik eman gabe? Ots, bada, zere emaztea dalako ori ar-ezazu, eta zoaz emendik: eta laguntzalleak emanik, bere gauza guziakin bialdu zuen.

Faraonek, Jainko egiazkoaren aitormen gabea bazan ere, ezagutzen zuen, iñoren emaztearekin kutsutzea zein itsusi dan; argatik Abrani ainbeste espa agertu ziozkan, Sarai emaztea zuela, lenengotik esan etziolako. Abran, bada, aberastasun andiakin Ejiptotik irten, eta bere bazterrerantz itzuli zan; eta Ejipton artutako mesedeen oroipenean, lenagoko aldarean Jaunari ofrenda berriak egin ziozkan.

Ikusi degu, Abran, Jainkoak agindu zion lekura, bere gauza guziak utzi, eta bere nai guzia Jaunaren eskuan ipiñi, eta joan zala. Bada, Jainkoak obediencia itsu au ordain askorekin saristatu zion; onela erakusten digula, Jainkoaren izenean artutako nekeak ez dirala aztuak izango.

## 2. Abran, eta Loten banakatzea

Abran, Sarai, eta Lot beren gauza guziakin Kanaango lurrera itzuli ziranean, lurra landu, eta abereak larreatuaz bizimodua ateratzen asi ziran. Jainkoak osaba-illobai emandako ondasunak, batezere abereak,

asko eta andiak ziran, eta elkarrekin bazkatu ezinean laster arkitu ziran. Lanbide onegatik Abran eta Loten artzaien artean despita eta elea batzuek sortu ziran: eta oiei lenengotik ateak itxi naiez, Lot illobari Abranek esan zion; ezda zure eta nere artean itz-trukatzerik bear, ez eta gure artzaietan ere; bada senideak gera: banakatu gaitezen: orra bazter guziak aukeran: zu ezkerretera bazoaz, ni eskuirantz noa, eta zuk eskuia aututzen badezu, ni ezkerreterantz joango naiz. Lotek bazter guziaz begiratu, eta Jordango ibar zabal, begien zoragarria zan leku ederra beretzat artu, eta osabagandik aldegin zuen: eta artzaiak beren abereakin ibarrean ipiñirik, bera Sodoman jarri zan. Abran bereakin Kanaanen gelditu zan.

Abranek bere illoba uztea txit min eta damu zuen; baña baziakien, mirabeen artean sortutako despita eta ezdabaidak, indar artu ezkerro, nagusietarako zirala; argatik gizon zuzen, Jaunaren bildurreko, eta etorkizun gaiztoai bideak ebaki nai zieztenak bezala, Loti bere gogoia agertu zion.

Lotek osabagangik aldegin, eta laster Jainkoa Abrani agertu zitzaion, eta esan zion, begietan zeukan bazter eder hura berari, eta bere ondorengoai emango ziela; eta beste eskeñi asko eta andiak ere egin ziozkan. Gero andik Manbreko ibarrera aldatu zan, eta sei urte buruauste andirik gabe igaro zituen, zeren etzeko guziak bere ontasun, eta erakutsi onarekin aziak zeuzkan, eta etzioten atsekaberik ematen. Baña laster ikusi zuen, bere osaba onagandik illobak aldegitia, eta zer egiten zuen ondo begiratu gabe, Sodoma, gizonik gaiztoenak berekin zeuzkana, bizilekutzat artzea, Lotentzat zein kaltarkitsua izan zan.

## 3. Lot katibu erori, eta Abranek libratzen du

Bazter aietako Erregeak zerbaiten gañean elkarren arteko despita artu, eta nor berearekin irten naiez, alde batetik lau Errege jarri ziran, eta bestetik bost, eta oien artean Sodomakoa. Lau aiek bostai eraso zietenean, oiek ere arpegi eman nai izan zieten; baña Sodoma, eta Gomorrakoak, noski, ikaraturik, itzultzera egin bide zuten, eta bertan erori ziran, eta beste irurak mendira iges-egin zuten. Garailariak Sodoma, eta Gomorran sartu, zegoan guzia artu, eta beren tokira biurtu ziran; eta beste askoren artean Lot ere katibu eraman zuten.

Ondamen onetatik iges-egin zuen batek, Loten berri mingarri au Abrani eraman zion; eta irurenda emezortzi serbitzari indartsu eta bular-



detsuenak arturik, lau Errege garailariai gogor egiteko asmoan, bidera irten zitzairen. Sikengo ondoan atzitu zituen, eta alakorik uste etzutela zeuden lekuan, itsumustuan sartu, eta eraso zien, eta batzuek il, eta besteak igesi bialdu zituen. Zeramazkiten katibu eta ondasun guziak kendu ziezten, eta bere illoba Lot ere bere gauzakin libratu zuen. Berri gogoangarri au barreatu zanean bereala, Sodomako Errege berri, erasoan il zana-ren semea, aurkeztu zitzaion, bere esker onak eman, eta eskuerakutsiak egitera.

Sodomako Erregearen arera onek Abrani poz eta atsegin andia eman zion: baña are andiagoa izan zuen Salengo Errege Melkisedekek egin zionarekin. Salengo Errege au denbora berean Jainkoaren Apaiza zan; zeñak Jainkoari ogia eta ardoa ofrendaturik, Abran bedekinkatu zuen; eta Abranek bedekinkazio au begirune guziarekin artu, eta Jaunari bere gauza guzien amarrena eskeñi zion; onekin erakusten zuela, Jainkoaren eskuetatik artutako mesedeai ondo erantzuten, zein leialak izan bear geran. Elizako gurasoak Melkisedek au, millata bederatziz eun urtez lenago Jesu Kristo gure Jauna siñale agerikoakin adierazo zuen iduri egiazko- enekotzat daukate.

Melkisedekin Abranen arteko lanbidea bukatu zanean bereala, Sodomako Erregea sartu zan, eta Abrani esan zion, etsaiaren eskuetatik libratu zituen personak emateko, eta gauza guziak beretzat gorde zitzaia; baña etzuen ezer ere artu nai izan, eta Errege aiek, nor bere gauzakin gelditu ziran.

#### 4. Agar-ekin Abranen ezkontza

Denbora onetan Abranek humerik etzuen. Berak eta bere emazteak gogoan zeukaten, Abranen ondorengoak itsasoko areak baño ugariagoak izango zirala, Jainkoak eman izan zien ustea: baña Sarai zarra, eta aurrak izateko urteetan igarora zan; eta Saraik bere eziñari begiraturik, senarrari esan zion, etxean zeukaten neskatx Ijito Agar-ekin ezkondu zedilla.

Irakurleen jakinutarako emen esan bear da, gizonak emazte bat baik ez izateko legea munduaren asieratik ipiñia dala. Ugoldea bitarteko milla eta geiago urtean lege au bere indarrean egon zan: baña ugolde ondoan, nai zuenak emazte bat baño geiago idukitzeko eskua Jainkoak eman zuen; dirudienez, mundua berriro jendez lenbaitlen betetzeagatik. Eskubide edo baimen onen bidez, dakusku, Abran, eta Jakob Patriarka

guziz santuak ere emazte bi edo geiago izan zituztela. Gero ere askok au bera egin zuten, Jesu Kristo gure Jaunak, munduaren asieran bezala, nork bere bat baik ez izateko legea bere oñera itzuli zuen arteraño.

Saraiaren esanari on-iritzita, Jaunaren promesa betetzeko bere odoloko bat utzi naiez, Abran Agar-ekin ezkondu zan: baña on-bearrez artu zuen langai onek laster bere naigabe eta buruausteak eman ziozkan. Agar, nagusiak batetik onela onratuta, eta bestetik aurdun edo gorputz katibua- rekin zegoala, ezagutu zuenean, ezin geiago arrotu zan, eta serbitzari eta mendeko bat zala azturik, asi zan asko iseka eta farra Sarairi, bere agortasun edo aurrak-eza arpegian emanaz, egiten. Onek ezin zituen Agar-en lotsagabekeriak eraman; eta senarrari beti espa eta kejuraka zegokion; uste zuen, alabañan, Agar-en esan-egin lotsa gaiztoko oiek ontzat ematen zituela. Baña Abranek uste txar onetatik bereala atera zuen, esanaz; zure mendean daukazu, eta berarekin, nai dezuna, egizu. Saraik eskubide onekin, Agar gogor artzen zuen, eta basoronz igesi joan zan. Agar baso-bazter batera zanean, aingeru batek esan zion, Nondik zatoz, eta nora zoaz? Nere etxeko-andre Saraiaren bekoki illunaren igesi noa, Agar-ek erantzun zion. Ez ori, aingeruak esan zion; itzuli zaite, eta Sarairi umillatu zatzakio. Gero esan zion, sabelean zeukan semeari zer izen ipiñi: bai ta ere, seme onen etorkizuneko berri asko eman ziozkan, bere garaiean gertatu ziranak. Agar itzuli zan, eta lengo arrokeriak utzita, txit umillatua Saraik ikusi zuenean, arrera ona egin, eta arpegi argiarekin begiratzen zion. Egunak bete ziranean, Agar-ek Abrani eman zion seme bat, *Ismael* deitu zitzaiona.

#### 5. Zirkunzisia

Abranek orduan larogeita sei urte zituen; eta andik amairugarren urtean Jainkoa berriz ere agertu zitzaion, eta esan zion, anziñago arekin egindako batasun edo elkar-artzea, eta egin ziozkan promesak, berriztu nai zituela. Bere itzaldia egin eta atzenean esan zion; ondorengo askoren guraso izango zera; eta aurrerakoan etzatzu deituko *Abran*, ezpada *Abraham*. Abranek esan nai du, *Aitabitorea*, eta *Abrahamek askide* edo *askotza bitorearen Aita*. Jainkoak izen-trukatze onekin bigarren au adierazten zion; bada, esan zion; jendeen buruan ipiñiko zaitut, eta Erregeak zugandik irtengo dira. Ala gertatu zan; bada, bere odolatik ez bakarrik David, Salomon, eta beste Errege asko etorri ziran; baita Errege guzien Errege, Jesu Kristo gure Jauna ere.



Orduan Jainkoak bere erri berezi eta serbitzaritzat Abraham eta onen ondorea autu zituen; eta aukera onen siñaletzat *Zirkunzisia* eman zion; zeña zan, gizona dan edo ez, ezagutzen dan gorputzaren zatian ganibitaz ebaki bat egitea. Jainkoaren errikotzat, bada, bat idukitzeko, lege onen bidez zortzigarren egunean semea zirkunzidatu bear zan.

Agindu au ipiñi eta bereala emaztearen izena ere trukatu nai izan zuen; eta Abrahami esan zion; Sarai zure emazteari ez diozu *Sarai* deituko, ezpada *Sara*; eta bedeinkatuko det, eta beraren bitartez emango dizut seme bat, bedeinkatuko dedana, eta jendeen aita izango dana, eta Erregeak bere odolean izango dituen. *Saraik* esan nai du *Andrea*, eta *Sarak Prinzesa*.

Abraham auzpez jarri zan, eta farraz zegoan, beregan ziola; eun urteko agureak semea izan, eta Sara larogeita amarrekoak aur-egin! Agindu zion, jaioko zitzaion semeari *Isaak* deitzeko. Gero Jainkoak agindu guzia, Abrahamek egin zuen. Ismael bere semea, eta bere etxeko guziak zirkunzidatu zituen. Zirkunzisia onek, orain bataioak bekatu jatorrizko edo orijinala barkatzeko duen indarra, zuen; eta Jainko egiazkoaren aitomena zuten guziak, Jesu Kristok bataioa ipiñi arteraño, gorde izan oi zuten.

Jainkoak Abrahamen leiala, eta agindua egiteko prestasuna ikusirik, eguerdi batean bere etxe-atarian eserita zegoala, iñoiz ere ez bezalako eran agertu zitzaion. Begiak luzatu zituen batean iru gizon bere ondan zutik ikusi zituen, eta ongi-etorria egitera joan zitzaient; eta auzpez jarririk, esan zien, etzitezela aurrera joan; ura ekarriko zuela; eta oñak garbituta, arbola-pean atsedean zezatela; eta gero zer jana emango ziela, onekin zuzper-tuta, bideari ekiteko. Abraham txit biotz andikoa zan, eta etzitziaion iñor, berak ikusi ezker, arera ona egin gabe joaten; eta aldi onetan ere berezko oitura egin zuen. Iru gizon oiek bere eskeñi oparoa ontza artu, eta erantzun zioten, ziona egin zezala bada. Bereala Saragana sartu, eta agindu zion, su-auts-azpian erretako ogiak prestatu zitzala; beitegira bera joan, eta txal gizen guri bat arturik, morroi bati eman zion, egosteko. Txal eta ogi onela prestatuakin, koipea eta eznea arturik, iru gizonai eraman ziezen; eta arbola-pean aien ondoan jarri zan. Jan zutenean, galdetu zioten; Sara non dezu? Or, gelan, dago. Orduan Jainkoak iru gizon ziralako aien bitartez esan zion; berriz ni biurtzerako, Sara zure emazteak seme bat izango du. Sara ate-atzean itzketa au aditzen zegoanak, beregan farrari eman zion; eta Jainkoak Abrahami galdetu zion, Zertako Sara farraz dago, esanaz, zer, ni atsotu onek aur-egin bear det? Zer bada! Jainkoarentzat eziñik bada? Sara lotsatu zan, eta far-egiña ukatuaz garbitu nai izan zan, baña ezin zezakean.

Egon-aldia egin, eta iru gizonak Sodomaronz abiatu ziran; Abraham ere bai aiei zerraikiela, eta Jainkoak bidean esan zion, Sodoma, eta Gomorrako bekatuak gañez egin zutela, eta zegokien kastigua ematera zijoala. Emen iruetatik bi aurrera joan, eta bat Abrahamekin gelditu zan; eta Abrahamek galdetu zion. Zer? ona gaiztoarekin ondatuko dezu, Jauna? Baldin berrogeita amar on arkitzen badira, barkatuko diezu? Jaunak erantzun zion; baldin berrogeita amar zuzen edo justu Sodomak arkitzen baditut, Uri guziari oiekgatik barkatuko diot. Abrahamek esan zuen, autsa eta erautsa baizik ez naizan onek nere Jaunari itzegingo diot; Zer egingo zenduke berrogeita bost justu baizik arkituko ezpaziñitu? Berrogeita bost justu arkitzen baditut, ez det Uria ondatuko. Eta zer berrogei baizik ezpada? Ezta ere. Abraham zerraikion galdeak egiten, eta justuen zenbatezkoa gitxitzen. Atzenean galdetu zion: zer egingo zenduke amar baizik ez izatera? Amar aiei begiratura, ez det ondatuko. Au esan, eta Jainkoak aldegin zuen, eta Abraham bere etxera edo dendara itzuli zan.

Jainkoaren ontasuna eta biotza zein andia dan! Emen ageri da, bekatariak kastigatzera ezin bestek daramala. Sodoma bezain Uri galdu eta gaiztoa ondatzetik Jauna atzeratuko zan, amar on utsak arkitu balira ere: eta Abrahamek galdetu balio, ea bostgatik edo gitxiagotatik barkatuko zion? Menturaz erantzungo zuen, baiez. Jainkoaren aurrerako anima on batek zenbat balio ote du! Jaunaren serbitzari leialak zenbat ondasun eta mesede erriai ekarri ote ditzazkietekete! Oiek ugaritzea berari nai dakiola bada.

## 6. Sodoma eta beste Urien ondamena

Abrahamgandik lenengo aldegin zuten bi aiek illunabarrean Sodomara bazijoazen. Lot, Abrahamen illoba, eta osaba bezala biotz onekoa eta ongillea, Uriko atean eserita zegoan; eta bi aiek ikusi zituenean, jaiki, eta joan zitzaient, eta auzpez jarririk, esan zien; jaunak, zuen serbitzari onen etxera, arren, atozte, eta atsedengo dezute, eta goizean bideari emango zatzaiozka. Ez, erantzun zioten, Urian geldituko gera. Lot berriz ere leiatu zitzaient, eta geroenean berekin eraman zituen. Afaria prestaturik, jaten eman zien. Etxatera zijoazen aurrean, Uriko zar-gazteak elkar-arturik, etxea ingurutu zuten. Loti otsegin, eta esan zioten illunabarrean zure etxe onetan sartutako gizon arrotzak non dituzu? ekarzkiguzu, eza-gutu ditzagun. Lot etxetik irten, eta oien asmo galduai igerrita, erregutu



zien, etzezetela alako gaizakeriarik egin. Egin-al guziak egin zituen, gizon biurri aien biotzak biguntzeko, eta tzeratzeko; baña alperrik. Asi ziran indarrez sartzen. Ateak puskatzeko zorian zeuzkatela, bi gizonak Lot eskutik artu, barrura sartu, eta atea itxi zuten; eta etxe-inguruan aien eske zebiltzan guziak itsututa ipiñi zituzten, atea ere ezin topatu zutela. Orduan Loti bi aiek adierazo zioten, Jainkoak Uri hura ondatzera bialdu-tako aingeruak zirala, eta esan zioten, zereetakorik iñor emen badezu, bereala atera itzatzu; bada, Uria oso ondatzera goaz, zeren emengo beka-tuak zerua aserretu duten. Lot etxetik irten, eta bere bi alabakin ezkon-tzeko zeuden sui-gaiari esan zien, zer gertatzera zihoan, eta irten zitezela; baña esana etzioten ezertan artu. biaramonean goiz aingeruak Loti leia-tzen zitzaizkan bere alabaekin lenbaitlen irteteko, besteakin batean ondatu etzitezten. Onetan nagitxo zebiltzala ikusirik, aingeruak Lot, onen emazte, eta bi alabak eskutik oartzaka artu, eta Uriaz kanpora atera zituz-ten. Emen Loti esan zioten; zere burua gorde ezazu: ez atzera begiratu; ez inguru oietan gelditu; basora zoaz, besteakin ondatu etzaitezen. Lotek erregutu zien, utzi zizaiotela, ageri zan erri txiki Segor-en sartzen, emen bere burua gordetzeko; eta eman zioten baimenarekin Segor-era joan zan.

Zerua garbia zegoan txit; eguzkia orduan agertzen zan; eta tximista biziak zeriozkan odei batek zerua bat batetan estali zuen. Lurra idiki, eta su eta garrak botatzen zituen; eta odeietatik jatxi zan sufre eta suzko jasa ikaragarriak Sodoma, Gomorra, Adama, eta Seboingo erriak irazeki, eta osotoro erre, eta kiskaldu zituen, zer izan ziran aztarnarik ere utzi gabe. Etxe eder-galantak, lur-mami-gozaok, arbola ikusgarriak, eta Lot, bere bizi-lekutzat aututzera ipiñi zuten gañerako gauza zoragarri guziak emen erre ziran; eta ur-zulo zikin bat egiñik gelditu zan; zeñari geroztik *itsaso illa* deritza.

## 7. Loten emaztea gatz biurtua. Loten bekatua

Orainago esan da, Loti, eta bere lagunai agindu zitzaietela, ez atze- ra begiratzeko; baña Loten emazteak, debeku au autsirik, su eta garren ots izugarriak, eta erri aietako kiskalzio gogorrak aditu zituenean, begiak itzuli zituen, eta o miragarria! leku berean gatz egiñik gelditu zan; eta era onetan bi milla urtez geroago ere zirauan. Ikasbide ona, munduko Sodo- ma galduari, bein utzi ezkeri, ez berriz begiratzeko, eta bekatuagana itzultzeko!

Biaramonean txit goiz Abraham jaikirik, bezperan Jainkoak itzegin zion lekura joan zan, eta lurretik zeruronz Sodoma eta bere inguruetan zebiltzan txinpart gorriak, eta odei guzia estaltzen zuten ke beltz illunak ikusi zituen. Ikusgarri min onen erdian atsekaberik andiena, bere illoba maite Lotek zer egin ote zuen, ezin igerriak ematen zion. Egia da, Jauna- ren errukimentuan zuen uste osoak sinisterazotzen ziola, gañerakoen ondamenetik gordea izango zala; eta etzan gezurtatu. Lot, arestian esan dan bezala, aingeruen laguntzarekin ondamen artatik ondo irten zan: baña beste lanbide gaizto batean erori, eta bere osabari naigabe andia eman zion. Lotek, aingeruen lenengo esanera joan nai izan etzan basora joateko gogoa artu zuen, bere burua obeto gordetzeagatik; eta ara zanean, orditu ta bi alabakin bekatuan erori zan, eta izan zituen bi seme Moab eta Amon, zenbat buruauste eta neke Abrahamen ondoreari ekarri zietenak.

Abrahamek, bazter aietako bekatuakin, eta Loten etxeko naigabe eta ez-bearrakin izaturik, Gerararonz aldegin zuen, non gertatu zitzaion gitxi gora beera, Ejiptoko Erregearekin gertatua. Onara zanean, esan zuen, Sara arreba zuela. Abimelek erri artako Erregeak jakiniñ, Sara zein ederra zan, ikusteko gogoarekin bere Jauregi edo etxera eramanez zuen. Baña Jainkoak gauaz ametsetan itzegin zion onela; illik geldituko zera, baldin emakume orrekin kutsutzen bazera, zeren ezkondua dan. Erregeak eran- tzun zion, zer bada! Fede onean, eta ez-jakiñean dihoan kulpa gabeari bizi- a kenduko diozu? Gizon ark berak esan dit, Sara arreba zala, eta Sarak ere Abraham anaia duela: beraz dakusu, gaitzki egiteko asmorik ez nuela. Jainkoak Erregeari esan zion, zure fede onaren berri badet; argatik beka- tutik gorde ere zaitut: senarrari bere emaztea itzuli zaiozu bada; bera Pro- feta bat da; zugatit erregutuko du, eta biziko zera: bestela jakin ezazu, zu eta zere etxeko guziak illko zeratela.

Jainkoaren esanarekin Abimelek ikaraturik, Abraham beregana era- karri, eta esan zion; zer egin didazu? Zer gaitz egin dizugu, bekatu ain izu- garri bat niri eragin, eta ni nere Erreinu guziarekin ondatzeko bidean ipiñierazotzeko? Abrahamek erantzun zion; uste nuen, bazter oietan Jain- koaren bildurrik etzala, eta ni il eta emaztea beretu zezaten ikarak, esane- razo zidan, arreba nuela; izatez ere, alaixen da: bada, ama biren humeak bagera ere, aita bat degu: bestetik, nere etxetik, Jainkoak agindu, eta irten nintzan ezkeri, Sara erreguturik neukan, arren, nere arreba zala esateko. Arreba deitzen dio, aita baten humeak ezbaziran ere, beintzat aide txit urrekoak ziralako, lenagoko irakurgaican esan dan bezala. Abimelekek Abrahami eskuerakutsi eta erregalo andiak egin ziozkan: eta Saragandik aldegitan, oni ere esan zion; zure anaia dalakoari milla zillar diru eman



diozkat, zeintzuekin oial bat erosiko dezu, zere burua estaltzeko, munduak jakin dezan, ezkondua zerala.

Jainkoak lege zarrean berean ere ezkonduen elkarganako leialtasuna zorrotzkiro agintzen zuen. Bada zer izango da Kristauen arteko ezkontza, Sakramentu izatera altxatu ezkerokoari zor zaiona? Zer kastiguak, gogoz baizik ez bada ere, batasun santa au austen duenak mereziko ezditu? Bata-gandik besteaganako desberdintzari begira bekio, eta edozeñek ezagutuko du, onelako desleiala zein bildur izatekoa dan.

## LAUGARREN IRAKURGAIA

### 1. Isaaken jaiotza

Arestiko gertalditik laster, Jainkoak Abrahami emandako itza bete zan. Sarak izan zuen seme bat, Jainkoak esan bezala, eta izentatutako denboran, *Isaak* zeritzana, eta zortzigarren egunean zirkunzidatu zuten. Abrahamek eun urte, eta Sarak larogeita amar zituzten, seme bedeinkazioko ainbeste aldiz promestutako au izan zutenean. Jaiotza onek guraso-ai poz eta atsegin andia eman zien; eta Sarak bere bularrean azi zuen, titia kendu zion artean. Orduan Abrahamek oitura zan bezala, bere poza adierazteko, bazkari andi bat eman zuen; baña denboraz poz au samindu zitzaion. Beste emazte Agar-gandik izandako seme Ismaelek ogei urte bazituen, eta anaia gaztea ezin ikusiak artu zuen, eta noiz-nai zatitu eta zeatzen zuen: baziekien, alabañan, Isaak seme autua zala, eta noizbait aren buru izateko zegoala, eta min onek edozeñ gauza eragiten zion. Sarak, bein batean ikusirik, Ismaelek Isaak ezertan etzeukala, senarrari esan zion; neskame ori bere semearekin etxetik bota ezazu; bada, kati-buaren semeak, Isaak nerearekin ez du zure ondadean parterik izan bear. Sararen eskaera au Abrahami gogor egin zitzaion; Ismael ere, bigarren mallako emazteagandik izana bazan ere, berea zuen. Jainkoak esturasun onetan, zer egin, erakutsi zion. Egizu, bada, Jainkoak esan zion, Sarak diona egizu; eta Isakgandik irtengo da zure izena gordeko duena. Abraham beti prest zegoan, Jainkoaren esana egiteko. Biaramonean egun-sentian jaiki zan; ogi bat, eta ur-ontzi bat arturik, Agar-i sorbaldan ipiñi zion; Ismael eman zion; eta ama-semeak etxetik bota zituen.

### 2. Agar eta Ismaelen basora joatea

Agar eta Ismael Abrahamen etxetik irten, eta Farango mendi edo basoronz abiatu ziran. Mortu irazeki onetara ziranean, beroak easan, eta Ismael, ur gabez, egarriaz iltzeko zorian jarri zan. Agar-ek bere semea iltzen ikusteko biotzik etzuelako, au arbola-pe batean utzi, eta bazter bate-ara aldegin zuen. Ismaelek ikusi zuenean ama negarrez eta aieskaz aldegi-



ten, zeruronz biotza jaso, eta bere aita Abrahamen Jainkoari eskatu zion, arren, artzaz kupitu zedilla. Jainkoak Ismaelen eskaria aditu zuen, eta Agar-i baldu zion aingeru bat, ziotsana; Zertan zaude? Ez ikaratu; Jaunak Ismaelen eskaria artu du: zoazkio, eta jakin ezazu, ondore andi baten buru eta aitatzat Jainkoak artua daukala. Agar-en begiak argitu ziran; eta aldamenean ikusi zuen iturri eder batetik ontzia urez bete, eta semeari edaten eman zion; onekin semea bizkortu, eta lenagoko indarretara zan. Amasemeak ustegabeko laguntza onekin txit poztu, eta geroz luzaro basoan bizi izan ziran, semeak eizean biltzen zuena janaz. Amak denborarekin Ejiptotik neskatx bat ekarri, eta semea ezkondu zan, eta Jainkoak esan bezala, izan zituen seme eta oien hume asko, bazter zabal aien jabe egin, eta bizitu ziranak.

Ismael eta bere ama Agar Abrahamen etxetik irten ziran ezker, Abraham Geraran pake andian bizi zan. Bere ontasunarekin guzien gogoa beretzen zituen. Bere lan-egite, izerdi, eta kontu onarekin, urte gitxiren epean txit aberastu zan. Beste pozgarri askoren artean lenengo mallan Abraham eta Sarak beren semetxo Isaak zeukaten; onen aziera ona eta zuzena zan aien ardurarik andiena: eta semeak ere gurasoen kontu onari ondo erantzun zion; eta arteraño izan zan gazterik ederrena, eta oiturarik obenetakoa, bear bada, zan.

### 3. Abrahamen eskeñtza edo sakrifizioa

Isaak zerbait azi zanean, Jainkoak Abrahamen obediencia ikusi naiez, agindu zion, bere seme maite au artu, eta berak esango zion mendi gañ batean eskeñi edo sakrifikatu zezala. Ofrenda edo sakrifizio au, gauza biziren bat il, sutan erre, eta austuaz egin oi zan. Guraso batentzat neke gogorreko lana zan; ala ere, Jainkoaren esana egiteagatik Abraham artara jarri zan. Baziekien, Jainkoak emana zuela, eta itzultzeko prest zegoan. Goiz batean, bada, egun sentia baño lenago jaiki, astoa tresnatu, sua egiteko bear zan egurra txikitu, eta bere seme Isaak, eta bi morroi arturik, iñori ere bere asmoa agertu gabe, Jainkoak izentatu zion mendironz abiatu zan. Irugarren egunean mendia ikusi zuenean, bere morroiak agindu zien, astoarekin mendi-ondoan egon zitezela; eta bera bere semearekin mendi-gañera igo, eta Jainkoa adoraturakoa, itzuliko zala. Astoari egurra kendu, eta semeari sorbaldan ipiñi zion; eta sua eta ganibita berak eskuan zituela, gañeronz bazijoazen. Bidean semeak aitari esan zion; Ene aita! sua

eta egurra dakuskit, baño non da eskeñi edo sakrifikatu bear dana? Galde onek, naita-ez, Abrahamen biotza erdiratuko zuen: ezagutzen zuen, seme au il ezker, bere atsegin eta poz guzia galtzen zuela: ala ere, Jainkoaren agindua egitera, aita biotz onarekin zijoan; baita semea ere aitaren esanera, zer asmotan, edo zertara zijoan asko uste gabe. Abrahamek erantzun zion; Ene seme, bear dana Jainkoak eratuko du. Geroenean mendi-gañera igo ziran. Abrahamek aldare bat egin, eta egurrekin prestatu zuen: semea lotu, eta egur-gañean ipiñi zuen; eta ganibita eskuan arturik, semea-ri lepoa ebakitzeko asmoan, besoa jaso zuen; eta golpea ezartzera zijoan unean gauza arrigarria! aditu zuen Aingeruaren ots bat ziotsana: Abraham, Abraham! Ona emen, guraso obeditu onek erantzun zion. Ez zure seme orri golperik ezarri, Aingeruak esan zion. Orain ezagutzen det Jainkoari bildur zatziola, eta zere seme bakarrari ere ez-diozula aren amorioagatik barkatu. Onetan Abrahamek begiak jaso, eta ikusi zuen alboan txikiro bat sasia adarretatik itsatsia. Bereala semea askatu, egur-gañetik kendu, onen lekuan txikiroa ipiñi, il eta erre zuen, eta Jaunari eskeñi zion. Gero morroiak gelditu ziran mendi-ondora aita-semeak itzuli, eta emendik guziak etxera joan ziran.

Gertaera oni alde guzietatik begiratzen bazaio, ikusiko da, Isaak umilla, Galbarioko mendian gure Salbatzallearen irudi egiazkoa dala. Bere sorbaldan egurra zuela, *Moria*-ko mendira Isaak igo, eta esku-oñak loturik, aldarean ipiñia izan zan, Jaunari eskeñtzeko. Eta au bera Jesusekin ere gertatu zan; zeña bere sorbaldan gurutzea zuela, igo zan Galbarioko mendira (zeña dan Moriakoa bera), eta esku-oñak lotu, eta gurutzean ipiñi zuten, emen bizia uzteko. Beste gauza asko ere arkitu litezke emen, garbiro adieraziko liguketenak, Isaak, Jesusen antz egiazkoa, eta gizonaren onerako noizbait gertatuko zana, munduari erakusten ziona, zala.

### 4. Sararen eriotza

Abraham eta Sarak aurrak izateko denboraz kanpora izan zuten seme maite au Jainkoari ain oparo eskeñi, eta Jainkoak, esan dan bezala, itzuli zien ezker, bere gurasoen atsegin bizia izan zan. Baña Abrahamen biotzak laster izan zuen atsekabe min bat, berari eta etxeko guziaz negar andiak utzi zieztena. Sarak eunda ogeita zazpi urte zituen eta Isaakek ogeita amazazpi, Jainkoak emakumea andi ari bere bizitza onaren saria ematera, atotsi edo beregana eraman zuenean. Sara il zanean, Abrahamek



negar andiak egin, eta gero aren gorputz-illa lurpetzeko obia baten billan abiatu zan. Onetarako, Jainkoari lenago aldare bat egin izandako lekua nai zuen: eta Heten semeai joan zitzaien, esanaz; ni zuen artean arrotz eta erromes bat naiz; nere emazte zana lurpetzeko lekua indazute. Heten humeak txit arrera ona egin zioten, Jainkoaren Lenena edo Prinzipea deituaz; eta berak lurpetzen ziran lekuan onena zeritzana aututzeko eskua eman zioten. Abrahamek etzuen idoloazale aien gorputzen artean bere emaztearena ipiñi nai, eta agur andi bat egin, esker onak eman, eta gero esan zien, Efronekin bitartetzat egin zezatela, bere lurrean zeukan bi ziskuko koba saltzez emateko. Efronek Abrahamen eskaera aditu zuenean bereala, jarri zan ematera, ez ordea saltzez, ziola; iñola ere ez da ori orrela egingo; ezpada lurruspe edo koba ori diru gabe ar-ezazu: baña Abrahamek etzuen nai ezer ere doan artu, eta iñorekin zorretan egon. Geroean Efron ipiñi zuen lur ark zenbat balio zuen esatera, eta lareun siklo, iru milla erreal bezalatsu, emanik, Abraham koba eta inguruko lurraz jabe-egin zan, non Sara bere emazte zana progu andiarekin obiatu zuen. Jaunari aldare bat noizbait egindako lekuan baizik, bere emazte zana ipiñi ez nai izatearekin Abrahamek erakusten digu, leku berezi, eta santutuetan illak lurpetzeko oitura zein anziñakoa eta gogoangarria dan.

## 5. Isaaken ezkontza

Abrahamek iru urte zeramazkien bere emazte maitea burutik ezin kenduz negarrez; eta bera ere zartu zan; eunda berrogei urte zeuzkan: Isaakek ere bai berrogei. Eta seme au ezkontzeko denbora zala pensatu, eta emazte bat eratzeko asmoa artu zuen; baña bera bizi zan Kanaango bazter aietako neskatxik etzuen nai, emengo jende guzia idoloazalea, eta gaiztotua zegoalako. Bereala bere jaioterri eta aideetara begia ezarri zuen. Kanaanera joateko Mesopotamiatik irten zanean, etxean gelditu zan Nakor bere anaia, zeñaren ondorengoak askotu ziran, eta oien arteko neskatx bat errañtzat nai zuen artu. Onetarako Eliecer, bere ondasunen kontu-artzalle edo maiordomoari agindu zion, Mesopotamiara joan, eta aren semearentzat neskatx bat autu zezala. Eliecer gameluetan eskuera-kutsi andiak eta gauza on asko arturik, biderako prestatu zan: eta Nakor bizi zan erri Haranera illunabar batean alderatu zanean, zer egin edo nola aukeratu ezin pensatuz geratu zan putzu-ondo batean, nora erriko jendeak illunzeetan ur-eske irten oi ziran. Esturasun onetan zeruronz begiak

jaso, eta Jaunari erregutu zion onela; Abraham nere nagusiaren Jauna, gaur ordu onetan lagun zadazu. Erriko alabak putzu onetara ur-eske etorriko dira: eta nik ura eskatu, eta neretzat, ez ezik, gameluentzat ere eskeñtzen didan huraxe izango da nere nagusi Isaaken emaztetzat zuk autu dezuna. Eliezer-ek erregu au jaunari egin zionerako, Rebeka eritik irten, eta putzura ur-eske joan zan. Rebeka, Eskritura Santak dionez, neskatx eder, eta guziz ona zan; Melkaren seme Batuelen alaba; eta Melka, Abrahamen anaia Nakor-en emaztea: beragatik Isaaken lengusu baten humea eta Abrahamen odolekoa, zeña zan onek opa zuena. Rebeka au, bada, putzutik ura artu, eta etxeronz abiatzean, Eliezer irten zitzaion; eta edateko ur piska bat eskatu zion: Rebekak bereala eta gogo guziarekin eman zion, eta gameluentzat eskeñi ere bai. Serbitzari leial ark Rebekaren egiñeratik ezagutu zuen, huraxe zala, Jainkoak aren nagusi gaztearen emaztetzarako zeukana. Gameluak ura edan zutenean Eliezer-ek berekin zeramazkien belarrietako, eta eskumuturretakoak eman ziozkan, eta galdetu zion; ea nor zan? eta bere aitaren etxean arentzat lekurik izango ote zan? Rebekak galde oiei erantzun zien, esanaz, Batuelen alaba zala eta arentzat eta aren gameluentzat bere aitaren etxean leku, eta zer jana izango zala. Au esan, eta bereala Rebeka etxera joan zan, zer gertatu zitzaion etxekoai esatera. Rebekaren anaia Labanek, arrebak zeramazkien edergarri eta apaindurak ikusi zituenean, Eliezer-gana joan, eta erregutu zion, aren etxera sartu zedilla. Eliezer-ek, ara zanean, etxekoai esan zien, etzuela ezer ere ez jan, eta ez edango, zeraman egitekoaren berri aiei eman gabe. Asi zan, bada, itzegiten, eta esan zien, Abrahamen serbitzari bat zala; Jainkoak aren nagusiari ondasun andiak eman ziozkala, eta semea ezkondu naiean, ara aien artera emazte-gai billan bialdu zuela: Jainkoari biotzetik eskatu ziola, arren, berak izentatzen ziozkan siñale batzuen bitartez, Isaaken emaztetzarako zeukana adierazteko, eta Jainkoak garbiro agertu ziola, Rebeka zala autua; eta onen eske zetorkiela.

Batuel eta Labanek ezaguturik, gauza au Jainkoa beraren lana zala, baimena eman zuten. Orduan Eliezer-ek bai Rebekari, bai onen ama eta aideai eskeñi ziezten emaitza eta eskuera-kutsi andiak, nola ziran urre eta zillarrezko txarroak, janzi baliotsuak, eta beste gauza eder asko; eta bereala bazkari andi bat ipiñirik, poz eta atsegin artean jan zuten. Eliezer prestatu zan, biaramonean txit goiz irteteko, berri on au nagusiari ematera. Rebekaren aideen atsegiña zan Eliezer denbora geiagoan beren artean egoten, eta Rebeka egun batzuetan berakin idukitzen. Au Eliezer-i adierazo zioten; baña au lenbaitlen nagusiagana itzuli nai zan. Orduan Rebekari deitu eta galdetu zioten; ea gizon arekin joan nai zan? Eta erantzun



zienean, baiez, gauza guziak bereala prestatu ziran, bideari ekiteko. Guraso eta alabak elkarri azken diosal gozoak egiñik, Eliezer eta Rebeka, mirabe asko ondorean zituztela, etxetik irten ziran, eta Abraham bizi zan errira urreratu ziranean, ikusi zuten Isaak arratsaldean egurastu bat bakarrean artzera irten zana. Isaak ere, jende-talde hura ikusi zuenean, beretaronz abiatu zan: eta Rebekak Eliezer-i galdetu zion; guganonz datorren gizon ori nor degu? Eliezer-ek erantzun zion; orixe da nere nagusi gazte Isaak. Au entzundakoan, Rebeka lotsatu zan, eta bere burua oialez estali zuen; eta onela, guziak elkar jorik, bideari jarraitu zitzaiozkan. Bidean zijoazela, Eliezer-ek, bidajean gertatu zitzaion guzia Isaaki esan zion. Abrahamen etxera eldu ziranean, Rebeka ipiñi zuten Sara bere amagiarraba izango zan, eta iru urtez lenago il zanaren gelan. Bereala Isaak Rebekarekin ezkondu zan, eta ain andia izan zan oni ark artu zion amorioa, non, Eskritura Santak dionez, amaren iltzeak emandako min andia gozatu zion, eta gertakari negargarri aren bidez zeramazkien pena guzietatik biotza oso argitu zitzaion.

Abraham etzebillen errañ-gai aberats, ezpada Jaunaren bildurrekoaren billan, argatik Jainkoak Sara bezain emakume ona Isaak bere seme maitearentzat eratu zion: guziaz erakusten diela, gai onetan zer egin bear duten. Rebekak ere, Isaak ikustean bere burua estaltzearekin zer ikasi neskatx guziaz ematen die. Zein ederra litzakean au bera ezkon-gai guziak egi-tea, ezkontzako Sakramentu Santuak biak lotu arteraño!

## 6. Esau eta Jakoben jaiotza. Abrahamen eriotza

Abrahamek, bere seme maitea bein ezkondu ezkeru, biotz guzitik ondorengo bat opa zuen, Jainkoak anziñago esana betetzeko, bere odolak iraun zezan; baña Jainkoak poz au Abrahami luzatu nai izan zion. Ogei urtean Rebekak etzuen aurrik izan. Bitarte onetan Isaak Jaunari beti erre-guz zegokion, seme baten eske; eta Jainkoari eskari oiek ukitu zioten, eta Rebeka ogei urteren buruan aurdun arkitu zan. Berri onek alde batetik Rebeka poztutzen bazuen, bestetik biotza illuntzen zion. Aur-egiteko egunetara zanean, ezagutu zuen, sabelean bi aur zeuzkala; eta oiek elkarren kontra elean zebiltzala, oñaze miñak ematen zioten, alako moduan, non, aur aiek sortua, eta bere agortasun, edo aurrik-ezean ez geldituaz damu zuen. Ikusirik, bada, aur biak erraietan zerabilten despita, Jainkoari jarri zitzaion, gerra era ark zer esan nai zuen galdez; eta Jainkoak erantzun

zion, sabelean zekarzkien aur aiek, bi erri edo jende, bata bestearen kontra beti ibilliko ziranen buru izango zirala, eta zarrena gazteenaren mendean izan bearke zala.

Jaiotzeko egunak bete ziranean, Rebekak mundura bi seme eman zituen. Lenengo jaioa gorritarakoa eta illetsua zan, eta deitu zitzaion *Esau*. Bigarrena ere onen ondoren bereala, eta anaiaren orpoari zitxekala jaiotza, eta zeritzan *Jakob*.

Isaakek irurogei urte zituen, eta eunda irurogei Abrahamek, zeñak zarzaroan bere seme maitearen hume oiek ikusteko poza eta atsegiña izan zuen: baña amasei urteetara aur oiek eldu ziranean, Jainkoak gizon santu au atotsi edo beregana artu zuen, ain fede biziarekin beti billatu izan zituen ondasun betikoak gozatzera. Abrahamen bizitza txit ona izan zan; Jainkoaganako leialtasuna atzeneko asnasaraño gorde zuen: erbestean gizon arrotza bezala, Kanaango lurrean bizi izan bazan ere, bere erri Kaldeara itzuli bear zanik etzian beñere gogoak eman, Jainkoak ala aginduta, bere aide eta erria bein betiko utzi izan zituen ezkeru. Beti bizi izan zan, nondik eta nola Jainkoa obeto serbituko zuen, bere griña eta gogo guziak aren naiarera ipiñita. Eramankizun andiak izan zituen: esturasun gogor latzetan arkitu zan: Sara bere emaztearen edertasunak, eta Lot bere illobari zion amorioak perill, eta galbide estuetan ipiñi izan zuten; baña Jainkoari kontuz jarraituaz, egiteko guzietan beti ondo irten zan. Patriarka santu au eunda irurogeita amabost urtekoa il zan, zarzaro doatsu bat izanik, eta bere anima, bera baño lenago mundutik irtendako anima justuen artean ipiñia izan zan. Isaak eta Ismael bere bi semeak aita Abrahamen gorputza, Sararen ondoan, Efroni erositako koban, progu andiarekin obiratu zuten.

Aitagandik berrogeita bederatzi urtera, Ismael semea ere eunda ogeita amazapi urtekoa il zan. Onek bere seme eta ondorengo asko ezagutu zituen, zeintzuek amabi etxe edo familiaetan, nor bere buruarekin jarriarik, lur-bazter andiak landu eta erabilliaz, bizi izaten ziran; eta Jainkoak Abrahami promestu zion bezala, amabi lenen edo Prinzipe beren artean ezagutu eta izan zituzten. Ismael bere etxekoan artean lurpetua izan zan.





## BOSTGARREN IRAKURGAIA

### 1. Esauk Jakobi lenen-izatea saltzen dio

Isaak eta Rebekak kontu andia zeukaten bere bi seme biroki Esau eta Jakob ondo azitzeko; baña aurtasunean ere, oraindik sabelean zeudela asitako despita, eta elkar ezin artuari zerraizkion, eta argiro adierazten zuten, bata bestearekin egiteko, onak etzirala. Urteetan zerbait sartu zira-nean, Esau osotoro eizeari eman zitzaion, eta basoz-baso zebillen. Jakobek griña bera etzuen; ezpada bere aitaren ondoan etxe-lanetan, eta abere-zai ibiltzea zan onen eresia.

Bein batean Esauk, basotik etxera txit nekatua, eta gosetua zetorrela, anaia Jakob txiliste edo lentejak deritzaten illar-motak jaten arkitu zuen; eta janari artatik zerbait eskatu zion. Bai, Jakobek erantzun zion; emango dizut, baldin lenbizi jaiotzeari darraizkion eskubide eta deretxak utzi nai badizkidazu. Gizonaren argaltasun itsua! Esau bereala artara jarri zan; itza eman zion; eta anaia emandako txiliste-illarrak jan, eta bere eizera itzuli zan.

Salera au Rebekak gogoan artu zuen, eta bi semeak sabelean zeuzkala, Jainkoak gazteenaren alde esana ere etzitzaion aztutzen; eta berri oiekin, beti Jakobganako eresi geiago zuen, eta amorio biziagoa agertzen zion. Isaak, berriz, Esaturen gozakaitzkeriak atsekabe andia ematen bazioten ere, lenen-jaioa zalako, onengana etziñagoa zan. Onela bizi zirala, Kanaango alderdian gosete gogor bat sortu zalako, Isaak Ejiptora bere etxeoakin jan billan joan bearrean arkitu zan. Bideari ekin zitzaion; baña Jainkoak bide-erdian geldierazo zion, esanaz, berak izentatzen zion tokian bizi izan zedilla, eta lagunduko ziola. Aita Abrahami egindako promes andi guziak berriztu ziozkan. Poz onekin Isaak Geraran gelditu zan. Emen artu zituen lur-erloetan azaroak erein eta abuztu onak izaten zituen. Jaunak bedeinkatu zuen, eta alako moduan aberastu zan, non, auzoak aren ona ezin eramana, asi ziran esetsi edo persegitzen. Au ezaguturik, Jainkoak len itzegin zion tokira joan zan; eta Jainkoagandik arturik gaitzik egingo etziotelako itza, aldare bat egin, eta sakrifizioak eskeñi ziozkan, eta emen bertan bere bizilekua artu zuen. Urte batzuek pake onean igaro ondoan, etxeoetan sortu zitzaion gauza bat txit naigabe andia eman ziona. Esau seme zarrenak, berrogei urteetara eldu zanean,

ezkontzeko asmoa artu zuen. Aitaren iritzia eta baimena artzea seme oni bazegokion, ain gauza pisuan ez utsegiteko; baña gazte berekoi onek etzion bere gogoari baizik ezeri begiratu, eta Isaak aitak eta Abraham asabak bezala, bere odoleko Jainkoaren serbitzari bat emazte egin bearrean, Heten jatorriko bi neskatx idolozalerekin ezkondu zan; zeren bidez gurasoi atsekabe miña eman zien. Isaaken naigabe au beregan itorik, bi errañak etxean artu zituen. Urte askoan oiekin bizi izan zan, bere egunen ondorerako Esau oñordeko uzteko asmoan, semearen bidegabekeria guziak aztuta, zarrena zalako, eta bitarte onetan Esauk ere zarrenari zegokion eskualdia beti agertzen zuen.

### 2. Isaakek Jakob bedeinkatzen du

Isaak zartu zan, eta Patriarka santuak oitura zuten bezala, bere azken-bedeinkazioa semeari eman nai izan zion. Au bein eman ezkeru, bere kontra ezer egiterik etzegoan. Rebeka azkarrak, Jainkoaren argiarekin zegoanak bezala, bere seme maite Jakobek gañera bedeinkazio au, eta onekin lenengotza ekartzeko modua egin zuen.

Isaakek, bada, bere seme Esauri egun batean deitu, eta esan zion; Ene seme! Dakusu zartu naizala, eta nere azken-eguna ezdakidala, zere armak artu, eta eizera zoaz, eta atzitzen dezuna, ekardazu, hura jandakokan, il baño lenago, bedeinkatu zaitzadan. Rebeka itzketa au aditzen zegoanak, bereala beste seme Jakobi aditzera eman zion, aita zer egitera zijoan; eta agindu zion, auntz-taldera joan, eta bi antxume obenak ekartzeko, ziotsala; nik antxume oiek zure aitaren gogora maneatuko ditut, eta zuk eramango diozkazu, jan ondoan, bedeinkatu zaitzan. Lan au Rebekari erraza zeritzan, ez ordea Jakobi, eta semeak amari erantzun zion; badakizu nere anaia Esau illetsua dala, eta ni ez. Nere aitak ukitzen badit, eta ezagutzen banau, bildur naiz, uste izan dezan, engañatu nai izan dedala, eta bedeinkazioaren orde z madarikazioa neretu dezadan. Ene seme, Rebekak esan zion, madarikazio ori nere gañ izan bedi, eta nere esana zuk egizu: zoaz eta bi antxumeak ekartzidazu. Semeak ekarri, eta amak gisartu zituen, aitak nai izaten zuen eran. Amak semeari soñekorik obena janzierazo zion: eskuak eta lepoa antxume-larruz estali ziozkan: eta amak maneatutako antxumekia arturik, aitari joan zitzaion, ziotsala; Ene aita! Isaakek erantzun zion; Nor zaitut, ene seme? Jakobek erantzun zion; ni Esau zure seme zarrena naiz: zuk esana egin det; jaiki, eta eseri zaitte, nere



eiza jateko, gero zure bedeinkazioa niri eman dizadazun. Isaakek etzuen uste, ain laster Esau etorri zitekeanik, eta esan zion; Nola, ene seme, orren laster eiza egin dezun? Semeak erantzun zion; Jainkoak nai izan du. Orduan Isaakek esan zion; atozkit, ene seme, ukitu dizazudan eta ezagutu tzaitzadana, Esau nere semea zu ote zeran. Jakob urreratu zitzaion, eta Isaakek semearen eskuai ukitu zienean, esan zuen; itza Jakobena da, bai, baña eskuak Esaturenak dira. Gero galdetu zion, Esau nere semea zera? Bai, ni naiz, semeak erantzun zion. Bereala Isaakek esan zion; ene seme, eiza indazu, jan eta gero bedeinkatu zaitzadan. Jan zuenean, aitak esan zion, atoz ona, eta laztandu nazazu. Laztan artan Jakobena soñekoen usai gozoa Isaakek ulertu edo sentitu zuenean, bere bedeinkazioa eman zion, esanaz; Jainkoak zeruko intza eta lurreko koipearekin ogia eta ardoa ugari eman dizazkizula; erriak serbitu, eta ballerak adora zaitzabela: zure anaiaren jaun izan zaite; eta zure amaren semeak zure aurrean makurtu bitez: zu mada-rikatzen zaituena, madarikatua izan bedi, eta zu bedeinkatzen zaituena, bedeinkazioz bete bedi. Onela Isaakek bere bedeinkazioa bukatu zuen. Jakob, badirudi, gezurretan zebillela, edo Esau zala esatean, gezurra zerio- la; baña, San Agustinek dionez, itzketa hura gezurrezkoa etzan, ezpada misteriozko, gauza isill miragarriak adierazten zituena. Jakob larraz janzia jarri zan Jesu Kristo gizatasunez janzia, eta gure bekatuen pisua gañean artu zuena aditzera emateko.

Isaakek atzeneko itzak esan, eta Jakob irten orduko, Esau bere eiza- rekin agertu zan, eta aitari ondora joan, eta esan zion; jaiki zaite, ene aita, eta ni zure seme onek dakarzudan eiza jan ezazu, gero ni bedeinkatzeko. Nor zera, bada, zu? Aitak galdetu zion. Ni Esau zure seme nagusia naiz, Esauk erantzun zion. Isaakek, esan-al guzien gañean arriturik, galdetu zion; zein zan, bada, arestian, zu etorri baño lenago, eiza ekarri, eta jane- rano didana? Nik bedeinkatu det, eta bedeinkatua izango da. Esauk, aita- ren itzak entzun zituenean, aieska eta deadarrari eman zion, eta aitaren oñetan lur-jo zuen, esanaz; ene aita, zure bedeinkazioa, niri ere indazu. Aitak erantzun zion; zure anaia somaz etorri, eta zure bedeinkazioa artu du. Orduan Esauk bere aoari anaiaren kontra espa andiak erasan ziozkan. Gogoratu zitzaion, lenen-izatea zein merke saldu zion; lanbide onetan bereansalera aren ondorea ikusten zuen, eta nolabait ere lengo utsegitea zuzendu naiez, aitari esan zion, ez ote dezu neretzat bedeinkaziorik gorde? Baña aitak erantzun zion, bere anaiaren buru eta nagusi Jakob ipiñi zuela, eta bein itz-eman ezkerro, ezin oñik atzeratu zezakeala. Zer bada? Esau leiatzen zitzaion, bedeinkazio bat baizik ezdezu? Arren, ni ere bedeinka nazazu. Semearen negar eta aieskak aitari biotza erdiratu zioten,

eta semeari esan zion; lurreko gizontasunean eta zeruko intzean zure bedeinkazioa izango da. Gerran bizi eta zure anaiaren mendeko izango zera. Esauk, bedeinkazio au etzuen ontzat artu, anaiaren mendean izan bearke zala, aitak esan ziolako: ordutik azi eta sutu zitzaion, anaiari len eta beti gorde izan zion iguin eta gorroto bizia.

Jakobi aitarekin izan zuen lanbideak zer pensatu andia ematen zion; etzuen, alabañan, aitak gaitzat artzerik nai; eta Jakob aurkeztu baño lena- go, Rebeka, gauza aren gidariak, Isaaki joan, eta esan zion, zergatik eta zeren bidez lan hura egin zan; aurgiteko zegoala, Jainkoak zer agertu zion, baita ere, beste gauza asko, Isaakek arteraño etziakizkienak esan ziozkan; zeintzuek gizon santu ark aditu zituenean, Jaunari eskerrak eman, eta geroz Jakob bere ordeko nagusitzat ezagutu zuen.

### 3. Jakobena zurubia edo eskallera

Aitarekikoa Jakobek onela egin bazuen ere, ez ordea anaia Esaturen aierkunea itzali. Onek geroago eta gorroto geiago zion, eta anaia iltzeko gogoa beregan zerabilen. Asmo galdu onezaz Rebeka oartu zan; eta bere seme kutuna begietatik uzteak naigabe andia ematen bazion ere, anaia biotz-gogordun aren eskuetatik gordetzeagatik, Jakobi esan zion, Mesopotamiara amaren anaia Labanen etxera joan, eta Esaturen aserre eta igui- na itzali artean, an egotea on zala. Gero senarrari ere, zer pensatzen zuen, esan zion, Jakobena ezkontza beren odoleko batekin, aitzakitza emanik. Ziotsan, bada; Heten alabak bizitzez asperturik naukate, eta baldin Jakobe- k alderdi oietako bat emaztetzat artuko balu, ez nintzake biziko. Isaakek au adituta, Jakobi deitu zion, eta bere lengo bedeinkazioak berriztu- rik, agindu zion, etzezala Kanaango neskatxik emazte egin, ezpada Mesopotamiara Batuel aitasabaren etxera joan, eta Laban osabaren alaba bate- kin ezkondu zedilla.

Jakob, bere anaia Esaturen aierkuneari iges-egiteagatik, Bersabeetik irten, eta Laban bizi zan erri Haraneronz abiatu zan. Bidean zijoa, illu- nabar batean Luzan zeritzan erri-ondoan gelditu zan atsedeten, eta buru- kotzat arri bat ipiñirik, loak artu zuen. Lo zetzala amets misteriozko bat egin zuen. Amets onetan ikusi zuen eskallera bat, ondo edo oña lurrean, eta goia edo errematea zeruan zituena; eta Jaunaren aingeruak gora-beera eskallera onetan zebiltzan; eta Jainkoa bera eskallerari zitxekala zegoan, esanaz; ni naiz Abrahamen Jainko Jauna, eta Isaaken Jainkoa; zuri eta zure



ondoreari lo zatzen lur ori emango dizutet; eta zure ondorea lurreko autsa bezain ugaria izango da. Munduaren lau aldeetara zabalduko zera; eta zugandik irtengo danak munduko guziak bedeinkatuko ditu. Ni neronek zuzaz non-nai kontu izango det; lur onetara itzuliko zaitut; eta esan dizudan guzia egin artean, zurekin izango nazu. Jakob esnatu zan, eta ikusi eta aditu zituen gauzakin arriturik, deadar egin zuen; Jainkoa da, bai, emen, eta nik ez niekien. Zein leku ikaragarria au! Ezdago, ez, emen Jainkoaren etxea baizik, eta zeruko atea!

Jakobek, Jainkoagandik izan zuen ikusketa miraritsu onen oroipenerako, burupean iduki zuen arria artu, lurrean ipiñi, eta pillare bat egin zuen, eta olio izortzi. Eta ara emen, Jainkoaren izenean eta onran olio izortzitako lenbiziko aldarea, zeñaren oitura Jainkoak geroago Moisesi agindu zion, eta Eliz-Ama Santak orain ere gordetzen du. Jakoben esnatu ondoko itz aiek erakusten digute, gure elizai zein begirune andia izan bear diegun. Bada, Jainkoak amets uts baten bitartez itzegin ziolako, leku hura Jaunaren etxetzat artu bazuen, egiaz eta menaz Jainkoa bera dagoan leku bedeinkatu oiekgatik zer esango zuen? Patriarka santu aren itzakin aitortu dezagun, bada, Jainkoaren etxe eta zeruko ate egiazkoak oiek dirala; eta zor zaien begirune guzia beti gorde dizaiegun.

#### 4. Jakoben joanera Haranera

Jakobek ezaguturik, Jaunak agertu ziozkan gauza andiakgatik, zenbat zor zion, andik aurrera are obetoago serbitzeko, eta aren onran al-egiaña egiteko itza eman zion; eta Jainkoa bere alde zuela, eta lagunduko zion uste oso-oso arturik, Haraneronzko bidean jarri zan. Putzu-ondo batera alderatu zanean, ikusi zituen iru artalde, ura edateko ara bilduak. Jakob artzaietara urreratu, eta galdetu zien, ea nongoak ziran? eta erantzun ziotenean, Harangoak, galdetu zien, ea Laban, Nakor-en semea ezagutzen zuten? Bai, erantzun zioten, eta ara non dezun aren alaba Rakel ardiakin datorrena. Ardiai edaneraozteko putzua, guziak bildu artean, arlosa andi batekin itxia egoten zan, eta Jakobek, Rakelen ardiak putzu-ondora ziranean, arria kendu, ardiai ura eman, eta Rakeli diosala egin zion. Bereala negarrez jarri zan; orain ezdakigu edo nai zuen guzia eratu zitzaiolako pozarekin, negar oiek ziran, edo bere lengusuari zer emanik etzuelako miñez; bada, jaunak erakusten ziona egiteko gogo eta asmo bizi-bizia baizik, ezer ere bere etxetik etzuen artu. Jakobek Rakeli adierazo zion, nor

zan, eta Rakelek lasterrean etxera joan, eta Labani esan zion, zer ikusi zuen. Labanek aditu zuenean, bere arreba Rebekaren semea an zala, bidera irten zitzaion, eta lastan-emanik, etxera eraman zuen. Jakobek esan zion, bere gurasoen etxetik iges-egin, eta ara bearrean, zerk ipiñi zuen, gañerako gertatu zitzaion guziarekin, eta Labanek txit begitarte eta arrera ona egin zion.

Labanen etxean illabete bazeraman etxe-lan eta neke guziaz arpegi emanaz, Labanek galdetu zionean, ea doan aurrera servitu bear zuen, edo zer sari nai zuen? Labanek bi alaba, Lia eta Rakel, zituen. Lia beberea, edo begi-beraa zan, eta Rakel arpegi ederrekoa. Jakobek Rakel putzu-ondoa ikusi zuenetik, on-iritzi zion, eta gogoan sartu zitzaion. Aita Labanek galde hura egin zionean, Jakobek erantzun zion, Rakel bere bigarren alaba emaztetzat emategatik zazpi urtean serbituko zuela. Labanek bereala baiezkoa eman zion.

#### 5. Jakoben ezkontza

Jakob ordu onetatik eramankizun, eta neke gogorren azpian, eta bere ontasuna zenbaterañokoa zan erakusteko bidean jarri zan. Zazpi urteak asi ziran; eta bitarte onetan osaba biotz gogordunak agintzen ziozkan neke latzak Jakobek ezertan etzeuzkan, Rakel maite zuelako; eta onekin ezkontzeko pozak azterazotzen ziozkan; baña bere usteak utsegin zion. Zazpi urtean buruan Jakobek Labani Rakel eskatu zion; eztaiak egin zituzten: baña Laban salduak alaba zarrena utzi, eta gazteenarekin ezkontzeari ondo etzeritzalako, Rakelen ordeztai-gauean oiean Lia sartu zion. Jakob eguna zabaldu artean etzan oartu. Orduan aitagiarrabari espa andiak agertu ziozkan, zergatik engañatu zuen; baña Labanek otz-otzean erantzun zion, zarrena baño lenago gazteena ezkontzea oitura guzien kontra zala. Gero esan zion, eztaia-astea, beintzat, igaro zezala, eta beste zazpi urteko morrontzagatik Rakel ere emango ziola. Jakobek Labani zerbait esateko biderik asko bazuen, saldukeria billau hura egin ziolako: baña naigabe guziak, itzik ere esan gabe, barrunen ito zituen, eta astearen zazpi egunak igarotakoan, Rakelekin ere ezkondu zan, beste zazpi urte Laban serbitzen egiteko itzean.

Jakobek Liari ezbezalako maitetasuna Rakeli beti izan zion; baña atsegin guziak berekin etzituen. Jainko on guzien Emalleak Liari bai, eta Rakeli etzion aurrik ematen. Liak denbora laburrean izan zituen lau seme,



Ruben, Simeon, Levi eta Juda zeritzatenak. Rakelek ezin eraman zuen, berak ez, eta aizpak aurrak izatea; gauza onek naigabe andia ematen zion; eta senarrari espaka jarri zitzaion. Jakob santuak erantzuten zion, aurrak izatea Jainkoaren eskuan zegoala, eta ezin ezer egin zitzaiokeala. Orduan Rakelek esan zion, Bala zeritzan bere neskamearekin ezkondu zedilla, eta onek ematen ziozkanak, bere semetzat artu, eta aziko zituela.

Denbora artan zerbaite ondasun zuten gurasoak alabak ezkontzen zituztenean, bere kerako neskatx bana emateko oitura zuten. Labanek Liari Zelfa, eta Rakeli Bala zeritzatenak eman ziezten. Baita ere zillegi zan, len esan dan bezala, emazte bat baño geiago izatea: eta emazte nagusiak aurrik etzuenean, bere neskatxa senarrari emaztetzat eman, onegandik jaiotzen ziran semeak beretzat artu, eta azitzen zituen. Oitura oni zerrai-kiola, Rakelek bere senarrari emaztetzat eman zion Bala serbitzaria, zeñagandik izan zituen bi seme, Dan eta Neptali zeritzatenak, eta Rakelek bere semetzat artu zituen. Liak ere, ikusirik semeak egiteari utzi ziola, senarrari emaztetzat eman zion bere neskame Zelfa, zeñak izan zituen bi seme, Gad eta Aser izena zutenak; eta Liak ere oiek biak beretzat artu zituen. Berriz ere, zenbait urte joan ondoan, Jainkoak Liari eman ziozkan bi seme, Isakar eta Zabulon, eta alaba bat, Dina zeritzana.

Urte asko bere agortasunean egin arren, Rakelek etzuen noizbait ama izateko ustea galtzen, eta Jainkoari beti eske zegokion. Geroenean ere iritxi zuen seme bat, *Jose* izena ipiñi zitzaiona; Jose ainbeste aldiz aita-tuko deguna; Jose mundua mundu dan artean ain otspatsua izango dana. Rakel eta Jakob, ain denbora luzearen buruan seme au ikusi zutenean, txit poztu ziran; eta Rakelek bere pozarekin otsegin zuen; lotsabidetik Jainkoak atera nau. Jakobek ere zazpi urtean Rakelgatik artutako neke-pena guziak ontzat eman zituen.

Laban aitagiarrabaren etxean eta morrontzan Jakobek amalau urte zeramazkien. Bitartean len esan dan bezala, bere lau emazteetatik amaika seme eta alaba bat izan zituen. Onetan pensatu zuen Labanen mendetik irten, eta beretzat zerbaite egiteko denbora zala; eta Kanaanera bere aitagana itzultzeko asmoa artu zuen. Onetarako, emazte, eta humeakin bere etxera biurtzeko baimena Labani eskatu zion: baño Labanek Jakob uztea min zuen, zeren ezagaturik zeukan, zerbitzari leial onen bitartez amalau urte aietan ondasunak txit ugaritu zitzaiozkala; eta galdetu zion, ea gero ere aren etxean egoteagatik zer nai zuen? Jakobek erantzun zion, etzuela ezer ere bear; gauza bat esango ziola, eta au egin nai bazuen, berriz ere aren serbitzoan, eta abere-zai egongo zitzaiola. Jakobek gero esan zion; zure artaldeai ikusi bat eman, eta ardi nabar guziak banakatu edo aparta-

tu itzatzu, eta kolore bateko, naiz oso zuriak, naiz oso beltzak nere kontura utzi zazkidazu, eta oietatik jaiotzen diran nabarragatik serbituko zaitut. Suiaren esanera Laban bereala jarri zan, zeren uste zuen, oso zuri edo oso beltzetatik nabar askorik ezin irten zitekeala. Ardi nabar guziak, bada, Labanek banakatu zituen, eta oiekin iru eguneko bidean joan zan, Jakobek kontura kolore batekoak utzita.

Jakobek zotz berde batzuek artu, eta unetik unera azala kendu zien, azala kendutako lekuan zuri eta gañerakoan berde gelditzen zirala. Zotz oiek ardiai, ar-emetzeko denboran aurrean ipintzen ziezten, eta arkume nabarrak sortzen ziran; eta guziak gisa onetakoak irten etzitezen, banaka batzuek zotz oiek gabe umetzen zituen, gitxi bederik Labanentzat ere jaiotzeko.

Jakobi soldata emateko garaia eldu zanean, asi ziran arkume nabarrak kolore batekoetatik banakatzen, eta Labanek ikusi zuenean, zuri uts edo beltz utsak baño nabarrak askoz ere geiago zirala, etzitziaion ondo erori: ala ere, Jakobi zegozkion guziak eman ziozkan, urrengo ume-aldian nabarrak Labanentzat, eta zuri uts edo beltz usak Jakobentzak izateko itzean. Jakobek urrengoan lenagokoa etzuen egin; ezpada ardiak umerazo zituen, argalen banaka batzuei baizik zotzak erakutsi gabe; eta berebat soldata emateko denbora eldu zanean, Labanek beretzat txit gitxi arkitu zituen, zeren argal aietatik bakarrrik nabarrak sortu ziran, eta oiek ere txit argal-aiekatuak, eta gaitz-etsiak.

Urteak zijozzen onela, Labanek gaur batzuek, eta biar besteak beretzat aututzen. Atzenean ikusirik beti Jakob ondoena irten, eta aberastutzen zijoa, suiaren ona ezin eraman gaizto, eta aren gorroto biziak artu zuen. Jakobek igerritzen zion, eta kontuan zebillen. Onetan bein batean Jainkoari aditu zion, esaten; zure erri eta gurasoen etxera itzuli zaitte, eta zurekin izango nazu. Jakob bereala jarri zan Jainkoaren esana egiteko; baño aurrean asko eragozpen jartzen zitzaiozkan, Labanen ondolik igesegiteko: ala ere, bi emazte Rakel eta Lia bera zegoan lekura atotsirik edo eramanik, esan zien, zer asmo zuen, eta ea aiek ere jarriko ziran beren gurasoak eta etxea utzi, eta arekin batean joatera? Biak, baiez, erantzun zioten.

Bereala bi aizpak aurrena, eta Jakob urrena Haranera itzuli, eta alzan isillena biderako prestamenak egin zituzten. Laban ardi-mozketan zan aldian, Jakob Mesopotamiatik irten zan, bere emazte, amaika semeak eta alaba, gañerako mirabe, ondasun eta gauza guziakin arturik. Rakelek ere bere aitaren idoloak isillik artu zituen, dala asko balio zutelako, dala bere aitaren etxetik Jainko gezurrezkoak aienatzeagatik.



## 6. Mesopotamiatik Jakob en igesa

Laban irugarren egunean oartu zan, Jakobek emazte, hume eta gauzakin iges-egin ziola, eta bere aideak baturik, ari zerraikiola, irten zan atzitzeko asmoan. Zazpigarren egunean eldu ziran, Jakob bere atsedena egiten gelditu zan Galaadko mendian ikustera. Illunak artu zituen Jakob eta Laban, nor bere lekuan etzauntzak eginda. Jakob Labani bildur zitzaion, baña uste oso betea zeukan, ara joateko agindu zion Jainkoak lagunduko ziola. Labanek, berriz, Jakob bere gauza guziakin atzitzat zeukan. Onela zeudela, Labanek ametsetan aditu zuen Jainkoaren ots bat, esaten ziona, ez Jakobi gaitzik egiteko. Dei onekin Labanen su guzia itzali zan. Biaramonean egun-sentian Jakobi ondora joan zitzaion, eta bere espasunak agertu ziozkan, ziotsala, ea zergatik aren isillik, katibuak baziran bezala, alabak eraman ziozkan, azken-agurra egin, eta alaba-illobak laztantzeko ere lekuri eman gabe? Ezagutu zezala gisa artan iges-egitea zein itsusi zan; eta eginbide onegatik merezi zuen kastigua ematea eskuan zeukala, baña Jainkoak eragotzi ziola gaitzik egitea, eta etziola egingo ere. Nork bere guraso eta aideen etxera itzuli nai izatea, bidezkoa zala: baña ea zergatik aren idoloak ostuta zeramatzkien? Jakobek Labani espa oiek moduz aditu, eta erantzun zion, alabak kenduko ziozkan bildurrak, isillik eta ari kontu-eman gabe, iges-eragin ziola: baña idolorik ostu etzuela. Au obeto sinitserazotzeko esan zion, berari edo bereetako inori topatzen baziozkan, aiek zeuzkana, guzien aurrean il zezala. Jakobek etziekien, Rakelek zituenik. Jakob en eta bere emazte Lia, Bala, eta Zelfaren txaoila edo etzauntzetan idolo billan Laban sartu zan, eta etzitzen arkitu. Rakelenean ere sartu zan, baña emakumea argi onek gamelu baten tresna-pean gorde zituen, eta bera gañean eseririk, aitari esan zion; ez, arren, gaitzat artu ni ez jaikitzea; bada ezin naiz, eta gaizki nago. Labanek idoloak billatzez asperturik, eta alabari, aitzakia au sinisturik, pakean utzi zion, eta arkituko etzituenez etsi zuen.

Jakobek orduan asko espa eta kejurakin aitagiarrabari eraso zion, ainbeste mesede artu, eta gero bera eta bereak lapur egiten izan zuen eskergabekeria arpegian emanaz. Gogoraerazo ziozkan, ogei urtean egin ziozkan serbitzo eta morrontzak; ugaritu ziozkan ondasunak; Jainkoagandik iritsi ziozkan mesedeak; eta oien truke beti gorde izan zion gogortasuna; eta lengoak asko, ez ezik, orain lapur egitearekin eman zion nai-

gabe eta miña. Labanek espasun ain bidezko oiek ontzat artu ziozkan; eskatu zion, bien arteko pakeak bein betiko egin zitezela. Jakob artara jarri zan; eta biak adiskidetu ziran; elkarri gaitzik ez egiteko itz ziñeztua bata besteari eman zioten; arri-munto bat ipiñi zuten, bi alderdien muga izan zedin, eta bata bestearen kontra andik igarotzeko eskubiderik izan etzezan. Egun guzia adiskidetasun gozoan egin, eta biaramonean Laban, bere bi alaba, eta oien humeai laztan emanik, eta bedeinkaturik, Mesopotamiarra bere erri Haranera bere lagunakin itzuli zan.

Jakobek ere bere bidari ekin zion, baña aitagiarrabaren gogortasuna bigundu, eta zion aierkunea itzalita, onen aldetik bildurrik ezbazuen ere, ogei urtez lenago etxetik irten zanean utzi zuen anaia Esauenetik poz bera etzeraman. Baziekien, alabañan, onek hura iltzeko itza emana zeukala, eta berri onek itzutzen zuen, eta pensakizun andietan zeukan. Baña O Jainko andia! Etxetik igesi zijoala, aingeruak ametsetan agertu zitzaiozkan bezala, etxeronzkoan zeraman bildurra kentzeko ere ikusten ditu aingeru-samalda bera gordetzera irteten zaiozkanak, eta deadar egiten du; Jainkoaren egon-lekuak dira oiek: eta toki ari deitu zion, *Makainaim*, zeñak esan nai du *egonlekua*.

Esauk ogei urte aietan bere ondasunetan asko aurreratu zuen, eta aginte andia zeukan. Berri onek Jakob are geiago estututzen zuen: ala ere ikusi nai zuen ea zer arrera egiten zion? Mandatariak bialdu ziozkan, bere izenean agur egitera, eta adiskidetu ote zan jakitera. Mandatariak itzuli ziran, Esau, anaia Jakob alderatzen zitzaioala aditu bezain laster lareun gizon arturik, bidera zetorkiolako berriarekin. Gaztigu onek Jakob en biotza osoro il zuen. Seme, mirabe, eta serbitzariak gañera berekin abere eta gauza asko zituen, isillik nora-nai joateko; argatik Esauri bere asmoa adierazo nai izan zion. Ikusirik, bada, anaiaren lengo aierkuneak bazirauela, bere prestamenak artu zituen, anaiak erasotzen bazion ere. Bere jendea eta gauza guziak erdi bi egin zituen, esanaz, batzuek galtzen baziran, besteak, beintzat, gordeko zituela. Jakob Jainkoaren eskuetan jarria zegoan, eta lagunduko zion uste oso osoa zeukan; ala ere nork bere aldetik al-egina egitea Jainkoak nai duela ziekialako, prestamen oiek artu zituen. Gero Jainkoari erreguz jarri zitzaion onela; Nere aita Abrahamen Jainkoa, eta nere aita Isaaken Jainkoa: «Zure errira itzuli zaite, eta on egingo dizut» esan zidazun orrek, nere anaia Esauen eskuetatik gorde nazazu, ama eta semeak il-oztu ez ditzan.

Erregu au egin ondoan, auntz-samaldak, artaldea, eta gamelu asko auturik, oiekin morroiak bialdu zituen Esauk zekarren bideronz, esanaz; nere aurretik zoazte; eta abere-taldeak bijoaz bat-banaka, edo batagandik



besteagana zer bait bitarte edo une dutela. Lenengo zijoan morroiari esan zion; nere anaia Esau topatzen badezu, eta galdetzen badizu norena zera? nora zoaz? eo daramazun ori norena dezu? erantzun zaiozu; Jakob zure serbitzariak Esau nere Jaunari bialtzen diozkan emaitza edo erregaloak dira; eta bera ere gure ondoren or dator. Bigarren morroiari ere agindu bera egin zion. Gau artan Jakob bertan gelditu zan. Biaramonean eguna baño lenago jaiki, eta bere bi emazte nagusi Rakel eta Lia, beste bi beera-gokoak, amaika semeak eta alaba, eta zituen gauza guziak arturik, Jakobko ibaia igaro zuen, eta beste guziak aurrera bialdu, eta bera bakarrik gelditu zan.

## 7. Aingeruarekin Jakob en burruka

Egoera onetan, biotza zeruronz jasorik, Jainkoari laguntza berriro eskatu zion: eta gizonaren antzeko Aingeru bat agertu, eta itsatsi zitzaion. Jakob eta Aingerua burruka luzaro ibilli ziran, elkar ezin azpiratuz. Aingeruak ikusirik Jakobek zein gogor egiten zion, istar-zañean jo zuen, eta bereala igartu zitzaion; ala ere Jakobek etzion bere arerioari eskuetatik uzten. Orduan Aingeruak esan zion; utzi nazazu, egun sentia data. Ez, Jakobek erantzun zion, etzaitut utziko, bedeinkatzen ez nazun artean. Aingeruak galdetu zion, Nola deritzazu? Jakob, erantzun zion. Etzera, bada, gaurgero Jakob deituko, *ezpada Israel*, Aingeruak esan zion; zergatik, ze, baldin ain sendo eta irme Jainkoaren kontra eraso badezu, nola gizonak garaituko ezdituzu? Jakobek kontu hura norekin zuen jakin naiez, Aingeruari izena galdetu zion, baña Aingeruak erantzun zion; ea galde hura zertako egiten zuen? Orduan Aingerua Jakob en eskuetatik irten zan; bedeinkatu zuen; eta ezkutatu zitzaion. Jakob arri egiñik gelditu zan, Jaunari eskerrak ematen, esanaz; Jainkoa arpegiz-arpegi ikusi det; eta leku ari deitu zion *Fanuel*, au da, *Jainkoaren ikusker*a.

## 8. Jakob eta Esau en elkar ikustea

Eguzkia argitu zanean, Jakob Fanueldik bere etxeoetaronz irten zan; istar-zaña igartu zitzaiolako, errenka zijoan; baña irme eta sendo, Aingeruarekin jazarra edo pelea izan zuen ezker

eran ipiñi zituen: lenengo Bala, eta Zelfa bi emazteak beren lau semeekin; gero Lia bere sei seme eta alabarekin; atzanean Rakel bere semetxo Jose eskutik zuela. Jakob guzien aurretik jarri zan. Bi anaiak zer bait alderatu ziran, Jakob bera, etxeoak atzean utzita, aurreratatu zan; anaiari zazpi aldiz agur egin zion, unetik unera auzpez jarriaz, zeñaren umiltasuna Esau ikusi zuenean, biotzak etzion gaitzik egiten utzi: besoak zabaldurik, Jakobi sartu zitzaion; eta biak laztan gozoak elkarri emanaz, luzaro egon ziran, negar-malkoak zerietzela. Bitartean Jakob en emazte eta humeak eldu ziran, eta Esauri agur egin zioten, zeintzuek ikustearekin Esau atsegin andia artu zuen.

Anaia onen biotz gogorra arkitu zan bat-batean bigundua, eta ain aier zitzaionaganako txit etziña. Aldaketa guzi au umiltasunak ekarri zuen; bada, Jakob eta bere etxeoak izan zutenarekin ain betero gogoan sartu zitzaiozkan, non, biotzik obenarekin begiratu zien. Anaia bien arteko adiskidetasuna egin, eta elkarrenak bezala bizi izateko itza bata besteari eman zioten. Jakobek zeramazkien emaitza eta eskuerakutsiak anaiari eskeñi ziozkan; zeintzuek artzera, nekez bederik, Esau ipiñi zuen. Onak agertu zion oraindik ibilli bearra zeukaten bidea elkarrekin egiteko eresia; baña Jakobek erantzun zion, emazte minberak, aur gaztetxoak, ardi eta bei umegiteko bete-beteak berekin zituela, eta baldin bidean geiegi nekatzen bazituen, egun batean ilko zitzaiozkala: argatik Esau aurrera zijoala, eta bera ondoren ez-arian bere etxeoai zegokien donarioan jarraituko zala. Jakobek etziozkan artu nai izan, bidean laguntzeko Esau eskeñitako gizon-armadunak, esanaz, etzuela ezer ere, aren adiskidetasuna, eta ondo-naia baizik bear. Onenbestez Esau bere etxera Seir-era itzuli zan, anaiari itz poz eta atsegingarrienak emanik.

Orra nola Jakobek iges-egin zion, bizia kendu naiez zebilkion Esau bere anaiaren aserrear

Jakob, ez dakigu zergatik, etzan Esa bizi zan tokira joan, ezpada Jordango zelaietara, non Sikemgo lurrean etxea egin, eta bere bizitza ipiñi zuen. Bazter eder aberats onetan zer bait denbora igaro, eta Salem zeritzan Kanaango Uri ondora aldatu zan. Emen erosi zuen, eun urtez lenago bere asaba Abrahamek izan zuen lurra; aldare bat egin, eta Jaunari sakrifizioak



eskeñi ziozkan, ustez emen luzaro bizitzeko asmoan; baña etxean gertatu zitzaion naigabe batek laster andik bialdu zuen.

## 9. Dinaren gertaera

Jakobek Dina zeritzan alaba bakarra zuen, eta au amasei urtekoa zala, Sikemera joan nai izan zan, ango emakumea eta oien janziak ikustera. Dinak etzuen, lanbide onetatik okerrik etorri bear zitzaionik uste; baña mirapilliak edo ikusi-naiak asko galtzen ditu, Dina aldi onetan bezala. Ango Errege Hemor-en seme Sikemek Israeltar neskatz gazte au errian ikusi zuenean, gogoan sartu zitzaion, eta indarrez etxera eramanezorik, osotasuna galdu zion. Dina negarrez malkoak zeriozkala lotsaz bururik jasotzeko ere kemen gabe Sikemen zegoan. Galai ark Dinaren egoera mingarria eta negarrak ikusirik, poztu nai izan zuen; eta ezkontzeko itza ere eman zion. Onetarako aita Hemor-i baimena eskatu zion, gazte bien artean egindako okerra agertuaz.

Jakobek bere alabaren autsi-oso negargarria jakin zuen, bere semeak abere-zantzan zirala, eta etxera zetozen artean isillik zegoan. Bitartean Hemor Sikemgo Erregea bere semearekin Jakobi joan zitzaion, bere erraintzarako alaba-eske. Ordurako Jakobek semeak ere etxeratu ziran; eta arrebari gertatua aditu zutenean, aserre bizi-bizian sartu ziran; baña su au agertu, ez ezik, Hemor eta bere semearen eskariak, eta eskeñtzak ontzat artzen zituztelako irudia egiñaz, erantzun zuten, baldin aien arreba emaztetzat artu nai bazuten, zirkunzidatu zitezela, aiei legeak agintzen zien bezala. Orduan Dina eta gañerako neskatzak ezkontzaz emango ziez-teela: bestela, Jainko bat bera aitortzen etzutelako, bat-egin ezin zitezkeala. Jakobek semeak barrunen zerabilten asmoa ain ondo estali zuten, non, Sikemgo aita-semeak etzieten igerri, eta susmorik edo sospetxarrik ere artu. Bereala errira joan eta jende guziari esan zioten, Israeltarrakin itze-gin zutela; eta bi aldetakoak ezkontzaz elkartzeko txit ondo zetorkiela; baña onetarako Israeltarren legeak agintzen zuena egin bear zala. Sikemtarrak gogo guziarekin artara jarri, eta gizonezko guziak zirkunzidatu ziran. Andik irugarren egunean, noiz eta zirkunzizioaren oñazeak surik andie-nean zeuden, eta ezertarako ere gauza etziran, Jakobek seme Simeon eta Levi beren ezpatakin Sikemen sartu, eta gizon guziak, Errege eta bere semeari ere barkatu gabe, il-zituzten; eta arreba Dina berekin arturik, aitari eraman zioten. Beste semeak ere errian bereala sartu, zegoan gauza on

guzia artu, gañerakoak ondatu, eta atzenean emakume eta aurrak katibu eraman zituzten.

Nork esango zuen Dina, bere aitaren etxetik Sikemgo emakumeak ikustera irtetean, bere mirapilliak ainbeste kalte eta gaitz ekarri bear zituela? Eba sagar ederra ikusiak galdu zuen, eta Dina ere bai, emakume batzuek ikusi naiak, zeña txit galbide andia da, ala gizonetan nola emakumeetan, eta iges-egin bear diona, galdu nai ez danak.

Langai negargarri oiek Jakobek aditu zituenean, biotza erdiratu zitzaion, eta erdi-nastua jarri zan. Bere alaba bakarra galdua! Bi seme gizon-iltzalle! gañerakoak lapur-ondatzalle! Zer pena Jakobentzat gaiztakeria eta ez-bear oiek guziak etxean ikustea! Naigabe oiezaz gañera, an bazegoan, etorkizunak larritzen zuen, zeren ildakoen auzoak etorri, eta Sikemgoai egindako ilkintza eta kalteak ordaindu zituzkiketean. Au gogoan zeukala, bere burua nola-ere-bait gordetzeko, katibu eraman zituzten emakume eta aurrak beren abere eta gauza guziakin etxera itzultzeko eskubidea emanik, artu zuen nora etziakiela, iges-egiteko asmoa.

Baña, Jainkoak bere serbitzari leial onezaz kontu zuen; agertu zitzaion; eta esan zion; Betelera zoaz; an bizi zaite; eta anaia Esaturen igesi zebiltzala agertu zitatzun Jainkoari aldare bat egiozu. Jakob bere etxeko guziakin bidean bereala jarri, eta Betelera joan zan, non Jainkoak berriz ere itz-egin zion; aitasaba Abrahami egindako eskeñi andiak berriztu ziozkan; eta itz-aldi onen oroipenerako arri-pilla bat egin, eta ardo-olioak bota ziozkan.

## 10. Rakelen iltzea

Udaberrian Beteldik irten, eta Efrataronz zijoala, naigabe andi bat izan zuen. Rakel aurgiteko bete-betea zegoan, ez ordea ustez, bidean gaizki ibilliko zala bildur izateko ainbat egunetan aurreratua. Baña, uts-egin zuen. Efratara baño lenago aur-miñak artu, eta mundura zuen seme bat, *Benjamin* zeritzana; eta aurgiteko neke-oñazeakin ama bereala il zan.

Ainbeste nai zion emaztearen iltzearekin Jakobek artu zuen pena, ezin bear bezala neurtu diteke. Seme berri bat ikusteak etzion arintzen. Bere negar guzien erdian, Efrataronzko bidean, gero Belen deitu zitzaion tokian, progu andiarekin lurpetu zuen; eta zerbait aztutzearren, nai zuen aldegin; baña, Benjamin jaio-berria bidean nola-nai erabiltzeko etzegoan; eta bi lanbide oiek nola-ere-bait zuzentzeko, Bala bere emaztearekin Ben-



jamin Belenen utzi, eta bera gañerako seme eta etxeokakin aurreronz ordeka-zelai andi batera joan zan.

Jakob emen bizi zala, Ruben seme nagusia, Bala bere aitaren emazteaz lilluratu zan edo amorioa artu zion, eta Beleneran joanik, biak nastu ziran. Jakobi berri onek naigabe andia eman zion, baña beste era bat artean isillik zeukan. Zelai onetan abereak bazkatzen urte bete egin, eta gero Benjamin amaordekoaren besoan ibiltzeko adiña egin zanean, Manbrera joan zan, non arkitu zuen bere aita Isaak, ogeita amar urte aietan ikusi etzuen, ez ordeka bere ama Rebeka, urte batzuek lenago il zalako. Isaak bere zarzaroan itsutua, eta eria zegoan, eta Rebeka il zitzaion ezkerro inondik ere poz gabe. Jakob eta Esau bi semeak antziña aldegin zioten, eta bere lasatze guzia Jakob noizbait itzultzearekin zeukan. Ordu au bete zitzaion. Isaaken bizi-lekuan Jakob sartu zan, eta biak laztandurik luzaro egon ziran elkar ezin utziz. Gero bereala Jakobek aurkeztu ziozkan bere seme guziak, zeintzuek Isaakek atsegin andian bedeinkatu zituen, Semeak etxetik irten zanetik arterañoiko gertakari guziak, esan ziozkan, eta aitak ezagutu zuen, bere ibilli guzietan Jainkoak lagundu ziola.

Isaak txit zarra eta eroria zegoan; ala ere, bere seme maitea eta onen humeak ikusteak biotza zabaldu zion, eta beste amairu urtean bizi izanik, eunda larogei urtekoa il zan. Ordurako Esau beste semea ere inguratu zitzaion, eta anaia biak progu andia egin, eta Abraham asabak erositako koban, ama Rebeka eta Abraham eta Sara ait-amonaen ondoan Isaak lurpetu zuten.

Esau eta Jakob bi anaiak adiskideturik, arestian esan dan bezala, aitaren eriotzan elkarrekin zeuden. Ala Esau nola Jakob txit aberatsak, eta abere eta atzienda asko zeukaten, beragatik ezagutzen zuten, ezin bata bestearekin izan zitezkeala, eta Esau bereakin Seir-era itzuli, eta Jakob berebat bereakin Kanaango lurrean gelditu zan.

## SEIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Jose

Jakoben bizitza nekezkoa zala ezagutzeko adiña esan da; baña arte-rañoiko azkarriak geroko zeuden; Mesopotamian amabi seme eta alaba bat izan zituen, gisa onetan; Liagandik Ruben, Simeon, Lebi, Judas, Isakar, Zabulon, eta alaba Dina: Balagandik Dan eta Neptali: Zelfagandik Gad, eta Aser: eta Rakelgandik Jose, eta Benjamin geroago bidean jaioa. Mesopotamian izan zituenetan atzenekoa zuen Jose, zeñari, bere ontasunagatik, eta zarzaroan bere erreguakin Jainkoagandik iritsia zalako, txit asko nai zion, eta bere maitetasuna erakusteko, janzi nabar polit bat ere egin zion. Berezitze edo aukera-antz au anaiak gaizki eraman zuten, eta gorroto artu zioten. Jose amasei urtekoa zala, bere anaiak gaiztakeria itxusi bat egin, eta Jakob bere aitari salatu bearrean arkitu zan. Salaketa onek su geiago eman zion, besteak ez bezala, seme gazteena aitak maite izateak sortzen zuen ezin eramanari, eta aier zitzaiozkan. Andik laster Josek amets batzuek izan, eta bere anaiak agertu ziezen. Begira zer amets egin dedan, anaiak esan zien. Iduritu zitzadan senide guziok soroan gari-bal edo sortak egiten genbiltzala, eta nere bala besteak baño andiagoa zala, eta zuenak nereari aguregiten ziotela. Anaiak erantzun zioten; zer, gure Errege izango ote aiz? Edo ire mendeko izan bear ote gaitu? Anaiaren aierkuneari errekin geiago emateko, Josek bigarren ametsa ere esan zien. Begira zer: iduritu zat eguzkiak, illargiak, eta amaika izarrek agur egiten zidatela. Amets onen berri aitari ere eman, eta aitak erantzun zion; amets orrek zer esan nai du? Zer bada? Nik neronek, zure amak, eta senideak lurrean adoratu bear zaitugu? Bi amets oiek senideen gorrotoa gañeztu zuten; geroz begi onez begiratzen etzioten, eta itz on bat ere ez esan. Ala ere aitak beregan zeramazkien, zer esan andiak zituztela, gogoan arturik.

### 2. Joserren salera

Andik ondoren Jakobek semeak Manbretik irten, eta Sikem-ingurura joan ziran, arreba Dinaren gertaeragatik utzitako larre gozo ugariatzen





ardi eta beste abereai jaten ematera. Jose etxean aitarekin gelditu zan. Zerbait denbora semeen berri gabe aitak igarotakoan, Joseri agindu zion, anaiatara joan, eta nola zeuden jakin zezala. Jose bereala prestatu, eta aitari laztan emanik, irten zan. Zein gitxi uste zuten ez aitak, eta ez semeak, ogeita geiagu urtean elkar ikusi gabe egon bearko zirala! Jose Sikem-ondora joan zan; baña etzituen anaiak topatu. Or-emen billan zebillela, anaiatz galdetu zion gizon bati, zeñak erantzun zion, andik aldegin zutela; eta «Dotainera goazen» esaten aditu ziela. Jose ere Dotaineron abiatu zan. Anaia au, besteak urrutitik ikusi zutenean, beetaronz zijoakiela, elkarri esan zioten; ara, ametslaria badator. Ots, il, eta putzuzulo onetan bota dezagun; gero esango degu, pisti gaizto batek jan duela: orduan ikusiko degu, bere ametsak zer balio izan dioten. Ruben anaia zarrenak etzuen esan au ondo artu; aditu utsarekin izutu zan, eta besteen eskuetatik gordetzeko, alegin guzia egin zuen. Ez il, esaten zien, eta ez bere odolik isuri; ezpada ur gabeko putzu onetan sartu ezazute, emen berez ilko da, zuek zeron eskuak kutsutu gabe. Rubenek onela itzegiten zien, gero andik atera, eta aitari bialtzeko asmoan. Itzketa onetan anaiak ziardutela, Jose gizaxoa alakorik gaitz-pensatu gabe joan zitzaien. Bereala eskuak ezarri ziozkaten; eta ez bere humetasunak, ez bere negarrak, ez aitak artu bear zuen naigabea, aien biotz gogorrek biguñtzeko adiña izan ziran. Bere janzia kendu, eta putzu-zulo agor batera bota zuten. Andik laster Isameltar mandazai batzuek alabearrez Ejiptoronz jaisten ziran: eta Judasek, anaiaren negar triste eta garraxiakin errukiturik, besteai esan zien. Aur au emen iltzearekin zer aurreratzen degu? Beti gure anaia da; obe deritzat, mandazai oriei saltzea. Esan au ontzat artu, eta putzutik aterarik, eunda berrogeita amasei errealean mandazaiai saldu zieten, eta erosleak Ejiptora eraman zuten.

Anaia arrizko aiek beren lanbide makurra estaltzeko, antxume bat il, onen odolarekin Joseri kendutako janzia busti, eta aita Jakobi bialdu zioten, esanaz; janzi ori arkitu degu, zuk dakusun gisan: begira zure seme Joserena ote dan. Nork esan aldi onetako Jakoben biotz-erdiratzea! Ezagutzen det, bai, deadar egin zuen; nere seme maitearen soñekoa da au! Pizti gaizto batek nere semetxoa jan dit! Negarrari eman zion, ezin inork poztu zuen eran. Beste semeak beren gaiztakeria kolkoan zeukatela, loseintxan joan zitzaiozkan, lasatzera, baña erantzuten zien, alperrik ari zirala; beste munduan semearekin batu artean aren negarrak iraungo zutela.

Ona izatea asko da, munduan gorrotatua, eta gaizki ikusia izateko; mundua mundu dan artean ala gertatuko da. Jose ona eta zuzena zan; eta

anaiaen gaiztakeriak ezin eraman zituelako, saltzerañoko gorrotoa eta aierkunea artu zioten: baña Jainkoak Joseren bitartez gauza andiak egin asmo zituen, eta bizirik gorde zuen.

### 3. Tamar-ekin Judasen bekatua

Jakoben naigabeak bazirauen, eta lena arindu bearrean berri bat izan zuen. Judas bere bostgarren semeak etxetik iges-egin, zergatik inork ere etziakiela, eta Odolango urira joan zan. Emen Sue kanaantarraren alaba batekin ezkondu, eta izan zituen iru seme, Her, Onan, eta Sela. Judasek, seme zarrena adiñera zanean, Tamar zeritzan Kanaango neskatx batekin ezkondu zuen; baña bere astura lasai gaiztoakgatik Jainkoak il zuen, ondorengorik utzi gabe. Bigarren semea ere Tamar alargunarekin ezkondu zuen; baña Onan ere lenagokoa bezain senar gaiztoa zan, ezkontzari zegokion garbitasuna gordetzeko; eta aurrik ez izateagatik, gaiztakeria zatar itsusietan erori izan zalako, anaiaren gisa ber-berean il zan. Abrahamen jatorrikoen artean emakume bat alargundutzen zanean, senar zanaaren anaiarekin ezkondu oi zan, eta onegandik zituen semeak, lenengoaren izena eramaten zuten. Judasek ikusirik, bi semeak adiñaren lorean il zitzaiozkala, eta irugarrenari au bera gertatu zekiokan bildurrez, Tamar-i esan zion, aitaren etxera joan, eta emen bizi zedilla, Sela irugarren semea zerbait azi eta indarretan sartu artean. Tamar-ek aitagiarabaren esana egin zuen, eta bere aitaren etxera joan zan. Zerbait denboraren buruan Judas bera ere alargundu zan, eta emazte zanari progua egin, eta gero artu zuen Tamasera ardi-moxketara igotzeko asmoa. Tamar-ek asmo au landanaz jakin zion; eta Sela azi arren, ikusirik etziola senartzat ematen, bidegurutze batean irten zitzaion alarguntzako soñekoen orde, alaiak janzi, eta mantuarekin estalirik, ezagutu etzezan. Tamar-en lanbidea guziz gaiztoa, eta andre galdu batena zan, baña nai guziarekin irten zan. Judas sarean erori zan, norekin etziakiela, eta naste aren sarizat, erraztuna, esku-muturretakoa, eta bere makilla Tamar-i eman ziozkan, eta Tamar aitaren etxera itzuli zan. Iru illabeteren buruan Judasi esan zioten, Tamar aurgitekoko zegoala, eta Judasek, aserre bizian sarturik, agindu zuen, eraman zizaiotela, erre zedin. Denbora artan onelako gaiztakerian erortzen ziran emakumeai suzko kastigu au emateko eskubidea Etxeetako buruak bazuten, ildakoai egiten zitzaien desleialkeriagatik. Aitagiarabaren agindua Tamar-i esan zitzaion; baña Tamar etzan malmetituta, atzeratzeko bidea



eskuan zeukalako. Urkamendira zeramatela, gauza batzuek aitagiarrabari bialtzeko baimena eskatu zuen; eta zeramazkienari esan zion, gauza oiek ematean, nere aitagiarrabari esaiozu; sabelean daukadana alaja oien jabeagandik det. Judasek bereala berekotzat ezagutu zituen; kontuan jauzi zan; aitortu zuen, Sela senartzat eman nai izan etziolako, gaiztakeria artara Tamar ekarri zuela, eta il gabe utzi zion. Bederatzi illabeteetan eman zituen bi seme biroki, Farez eta Zara deitu zitzaienak, zeñaen odoletik Jesu-Kristo gure Jauna etorri zan. Jakobek zarzaro mingarria zeraman, bere etxeok alde guzietatik atekabea eta atsekabea ematen ziotelako. Jose ez beste hume guziak aitari negar-bide andiak eman ziozkaten; eta Jose ona, eta aitaren biotzeko maitea iltzat zeukan. Baña Jakob bere atsekabe andiak in erdiratzen utzita, orain Jose salduari garraizkion.

#### 4. Jose Ejipton

Ismaeltarrak Ejiptora eraman, eta Putifar soldaduen Agintari nagusiari saldu zioten. Bere gorputz eder egokiagatik batetik, lan guziak ondo egiteko modu eta erraen onagatik bestetik, eta guzien gañean Jainkoak artzaz zeukan kontuagatik, laster bere nagusiari gogoan sartu zitzaion; zeñaik morroi onen zintzoa eta eraen onekoa ikusirik, etxeko gora beera, eta artu-eman guziaren kontua eman zion, eta nagusiak etzuen utsegin. Amar urteren buruan, etxea ondasunez betetzen zijoan denboran, Jose onaren garbitasuna irrisku andian arkitu zan. Etxekoandreari Joseganako amorio galdua sartu zitzaion, eta bere gogoa agertu, ez ezik, etzion egun bat ere pakean uzten; baña Josek etzion beñere lekuri ematen. Bein batean Jose bere egitekoetara gelara joan zanean, etxekoandrea sartu zitzaion, onez edo gaitzez berea egiteko asmoan. Beste aldietan bezala beartu zuen; baña Jose, osotoro izaturik, igesi irten zan, etxekoandrearen eskuetan kapa utzita.

Emakume galdu onek, ikusirik etzuela nai zuenik egin, deadarrari eman zion; bere otsakin etxeko morroiak bildu zituen, eta negarrez arkitu zuten, ziola Ai ene senarraren zorigaiztokoal berak katibu bat etxean artu zuen; txit leialtzat dauka; eta ezdaki makur bat dala. Lotsagabe onek galdu nai izandu nau, eta ni oska asi naizanean, kapa au utzi, eta iges-egin dit. Nagusia etxera zanean, emazte gaiztoa negarrez aurkeztu zitzaion, esanaz, morroi billau gaiztoak galdu nai izan zuela. Emakume galgarri onek ain ondo esana edertzen jakin zuen, non, berak egin nai zuen gaiz-

takeria Joseri egotzirik, guziak sinistu zioten. Geiago gabe, andrearen esan utsarekin, Jose ziegan sartu, eta katez ondo lotuta, ipiñi zuten. Josek bere burua garbitzeko, Jainkoa beste lekuko edo testiguri etzeukan; baña arte-raño gorde zuen Jainkoak, ziegan ere begiratu zion.

Josek nagusiaren gogoa bezala, ziega-zai edo amabiarena ere laster beretu zuen, eta kateak kendurik, beste preso guzien kontua eman zion. Josek ziegan urte bete zeraman denboran, Erregearen edontzizaia, eta okin-nagusia utsegiteen batzuekगतिक berebat sartu zituzten; eta oiek ere, besteak bezala, Joseren kontura jarri ziran. Gau batean biak egin zuten pensakizun andiak eman ziezten amets bana. Ara zer. Edontzizai edo Koproari iruditu zitzaion, ikusten zuela mas-mordo bat lenbizi iru lora-ekin; gero iru bikorrekin; eta atzanean, iru bikor oiek eldutakoan lertu, eta zumua Erregearen edanontzira bota zuela, Erregeari edaten eskeñtze-ko. Okin-nagusiari berriz iruditu zitzaion, bere buru-gañean iru saski-irin zekarzkiela, eta oietatik goenenekoan, orrez egin-al zitezkean janari guziak zeramazkiela, eta txoriak etorri, eta jaten ziotela. Biaramonean Joseri esan zioten, zer amets egin zuten. Josek edontzizaiari esan zion; zu iru egunen barruan lengo zure egitekora itzuliko zera. Zure ametsak au esan nai du. Gauza bat eskatzen dizute: lengo oñean jartzen zeranean, Josez aztu gabe, errukitu zaitzela, ni ziega onetatik Faraoni ateraerazotzeko; bada, Ejiptora saltzez ekarria naiz, eta emen bide gabe naukate. Okin-nagusiari esan zion; iru egunen buruan Erregeak lepomoztuko zaitu; gurutzean zinzilika ipiñiko zaituzte, eta zure aragia egaztiak jango dute. Zure ametsak au esan nai du. Egiaz, Josek esan bezala, guzia gertatu zan. Okiña urkatu, eta edontzizaia lengo egitekoetara joan zan; baña edontzizaia Erregearen adiskidetasunera biurtu bazan ere, Josez etzan oroit, eta au bere katibuan gelditu zan.

Andik bi urtera Faraonek berak izan zuen amets bat, iñork ezin asmatu zuena, eta buruauste andiak ematen ziozkana. Ara ametsa. Lotan ikusi zituen zazpi bei gizen-gizen Niloko ibaitik irteten, eta ur-ertzean jarri, eta jaten: bereala beste zazpi bei-me-argal, ezur-uts egiñak ibai bere-tik irten, eta lenbiziko zazpi gizenak iretsi edo tragatzen. Izu-ikaran esnatu, eta berriz ere loak-artu zuen: eta lo onetan ikusi zituen zazpi galburu eder mardul, lasto batetik zetozenak; eta gero beste zazpi zimur, lenbiziko-koen edertasun guzia itsusitzen zutenak. Orobat ikaratua esnatu zan. Biaramonean-goiz Erreinuak jakintsuak beregana erakarri zituen: baña iñor etzan, amets aiek zertara eman ziekienik. Orduan edontzizaia Josez oroit zuen, eta Erregeari esan zion; Ni esker gaiztoko bat naiz. Gero esan ziozkan, bera eta okin-nagusia ziegan zeudela, izan zituzten ametsak; eta



zer esan nai zuten, Josek asmatu ziela. Andik irteten zanean aren alde al-egiña egiteko itza eman ziola; baña etziola bear zuenik egin, eta bein bera kateetatik irten ezkerro, an gelditu zanaren konturik etzuela izan.

## 5. Joseren igotzea

Faraonek au aditu zuenean, bereala erakarri, eta bi ametsak esan ziozkan Joseri, zeñak erantzun zion; Bi amets oriek, Jauna, gauza bat bera esan nai dute. Zazpi bei gizenak, eta zazpi galburu beteak abuztu oneko zazpi urte, eta zazpi bei argal, eta zazpi galburu zimurrak abuztu gabeko beste zazpi urte adierazten dituzte. Orain, bada, Erregeak gizon jakintsu, eta ezertako bat autu beza, Ejiptoko bazter guzietan bere ordekoak eta eraentzalleak edo gobernatzalleak ipiñi, eta oien bitartez, datozen zazpi urteetan izaten diran laboreetatik bostgarrenak erosi, eta ondorengo zazpi ez-urteetarako ganbaraetan gorde ditzan. Onela Erreinuak, goseak ondatu gabe, iraungo du. Joseren esana Faraoni ondo erori zitzaion; eta lanbide artarako Jose bera baño obeago eta adituagorik ezin arkitu zitekeala pensaturik, agindu zion, Erreinu guziaren Buru eta Eraentzalle jarri zedilla; eta jende guzia aren esanera egongo zala. Bere eskualdi guziak eman ziozkan: eskuko erraztuna beatzean ipiñi zion; eta artzen zuen agintea adierazten zuten beste gauza asko ere eman ziozkan; bere bigarren edo urreneko kotxean sartu zuen; eta atzenean agindu zuen, Joseren aurretik pregonari bat ibiltzeko, Joseren etorrera adierazten; eta ots au aditzen zuten lekuan, guziak belaunikatu zekizkiola, eta Ejipto guziko Buru, Nagusi edo Gobernatzalletzat ezagutu zezatela.

Josek anditasun eta eskualdi onetara igo zanean, ogeita amar urte zituen. Lanari bereala ekin zion. Erreinuak bazter guzietara joan zan; bere ordeko eraentzalleak or-emen ipiñi, eta ganbara edo aletegiak egin zituen. Zazpi urte abuztu ugaria eman bear zutenak asi ziranean, Jose ere laboreak ganbaraetan sartzen asi zan. Zazpi urte on oiek bukatutakoan, berebat zazpi ez-urteak ere asi ziran. Jendea zer janik etzuela arkitu zanean, Faraon-i eske jarri zitzaiozkan, eta Faraonek erantzun zien; Josegana zoazte, eta berak esaten dizutena, egizute. Jendea Joseri joan zitzaion; ganbarak zabaldu zituen; eta bear zuten guzia txit merke ematen zien.

## 6. Joseren anaiaen joanera Ejiptora

Gosete izugarri au Ejipton, ez ezik, auzoetan ere sortu zan; beragatik Ejiptokoai bezala, atzerrietakoai ere Josek eskua luzatzen zien, eta zijozkion guziak, eskatzen zutena, bere ganbaraetan arkitzen zuten. Kanaango alderdian ere gaitz au sortu zan; eta Jakob emen bizi zana, norabait eske joan bearrean arkitu zan. Barreatu zan, zer jana Ejipton saltzen zala; eta Jakobek Benjamin gaztea etxean utzi, eta beste amar semeak gari-eske Ejiptora bialdu zituen. Jakobek amar seme oiek beren anaia Joseri aurkeztu zitzaiozkan, eta bere aurrean belaunikatu ziran, ara zijozkionak egin oi zuten bezala, zeñaren bidez anziñako ametsean Joseri iruditua egin zuten. Nor ziran, Josek bereala ezagutu zituen; baña Benjamin anaiatxoa an ez ikusteak atsekabe andia eman zion, berari egiña bera Benjamini ere egin zioten bildurrak artu zuelako. Gogorkiro itzeñiaz, galdetu zien; ea nongoak ziran, edo nondik zetozen? Ea Ejiptora zertara joan ziran? Onelako galde zorrotzak Joseren aotik aditu zituztenean, beren anaia zutela oartu edo kontuan jauzi gabe, beren buruak garbitu nai izan zituztan, erantzunaz, etzutela Ejiptora asmo gaiztorik eraman; ezpada bakar-bakarrik beren diruarekin gari-eske zijozzela. Esan zioten, nola aita eta anaia gaztetxo bat etxean utzi zituzten; nola beste bat ere izan zuten, baña etzala ageri. Au guzia egiaz esaten bazuten ere, Jose kezketan zegoan, eta kartzelan sarerazo zituen. Irugarren egunean kartzelatik atera zituen, eta esan zien, beretatik bat baituria edo prendatzat utzi, eta besteak etxera joan, eta anaia gaztea ekarri zizaiotela. Orduan oartzen ziran, anaia Joserekin zer egin zuten, eta elkarri ziotsaten; neke oiek guziak bidez daramazkigu, anaiaren negarrak aditu nai ez giñituelako. Ruben anaia zarrenak besteai esan zien; ez nizuten nik esan, anaiari ez gaitzik egiteko? Aren odola emen dabilkigu. Itzketa au, etzuten uste Josek aditzen zuenik, zeren Ijipto garbi-garbi, aien itzkuntza etzielkientzat zeukaten. Baña guzia aditzen zien, eta kupiturik, eta ezin beregan gorderik, bazter batera joan, eta negar-aldi luzea egin zuen. Gero itzuli zitzaion, eta esan zien, etxera joan zitezela, Benjamin zekarten artean Simeon an geldituta. Josek aldegin zuen, eta bere morroiai agindu zien, bederatzia anaiak zakuak gariz betetzeko, eta zakuetan nori bere dirua isillik ipiñtzeko. Morroiak onela egin zuten, eta anaiak tristura andian Kanaanera itzuli ziran.

Aitak bere ondoan ikusi zituenean, bereala jakin nai izan zuen, bide luze artan nola ibilli ziran. Semeak erantzun zioten, ango Nagusiak txit zorrotz artu zituela; zure eta senide guzien galdeak egin, eta kontuak eska-



tu dizkigu, esan zioten aitari; eta gure esanak ez sinistu naiez, Simeon presondegian bere mendean gelditu du, esanaz, ez diola irteten utziko, eta guk ere ez degula aren aurrean berriz zer jarririk, alik eta Benjamin ari eraman arteraño. Au esan, eta asi ziran zakuak ustutzen, eta nork bere dirua zakuan arkitu zutenean, izu-ikara gorriak artu zituen. Jakoben biotza ere semeak emandako berriak erdiratu zuten; eta «Seme gabe utzi nazute» deardar egin zuen: Jose il zan; Simeon katibu dago; eta orain berriz Benjamin eraman nai didazute? Semeak etzioten bere lasatu-aldia artu artean, itzik erantzun nai izan. Jakob zerbait berera zanean, Rubenek esan zion, Benjamin iguzu, eta nik itzuliko dizut. Ez orrelakorik, aitak erantzun zion, ez da, ez, nere semea zuekin joango; zeren ezbearren bat oni etorri ezker, onen miñez illa nintzake. Urtebetean semeak leiatu zitzaiozkan, baña beti alpe-rik; etzuen alabañan, bere Benjamin maitea begietatik kendu nai. Gero-ean, Ejiptotik eramandako garia aitu, eta zer janik gabe arkitu ziranean, Jakobek semeai esan zien; Ejiptora zoazte, eta jatena ekartzute. Ori ezin daiteke, Judasek erantzun zion. Gizon ark esan zigun, baldin anaia au ezpagenduen eramaten, il bearrak giñala. Iguzu, eta bereala joango gera; Benjamin nere kontura gelditzen da: nere biziak arenagatik erantzungo du. Jakobek, orduan, beste biderik etzegoala ikusirik, bere seme maitea eramateko baimena eman zien. Agindu zien, arkitu al-zitezkean eskuerakutsirik obenak artu zitzatela, gizon ari emateko; zakueta eramandako dirua ere, itzuli zizaiotela, berriz erosteko bear zanarekin batean. Aita ansiatuak, bada, azken-agurra egin zien, osotoro Jaunaren eskuetan jarririk.

## 7. Bigarren joanera

Semeak Ejiptoronz abiatu ziran; eta Josek ikusteko tokira eldu ziranean, bereala Benjamini begiak ezarri ziozkan, eta bidante oiek itzegin zizaioten baño lenago, etxeko kontuartzalle edo maiordomoari agindu zion, bazkari oñ bat ipiñi zezala, elkarrekin guziak jateko. Maiordomoak ongietorri andiarekin etxean sartu zituen; baña amar anaiak etxe artan arkitu ziranean, ikaratu ziran, eta elkarri ziotatsen; zakueta eraman genduen diruagatik au egiten zagu: lapurtzat erabilliko gaituzte: galduak gera. Esturasun onetan maiordomoari eskaratzean albora joan, eta asi zitzaiozkan beren buruak garbitzen, esanaz, diru aien berririk etzutela, zakuak ustutzean ikusi zituzten arteraño; aiek eta orain erosteko bear zutena berekin zutela; beren usteetan gaitz edo kulparik etzutela. Maiordomoak

erantzun zien; pakea zuekin, ez ikaratu: zuen Jainkoak diru aiek zakueta ipiñi zizkizuten. Gero ekarri zien katibu utzi zuten anaia Simeon, zeñari laztan gozoak eman, eta aien biotzak lasatu ziran. Maiordomoak gela eder batera eraman zituen, eta esan zien, itxedon zezatela, alik eta Nagusia eguerdian zetorren arteraño.

Ordua iritsi zanean, Jose sartu zitzaian, eta senide guziak belaunikaturik, agur egin, eta etxetik zeramazkiten eskuerakutsiak eskeñi ziozkatzen. Josek diosal txit lanotsua egin, eta gero galdetu zien; zuen aita zarra oraindik bizi dezute? ondo gelditu da? Bai, Jauna, erantzun zioten; zure serbitzari gure aita onik gelditu da. Au esan, eta berriz ere belaunikaturik agur egin zioten. Orduan Josek Benjamiri begiak ezarri, eta esan zuen; Jainkoak urruki zaitzala, ene seme. Au esan, eta biotza autsi eta malkoak begietara agertu zitzaiozkalako, alde egin zuen. Bere gelan sartu, eta negarrari eman zion, eta negarrez urtutzen luzaro egon zan. Lasatu-aldia artu zue-ean, irten zan, eta agindu zuen, maia ipintzeko. Senide guziak zarrenetik zarrenera eserera zioten, eta bere eskuz jana ematen zien txit ugari, baña Benjamini beti besteai baño bost aldiz geiago. Senide guziak, zekustenarekin arriturik, jan-edan zuten, eta Joserekin poz andian zeuden, nor zan ezagutu gabe. Bazkalondoan Jose jaiki eta maiordomoari agindu zion, aien zakuak gariz bete zitzala, eta lengo aldian bezala, nori bere dirua isillik zakura itzuli zizaiola; eta Benjaminen Joseren edanontzi zillarrezkoa sartu zezala. Agindua maiordomoak egin zuen.

Biamonean senide guziak elkarrekin aita ikusteko pozean bideari eman zitzaiozkan; baña etziekiten, zeren begira zeuden. Josek oraindik obeto ikusi nai zuen, arekin len egin zuten lanbide gaiztoaren damu egiazkoa ote zeukaten, edo ez. Uritik irten ziranean, maiordomoari Josek agindu zion, gizon aiei zerraikiela, eta esan zizaiela, zertako ona gaitzarekin ordaintzen dezute? Daramazuten edanontzia nere nagusiarena da. Maiordomoak bidean iritsi zituen, eta zorrotz itzegin zien; baña senide guziak beren buruak garbitu naiez, zioten, etzutela bear etzan inoren gauzarik, eta menaz zebiltzala sinisterazotzeko, esan zioten; ontzi ori duenik gure artean bada, il bedi, eta besteok katibu geldituko gera. Ez, ez det orrenbeste nai, maiordomoak erantzun zien; asko da, hura daukana nerekin gelditzea; besteak beren bidean badijoazke. Bereala zakuak lurrera jautsi, eta nork berea zabaldurik, maiordomoak aztertu eta ikusi zituen, zarrenarenetik asi, eta gazteenarenañoko guziak, eta Benjamin gazteenarenean edanontzia arkitu zuen.

Senide guziak lanbide hura ikusi zutenean soñekoak urratu, eta abereetan zakuak arturik, Josegana itzuli ziran, eta auzpez barkazio-eske jarri



zitzaiozkan. Josek bekoki illunarekin artu zituen, esanaz; zergatik ori egin dezute? ez dakizute, gauza isillak asmatzen niri eramaten didanik inor ez dala? Joseren aurrean guziak auzpezturik, isillik zeuden; eta Judasek guzien izenean, eta besteen artean nabarmendurik, esan zuen; zer gure Jaunari erantzun dizaiokegu? Guk oben-kulparik ezdegu; baña gauza bat dago, alakotzat egiten gaituena. Len guk gaizki egin giñion Jainkoak gisa onetan kastigatzen gaitu. Ara zure mendean non gauzkazun, bai gu, eta bai edanontzia zeukana. Ez ori, Josek erantzun zion; Edanontzia zerama-na emen gelditu bedi; besteok zeron aitari zoazkiote.

Joseren esanak Judas ezin geiagoraño estutu zuen, eta erantzun zion; Jauna, itz bat esan nai dizut, eta ez aserretu. Lendabizian etorri giñanean, galdetu ziguzun Aitarik edo anaiarik badezute? Erantzun giñizun, aita zarra, eta anaia txiki zarzaroan jaio zitzaiona eta txit maite zuena genduzkala; eta esan ziguzun; onara ekardazute; ikusi nai det. Erantzun giñizun, gure aita, semetxo hura bere ondotik kendu ezker, illa gelditzen zala. Zuk esan ziguzun; ezbadezute ekartzen, ez nere aurrean geiago jarri. Etxera joan giñan; zuk zer eskatzen zenduen, aitari esan giñion, eta berri onekin naigebeturik, luzaro etzigun eman nai izan. Atzenezan zer jana aitua, eta goseak larritu ginduenean, aita esan zigun; Ejiptora zoazte, eta gari piska bat erosi ezazute. Guk erantzun giñion, ezin onara anaia gazteena gabe etorri gintezkeala. Aita txit ansiatuak erantzun zigun; zuek dakizute, nere Rakel maiteak etzerala seme bi baizik eman; bat nere ondotik joan zan, eta esan zenduten pisti batek jan zuela, eta egundaño etzat agertu. Baldin orain au eramango bazendute, eta bidean ez-bearren bat izan, tris-turan lurpetuko nazute. Orain, bada, Jauna, baldin gu aitagana joan, eta seme au gurekin ezbalijoa, miñaren miñez ilko litzake, eta gu zure serbitzariok aren ezurak penaz lurpera eramango giñituke. Ni nerau onen orde zure mendeko izango naiz, itza emanik nagoan bezala; ni nerau emen geldituko naiz, eta Benjamin bere anaiakin dijoala. Ni bera gabe nere aita gizaxoagana ez noa, nere guraso ona iltzen ez ikusteagatik.

Ontaraño Josek, nekez bederik, bere Jauntasunari, eta inguruan zeuzkanai begiratuta, negar gabe iraun zuen; baña ezin geiagora zanean, an zeuden guziak irtenerazo zituen, eta gizon arrotz ziralako aiekin bera bakarrik gelditu zan. Orduan negar-arteana ots andi batekin itz labur oiek doi-doi esan zituen: Jose ni naiz! Nere aita oraindik bizi da? Eta mututu zan. Anaiak ere izaturik, etzuten ezer esateko kemenik izan. Ijiptoak Joseren lantu eta negar-otsa aditu zutenean bereala igerrri zioten, zergatik izan-go zan; baita laster Faraoni adierazo ere. Josek, berera edo kontura zanean, esan zien; ni naiz zuen anaia, zuek saldu ninduzutena. Ez ikaratu;

zuen onerako zuen aurretik Jainkoak Ejiptora bialdu ninduen, eta Faraonen aita-ordeko eta Ejipto guziko Nagusi egin nau. Zoazkiote, eta nere aitari esaiozute; zure seme Jose bizi da; eta ara zer gaztigatzen dizun. Jainkoak Ejipto guziko Nagusi egin nau. Bere-bereala onara atoz. Gesengo alderdian biziko zera, eta nere ondoan egongo zerate zu zerori, zure seme, eta oien humeak, abere, atzienda eta dezuten guziarekin. Zer jana nik emango dizut, eta zure etxea eta zure etxekorik ez da galduko; bada, beste bost urtean gosete gogorak iraun bear du. Esaiozute, bada, nere Jauntasuna eta Ejipton ikusi dezuten guzia. Zoazte bereala, eta ekardazute. Itz oiek esan, eta Benjamini beso biakin eldu zion, eta biak besarkaturik luzaro egon ziran laztanka, eta malkoak ugari zerietzela. Beste senideak ere laztandu zituen, eta guziaz negar egin zien. Ordurako Joseren anaiaen etor-berria etxe guzian barreatu zan, eta Faraon eta bere etxekokak ere txit poztu ziran. Faraonek bereala Joseri atotsi, eta esan zion; abereak gariz beteta, anaiak etxera bialdu zitzala eta aita bere aide guziakin erakarri zezala, eta bear zuten zer jan guzia berak emango ziela. Berebat agindu zion, Kanaanetik Ejiptora gauza guziak aldatzeko bear ziran gurdia ere eman zizaiezela.

Erregeak agindu guzia Josek egin zuen. Beste anaia biña, eta Benjamini bost soñeko, eta diru eta eskuerakutsi andiak aitarentzat emanik, Kanaanera bialdu zituen. Aitaren etxera eldu ziran, eta guraso penatu onek Benjamin maitea ikustearekin eta Jose ustez illa, Ejipton Jauntasun andian bizi zalako berriarekin artuko zuen poza eta atsegiña nork esan? Semeak etziran isillik luzaro egon; ikusi orduko elkarren leian esan zioten: Zure seme Jose bizi da, eta Ejipto guzian agintzen duela, dago. Jakob albista onekin sortua, eta esaten ziotena, ezin sinisturik jarri zan. Semeak obeto sinisterazotzeko, Ejipton gertatu guzia, semearen agintea, eta anditasuna zearo esan ziozkaten; baña gauza oiek sinisteko aita uzkur zegoan. Atzenezan, semeak bialtzen ziozkan gurdi, diru, eskuerakutsi edo errega-loak erakutsi ziozkatenean, poz eta atsegiñezko ots andi bat egin zuen, ziola; asko det, ene Jainkoa, baldin nere seme Jose oraindik bizi bazat. Joango natzaio, eta il baño lenago ikusiko det.

## 8. Jakoben jaiskera Ejiptora

Biderako prestamenak bereala egiñik, Jakob bere seme, illoba, mirabe, abere eta gauza guziakin Ejiptoronz abiatu zan. Kanaango atzeneko



mugara zanean, etzuen lur promestu hura Jainkoaren berri gabe utzi nai izan. Ofrendak egin ziozkan, eta erregutu zion, zer egin bear zuen, arren, erakusteko. Jainkoak Jakobi gauaz itzegin, eta esan zion; ez ikaratu; Ejiptora zoaz; eta erri andi baten buru an egingo zaitut. Zure begiak Josek itxiko dizkizu; zure ondorea bere denboran andik atera, eta promestuta daukadan lur autu onetara ekarriko det.

Baimen onekin Jakob Ejiptora jatxi zan, irurogeita sei lagun berekin zituela. Joseri aurretik Judas bialdu zion, bazetorkiola esatera. Josek berri au artu zuenean bereala kotxean sartu, eta aitari bidera Gesenen irten zitzaion. Aldi onetan aita-semeen artean zer ikusi zan, esateko, bat begira egon bear litzake; eta ala ere, ogei urteren buruan iltzat zeukan semea aitak, eta ainbeste neke eta gora-beeraen ondoren aita semeak ikustearekin artuko zuten poza eta atsegiña, ez luke bear bezala eta bear adiña agertuko. Jose kotxetik irten, eta aitari kolkoan sartu zitzaion; asko laztan eta mosu eman ziozkan, zeriozkan malakoan arpegia bustitzen ziola. Jakobek ere bere seme ain ona eta maitagarria besarkatu zuen, eta eskuetatik utzi gabe, esaten zion; ene seme, orain, bai, atsegiñez ilko naiz, zu ikusteko poza bein izan dedan ezker. Josek beste aide guziaz bereala itzegin zien, eta egon-aldi gozo au egin zutenean, Errege-etxera itzuli zan. Faraoni esan zion, aita bere seme eta etxeko guziakin etorri zitzaioa, eta Gesenen gelditu zala, Faraonek zer agintzen zien begira. Faraonek albista onekin txit atsegin andia artu zuen; eta Josegandik etorri zitzaiozkan mesede eta onak gogoan zeuzkala adierazteko, esan zion; Ejipto guzia zerekin daukazu; bazterrik obena autu ezazu; eta Gesengo alderdian bizitzea gogo badute, eman zaiezu. Gero laster Josek aita zarra, eta bost anaia, beste guzian izenean, Faraoni aurkeztu ziozkan; eta bere oiekin itzuli zan Gesenera, non, abere eta atziendaentzat txit toki ona eta erakoa zala ikusirik, beren bizi-lekuak egin, eta bizi izan ziran. Jose bere egitekoetara biurtu zan, eta geroz bere ikusiak txit maiz ematen ziezten; eta goseteak iraun zuen ondorengo bost urteetan, ezereen ere ez-izanik etzuten izan, bear zan guzia Josek eratzen zielako.

## 9. Jakob en iltzea

Jakobek, Gesenen jarri zanean, eunda ogeita amar urte zituen, eta beste amazpi urtean bizi izan zan. Bitarte onetan bere semeetatik ondorengo asko sortu zitzaiozkan. Geroenean, bere bizi guziko neke gogorrak

alde batetik easanda, eta bestetik zartuta, bere laster-il-bearra ezagutu zuen, eta ezurrai bere gurasoen ondoan lurra eman naiez, Joseri deiturik, esan zion; ez ni Ejipton lurpetu, ezpada gurasoak dautzan lekura eramango nazu. Onela egiteko itza Josek eman zion; baña ain laster aita ilko zitzaionik uste etzuelako, Errege-etxeko bere egitekoetara itzuli zan. Egun gitxiren epean aita txit gaizki zegoalako berria izan zuen, eta Manases eta Efrain bere bi semeak berekin arturik, aitari joan zitzaion. Jose ikusi zuenean, Jakob zerbait bizkortu zan, eta oiean eserita, Jainkoagandik ikasi izan zituen geroko berri on asko Joseri eman ziozkan. Manases eta Efrain bere semetzat artu zituen, eta beste semeakin seni-partean berdin sartzeko eskubidea eman zien, eta bedeinkatu zituen. Atzenean Joseri esan zion: dakusu, ene seme, nereak egin duela, iltzera noala. Jauna zurekin izango da, eta zure gurasoen lurrera eramango zaituzte.

Joserekin au egin, eta beste seme guziaz ere bere ondora eraman zituen, eta nori bere etorkizuna edo patua, illunpean bederik, adierazo zion, eta aitaren esanak semeak txit kontuz artu zituzten, gero nork bere etxean gogoan idukitzeko. Atzenean Jakobek, len Joseri bakarrik bezala, guziaz batean agindu zien, ildakoan aren gorputz-illa Kanaanera eraman, eta gurasoen ondoan obiatu zezatela. Itzaldi au eginda, oiean zuzendu zan, eta lo-irudian jarririk, iltzen zegoanen antzik gabe, Jaunari kontu eman zion. Aita illa Josek ikusi zuenean, arpegiz-arpegi jarri zitzaion, lantandu zuen, negar-malkoz bustitzen zuela, eta begiak itxi ziozkan, Jainkoak lenagotik esanik zeukan bezala. Josek negar-aldia egin ondoan, gorputz-illa balsamatuerazo zuen, gero noizbait Kanaanera eramateko.

Jakoben il-berria Ejipto guzian barreatu zan, eta bere seme eta etxekoekin batean irurogeita amar egunez Ijiptoak Errege berai bezain progu andia eta miña egin zioten. Oien ondoren Faraonen baimenarekin Josek, bere anaia eta Erreinuko andizkiak zerraizkiola, aita zanaren gorputz-illa Kanaanera eraman, eta bere ait-ama Isaak eta Rebeka, eta asaba Abraham eta Sararen ondoan obiatu zuen, eta eraman zituen senide eta beste lagunakin Ejiptora itzuli zan.

## 10. Joseren iltzea

Aita il zitzaionean Jose berrogeita amasei urtekoa zan, eta gero ere beste berrogeita amalaeuan lenagoko anditasun berean bizi izan zan, Erregeak eta beeragokoak txit asko nai ziotela, eta bere anaia eta oien



ondorengoaz kontu eta ardura andia zuela. Baña zartu zan, eta bere laster-il bearra ezagutu zuenean, anaiari esan zien; ni iltzen naizanean, Jainkoak ikusiko zaituzte, eta Abraham, Isaak, eta Jakobi promestutako lurre-ra emendik igoerazoko dizute. Orduan nere ezurak emen utzi gabe, zerokin eraman itzatzute. Au egiteko itza senide guziak eman zioten; eta andik laster eunda amar urtekoa il zan. Gorputz-illa balsamatu, eta ontzi batean sarturik, Israeltarrak Ejipton egon ziran bitartean begirune andiarekin gorde zuten; eta irten ziranean, ibilli guzietan berekin erabilli, eta atzenezan Kanaanen lurpetu zuten.

Joseren izaera asieratik atzeneraño, guziz da miraritsua, eta zer esan andiak dauzkana. Aurtasunetik agertu zuen ontasunak aitaren biotza beretu zion; eta senideen gaiztakeriak ezin eramanak aitari salatu-erazo ziozkan; baña on-bearrez egindako lan onekin anaiaen gorrotoa irabazi zuen, eta saltzera ipiñi zituen. Ordea Jainkoaren kontra gizonen asmoak zer dira? Gizonak galdu nai izan zuten, baña Jainkoak zaintzen zuen. Neke batetik ondo irten orduko, emakume galdu baten gogo gaiztoari gogor egin bearrean arkitu zan. Aitaren etxean bezain Jainkoaren bildurrekoa Putifar-enean zan; argatik etxeoandre gizakoi lotsagabeari etzion lekuri eman; eta merezi zuen sariaren orde, ziega illuna eta kate lodiak artu zituen. Oietatik ere Jainko Kontuartzalle onak atera, eta Jauntasunik andienean ipiñi zuen; eta il arteraño izaera onetan iraun zuen. Aitortu bedi, bada, etzaiola on-egiña Jainkoari aztutzen; eta beste munduan, ez ezen, emen ere saristatzen, badakiela.

## ZAZPIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Ejiptoko katibutasuna

Jose Ejiptora joan zanean zegoan Erregea, eta onen ondorengoaren denboran, Jakobean semeak pake eta doatsuera andian bizi izan ziran: baña Jose il zanetik laster, sartu zan beste Faraon bat, Jose iritsi edo ezagutu etzuen, eta bere aurrekoak artutako mesedeak aintzat etzeuzkana, zeñak asi zuen Jakob edo Israelen humeak larogeita amar urtean igaro bear zuten katibutasun negargarria. Urte gutxiren buruan Israeltarrak asko ugaritu ziran: eta berri onekin, zerbait egingo zioten bildurrak Faraoni eman zion; eta bildur oni bideak isteko, Israeltarrak ez-arian beeratzeko asmoak artu zituen. Israeltarrak ugaritu dira, zion; eta azpiratu ditzagun, gerra bat sortzen bada, gure etsaietara joan ez ditezten. Israeltarrak edozein lanetan txit trebeak ziran, beragatik nai zituen bertan iduki, baña bururik goratu gabe. Lenbizi, gizon gogor batzuen kontura, bi erri egiten ipiñi zituen. Adrillu eta beste lur-lanak eragiten ziezteen, nola ordea? nekerik gogorrenarekin, guziak auldu, makaldu, arpegiak oritu, eta ezur-uts egiteraño. Ala ere Israeltarrak ugaritzen zijoazen. Au ikusirik, Faraonek gizonari gogoak eman al-dizaiokean asmorik gaiztoena artu zuen. Israeltar emakumeai aurgiteko orduan laguntzen ziezten emagiñai agindu zien, sabeletik irten, eta bereala aur-seme guziak il zitzatela, alabak baizik biziarekin iñor utzi gabe. Aginte gogor au etzuten emagiñak egin nai izan, Jainkoari bildur zitzaiozkalako. Beren buruak lanbide artatik garbitzeko, erantzun zioten, ezen, Israelko emakumeak etzirala, Ijitoen antzeko iñoren bear ziranak, ezpada aiek joan orduko, aurrak jaiota zeudela. Aurtxo aienganako urrukimentu au Jainkoak ontzat artu zien, eta beren ondasunak ugaritu ere bai. Baña uko onek Faraon aserre bizian sartu zuen: eta Erriari agindu zion, Israelarren aur guziak Niloko ibaiera botatzeko.

### 2. Moisesen jaiotza

Jakoben seme Leviren illoba Amram zeritzana, Jakobedekin ezkondu zan, eta bederatzirteko alaba Maria eta biko seme Aaron zeuzkan.



Faraonen Israeltarrak galdu-naia biziena zan egunetan, beste seme bat ere izan zuen, ea iru illabeteen etxean gordeta zeukan. Geiago ezin zuenean, zumezko saskitxo batean sartu, eta ibai-ertzean kañabera-artean utzi zuen, aurra noratzen zuten, edo zer patu zuen ikusteko, Mariak kontu artzen ziola. Ala bearra! Faraonen alaba jatxi zan, ibaiean mainatzera; eta saskitxoa ikusi zuenean, neskameari erakarri zion, eta aurraren negarrak kupitu zuten, eta begira jarrita, esan zuen; Au Hebreotarren aurren bat da. Orduan arreba, azeloan zegoana, joan zitzaion, eta esan zion; nai dezu, nik billatu dizazudan inñude bat, aur orri bular-eman, eta ziko dizuna? Prinzesa biotz biguñekoak, baiez, esan zion; eta Maria bereala bere amagana joan, eta zer gertatzen zan, adierazo zion. Ama aurkeztu zitzaion Faraonen alabari, zeñak esan zion; aur ori artu eta azi ezazu: azitze-saria nik neronek emango dizut. Amak bere-bere semea artu zuen, besterik bazan bezala; eta azi zanean, Faraonen alabari eman zion; onek bere semetzat artu, eta deitu zion *Moises*, uretik aterea izan zalako; bada, Ejiptoko itzkuntzan *Moises*-ek *uru* esan nai du. Geroz, berrogei urteko adiñera edo edadera artean, Faraonen etxean bizi izan zan, alik eta Israeltarrak katibutasunetik ateratzeko lanean asi zan arteraña.

### 3. Moisesek Faraonen etxetik iges-egiten du

Ordu au iritsi zala, igerri zionean, bere asmoak artu zituen. Lan andi onetarako autua zala, ezagutzeko argia Jainkoak eman zion; eta Erregearen etxean ondo eta naiera guziakin bazegoan ere, bere senide Israeltarretara joan, eta oiei laguntzeagatik, guziak utzi zituen. Onetarako aitortu zuen, Faraonen alabaren semea etzala, ezpada Jakobena odolekoa; eta Gesenera joan zan, bere anaiakin neketan bizitzera. Oiekin zegoan bein batean Ijipito bat ikusi zuen, Israeltarra jotzen, eta ber lagunari laguntzera joan, Ijitoa il, eta arepean sartu zuen. Moisesek baziakien, gauza au egiteko eskubidea Jainkoak emanik zeukala, eta uste zuen, bere anaiak oien libratzalletzat eginbide onetatik ezagutuko zutela; baña etzuten ala artu. Biaramonean bi Israeltar elkarrekin despitan ikusi zituen, eta onez-onean esan zien; anaiak zerate, zergatik ori elkarri egiten diozute? Oietatik batek esana ontzat artu bearrean, erantzun zion, gurekin zer egiteko dek? ni ere atzoko Ijitoa bezala il nai nauk? Esan onek Moises izutu zuen, eta zion: nola nik atzo egin dedana zabaldu da?

Moisesek ezaguturik bizia galtzeko bidean zegoala, Ejiptotik irten, eta Madiango alderdira igesi joan zan. Emen iturri baten ondoan zegoala, Jetro zeritzan ango apaizaren zazpi alaba ara joan ziran ardiai edanera-zotzera. Ondoren zetozen artzai batzuek neskatxak gogorrean andik kendu nai izan zituzten, berenai aurrena edaten emateko; baña Moises neskatxan alde irten, eta lagundu zion. Neskatxak etxera ziranean aitari esan zioten, zer gertatu zitzaien; eta alabai mesede egin zion Ijitoa aitak ezagutu naiez, beregana eraman zuen; eta Jetro onen alaba Seforarekin Moises ezkondu zan, eta izan zituen bi seme Eliezer eta Gersam. Bitarte onetan Ejiptoko Israeltarrak egunetik egunera gaizkiago zijozten, eta neke geiago eraman bearrean.

### 4. Moisesi Jainkoaren agerkera

Egun batean aitagiarrabaren ardi-zantzian zebillela, Horebko mendira joan zan, eta ikusi zuen sasi bat, sua zeriona, eta erretzen etzana. Zer ote zan jakiteko, alderagotik begiratu nai izan zion; baña aditu zuen, esaten; ez onara urreratu; oñustu zaite, zeren lur au santa dan; Ni Abraham, Isaak, eta Jakobena Jainkoa naiz. Orduan Moisesek, Jainkoari begiratzera benturatzen etzalako, arpegia estali zuen. Israelko semeak erruki ditut, Jainkoak esan zion, eta egin didaten otsak aditu dieztet; atoz; Faraongana bialdu bear zaitut, nere erria Ejiptotik ateratzera, gero bazter andi aberats batera eramateko. Moisesek baziakien zer lanetarako Jainkoak zeukan; ala ere, aditu zuenarekin larritu zan, eta uzkur zegoan alako lanbide bati ekiteko; eta erantzun zion; ni nor naiz Faraongana joan ,eta Israelko semeak Ejiptotik ateratzeko? Jainkoak erakutsi zion zer egin, eta Israelko zarrari zer esan; baña Moisesek erantzun zion; sinistuko ez didate. Kezka eta bildur oietatik bein betiko ateratzegatik, eskuan zer dezu? Jainkoak galdetu zion. Zotz bat, Moisesek erantzun zion. Lurrera bota ezazu, esan zion. Egotzi zuen, eta suga biurtu zitzaion. Isasetik eldu zaiozu, gero esan zion. Eldu zion, eta zotz itzuli zan. Eskua kolkoan sar-ezazu, esan zion. Sartu zuen, eta ateratzean, legenez josia arkitu zuen. Berriz sartu, eta osotoro garbitua atera zuen. Jainkoak esan zion, baldin lenengoarekin sinisten ezbazioten, bigarrenarekin sinituko ziotela; eta au ere asko ezbazan, zer egin erakutsi zion. Gisa onetako itz-aldi luze bat egin, eta Jauna ezkutatu zitzaion.





Moises ardiakin aitagiarrabagana joan, eta bere anaiak Ejipton ikusteko eresia agertu zion; eta Jetrok baimena emanik, Moises Ejiptoronz abiatu zan; eta Horebko mendi-ondora zanean, Aaron Ejipton gelditu zitzaion anaia, laguntzat emateko Jainkoak autua zeukana, topatu zuen. Berrogei urte ziran Moises Ejiptotik irten, eta Kanaanen Jetro bere aita-giarrabarekin bizi zala, eta anaia biak elkar ikusi etzutela. Bereala batakat besteari, bitarte luze onetan Ejipton eta Kanaanen gertatu zitzairen guzieren berri eman zioten. Moisesek batezere, Jainkoak arekin egin zituen mirari andiak, esan ziozkan, eta biak Gesenen elkarrekin sartu ziran.

Moises eta Aaronek Israelko zar guziak bildu, eta Moisesek bere gañ edo kontura zer lanbide zeukan esan zien. Esan au sinisterazotzeko, eskuko zotza suga biurtu zuen; suga au bereala zotz: gero eskua kolkoan sartu, eta legenez bete atera zuen. Berriz sartu, eta garbitu zuen; zeña Israeltarak ikusirik, sinistu zioten, Jainkoaren eskubideakin janzia zegoala; eta auzpezturik agur-egin edo adoratu zuten.

Moises eta Aaron Faraoni aurkeztu zitzaiozkan, eta esan zioten, Israelen Jainkoak ara zer dion; Nere jendeari utzi zaiozu joaten, baso mortuan ofrendak egin dizazkidan. Faraon, itsumustuan egindako esakera onekin, txit aserretu zan, eta erantzun zien, ea Jainkoa nor zan, aren esana ark egiteko, eta Israeli uzteko? Ez det, zion, ez det Jainko ori nik ezagutzen, eta ez diot Israeli ere utziko, joaten. Oiek eta onelako beste gauza asko, Jainkoari eta bere mandatariaiei etzegozkienak erantzun, eta bere begietatik bialdu zituen, eskatzen zuten baimena eman gabe.

Faraonek eskaera au txit gaizki artu zuen; eta Israeltarrei ipiñitako kontuartzalleai agindu zien, estuago artu zitzaizela; bada, aisian zeudelako, eskaera aiek egiten zituztela. Ipiñi zieten len ainbat adrillu egunoro egin bearra, baña lastorik eta beste errekiñik eman gabe, zeñaren billan or-emen neke andian berak ibilli bear ziran: eta beren sailla edo tarea ezin egin zutenean, erasotzen zieten berriro, ezin geiago eraman-al-eraño. Faraoni kejurakin joan zitzaiozkan; alperrik ordea; etzieren aditu. Gero Moisesi itzegin zioten, onek neke berrian ipiñi zituela, arpegian emanaz. Moises jende aren alde Jainkoari erreguka jarri zitzaion; eta Jainkoak agindu zion, berriz ere Faraoni itzegiteko.

Moises eta Aaron Faraoni bigarren aldian joan zitzaiozkan, eta len-dabiziko eskaera bera egin zioten. Faraonek Jainkoaren partetik zijozakion ezagungarri bat eskatu zien. Au aditu zutenean, Aaronek Moisesen zigorra artu, eta lurrera bota zuen, eta suga egin zan. Faraonek denbora artan erreinuan bazituen sorgin edo gaizkin batzuek, Jainkoaren mirari egiazkoak gezurtatu naiez, deabruarekin bat eginda, mirari-irudiak, edo

milagro-antzak egiten zituztenak. Deitu zien sorgin oiei, zeñak beren zigorrak lurrera bota zituzten, eta iransuga egin ziran: baña Moisesen zigoretik sortu zan sugak besteak iretsi edo tragatu zituen, eta zigor itzuli zan. Faraon etzan onela ere bigundu. Sorgiñen zigorrak iransuga biur-tzeari igerri bear zion, deabruaren lana zala; eta Moisesenak, bat bakarra izanik, beste guziak iretsitzeak adierazten zuen, Jainko egiazkoa noren aldetik zan; baña argia ikusteko itsutua zegoan; eta eskatzen zuen baime-na Moisesi etzion eman; eta Moises irten zan, sorgin guziak lotsaz utzita.

## 5. Ejiptoko amar zauriak

Jainkoak ikusirik, mirari oiek etzerala asko izan, Faraonek Israeltarrei Ejiptotik irteten uzteko, Ejiptora bialdu zituen amar zauri izugarri, emen bat-banaka laburkiro azalduko diranak.

1. *Zauria.* Moises eta Aaron Faraoni irugarren aldian joan zitzaiozkan; eta Jainkoaren izenean agindu zioten, Israeltarrei irteten uzteko. Faraonek ukatu zien. Moisesek esan, eta Aaronek eskuko zigorrarekin ura jo zuen, eta Ejiptoko ur guziak odol biurtu eta arrai guziak il ziran. Zazpi egunean urak onela irauñ zuten. Bitartean Ijitoak, egarriak ilko ezbazituen, ibai ertzetan zuloak egin zituzten, are-tartetik irteten zan ura edateko; baña au ere odoltsua zetorkien, eta egarriak beartuta, edaten zutenean, oñaze miñak artzen zituen. Sorgiñak ere lan onen antzeko zerbait egin zuten, ez ordea gezurrezkoak zirala ez igerritzeko eran. Zazpigarren egunean urak berera itzuli ziran: Faraonen biotza gogor zegoan, eta Moises eta Aaron ezer iritsi gabe gelditu ziran.

2. *Zauria.* Moises Faraoni laugarren aldian joan zitzaion; ez ordea eskatzen zuena Faraonek eman. Orduan Moisesek esan, eta Aaronek ibai-ko ura jo zuen, eta Ejipto guzia igelez estali zan. Erregearen etxe, gela, oi, mai, eta janarietan etzan igela baizik ikusten: au bera Erreinu guzian ere gertatzen zan. Zauri nazkagarri onek ainbeste estutu zituen, non, Faraon jarri zan Moises eta Aaronek eskatzera, zauri artatik, arren, atera zitzaizela, eta Israeltarrei utziko ziela irteten. Moisesek Jainkoari eskatu zion; eta igel guziak bereala il ziran; baña Faraon gogortu zan, eta etzieren irteteko baimenik eman.

3. *Zauria.* Moisesek, oraingoan Faraoni aurkeztu gabe, Ejipto guzia estali zuen eltxo edo euli txiki mingarri gizon, abere, eta beste bizidun guziak ezin geiagoraño penatzen zituztenez. Ejiptoko auts guziak eltxo



biurtu ziran; ea eltxozko odei belz batek Erreinu guzia illuntzen zuen. Emen sorgiñak arkitu ziran, Jainkoaren eskua zebillela, eta utzi bearko zitzairela joaten, aitortu bearrean; baña Faraonen biotza arri egiñik zegoan, eta etzuen nai izan.

4. *Zauria*. Moises Faraoni bostgarren aldian joan zitzaionbaimen-eske; eta Faraonek ukatu zionean, euli andi pozonizkoak erakarri zituen, eta Erregearen etxetik Erreinuako bazterrik txikienerañoeko guziak euli oiekin bete ziran. Faraonek ikusirik, beren ozkada miñakin ukitu guzia pozoniturik uzten zutelara, Moisesi eskatu zion, gaitz artatik libratu zitzairela, eta utziko ziela joaten. Moisesek Jaunagandik mesede au iritsi zuen; ez ordea Faraonen baimena; bere itza jan zuen, eta biotza gogortu zitzaion.

5. *Zauria*. Moises Faraoni seigarren aldian joan zitzaion, eta Faraonek, lenengoetan bezala, ukatu zionean, sortu zuen kanpoetako abere guzietan gaitz-antz gogor bat, zaldi, idi, bei, asto, gamelu, ardi, eta beste atzienda guziak il zituen. Gauza arrigarria! Ez len aitatu diran zauriak, ez oraingoak, eta ez gerokoak Israeltarrai ezertan ere ukitu zieten. Faraonek galdetu, eta jakin zuen, etzala Israelko abere bat bakarrik ere galdu, eta ala ere etzan bere biotza samurtu.

6. *Zauria*. Moises eta Aaron Faraoni zazpigarren aldian joan zitzaiozkan, eta Israel irteteko baimena aitatu gabe, Moisesek autsa artu, eta zeruronz bota zuen, eta une berean gizon eta etxeetako abere guziak bete ziran zauri nazkagarri, eta usai gaiztoko, min eta oñaze andiak ematen zieztenez. Eskritura Santak ezdigu esaten, zauri onek Faraoni ukitu zionik: beintzat, bere mendekoak zeramazkiten oñazeak ezertan artu gabe, aren biotzak betiko gogortasunean zirauen.

7. *Zauria*. Moises Faraoni zortzigarren aldian aurkeztu zitzaion baimen-eske: eta Faraonek ukatu zionean, eskuko zigorra altxatu zuen; zerua odei illunez bereala estali zan, eta turmoi, eta inñusturi izugarriak batetik, eta kazkabarra eta arria bestetik, asi ziran, sekulan alakorik Ejipton ikusi etzan eran. Kanpoan arkitu ziran gizon eta abereak il, landareak porrokatu, eta arbolak autsi ziran. Faraonek ikusgarri onekin izaturik, Moises eta Aaroni irugarren aldian deitu zien, bere gaizki-egiña aitortu, eta eskatu zien, inñusturi eta arriabar gaizto aietatik libratu zitzairela, eta utziko ziela joaten. Moisesek Jainkoari erregutu zion, eta inñusturi eta besteak geratu ziran. Baña arestian emandako itza Faraoni damutu zitzaion, eta etzien utzi irteten.

8. *Zauria*. Moises eta Aaron Faraoni bederatzigarren aldian agertu zitzaiozkan, eta esan zioten: ara Hebreoarren Jainkoak zer dion: noizdaño nik agindua egin nai ezdezu? Nere erriari utzi zaiozu joaten, ofrendak

egin dizazkidan: bestela, bazter guzietara biar larrapote edo langosta bialduko dizut, eta arriabarrak galdu etzuen, onek galduko du. Au eta onelako beste zenbat itz esan, eta Moisesek Faraonen ondolik aldegin zuen. Andik laster Moises eta Aaronek Faraonekin beste itzaldi bat izan zuten; baña ez ezer atera; eta Faraonek begietatik kendu zituen. Orduan Moisesek bere makilla lurrean luzatu, eta sortu zan larrapote edo langosta deritzan pizti txezko samalda izugarri, Erreinu guzia, odei batek bezala, itzalditu zuena, eta lenagoko zaurietatik geratutako arbola, belar, landare, orri, eta zegoan beste guzi-guzia ondatu eta arrasatu zuena. Egundaño alakorik Ejipton etzan ikusi, eta ez ikusiko ere. Etxeak eta kanpoak, bazter eta leku guziak pizti gogaikarri onekin bete ziran. Gizonai ozka-egin, eta oñaze andiak ematen ziezten, eta asko iltzen ere baziran. Faraonek ondamen au ikusirik, Moises eta Aaroni deitu eta bere bekatua aitortu zuen, eta eskatu zien, arren, gaitz hura kendu zezatela. Moisesek Jaunari erregutu, eta bereala aize epel batek pizti guziak itsaso gorriara bota zituen, bat bakarrik ere Ejipto guzian utzi gabe; baña Faraon gogortu zan, eta etzuen baimena eman.

9. *Zauria*. Moisesek, oraingoan Faraon-gana joan gabe, eskua zeruronz jaso zuen, eta Ejipto guzia illundu zan, ezer ere ageri etzala. Gau illun onek iru egunean iraun zuen. Ejipto guzian inñork ere, batak bestea etzuen ikusten. Illunak artutako leku eta eran, oñik ere aldatu gabe, egon ziran. Tximistaen antzeko argi batzuek noizean bein irteten ziran, eta oien islara aurrean jartzen zitzaiezten abere zatar izugarri, eta ikusteko ikaragarriak, zeñak ez ikusteagatik begiak itxitzen zituzten. Piztien aieska eta garraxi tristeak aditzean, korde gabe gelditzen ziran. Itz batean Ejipto guziak infernu bizi bat zirudien. Iru egun negargarri oiek joan ziranean, Faraonek Moises eta Aaroni otsegin zien, eskatzen zuten baimena emango ziela, esatera; baña Moisesek etzion artu, bear zan eran ematen etziolako. Orduan Faraon berriz ere gogortu zan, eta esan zion, etzedilla aren begietan geiago jarri, eta baldin berriz bazijoakion, ilerazoko zuela. Moisesek erantzun zion: Ez det, ez, zure arpegia osterara ikusiko; baña begira Jainkoak zer dion: Gau-erdian abiatuko naiz Ejiptotik irteten, eta Ejiptoko seme zarren Faraonenetik beenekoenerañoeko guziak ilko dira; baita abereenak ere: eta Ejipto guzian altxatuko da, sekulan izan eta izango ere ezdan bezalako iskanbilla. Orduan zura serbitzari guziak jatxiko zazkit, lenbaitlen nere jendearekin irten nadilla, esatera. Au esan, eta Moises Faraonen aurretik txit aserretua irten zan.

10. *Zauria*. Oraindaño egindako alegin guziak etziran asko izan, Faraonen biotz burnizkoa biguntzeko: beti ukoan zegoan, Israeltarrai



bere mendetik irteten uzteko, eta Jainkoak bialdu nai izan zion atzeneko zauria, lenagokoen azkarria, eta Ijitoai negar andiak utzi zieztena. Ara zer, eta nola. Moisesek agindu zuen, Israelko gizon eta emakume zar eta gazte, andi eta txiki guziak beren abere eta gauzakin Gesenen Ramasesko errian, eta inguruan bildu zitezela. Erakutsi zien, zer egin guzia, esanaz: Etxe edo familia bakoitzeko buruak illaren amarrean artuko dezute urte barruko arkume mantxa gabeko bana, eta au ezin bada, antxume bana; amalauean Jaunari eskeñi edo sakrifikatuko diozute; eta onen odolarekin nork bere etxeko ataburua eta alboak igortziko dituzute; arkumeki au jango dezute, ez gordiña edo egosia, ezpada errea: eta jan gabe ezer gelditzen bada, sutan desegingo dezute: arkumeki onekin legami gabeko ogia, eta urraza edo letxuga samiñak artuko dituzute: bitartean bideko janziakin, zutik eta makillak eskuan dituzutela, egongo zerate, noiz-nai abiatzeko prest. Gero esan zien, gau onetan Jainkoak Ejiptoko seme zarren guziak ilko zituela; baña arkume-odolez igortzitako etxeai ukituko etziela. Gau gogoangarri au eldu zanean, Moisesek esan zien bezala, Aingerua zerutik jatxi, eta Ijitoen seme zarren guziak, bat bakarrik ere utzi gabe, il zituen; eta abereenakin ere berebat egin zuen. Ilkintza au asi zanean, etzan Ejipto guzian, iltzen zeuden semeen aieska eta garraxiak, eta semeak gabe gelditzen ziran gurasoen negar eta lantuak baizik aditzen. Gau au tristeagoa eta mingarriagoa izan zedin, abereak ere orroi eta marru izugarriak egiñaz zebiltzan. Faraoni ere etzitzaion barkatu: bere seme nagusia serbitzari guzienakin batean il zan. Faraonek Moisesi ez geiago aren begietan jartzeko esan izan bazion ere, negargarri hura ikusirik, Moises eta Aaroni gau berean deitu, eta Israeltar guziak beren gauzakin irteteko baimena eman zien: eta Ijitoak ere alegiña egin zuten, bereala andik bialtzeko, guziak ilda gelditu zitezen bildurrez. Israeltarrak, ezertako ere leku gabe, erdi-orratua zeukaten iriña burusietan sorbaldan artu, eta bideari ekin zitzaiozkan.

Biotzaren gogorra Faraonen biotza! Jaunak bere esku zorrotzarekin ainbeste aldiz ukitu bazion ere, gogor iraun zuen, bere eta bereen ondarena ekarri arteraño. Zenbat ote dira Faraoni darraizkionak, eta Jainkoak asko aldetara ukitu arren, beren bekatuan diardutenak, alik eta eriotzaren zigorradak betiko ondatzen dituen arteraño? Errege gogor argan dakuskete, zer paturen begira dauden, Jaunaren dei biotz-onekoak ezertan artzen ez dituztenak.

## ZORTZIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Ejiptoko katibutasunetik Israeltarren irteera

Munduaren bi milla lareun eta ogeita emezortzigarren urtean, Jakob Ejiptora joan zanetik berreunda amabostgarrenean bere ondorengo guziak, larogeita amar urteko morrontza gogorra egin ondoan, Rameseko erritik irten ziran, Jainkoak promestu edo eskeñitako lurrera joateko. Sei eun milla bezalatsu ziran ogei urtez goitiko gizon sasoikoak, zarrak sartu gabe. Oiek, ogeiez beekoak, emakumeak, eta batu zitzaiezten bertako banaka batzuek egiten zuten iru milloiko kopurua edo zenbatea. Biamaronean egun-sentian, Ijitoak beren illak lurpetzen ari ziran bitartean, Ejiptoko katibutasun gogorretik Israelko jendetza andi au Jainkoak atera zuen. Bidean abiatu ziran abereak aurrena, ogei urtez goitiko gizon armadunak urrena, eta atzenean gañerakoak. Jose zanaren ezurrak etzitzaiozkan Moisesi aztu, eriotzako orduan agindu zuen bezala. Lenengo egunean Sokotera, eta bigarrenean Etamera joan ziran. Jainkoak erakusten zien, nondik joan. Abiatu ziran ordutik, aurrean jarri zitzairen odei andi, egunaz itzal, eta gauaz argi egiten zien bat; eta odei au etzitzairen begietatik kendu, alik eta Kanaango lur eskeñian jarri ziran arteraño. Etamdik Firairotera joan, eta emen gelditu ziran. Faraoni esan ziotenean, Israeltarrak irten zirala, eta non zeuden, utziaz damutu, eta Erreinuko gerrari guziak arturik, Israeltarreronz joan zan, eta itsas-gorriaren ertzean topatu zituen. Israeltarrak biderik asko bazuten, Jainkoa beren alde zutela, eta lagunduko ziela ezagutzeko: baña alde batetik itsasoa eta bestetik basomortua zituztela arkitu ziranean, erausiari eman zitzaiozkan, eta Moisesi esan zioten; Ejipton ez ote zan gure diña lurpe, onara erio-billan ekarri gabe? Moisesek zekusan, uste gitxiko gizon aiek zein gaizki mintzatzen ziran; ala ere bildurrak erasaten ziela pensatu, eta erantzun zien: ez ikaratu; orain aurrean dauzkazutenak ez dituzute berriz ikusiko; Jainkoak zuekgatik egingo du, eta isillik zaudete. Agindu zien, bideari ekiteko; eta orduan, aurretik zebilkien odeia, atzetik bien erdian jarri zan, eta estali zituen, Faraon, eta bere jendeak ezin ikusi zitzaireten eran.



## 2. Itxaso gorria

Ur-ertzero ziranean, Moisesek, zigorra jaso, eta ura jotzarekin bi aldeetara edo gora-beera erdiratu ziran, eta itxasoaren erdian bide leorra agertu zan. Bost orduko bidets berri au Israeltarrak gauaz igaro, eta goizeko iruretarako beste aldera iritsi ziran. Orduan Ejipto-aldeko itsas-bazterretik odeia kendu zanean, Faraon oartu zan, Israeltarrak igesi joan zitzaiozkala. Bereala orpoz-orpo zerraizkiela, itsasoaren erdian idikitako bidean sartu ziran. Faraon eta bereen kontra Jainkoaren esku itzaltsua emen agertu zan, bai. Israeltarren aldetik zegoan odeia bat-batetan lertu, eta bota zituen oñazkar eta inusturi izugarriak Ijitoi zeramaten guzia ondatu, erre, eta kiskaldu zieten. Esturasun onetan deadar egiten zuten: Israeldik otsemazute; bada, Jainkoa onen alde eta gure kontra degu. Alperrik orde. Moisesek eskua itsasora luzatu, eta urezko mendi goien eta bean gelditu ziranak amildu, eta Ijito guziak ondatu, eta ito ziran. Faraon, bere Gortekoak, serbitzariak, gerrariak, zeramazkiten gurdiak, zaldiak, osotero guzi-guzia itsasoan galdu zan, gizon bat bakarrik ere bere erritarrai, zer igaro zan berria eramateko gelditu gabe. Israeltarrak itsasora begira jarri ziranean, ikusi zituzten Faraon eta bere lagunen gorputz-illak itsasoak ur-bazterrera botatuak, eta ezin esan-al gauza on kendu ziezteen. Jarri ziran Jaunari eskerrak ematen, Moises gizonakin, eta bere arreba Maria emakumeakin, kanzio gozo eder *Jaunari kantatu dizaiogun* asitzen dana aldizka kantatuaz.

## 3. Baso-mortuko sarrera

Biaramonean odeia aurrean jarri zitzaian, eta itsas-bazter gogoangarria utzirik, bideari eman zitzaiozkan; eta iru egunean ur gabe ibilli, eta Maran arkitu zuten; baña txit samiña eta edaten gaitza. Israeltarrak beren begiakin ikusitako mirariak aztuta, asi ziran Moisesgatik gaizki-esaka, eta urik etzeukatelako asaldatzen, ziotela: Zer edan bear degu? Moisesek zeruronz eskuak jaso, eta ikusi zuen egur bat, zeña urera bota, eta urak gezagozotu ziran eta Israeltarrak nai anbat edan zuten. Maratik irten, eta baso-mortu edo eremuan batera eta bestera ibilli ziran, atsedeen-aldiak ormen egiten zituztela. Ejiptotik irten zirala illabete zan, eta an artutako janak aitu zitzaieztenean, Moises eta Aaronen kontra erausian asi ziran, esanaz: Oxalla Ejiptoko aragi-eltzeen ondoan geundenean, eta naiko ogia

jaten genduenean il bagina! Zertako eremu onetara ekarri ginduzuten? Moises, eta Aaronek erantzun zieten ea zergatik erausi artan ziarduten? Bada, itz aiek guziak ez aien, ezpada Jaunaren kontra zirala. Orduan Jainkoak odei eder batetik Moisesi esan zion, arratsaldean nai anbat aragi, eta biaramonean ogi, Israelko semeak izango zutela.

## 4. Mana

Esan eta egin; arratsaldean agertu zan gal-eper samalda txit andi, Israeltarrak zeuden tokia estali zuena; eta oiek erraz atsututa, naiera guzian jan zituzten. Biaramonean-goiz odeietatik erori zan intzaren antzeko gauza bat, *Mana* deitu ziotena. Au ikusi zutenean, arriturik, elkarri galdeitzen zioten: au zer da? Moisesek esan zien: au Jainkoak bialdu dizuten ogia da. Bereala Moisesek agindu, eta mana onetatik buru edo persona bakoitzarentzat lakari bana bildu zuten. Geroztik mana au larunbata edo zapatua ez beste egun guzietan erortzen zitzaian; egunean egunkoa bildu bear zuten, eta ostiraletan bi eguneakoa, zeren larunbata ez-eguna zan; eguneakoa baño geiago biltzen bazan, usteltzen zitzaian: eta goizean-goiz bildu bear zan, eguzkiak jo ezkeru urtutzen zalako. Janari gozo onekin Israeltarrak, eremuan igarotako berrogei urteetan, bazkatzen ziran: etzuten inoiz ere onen uts-unerik izan, alik eta lur promestuko gauzak jaten asi ziran arteraño. Jainkoak Israeltarrai eremuan bialdu zien zeruko janari onen oroipena ondorengoak egin zezaten, Jainkoak agindu, eta Moisesek lakari bat mana urrezko ontzi batean sartu eta gorde zuen, geroago egin-dako Tabernakuloan ipintzeko.

## 5. Horebko arkaitza

Aurretik zeukaten odeiak esaten zien, non gelditu edo nora joan. Egun batzuek egon-aldi onetan egin, eta Sinaiko eremuronz odeia abiatu zitzaian, eta Israeltarrak ere bai oni zerraizkiola: eta Horebko mendiondoan zegoan erri *Rafidin* zeritzanera ziranean, gelditu ziran. Bañan Rafidinen urik etzeukatelako, Israeltarrak bereala Moisesi asi zitzaiozkan gaizki-esaka, eta mormorioz, ziotela: Zergatik Ejiptotik atera gaituzu, emen egarriak iltzeko? Israeltarrak eskergabekeriaz betetzen zutenean, Moises Jainkoari jartzen zitzaion, zer egingo zuen galdez, edo aien itsu-



menaren barkazio-eske. Oraingoan ere ala egin zuen: eta Jainkoak zer egin erakutsirik, Israelko zarrakin Horebko mendira igo zan; eskuko makillarekin arkaitza jo zuen, eta sortu zan iturri ugari gozo, orduko egarria kendu, ez ezik, geroztik ibilli guzietan, ura ugari zan lekura joan ziran arteraño, berari zerraikiona.

## 6. Amalektarren gerra

Rafidinen zeudela, Amalektarrak etorri zitzaizten, Israeltarrai gerra ematera. Moisesek, Josue bere serbitzari nagusienetakoari agindu zion, gizonik bulardetsuenak berekin artu, eta Amalektarrai gogor egiteko; eta garaipena iristeko bear zan guzia berak egingo zuela. Moisesen esana Josuek egin zuen, eta joan zan, arpegi ematera. Orduan Moises, berekin Aaron eta Hur arturik, igo zan mendi-tontor batera, nondik bi aldeetako gerrariak ageri ziran. Erasoasi zanean, Moisesek, makilla eskuetan zuela, zeruronz jaso zituen laguntza eta garaipen-eske, eta ikusi zuen, eskuak gora zeuzkan bitartean, Israel geiago zala, eta beeratzen zituenean, Amalek. Onela bein batek eta bein besteak garaitzen zuen, eta geroago eta gogorrago ari ziran. Moisesek eskuak goronz iduki nai, baña nekatzen zitzaiozkanean, beeratzen zituen. Aaron eta Hurek au ezaguturik, ari batean esererazo zuten, eta biak beso banaetatik elduta, gisa onetan eskuak goronz zituela, eguzkia sartu artean iduki zuten, eta Israelek osotero garaitu zuen. Jainkoak Moisesi agindu zion, gertaera au eskribatu zezala, Josueri esateko. Gero aldare bat egin, eta Jaunari eskerrak eman ziozkan.

Ikuskera atsegiñezko bat Moisesek emen izan zuen. Jetro aitagiarrak aditurik bere suia zer egitekoetan zebillen; Jainkoak zer eta zenbat mirari onen bitartez egiten zituen; bere alaba Sefora eta onen bi semeakin joan zitzaion Moisesi, zeñak bere emazte maitea eta semeak ikustearekin txit poz andia izan zuen: eta Israel guziak ere parte izan zezan, zar guziai bazkari andi bat eman zien. Jetrok eta Moisesek atzena ikusi ziran ezkeroko berriak elkarri eman ziozkaten. Geroenean Jetrok ondo-esan, edo konseju onak eman, eta etxera itzuli zan, eta Sefora eta bi semeak Moisesekin gelditu ziran.

## 7. Sinaiko mendia

Ejiptotik irten ziranetik irugarren illeko iruan Rafidin utzi, eta odeia betiko beren gidari zutela, Sinaiko mortuan sartu ziran, eta beren etzauntzak emen egin zituzten. Mendi au zan, Jainkoak miraririk andienak egiteko autua zeukana. Moises bereala bakartu zan, Jaunari erregutuzera: eta onetan zegoala, Jainkoak agindu zion, Israelko semeai gogoraerazotzeko, zer mirariakin Faraonen mendetik atera zituen; zer mesedeak geroztik ere egin ziezen, eta esateko, baldin aren aginduak gordetzen bazituzten, munduko guzien artean Jaunaren erri esleitua eta autua izango zirala. Moisesek jendeari adierazo ziozkan Jainkoak esandako gauza guziak, eta erantzun zuten, guzia egingo zutela. Oien prestamen au ikusirik, Jainkoak Moisesi, eta Moisesek Israeltarrai agindu zion, egun artan eta biaramonean janzia garbitu zitzatela; zeren irugarren egunean ikusi bear zuten Jainkoa mendi artara jaisten: ordea, esan zion, etzutela mendira zer igo, eta ez bere mugai ukitu ere; bada, iñor mugan sartzen bazan, naiz gizona, naiz aberea, ilda geratuko zala.

Irugarren egunean goizean-goiz mendia odei illun batek artu zuen, eta asi ziran tximistak irteten, eta turmoia jotzen. Berebat aditzen zan tronpeta-soñu zorrotz bat, jendea mendirantz alderatzeko, ziona: baña Israeltarrak izu-ikaraturik, etzuten zeuden lekutik oñik aldatzeko biotzik izan, alik eta Moisesek mendi-ondoko zelaiera eraman zituen arteraño. Mendiari su eta kea zeriozkan; begiratze utsak ikaratzen zuen; eta turmoi eta tronpeta-soñua bat-batean isildu zan. Orduan Jainkoa mendi-gañetik asi zan itzegiten, jende guziak aditzen ziola; eta bere legeko amar aginte santuak bat-banaka esan zituen. Ara nola. Ni naiz zure Jaun Jainko Ejiptoko neke-petik atera zindudana. Ez dezu iñola-ere nere aurrean ni beste Jainkorik idukiko eta adoratuko. Ni naiz zure Jaun Jainko altsua, eta nere gloriaren Kontu-artzallea. Ez dezu zure Jaun Jainkoaren izena aotan artuko, zeren Jaunak ez duen onelakoa kastigu gabe utziko. Larunbat eguna santutu ezazu. Sei egunean lan guziak egingo dituzu: zazpigarrena zure Jaun Jainkoaren eguna da. Egund onetan ez dezute ez zuk, ez zure semeak, ez zure alabak, ez zure morroiak, ez zure neskameak, ez zure abereak, eta zure etxean bizi dan arrotzak lanik egingo. Zure ait-amak onra itzatu, zure Jaun Jainkoak emango dizun lurrean luzaro bizi izan zaitez. Ez dezu iñor ilko. Ez dezu aragizko bekaturik egingo. Ez dezu ostuko. Ez dezu zure lagun urkoagatik gezurrezko asmazio edo testimoniorik esango. Ez dezu zure lagun urkoaren etxea, ez emaztea, ez morroia, ez neskamea, ez idia, ez astoa, eta ez beste bere gauzarik gutziziatuko.

Jainkoa itzaldi onen ondoren isildu zan; eta tximistak, turmoiak, eta tronpeta-soñua, len bezala, berriro asi ziran. Mestia oraindik odeitua



zegoan, eta garra eta kea zeriozkan. Jendeak, an egoteko biotz gabe, mendi ondotik aldegin zuen, Moisesi esanaz: zuk itzegin zaguzu, eta guk adituko dizugu. Au zioten, ain itzaltzu agertzen zan Jainkoarekin itzegiteak izutzen zituelako. Moisesek erantzun zien, etzutela zer ikaratu: Jauntasun andi arekin Jainkoa agertu nai izan zala, aien biotzetan bildur santua sartu, eta geiago okerrik egin etzezaten. Jendea urrutian gelditu, eta Moises sartu zan, Jainkoarekin itzegitera. Itzaldí onetan Jainkoak erakutsi ziozkan bere Erri autua nola eraendu, eta gañerako eginkizunak. Gero Moises jendeagana jatxi, eta Jainkoak erakutsi guzia esan zien. Jainkoak emandako lege eta ikasikizun guziak eskribatu zituen. Bereala mendi-ondoan aldare bat egin eta Jaunari ofrendak eskeñi ziozkan. Eskribatu zuen liburua irakorri zien; eta eman zioten, osotoro Jaunaren legea gordetzeko itza, laster autsi bazuten ere, ondoren ikusiko dan bezala.

## 8. Jaunaren gloria, eta bere legearen arlosak

Israeltarrak nor bere lekura itzuli ziran, eta Moises prestatu zan, berriz ere mendira igotzeko. Biaramonean bere serbitzari Josue arturik, mendi-ondoan abiatu zan: eta onen aldats batera ziranean, Jaunaren gloria mendi-gañean agertu zan. Ara nola. Mendia estaltzen zuen odei-tartetik altxatzen zan su eta gar-antz eder bat, Israelar guziak beren lekutik ikusten zutena. Sei egunean Jaunaren gloriak mendian iraun zuen: bitartean Moises eta Josue bidean egon ziran, ez igo eta ez beeratu gabe: zazpigarrean Jainkoak deitu, eta Moises igo zan, Josue aldatsean utzita, Jainkoarekin itzegitera; eta berrogei egun eta berrogei gauean an egon zan, ezer jan eta ez edan gabe.

Itzaldí onetan Jainkoak Moisesi erakutsi zion, non, nola eta nork ofrendak eskeñi, eta beste eliz-gauzak egin bear ziozkan. Erakutsi zion eliza edo Tabernakuloa zer eratan egin bear zuen: atzenean eman ziozkan, bi arlosatan ezarrita, tximista eta inusturi artean lenagoko egun batean ain anditasun arrigarriarekin Israeltarri itzez esandako bere amar aginteak. Baña Israelarren eskergaiztokoak eta artutako mesedeen azkorrak!

## 9. Urrezko txala

Moisesen mendiko egoerari luze iritzirik, aren anaia Aaronen kontra jaiki ziran, eta Jainko berriak eskatu ziozkatzen, nori jarraitu izan zezaten, Moisesek zer egin zuen etziekitelako aitzakiarekin Aaronen etzuen eskara oni gogor egiteko adiña kopeta izan, bere bizia galtzeko bidean jarrita ere egin bear zuen bezala. Arpegiz-arpegi ukatzeko biotz gabe, eta aieki-koa nola-ere-bait egin naiez, emango etziotelako ustean, emazte eta alabaen urrezko zirzillu edo belarrietakoak eskatu ziezten, oiekien Jainko bat egiteko; baña berak nai baño oparagoak arkitu zituen. Eskatzen zituenak bertatik eman ziozkatzen: eta oiek artu eta urrezko txal bat egin zuen; zeña Israeltarrak Jainkotzat ezagutu eta adoratu zuten. Biaramonean Jainko oni ofrendak eskeñi, onen alabantzan jan-edan andiak artu, eta bere inguruan dantza eta jostaketa asko egin zituzten.

Israeltarrak onetan zebiltzan unean, Jainkoak Moisesi adierazo zion, zer egin zuten. Moises, berri onekin biotza illundurik, menditik jatxi zan, legearen bi arlosak eskuan zituela. Mendi-aldatsean berrogei egunean itxedon zion Josuerekin batu zan; eta biak beeratu ziranean, Israelarren pesta-ots eta dantza-soñuak aditu zituzten. Moisesek ikusi zituenean, bakarrik Jainko egiazkoari zor zaiozkan agur eta adorazioak, urrezko txal edo txekor bati ematen, berez gizonik mansoena eta paketsuena bazan ere, ezin eraman izan zuen, eta aserre santu batekin biotza irazekita, berekin zekarzkien Jaunaren legea eskribatuta zeukaten bi arlosak lurrera bota zituen, eta puskatu ziran, naiago zuela au egin, esker gaiztoko jende ari eman baño. Bereala txalagana joan, ipiñita zeukaten pillaretik artu, eta austu arteraño sutan iduki zuen. Gero autsak urera bota, eta Jainkotzat adoratu zutenai ura bere autsakin edanerazo zien. Onen ondoren bereala aien artetik irten, eta zerbait aldegin zuenean, otsegin zien: baldin Jainkoarekin or inñor bada, betorkit. Dei onetara joan zitzaiozkan Leviren seme, txalari emandako adorazioan kutsutu nai izan etziran guziak. Oiei Jainkoaren izenean agindu zien, ezpata bana eskuan arturik, besteak zeuden tokian sartu, eta joan-etorri bat egin zezatela, ezker-eskuira topatzen zuten guzia illaz. Egun onetan ogeita iru milla idolozaile il ziran. Jainkoak are geiago kastigatu nai izan zituen; baña Moisesen erreguak guziak ondartzetik aren esku altsua atzeratu zuen.

Lanbide negargarri onen ondoren bete bear zan, Moisesek zekarzkien legeko arlosak autsitzearekin utzi zuen utsunea. Jainkoak agindu zion, bada, berriz ere mendira igotzeko prestatu zedilla. Lenagokoan antzeko bi arlosa egin zituen, eta Sinaiko mendira gauaz inñor gabe igo zan. Jainkoa odei batean jatxi zitzaion, makurturik adoratu zuen, eta asi ziran itzegiten. Berrogei egun eta berrogei gau oraingo aldian ere igaro



zituen, ezer jan eta ez edan gabe. Jainkoak aldi onetan ondorerako eginbide eta gauza asko erakutsi, eta bere legeko amar aginteak ere bi arlo-saetan bere eskuz eskribatuak eman ziozkan. Moises, berrogei egun oiek igarota, menditik jatxi zan, bi arlosak berekin zituela; baña Aaron eta beste Israeltarrak ikusi zutenean, eguzkiak bezala argi egiten zuen arpegiarekin, etzuten urreratzeko kemen eta indarrak izan, eta atzeron abiatu ziran. Moisesek etziekien atzeratze au zertatik zetorren; etziekien bere arpegia eguzki bat egin zanik; eta otsegin zien zijoazkiela. Dei onetara Sinagogako nagusiarekin batean Aaron joan zitzaion, eta oiei itzegin zienean, besteak ere alderatu zitzaiozkan, eta adierazo zien, Jainkoak mendian zer erakusi zion. Au egin, eta oial batekin arpegia estali zuen, eta oial au etzuen geroztik, Jainkoarekin itzegiteko baizik kentzen.

## BEDERATZIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Lenengo Tabernakuloa

Moisesek baso-mortuan edo eremuan Israeltarrakin batean bere bizitza egiten asi, eta laster Tabernakulo edo eliza txiki bat eragin zuen, nora joan oi zan bere erreguak Jaunari egitera. Tabernakulo onetan ipiñi zituen mana gordeta zeukaten urrezko ontzia eta legeko bi arlosak. Emen bada, Jainkoarekin bere egonak eta itzaldiak egiten zituen, eta jende guzia, nor bere ataritik, begira zegokion, nola sartu eta irteten zan. Israeltarrak urrezko txala adoratzeko lotsagabekeria izan zutenean, arteraño guzien erdian ikuditzen zuten lekutik Jainkoaren aginduz atera, eta beste leku batera eraman zien; zeñaren aldaketa au Israeltarrentzat kastigurik mingarriena izan zan.

Jainkoarekin bere egon-aldia egin zuen bein batean, Israeltarrai esan zien, Jainkoak mendian agindu ziozkan gauzak egiteko denbora zala, eta gauza oien artean Tabernakulo edo eliza bat zala, izan zezaten, non Jaunari agur-egin edo zor zitzaion adorazioa eman: baña au eta oni zegozkion obrak, Jaunak erakutsi zion neurrietan eta eran egiteko, urre, zillar, eta beste gai asko bear zirala; eta bakoitzak, gogoak agintzen ziona, Jaunaren serbitzo andi artarako eman zezala. Israelko gizon eta emakumeak bereala eskeñi andiak egin zituzten, elkarren leican emanaz apaindurarik baliotsuenak, urrezko erraztunak, belarrietako zirzilluak, eskuturretako edergarriak, urre eta zillarrezko txarroak, arri begiragarriak, Setingo zur ederrak, eun meak, larru zuri-gorri ikusgarriak, eta onelako beste gauza asko, bat-banaka ezin esan ditezkeanak, alako moduan eta ugari, non, Moises arkitu zan, geiago ez eramateko agindu bearrean. Obra andi oiek bear bezala egiteko, Jainkoak, nor bere lanean, ezin obeto trebatu zituen, eta guzien buru eta maisutzat Beszel eta Oliab autu zituen, naiz urre, zillar eta kobrean, naiz arri, zur, eun eta oialean edozein lan-modu egiteko jakinduri betea ematen ziela. Moisesek bi oien eskuan ipiñi zituen, Israeltarrak ain oparo emandako gai guziak, eta txit ederki egin zituzten Jainkoak agindu ziozkan obra eta lan guziak. Oiek ziran Tabernakuloa, elkartasuneko sinisgaia edo testimonioa gordetzeko kutxa, urrezko kandeleroa, lurrinkaiak edo usanbelarrak erretzeko aldarea, ofrendak ipintzeko maia, eta beste txit kontu andiko gauza asko; zeintzuek Moisesek



ikusitakoan, ontzat eman zituen, Jainkoak esan zion era bere-berean egiñak zeudelako.

## 2. Bigarren Tabernakuloa

Lenbiziko lana zan *Tabernakuloa*, zeña nolakoa zan emen esatea, bidezkoa da. Tabernakulo au zan eliza bat, Setingo zur iraunkorrez egiña: zur oiek barrutik eta kanpotik urrez estaliak, eta zillarrezko oñ sendoen gañean ipiñiak zeuden. Luzean amabost kana, zabalean sei, eta goibe edo alturan bost zituen. Tellatua edo estalia amar kortina ederki apainduak egiten zioten; eta tellatu onen gañean zuen larruzko beste estali bat, egualdi gaiztoetan busti gabe gordetzeko. Tabernakuloak bi zati edo gela zituen; lenengoak bederatzi kana, eta bigarren edo barrukoak sei zituen. Oni zeritzan *Leku guziz santua*. Emen elkartasuneko kutxa eta propiziatorioa zeuden, eta Apaiz-nagusia bakarrik sartzen zan, eta au ere ez urtean bein baizik. Lenengo zatiari zeritzan *Leku santua*. Emen urrezko kandeleroa, lurrinkaien aldarea, eta ofrendaen maia zeuden; eta apaizak sartzen ziran.

Tabernakuloa Jainkoak erakutsi bezala egin, eta ondoren bereala Kutxa ere egin zuten. Elkartasuneko kutxa zeritzan au zan Setingo zur irmoakin berebat egiña, eta kanpotik eta barrutik urrezko azalakin estalia. Luzean bost kana-laurden, zabalean iru kana-laurden, eta goibe edo alturan beste iru kana-laurden zituen. Kutxa au egin zan Jainkoaren legeko amar aginte, Jaunak berak eskribatuta zeuzkaten bi arlosak gordetzeko; zeñaren bidez Israeltarrak txit begirune andia zioten. Kutxa onen gañean zegoan *Propiziatorioa* edo mesede-tokia. Au zan urrezko baldi edo plan-txa, kutxa guzia estaltzen zuena; eta baldi onen bi ertzetan zeuden, elkarri begira, bi Kerubin eder, beren egoakin Jaunaren Gloriari egon-leku edo aulki guziz ikusgarria egiten ziotenak. Jainkoak emendik bere aginduak eman eta mesedeak egiten zituen. *Kandeleroa* zan urrezko abe andi bat, sei besanga berebat urrezkoak zituena. Besanga oietan ipintzen zitzaiozkan sei argi; eta abearen gaildur edo buruan zazpigarren, besteak baño gorago irteten zana. Jainkoak aginduta zeukan, jendeak kontu andia izan zezala, oliorik obena argi-ontzi oietarako eskeñi edo ofrendatzeko. Zazpi argi oiek Apaiz nagusiak irazeki bear zituen, gau guzian Tabernakuloan argi egiteko. *Lurrinkaiak erretzeko aldarea* zan Setingo zurez egindako mai bat, goibe edo alturan kana bat, luzean kana-erdia, eta zabalean

beste kana-erdia zana: guzia urrezko azalez estalia zegoan, eta gañeko ertz guzian urrezko baranda eder bat zeukan. Mai onetan inzensua eta beste uringai gozoak erretzen ziran. *Ofrendak ipintzeko maia* ere Setingo zurakin egiña zan. Luzean kanabete, zabalean kana-erdia, eta goibeian iru kana-laurden zituen. Au ere urrez estalia, eta gañeko ertz guzian urrezko barandarekin apaindua zan. Mai onetan ipintzen ziran Israelko amabi etxe, Tribu edo familiak Jaunari eskeñtzen ziozkaten amabi *Ogi Proposizioak* zeritzatenak. Ogi oiek iriñik obena, olioarekin orratuta, egiten ziran. Maiaren bi aldeetan seina urrezko ontzi estalkidunetan ipintzen ziran. Apaizak baizik ezin inork jan zitzaiekan, eta oiek ere leku santuan bakarrik, onela bere santutasuna adierazteko. Kutxak, kandeleroak, aldareak eta maiak alboetan urrezko erraztun bina zituzten, Setingo zurez egindako, eta urrez estalitako abeak sartu, eta bidean ibilli bear ziranean, sorbaldan erabilli zitzaiekan.

## 3. Ataria

Tabernakuloaren inguru guzian zegoan berrogeita amar kana luze, eta ogeita bost zabaleko atari, bost kana altuko irurogei pillarek egiten zutena; pillare oiek zillarrez estaliak, eta bronzeko oñen gañean ipiñiak zeuden; eta pillare-bitarte guzietan sare ederrak zabalduta, oietatik Jauna zegoan lekua ikusteko, eta bere Anditasuna alabatzeko eta bedecinkatzeko. Atari onetan, Tabernakuloaren ate-aurrean, zeuden *Garbiketako ontzi andia* edo *bronzeko itsasoa* ere zeritzana, eta sakrifiziorako bear ziran gauza guziak ipintzeko maia. Atariaz kanpotik estalpeak eginda, Israelko amabi Tribuak (gitxienaz iru milloi) beren eran eta lau alboetan egoten ziran, Tabernakuloa erdian zutela, Jainkoa bere Erri autu aren erdian zegoala adierazitzeko bezala. Ikusgarri ederra egiaz, eta begira zegozkion guziak arrituko zituena!

## 4. Apaizak

Gauza guziak onela prestatuta, ofrendak eta beste lanak egiteko Eliz-gizonak ere bear ziran. Lanbide onetarako Leviren Tribua edo etxea zeukan Jainkoak autua, eta etxe onetan Aaron eta bere semeak izan ziran apaizatzenak, Aaron bera Apaiz-nagusi edo Aita santu zutela.





Oien janziak ere beren egiteko andiari zegokion erakoak ziran, batezere Aita-santuarenak, zeñak txit kostu andiko eta misterioitsuak ziran. Aita santuak bere egunoroko soñaren gañetik, beste zuri luze osoko edo joskura gabeko bat jazten zuen. Gero beste nabar bat, ertzetan ezkiltxo eta bola txiki elkarrizkitzekatenakin apaindua. Onen gañean ipintzen zuen *Efod* zeritzan, urrez eta kolore askorekin edertutako janzi labur beso gabeko, zati bat bularrera, eta bestea bizkarrera erortzen zitzaiona. Besaburuetan zeramazkien bi bertiste edo esmeralda, urrean sartuak, eta Jakob ben amabi semeen izenak, bakoitzean seinak, eskribatuta zeuzkatenak. Bularrean zeraman Efodi urrezko bi katerekin erantsita, luze ainbat zabal zan kana laurdeneko baldi eder urrez josia, eta amabi arri baliotsurekin estalia. Arri bakoitzean Israelko amabi Tribuetatik baten izena zeukan, eta guzien erdian itz oiek: *Ikasikizuma* eta *Egia*, eta zeritzan *Bularrekoa* edo *Pektorala*. Buruan zeraman arizko txapela luze bat, aurre-aldetik bekokira urrezko baldi bat erortzen zitzaiona. Gisa onetan, Aita-santuak bezala, gañerako apaiz eta beste Eliz-gizonak ere beren janzi berezi txit baliotsuak zituzten.

Moisesek, bada, ikusi zituenean gauza guziak, Jainkoak erakutsi zion bezala egiñak, bedeinkatu zituen; baita Apaiz-nagusi Aaron ere konsagratu zuen, olio santuarekin eta ofrendaetako abereen odolarekin igortziaz. Berebat egin zuen beste Apaiz eta Lebitakin, zeñak asi ziran nor bere lekuan, Jaunari ofrendak eskeñtzen, eta beste eliz-lanak, Moisesek Jainkoari ikasita, erakutsi zion moduan, egiten. Aaron zan, Aita-santu bezala, leku guziz santuan sartu zitekeana. Leku santurako ziran beste apaiz asko aren ondorengoak; eta oiei laguntzeko, atzeragoko lebitak zeritzatenak. Jainkoak berak Moisesi erakutsi zion, nork, eta nola, eta non agur-egin eta adorazioak eman; eta neurri oietatik irtetea txit zorrotzkiro debekatu zion, adierazoz, etzegokion lanean sartzen zanari, bere esku altsuak laster ukituko ziola.

## 5. Nadab eta Abiud illak

Etzan luzaro egon bearrik izan, agindu au egiztatua ikusteko. Tabernakuloan Jainkoa inzensatu bear zanean, agindu zuen, artarako zan aldare gañean egindako su bedeinkatutik inzensu-ontzi edo inzensonarioan ipiñi zedilla. Aaronen bi seme zarren Nadab, eta Abiudek agindu au ezertan artu gabe, beste su bat inzensonarioan ipiñi, eta inzensatzen ari zira-

la, Tabernakuloan bertan ilda gelditu ziran. Tximista zirudien su bat Jainkoak bialdu, eta bi anaiak illotzik utzi zituen, gorputz eta janzietan ukitu eta imurtxi bat ere egin gabe. Moisesek, bat-batetako kastigu izugarri au ikusita, apaiz guziak kontuan ipiñi zituen, beren lanak, arren, ondo egiteko, beste ainbeste gertatu etzekieken. Gorputz-illak beren janziakin Tabernakulotik kanpora aterazo zituen; eta Aaron eta beste apaizak Tabernakulotik irtetea, eta naigabearen aditzerarik ematea debekatu zien, berak ere il, eta beste guzien gañera Jaunaren aserrea ekarri etzezaten, esanaz, negar egitea aici etzegokiela, ezpada olio igortzi gabeko, eta elizlanetan etzeuden beste senide eta Israeltarrai.

Jainkoak Nadab eta Abiuden iltzearekin Eliz-gizonen utsegiteak zein gaizki artzen zituen erakutsi, eta gero egun oietan berebat adierazo zuen blasfematzalle, edo aren Izen santua aotan zerabiltenai zien gorroto eta iguina. Bi Israeltar beren artean aserretu ziran, eta Jaunaren Izen santua batek aotan artu, eta gaizki itzezin zuen. Gaizki-esale au Moisesi eraman zioten, eta itsian sarerazo zien, Jaunak zer nai zuen jakin arteraño. Moises Jainkoari galdez joan zitzaion, eta Jaunak agindu zion, Israeltarren artetik atera, eta arrika il zezatela. Ala egin zuten. Kastigu gogor onekin Jainkoak Israeltarrai erakutsi nai izan zien, zein andia eta miña zan bekatuarekin egiten zitzaion bidegabekeria, batezere mesederik andienak egiten ari zitzaiozkan egunetan; eta gero ere zein bildur izan bear ziran.

## 6. Sinako mendi ondolik irteera

Illabete eta geiago zan Tabernakuloa, eta oni zegozkion gauzak konsagratu, Jaunari ofrendak eta sakrifizioak eskeñi, eta Moisesek Jainkoagandik artutako lege eta ikasbideak egiten ari zirala, odeiak adierazo zienean, Sinako mendi gogoangarria utzi, eta lur promesturonz abiatzeko denbora bete zala.

Egiaz, Ejiptotik irten ziran bigarren urteko bigarren illaren ogeiean, Sinako mendi-ondoan amaika illabete eginda, gero odeia, itzal egiñaz egon zan Tabernakuloaren gañetik, aldatu zan bidean aurrena joan bear zan Judako Tribu edo etxea zegoan tokira. Aldaketa onekin ezagutu zuten, abiatzeko ordua zala, eta prestatu ziran. Nork bere estalpe, etzauntza eta beste gauzak bildu zituen, Tabernakuloa askatu edo desarmatu zuten: onen zati guziak Jainkoak erakutsita zeukan eran estali zituzten, bidean aberi eta kalterik izan etzezaten. Elkartasuneko kutxa santa, kan-



deleroa, maia eta aldareak berariaz ipiñitako agaetatik Eliz-gizonak sor-baldan artu, eta abiatu ziran, Moisesek beñere Kutxa santa bere ondotik utzi gabe. Ikusteko ederra, eta menturaz parerik munduan izan ezduena! Bi milloi eta geiago lagun, sei eun eta geiago milla armadunen artean zijoz-zen. Odeia anbat, jendea ere zijoan. Zar erori eta gazte bizkorrai, gizon sasoi oneko, eta sabelean edo besoan aurrak zituzten emakumeai, mutil guri-azi eta neskatx minberai, eri eta aurtxoai, itz batean, guziaz zegokien donario ederrean zijozzen, odeia nora, aiek ara, lekuan-lekuan atsedentxoak, egiten zituztela. Gautu edo illuntzean, odeia lekuri obenean geditzen zan; onekin aditzera emanaz, berak ere non gelditu bear ziran. Egunaz itzal bezala, gauaz argi egiten zien. Janaz etzuten zer bururik autsi. Goizoro beren inguruan eroriko zitzaian mana gozoa biltzea asko zuten, naierara bazkatzeko. Ura beti sortzen zitzaian. Oñetakoak, soñekoak, oiak, eta beste gauzak kalte eta aberirik bidean etzuten. Guzien kontua Jainkoak zeukan, eta Israeltarrak bidaje miragarri onetan etzuten donario onean bideari jarraitu baizik. Ala ere baziran zenbat alper eta errazkeriari on-iritzita, gitxik nekatzen zituenak, eta lagunetatik aldegin, eta Jaunaren kontra erausiari eman zitzaiozkanak; baña bat-batetan sortu-tako suak erre eta kiskaldu zituen.

Ibilli-aldi onen irugarren egunean illunabarrean odeia gelditu zan, ondorengo egunetan an bertan egon bear ko ziran siñaleakin. Beragatik Tabernakuloa eta oni zegozkion gauzak ipiñi zituzten, egon-aldi luzeak egiteko oi zuten eran, eta jendeak ere Tabernakuloaren inguruan estalpeak egin, eta gauzak ipiñi zituen.

Etzan orainago aitatu dan zerutik jatxitako sua oraindik osotoro itzali, berriz ere Jainkoari aserretzeko bideak ematen asi zitzaiozkanean. Israeltarrakin batean Ejiptotik irtendako zenbat arrotz aurrena, eta oien antzeko Israeltar eskergabeko batzuek urrena, asi ziran adierazten, Ejiptotik irtenaz damuturik zeudela: ango aragiak, arraiak, baberrunak, kalabazak, porruak, tipulak, eta baratzuriak gogoratzen zitzaieztela; au esan eta negar egiten zuten. Moisesek bide gabeko negar eta espadasun oiek aditurik, eta zerutik egunoro zetorkien janari gozoa ezertan artu gabe, Ejiptoko ustel zatarran eresia agertzen zutela ikusirik, bere onetik irten zan, esanaz; ezin au nik onean eraman det: jende onekin nik bakarrik ezin dezaket.

## 7. Sanedrinen ipiñera

Jainkoa jende onen kontra aserretu, eta Moises errukitu zitzaion, eta esan zion, irurogeita amar gizon elduenak autu zitza; bere eginkizun andi guzietan laguntzeko; eta emendik dator Jesu-Kristoren egunetan *Sanedrin* zeritzan batzarra, zeñak, Moises buru zala langai andien guziak erabakitzen zituen. Gero Moisesi esan zion, mana miraritsuari eskerrik ematen etzioten ezkerro, biaramonean Ejiptoko aragi-zaleai bialduko ziela gogoak ondo asetzeko, eta aspertzeko adiña aragi. Esan eta egin; biaramonean ego-aize batek itsasoaz beste aldetik gal-eper samalda izugarriak eraman ziezten, eta Israeltarren inguru guzian zabaldurik, or-emen zebiltzan, buruetan alde-aldean ukitzen zietela, aisa atzitzeko eran. Egazti-samalda aiek ikusi zituztenean, nor bere estalpeetatik irten, eta egun artan, arratsaldean, eta biaramonean nai guzia atzitu zuten. Ondorengo illabetean bizi izan ziran, gorde zituzten gal-eperren aragia janaz, Jainkoak Moisesi esan bezala, gogaitu eta goragaletzeraño. Baña oraindik etzitzaien ortzetatik aragi-kutsua kendu, Jainkoak, zeruko janariaren truke Ejiptoko zatarrak eskatzen zituzten esker gaiztoko aiek, eriotza bat-batetakoarekin kastigatu zituenean.

## 8. Aaron eta Mariaren espak, edo kejurak

Geraldi onetan illabete egin, eta Haseroteran joan ziran. Emen, non-bait orainago ikusi zituzten zigorrada gogorak gogoan zeuzkatelako, etziran mormorio eta gaizki-esateari lekuri ematera benturatu: baña ala ere Moisesi etzitzaiozkan naigabeak aitu. Aaron eta Maria asi ziran beren anaia Moisesen kontra gaizki itzegiten, Moisesen emazteagandik oña arturik. Emakume au bere senarraren eskualdi andiak, eta Jainkoak egiten ziozkan mesedeak ikusita, bear baño geiago, noski, arrotu zan: eta Maria eta Aaronek ezin eramanaz, esan zioten: Zer bada? Jainkoak Moisesi bakarrik itzezin ote dio? ezdigu guri ere itzezin? Moisesen kontra ere itzezin izango zuten, zeren uste zuten emaztearen arrokeria etzuela bear bezala itzaltzen. Itzketa onetan Maria geiena nabarmenduko zan; beintzat, kastigurik gogorrena berari etorri zitzaion. Moises lurreko gizonik paketsuena eta gozoena izanik, etzuen itzik aterako, baña bere alde Jainkoa irten zitzaion. Iru senideak Jainkoak Tabernakuloronz deitu zituen, odei batean jatxi zitzaian, eta atean edo sarreran jarririk, adierazo zien,



Moises, aiek ez bezalako, eta bere serbitzarietan leialena zala; argatik arpegiz-arpegi, eta besteri ez bezala itzegiten ziola. Zergatik, bada, esan zien, zergatik etzerate ikaratu nere serbitzari Moisesen kontra itzegiten? Au esan, eta aserre bizian aldegin zien. Odeia ere ezkutatu zan, eta Maria legenez edo lepraz josia arkitu zan.

Aaronek bere arreba ain nazkagarri ikusi zuenean, Moisesi korrika joan zitzaion, egin zioten txarkeriaren barkazio-eske, eta esatera, arren, Jainkoarekikoa egin zezala, lenbaitlen arreba sendatzeko; bada, denbora gitxian gorputzaren erdia gaitzak jan ziola. Moisesek bere arrebategatik Jaunari erregutu zion; baña Jainkoak gaitzari geiago jateko indarra kendu bazion ere, etzion orduan bereala legendarra osotoro garbitu nai izan; eta jende artetik bazter batera bota zuten, besteak kutsutu etzitzan, eta lotsa gaitzo onetan zazpi egunez egon bear izan zan. Kastigu izugarri, guziak zekusten onek, Mariaren arrokeria beeratu zuen; Aaroni begiak betiko argitu ziozkan, eta gañerakoak kontuan ipiñi zituen, asko balio izan ezba-zuen ere gaitz-ikuste guzien azkor aientzat. Aaron eta Mariak etzuten geroztik itz bat ere anaia Moisesen kontra esan, eta bear zan begirunea-ekin beti begiratu izan zioten. Mariak zazpi egun egin zituen legendarrez josia, eta beragatik baztertua. Bitartean Israeltarrak iñora gabe geldi egon ziran; eta egun oien buruan garbitu zanean, beretara artu zuten, eta odeiak adierazo zien, abiatzeko garaia zala.

Zein kaltegarria dan iñoren ona ezin eramana! Bi senide oiek zekusten Moises beren anaia Jainkoak mesedez bete; onore au aiei ere iristen zitzaion; baña anaiaren nagusitasuna ezin eramanez, erausiari eman zitzaiozkan, Jainkoari aserterazo eta kastigu lotsagarri hura bialtzera ipintzeraño. Eta Moisesek txarkeria au gogoan artu zien? Zein gitxi! Aientzat barkazio Jaunari berak eskatu zion, erakusten digula besteren bidegabekeriak nola artu bear ditugun.

## 9. Kanaango berri-ekartzalleak

Laugarren illaren bigarren egunean, odeiari zerraizkiola, Haserotik irten, eta arratsalde berean Kanaango mugako Retma zeritzan lekura joan ziran. Lur promestu artan sartzeko atzeneko prestamenak Jainkoak emen artu nai izan zituen; baña Israeltar azkorrek Jaunaren itzak eta laguntza ezer gitxian zeuzkaten, eta ango berriak lendanaz artu bear zirala, esan zuten. Eskaera au Jainkoari etzitziaion ondo erori; aserretu zan: ala ere

Moisesi agindu zion; amabi gizon zarren, amabi Tribu edo etxeetatik bana, Kanaango lurrera bialdu zitzaion, ango berriak ekartzera. Moisesek ala egin zuen; amabiak, bada, bialdu zituen, agindurik, ondo begira zezatela, zer lur, eta zer gizon-modu ziran an bizi ziranak; zer erri eta nola itsiak zeuden; lurra aberatsa eta ugaria ote zan. Oiek eta onelako beste enkargu asko emanik, atzenean esan zien, ango zenbait jan-gauza ekarri zitzaion. Mandatari oiek esana zintzoro egin zuten. Kanaan guzia naierara ikusi zuten: opa ziran berri guziak artu zituzten. Lanbide onetarako, beren aurrekoak lur artan bizi izan ziranean, ango itzkuntza ikasia eta semeai zerbait erakutsia, txit ondo etorri zitzaion; eta beren kontura artutako lana ustez egin zutenean, beretaronz itzuli ziran, berekin arturik piku andiak, mingrana edo granada ederrak, eta beste gauza asko: eta guzien azkarria zan mats-mordo izugarri bat, zeña agatzar batean ipiñita, bi gizonen artean eraman zuten.

Lanbide onetan berrogei egun egin zituzten; eta beren tokira itzuli ziranean, Moises, Aaron eta Israeltar guziaz erakutsi ziezteen, zekarzkiten mats-mordo eta beste gauzak, ziotela, ea zer izango zan alako garauak eta frutak ematen zituen lurra? Moises guziak baño geiago ikusgarri aiekin arritu zan; baña denbora berean atsekabe andia izan zuen, bi ez, besteak esan ziotenean, zoriekoak zirala, an sartu ezker; ordea ezin zitekean asmoa zala, erri asko zeudelako irmo eta sendo itsiak; eta gizon txit indartuak gordetzen zituztenak. An ikusi ditugu, zioten, Enaken jatorriko gizon portitz izugarriak, zeintzuen parean euliak giñirudien, eta begiratze utsak biotzik sendoenak ikaritzen zituen. Ate eta sarrera guziak itsiak daude, eta iñondik ere ezin dezakegu biderik idiki. Berri oiek artutakoan, Israeltarrak asi ziran beti bezala gaizki-esaka, eta asaldatzen. Orduan Kaleb eta Josue beste amarrekin Kanaan izan ziranak, esan oiek gezurtatu nai izan zituzten, ziotela, alakorik etzala; bide gabeko itzketa eta ikaratu-naiak zirala; ara joatea erabaki zezatela, eta jabe egingo zirala; eta ogizerra bat jan bezain erraz eta aisa guzia menderatuko zutela: bada, Jainkoa beren alde izan ezker, iñoren bear etzirala. Bi oien esan-alak ezer etziran, beste amarrai arpegi emateko, zeintzuek deadar egiten zuten, ikusia ikusirik, lur artzaz jabetzea ezin zezaketen lana zala.

Atzenean Israeltarren artean mormorio andi bat sortu zan; negarri eman zitzaiozkan, Moises eta Aaroni esanaz, obe zutela Ejiptan il baziran, edo beren ezurrak baso-mortuan utzi, ezen, ez lur artara joanda, berak ganibituen aolan il, eta emazte eta humeak katibu gelditu. Elkarri esan ere bazioten: Buru berri bat artu dezagun, eta Ejiptora goazen. Moises eta Aaronek au entzun zutenean, Israelko guzien aurrean auzpeztu



ziran, eta Kaleb eta Josuek jende asaldata hura gozatu eta paketzeko, lengo al-egiñak berritu zituzten; baña alperrik. Berrito deadarrari eman, eta arrika erasotzeko asmoak artu zituzten. Onetan zebiltzala, Jaunaren Gloria Tabernakuloaren gañean agertu zan. Itzal egiñaz oi zegoan odeia sutu zan, adierazten zuela Jainkoaren aserre santua esker gaiztoko aien kontra, eta oso ondatu nai zituelako antza. Israeltarren griña zan, gaiztakeriaren bat eginda, Jainkoak ez-ikusi egiten zienean, lotsagebetuagotzekoa, eta bere eskuak zerbait ukitzen zienean buruak makurtzekoa. Orain ere griña oni zerraizkiola, ikusi zutenean odei sutu txingarrak zeriozkana, orduko aien otsak, kea bezala, desegin ziran, eta nor bere tokira ezkutatu zan.

## AMARGARREN IRAKURGAIA

### 1. Jainkoak Israel ondatu nai, eta Moisesek atzeratzen du

Jainkoak ikusirik, esker gaiztoko jende arekin etzegoala ezer egiterik, erabaki zuen atzen-ondamena bialtzea. Moisesi esan zion, bada, izurrte batekin jo, eta ondatu bear zuela; baña bera jende hura baño andiago eta sendoagoaren buru egingo zuela. Jaunaren esan onek Moisesi biotza illundu zion. Gaiztakeria eta gaiztakeria baizik jende ark egiten ezbazuen ere, Gidari andi onek asko nai zion, eta bide onera zuzentzea zan bere eresi guzia: argatik Jaunari berrito aren alde erreguka jarri zitzaion, eta esaten zion, Ijitoak ikusi zutela, zer eta zenbat mirarien bitartez Ejiptotik mortu artaraño, ekarri zituen; eta baldin Kanaango lur anziñatik gurasoai eskeñi eta agindutakoan sartzen ezbaziran, esango zutela, sartu ezin, eta eremuan il zituela, eta onelako beste milla erausi eta berriketa erabilliko zituztela. Atzenean berriz eta berriz ere eskatu zion, arren, bere errukimentu andiari begiratuta, beren bekatua barkatu zizaiela.

Moises serbitzari leial onen erregua jaunari erraietan sartu zitzaion, eta eranzun zion: jende onen bekatua zur erreguakgatik barkatua dago: baña esan zion, bere Anditasuna eta mirariak Ejipton eta eremuan ikusi arren, aren esanik egin nai izan ez, eta beraren kontra itzegin zutenetatik etzala bat ere lur eskeñian sartuko. Esan egiezu, bada, zion: zuen gorputz-illak bakardade onetan geratuko dira; ogei urtez gorako nigatik gaizki-esaka egon zeratenok, etzerate bizilekutzat eman nai nizuten lurreen sartuko; baña bai, etsaien eskuetan utzi bildur ziñaten zuen semetxoak, zuek on-iritzi etziñioten bazterra ikusi dezaten. Zuen semeak baso-mortuan or-emen ibilliko dira, gurasoen gorputzak lurak jan ditzan artean. Esana egingo det: bakardade onetan auldu eta ilko dira.

Moisesek esan zienean, Jainkoak zer itzegin zion, negarrari eman zitzaiozkan: ezagutu zuten, zigorrada hura ondo irabazia zutela, baña Jauna etzan atzeratu; zer egin, erabakia zegoan. Lenbiziko jo zituenak ziran amar berri-ekartzalle, jendeari asaldaerazo zioten aiek, zeintzuek guzien aurrean ill-otzik gelditu ziran. Kolpe izugarri au emanda, uste izan zitekean, Jaunaren esku itzaltsua geldituko zala, bat-batetako eriotzarik



geiago eman gabe; baña ez; asaldatu aiek berak beren iltzea aurreratu zuten. Lenago bildurti bezala, gero ausardia geiegirekin Kanaanera joan naienean agertu ziran. Jainkoak Moisesen bitartez aginduta, len sartu nai izan etziranak, gero Jaunak nai etzuela, eta Moisesek gogor egiten ziela, indarrez sartu nai izan ziran; baña bereala etsimenarekin arkitu ziran. Sartzten asi bezain laster, Amalektar eta Kanaangoen eskuetan asko milla gizon il ziran, igesari eman zitzaiozkan elbarri eta baldartu banaka batzuek baizik bizirik gelditu gabe. Orra zer dakarren Jaunaren laguntza bere alde ez izanak! Gertaera ikaragarri onek negar andiak eragin zituen, eta guzien biotzetan izu-ikara gogorra sartu zuen. Egun batzuek artu zituzten, elbarri igeslari aien zauriak sendatzeko, eta naigabez eta penaz beterik, baso-mortuaren biotzera itzuli bear izan ziran, bakardade illun artan beren egunak igaro, eta milloi bat eta geiago lagun Kanaango lur atsegiñezkoaren mugaraño joan, eta sartzeko eskua gaiztakeriak galdtu zutenak, ezurrak uztera.

Mingarria zan menaz, Jainkoak ainbeste mirarien erdian Ejiptoko morrontzarik gogorrenetik atera, ain bide luzean lagundu, eta beren guraso antziñakoai eskeñitako lur eder aren atetara ezker, sartu gabe itzuli bearra. Zergatik ote? Jainkoagan uste eta esperantzarik artzen etzutelako. Gogo gaiztoz bederik, eremuaren erdira biuru ziran bada.

## 2. Jaieko langillearen kastigua

Israeltarrak ogeita emezortzi urte eremuaren erdian igaro zituzten. Bitarte luze onetako gora-beerak eta gertaerak esatea erraz ez da. Eskritura Santak lenbizi esaten diguna, jai-egun bateko langillearen kastigua da. Israeltarrak Moises eta Aaroni gizon bat eraman zioten, esanaz, jai-egunean egur-biltzen arkitu zutela. Itsian sartu zuten, eta gizon oni zer egin etziekitelako, Moisesek Jaunari galdetu zion, ea zer egin bear zitzaion: eta Jainkoak erantzun zion, beren bizilekutik kanpora eraman, eta arrika il zezatela. Ala egin zuten. Egikera onekin Israeltarrak erakutsi zuten Jaunaren lege santa gordenaia, gauza guzietan izan balute, Moises beren buruak etzuen ainbeste eramankizun izango; baña onekin eman zioten pozak, etzuen luzaro iraun: bada, egun gitxiren buruan, arteraño izan zituen naigabe guzien azkarria, sortu zizaion. Jainkoak ipiñiak ziran Moises Israeltarren libratzalle eta buru, eta Aaron Moisesen laguntzalle eta Aita-santu; au gauza jakiña, eta mirari askoren bitartez Israelen ikasia zan:

baña leku guzietako gaitz agindunaia an ere bazan; eta Kore, Datan, Abiron eta Han beste berreunda berrogeita amar lagun, nagusientsuen artean egiñik, Moises eta Aaronen kontra jaiki ziran. Datan eta Abironen Moisesi nagusitza berentzat kendu nai zioten, ziotela; Nork jende oni agintzeko eskua eman dizu? Oraindañokoa asko da bada: zu ere, besteak bezala, aginte gabe izan zaite. Korek apaizatza Aaroni kenduta, beretzat nai zuen, hura ere Leviren jatorria zalako; bada, zioten, odol onetako guziak santutuak zirala.

Moisesek asaldatze au ikusirik, Jaunari auzpez jarri zitzaion eskatzen, esturasun artatik, arren, atera zezala. Jainkoak eskea aditu zion, eta uste oso-osoarekin jaiki zanean, aurrean etzuen iñor ikusi, Kore bere berreunda berrogeita amar lagunekin baizik. Datan eta Abiron berenarekin irte-teko lagun geiago egitera joanak ziran; eta Han etzan ostera agertu. Orduan Moisesek Kore eta bere lagunai esan zien, biaramonean ikusiko zutela, Jainkoaren edo langintza artarako Jainkoak autuak zein ziran. Zu, Kore, eta lagunok, esan zien, inzensu-ontziak eskuan artu, eta Jaunaren aurrean, inzensua suan ipiñi ezazute, eta berak esango du, santuak zein diran.

Moisesek ezagueran sarerazo naiez, alegiñak egin zituen: Kore eta bere lagunai berriz ere itzezin zien, esanaz; ea Jainkoak Tabernakuloan bere serbitzoak egiteko, eta jende guziaren aurrean egoteko autuak izatea ezer gitxian zeukaten?

Zer? Jainkoak bere ondoraño sartzeko eskua eman dizute, apaizatza bera ere gero zerendu naiez ibiltzeko, eta Jaunaren beraren kontra altxatzeko? Zein da Aaron, zuek gaizki-esaka erabiltzeko? Baña egin-al oiek alperrik ziran. Korek indarrez nai guzia egin uste zuen; beragatik gortua zegoan, Moisesen ondo-esanak aditzeko.

Moisesek etsirik, etzuela Kore eta bere lagunakin ezer egiten, Datan eta Abironi beren egonlekuetara mandatariak, bialdu ziezten esatera, etorri zekizkiola, eta aien eskaeraren gañean elkarrekin itzezgingo zutela; baña gaztigua etzioten ezertan artu. Ez goaz, erantzun zuten. Moisesi gitxi deritza eznea eta ezta zeriozkan Ejiptoko lurretik emen baso-mortuan iltzeko ateratzea, bere mendean ezbagauzka? Ez goaz, ez. Jainkoagandik artutako mesede guziak oñ-pean artzen zituen erantzueria lotsagabe onek; Ejipton izan zuten morrontza gogorrari eznea eta ezta deitzen zion erantzueria onek, Moisesen biotz goxoa osotoro laztu zuen; baña etzuen besterik egin, ezpada Jaunaren eskuetan bere ustea ipiñi, eta berriz ere Kore eta bere lagunai joan zitzaion, eta esan zien, len itzeziña egiteko prestatu zitezela. Biaramonean Moises bere anaia Aaronenkin Tabernakuloaren ata-



rira joan zan; baita Kore ere bere lagunakin. Beste asko ere an bildu ziran, batzuek ikusmirara, eta besteak asaldatu aici premia bazan, laguntzera.

### 3. Kore, Datan, Abiron, eta lagunen ondamena

Jainkoa bereala adierazo zan. Tabernakuloari itzal egiten zion odeia bat-batetan agertu zan, argia eta tximistak zeriozkala, eta ots batek Moises eta Aaroni esan zien, billera artatik aldegin zezatela, beste guziak ondatuak izan zitezten. Moises eta Aaron auzpez jarri, eta Jaunari eskatu zioten, etzitzala batzuek besteakgatik galdu. Jainkoak orduan Moisesi agindu zion, Kore, Datan eta Abironen bizilekueetatik jende guziak kentzeko. Israelko gizon elduenak berekin Moisesek artu, eta joan zan, Jainkoaren esana egitera. Datan eta Abironen estalpe-ondoan jarri, eta zer gertatzen zan ikusi naiez, ara joan ziran guziaz esan zien, andik aldegin zezatela, ezeri ere ukitu gabe, angoakin batean galdu etzitezten. Atze guziak bereala igesegin zuten, eta Datan eta Abiron beren etxe-atarietan jarri ziran, inor bazijoakien gogor egiteko asmoan: baña auzia etzuten Moisesekin, ezpada Jainkoarekin. Datan eta Abironen oñ-peko lurra, ots izugarri bat egiñaz idiki, eta bizi-bizirik ondatu ziran berak, beren emazteak, seme-alabak, mirabe, abere, etxe... itz batean, zegozkien guziak, eta etzan Israelen aien aitamenik geiago egin. Ingurukoak ondamen izugarri au ikusi zutenean, igesari eman zitzaiozkan, nora eta nola etzietkela, lurak jan zitza bildurrez. Zer negargarria ainbeste lagun beren obenkulpaz galtzea! Baña Jaunaren esku zuzena etzan onetan gelditu. Moises bereala Tabernakulora joan zan: eta Aaron eta beste apaizai bakarrik zegokien inzensatzeko langintzan, Kore eta bere lagunak asi ziranean, Kore lurak iretsi edo tragatu zuen, etasu izugarri bat-batetan sortu zanak, bere berreunda berrogei ta amar lagunak kiskaldu zituen. Gero Eleazar, Aaronen semeak, gorputz ikaztuen artean zeuden inzensu-ontziak artu, eta ate-gaň batean josi zituen, Kore eta bere lagunai gertatua gogoan izan zezaten, eta etzegokion eliz-lanetan sartu nai zuen beste edozein eskarmentatu zedin.

Kastigu izugarri oiek, Israelko guziak ikusi zituzten: eta berriz alakorik ez etortzeko bideak itsi bearrean, Moises eta Aaronen kontra itzegiteari berriro ekin zioten. Biaramonean bi anaia oiek Tabernakuloaren atarira joan ziran, eta Aaron eliz-lanetan asteko bere apaiz-soñekoak jan-zirik zegoala, aurreko egunean ildakoen aide eta adiskideak elkar-artu, eta

Moises eta Aaronen kontra deadarrari eman zitzaiozkan, ziotela; gure anaiaen borreroak zuek zerate, eta geratuko etzerate alik eta Jakobean atzeneko odola isuri arteraño. Aide eta adiskideetatik gañerakoetara ere iskanbilla zabaldu zan; nondik-nai etzetorren otsa eta deadarra baizik: eta Moises eta Aaron igesi Tabernakuloan sartu, eta Jaunaren eskuetan jarri ziran.

Emen sartu orduko, odeiak estali zuen, eta Jainkoaren aserrea agertu zan. Moises eta Aaronen ezagutu zuten, jende gaizto arentzat gauza onik etzala. Jainkoari bein eta berriz eskatu zioten, arren, jende aren errukimentua izan zezala: baña Jainkoak etzien aditzen. Moisesek, bada, igerririk atarian zerbait bazala, auzpez zeuden lekuan Aaroni esan zion; jaiki zaite, inzensu-ontzian sua ipiñi, eta jende ari zoazkio, suaren erdian sarzaita, eta beraren alde Jaunari eska-zaiozu. Aaron bere apaiz-janziakin, inzensu-ontzi eskuan zuela, irten zan, eta jende guzia ikusi zuen, su eta gar zeriola; il eta bizien erdian sartu eta sua itzali zuen; baña ordurako amalau milla eta zazpireun lagun kiskaldu ziran.

### 4. Aaronen zigorra

Esan diran gertaera negargarriakin Jainkoak garbiro adierazo bazuen ere, apaizetako autuak Aaron eta bere humeak zirala, are obeto ezagutu zedin, sinisgarri berri bat eman nai izan zuen. Moisesi agindu zion, Israelko amabi Tribuetako nagusi edo Prinzipeen eskuetatik amabi zigor artu zitzala, eta nori bere nagusiaren izena ipiñi zizaiola: bere Tribukoarenarekin au bera egin zezala: zigor oiek Tabernakulora elkartasuneko kutxa-aurrera eraman zitzala, eta apaizatzarako autua zegoanaren zigorra lore-tuko zala. Moisesek Jainkoak agindu guzia egin zuen: eta inork zer esanik izan etzezan, gau guzian kontuartzalle asko zai egon ziran. Biaramonean Moises, guziak zekustela, Tabernakuloan sartu zan, eta Aaronen zigorra bakarrik arkitu zuen ostoz janzia eta lorez betea. Zigor guziak atera, eta nori berea eman zion, eta eraman zituzten: baña Aaronena Jainkoaren aginduz Kutxa santan gorde zan, beti jakin zedin, apaiz-izatea Aaron eta bere jatorkiari zegokiela. San Ambrosioren iritzian zigor onek, Kutxa santan egon zan denbora luze guzian, bere ostoa, lore, eta garuakin irau zuen.



## 5. Israelarren Kanaan-ondora itzultzea. Mariaren eriotza

Israeltarrak ikusi zituzten kastigu ikaragarriakin, noizbait bear da, zerbait zentzatu ziran; ez dakigu, beintzat, eremuan bizi izan ziran beste ogeita amazapi urte eta geiagoan, iskanbilla berririk ipiñi zutenik. Bitartean Kanaango lur gozoa ezertzat artu etzuten geienak, iltzen zijoazen. Onela, Jaunaren itza betetzeko ordua, bazetorren: eta Ejiptotik irten ziranetik berrogeigarren urteko lenengo illean, Kades zeritzan Kanaango muga-ondora itzuli ziran. Moisesek emen naigabe andi bat izan zuen; bada, Maria bere arreba maitea il zitzaion. Moisesek iltze onekin zer atsekabea artuko zuen ezagutzeko, ezdago begiratu baizik, bere neke eta ibillera gogor guzietan zein lagun ona izan zuen. Eriotzatik Mariak gorde zuen, saskitxoan sarturik ibai ondoan ipiñita: bere ama egiazkoa inudetzat Mariak eratu zion; Ejiptoko neke guzietan Maria jarraitu, eta katibutasun gogorrean Mariak lagundu zion: ytsaso gorria igaro zutenean, Jaunari eskerrak ematen eta alabatzen, emakume guzien buruan Maria jarri zan: bera izan zan Igarta edo Profeta, Jainkoak gauza-isill asko agertzen ziozkan, eta gaizki-esale batzuen artean bizita, anaiaren kontra bein zerbait esan bazuen ere, umiltasun andiarkin kastigua nozitu zuena: Maria izan zan, bada, donzellatasuneko bizimodu garbia lenbizi artu zuena: eta atzenez bere bi anaiaen eskuetan eunda ogeita amar urtekoa il zan, santa bezala.

Moisesek atsekabe andi onen ondoren, etzuen izan ariñagoa, Kadesen Israeltarrak berriro eman ziotena. Len-lengo erausi eta gaizki-esateak berriztu zituzten. Zertako Ejiptotik ekarri ginduzun, Moisesi ziotsaten, ez pikurik, ez matsik, ez mingranarik izaten dan, eta urik ere ematen ez duen lur elkor onetara? Moises eta Aaron, espadasun eta kejura oiek entzun zituztenean, Tabernakuloan sartu, eta auzpezturik, Jaunari ur-eske jarri zitzaiozkan, onekin asea, isildu zitezen. Jainkoak entzun zien, eta Moisesi agindu zion, zigorra artu, eta jende guzia bildu zejala: gero berak eta Aaronek, arriari, guziak zekustela, itzegiteko, eta ura agertuko zala. Moisesek, bada, ainbeste mirari egindako makilla Kutxa santaren ondotik arturik, aurrean zeukan arria, bi aldiz jo zuen, eta ur gozo ugariak eman zituen iturri bat sortu zan, eta asetzeraño edan zuten.

Onekin orduko oien erausiak isildu ziran; baña Moisesek Jainkoaren begietan egin zuen utsegite bat, bi anaiai txit garesti irten zitzaiena. Jainkoak, bakarrik esan zien, arriari itzegiteko, ez jotzekorik: baña bein, ez

ezik, birretan ere, beingoan urik eman etzuelako, jo zuten, eta Jainkoak etzien ondo artu, zeren adierazten zuten, itzegite utsarekin ura sortuko zanik etzutela uste. Gero Jainkoak esan zien, zergatik aren agindua, ark esan bezala, egin etzuten, lur gozo anziñatik eskeñian, etzirala sartuko. Berri mingarria! Israeltarren bi gidari aiek, Ejiptoko katibutasunetik ateratzeko lana beren kontura eman zitzaien ezkerro, izan zituzten neke eta eramankizun guziak arintzen ziezten, noizbait ere atsegiñetako lur gozo artan sartuko ziralako pozak: eta orain, ara gabe ilko zirala, Jaunaren beraren aotik entzuteak, bi anaia aien biotzak osotoro illundu zituen: ala ere Jaunaren esanari burua umilkiro makurturik, arterañoeko leialtasun berarekin beren lanbideari jarraitu zitzaiozkan.

## 6. Aaronen Eriotza

Moisesek eunda ogei urte zituen, eta Aaronek iru geiago, lur eskeñian sartuko etziran berria artu zutenean. Albista au Aaronen aldetik laster egiztatu zan. Israeltarrak Kadesen iru illabete luzeak egin zituzten; laugarrenean Moserara Hor-ko mendi-ondora aldatu ziran. Emen zeudela, Ejiptotik irten ziran berrogeigarren urteko bostgarren illaren lenengo egunean, Jainkoak Moisesi esan zion, Aaron eta onen seme Eleazarekin Hor-ko mendira igo zedilla, eta apaiz-soñekoak Aaronek kendurik, Eleazari jazteko, eta Aaron an il bear zala. Moisesentzat bere anaiaren iltzea naigabe andia zan: ala ere, Jainkoak agindu ziona egin zuen: eta Aaronek, ezbazuen ere, ez bere osasunean, ez bere indarretan, eriotza berealakoaren aztarnarik ezagutzen, Jaunaren esana gogoan artu, eta atzen-orduari pake onean itxedon zion. Moisesek soñekoak aitari eranzi, eta semeari janzi ziozkanean, bereala anaia eta semearen eskuetan Aaron il zan. Eunda ogeita iru urtekoa zan; oietatik larogeita iru Ejiptoko morrontza gogorrean, eta beste berrogeiak Aita-santu-lanetan, eta bere jende maitari on-egiten igaro zituen. Moises baño zarragoa bazan ere, anaia beti nagusizat begiratu izan zion. Anaia il zitzaionean, Eleazar Apaiz berriarekin Moises errira jatxi zan; eta Israeltarrak Aaronen il-berria artu zutenean, negar-malko miñak isuri zituzten, eta ogeita amar eguneko progua egin zioten. Mendi berean, zegokion onorearekin gorputz-illa lurpetua izan zan.



## 7. Aradko Erregea, eta bere ondamena

Israeltarrak Moseran bazeuden, bideari ekiteko odeiak noiz adieraziko zien begira, izu-ikara gogorra auzoetan zabaltzen zutela. Artu bear zuten lur edo bazter aietako Erregeai, alako jendetza eta ainbeste armadun ateetan idukitzeak, buruausterik asko ematen zien. Geiena bildurtzen zana, Aradko Erregea zan, zeren bere erreinua zan, Israeltarrak arkitzen ziran lekutik lenengo zegoana. Errege onek, bada, etsai portitz ura bere ataritik kendu naiez, alda-aurrea arturik, Israeltarrai eraso zien, alako gauzarik gogoan etzeukaten garaiean, eta lenengo sarreran goiartu zien edo benzutu zituen, eta zenbat banaka atzitu ere bai. Orduan Israelek Jaunari, Kananeoan erriak osotoro ondatzeko itza, eman zion, baldin aren eskuan ipintzen bazituen. Jainkoak eskeñtza au ondo artu zien: erabakita zeukan, alabañan, Kanaan biurriaren ondore guzia galtzea, Sem, Abraham, Isaak, Jakob, eta oien ondorengo Israeltarrai, Sem asabaren aldetik legez eta bidez zegokien lurraz jabetu, eta besterenean bizi ziralako.

Egiaz, Israeltarrak Jaunaren laguntza berekin zutelako uste osoarekin, Arad eta bere jendeari berriro eraso zieten; eta Errege bera il, eta bideko erri guziak erre zituzten.

Andik egun batzuetara, odeiak abian ipiñi zituen, eta Seir-ko mendiak-beera Itsaso gorriranz joan ziran, or-emen ibilli batzuek egiten zituztela; baña zeramazkiten bideak, opa zuten lekurako laburrenak ez bide ziralako, len-lengo erausi eta gaizki-esateak berriztu zituzten. Zertako Ejiptotik eremuan iltzera ekarri ginduzun? Moisesi zerasaten. Emen ez ogirik, ez urik dago, egunoroko mana aulak gogoan jo gaitu. Moisesek etzuen uste, ainbeste aldiz kastigatuta, gero erausi oiek berritzerik; baña Israeltarren griña zertara zan ikusia zegoan. Ala ere, aldi onetan artu zuten zigorradarekin, noski, zentzatu ziran, edo len-lengo murmuratzalle guziak il ziralako, edo berriak osotoro izutuak gelditu ziralako; etziran, beintzat, geiago erausietara.

## 8. Sugezko kastigua

Jainkoak, bada, mingañ gaizto aien kastigurako bialdu zituen, sua zerioten suge-taldeak, zeintzuen miztoak ukitzen zutena, kiskaldu eta illik geratzen zan. Ikusirik, epe laburrean guziak iltzera zijozela, Moisesi joan zitzaiozkan, esanaz; Jainkoaren eta zure kontra itzegiten, gaizki egin degu.

Moises Jaunari aurrean jarri zitzaion jende damutu onen alde barkazioeske, eta Jaunak bere eskaria entzun zion. Agindu zion, metalezko suge bat egin zezala; eta suge au ikusten zuten guziak, beste pozonizko aiek ukituta egon arren, sendatuko zirala. Moisesek ala egin, eta nondik-nai ikusten zan leku erpin batean ipiñi zuen: eta berari begiratu utsarekin, ozkatu eta zauritu guziak sendatzen ziran. Zer ordea? Metala urtu eta sugea egin bitartean, lur eskeñian sartuko etzirala, Jainkoak ogeita emezortzi urtez lenago esan zien guzi-guziak, il ziran, Jaunaren esana zearo betetzen zala, eta orduko gaiztakerian kutsutu gabeak, eta geroztik jaiোক bakarrik gelditzen zirala.

Zein egoki, leku erpin batean ipiñitako sugearekin, Jainkoak lenagotik adierazo zuen, noizbait gurutzean goratua izango zan munduaren Sendatzallea! Suge ura ikusiak, suge pozonizkoen ozkada guziak gorputzetan sendatzearekin, erakutsi zitzaizkigun, Jesus gurutzeakoak gure animaetan egingo zituen sendatze miragarriak. Israeltarrak etzioten, zer esan nai zuen, igerri: baña geroz ikusi zanarekin, garbiro ezagutu zan, zertako zan.





## AMAIKAGARREN IRAKURGAIA

### 1. Balaan Profeta

Bete bide zan, Israeltarrak beren lur eskeñira joateko, Jainkoak erabakita zeukan ordua: irten ziran, beintzat, odeiak ala erakutsirik, ainbeste lagun illak uzten zituzten leku gogoangarri onetatik. Laster arkitu ziran, Hesebongo Errege Sehoni eta Basango Ogi arpegi eman bearrean, zeintzuek beren jende guziarekin batallan il, eta bi erreinuen jabe Israeltarrak geratu ziran. Balak Moabko Erregeak ikusirik, bi aurrekoai Israeltarrakin zein gaizki joan zitzairen, bildurto zan, eta etsi zuen, arentzat ere patu bera zegoala, Madiantarrakin elkar-artzen ezbazuen. Esturasun onetan, bada, Madiantarrak bere asmoa agertu zien. Madiantarrak zeukaten azti ots andiko bat, *Balaan* zeritzana, zeñak Madiantarren usteetan, naiz bedein-katzeko, naiz madarikatzeko eskua bazuen. Balak eta Madiantarrak, bada, baturik, Balaan aztiaria gaztigatu zioten, baldin Ejiptotik irtendako jendedi bildurgarri hura madarikatzen bazuen, eskuerakutsi andiak emango ziozkatela. Balaan diruzalegia zan, ain era ona nola-nai galtzeko; baña ikaritzen zan, Jainkoagandik ainbeste laguntza artutako jendea madarikatzen, eta mandatariak esan zien, gau bat itxedon zezatela, Jainkoak zer nai zuen jakin artean. Biamonean esan zien, Jainkoak hura aiekin joaterik etzuela nai. Bi Erregeak ezezko au artu zutenean, eskaera berarekin mandatari andizkiagoak berriro bialdu ziozkaten: baña Balaanek bigarrengotan erantzun zien, urrezko eta zillarrezko etxe bat ematen bazioten ere, Jaunaren itzik ezin autsi zezakeala: ala ere, gau artan egon zitezela, eta zer egin, Jainkoari galdetuko ziola. Balaanek baziakien, Jainkoak zer nai zuen; baña galdez jarri zitzaion, menturaz bere gogora erantzuten ote zion. Jainkoak utzi zion, bada, nai zuena egin zezan, eta diruak biotza beretu zion.

### 2. Balaanen astoa

Biamonean-goiz mandatariak esan zien, bazijoala, eta gaztigu onekin Erregeagana aurreratu zitezela. Balaan bere asto-gañean donario

andiarekin bazijoan, eta bidera irten zitzaion aingeru bat, Balaanek ikusien etzuen, astoak bai ordea; eta ezpatarekin aurrean jarrita, bidea isten ziolako, astoa bidetik zearkatu zan, eta korrikari eman zion. Balaanek joka zuzendu nai izan zuen, baña alperrik; eta paret-arte bat igarotzean, aingerua berriz ere aurkez-aurke jarri zitzaion, eta ezin bestean, astoa etzan zan, eta Balaanek are geiago jotzen zuen. Orduan Jainkoak, oi-ez bezalako, eta menturaz bestetan aditu ez dan miraria egin zuen. Astoari itza eman zion, eta astoa nagusiari itzegiten jarri zitzaion, ziotsala; zer egin dizut? zertako jotzen nazu? Balaanek, gizonarekin itzketan bazegoan bezala, erantzun zion: zergatik merezi dekan. Orduan Balaanen begiak zabaldu ziran, eta ikusi zuen bidea isten zuen aingerua. Balaan auzpez jarri zan, eta bere gaizki-egiña ezagutu zuen, eta aingeruari esan zion, Jainkoak nai etzuen ezker, etzala aurreranz joango. Zoaz oriekin, aingeruak erantzun zion: begira, ordea, esan, nik erakusten dizudana baizik. Balaan aztia Balak Errege eta bere lagunak txit ondo artu zuten; eta lenbaitlen Israeltarrak madarikatuak ikusteagatik, eraman zuten mendi-gañ batera, emendik bere madarikazioa ezarri zizaien; baña Balaan, aingeruak erakutsi ziozkan esanetatik, etzan irten: madarikatu ordean, bedeinkatu zituen. Gero etorkizun asko, bere begiak ikusiak bezala asmatu zituen. Balak Erregea Balaanen kontra txit aserretu zan, eta agindutako eskuerakutsi eta sari andiak ere etzizozkan eman nai izan, eta Balaan batere gabe utsik gel-ditu zan.

Balaan diruzalea aberasteagatik edozein gauza egingo zuena zan: ala ere, Jainkoak eskua nola lotua ez daukan, etorkizunak asmatzeko doai, onai baizik ez emateko; oi ezbadu ere, doai au oni eman zion, eta doai onen bitartez, geroko urte eta denboratan gertatuko ziran gauzak asmatu zituen. Au Jainko egiazkoaren izenean eta eskubidearekin egin zuen; baña deabrua lo etzegoan, eta madarikatzeko eskurik izan etzuen ezker, eragin zion beste gauza bat, Israeltarrak ondamen andia eman ziena.

### 3. Balaanen erakutsi gaiztoa

Balaanek, bada, Balak Erregeari esan zion, Israeltarrak arrotzak in artu-eman guzia, batezere erlejioko gauzaetan, eta emakume atzeakin adiskide izatea, debekatua zeukatela; eta auzo bildurgarri argandik lasatu nai bazuen, Moab eta Madianen arkitu al-zitezkean emakumerik ederrenak, ondo apainduta, aiek zebiltzan, edo ikusi zitzaizketen lekura bialdu



zitzala. Au egin ezkeru, laster kutsutuko zirala, eta Jainkoak eskutik utzi-ko ziela, eta Jainkoaren laguntza gabe arkitzen ziranean, aisa ondatuko zituela. Moabko Erregeak erakutsi biurri au egin zuen; eta Israeltarrak sarean laster erori ziran. Emakume eder aiek, zerbait saltzeko aitzakiarekin, Israelerantz joan ziran; Israeltarrai beren jolas eta dantzaetara deitu zieten; Israeltarrak emakume aien edertasuna ikusirik, adiskidetasunak egin zituzten; itsutu eta lilluraturik, lasaikerian nastu ziran; eta atzanean Moabko jainko gezurrezko Beelfegori, egiazkoari bakarrik zor zaion adorazioa, eman zioten. Moab eta Madiangoak Israelko bizilekuetan sartu ziran, eta naste galgarri au Tabernakuloaren ondoraño zabaldu zan.

#### 4. Gaiztakeria onen kastigua

Orduan Jainko guziz aserretuak Moisesi esan zion, Israelko lenen edo Prinzipe guziak eguzkitan zinzilika ipiñi zitzala. Jaunak agindu au, noski, eman zuen, edo berak kutsutu ziralako, edo besteak kutsutzea, bear bezala eragotzi etzutelako. Onezaz gañera agindu zion, Israelko Juezai esateko, nork bere lagun urko, gaiztakeria artan kutsutua, il zezala. Moises eta beste Israeltar onak negarrez zeuden, ilkintza gogor oni begira. Bitartean, Zabri zeritzan Israeltar bat, guziak zekustela, borda-urde batean sartuta, Madiango Andizki edo Prinzipe baten alaba Kozbirekin bekatu egiten jarri zitzaizen; eta Apaiz-nagusi Eleazaren seme Fineesek, lotsagabekeria ez-aditu au ikusirik, ganibita artu, eta biak lurrari, zetzaten leku berean, josi ziozkan. Fineesek emandako kastigu onekin Jaunaren aserrea itzali zan, eta iltzeari utzi zitzaion; baña ordurako ganibitaetan zinzilika ogeita lau milla il ziran.

Onekin Israeltarrak, beren gaiztakeriari zegokion kastigua, artu zuten; ez ordea, oiei bekatu eragin zieten Moab eta Madiantarrak. Jainkoak, bada, Moisesi agindu zion, Madiantarrai beren zigorrada eman zizaie-la, egin eta eragin zituzten bekatuakgatik. Eskritura Santak ez dio Moabkoai, Madiantarrai bezala, ezer egiteko Moisesi agindu zionik; lan au, non-bait, geroko utzi zuen. Baña Jainkoaren aginduz, Moisesek lenago jakin nai izan zuen, Kanaango lurra irabaztera joateko, Israellek zenbat armadun zeuzkan, eta ikusi zuen, seicunda bat milla, zazpireun eta ogeita amar zeudela, guziak gizon indartsuak, eta sasoirik obeneoak. Lan au eginda, gero Jainkoak Moisesi esan zion, Abaringo mendi-gañera igo zedilla; eta ara zanean, erakutsi zion, Israeltarrai eman bear zien atseginetako lur

gozo ura; baña esan zion, Singo eremuan arriari itzegiteko baizik esan ez, eta jotzearekin egin zuen utsegiteagatik, an sartu gabe, il, eta bere anaia Aaronen ondora joango zala. Berri onek Moisesi min andia eman zion: baña bere gaizki-egña ezagutu zuen, eta gogo guziarekin Jaunari jarri zitzaion, artzaz egin nai zuena artzera. Geroz illabeteko bizia zeukan, eta bitarte au Israel bere lekura joateko zuzemenak egiten igaro zuen.

#### 5. Josueren aukera. Madiantarren zigorrada

Zuzemen oietatik bat bere ordeko bat uztea zan, artzai gabeko ardiak bezala, geratu etzitezen. Jaunari, bada, eskatu zion, arren, eginkizun au ondo beteko zuen bat, autu zezala. Jainkoak Josue esleitu zuen. Au Moisesen adiskiderik zarrena, lagunik maiteena, serbitzarik leialena, eta agintaririk adituena zan: eta onelako doaiez janzitako ordekoa uzten zuela, jakiteak, biotza zabaldu zion, zeren bere jende maitea ondo nai zuen ikusi, eta onen ondo-izatea, baziendien, buru eta nagusiagan zegoala. Josuek orduan larogeita amairu urte zituen: bizi guzia Moisesen ondoan egin zuen; beragatik Israeltarrak eta oien griñak ezagutzen zituen. Moisesek bada, esan zion, pozik iltzen zala, alako oñordekoa utzita. Erakutsi zion, gero bere jendearekin nola eta zer egin bear zuen. Itzaldi luze bat gauza oietan eginda, Moises Tabernakuloan sartu zan, Jaunari bere bizia eskeñtzera; baña Jainkoak agindu zion, il baño lenago, Madiantarrak kastigatu zitzala. Au egiteko, amabi milla gizon armadunekin Finees bialdu zuten: Fineesek Madiango Erregeai eraso zien, jende txit askoz geiagorekin agertu bazitzaiozkan ere, eta guziak osotoro ondatu zituen. Bost Erregeak il ziran; oien artean, Israeltararekin bekatuan zegoala, Fineesek il zuen neskatz lotsa galduko aren aita: baita Balaan azti biurri Madiango alabak bialerazotzearekin, ainbeste kalte negargarri Israelen eragin zuena ere. Errietan arkitutako abere, bizitza-gauza, eta gañerako guziak artu zituzten. Ganibita epallea emakumeetaraño ere iritsi zan; bada, gizonik ezagutu gabeko neskatz garbi eta aurrak baizik, etzan bizirik iñor gelditu. Lanbide au gogorra bide zan; baña ondo irabazia, zeren berak izan ziran, Israeltarrai ainbeste gaiztakeria eragin ziezteenak. Egun gitxiren epean bukatutako gerra baterako Israeltarrak ondasun andien jabe egin ziran; bada, berekin eraman zituzten seicunda irurogeita amabost milla ardi; irurogeita amabi milla idi; irurogeita bat milla asto, zeintzuetatik erdiak Moisesek eman ziezten Madienen izan ziran gerrari; eta beste erdiak beren



lekuetan geratu ziran gañerakoai, Tabernakulorako eta Eliz-gizonentzat zati txiki bat gordeta. Urre, zillar, janzi, eta onelako beste gauza guziaz gerrarientzat gelditu ziran. Gizonakin ibilli gabeko emakume, eta neskatx gaztetxoetatik ere ogeita amabi milla katibu eraman zituzten. Gauza arri-garria! Ainbeste gizon il, ainbeste emakume katibu artu, ainbeste diru, urre eta zillarrezko gauza, eta abere beretu, eta berak gizon bat bakarrik ere etzuten galdu, zeñaren berria Finees eta bere lagunak poz andiarekin Moisesi eman zioten, denbora berean belarrietakoetan, erraztunetan, eta beste edergarrietan artutako urrea Jaunaren etxerako eskeñiaz. Moisesek eskeñtza oiek gogotik artu zituen, eta Eleazar Apaiz-nagusiarri eman ziozkan; eta milloi bat, irureun eta berrogei milla erreal balio zuten. Eskeñtza maitagarria, eta Jaunaren txit gogokoa, gerrariak beren odolarekin irabazita, berentzat gorde zitzaizketen gauzaetatik egiña zalako!

## 6. Moisesek irabazitako lurren erdiratzea; onen atzeneko ondo-esanak

Madiantarrak beren kastigua eman zitzaizenean, Moisesek, arteraño irabazitako lurra, bidezkoena zeritzanai eman ziezten, Josueri erakutsiaz, geroz irabazten zituztenak, nola erdiratu bear zituen. Bere il-bearra bazetorkion, eta Israeltar guziaz bere ondora bildurik, begiratu zien, eta Jainkoak Sinako mendian bere lege santa agertu zienean, ogei urtez gora zue-nik, etzuen Josue eta Kaleb baizik inor bizirik arkitu; gañerakoak illak ziran: eta oraingoak orduan gazteak ziralako, Jaunaren esan guziaz berriztu nai izan ziezten, jakiñean egon zitezten. Esan ziezten, Ejiptotik irten ziranetik arteraño mirari andiak, Jainkoaren eskuetatik artutako mese-deak, izan ziozkaten eskergabekeriak; Jaunak ipiñi ziezten aginteak, zeñak gordetzen bazituzten, zer bedeinkazioak beretuko zituzten; bestela mada-rikazio gogorrek azpian artuko zituela. Erakutsi zien zearo, gero egin bear zuten guzia, zorionekoak izateko; eta oien artean bat zan kanaantarrakin ez errukirik izatea, zeña bete etzutelako, ezin esan-al kalte ondoreak izan zuen.

Lenago amargarren orrian esanda, Noeren seme Kamek bere aita-rekin zer egin zuen; nola onen seme Kanaan Jainkoak mada-rikatu zuen. Kanaan au, eta onen ondorengoak beti gaizto-biurri Jainko egiazkoaren lege gabeak izan ziran, eta oiek zeukaten Adan eta beste Patriarkak landu izan zuten munduko lurrik gozoena eta obena, eta Israeltarrak Jainkoaren

aginduz orain artu bear zutena. Moises, Israeltarren griña eta oitura ziezki-kiena bezala, bildur zan, etzutela oiekin gauza onik egingo; kastigua bearrean, bat-egin, eta Jainko onari utzirik, aien gezurrezkoetara jarriko ziralako. Argatik etzan aspertzen, esatez, arren, etzetzelata jende onekin kupidarik izan: bestela, galduak ziralako. Oiek eta onelako beste erakutsi eta ondo-esan asko egiten egun batzuek igarotakoan, guziaz berriztuera-zien, Jaunari leialak izateko len-lenago emandako itza: bedeinkatu zituen: Tribu bakoitzari nori bere ondorengo patua adierazo zion. Egin zuen *Deuteronomioa* deritzan liburua, zeñetan Jaunaren lege santa berriro ezarri zuen, eta Apaizai agindu zien, elkartasuneko kuxaren ondoan ipiñi zezatela, eta zazpi urtetik zazpi urtera jende guziaz irakurri zizaitela; eta onekin bere lanbide andiari buru-eman zion.

## 7. Moisesen eriotza

Onetan zegoala, Jainkoak agindu zion, Neboko mendira igo zedilla, Israelko semeai emango zien Kanaango lurra ikustera, eta emen ilko zala. Jaunaren agindu au artu zuenean, bereala prestatu zan iltzeko. Jende guzia berriro bere ingurura bilduerazo zuen, eta illoba Eleazar Apaiz-nagusia, eta bere ikasle eta oñordeko Josue alboetan zituela, Israelko bere seme maiteai agur betikoa egin zien. Gero Eleazar eta Josuerekin mendira joan zan. Jainkoak Kanaango lurra erakutsi zion, esanaz: orra Abraham, Isaak eta Jakobi promestu edo eskeñi nien lurra: zure begiak dakusu, baña etzera sartuko. Jainkoak itz oiek esandakoan, Moises eunda ogei urteko adiñean, ez bere indarretan aultasunik, ez begietan illuntasunik, ez ortzetan utsunerik, ezagutu gabe, Eleazar eta Josueren eskuetan il zan.

Bereala, gorputza lurpetzeko bear ziran prestamenak egin zituzten: baña Jainkoak lan au mundukoai kendu zien, zerutarrak emateko. Aingeru San Migelek Moabko muga-pean lurra eman zion; ordea zein tokitan, egundaño ez da jakin: Jainkoak, nonbait, isillik gorde nai izan zuen ainbeste mirari egin izan zituen gorputza ikusita, Jainko egiazkoari bakarrik zor zaion agur-ona Israeltarrak eman etzizaitoten.

Moisesen doai andiak bat-banaka esateko, denbora luzea bearko litzake: asko da, bada, esatea, bere jaiotzatik il arteraño guziaz besterik ez bezalakoa izan zala: Jainkoak Moisesi eta Moisesek Jainkoari, bi adiskidek elkari bezala, arpegiz-arpegi itzegiten ziotela. Israeltarrak negar andiak egin ziozkaten, eta ogeita amar egunean proguan ibilli ziran. Egun



oiek bukatu ziranean, Josue aren oñordekoak asi zuen, Jainkoak Abrahami bosteunda berrogeita sei urtez lenago agindutako Kanaango lurra beretzeko lana, laster ikusiko degun bezala.

## AMABIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Josuek zelatariak Jerikora bialtzen ditu

Moises il zanean, bere ordeko Josueri Jainkoak esan zion: Nere serbitzari Moises il da; zu prestatu zaite, Jordango ibaia igaro, eta zu eta zure jendea lur promestura joateko: nik neronek zuzaz kontu izango det: bizkortu zaite: nere serbitzari Moisesek utzi dizun legea, autsi gabe gorde ezazu, eta guzia ondo irtengo zatzu; ez bildurrik izan: nora-nai zoazela, Jainko zure Jauna zerekin izango dezu. Josuek, Jaunaren agindu au artuta, bereala Israeltarrai adierazo zien, Jordango ibaia iru egunen barruan igaro bear zutela, lur promestuan sartzeko, eta egun batzuetako janarekin prestatu zitezela. Gero zelatariak bialdu zituen, ibaiaz beste aldetik zegoan Jerikoko uria, zer eratan itsia zegoan, an bizi ziranak zer asmotan zeuden, eta zegokien beste guzia jakitera. Zelatari oiek al-zan isillena joan, eta Rahaben etxean sartu ziran: baña ango Erregeak bi oien berri bereala izan zuen, eta eske gizonak bialdu zituen; alperrik ordea. Rahab emakume galduaren izenekoan zan: ala ere, edo bere bizitza gaiztoa utzita zeukalako, edo Jainkoak ordu artan biotzean ukitu ziolako, Israeltarrai, beintzat, txit arrera ona egin zien. Ganbaran liño-pe batean ezkutatu zituen: eta oien billan zijozzen Erregearen mandatariak etxe guzian begiratuta, ezer topatu gabe itzuli ziranean, bi Israeltarrai leiotik soka batekin jatsierazo zien, zeren bere etxea uriaren ertzean zegoan, beragatik artarako txit era onean; eta beren tokira bialdu zituen, nai zituzten berri guziak emanda. Mesede bat bakarra eskatu zien: urian sartzen ziranean, artzaz, eta aren etxeakoaz oroitu zitezela.

### 2. Jordango ibaiaren igarotzea

Zelatari oiek Josuegana bigarren gauean itzuli ziran: zearo esan zioten, zer gertatu zitzairen, nola iges-egin zuten; nork lagundu zien; ongille oni zer itz eman zioten, gañerako beste berri guziakin. Atzenean esan zioten, jende guzia bildurrez arri-egitnik zegoala, eta aisa sartu eta jabetuko zirala. Josueek bereala, Israeltarrek bildu, eta esan zien, zelatariak zer



albastakin etorri zitzaiozkan, eta guziak pozak artuta, biarmonean-goiz Jordango ibaiera-bidean jarri ziran. Arratsalde berean ibai-ondora eldu, eta emen irugarren eguneraño egon ziran. Orduan ibaia igarotzeari eman zioten, Jainkoak Josueri erakutsi zion eran. Ara nola. Apaizak Kutxa santa sorbaldaetan zeramaten. Urrena Tabernakuloaren zati edo puskakin Lebita edo Eliz-gizon beeragokoak zerraizkien. Gero legua laurden batez atzerago seieunda geiago milla gerra-gizon noiz-nai etsaiari erasotzeko prest zijoazen, eta oien artean lenengo edo buruan, Moisesek irabazitako lurra eman zien aietatik berrogei milla. Gerrarien ondoren elbarri, emakume, eta aurrak beren bizitza-gauza eta abereakin zijoazen. Jordango ibaia txit bizia, eta neurrietatik irtena zetorren, marsoko illa izanik, mendietako elurrak urtu ziralako. Apaizak ibaiean sartu, eta oñak busti zituzten bezain laster, garaiko urak aitz bat egiñik geratu, eta beekoak itsasoronz joan ziran, ibaiean bide zabal ederra uzten zutela. Apaizak Kutxa santarekin, eta Lebitak Tabernakuloarekin ibai-erdira ziranean, emen gelditu, eta egon ziran, alik eta soldadu-taldea eta beste jende guziak beren bizitza eta abereakin ibai guzia igaro arteraño. Guzitara iru milloi lagun baziran. Ibaia igaro zutenean Josuek agindu zuen, amabi Tribuetako gizon banak Apaizen oñetatik arri gogor bana artu, eta jendea zegoan aldera eraman zitzatela, eta Israeltar guziaz esan zien, beren humeak edo ondorengoak galdetzen zutenean, arri aiek zertako ziran? erantzun zezatela, Jainkoak ibaiaren erdian bidea nola idiki zien adierazteko, ibaiaren erditik atera, eta an ipiñiak zirala. Berebat agindu zuen, beste amabi arri andi kanpotik eraman, eta Apaizen atsedeen-leku berean ipintzeko, leorteak urak txikituta, arri aiek ondorengoak zekuskitenean, gogoratu zitezen, ibaiaren erdian Jainkoak bidea Israeltarri idikitzearekin egin izan zien mesede andia. Lan oiek eginda, Apaizak Kutxa santarekin jende guziaren aurrean jarri ziran, Tabernakulo-dunak eta amabi arriak zeramazkitenak ondoren zituztela: eta oiek leorrera orduko, geldi zeuden urak amildu, eta ibai guzia len-lenago bezala estali zuten. Joan ziran, Jerikora legua bat bide zegoan tokiraño, non gelditu eta estalpeak ipiñi zituzten, geroko egunetan an egoteko. Ibaitek ateratako amabi arriak Josuek emen ipiñierazo zituen, eta berriz ere esan zien, beren humeak zer erantzun bear zieten, zertako ziran galdetzen zutenean. Josuek nai zuen, Jainkoaren eskuetatik artutako mesede miraritsuak, beti gogoan iduki zitzaten.

### 3. Zirkunzisia, eta Pazkoaren berritzea

Israeltarrak beretzera zijoazen bazter aietako Erregeak, zer izu-ikarak artu zituen esatea, erraz ez da. Indar andiak zeuzkaten: baña zertako ziran Jainkoak alako mirariak egiñaz, aurrean jarri zitzaizen auzo bildurgarri batentzat? Errege aien bildur au Josuek gogoan zeukala, bete nai izan zituen bi agindu edo eginkizun, aspaldian utzita zeudenak, Zirkunzisia eta Pazkoa. Jainkoak Abrahami esan zionez, jaiota zortzigarren egunean, zirkunzisia egin bear zan: baña dala sendatu artean geldi egon bear zalako, eta eremuan bizi izan ziran denboran, ordu jakiñik edo berenik etzutelako, dala beste bideren batez, etzan, beintzat, Ejiptotik irten ezker, agindu au egin. Beragatik Josue eta Kaleb ez, beste guziak zirkunzidatu gabe zeuden; eta egon aldi onetan egin ziran; zeñaren bidez leku oni deitu zioten *Galgala*.

Beste eginkizuna Pazkoa zan. Israeltarrak Ejiptoko katibutasunetik irten ziranean, lenengoa egin zan: geroztik etzan egin, Sinako mendiondoan zeudela, bein baizik. Oraingo gizonik geienak zer zan ere etziki-ten. Pazkoa lenengo illaren amalagarren egunean asten zan: eta nola Israeltarrak egun onek Jerikoko ondoan artu zituen, Josuek egin nai izan zuen, Jainkoak aginduta zeukan bezala. Jaunari arkumeak eskeñi zitzaiozkan, eta orranz gabeko ogiarekin jan zituzten. Galburu-metatxoa ere, legeak zion eran, eskeñi bazitzaion, eta zegozkion beste gauzak egin ziran; eta Pazko onek zazpi egunean iraun zuen.

### 4. Manaren aitzea

Gauza arrigarri bat egun oietan gertatu zan. Israeltarrak galburuak Jaunari eskeñi, eta lur artako gariarekin egindako ogia, jaten asi ziran ezker, etzetorkien, eremuan igaro zituzten berrogei urtetan, egunoro jatsi zitzaizen mana janari gozo hura. Jainkoak onekin Israeltarri adierazo bide zien, promestutako lurtean bein sartu ziran ezker, etzutela zer uste izan, arteraño bezala zer jana zerutik bialduko zienik; ezpada berak lur artan billatu bearko zutela. Josue ere iritzi onetakoa izan zan, eta bere lanbideari ekiten, bereala asi zan.



## 5. Jerikoren ondarena

Eraso bear zioten lenbiziko erria zan, andik ordu beteko bidera zegoan Jeriko, Kanaan guzian erri-itsirik sendoena, murru lodiz ingurutua, eta soldadu-talde andiak gordetzen zutena. Emen bizi ziranak kontuan zeuden, Israelarrak lenbizian berai erasoko zizaietela etsirik. Josuek ere langai andi onetan ondo irteteko prestamenak artu zituen: baña ezertan ibilli baño lenago, nola zegoan, bere begiak ikusi naiean, inor-gabe bakar-bakarrik Jerikoko ondora joan zan, begiratzera, eta onetan zebillela, aurkez-aurke jarri zitzaion, gizona zalako bat, eskuan ezpata zuela. Josue batere bildurdu gabe ondoratu zitzaion, eta galdetu zion ea etsaia edo bereetakoa zan? eta erantzun zion, ez batzuen eta ez besteena zala, ezpada Jaunaren soldadi edo ejerzituko Lenena edo Prinzipa. Josuek au aditu zuenean, auzpeztu, eta Jainkoari agur andia egin zion. Aingeru Prinzipa onek agindu zion, oñustu zedilla, leku santuan arkitzen zalako. Erri hura bere gauza guziakin artzeko ustea eman zion: onetarako zer egin erakutsi, eta Aingeruak aldegin zuen. Josuek, bada, jende guziari aditzera eman zion, zer gertatu zitzaion, eta nola Aingeruak erakutsi zion, Jeriko beretzeko zer egin bear zuten. Biaramonean-goiz prestatu, eta egiteko onetan asi ziran. Ara nola. Armadun guziak aurretik jarri ziran: aien ondoren zazpi Apaiz tronpeta-soñua joaz: gero lau Apaizek Kutxa santa sorbaldan zeramatzen: eta atzenean gañerako jende guzia zerraikien. Gisa onetan jarrita, lenengo egunean jira bat Jerikoko uri guziari eman zioten, tronpeta-soñua beste otsik egin gabe, guziak isillik, eta uria ingurututakotan, beren estalpeetan gelditu ziran. Sei egunean au bera egin zuten, egunoro jira bat bakarra emanaz; baña zazpigarrenean zazpi inguru eman zioten, aldian-aldian urreragotuaz, eta tronpeta-otsa ere goratuaz. Zazpigarrenean uria jotzerañ alderratu ziran; eta tronpeta-otsarekin batean, jende guziak deadar eta argamaza izugarriari emanik, uria isten zuten orma eta murru guziak asi ziran erortzen, eta bereala ondatu ziran. Orduan Israelarrak ezpata eta ganibitakin sartu, eta Errege eta mendeakoak, ganadu eta abere guziak il zituzten, ezer ere bizidunik utzi gabe. Baña uri artako gauzarik artzea Josuek zorrotzkiro debekatu zien, eta zegoan guzia, uriarekin batean, bertan erre eta kiskaldu zan. Bakarrik urrea, zillarra, kobrea eta burnia gorde ziran Jaunaren ondasuntgirako. Uria ikustera joandako mandatariak gorde zituen emakume Rahabi eman zitzaion itza, Josuek gogoan zeukan, eta bi mandatari aiek bialdu ziozkan etxera, eta ongille au bere guraso, senide, aide eta ondasun guziakin atera,

eta beste guziak bezala ondartzetik, gorde zuten. Gero Josuek uri doakabe au madarikatu zuen, esanaz; inor berritzen asten bazan, seme zarrena il zekiola. Madarikazio eta birau au txit indar andikoa izan zan: bada, denbora gitxiren epean, onen aldamenean beste uri bat izen berekoa egin bazan ere, beraren oruan bosteunda geiago urtean etzan astera inor benturatu: eta gero ere Hiel zeritzanak egin nai izan zuelako, il zitzaion bere seme zarrena lenengo, eta gero gañerakoak, alik eta guziak il zitzaiozkan arteraño, bere setarekin irten nai izan zalako.

## 6. Akanen zigorrada

Josue Jerikoz jabetu zanean, gizonak bialdu zituen, Hai zeritzan urreneko erria ezagutzera. Berria ekarri zioten, erri hura artzen gaitz etzala, eta jende armadun guzia gabe ere, menderatuko zala. Uste oso onetan iru milla gizon bakarrak bialdu zituen; baña bere gogoaren kontra guzia irten zitzaion. Haitarrak indar egiñik, Israelarri eraso, abarrakitu, eta Sabaringo ibarreraño atzera erazo zituzten, zenbat Israelar bidean illik utzita. Uste gabeko gertaera onek Josuei biotza illundu zion. Kutxa santaren aurrean Israelko gizon andi eta zarrakin auzpez jarri zan, eta arratsalderaño onela egon ziran. Zer? Josuek Jainkoari esan zion: zer esango det, ene Jauna, Israel etsaiak igesi bialdu duela ikusita? kanaantar eta beste guziak jakingo dute; gure kontra batuko dira; ingurutuko gaituzte, eta gure izena betiko galduko digute. Eta zure yzen andiaz zer izango da? Itz oietan zegoala, Jainkoak erantzun zion, Israelek gaizki bat egin zuela; aien artean bezala norbait, Jaunaren esana autsi eta Jerikoko urian zerbait artuta, gorde zuena; eta gaizkille oni zegokion kastigua eman artean, etzala Israelek izango.

Biaramonean-goiz Josuek jende guzia bilduerazo zuen: Jainkoak ala erakusita, zotz egin zuten, nor zan jakiteko: Judako Tribuari erri zitzaion: gero Tribu onetako etxe bati: eta atzenean Akan zeritzanari. Josuek gizon au bereala artu zuen, eta esan zion; ene seme, ez niri ezer ukatu; esan zadazu, zer egin dezun. Orduan Akanek erantzun zion: Jaunaren kontra gaizki egin det: kapa gorri ederra, zenbat zillar diru, eta urre-zati bat ikusita, oien eresia etorri zitzaion; artu eta nere etzautzan gordeta daukat. Akanen txalora joan ziran, eta Akanek esandako gauza guziak an arkitu zituzten. Josuek ikusi zituenean, bereala Akan bera, bere hume, abere, ondasun, eta txalora bera, zeuzkan gauza guziakin arerazo zituen; Akoren



larrañera eraman, eta Akan arrikatu zuten, eta atzenean bera eta bere gauza guziak erre eta kiskaldu zituzten.

## 7. Hairen ondamena

Kastigu onekin Jainkoaren aserrea itzali zan, eta Josueri esan zion, etzedilla ikaratu; Haiko erria artuko zuela; eta ango Errege eta besteak eskura emango ziozkala, Jerikoko Errege eta urikoakin egiña, aiekin ere egin zezan. Josuek, bada, ogeita amar milla gizon bikañ erriaren alde batera gauaz bialdu zituen, agindurik, gordeta egon zitezela, ark sinalea eman arteraño, eta orduan errian sartu, eta guzia erre zezatela. Biaramonean gañerako armadun guziakin bera joan zan, beste aldetik erriari erasotzera. Haiko Erregeak ikusi zuenean, etsaia alderatzen, bere jendearekin bidera irten zitzaion, gogor egiteko asmoan. Josue orduan eremuronz itzuli zan, igesi zijoalako antzean, eta berak eta etsaiak erritik zerbait aldegin zutenean, jaso zuen eskuko brokela, zeña aurreko gauean gordeta zeuden ogeita amar milla gizon aiek ikusi zutenean, errian sartu ziran, eta su eman zioten. Josueren ondoren joandako Errege eta bere soldaduak erria sutan eta kea zeriola ikusi zutenean, itzuli nai izan ziran, sua itzali, eta erriko jendeari laguntzera: baña su-emalleak bidera irten zitzaiezten, eta oiek aurretik, eta Josuek bere jendearekin atzetik eraso zieten ain gogorkiro, non, guziak il ziran, bat bakarra ere bizirik gelditu gabe. Bereala Israeltarrak errian sartu, eta erriko guziak ere il zituzten. Gero ango gauzak beren artean, Jainkoak Josueri esan bezala, erdiratzeko arturik, erriari alde guzietatik su eman, eta osotoro auts egin zan. Modu onetan Israeltarrak beren izen on, eta onorearekin gelditu ziran, eta Akanek lotsa gorrian bizia galdu zuen, bere lapurretarekin Israeltarrai ainbeste kalte ekarri zieztelako.

## 8. Gabaontarren gezurra

Kanaango Erregeak, beren auzo Jeriko eta Haiko Erregeen patu gaiztoa, eta Josueren egunoroko aurrerapen miragarriak ikusi zituztenean, elkarganatu ziran, eta beren indar guziak bildu zituzten, Israeltarrai arpegi emateko. Baña besteak onetan zebiltzala, Gabaontarrak etzuten aiekin bat-egin nai izan; ezagutzen zuten, alabañan, Israeltarren kontra gogor

egiterik etzegoala; eta besteen kontu gabe, zetorkien zigorrada gogorri aldegiñik, beren buruak bizirik gordetzeko modua egin zuten. Ara nola. Gabaongo uria txit sendoa, eta Haikoa baño ere indartsuagoa zan: beste iru erri andi ere mendean zeuzkan. Haitik Gabaonera bost legua bide bai-zik etzegoan, eta Israeltarrak lenbizi erasoko ziotena. Lau errietako biztanleak, bada, bildu ziran, eta Josueri mandatariak bialdu ziozkaten, pakean eta adiskide izan nai zirala, adieraztera: baña mandatari oiek kontu andia izan bear zuten, Josueri esateko, bazter urrutietakoak zirala, eta ez Kanaangoak, zeren baziakiten Josuek arteraño etzuela Kanaango lurreen iñor ere bizirik utzi, Rahab Jerikoko emakume hura bere etxeoakin bai-zik. Gezur au Josueri sinisterazotzeko, ogi erre-zar kaskartuak, ardo-zagi zulatu eta arabatuak, soñeko eta oñetako urratuak eraman zituzten. Gisa onetan Josueri aurkeztu zitzaiozkan, esanaz, Israeltarrakin pakean bizi nai zirala: aien mirari andiak entzunda, bazter urrutietatik zetozela. Josue lenengoan uzkur zegoan, aien esanera jartzeko: baña leiatu zitzaiozkan berriz eta berriz ere, eta esan zioten: etxetik irten giñanean ogi erre-berri bero-beroak artu giñituen, eta begira orain, zein gogorrek dauden; zagiak ere akatsik etzuten, eta arabatu bear izan ditugu: soñeko eta oñetakoak eginda berealakoak ziran, eta orain ara nola urratuak dauden. Josuek eta, onek bezala, beste agintariak ere, uzkurtasun geiagori gaizki iritzirik, Gabaontarren esan gezurrezkoak sinistu zituzten, eta Kanaanez kanpo-koak ziralakoan, Josuek adiskide izateko itz ziñeztua edo juramentuaren azpikoa eman zien, eta Gabaontarrak etxera itzuli ziran.

Iru egunen barruan Gabaontarren gezurra eta saldukeria ezagutu zuten. Lanbide onek Josue eta gañerakoai naigabe andia eman zien, zeren bildur ziran, etorkizun gaiztoak ekarri zitzaion. Israeltarrak beren gogoz Gabaongo, eta beste iru errietako jende guzia ilko zuten; baña Josuek eragotzi zien, esanaz, bein emandako itza gorde bear zala. Josue bera Gabaontarrai joan zitzaion, eta txit arrera ona egin zioten. Gezur ura arpegira eman zien; baña erantzun zioten, bildurrak eaulkierazo ziela: baziakitela, alabañan, bazter aien jabe egin, eta osotoro ondatuko zituztela, eta beren buruak gorde naiez, gezurra asmatu zutela: ala ere, bere eskuan jartzen zirala. Josuek bere itza gogoan zeukala, esan zien, etzituela ilko: ordea Israelko jendearen eta Jaunaren aldarearen serbitzoan bizi izan bearko zirala, bear zan egurra egiñaz, eta ura ekarriaz. Onekin Josuek Israeltarren erausiak, eta Gabaontarrak il-naiak isildu zituen.



## 9. Eguzkiaren gelditzea

Gabaongo uria nola Jerusalem urrean zegoan, emengo Errege Adonisedeki Gabaontarrak Josueren mendean jarriak min eman zion, eta erasotzeko asmoak artu zituen: ezagutzen zuen, alabañan, auzo batek egin zuena, besteak ere egin zezaketela, pakean utzi ezker. Gabaon uri andientsu eta jende indartsua gordelari zuena zan, eta au artzearekin, Israeltarrai Jerusalemenerako bidea zerbaitekatibutzen zien, eta denbora berean Gabaontarrak ere kastigatu nai zituen. Langai onetan nai bezala irteteko, auzoetako lau Erregeri mandatariak bialdu ziezten, eskatzen ziela, arren, beren soldadu-taldeekin lagundu zizaiotela, zeren lan au guzien onean izango zan. Lau Erregeak Jerusalemgoarekin batu ziran, eta Gabaoneronz joanik, ingurutu eta itxi zuten. Gabaontarrak ain estu eta galtzeko bidean arkitu ziran, Josueri Galgalara gatzigatu zioten nola zeuden, eta bost Errege aien indarra ezin gogor egin zizaieketela, baldin ezbazien bere-bereala laguntzen. Josue, bere serbitzari berri oiei on-egiteagatik, prestatu zan laguntzeko, lenago Jainkoari baimena eskaturik. Gabaonera bere jendearekin gauaz joan zan; biaramoneko egun-sentian bost Erregeai itsumustuan eraso zien, eta Gabaonen ondoan asko gizon il zituen: gañerakoak erri itxi batzuetara igesi zijoazela, arritjar-jasa andi batek artu, eta lau orduko bidean kalte andiak egin ziezten. Ala ere bost Erregeak eramandako jendea ugaria izanik, Josueren ganibitak, eta zerutik jatxitako arri-abarrak ukitu gabeko asko bizirik gelditu, eta bazter guzietara zabaldu ziran. Josuek nai zituen guziak bein betiko ondatu, baña zeukan baño egun-argi geiago bear zuen, igesi zebiltzanak, gauaren babesean gorde gabe, atzitzeko. Estura larri onetan, Josueren sinismen andiarri baizik inñori gogoak emango etziona, egin zuen: eguzkiari agindu zion, bere bidean gelditu zedilla, eta eguzkiak Josueren esana egin zuen. Josuek eguzkia ikusi zuenean bere esanera geldituta, osotoro arriturik, jarri zan mesede ez-aditu onegatik Jaunari eskerrak ematen. Onetan zegoala, eraman zioten berria, bost Erregeak Mazedako leize-zulo batean gordeta arkitu zituztela. Bereala agindu zuen, arriakin leizeko ataka ondo itxi zedilla, eta emen ipiñirik nork kontu-egin, gañerako guziak igeslarien ondoren joan ziran. Egun bat osoan eguzkia geldi egon zan; bitarte onetan Israel-tarrak, banaka batzuek ez beste etsai guziak, atzitu eta il zituzten, eta beren lekuetara itzuli ziran, bat bakarrik ere bereetakorik ez il, eta odol-tantarik ere isuri gabe. Josuek bere lana egin zuenean, bada, eguzkiak bere ibilliari eman zion; eta alakorik berriz ez gero, eta ez lenago ikusi da.

Gaucan jendeari atsedena eman, eta biaramonean Josuek leize-zuloan gordeta zeuzkan bost Errege aiek ilerazo, eta ipiñi zituen bost agatan zinzilika, non egun guzian egon ziran, eta illunabarrean eratsirik, eraman zituzten ezkutatu nai izan ziran leize-zulora, eta emen arriz ondo itxita, ondorengo urteetan egon ziran.

Egun onetan berean Mazedako uriari eraso eta arturik, Errege eta gañerako guziak il zituen. Beste erri sendo asko eta Erregeekin berebat geroko egunetan egin zuen; eta erasotako guziak garaiturik, itzuli zan Galgarara, non negu hura igaro zuen, egin ziezten ainbeste mesedeen truke, Jaunari eskerrak emanaz.

Kastigu gogor oiek Josuek egiten zituen, bazter aietakoak ezagueran sartuta, Jainko egiazkoagana jarri zitezten, edo izuturik, berena etzuten lekutik iges-egin zezaten, idoloazale aiekin kutsutzeko, Israeltarrai biderik eman gabe. Jainkoak lur promestu hura garbiro gorde nai zuen; eta Josuek Jainkoaren gogoko berri baziekien; argatik etzuen inñor ere bizirik uzten.

## 10. Josueren beste garaipenak

Kanaango Errege, Israeltarrai gogor egiteko elkar-artu zutenak, ikusirik Josueren garaipen miragarriak, eta amaika Errege beren lagunak illak, izutu zitezkean; baña etzuten etsitzen, eta beren indar guziz andi paregabekoetan ustea ipiñita, Josue beartu zuten, udaberrian gerrara irtetera. Josue prestatu zan, eta bereala jakiñik, etsaiak zein lekutan erasotzeko asmoa zuten, isill-isillik abiatu zan, itsumustuan bidera irteteko ustean. Etsaietara urreratu zanean, Jainkoak bizkortu zuen, esanaz, etzuela zer bildurrik izan: biaramonean guziak eskura emango ziozkala, nai zuena egiteko. Ala gertatu zan. Gitxiena alakorik uste zuten garaiean sartu zitzaient, eta Errege elkar-artuak osotoro ondatuta, gizakume guzia il, eta gurdi eta gañerako gerrako tresna guziak erre zituen; eta ondamen onen bitartez, Kanaango bazter geienen jabe bereala egin zan. Erraz ez da esatea, zenbat izan ziran etsai galduak, eta uri artuak. Zerbaite ere ezagutzeko, asko da jakitea, sei urteren buruan ogeita bederatziz Errege eskuratu, eta il zituela.

Josuek ikusirik, Kanaan geiena beretu zuela, eta pakea ematen zitzaiola, uste izan zuen, Israelko Tribuai, nori bere zatia, emateko ordua etorri zala, arteraño guziak batean bezala, geroztik bakoitzak berea zaindu, eta etsaiari arpegi eman zizaion. Asi ziran zotz egiten, eta Tribu





batzuei beren zatiak emanik, gañerakoakikoa beste egun batean egiteko utzi zuten.

## 11. Galgalatik Silora Kutxa santaren aldatzea

Lenago esan da, Kanaango lurrean sartuta, bereala Kutxa santarekin Tabernakuloa, gero Galgala deitu zitzaion lekuan, ipiñi zutela, eta onen inguruan, oi bezala, bizitokiak egin zituztela. Zazpi urtean Kutxa santa emen egon zan, eta Israeltarrak etsaiari eraso-aldiak egin ondoren, onara itzultzen ziran atsedetera. Baña Galgala izanik Kanaango ertz bat, Josuek pensatu zuen, egokiago zala Kutxa santa Kanaaneren erdi-erdian egotea, Israeltar guziak erosoago joan zitezten, eta beren lanak aisago egin zitza-ten. Silo auturik, Kutxa santarekin Tabernakuloa aldatu zuten, eta geroz-ko lareun urtean gitxi gora-beera emen egon zan.

## 12. Kanaaneren banatzea, eta partitzea

Silon zeudela, buru-eman nai izan zioten arestian aitatu dan, Kanaango lurra Tribu guzieren artean banatzeari. Onetarako neurtzalleak alderdi guzietara bialdu, eta amabi puska eginik, Jakoben amar seme Ruben, Gad, Juda, Benjamin, Simeon, Zabulon, Isakar, Aser, Neptali eta Danen, eta Jose amaikagarrenaren bi seme Efrain, eta Manasesen etxeak edo ondoreak bana artu zuten; eta zati oiei guziaz, nori bere buru edo iturriaren izena eman zioten, eta geroz izen onekin ezagutu izan ziran.

Jakoben semeetatik Lebiren ondorea bakarrik bazter berezi edo jakin gabe geratu zan: ala ere, bestek bezain ondo, edo obeto: bada, gañerakoak gauza guzieren amarrenak, eta lenbizi edo primiziak zor zioz-katen, eta beste artubide askorekin batean, berrogeita zortzi erri, beren barrutiakin Kanaan guzian, or-emen banaiatu edo zabalduak, bere-bereak zituen. Kaleb, Josueren lagun maiteak ere, zatitxo bat artu zuen, bere leialtasunagatik Jainkoak agindu zion eran. Bakarrik Josue guzieren buru, eta ainbeste nekerekin guzientzat adiña irabazi zuena, ezer gabe gelditzen zan, eta bere gogoz etzuen egundaño eskatuko ere: baña Israeltarrak, berandu bederik, oroitu ziran, Jainkoak aginduta zeukala, Josueri bere saria emateko eta naieneko bazter bat eskeñi zioten, eta autu zuen Efraingo Tribuan zegoan *Tammata-Saraa* zeritzan erri txiki ezer-ez bat, eza-

gutu zedin, bere eresi bakarra lanbide guzietan Jainkoaren esana egitea izan zala. Josuek aukera au egin zuen, Silotik gertuan zegoalako, eta bere bizileku onetatik Jaunaren etxera noiz-naï eroso joan zitekealako.

## 13. Josueren eriotza

Urte batzuek Israeltarrak pakean bazeramakiten, nork bere alderdian, eta Josue egunetan aurrera zihoan. Au ezaguturik, Israelko Prinzipe, agintari, eta beste gizon elduenak bere ondora erakarri, eta esan zien: Zartu naiz, nere egunak badijoaz. Dakusute, Jainkoak zuen alde zenbat egin duen: lur andiak menderatu dituzute: ala ere, oraindik bazter txiki batzuetan zer egin badaukazute: Jainkoak oiek ere zuen eskuetan ipiñiko ditu, agindurik zauzkaten bezala; baña bere esanak kontuz egitzazute. Gero beste egun batean Israelko guziak beregana bildu, eta Moisesek denbora batean bezala, erakutsi zien, Jainkoa ondo serbitzeko zer egin bear zuten: ala egiteko itza eman zioten, eta atzanean guziaz agur betikoa egin zien. Andik laster Sikemen il zan, eta Tanat-Saraan berak prestatutako obian lur-eman zitzaion. Israeltarrak, ainbeste garaipen irabazi zituen buru eta agintari bati zegokion progua, egin zioten. Il zanean eunda amar urte zituen. Ejipton jaio, eta berrogeita amairu urte egin zituen: beste berrogei eremuan: sei Kanaango lurra beretzen, eta atzenekoak pakean, eta Israeltarri erakutsi onak egiten, eta gauzak zuzentzen.

## 14. Joseren ezurren lurpetzea. Eleazaren eriotza

Denboratsu onetan Joseren ezurrak ere Sikem-ondoan lurpetuak izan ziran. Lenago esan da, Patriarka andi onek bere anaia agindu ziela, kontu izateko, bere ezurrak Kanaanera eramane, eta emen lurpetzez. Il zanean gorputz-illa balsamatu, eta gorde zuten, Ejipton egon ziran bitartean. Moisesek, Ejiptotik irten ezker, beti berekin erabili zuen: eta Moises il zanean, Josue jabe egin zan: Galgalan iduki zuen, eta Kanaan menderatu zuenean, Sikem-ondora aldatu, eta aita Jakobek etxeko illak ipintzeko Hemor-en semeai erositako lurrean obiratu zuen.



Israeltarrak Josueri egin zioten proguko ogeita hamar egunak igaro baño lenago, Apaiz andi Eleazar ere il zitzairen. Au Aaronen semea, eta Israelko bigarren Apaiz-nagusia zan. Eginkizun andi guzietan Josuerekin beti ibilli izan zan, eta Finees bere semea oñordeko utzi zuen. Gabaat zeritzan, errian lurpetu zuten.

## AMAIRUGARREN IRAKURGAIA

### 1. Israelko eraena edo gubernua

Josueren eriotzarekin Israelek aldaketa andiak izan zituen. Josuek etzuen oñordekorik utzi, ezpada Israeltarrak eraendu edo gubernatu bear ziran, Jainkoak antziñatik Moisesen bitartez erakutsirik zeukan eran. Ala nola. Kanaan guzia amabi puska egin zan: oiek eman zitzaiezen amabi Tribu edo amabi etxe, Jakoben amabi semeen zenekoai. Erri bakoitzak zuen batzar bat, gizonik zarrenak egiten zutena; eta erriko lanak oien kontura zeuden. Tribu bakoitzak erri andientsu batean berebat zuen bere batzarra, zeñetan gizonik elduenak eta etxeetako buruak sartzen ziran: batzar onetan Tribu guziko egitekoak erabakitzen ziran. Tribu guzien burua zegoan Tabernakuloa eta Kutxa santa egoteko, Jainkoak aututzen zuen lekuan. Emen zegoan irurogeita hamar gizon zar eta elduak, Apaiz-andia buru zala, egiten zuten batzar nagusia. Tribuetan bukatu ezin zitezkean despita eta auziak, batzar nagusi onetan erabakitzen ziran. Baita ere emendik irteten ziran Israel guziaren onerako ziran aginte eta eginbearrak. Premia zanean, edo egiteko andiren batzuek sortzen ziran, Tribuetako Prinzipe edo zarrak, Apaiz-andia nagusi zutela, Erri-buru onetan bildu oi ziran, eta ezin erraz erabaki zitezkean lanean, Jainkoari, beren Jaun eta Erregeari bezala, galdetzen zioten.

### 2. Zenbat bazterren menderatzea

Modu onetan, bada, Josue il zanean, Israel gelditu zan. Buruzari jakintsu, eta biotz andiko onek kanaantar geienak menderatu zituen; baño banaka batzuek or-emen menderatzaka geratu zitzaiozkan, eta Tribu bakoitzak, bere lurrean zeuzkanak, galdu bear zituen, Jainkoak esanda zeukan eran, Israelko semeak garbi-garbi gelditzeko. Egiteko oni nork asiera emango zion erabakitzeko, batzar andia bildu zan, eta esan zuen, Judako Tribuari lenena zegokiola. Prestaturik, bada, bereala, Beneko uriari eraso zioten; eskuratu zuten; eta emen arkitu ziran guziak il zituzten. Errege Adonibezekek kanpora iges-egin zuen; baño ondoren jarraiturik,



atzitu zuten. Bertatik il zezaketen, Josuek bere aldian ainbesterekin egin izan zuen bezala; baña Jainkoak au zeukan, nerekin, aukeratua, onen bidez bere zuzentasun andia agertzeko. Oñ eta eskuetako beatz-punta guziak ebaki zitzaiozkan, eta Adonibezekek, bere burua erreki onetan ikusi zuenean, esan zuen: legez eta bidezkoa da egin didatena: irurogeita amar Erregeri nik neronek au bera egin diet, eta nere mai-peko papurrak biltzen iduki ditut. Nik inorekin egin nuena, Jainkoak nerekin egin du. Jerusalem erasotzera joan ziranean, berekin eraman zuten, eta an il zan.

Jerusalen ere, Jebus-ko gaztelua ez, beste guzia arturik, an arkitu ziranak il, eta uria bera erre zuten. Jerusalemekin bezala, beste erri asko menderatu zituztenakin ere egin zuten.

### 3. Israeltarrak idolo-zaletzen dira

Lanak oraindañokoan ondo zijoazen. Jainkoa Israeltarren alde beti agertzen zan. Egunetik egunera zerbait irabazten zuten; baña denbora berean kaltebide andiak gañera zetozkien. Jainkoak Ejipton egindako mirariak aurtasunean eta gaztetan ikusi zituztenak, illak ziran, eta gero eremuan egindakoak ikusi izan zituztenak ere, erioak bazeramakien. Zar beneragarri oiek kontu eta ardura zintzoarekin Jainkoaren esanak eta aginduak berak gorde, eta besteai gordeerazo oi ziezteen; baña oiek gitxitu, eta mirari aien oroipena ere atzendentzera zan. Gazteak asi ziran, Jainkoari zor zitzaion esker-ona, ezertan ez artzen, eta aren esanak egiteko zabartzen. Idolozale guziak, Jainkoak aginduta zeukan bezala, ondatu bearrean, laguntzat artu, eta berakin bizitzen ziran: zar banaka aiek gaizakeria onen kontra alperrik otsegiten zuten: oien ondo-esanak baño gazte zoroak geiago zezaketen.

Zarren esanak ezer egin etzutenean, Jainkoak beste bide bat artu zuen, zentzutzen ote ziran ikusteko. Israel guzia Silon zegoan bein batean, Aingeru bat agertu zitzaion, eta gogoraerazo zien, nola Jainkoak Ejiptotik atera, eta Kanaango lur gozoan sartu zituen, aien antziñako gurasoai agindu zien bezala: zer batasun egin zuen, aiekin beti izateko; baña egin zuela, aiek kanaantarrakin ez kutsutzeko itzean. Eta au onela izanik ea zergatik Jaunaren esana austen zuten? Gisa onetan Aingeruak beren gaizki-egiña arpegira eman, eta aldegin zien. Israeltarrak okerra ezagutu zuten; negarrari eman zioten, eta egin-al guziak egin zituzten, Jaunaren

aserrea itzaltzeko. Damu au aldi onetan egiazkoa izan zan: bada, geroz gizaldi ark iraun zuen artean, Jainkoari leialkiro jarraitu zitzaiozkan.

Baña etorri zan beste berri bat, Jaunaren mirari andiak ikusi etzituen, eta gaizakeriari osotoro eman zitzaiona. Ez bakarrik kanaantar idolozaleakin artu-emanetan ibilli, eta adiskidetasunak egin, ezen, seme-alabak ere elkarri eman ziezteen, eta Israelko semeak idolozaileen alabakin, eta oien semeak aien alabakin ezkondu ziran; eta naste onetatik etorri zan, Israeltarrak, Jainko egiazkoa utzirik, gezurrezkoak artu eta adoratzera.

Jainkoa, Israeltarren esker beltza, eta gaizakeria ikusirik, itz eta keñadaetatik egiñetara igaro zan. Zemaia edo amenazakin zentzatu nai izan etziranak, ipiñi zituen Mesopotamiako Errege Txusan Rasatainen eskuetan, zeñaren mende lotsagarrian, izanik berak Erregeai agintzekoak, bizi bear izan ziran zortzi urtez, gaizakerian igaro zituzten lenagoko zortzien truke. Katibusun onetan zeramaten bizitza negargarri eta neketa-ko onek, begiak idiki ziezten; gaizki-egiña ezagutu zuten, eta biotz osotik Jainkoagana barkazio-eske itzuli ziran. Orduan Jainkoa bere erri maitez errukiturik, Israeltarrai eman zien, Txusanen mendetik nork atera, eta au izan zan Israelko lenengo Jueza *Otoniel* zeritzana.

### 4. Israelko Juezen eraenmentua, edo gubernua

Lenago esan da, Josue il ezker, Israeltarrak nola eraendutzen edo gubernatzen ziran, beren arteko guraso eta gizonik elduenak buru zituztela, eta Jainkoa beste Errege eta Jaunik etzutela. Gero ere etzuten inoren bearrik izango, baldin Jainkoaren esanak zuzen gorde izan bazituzten; baña esan oiek austen zituztelako, Jainkoak eskutik uzten zituen, eta bereala inoren mende gogorrean erortzen ziran. Gisa onetako nekeetan arkitu ziran batean, Jainkoa asi zan, *Juezak* deitu zitzaion libratzalleak Israeli ematen. Juez oiek Israelen eskualdi andia zuten eta bere aginteak bizi guzian irauten zuen. Bat iltzen zanean, bestea ipintzeko kontua, Jainkoak zeukan. Irureun urtean Juez oiekin izan ziran: bitartean gora-beera asko izan zuten; baña asi gaitezen denbora onetan izan zituzten amabostai bat-banaka ukitzen.

### 5. Otoniel, lenengo Jueza

Arestian aitatu diran kanaantarrekiko gerran, Israelkoak zebiltzala, artu zuten Dabirko uria eskuratzeko asmoa. Kaleb, guzien buru egiten



bide zuenak, otsegin zuen, Dabiren lenbizi sartu eta ondatzen zuenari, bere alaba Axa emaztetzat emango ziola. Etzan geiagoren bearrik, gizonik bioztunenak elkarren leican eskeñtzeko. Otoniel, Kaleb beraren illo-ba, urian lenbizi sartu zan, eta saritzat Axa emazte egin zuen. Jainkoak Otoniel au lenengo Jueztzat Israeli eman zion, eta Txusani eraso, il, eta jende guzia ondaturik, Israelarrak zortzi urteko mendetasun gogorretik atera, eta pakean ipiñi zituen, eta geroz Otonielen egunetan Jainkoaren bildurrean bizi izan ziran.

## 6. Aod bigarren Jueza

Israelarrak asi ziran jainko gezurrezkoak adoratzan, eta Eglon Moabko Erregeak, beste auzoetako askok lagunduta, azpian artu zituen, eta onen mende nekagarrian emezortzi urte zeramazkiten, Jainkoa errukitu, eta Aod bigarren Jueza agertu zienean. Aodek Israelarren izaera eta nekeak ezin eramanik, Egloni gelara joan zitzaion, eta zeraman ganibita sabelean sartuta, illik utzi zuen. Bereala iñor oartu baño lenago, igesari eman zion. Gero Israelko gerrariak berekin artuta, etsai guziai eraso zien, eta etzuen atsedean, alik eta guziak il arteraño. Aod bizi izan zan egunetan, Israelarrak beti geroz Jainko egiazkoari leialak izan zitzaiozkan.

## 7. Sangar, irugarren Jueza

Irugarren Juez onek Israelen etsaiari arpegi eman zien, batezere filistintarrai, zeintzuetakoak arre-ortz batekin seieun il zituen. Au bizi izan zan artean, Israelarrak Jainko egiazkoari jarraitu zitzaiozkan; baño ilda laster, idoloai agur-egin eta iñoren mendean erori ziran. Israelarrentzat ezer ere lotsagarriagorik etzan, kanaantar baten azpian egotea baño; baño Jainkoak esan izan zien bezala, Kanaango guziak lenengotik ez ondaturakin, etsai galgarri oni eman zioten burua goratzeko bidea eta lekua; eta Jainkoak oiek berak billatzen zituen, aien gaiztakeriari zegokion kastigua emateko. Josuek il zituen Errege aietako baten odoleko Jabin zeritzan batek, soldadu-talde andi bat egin, eta Kanaango Erregearen izena artu zuen. Onk zeukan agintari txit aditu Sisara zeritzana, zeñaren kontura bere jende andia ipiñirik, Israelarrai eraso zien bederatzieun gurdi-sega berekin zituela, eta bereala menderatu zituen, eta morrontzarik gogorre-

nean ogei urtez iduki ere bai. Bitarte luze onetan eraman zituzten nekepenak, etziran asko izan, aiek zentzatzeko. Ala ere baziran Jainkoari bildur zitzaiozkan zenbait on; eta Jainkoa errukitu zan, eta emakume bat libratzalletzat eman zien.

## 8. Debora, Barak-ekin laugarren Jueza

Jainkoak eman zionean, bada, Deborari aditzera, Israelarrak, arkitzen ziran neke-petik aren bidez atera nai zituela, prestatu zan, Sisara eta bere jendeari erasotzeko. Onetarako Baraki gaztigatu zion, nola Jainkoak Barak agintzaritzat aututa zeukan, eta ark gaztigatzen ziona, egin zezala. Baña Barak, bildurrez, etzan Debora gabe joan nai izan: eta amar milla armadun arturik, biak Taborko mendira igo ziran. Sisarak au jakin zueanean, bederatzieun gurdi sega zorrotzez beteak, eta gerrari guziak arturik, Barak zegoan alderonz joan zan. Baña Barak bere amar millakin aurkeztu zitzaionean, etzuen biotzik izan, gogor egiteko, eta egin-al guzian igesari eman zitzaion: Barak bederatzieun gurdiaz jabetu, eta soldadu guziak, bat bakarrik ere utzi gabe, il zituen.

Sisara igesi zijoa, Haberen emazte Jahel zeritzanak ikusita, bidera irten zitzaion, eta bere txaoan sarerazo zion. Bideko nekeak auldu, eta egarriak easan ziolako, ur piska bat eskatu zuen, eta Jahelek kaiku bat ezne emanik, mantuarekin estali zuen. Sisarak esan zion, atean jarri zedilla, eta iñork galdetzen bazion, barruan zein zegoan, erantzuteko, iñor etzegoala, eta eznez ase-beteta, loak-artu zuen. Oraindaño Jahelek egin zuen guzia, igeslari errukarri bati on egitea zan, zeren biotza erdiratu zion, ain erreki txarrean Sisara bat ikusteak; eta onen Errege Jabin, Jahelen aitarekin pakean zegoan. Baña pensatu zuen, Jainko egiazkoaren etsai bildurgarri baten bizia eskuan zeukala, eta au galtzearekin, Israelarrai gaitz geiago egiteko bideak itxiko ziozkala. Orrez ostein baziekien, kanaantarra zalako, Jainkoak aginduta zeukanez, iltzea merezi zuena zala. Gogoak eman zion, bada, lo zetzan bitartean, il bear zuela. Ilze bat artu, eta malluarekin llotokian sartu zion, eta lurrari josita Sisara ipiñi zuen.

Barak orpoz-orpo zerraikionak ikusi zuenean, bere etsai portitz hura emakume baten eskuetan ilda, ezagutu zuen, Debora gabe Jabinen kontra irten nai izan etzaneko bere ezereza. Aitortu zuen, Jaunaren eskua ibilli zala; Jaunari eskerrak eman ziozkaten, eta etsai guziak igesi joan ziran, buru aditu hura gabe arkitu ziran.



Garaipen onen geroko ogei urteetan Barak eta Deborah Israelko jendea zaindu, eta ezagueran iduki zuten, Jainko egiazkoa baizik aitorzen eta adoratzeko etzuela. Bi oiek il ziran, eta Israeltarrak beren gaiztakeria jakiniari bereala eman zitzaiozkan, eta Jainkoari aserrererazo zioten. Kastiguz Madiantarren eskuetan erori, eta zazpi urtez mendetasun gogorrean bizi izan ziran. Bitarte onetan gose andiak igaro bear izan zituzten: bada, Madiantarrak udaberrian abuztoak sasoi eta arorik obenean zeuden egunetan, joan, eta guzia oñ-petu eta soiltzen zuten, eta topatzen zuten abere guzia ere berekin zeramaten, ezer ere Israeltarri utzi gabe. Atzenerako ainbeste ondamen, eta onek zekarren gosetea ezin eramanik, mendietara iges-egin, eta gorde-lekuak eginda, bizitzera beartu ziran. Noizbait bear da, ezagueran sartu ziran; gaizki-egiña aitortu zuten; eta Jaunari errukimentu-eske jarri zitzaiozkan. Jainkoa kupitu zan, eta bostgarren Jueza bialdu zien.

## 9. Jedeon, bostgarren jueza

Madiantarren atzaparretatik gariak gordetzeko asmoan, *Jedeon* larrañean garbiketean ziardun bein batean, Aingeru bat aurkeztu zitzaion, Madianen mendetik Israel ateratzeko, Jainkoak hura aututzen zuela, esatera. Jedeonek etzuen alako berririk artu uste; eta osotoro arriturik, Aingeruari agertu zion bere etxearen beeratasuna, eta izate umilla, adierazten ziola, alako lanbide baten kontua artzea, ari etzegokiola. Ni zurekin izango nazu, Aingeruak erantzun zion, eta Madian guzia, gizon bat bakarra balitz bezala, zuk ondatuko dezu. Jedeonek Aingeruari siñale bat eskatu zion, nor zan ezagutzeko, eta, arren, etzezala andik aldegin, zerbait ekarri eta eman artean. Aingeruak, emen itxedongo dizut, erantzun zionean, Jedeon bereala etxera joan, antxume bat egosi, eta salda eltze batean ipiñi zuen; gero legami gabeko ogiak egin zituen, eta guziak Aingeruari arte-pe batera eraman ziozkan. Aingeruak agindu zion, aragia eta ogiak arri-gañean ipiñi zitzala, eta salda oietara isuri zezala. Jedeonek ala egin zuen; eta Aingeruak eskuko zigorrarekin arriari ukitu zionean, irten zan suak, guzia desegin zuen, eta Aingerua aienatu edo ezkutatu zan.

Ai ene! Jedeonek deadar egin zuen, itzegin ziona Aingerua zala, ezagutu zuenean. Israeltarrak sinisturik oi zeuden, Aingerua bein ikusi ezkerokoa, bereala il bear zala; eta bildur onek Jedeoni biotza mindu eta lastu zion. Baña Jainkoak bereala poztu zuen, esanaz, etzedilla estutu; etzala

ilko. Agindu zion, Baal idoloaren aldarea desegiteko; onen inguruko zuaiztia ebakitzeko, eta emengo egurra, sua sortu zitzaion arriaren gañean egin zuen aldarean, erretzeko, eta bi zezen, bat zazpi urtekoa, eskeñtzeko.

Jedeon bildurtzen zuen, bere erritarrak jainkotzat zeukaten, Baalen idoloari egindako aldarea egunaz, guziak zekustela, botatzeak; eta amar morroi arturik, gauaz joan, eta Jainkoak esana egin zuen. Biaramonean Baalen aldarea lur-joa ikusi zutenean, abiatu ziran, nork egin ote zuen, galdez; eta jakin zutenean, Jedeon zala, Joas bere aitari seme-eske aserre bizian joan zitzaiozkan, beren jainkoari egin zion bidegabekeriagatik il bear zutelata. Joasek etzien eman nai izan, esanaz, gaizkille aren kastigua Baal beraren kontura utzi zezatela, eta jainkoa bazan, bere izen onaren alde irtengo zala. Isekazko edo burlazko esan onekin gizon sutsu aiek palakatu zituen, eta Jedeon iltzeko artu zuten asmoari, utzi zioten.

Jedeonek ikusi zuenean, bere erritarren jainko Baalen aldarea lur-jotzeko izan zuen biotza eta atrebenzia, zein ondo irten zitzaion, eta zer pensatu andiak eman ziezitela, al-egin guzia egin zuen, bere senide, etxeko eta aide guziak Jainko egiazkoagana itzultzeko; eta egun gitxiren epean bere lanbiderako lagunak obenak oiek zituen. Bitarte onetan Madiantar, Amalektar, eta beste asko zebiltzan, lenagoko urteetan oi bezala, Israeltarrari erasotzeko asmoan, eta eunda ogeita amabost milla gizon, abere eta ganaduz ondo ornituak, Jordango ibaia igaro zuten, eta Jezraelko ibarrean estalpeak egin zituzten, Israel guzira andik zabaltzeko; baña Israeltarrak etziran lenak, ezpada beren gaiztakeria ezaguturik, Jaunaren errukimentua irabaziak.

Zeruko argiz Jedeon beterik, eta Jaunaren laguntzaren ustearekin sendoturik, gerrako tronpetari soñu-eragin zion, eta auzoetara ere mandatariak jende-eske bialdu zituen, eta egun gitxiren epean ogeita amabi milla gizon gerrari bildu zitzaiozkan. Oiek guziak etsaiari arpegi emateko gizon-zegizon gitxi ziran; baña Jainkoaren laguntzak gizonen utsunea bete bear zuen. Au berekin zuela sinisteko siñaleak, lenagotik artuta zeuzkan; ala ere bere ezerezari eta beeratasunari begiraturik, aldats egiten zitzaion, lanbide artarako Jainkoak autua zala, uste izateko, eta uzkur zegoan. Kezka guziak, bada, berak utzi, eta gerrari aiek ala zala, zekusaten, zeruronz begiak goratu, eta Jaunari siñale berri bat eskatu zion. Ara nola. Illezati bat larrañean ipiñiko det, Jaunari esan zion, eta gaueko intzak illea busti, eta inguruko lurra leor uzten badu, ezagutuko det, nere bitartez Israel gordeko dezula. Jedeonek, bada, ille-zatia gauean larrañean utzi, eta biaramonean arkitu zuen, berak eskatu bezala. Eskuakin illea estutu, eta isuri zitzaion zumua katillu batera artu zuen.



Onekin ere, obeto jakin-eresia etzitzaion osotoro bete, eta Moisesek beste aldi batean bezala, kontrara ikusi nai izan zuen. Jainkoari eskatu zion, ille-zatia leor, eta ingurua intzez bustia gelditu zedilla. Jaunak au ere egin zion. Biaramonean larrañera joan, eta arkitu zituen illea leor-leor, eta inguru guziak bustiak. Orduan osotoro ezagutu eta sinistu zuen, bera zala Israel libratzeko autua.

## 10. Madiantarren ondamena

Urrengo gauean, bada, joan zan bere ogeita amabi milla gizonakin, eunda ogeita amabost milla Madiantar zeuden ondora, erasotzeko asmoan. Jainkoak Jedeonen ustea ikusi nai izan zuen, eta esan zion: Soldadu asko dauzkazu: Madian ez da zure eskuan jarriko, Israel arrotu ez dedin, eta esan ez dezan; nere indarrez libratu nintzan. Guziai esan egiezu, zer diodan: bildur dan ikaratia itzuli bedi: eta ogeita bi milla gizon itzuli ziran, amar milla bakarrak Jedeonekin geldituta. Jedeonek igeste andi au ikusi arren, etzan batere ikaratu, eta prest zegoan, zituen banakakin erasotzeko. Jainkoak, berriz ere, ikusi nai izan zuen, zer uste zeukan, eta esan zion: oraindik soldadu asko dauzkazu: urera eraman itzatzu; eta nik agintzen diodana, zerekin bijoa, eta besteak itzuli bitez. Jedeonek bere amar milla gizonak ur-ondora eraman zituen, eta Jainkoak esan zion: Zakurren erara ura miazkatzen dutenak, alde batean ipiñiko dituzu, eta ura edateko belau-nikatzen diranak, bestean. Irureun izan ziran, ura eskuan artuta, miazkatu zutenak, eta gañerakoak, edateko, makurtu ziran. Orduan Jainkoak esaan zion, irureun aiek asko zituela, Madiantarrak erasotzeko, eta besteak beren etzauntzaetara itzuli zitezela.

Jaunaren esanera Jedeon osotoro jarririk, eta uzkurtasun guzia utzirik, prestatu zan, irureun gizonekin etsaiari erasotzeko. Urrengo gauean Jainkoak esan zion, Madiantarrak zeuden ibarrera jatxi zedilla, eta bakkirik bildurtzen bazan, Fara bere morroia artu zezala, eta Madiantarrak zer zioten adituta, bioztundu eta bizkortuko zala. Jedeonek, Madiantarren alderonz joan, eta ikusi zituen gizonak eulia abaraskan, eta gameluak area itsas-baztarrena bezala. Bati alderatu zitzaion, eta entzun zion, lagunari esaten: amets egin det, eta iruditu zat, su-azpian erretako garagar-ogi bat Madiantarreronz amilka zetorrela, eta etzauntzara eldu zanean, jo nauela, eta osotoro nasturik, lurrera naizala. Lagunak esan zion; amets orrek ez

du beste gauzarik adierazten, ezpada Jedeonen ezpata, zeren Jaunak Madian bere jendearekin aren eskuetan ipiñi duen.

Jedeonek ametsa entzun zuenean, Jainkoa adoratu zuen: bereetara itzuli zan, eta esan zion: ea jaiki laster; bada, Jaunak Madiantarrak gure eskuan ipiñi dizkigu. Irureun gizonak iru saldotan banatu zituen: bakoitzari tronpeta, eltze uts, eta argi bana eman, eta esan zion, berak zer egin zuten, aiek ere egin zezatela. Jedeon eun gizonekin Madiantarren ertz batera alderatu zan: beste berreunak ere bi ertzetan jarri ziran, eunda ogeita amabost milla gizon Madiangoak erdian artzen zituztela. Gauerdian Jedeonek tronpeta jo zuen: eta beste guziak ere bai: eltze-joka bereala asi ziran, ots izugarri, arteraño alakorik iñongo gerran entzun etzan erakoa, egiten zutela. Eltzeak autsi zitzaiozkatenean, eltzeetan zermazkiten argiak ezker-eskuan, eta tronpetak eskuian zituztela, al-zan otsik andiena eragin, eta zerrauten deadarka: *Jainkoaren eta Jedeonen ezpata*. Onik etzerabilten, eta gero baño gero ziarduten ots andiangoak egiten bein tronpetarekin, bein deadarka, argiak txit gora zituztela.

Gau illunaren erdian, deadar-artetik irteten zana beste argi gabe, eta alde guzietatik jotzen zitzaien tronpeta-soñu ikaragarria, eta *Jainkoaren eta Jedeonen ezpata* beste itzik entzuten etzutela, Madiantarrak arkitu ziranean, jarri ziran, non zeuden, zer gertatzen zitzaien, eta zer egin etzikiatela. Igesi abiatu ziran; elkar jotzen zuten; eta etsaia zalako ustean, nor bere laguna, topatutako lekuan iltzen zuen. Gau guzia egun-sentiraño ilkintza negargarri onetan eraman zuten; eta ordu gitxiren barruan Israelko bazter ederra Madiantarren odolez gorritua gelditu zan, Israeltarren ukitu bat bakarra ere gabe.

Eguna zabaldu zanean, bizirik geratuak bazekusten ere, irureun beste etsairik inguruan etzutela, gauean sartu zitzaien laborriak, etzien uzten leku batean egoten, eta egun-argiari eskerrak emanaz, alde guzietaronz igesi zabaldu ziran, Jordango ibaia lenbaitlen igaro naiez estropezuka, beren errietan bizia gordetzeko. Baña Jaunaren ardura zintzoa! Jedeonek etxera bialdutako ogeita amaika milla eta geiago gizon bildurti aiek, jakin zutenean, Madiantarrak igesi zer buruzpide txarrean zijoazen, bidera irten, eta abarrakitu zituzten. Jedeonek bere irureunekin, argiak utzita, ezpatak arturik, igeslariari orpoz-orpo jarraitu zitzaient; auzoetara ere bereala gatzigatu zuen, ibaiaren urme-uneak, ordurik galdu gabe, artu zituzten, eta guzien artean, eunda ogeita amabost milla etatik, ibaia igaro zuten amabost milla ez, beste guzi-guziak ondatu, eta il zituzten. Efrain-tar urme-uneak artzera aurkez-aurke irten zitzaieztenak, Madiango lau



Erregeetatik bi, Oreb eta Zeb, bat arkaitz-pean, eta bestea dolare batean topatu, eta biak il zituzten, eta buruak Jedeoni eraman ziozkaten.

Jedeonek begia iges-egin zioten amabost milla aietara zeukan: eta berai erasotzeko, etzuen artu nai izan bere lenagoko irureun gizonak baik, zeintzuek, bat ere galdu gabe, osorik gelditu zitzaizkion. Baña nekeak eta goseak txit aulduta zeuden, berriro ekiteko: eta oiek zerbait zuzpertzua naiez, Sokot eta Fanuelen zer jana eskatu zuen; ordea bi erri oietako esker gaiztokoak, ez eman, ezen, isekaz bete zuten. Laburtasun eta lotsagabekeria au, ainbeste mesede eginda gero, ikusirik, irureunak ipiñi zituen etsaiaren ondoren, ezer artu gabe, aukeri guzian, egun hura pozik igarotzera. Etsaiak zeuden tokira gauaz, iñor oartu gabe, sartu zan; itsumustuan eraso zien; eta ezpataz josi, eta guziak ondatu zituen; eta Zebek eta Salmana Madiango beste bi Erregeak ere atzitu zituen.

Biaramonean atzeman edo atzituakin atzerako bidea artu zuen, eta urrengo egunean, eguzkia baño lenago, Sokoten ondoan zegoan. Emen sartu zan, eta orainago ogi-eske jarri zitzaizkion, egin zioten isekakgatik irurogeita amazapi gizon andientsuen aragiak lar eta arantzakin orraztu, eta zeaerazo zituen. Gero Fanuelera joan, eta aren bildurrez gazteluan gorde ziran erriko buruzai guziak il zituzten. Atzenean bi erri oiei zegokien kastigua emanda, bereala Madiango bi Erregeak il zituen; eta Israel guzia pakean, eta etsaien bildur gabe gelditu zan.

Lanbide oiek guziak egin zituenean, Efra bere errira itzuli zan, irureun gizon leial aiek berekin zituela. Israelko andizkiak aurkeztu zitzaizkion, ongiatorria egitera, eta Israel guziari ekarri ziozkan mesedeakgatik eskerrak ematera. Berak iritsitako garaipenak ain andiak izanik, Errege egin nai izan zuten; baña etzien utzi, esanaz, Jainkoa beste Erregerik etzezatela artu. Ala ere, uste izan etzezaten, aien eskeñi oparoa aintzat artzen etzuela, esan zien, etsaiari kendutako belarrietakoak emateko. Bereala kapa bat lurrean zabaldu, eta eman ziozkaten belarrietakoak, ez ezik, urrezko, eta sedazko beste edergarri asko, berreunda ogeita emezortzi milla erreal balio zutenak ere. Beretzat ezer nai etzuen, eta gai oiekin *Efod* eder bat egin, eta bere etxean ipiñi zuen.

Geroko urteak Israelko Juezaren eginkizunak ondo betetzen, eta Israeltarrak Jainkoa zuzen serbitzeko, al-egiñak egiten, igaro zituen. Israel berrogei urtean eraendu zuen, eta Efra bere errian il zan, irurogeita amar seme utzirik. Israeltar onak, beren libratzalle gogoangarriari zegokion eran, negar andiak eta progu luzea egin ziozkaten.

## 11. Abimelek, seigarren Jueza

Jedeon bizi izan zan artean, Israeltarrak Jainkoari bildur izan zitzaizkion; baña il bezain laster, gizon andi onen ondo-esanak aztu, idolo-zaletu, eta Jainko egiazkoari utzirik, artakotzat Baal artu zuten, eta egikera onekin ain ondore negargarriak ekarri zituzten. Arestian esan da, Jedeonek irurogeita amar seme utzi zituela; zeñak aitaren izen ona gordetzen zuten, kutsutu gabe: baña oiezaz landara, zorigaitzean izan zuen bigarren mallako emazte Sikemtar bategan ere beste bat, Abimelek zeritzana, eta Israelko seigarren Jueza. Bere aita ilda, seme zorigaitzoko onek Israeltarrak igerrri zienean idoloetara grinauak, uste izan zuen, beretzat zerbait egiteko aldia orduan zala. Sikemera joan, eta bere amaren senideai buruan sartu zien, obe zutela, batek aginduak izatea, Jedeonen beste irurogeita amarren mendean egotea baño; eta ipiñi zituen, Sikemgo guziaz bere alde itzegitera. Oiek entzun zutenean, ango odolekoa eta jatorria zala, Erregetzarako begia ezarri zioten, eta Baalen elizako dirutza andi bat eman zioten; zeñarekin zenbait gizon galdu erosi, eta oiekin aitaren etxera joan zan. Ingurutu zuten, eta Joatan anaia gazteena ez, beste senide guziak atziturik, arri-gañ batean il zituen. Irurogeita bederatzi senide anaia batek ilda ikusteak, bazter guziak izutu zituen, eta arri-egiñak gelditu ziran; baña aginte-naiez biotza beteta zeukan Abimelek biurriari, ezer gitxi zitzaion, ainbeste odol isuriagatik.

Gogortasun paregabe au eginda, bereala Sikemera itzuli zan, sari-eske bazijoan bezala, eta Sikemtarrak alako gizon galdu bat iguindu bearrean, arte-pe batera bildu, eta Erregetzat artu zuten. Joatan bizirik gelditu zan anaia bakar ark berri au aditu zuenean, Sikemdik urrean zegoan Garizinko mendira igo, eta oska asi zitzaion, itz-estaliakin arpegira emanaz, aren aitagandik artutako mesedeak, irurogeita bederatzi seme il ziozkan bat Errege egitearekin, zein gaizki ordaintzen zituzten. Esan zien, bazeritzaten ondo egin zutela, poztu zitezela; baña gaizki egin bazuten, Abimelek berak galdu zitza. Oiek eta beste gauza asko esan, eta Abimeleken igesi Barara joan zan.

Abimelekek Israelko agintean iru urte egin zituen; eta Sikemtarrak asi ziran, Abimeleki eta bere lagun Sikemgo buruai gorrotoz eta iguiñaz begiraten: eta gizon odolgiro hura begietatik bein betiko kentzeko, gizonak bidean isillik ipiñi zituzten, Efrandik Sikemeronz zetorrenean, itsumustuan artu, eta il zezaten; baña Abimelekek, zertan zebiltzan oartu, eta berak aurrea artu zien. Sikemera joan, indarrez sartu, biztanle guziak il,



erria erre, eta gatza ercin zuen, sekulan ezer eman etzezan, eta iñor bizi etzedin. Ara nola bete zan Joatanek esan zien etorkizuna.

Sikemgo dorrean zeudenak, erria sutan ikusi zutenean, sartu ziran Beriten elizan, non Baali jainkotzat ezagutzeko itza len eman izan zioten. Abimelek Selmongo mendira igo zan; zuaitz bati besanga bat ebaki zion, eta sorbaldan arturik, bere soldaduak esan zien, berebat egin zezatela. Dorrearen oñera joan zan, su eman zion, eta dorrea, Baal jainkotzat zeukatena, eta emen arkitzen ziran milla gizon eta emakume erre zituen. Bereala Tebasera joan zan, zeren au ere bere kontra irten zitzaion, eta emengo jendeak ikusi zutenean, Abimelek zijoakiela, dorre txit goititu batera igo, eta atea ondo itxirik, estali edo tellatu-gañera irten ziran, gogor egiteko asmoan. Abimelekek erria iñor gabe arkitu zuenean, dorrera joan, eta portitzkiro eraso zion. Atera alderatu zan, eta su emateko zebilela, dorretik emakume batek bota zion errotarri-puska batek, muñak lertu ziozkan; bere burua iltzen ikusirik, morroiari agindu zion, il zezala; etzuela nai, alabañan, iñork esan zezan, andre batek il zuela. Nagusiaren esana morroiak bereala egin zuen, eta gertatu zan Joatanen esana, zionean, aren galtzalea Tebastik irten zedilla.

Il zan, bada, lotsa gorrian emakume baten kolpetik Abimelek biotz-gogor eta odolgiroa, adiñaren lorean, bere lagun eta adiskiderik andienak ere gorrotatua, eta inguindua.

## 12. Tola, zazpigarren Jueza

Abimeleken gaiztakeriak Israel guzia gogaitu eta aspertua zeukaten; eta hura il zanean, begira jarri ziran, nor izango ote zan, ark egindako kalte andiak, eta ipiñitako nasketa negargarriak orbaindu eta zuzenduko zituen, eta bereala autu zuten Tola, Jedeonen illoba, gizon zuzen Jainkoaren bildurrekoa, eta bere egitekoai arpegi ondo eman ziena. Ogeita iru urtean Israelko Juez izan zan. Samiren il, eta lurpetu zuten.

## 13. Jair, zortzigarren Jueza

Tolaren urreneko Jair izan zan. Onek ere ogeita bi urtean Israel eraendu zuen, eta Kamonen il zan. Atzeneko bi Juez oien denboran Israelarrak idoloetarako eresi gogorrik ez bide zuten agertu: beintzat,

Jainkoak etzien oi bezalako kastigurik bialdu. Jair il zanean, etzuten bereala aren oñordekorik autu; eta bai idolo-zaletu, alako eran, non, ez da eder esatea, zer gaiztakeriak egin, eta zenbat jainko gezurrezkori belaunikatu zitzaiozkan; eta mingarriago dana, Jainko egiazko bakarrari zor zaion agur edo adorazioa emateari ere utzi zioten. Orduan Jainkoak, Israelarren gaiztakeriak txit aserreturik, alde batetik filistinarren, eta bestetik Amontarren eskuan eta mendean ipiñi zituen. Morrontza gogor onek emezortzi urte iraun zien; eta bitartean eraman zituzten neke latzak, berandu bederik, begiak garbitu ziezteen, beren gaiztakeria itsusiak ikusteko, eta Jainkoa Ongille ezin obeagoari egindako lotsagabekeriak, ezagutzeko. Jarri zitzaiozkan, bada, beren bekatuen aitormenarekin Jaunari barkazio-eske. Lenbizian Jainkoak etzien aditu, arpegira emanaz, lenago ere bein baño geiagotan alako esturasunetatik atera izan zituela; baño onegiñak bereala aztutzen zitzaieztela, eta gogoak zien guzian uzten ziotela: eta jainkotzat artu zituztenai eskari hura bera egiteko. Israelarrak agirake edo erreprensio ain ikaragarri eta bidezko onegatik etzuten zerbait iristeko ustea galdu. Berriz eta berriz leiatu zitzaiozkan, beren gaizki-egiña aitortzen, eta beste edozein kastigu emango bazien ere, etsai zirkunzidatu gabeko aien mendetik atera zitzaizala, eskatzen. Jainkoak oien negarrak eta egiazko damuaren beste adieragarriak ikusirik, kupitu zitzaiozkan, eta asi zan errukiz begiratzan.

Amontarrak urteoro etorri oi zitzaieztan, nai zituzten laburtasun eta txarkeriak egitera; eta Jainkoak lagunduko zielako artu zuten uste onarekin prestatu ziran, arpegi emateko, lenagoko urteetan bezala, nai zutenik egiten, utzi gabe; baño buruzai eta giatzallerik etzeukaten; etzuten, alabañan, Jairo oñordekoa emateko konturik izan, eta urte askoko iñoren mendean egoteak etzien mesede andirik egiten, bear bezalako gizon bat erraz arkitzeko. Estura larri onetan, bada, langai onetara bildu ziran Printzipe guziak esan zuten, Amonen kontra lenbizi arpegia agertu, eta erasotzen, asten zana, buru eta agintari izango zala. Gauza ain balio andikora-ko aukera egiteko artu zuten era au, txit egokia ez bide zan; baño Jainkoa zebillen, noski, argi-egiten; ondoreak, beintzat onak izan ziran.





## 14. Jepte, bederatzigarren Jueza.

**Abesan, amargarrena.**

**Ahialon, amaikagarrena.**

**Abdon, amabigarrena**

Esan dan eran Jepte Juezetako autua izan zan. Borta zan; baña bere aitak semetzat ezagutu, eta bere etxean azia. Aita il zanean, anaia bidezkoak edo matrimoniokoak etxetik bota zuten, esanaz, aitaren ondadean zer egiñik etzuela. Jepte nora bildurik etzuela ikusi zanean, Manasesko bazter Tob zeritzan batera joan, eta emen bizi zan. Berez gerrarako grina-tua eta bulardetsua zan, eta non-naikoa, inguru aietan ere baziran gizon zer galdu-gorde asko etzutenak, eta lenbizi agertzen zan lanari eltzen ziotenak. Oiek, bada, Jepteri batu, eta zerraizkion, beren Errege bazuten bezala. Jeptek esan zien, gogoak ematen ziola, aiek nai izatera, Amontarren lurrera joan, eta Israeltarren etsaiak ziralako, erasotzea. Baiezkoa bertatik eman zioten: eta Amontarretara bat-batean sartu, eta al-zituzten abere eta ondasunak arturik, beren tokira itzultzen ziran, ostera ere berri-tzeko asmoan.

Jepte langai onetan zebillen egunetan, Masfaten zeuden, agintari bat, esan dan eran, autu bear zala, erabakitzen; eta jakin zutenean, Jepte asi zala, Amontarrai erasoak eman eta sarrerak egiten, ezagutu zuten, auxe zala, Jainkoak Israeltarren burutzarako zeukana. Gizonik elduenak eta nagusienak bereala Tobera joan zitzaiozkan, Masfaten bilduta zeuden armadunen agintean jartzeko, esatera. Mandatari oien artean arkituko ziran, Jepteren anaia etxetik atera zutenak ere; beintzat, esan zien, ea aiek etziran lenago gorrotoz begiratu ziotenak? Baña kejura oiek aintzat artu gabe, eskatu zioten, arren, aiekin joan zedilla, Israelko buru izan bear zalata.

Jepte Israel guziaren agintean jarri zanean, agertu zuen odolik isuri gabe auzoakin pakeak egiteko eresia; eta Israeltarrai ainbeste erakusten zieten etsai zittal eta dollorrai, legez eta bidez eraso bazizaiketean ere, Amontarren Erregeari oparik obenarekin mandatariak bialdu ziozkan, pakean egoteko bideak adieraztera; baña Amontarren Erregeak etzituena gatzigu oiek aintzat artu, eta bere asmo galduakin gelditu zan. Bien artean desberdintza andia zegoan. Amontarren Erregeak armadun asko, eta ondo trebatuak zeuzkan; eta Jeptek gazte gaitz-ikusi gabeko banakak baikirik etzituena: ala ere Jeptek ezagaturik, garaipena, ez armadunen kopuruan, ezpada Jaunaren laguntzan zegoala, etzan bildurtu: eta Jainkoa

obeto irabazteagatik, egin zion promes bat, gero estura larrian ipiñi zuena. Jainkoari esan zion, baldin Amontarrak eskuratzen baziozkan, bere etxetik ongietorria egitera, lenengo irteten zitzaiona, zana zala, *holokaustoan* eskeñi edo ofrezituko ziola. Promes au eginda, bereala bere armadun banaka eta trebatu gabeakin joan zan; Amontarrai eraso zien; eta ogei erritan txit asko il zituen, eta Amonen semeak Israelenaen eskutan erori ziran.

Garaipen onen pozez Jepte etxerenz Masfatera bazetorren, eta bere etxekoetatik lenbiziko bere alaba bakarra aurkeztu zitzaion, alegranza andian, eta soñua joaz dantzaz, zeña ikusi zuenean, soñekoak urratu zituen, ziola: Ai ene alaba! Zuk esturan ipiñi nazu, eta zerori ere jarri zera, zeren Jaunari itzeman diodan, eta beste gauzarik ezin dezakedan. Aita nerea, alaba on biotz andiko onek erantzun zion, aita nerea, Jaunari itzeman badiozu, nizaz egizu, promestu dezun guzia, etsaia garaitu eta kastigatu dezun ezker. Gauza baten eske nagokizu; zere baimena indazu, basora joan, eta lagunakin nere garbitasuna bi illabetea negartzeko. Aitak esan zion, zijoala; eta bi illak egin zituenean, aitagana etorri, eta onek bere promesa bete zuen.

Lenago esan da, batek aurrik ez izatea, Israelen txit lotsagarria zala, zeren bere odoletik Mesias sortzeko usteak galtzen zituen, eta oroitze onek aita naigabez bete, eta alabari negar eragiten zion. Egia da, Israelko donzellak jakin bazuten, Mesias au, emakume baten sabelean, osotasuna galdu gabe, sortuko zala, Jepten alaba on onek negar egin, ez ezen, txit poztuko zala, bere aitak Jainkoari eskeñi ziola, jakitean. Mirari au ezagutzen etzuten, eta birjiña gelditzea lotsa anditzat bazeukaten ere, promestua aitak egin zuen: Jaunari eskeñi zitzaion; beti garbi izateko itza eman zion, eta zintzo gorde zuen, neskatx onen irmotasun eta bertute ederrak Israeltar guziak arritzen zituela.

Jepteri, alaba bakarra ezkontzaka geldituta, bere odoletik Mesias sortzeko uste guzia galtzeak zein ere atsekabe andia eman zion, are andiagoa artu zuen, arkitu zanean, ez etsaien, ezpada Israeltarren odola isuri bearreran. Efraintarrak ziran onetarako bidea ematen ziotenak. Efraintarra Jose Patriarkaren jatorrikoak ziran, eta alde onetatik arroturik, uste zuten, gauza guzietan inor ez bezalako eskualdiak bear zituztela. Beretakoa ez beste edozeñen ona ezin eraman zuten. Jedeoni bere aldi buruauste andiak eman izan ziozkaten; eta Jepteri ere arrokeria andian aurkeztu zitzaiozkan, arpegira emanaz, ea zergatik aiek gabe Amontarrai eraso zien? Jeptek eraz erantzun zien, eta bere eginbidea garbituaz; alperrik orde. Gerra nai zuten, eta eraso zioten. Jeptek ain ondo jakin zuen arpe-



gi ematen, non, aurkeztu zitzaiozkanak abarrakitu, eta ondatu zituen. Egun bat bakarrean berrogeita bi milla Efraintar il ziran. Ilkintza onekin, eta Amontarrai egin zienarekin, Israel pake onean ipiñi zuen.

Geroz bizi izan zan, pake au gordetzeko alegiñak egiten, Israeltarrak idoloetara erori gabe, kontu artzen, eta Jainkoa berak ondo serbitu, eta besteai serbierazotzen. Sei urte agintean eginda, il zan, eta zegokion eran lurpetu zuten.

Amargarren Jueza Abesan, amaikagarrena Ahialon, eta amabigarrena Abdon izan ziran. Jepteren ondoren iru oiek, nor bere aldian, Juezetan sartu ziran, zeintzuek, iruren artean, ogeita bost urte igaro zituzten. Oiekgatik beste zer esan andirik ez degu.

## AMAL AUGARREN IRAKURGAIA

### 1. Sanson, amairugarren Jueza

Abdon ilda, bereala Israeltarrak Jaunaren aurrean gaizkia egin zuten; au da, Jainko gezurrezkoak adoratu zituzten, eta Jainkoak kastigutzat filistintarren mendean ipiñi zituen. Israeltarrak len ere filistintarren mendean egon ziran; baña Samgar eta Jeptek aien azpitik atera zituzten. Geroz etziran filistintarrak esturasunik ematera atrebitzen. Baña ikusi zituztenean, beren gaiztakeriakgatik Jaunaren aserrean erori zirala, asi ziran berriro nekaerazotzen, eta eunda berrogeita amar urtean, gitxi gora-beera, etzieten pakean utzi; eta Israelarrentzat akullurik zorrotzenak berak izan ziran. Orregatik emen esan dezagun, filistintarrak zer ziran.

Oiek etziran kanaantarrak, ezpada anziñaeran Ejiptotik etorritako jatorriak, zeñak kanaantarrak itsas-ondoan lur-zati bat kendurik, bost ballera edo Probinziatan zabalduta, beren bizimodua ateratzen zuten. Bost ballera oietan, nork bere Prinzipe edo Satrapa zeritzatenak, buru zituztela, beren gañ eraentzen ziran; baña kanpokoakin despita edo aserrek bazuten, elkartu eta bat-egiten ziran. Israeltarrak Kanaanen sartu ziran, bost ballera oietatik iru beretu zituzten, eta beste biak ere bai bear, zeren Jainkoak Israeli agindutako lurra zan; baña Jaunaren esanaren kontra, kanaantarrak beren artean utzi zituzten gisan, filistintarrai ere leku eman zieten. Gero beste iru ballerak ere galdu zituzten; eta oiek luzaro Israelarren etsairik gogaikagarrienak, eta nekagarrienak izan ziran.

Aldats egiten da, filistintarrak Israel mendean zeukatela sinistea, kontrara gertatu bear bide zanean; bada, filistintarren bazter guzia, Israelarren amargarren zatia etzan: beragatik Israeltarrak eun milla gizon aisago ipiñi zitzaketen, filistintarrak amar milla baño: ala ere, Israeltarrak jainko gezurrezkoetara eman ziran ezker, Jaunaren laguntza, galdu zuten; bildurti egin, eta makaldu ziran, eta ezertarako kemenik etzuten. Filistintarrak Israelarren izaera au kontuan artzen zuten, nai zieten egiteko. Guziaz ere, Israelen baziran anima on eta Jainkoari bildur zitzaiozkanak, eta biotzak zeruronz zuzendurik, Jaunari eskatzen ziotenak, arren, errukiz begiratu, eta mendetasun lotsagarri artatik atera zitzala. Jainkoak eskari on oiek entzunik, eman zien libratzalle bat, *Sanson* zeritzana, eta Israelko amairugarren Jueza.



Sanson ain ots andikoa, guraso on eta Jainkozkoen semea, Saraa-ondoan jaio zan. Gurasoak aur gabe luzaro bizi izan ziran, eta amak aurrik izateko uste guziak galduta zeuzkanean, Aingeru bat, gizonaren antzean, aurkeztu zitzaion, eta itzegin zion onela: Leorra zera; baña seme bat izango dezu; ez edan ardorik, eta ez sagardorik, ez eta gauza loiturik ere jan, zeren egingo dezun seme bat, ganibitak buruan ukituko ez diona, au da, illerik ebakiko etzaiona: bera asiko da, filistintarren mendetik Israeltarrak ateratzen.

Aingeruak, itzaldi au eginda, bereala aldegin zuen, eta senarrari emaztea joan zitzaion, zer gertatu zitzaion esatera: esan ere bazion, galdetu ziola, zein zan, nondik zetorren, eta nola zeritzan; baña galdera oiei etziela erantzun, semedun egingo zala baizik. Orduan Manue senarrak Jaunari eskatu zion, mandatari bera berriz ere bialdu zezala, aur jaiotze-koarekin zer egin bear zuten, erakustera. Jainkoak eskari au entzunik, emazteari agertu zitzaion, eta korrika joan zan, senarrari esatera. Senarra bereala Aingeruari aurkeztu, eta galdetu zion, ea aurrarekin zer egitea nai zuen? Erantzun zion, etzezala aurrak ardorik eta sagardorik edan, ez gauza loiturik ere jan, eta emazteari esandako guzia, egin zezala.

Manuek erregutu zion, antxume bat erre artean itxedoteko. Aingeruak erantzun zion, alperrik leiatuko zitzaiola; bada, etzuela jango; eta nai bazuen, Jaunari eskeñi zizaiola. Manuek etziekien, itzegiten ziona Aingerua zanik, eta galdetu zion, nor zan? bada, jakintsu egon nai zuela, ark ziona gertatzen bazan, bere esker-erakutsia egiteko. Zertako nere izen miragarria jakin nai dezu? Aingeruak esan zion. Manuek antxumea arri-gañean bere errekiñakin ipiñi zuen, Jainkoari ofrenda hura eskeñtzen ziola; eta su emanda, garra gorontz abiatu zanean, Aingerua garretan sartu, eta igo zan. Begira zeuden senar-emazteak, mirari onekin arriturik, auzpeze jarri ziran, eta etzuten geiago iñor ikusi. Orduan ezagutu zuten, gizontzat zeukaten itzlea Aingerua zala. Manuek bereala larritasun guziarekin emazteari esan zion, il bearrak zirala; baña emazteak lasatu zuen, esaten ziola, baldin Jainkoak il nai izan balitu, etzuela aien ofrenda onetsituko edo ontzat artuko, ez eman ere etorkizuneko berriak. Lenago esan zan, Israeltarren arteko sinismea zala, Aingeru bat ikusi ezkeru, bereala il bear zala; argatik Manue larritzen zan, eta emazteak lasatu zuen.

## 2. Sansonen lenengo ezkontza

Egiaz, emazteak uste oso-osea zeukan bezala, mundura zuen seme bat, *Sanson* zeritzana, eta azi ere bai, bere bularrean, eta Jainkoak bede-

katu zion. Emezortzi urte zituenerako, Jainkoak biotz, gauza andietarako, sendo eta indartsua eman zion. Orduan Tamnata, Efraingo erri batera, egin zuen joan batean, ikusi zuen filistintarren alaba bat gogoan sartu zitzaion, eta etxera zanean, gurasoai agertu zien neskatz arekin ezkondu-naia; baña gurasoak erantzun zioten, ea beren aide edo errikoetan neskatzik etzan, filistintar zirkunzidatzakaetara joan gabe? Sanson aitari leiatu zitzaion eresi berarekin. Gurasoak etziekiten, lan artan Jaunaren eskua zebillenik, eta semeak filistintarrak ondatzeko bidea billatzen zuenik. Geroenean artara jarri ziran; eta Tamnataronz gurasoak semearekin abiatu ziran, eta erri-ondoko mastietara ziranean, leoi gazte portitz bat irten zitzaion, orroika; baña Sansonen biotzean Jaunaren indarra sartu zan; leoiari itsatsi zitzaion, eta antxume bat bezala, txikitu eta zeatu zuen, gurasoak oartu gabe; etzien esan ere, zer egin zuen. Errira ziranean neskatzari itzegin zion: gurasoak semearentzat eskua eskatu zioten, eta baiezkoa artutakoan, gurasoak eta semea itzuli ziran, emazte-gaiaren etxean egin bear ziran eztaietarako gauzak prestatzera.

Egun batzuen buruan Tamnataronz, ezkontza egitera, bazijoazen; eta Sansonek gurasoetatik aldegin, eta lenagokoan il zuen leoiari, begiratu zion, eta ikusi zuen bere aoan erle-samalda andi bat, abaraskak eginda. Abaraska bat arturik, bazijoan gurasoetaronz, jaten, eta oiei ere eskeñi zien, nondik artu zuen, esan gabe. Errian sartu, eta Sanson, aitatu dan neskatzarekin, ezkondu zan.

Onelako egunetan oituraz ezkon-berrien aideak elkargana bildutzen ziran, eta ezkon-ondoko zazpi egunak poz eta olganzan igarotzen zituzten. Bildu ziran, bada, Sansonenak eta bere emaztearenak ere. Sansoni errikoak eman ere baziozkaten ogeita amar mutil gazte, egun oietan lagun izan zitzaion. Berebat oitura zan, gauza illun eta estaliak nork asmatzen zituen, aritzea, era onetan adiñak edo entendimentuak askatu eta argitze-ko. Sansonek oitura au ere gorde nai izan zuen, eta bere ogeita amar lagun gazte aiei esan zien, baldin ark esandako itz batzuek zer adierazten zuten, asmatzen bazuten, ogeita amar izare edo maindre, eta ogeita amar soñeko emango ziezte; baña asmatzen ezbazuten, beste ainbeste izare eta soñeko berari eman bearke ziozkatela. Filistintarrak bazeritzaten, gai onetan zerbait bazirala, eta guzien aurrean erantzun zioten, gauza isill askakai hura esan zezala. Ara, bada, Sansonek esan zien: *Jaleagandik janaria irten zan, eta sendoagandik gozoa*: asma ezazute.

Filistintar gazteak lenengo iru egunetan buruak austeko ibilli ziran, ezin asmatuz. Sansonen emaztea ere beartu zuten, bere senarragandik isillik jakiteko, batean loseintxa, bestean negarrez alegiñak egitera; baña San-



sonek etzien ezer esan nai. Ondorengo egunetan ere, bai gzteak, eta bai emazteak, lan berean jarraitu zuten; baña alperrik; etzuten ezer aurreratzen. Zazpigarren egunean gazteak emazteari esan zioten, baldin senarrari ezbazion agertuerazotzen, asmakai ark zer esan nai zuen, etxeari su eman, eta bera bere aitarekin erreko zutela.

Emaztea Sansoni negarrez zegokion, ziotsala; maite ez nazu: iguin nazu; orregatik, nere erriko gazteai ipiñi diezun asmakaia agertu nai ez didazu. Sansonek erantzun zion, ea bere ait-amai esan nai etziena, ari esango zion? Atzenean ere emaztearen negar eta espak ain miñak izanik, bere isill-gauza agertu zion. Aditu bezain laster, gazteai kontu ematera joan zitzaien. Gazteak atzeneko egunean, eguzkiak aldegin baño lenago, Sansoni, berak asmatua bezala, esan zioten: zer gauza gozoagorik ezta baño, eta sendoagorik leoia baño? Ah! Sansonek erantzun zien; ezbazenduten nere txalarekin goldeatu, asmatuko etzenduten; esango bazien bezala: nik izan ezbanu, pakerik ematen etzidan emazte bat, edo zuetakoa, asmatuko etzenduten; beragatik ez dezute saririk irabazi; ala ere apustuan esana, emango dizutet.

### 3. Sansonen bigarren ezkontza

Sanson Israelko Juez, eta Israeltarri beren eskualdiak eta pakea emateko, Jainkoak aututa zeukana zan, eta Jaunaren indarrez sendoturik, Azkalon zeritzan Erri-burura joan, eta kontu-artzen zeuden soldaduai eraso, eta ogeita amar gizon il zituen, zeñaren soñekoak arturik, gazte asmatzalleai eraman ziezten, eta bere aitaren etxera itzuli zan. Emazte desleialak ikusi zuenean, senarrak aldegin ziola, oso betiko utzi zuelakonan, ogeita amar gazte aietatik batekin ezkondu zan. Egun batzuen buruan, itaite edo gari-ebakiteetan Sanson emaztea ikustera joan zan, antxume bat berekin zuela; baña gelara sartzean, aitagiarra irten zitzaion, eta gelan sartzeko lekurik etzion eman, ziotsala, betiko utzi zuelako ustean, alaba adiskide bati eman ziola; baña etzala ansi; gazteago eta ederrago bat bazuela, eta onekin ezkondu zitekeala. Eginbide onekin Sanson txit aserretu zan, eta ordutik erabaki zuen, filistintarri zezakean kalte guzia egin, eta egin zioten saldukeria nozierazotzea. Sanson etzegoan, lengo Juezak bezala, gizon-samaldakin, ezpada bere indar utsakin, erasotzeko, autua. Itaitetako egunak ziran, eta besteri ez bezalako kalte-eginëra bat gogoratu zitzaion. Sansonen alderdian azeriak txit ugari eta asko ziran:

irureun eskuratu edo atzitu, eta ipiñi zituen biñaka, elkarri isatsak lotuta, illeti sutu bana erdian zutela. Onela larrañ eta mastietara bialdu zituen; eta zenbat azkarrago joan, anbat geiago illetiak irazekitzen ziran, eta azeriai min ematen zieten. Gisa onetan or-emen zebiltzala, gari guziak, ebaki, eta ebaki gabeak, sutu zituzten; mastietara ere sua zabaldu zan; eta ordu gitxiren epean bazter guziak erre eta kiskaldu ziezten. Filistintarrak jakin zutenean, norik eta zergatik kalte andi hura egin zien, Tamnatara joan, eta emazte eta onen aita erre zituzten. Sansonek gaztigatu zien, aiek lanbide au egin arren, etzuela eskua atzeratuko, al-zan kalte guzia egin gabe. Gero asko gizon il ziezten, eta gañerakoak osotoro izututa ipiñi zituen.

Sanson lan onen ondoren leku ezkutu batera joan, eta filistintarrak beren onera ziranean, Sansonen billan abiatu ziran. Soldadu-talde andi bat bildu, eta Judako alderdira joan ziran. Judakoak ainbeste gizon etxean ikusi zituztenean, bildurrak eman zien, eta ezagaturik, Sansonen eske zijoazela, berak jarri ziran, Sanson filistintarri ematera, beren buruak onela gordetzeko. Iru milla Israeltar elkar-arturik, Sanson gordeta zegoan lekura joan, eta esan zioten, ea ala aserrezotzeko kalteak zertako egin ziezten? Sansonek erantzun zien, berari egin ziotena, ordaintzea baizik etzuela egin. Israeltarrak esan ziotenean zertara zijoazen, ez iltzeko itza kendu zien. Soka lodiakin lotu, eta ezkutuan zegoan leize-zulotik aterarik, eske zebiltzaren eskuetan ipiñi zuten.

Filistintarrak ainbeste kalte gogorren egillea mendean artu zutenean, txit poztu ziran; baña gozoa laster mindu zitzaien. Sansonek, lotuta zeukaten soka biak, ari ustel bat zezala eten zituen: an bertan sortu zitzaion asto baten matrall-ezur batekin, lenengo ukituan milla filistintar il zituen, eta gañerakoak, al-zuten tokira, igesi joan ziran. Sanson etsai gabe arkitu zanean, lurreen etzan zan. Bere atsedenean zegoala, egarriak eman, eta etsaien eskuetan eroriko zan bildurrak artu zuen. Esturasun onetan zeruronz begiak ipiñirik, Jainkoari esan zion: Zu zera, ni zure serbitzari onen bitartez, garaipen andi au irabazi dezuna; baña jauna, egarriak itotzen nauka, eta nere etsaien eskuetan erortzeko zorian nago. Jainkoa etzegoan Sansonez aztuta. Bereala matrall-ezurteko agin batean iturri eder bat sortu, eta emengo ur gozoarekin egarria kendurik, bizkortu zan. Mirari onegatik geroz leku oni *Matrall-ezuraren* iturria zeritzan.

Filistintarrak etsi zuten, Sansoni indarrez ezer egiterik etzegoala, eta artu zuten itsumustuan edo saldukeriaz galtzeko asmoa, eta beti aren ibillien zelatari zebiltzan, era ona topatzeko. Denbora gitxiren buruan Sanson Gaza zeritzan errira joan, eta ostatu batean sartu zan. Berri au erri guzian bereala banatu zan. Etxea soldaduz ingurutu, eta erriko atean kon-



tuartzalleak ipiñi zituzten, biaramonean, etxetik irtetean, iltzeko. Sanson, galbide onen kontu gabe, lo zetzan, eta gau-erdian esnatu zanean, etxetik irten zan, inor oartu gabe, edo, beintzat, ezer esatera, inor atrebitu gabe. Erriko atera joan, eta itxia arkitu zuenean, atea bere albo, buru, morrolo eta ubalakin sorbaldan artu, eta zama andi arekin mendi-gañera igo zan. Ateko kontuartzalleak ditxa anditzat zeukatzen, gizon izugarri hura aiezaz oartu gabe, bere bidean joatea; eta errikoak biaramonean atea mendi-gañean ikusi zutenean, jarri ziran, Sansonez zer esan etzietkela, eta Jainkoa gizon-antzean, edo gizon utsa ote zan zalantzan.

Gorputzez etzan besterik baño geiagoa. Etzuten ikusten Bazango Errege Og, lau kana eta erdi luze, eta bi zabaleko oia bear zuen, denbora bateko Zentoi edo Jigantea bezalakoa. Ala ere, egiten zituen indarrezko lanak, berez ezin zitzakeanak ziran; eta pensatzen zuten, bazuela ezer isillan bat, alako indarrak ematen ziozkana, eta aien eresi guzia au jakitea zan. Onetarako bidea zorigaitzean laster eratu zitzaien. Sanson, Gazako atea mendira eramanda, gero auzoan zegoan Sareko ibarrera joan zan. Emen bizi zan Dalila zeritzan emakume filistintar bat, zeñarekin adiskidetan egin, eta emaztetzat artu zuen, San Jeronimo eta San Juan Krisostomoren iritzian, Eskritura Santak, maite zuela baizik, esaten ezbadigu ere.

Filistintarren bost Prinzipeak, Dalilarekin Sansonen arteko adiskidetasuna jakin zutenean, Dalilari etorri zitzaiozkan, esatera, baldin Sansoni ateratzen bazion, zerk alako indarrak ematen ziozkan, dirutza andiak saritzat emango ziozkatela. Dalilak, eskatzen zutena egiteko itza, eman zien. Sansoni bereala galdez asi zitzaion, ea zerk ala indartsutzen zuen, eta zerekin lotu zitekean, indarrak ez egiteko? Sansonek erantzun zion, ede-larruz edo este berriz egindako lokarriakin lotutzen bazuten, etzala besteak baño geiago izango. Andre desleialak bereala filistintarren Prinzipeai gaztigatu zien: isillik beren zazpi sokakin etorri ziran; Dalilak lotu zuen; eta filistintarrak etxeko bazter batean gordeta zeuden, lanbide hura zertan gelditzen zan, edo nola irteten zan, ikusteko. Dalilak, bada, Sansonek egia esan ote zion, jakiteko, deadar egin zuen: Sanson, filistintarrak gañean dituzu. Sansonek, ots onetara, sokak mullo-ari samur bat bezala, eten zituen, eta edozeñi gogor egiteko eran jarri zan.

Dalilak bere espak agertu ziozkan, egia esan etziolako. Berriz ere eskari berean leiatu zitzaion; eta Sansonek esan zion; baldin zazpi soka ezertan erabilli gabekoakin lotuko banindute, beste gizonak bezala, aul geldituko nintzake. Dalilak, leneko aldian bezala, oraingoan ere egin zuen; baño alperrik: Sansonek sokak eten, eta bere indarrakin gelditu zan. Dali-

lak lenago baño ere espasun geiagorekin gezurra arpegian eman zion, esanaz, bein edo bein agertzeko eskatzen ziona. Sansonek gogaika eta aspererazo naiez, berriz ere esan zion, baldin illea zazpi txirikordatan ipintzen bazion, eta ilze batekin lurrean josi, indar gabe geldituko zala. Sanson lo zetzala, esan guzia Dalilak egin zuen: baño otsetara esnatuta, burua dantzatu utsarekin, len bezala jarri zan. Oraingoan Sanson bere ondame-nera asko urreratu zan: illeen aitamenik etzuen egin bear, zeren indar guzia oietan zeukan; baño sarera ez-arian zijoan, gero osotoro erortzeko.

#### 4. Sansonen menderatzea

Aldi onetan Dalilak alegin guziak egin zituen, Sansoni agerterazotzeko. Esan zion, ondo ezagun zala, asko nai etziola: iru aldiz etzana esanda, engañatu zuela. Beti negarrez zegokion. Sansonek asko zeraman, ez esan naiez: baño atzenean Dalilaren leia gogaikagarriak easan, eta biotza txit illundu zitzaion. Orduan emakume zorigaitzokoak berea egin zuen, eta soldadu-talde andiak menderatu ezin zutena, azpiratu zuen. Sansonek agertu zion, beregan beti gorde bear zuena, esanaz: Nere buruan egundano ez da burnirik jarri, zeren nazarenoa naizan, au da, amaren sabeletik Jainkoaren serbitzorako eskeña: illea ebaki ezkerro, indarrak iges-egin-go liket, eta beste gizonen gisan, aul izango nintzake. Dalilak Sansonen itzketa onetatik ezagutu zuen, nai guzia ateraerazo ziola. Filistintarrak bereala gaztigatu zien: oiek etorri, eta ezkutuan jarri ziran; baño Sansonen zazpi txirikordak ebaki, eta burua moztutzeak zer egiña zeukan: bildurtzen ziran, alabañan, gogoratzean, zer zerabilten Sanson oartzten bazitzaien, Dalila eta onek erakarritako filistintarrak lenbizi ondatuko zituela. Irrisku gabe guzia egiteko, bazkari andi, lo-belarrez ondo koipetua, maneatu zion, eta jan zuenean, lo pisu batek artu zuen, eta Dalila illea moztu, eta burua garbi-garbi utzi zion. Gero, beste aldietan bezala, otsegin zion: Sanson, filistintarrak gañean dituzu. Egiaz, filistintarrak gordelekutik irtenda, eskuak ezarri ziozkatzen, eta len bezala, bere burua gorde, eta etsaiak galdu naiez, asi zanean, indar gabe arkitu zan.

Kateakin bereala lotu zuten, eta beste lanetara baño lenago, bi begiak atera ziozkatzen. Onela burniz ondo loturik, eta begiak gabe, Gazara eraman zuten, ikusi zezaten, erriko atea mendira eraman zituen gizon indartsua menderatuta. Zer neke eta aztapoak bidean, eta isekak eta farrak errian eraman bear izan zituen jakitea eta esatea, erraz ez da. Zar eta gaz-



teak, andi eta txikiak, gizon eta emakumeak elkarren leician zijoazkion zirikatu eta nekatzera. Sansonen eramankizunak etziran onetan gelditu. Itxian sartu, eta ipiñi zuten, astoa balitz bezala, errotarriari eragiten. Filistintarrak garaipen onen izenean pesta andiak egin zituzten. Baña lenengo egunetan egindakoak bear ainbat etzeritzatelako, erabaki zuten, jende guzia batu, eta pesta guzizko bat geroago egitea. Onetarako bear ziran prestamenak egin, eta illabete batzuen buruan Prinzipe, andizki, eta gañerakoak Gazara bildu ziran. Dagoni ere agur-egin bear zioten, eta lan onetarako jainko gezurrezko onen elizan sartu ziran. Onen bazter eta zulo guzietan etzan jendea baizik ikusten; jan-edanak baizik egiten. Guzuen poza eta atsegiña osotzeko, Sanson eramane zuten, nai zuenak nai zituen iseka eta farrak egiteko. Sansoni buruko illeak ordurako azi zitzaiozkan, eta bere indarretan sartzen zijoan, filistintarri gogoak ematen ezbazien ere. Elizak erdi-erdian zituen bi pillare, estali eta eliza guziari eusten ziotenak. Oien bitartean Sanson ipiñi zuten, isekaz ondo asetzeko: eta beren bidegabekeriakin gogaikaeragin ziotenean, itsu-aurreko egiten zuenari esan zion, utzi zizaiola pillareai ukitzen, atsedeteko aitzakitan. Sanson jarri zan, bi pillareai ukitzen ziela: Jaunari lenagoko indarrak eskatu ziozkan, etsai dollor txar guziak beingoan ondatzeko. Jainkoak bere eskaria entzun zion: bi pillareak esku banakin artu zituen: eta «Ni nerau il nadin filistintarrakin batean» esanaz, biak elkarri joerazo zien, eta eliza guzia lurrera ezarri zuen, eta bera eta filistintar guziak lertu ziran.

Egikera miragarri, filistintarren bazter guzietara izu-ikara zabaldu zuena! Bost Probinziaetan etzan etxerik, ukitu etzitzaionik. Prinzipeak, andizkiak, eraentzalleak, gazteririk ederrena, pesta andi hura egitera leku guzietatik bildu ziranak, bat-batean arri eta zabor-pean geratu ziran. Sansonen senideak jakin zutenean, Gazara bereala joan, eta Sansonen gorputza arturik, Israelera eramane zuten, eta Juez bati zegokion proguarekin, bere aita Manueren ondoan lurpetua izan zan.

Sanson bere etsaiakin batean il zanean, filistintarrak gelditu ziran ezertako kemen gabe, eta Israeltarrak pake andian: baña oiek etzuten jakin, bear zana egiten. Etxeetan gelditutako filistintar banakak osotoro ondatu bear zituzten, bururik geiago goratu etzezaten; baña orduan, orduan bezala, iñori neke biderik emateko gai ikusten etzituztelako, pakean utzi zieten, eta oraingo utsegite au gero nozitu zuten.

## 5. Heli, amalaugarren Jueza

Egun gitxiren buruan Sansonen oñordekotzat autu zuten *Heli* zeritzana, eta Israelko amalaugarren Jueza. Israeltarrak ondo joateko, begiak erasolari eta egille bategan Juezetako ipiñi bear zituzten; baña autu zuten Heli gizon ona eta zuzena, bai, baña biotz illekoa. Heli denbora berean Apaiz-nagusia zan; berrogeita emezortzi urte zeuzkan, eta alde onetatik ere, ez, pisu andi biak jasotzeko, egokiena. Ala ere, lanbide bi oiek bere kontura luzaro iduki zituen, zartuta ezin bestez, bere bi seme Ofni eta Finees, zerbait bera arintzeko, lagun artu artean: eta lan onek Heliren etxeko ondarena, eta Israelen galbidea ekarri zuen.

Helik ezin egin zezakean aukera kaltarkitsua gorik, bere semeena baño. Gizon gaizto lege gabeak, eta Eskritura Santak dionez, Belialen humeak ziran. Gaiztakeria eta gaiztakeria zerabilten. Aita ezer eziñera zanean, len bere eginkizunen zati bat ematen zien bezala, gero eliz-atean aulki batean jarrita, berak aisa egin zitzaiekan lan banaka batzuek ez, beste guziak oien eskuetan ipiñi zituen, eta orduan lotsa gitxiagorekin nai zan gaiztakeria guzia egiten zuten. Israeltarrak zeramazkiten ofrendaetatik zati bat Eliz-gizonentzat zan; baña oien gogoak etziran zati onekin asetzen; geiago nai zuten, eta zenbat aldiz Jaunari eskeñi ere baño lenago. Atzenik, Jaunaren etxera agur-onak eta erreguak egitera zetozen andre bertutezkoak galdutzeko ausardia ere artzen zuten. Israeltarak espaka zeuden. Heliri alde guzietatik semeen kontra kejurak zetorzkion; ez-aditu edo ez-ikusi egin, eta ondo-esan utsak semeai egiñarekin, geiago gabe, uzten zituen: dirudienez, etzien naigaberik eman nai izaten. Baña Jainkoak, aitaren biguntasunaz, eta semeen lotsagabekeriak asperturik, Heliri Profeta bat bialdu zion, bere etxe eta etxekoen ondarena adieraztera. Esan zitzaion, Ejiptotik irten ziranetik arteraño, Apaiz-nagusitzak aren jatorrian iraun bazuen ere, beste batera aldatuko zuela; etxea eta etxekok ez-izanik gogorrenak artuko zituztela, eta bi semeak egun batean ilko zirala. Jaunaren esan zorrotz oiek etzuten Heli ipiñi, semeakin bear zana egitera: eta Jainkoak bigarren aldian Samuelen bitartez bere aserrea are argiroago adierazo nai izan zion. Emen dakuskun, Samuel zein zan.



## AMABOSTGARREN IRAKURGAIA

### 1. Samuel Profetaren jaiotza

Elkana zeritzan Eliz-gizon on batek, orduko legeak ematen zuen eskuarekin, zeuzkan bi emazte, Ana eta Fenena. Fenenak seme asko zituen; Anak batere ez ordea. Elkana urteoro Pazkoaz Silora joan oi zan, Tabernakuloan Jainkoari agur-onak egitera, eta sakrifizioak eskeñtzera. Bein batean, eliz-lanak eginda, gero jarri zan, bere bi emaztekin bazkaltzen. Fenenak, bere semeakin arroturik, Anari aurririk ez izana noiz-nai arpegira ematen zion, eta Anak, negarrez jarri, eta etzuen jaten. Elkanak esan zion, zergatik negar eginda, jaten ez dezu? Amar seme baño ni obe ez nazu? Ana, itzik esan gabe, otoitz-lekura joan zan. Jaunari erregutzen jarri zitzaion, esanaz, baldin seme izateko mesedea egiten bazion, bertatik bere serbitzorako eskeñiko ziola. Helik, atean eserita zegoan aulkitik, ikusi zuenean Jaunaren aurrean ezañak erabiltzen, itzik esan gabe, uste izan zuen, ordituta zegoala; baño Anak erantzun zion, alakorik etzala, ezpada bere zorigaitzak eragiten ziola ikusi zuena. Orduan Helik esan zion: pakean zoaz, eta Israelko Jainkoak dagizula, eskatzen dezuna. Ana Heliren diosal onekin pozturik, begi alaiakin senarragana itzuli zan, eta etzitzaioren tristurarik geiago sartu.

Egunen buruan izan zuen seme bat, eta izentzat Samuel eman zion. Iru urtean Anak berekin iduki zuen, eta bularra kendu zionean, ait-amak aurrarekin joan ziran, mesede berri onen eskerrak Jaunari ematera. Oi zituzten eskeñi, eta ofrendak egin ziozkaten; eta Heliri aurra aurkeztu zioten, Anak esanaz: Ni naiz, jauna, zure aurrean Jainkoari eskariak egin niozkana: aur onen eske negokion; eta Jaunak eman dit, eskatu niona; beragatik bere bizi guzirako Jaunari itzultzen diot. Elkana eta Anak Jainkoa adoratu zuten; eta aurra Heliren eskuetan utzirik, etxera pozez biurtu ziran.

Samuel, bada, Jaunaren etxean azi zan, ordu guzietan bere serbitzorian zebillela, eta guziak arritzeko adiña ontasun eta jakinduria beretzen zuela. Urteetan sartu zanean, Helik eliz-soñekoak janzi ziozkan, eta beti bere ondoan zerabillen. Jainkoak onen bitartez Heliri adierazo nai izan zion, semeen gaiztakeriak eta aitaren ez-ikusia zein gaizki artzen zituen. Gau batean Heliren ondoko gelan Samuel lo zetzala, esnatu zan, *Samuel*,

*Samuel*en ots batera; eta Helik otsegin ziolakoan, joan zitzaion, zer nai zuen, galdez. Helik erantzun zion, etziola deitu; lo egin zezala. Berriz ots berarekin esnatu zan; eta Helik berebat erantzun zion. Irugarren aldian esnatu zan, *Samuel*, *Samuel*en otsarekin, eta Heliri joan zitzaion, zertako deitzen zion, galdez. Orduan Helik ezagutu zuen, Samueli deitzen ziona Jainkoa zala, eta esan zion: zoaz, lo egizu, eta berriz otsegiten badizu, erantzun zaiozu; esazu, Jauna, bada, zure serbitzari au aditzen dagokizu. Samuel Loak-artu zuen, eta urrengo otsean esnatu zanean, Heliren esana egin zuen. Orduan Jainkoak agertu zion, Heliren kontra zeukan aserree bizia, bere semeai bear zana egin etzielako, eta aren etxeko guziak ondartzeko artu zuen asmoa.

Jaunarekin itz-aldi au eginda, Samuel lotara zan, goizean ateak idiki artean. Samuel bildur zan Heliri esateko, Jainkoak zer zion; baño Heliren leia ikusirik, guztia jaulki zitzaion, ezer ere estali gabe. Jainkoa da, Helik esan zuen, eta egin beza eder zaiona. Arritzekoa da Jaunak bialdu nai ziozkan nekeak artzeko, Helik erakutsi zuen biotz ona, zeñarekin, Elizako gurasoen iritzian, Jaunaren aserrea zerbait itzali zuen, eta damu egiazko bat artzeko lekua eman zion.

Samuel urteetan aurrera zijoan: Jauna berekin zuen, eta berari esan guziak, itzik ere galdu gabe, bete ziran: eta Israel guziak egiazko Profetatzat ezagutu zuen. Geroz Jainkoak Silon askotan biotzera itzegin zion, eta Samuelek, Heliri bere ondarena adierazteaz gañera, Israeltarrai ere esan ziezten, beren gaiztakeriakgatik zetozkitenak, laster ikusi zuten bezala.

Lenago esan da, filistintarrak zein gitxi ziran, Israeltarrai arpegi emateko, eta are gitxiago zezaketen, Sansonekin bururik geienak eta gazteri indartsuena ilda gero. Ala ere, Jainkoak oien bitartez Israeltarrek kastigatu nai zituen, ezagutu zezaten, berarekin guzia, baño bera gabe ezer ezin zezaketela. Israeltarrek, bada, gitxiena uste zuten egunetan, arkitu ziran filistintarrak gañean zituztela. Beren lurrean itsumustuan sartu zitzaieztenean, al-zan ondoena, eta lasterrena soldaduak bildurrik, bidera irten zitzaiezten; baño igesari bereala eman zioten, eta or-emen, ara-onara zebiltzala, lau milla il ziran. Israeltarrek arriturik, zer gertatzen zitzairen ezin asmatuz, zarrak batzarrera bildu ziran, eta elkarri galdetzen zioten, ea zergatik Jainkoak filistintarren aurrean onela kastigatzen ote zituen? Erabaki zuten, batalla eman bear zanean, Kutxa santa berekin eramatea, onen babesean garrantu uste zutelako. Itxaropen edo konfianza au ona zan; ordea Jaunaren aserrea itzaltzeko bideak, gaizki-egiñen damu egiazkoarekin lenago garbitu bear zituzten. Etzuten au egin, ezpada besteren



kontu gabe, Kutxa santa Silotik artu, eta soldaduak zeuden lekura eraman zuten.

## 2. Kutxa santaren galera

Kutxa santa ikusteak, Israeltarrai poz andia eman zien, eta atsegiñezko ots andiak egin ere zituzten, zeñak filistintarrak adituta, asi ziran, galdez, Israelen zer ote zan, alako poza ematen ziena: eta jakin zutenean, Kutxa santa ekarri zutela, bildurrak artu zituen; oroitzen ziran, alabañan, Ejiptotik irten ezkeroko ibilleraetan, aien lenagokoak artu izan zituzten zigorrada. Ala ere, buru eta agintariak ondo-esanaz, bizkortu zituzten, eta gogor egiteko prestatu ziran. Elkarri eraso bezain laster, Israeltarrak filistintarren mendean erori ziran. Ogeita amar milla Israeltar batallalekuan il ziran, eta gañerako al-zutenak, nork bere bazterrera, iges-egin zuten. Heli Apaiz-nagusiaren bi seme Ofni eta Finees ainbeste gaiztakeria egin izan zituztenak ere, Kutxa santaren ondoan il ziran. Baña kalte oiek etzuten Israelen ain min andia eman, nola Kutxa santa, irureunda berrogeita amar urtean berekin zeukaten, eta Jainkoak ainbeste aldiz itzezin ziren hura, filistintarren eskuetan uzteak.

Benjamingo igeslari batek, berri mingarri au Silora eraman zuen, eta esan zien; guzia galdu da, guzia galdu da: soldaduak ondatu dira, eta Jaunaren Kutxa etsaien mendean dago. Guziak negarrari eman zioten, eta etzan Siloko karrikaetan aieskak baizik. Heli Tabernakuloaren atean eserita zegoan, batalla ematen zan alderonz begira: Benjamintarra berri txar arekin joan zitzaion: esan zion, Israel ondatua zala, eta aren bi semeak il zirala. Heli berri oiek guziak entzuten, biotz andiarekin egon zan, gogoratuaz, Jaunaren eskua zebillela, merezi izan zuten kastigua ematen; baña esan zionean, Kutxa santa ere etsaien eskuetan zegoala, geiago ezin zuen; gorputzak dardarizazio andi bat egin zion; indarrak joan zitzaiozkan; aulkitik atzeronz erori zan; lepo-ezurra autsi zitzaion; eta Kutxa santa galdua zalako miñaren miñez il zan.

Etzan Heliren iltzea bakarrik egun oietan bere etxean negar-eragin zuena izan: bere errañ Fineesen emaztea aurgiteko bete-betea zegoan, eta aditu zuenean, Kutxa santa galdu zala, eta senarra eta aitagiarraba il zirala, sumiñak eman zioten, eta aurra mundura zuenean, bera il zan, aurrari *Ikabod* izena emateko beste leku gabe.

## 3. Filistintarren zigorrada

Filistintarrak Kutxa santa Azotora eraman, eta Dagon beren jainko gezurrezkoaren ondoan ipiñi zuten. Biaramonean elizara joan ziranean, arkitu zuten Dagonen idoloa, Kutxa santaren aurrean auzpez zetzala. Bereala bere tokira itzuli zuten; baña urrengo egunean, ez auzpez bakarrik, ezpada osotoro porrokatu, eta bere zatiak elizan banatuta arkitu ziran. Au biderik asko bazan, jainko hura gezurrezkoa zala ezagutzeko, eta Jainko egiazko bakarragana jartzeko: baña gertatu zitzaiena etzuten idolozeak aintzat artu.

Jainkoak Israeltarrai zegokien kastigua eman zien, ikusi dan bezala. Kutxa santa filistintarren eskuetan ipiñi zuen, eta gauza santa beronen bitartez filistintarrak ere kastigatu nai izan zituen. Ikusirik, idolo bizi gabekoan egindako kastiguarekin etzuela ezer aurreratu, bizidunakin asi zan. Lenbizi Azotoarrai ukitu zien. Zauri biziz bete ziran: sabelak utzi edo beerako latz batek eman zien, eta egun gitxiren epean, usai eta kirats nazkagarria zeriela, iltzen ziran. Onezaz gañera sortu zitzaiezen sagu-samalda izugarri, gauza guziak ortxikatzen zituztenak.

Azotoarrek ikusirik, Israelko Kutxa santa berekin idukitzetik, zer kalteak zetozkien, artu zituzten andik bialtzeko asmoak. Bost Probinziaetako buru edo Satrapak bildu ziran: galdetu zuten, ea Israelko Jainkoaren Kutxari zer egin bear zitzaion? eta Jetekoen esanera erabaki zuten, bost balleraetan erriz-erri erabiltzea, kalte aien egillea zein ote zan jakiteko; baña aien zorigaitzean, Jaunaren eskua toki guzietan zebillen, eta ilkintza gogorra egiten zuen. Akarontarrak ikusi zutenean, ara zeramatela, gogor egin, eta artu nai izan etzuten, besteai egin ziena, gertatuko zitzaien bildurrez, eta esan zuten, bere tokira eraman zedilla.

Kutxa santak filistintarren lurrean zazpi illabete egin zituen, eta etsi zutenean, au berekin zuten artean, aientzat onik etzegoala, erabaki zuten, Israelera bialtzea; baña nola bialduko zan asmatzeak buru auste andiak ematen ziezten. Gauza onen gañean idoloen apaiz eta aztiai galdeak egin ziezteen; eta oiek erantzun zuten, etzezatela Kutxa utsik bialdu, ezpada eskuerakutsi eta ofrendakin, beren gaitzetatik sendatu nai bazuten. Esan zieten, zer eta nolako eskuerakutsiak egin, eta nola bialdu bear zuten.

## 4. Kutxa santaren itzulera Israelera

Oien iritzia arturik, era onetan abiatu ziran. Gurdi berri bati erantsi zozkaten bi bei hume-egin-berri, uztarrian beñere lotu gabeak, itxian tx-





lak utzita. Gurdian ipiñi zituzten Kutxa santa, eta onen ondoan ofrendak edo eskuerakutsiak, eta utzi zieten, nai zuten tokira joaten. Aztiak esanda zeukaten, beiak onela ipiñita, Israelko lenengo erri Betsameseronzko bidea artzen bazuten, sinistu zezatela, gaitz aiek guziak bialtzen zieztena, Israelko Jainkoa zala. Beiak zuzen-zuzen orroika eta marrumaz Betsameseronz zijoazen, filistintarren Satrapak, zer egiten zuten ikusteko, ondoren zituztela: eta Betsamesko baten lurrera ziranean, gurdia gelditu zan. Betsamestarrak ikusi zutenean, Kutxa santa zijoakiela, txit poztu ziran, eta gelditu zanean, beiak il, eta zatitu, eta gurdi-zurarekin sua egiñik, Jau-naren izenean erre zituzten. Bost Satrapak lanbide guzia ikusi, eta beren errietara itzuli ziran.

Debekatua zegoan, apaiz etziranak Kutxa santari, estali gabe zegoanean, begiratzea, eta are zorrotzago, ukitzea. Betsamestarrak benturatu ziran estalia kentzera, ez ezik, barrunen zeuden mana-ontzia, legeko olak, eta Aaronen zigorra ikustera ere. Jainkoak ausardi onegatik il zituen, kutsutu ziran guziak, eta gañerakoai bildur andia sartu zitzaizen, Kutxa santa berekin idukitzeko. Betsamestarrak, bada, Kariatiaringoai gaztigatu zieten, nola filistintarrak Kutxa santa ara ekarri zuten, eta berekin eraman zezatela. Kariatiarintarrak etziran, besteak bezala, izutzen, eta aginduta zegoan eran eta lagunakin arturik, beren errira eraman, eta Abinadab zeritzan Eliz-gizon on baten etxean, bere seme Eleazaren kontura ipiñi zuten, eta ogeita amar urtean emen egon zan.

## 5. Samuel, amabostgarren Jueza

Lenago esan da, filistintarrak Kutxa santa beretu zutenean, Heli eta onen bi semeak il zirala. Israeltarrak Juez gabe arkitu ziran, eta Heliren lekurako Samuel, amabostgarren Jueza autu zuten. Samuel ain gizon ona, eta Jainkoaren bildurrekoa izanik, Israelen eraena bere gañ artuta, bereala gauzak zuzentzera leiatu zan. Baña naigaberik andiena ematen ziona zan, Israelarren artean Jainko egiazkoa gezurrezkoakin nastuta egotea. Geienak egiazkoa ezagutu, eta aitortzen zuten; baña baziran asko, gezurrezkoak adoratzan zituztenak; eta oiek bide onera ekartzeko alegin guziak egiten zituen. Beti baziardun esaten, jainko gezurrezkoai biotzean leku egiten zioten bitartean, etzutela onik izango. Onelako ondo-esanakin asko irabazi zuen, eta Jainkoa bere alde ekarrita, etsaien bildur andi gabe jarri zan. Filistintarrak bein bakarrik eraso zioten, eta orduan osotoro

ondatu zituen, eta Israel pake gozoan gelditu zan. Bere bizian eraman zituen neke andiak esanik, urteak baño lenago zartu zan: eta irurogeita bat urtekoa zala, bere lanetan zerbait arindu naiez, bere eginkizunen alde andi bat bere bi seme Joel eta Abiaren eskuetan ipiñi zuen: baña semeak etzioten aitari erantzuten; etziran aita bezain onak semeak izan. Diruzaletu ziran, eta diruaren truke bidegabekeria asko egiten zituzten, eta eginkizunak ere etzituzten bear bezala betetzen. Israelko zarrak au ikusi zutenean, Samueli esan zioten, bera zartu zala, eta semeak etzutela gauza onik egiten, eta emateko Errege bat, aginduko ziena, beste jendeak zituzten bezala. Eskaera au Jainko beraren kontra zijoan. Jakoberen ondorea bere Erritzat artu izan zuen ezkerro, bera bakarrik zan aien Errege, aien kontua zeukana, eta aldi guzietan begiratzen ziena; eta orain Erregea eskatzea, hura utzi, eta beste bat artu nai izatea zan.

Samuelek erantzun zien, Erregetzat gizon bat artzearekin, etzutela ezer irabazten. Orduraño, aita batek bere humeai bezala, Jainkoak begiratu ziela: bere biotz gozo biguñak ondasun andiak eratu izan zieztena: oien truke aren agindu arin-errazak betetzen leialak izatea baizik eskatu etzieda. Inoiz neketan arkitu baziran, oroitu zitezela, berak beren gaiztakeriakin bideak eman zituztelako izan zala. Baña Erregearen mendean bein jarri ezkerro, berak eta beren seme-alabak onen uzta-pean bizi bearko zirala, serbitzo umill eta palenak egiten, eta Erregearen anditasuna gordezteko, beren izanak eta ondasunak ematen. Atzenean esan zien, Erregeaz ondo aspertuta, Jainkoari eskatuko ziotela, arren, aren mendetik ateratzeko; baña Jauna gor-egingo zitzaielda.

Oiek eta onelako beste esan asko, Jainkoaren aldetik Samuelek egin zieztenak, alperrik izan ziran, Erregearen eresiatik ateratzeko; eta Samuelek Jaunari galdetu, eta Jaunak erantzun zionean, zer egin bear zuen, Israelko zarrak, nor bere etxera, bialdu zituen, lanbide hura zertan geldituko zan etzieda.



## AMASEIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Israelko Erregeen asiera. Saul, lenengo Erregea

Benjamingo Tribuan, Gabaako errian bizi zan gizon bat, Zis izena zuena. Gizon onek zuen seme bat *Saul* zeritzana, gazte eder liraña, eta sorbaldaz goikoa besteai eragiten ziena. Aitari astakume bi galduta, Saul etxeko morroi batekin asto billan joan zan; eta or-emen jira-bira asko egin arren, etzituen topatu. Saulek morroiari esan zion: etxera otsemazu, aita gure ibillerari luzetsita egon ez dedin. Morroiak erantzun zion: Ramatako erri onetan bada Jainkozko gizon ots andiko bat, egiak esaten dituen; eta goazen, zer dion. Errian sartuta, karrikan zijoazela, elkar topoz-topo egin zuten Samuelek, zeña Saulen bidera irten zan, lenagoko egunean Jainkoak esan ziolako, biaramonean ordu berean Benjamingo gizon bat bialduko ziola, Israelko buru egin zezan. Samuelek Saul ikusi zuenean, Jainkoak esan zion: Ori da atzo esan nizun gizona: orrek nere Errian aginduko du. Saulek galdetu zionean, ea non bizi zan, gauza isillak eta galduak asmatzen zituen gizon hura? Samuelek erantzun zion, bera zala, eta arren joan zedilla: Saulek gogoan zeuzkan gauza guziak esango ziozkala, eta astakumeaz etzezala konturik izan; bada, agertu zirala. Samuelek Saul janlekura berekin eraman, eta maiburuan ipiñi zuen; eman zion berariaz arentzat gordeta zeukan aragia, eta Saulek jan zuen. Gaua elkarrekin egin da, biaramonean egun-sentian biak irten ziran, eta erriko atera ziranean, Samuelek Sauli esan zion, morroia aurrera bialtzeko; bada, Jaunaren ize-nean bakarrean itzegin bearra zeukala. Biak bakarrik jarri ziranean, Samuelek oliontzia artu, eta olio burura isuri zion, esanaz, Jainkoak Israelko Erregetzat igortzi zuela: eta Samuelek esana egia zalako sinaleztzat, esan zion; argandik aldegin da laster, Rakelen lurpe-leku-ondoan topatuko zituela bi gizon, esango ziotenak, astakumeak agertu zirala, eta semea ageri etzizaiolako miñez, aita zegoala: gero topatuko zituela best iru ere, bi ogi eskeñiko ziozkatenak. Andik laster ikusiko zuela Profetasaldo bat, soñuera asko jotzen, eta etorkizunak agertzen, eta berak ere, aiek bezala, geroko berriak emango zituela; eta arkituko zala, gizon berri bat egiñik: Galgalara jatxi zedilla, eta zazpi egunean itxedon zezala, eta

orduan joango zitziola, zer egin bear zuen, esatera. Samuelek aldegin zuen, eta Saul arkitu zan beste bat egiñik, edo len etzituen doaiez janzirik. Arteraño etzikien, uzta-idi batekin soroko lanak egiten baizik; arteraño, berak aitortzen zuen bezala, aren etxea Tribu guzian beeranekoa zan; beragatik bere esan-egin, eta ibilleraetan ez-jakin, eta moldakaitz bat zan; baña geroz Errege bati dagozkion doai guziakin janzita gelditu zan. Saul bere bidean joan zan, eta guzia, Samuelek esan bezala gertatu zitzaion; eta etxera zanean, bere oiturazko bizitzari ekin zion, eta lur-lanetan ziardun.

Bitartean Samuelek jendea Masfara bildu zuen, eskatzen zuten Erregea emateko; baña etzuen agertu nai izan, Jainkoak nor zeukan artarako autua, ontzat artuko etzuten bildurrez; eta esan zien, zotz egin zezatela, edo suerteak bota zitzaatela, zein izango zan, jakiteko. Samuelen esana egin zuten; eta zotza Sauli erori zitzaion. Ibiltaririk azkarrenak bereala beraren billan joan, eta guzien aurrera ekarri zutenean, ikusi zuten, beste guziak baño askoz luzeago zala; bada, besteen neurritik sorbaldaz goikoa geiago zuen. Orduan Samuelek esan zion: Ara Jainkoak zuen Erregetzat zein autu duen: eta erri guziak deadar egin zuen: *Erregea bizji bedi*. Gero joan ziran nor bere etxera, eta Saul ere berera bai, soldadu-talde bat kontuartzalle zuela. Saulek bere soro-lanetan baziardun, ezer izan ezbalitz bezala, Erregeari dagokion anditasunik artu gabe: eta illabete ozta joan baño lenago, Amontarren Errege Naasek Israeltarrai eraso zion, Jabes Galaadko zeritzan urian sartu naiez. Urikoak zerekin arpegi eman etzutela, Naasen eskuetan erortzeko zorian arkitu ziranean, aren mendeko izateko itzean pakea eskatu zioten; baña Naas arroak erantzun zion, etzegoala aiekin pakea egiterik, guziak eskuiko begia atera artean.

Jabestarrak Naasi zazpi eguneko tokia eskatu zioten; eta Naasek, edo gogorrean ekiten bildur zalako, edo Israeltarrak artu zitzatekean prestamenak ezertan etzeuzkalako, edo Jainkoak bere asmazio miragarriak egiteko itsutu zuelako, eskatutako lekua, beintzat, eman zion. Jabestarrak Gabaakoai gaztigatu zieten, zer esturasun larrian arkitzen ziran, eta, arren, laguntzeko. Gabaatarrak beren auzoa nola zegoan jakin zutenean, ikaratu ziran, eta negarrari eman zitzaiozkan. Onetan sortu zan Saul, sorotik bere bi idiakin zetorrena, eta esan ziotenean, zerk ala ipiñi zituen, bi idiak il, zatitu, eta Israel guzira zabaldu zituen, esanaz, aragi aiek bezala, zatitua izango zala, ari eta Samueli etzerraikiena.

Saul Errege berriak agindua bertatik egin zan, eta Jainkoaren bildurra Israelarren biotzetan sarturik, guziak, gizon bat bakarra baziran bezala, bildu ziran; eta zenbateturik, irureunda ogeita amar milla gizon armadun arkitu zituzten. Seigarren egunean Jabestarrak gaztigatu zieten, biara-



monean eguzkiak berotzerako laguntza joango zitzaiea. Saulek gauean bere armadun guziak iru soldotan ipiñirik, Amontarrai isillik itsumustuan sartu zitzairen, eta prestatzeko lekuri ere eman gabe, iru orduan, eguzkiak indarra artu arteraño, iltzen aritu ziran. Jabestarrak beste aldetik eraso zieten, eta alako eran ondatu zituzten, non, iges-egin zutenak ere etziran elkarrekin bi gelditu, ezpada al-zuten lekura banaka joan ziran.

Garaipen onen ondoren bereala, Israeltar guziak Saul Erregetzat ezagutu zuten; eta len Masfan suertea eginda, ari erori zitzaionean, ezagutu nai izan etzuten askok ere, orain burua makurtu zioten, eta Saulek beren gaizki-egina barkatu zien, debekaturik, orduan leial izan zitzaiozkanak besteai gaitzik egitea, gogoak eman zien bezala.

Ogeita lau urte ziran, Saul Errege egin zanean, Samuel Juez zala. Onek bere agintea utzi bear zuen, eta bere azken-ondo-esanak Israeltarrai eman nai izan ziezten. Gogoraerazo ziezten, Ejiptotik irten ezkerko Jainkoagandik artu zituzten mesedeak; zein aita ona izan zuten; zein biguntasun andian Juezen bitartez eraendu zituen; ala ere zenbat aldiz bere kontra jaiki ziran: izan zitezela Juezen denboran baño Erregeenean leialagoak, Erregeak eta berak zorionekoak izan nai baziran. Oiek eta beste ondo-esan asko eginda, bere agintea utzi zuen, eta Israelko Erregeena asi zan.

Saul Errege jarrita, lenbiziko bi urte-barruan filistintar, Amalektar eta beste etsaiak eraso gogorak eman ziezten, baita guziz ondatu ere, Amalektarren Errege Agag atzemanik. Saulek baziakien, Israeltarrak beren etsaietatik gordetzeko, Errege egina zala: eta aldi batean lanbide au ondo bete zuen; baño denbora berean utsegite andiak izan zituen, etzegokion Apaiz-lanetan bein baño geiagotan sartu izan zalako, eta Jainkoak argiro aginduak bear bezala egin etzituelako. Beragatik Samuelen bitartez jaunak gaztigatu zion, Israelko Erregetzak bere etxean edo semeetan etzuela iraungo, ezpada bere gaiztakeriakgatik, bere egunak joandakoan, best batgana aldatuko zuela: eta au Dabid izan zan. Baña onen bizitzari asiera eman baño lenago, deritzat txit egoki izango dala, bere aurreko batzuen berri ematea, ezagutu dedin, zer jatorrikoa zan.

## 2. Rut

Arestian aitatu diran Juezetatik baten denboran, Israelen sortu zan gosete latz bat, jendea auzo-errietara zabaldu zuena. Askoren artean Belengo senar-emazte Elimelek eta Noemi ere bi semerekin Moabeko

erreinura joan ziran. Senarra laster il zan, eta Noemi gelditu zan bi seme-txo Maalon eta Zelionekin. Noemi Moaben bizi izan zan, Israelera itzuli gabe, semeak ezkon-urteetara igo arteraño; eta ezkonerao zituen Moabko bi neskatx Rut eta Orfarekin. Amar urteren buruan bi anaieak, ondorengorik utzi gabe, il ziran, eta Noemi senarra eta semeak gabe geratu zan.

Bere burua ikusirik ain izaera negargarrian, eta naigabe eta oroipen tristeak baizik Moaben etzuela; eta jakinik, Israelen goseteak aldegin zuela, artu zuen, bere errira itzultzeko asmoa, bere aideen artean ezurrak uztera. Bi errañ Rut eta Orfak txit asko nai zioten, eta alegin guziak egin zituzten, berekin Moaben idukitzeko; baño amagiarrabak nai etzuen, eta atzanean, ezin bestean, erabaki zuten, ama on ari bidean lagun-egitea. Zerbait ibilli ziranean, Noemik esan zien etxera itzultzeko; zoazte, ene errantxoak, zuen ama onaren ondora, zion; Jainkoak erruki zaitzabela, nere seme eta nizaz errukitu zeraten bezala, eta senar on batzuek eratu dizazkizutela. Au esan, eta laztandu zituen. Orduan errañak negarrari eman zitzaiozkan, esanaz, zurekin zure errira joango gera. Baña Noemik erantzun zien, ezez; bada, ark etzeukala beste semerik, senartzat emateko, eta ezin izan ere zezakeala, eta etzituela gaizki ikusi nai. Gisa onetako itzaldi luzearen ondoren, Orfa etxera itzuli zan; baño Rutek etzuen nai izan, eta osotoro jarri zan, amagiarrabarekin Israelera itzultzera.

Zer banakatze desberdiña aizpa bata eta bestearentzat! Orfa Moabera jainko gezurrezkoak baizik ezagutzen ez diran lekura dijoa, eta betiko ondameneko bidera: eta Rut, berriz, Jainko egiazkoari agur-egiten zaion Israelera. Rutek, bere etxe, aide, adiskide eta besteak utzita, Noemiri jarraitzarekin agertu zuen, bide zuzenean jartzeko biotz ona, Jainkoak laster saristatu zion.

Noemik, Orfa itzultzen ikusi zuenean, Ruti ere esan zion, aizparekin bere errira joan zedilla; baño Rutek erantzun zion: ez, ez naiz itzuliko; zu nora, ni ara noa: zu gelditzen zeran lekuan, ni ere an geldituko naiz. Zure Jainkoa nerea izango da. Zu ildakoan, artzen zaituen lurra, ni ere artuko nau. Noemik, Ruten irmoa ikusirik, etzuen geiago beartu, errira itzultzeko, eta bideari ekinda, Belenera iritsi ziran.

Berri au bereala barreatu zan, eta amar urte baziran ere, irten zala, aren ontasun eta ondasunaz oroitzen ziran, eta orain ezer gabe zekusatenean, Belengo emakumeak otsegiten zuten: Zer! Au Noemi da? Au anziñako Noemi aberats hura da? Eta Noemik erantzuten zien, ez *Noemi* (zeñak ederra esan nai du), ezpada *Mara* (zeñak miña esan nai du), deituzeko; zeren Jainko altsuak naigabez bete nauen, zion. Aberats irten nin-



tzan, eta uts-utsik nator; au esaten zien, ondasun asko eta senar eta semeakin aldegin, eta orain guziak galduta, arkitzen zalako.

Uda zan, Noemi Rutekin Belenera iritsi zanean, eta garagarak itaitutzeko sasoi; eta Jainkoak emendik artu nai izan zuen, bere asmo andiak egiteko oña. Noemiren senar Elimelekek, Belendik irten zanean, utzi zuen aide ur txit aberats, eta asko zezakean bat, Booz zeritzana. Rutek amagiarraba ikusirik, bien zer jana eratzeko, zenbat nekatzen zan, bein batean esan zion, baimena ematen bazion, soro batera joan, eta uzten bazioten, igitariak erortzen zitzaizten garagar-buruak bilduko zituela. Zoaz, ene alaba, Noemik esan zion. Ala bearra: Boozen sorora joan zan, eta lanketa berri onetan asita bereala, Booz agertu zan, eta igitarien kontuartzalleari galdetu zion, ea neskatz hura nor zan? Ori, Noemirekin Moabetik etorritako bat da, erantzun zion: eskatu zidan igitariak erortzen zitzaizten buruak biltzen, arren, uzteko, eta goiz ezker, etxera ere gabe, ortxe dabil. Booz, au aditutakoan, Ruti joan zitzaion, eta esan zion, etzedilla andik inoratu; aren neskatzakin batean garagar-buruak bildu zitzaizala, eta egarritzen zanean ere, serbitzariak edaten zuten lekuan edateko. Rutek, auzpez jarririk, agur andi bat egin zion, esanaz; Nondik datorkit onenbeste mesede zuk niri egitea, eta ni arrotz onen berri zuk izatea? Esan didaten, erantzun zion, zure amagiarrabarekin, alargundu zan ezker, egin dezun guzia, eta zure aide eta erria utzirik, onara etorri zerala. Jainkoak, bada, ordaindu zaitzala, eta sari on bat eman dizazula. Gero, Boozek esanda, igitariakin bazkaldu zuen, eta gelditu zitzaizkan ogizerra eta puskak berekin artuta, lanera itzuli zan.

Booz biotza bete zion Ruten bear-egiteko eresiak, eta morroiak esan ere zien, ez eragozteko, metaetatik artzen asten bazan ere, eta unetik unera, oartzaka bezala, garagar-buru batzuek bota zitzaizala, Rutek bildu zitzaion. Illunabartzera egin zuenean, buru bilduak aletu, eta amar lakarirekin amagiarrabari joan zitzaion. Esan zion, zeñen sororan ibilli zan, zein ondo Boozek artu zuen; eta berriz ere itaiteak zirauen artean joateko, esan ziola. Noemik erantzun zion; gizon ori, biziaz bezala, ildakoaz-ere errukitu da: gure aidea da; eta obe dezu orren neskameakin ibilli, beste bate-nera joanda, inork ezer egin ez dizazun.

Israeltarren artean emakume bat, aur gabe alargutzen zanean, senar zanaren anaia edo aide batekin ezkontzen zan, len esanda utzi dedan bezala: eta Noemik lege au gogoan zeukala, artu zuen, Boozekin ezer egin ote zitekean, ikusteko asmoa. Boozen ontasuna eta gizabidea bazekusan, baita errañ arrotz artzaz izan zuen biotz ona eta kupida ere. Ruti esan zion, bada: ene alaba, nik eratuko dizut ondo izateko bidea. Booz ori gure

aidea da; eta gaur arratsean larrañean garagar-aizetza du. Apaindu, urrin onez, edo usai gozoz igortzi zaite, eta soñekorik onenak jan zita, ara zoaz. Kontu egiozu, baña ark zu ikusi gabe, noiz jaten duen, eta noiz lo-etzaten dan, eta orduan isill-isillik zoazkio, eta oñetan jarrita, egongo zatzaio, zer egin bear dezun, berak esaten dizun arteraño. Noemik etzuen lanbide onetan gaitzik gogoan, ezpada senar zanaren aide batekin ezkon-erazotzea. Rut, amagiarrabaren esanera larrañera joan zan, eta ikusi zuen Booz, meta-ondo batean etzaten, eta loak-artu zuela, igerriz zionean, oñetan jarri zitzaion. Gau-erdian Booz esnatu zan, eta norbaitez oartu zanean, deadar egin zuen, nor zaitut? Zure serbitzari Rut naiz, erantzun zion: zure mantuarekin estali nazazu: esaten bazion bezala, nerekin ezkondu zaite, zeren nere aidea zera. Jainkoak bedeinka zaitzala, Boozek esan zuen, ez gazte, ez aberats, eta ez beartsu izateari begiratu diozulako. Ez ikaratu. Zuk eskatzen dezuna, nik egingo det, eta erri guziak daki, zu emakume on bat zerala. Ez dizut ukatzen, zure aidea nazula; baña bada beste bat ni baño lenagokoa. Onek artu nai ezbazaitu, biok ezkonduko gera. Gaua igaro zuten, Jainkoaren bildurreko batzuei zegokien eran, eta gero anega bat garagar eman zion, eta Rut Noemigana itzuli zan, eta zer gertatu zan, esan zion.

Israeltarrak auziak erabaki-lekuak edo Tribunalak errietako atetan idukitzen zituzten, eta an biltzen ziran eginkizun au zegokien gizon zar-eldu, eta besteak. Booz larrañetik erriko atera joan, eta aulkian jarri zan bere aldia zetorkion arteraño. Ruten aide urkoago hura ere an igarotzen zan, eta Boozek otsegin zion, zer egin bat bazuela, eta esererazo zuen. Erriko amar zarri ere otsegin zien; eta guziak eserita zeudela, bere aideari esan zion: Noemi, Moabko alderditik itzuli danak, dauka gure senide Elimeleken lur-erlo bat saltzeko. Berri au, emen dauden jaun oien aurrean, eman nai izan dizut. Erosi nai badezu, aide urragoa zeralako, zuri dagokizu, eta zuretzat izango da: baña gogoak ezbadizu agintzen, esan zadazu, zer egin nik, zure urrenekoak bezala, jakiteko. Aide onek erantzun zuen, erosiko zuela. Boozek esan zion: lur-erlo ori erostekotan, ezkondu bearko zera gure aide zanaren alargun Rut Moabkoarekin, aren izenak odolean dirauen. Aide onek bereala erantzun zuen: gai onetako nere eskualdi guziak uzten ditut, eta nere lekuan zu sar-zaite, gogo badezu.

Eskualdi oiek batek uzten zituenean, oñeko abarka erantzi, eta eskualdian sartzen zanari ematen zion, egindako uztearen sinitsgarritzat, eta geroz etzezakean itzeman ja. Boozek bada, abarka eskatu, eta besteak eman zion. Orduan Boozek, begira zeuden zar eta erri guziari, esan zion: Dakusute, Elimelekek izan zituen gauza guzien jabe egiten naizala;



eta Maalon, aren seme zanaren alargun Rut Moabkoa emaztetzat artzen dedala, aren izena etxean eta etxeoetan beti gorde dedin: ala da? Bai, gerok dakusgu, egia diozula; zar eta erri guziak erantzun zioten. Jainkoak egin beza emakume onekin, Rakel eta Liarekin egin zuena, bere izena Belenen gogoangarri izan dedin.

Booz eta Rut ezkontuta, Jainkoak eman zien seme bat, Obed zeritzana, Isairen aita, eta Dabiden asaba; eta onekin Noemiren gogo guziak bete ziran, eta aurra, inñude on baten antzean, azitzen amari lagundu zion.

Begiratu batean badirudi, Ruten joanera Boozen oñetara irrisku andikoa zala, eta Boozek ere etzuela ontzat artu bear; baña ala Rut, nola Booz bertutetsuak, eta Jainkoaren bildur andikoak ziran, okerrik egiteko: eta lanbide onetan Jainkoaren eskua zebillen; onela etxe on artan bere Seme Jesu-Kristoren iralgi zorionekoa gordetzeko: bada, Jainko gizondu onen asabaen errenkada luzean sarturik dauzkagu Booz eta Rut senar-emazte gogoangarriak, zeintzuetatik dator, arestian aitatu dan bezala, Dabid aldi bateko lana emango digun Israelko bigarren Errege andia.

## AMAZAPIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Dabid, Erregetzako autua

Jainkoak Dabid Eregetzat igortzitzeko kontua Samueli eman zion; baña Sauli bildur zitzaion, zeren, zer zerabilen, jakin ezkerro, gaizki begiraturiko zion. Ala ere, Jainkoari argia eskaturik, jarri zan, onek esana egite-ra. Belenera joan, eta Isai zeritzan baten etxean sarturik, eskatu zion, bere seme guziak eramateko. Zazpi zarrenak agertu ziozkan; baña Samuelek Isairi esan zion, ea aiek besterik etzuen? Bai, Isaik erantzun zion; badet beste bat ere, artzantzian dabillena. Erakarri zuen seme au, amabost urte-tik amaseirakoa, eta Dabid zeritzana. Samuelek, ikusi zuenean, zeraman olioarekin Dabid igortzi zuen, bere aita eta senideak zekustela, zertako zan, esan gabe: eta Samuel bere erri Ramatara joan zan, eta Dabid ere, bai, bere ardietara. Dabid ordutik zegoan Israelko Errege auturik; baña agintean etzan jarri, neke asko eta gogorren bitartez bideak idiki zituen artean.

Olioz igortzitze onek Dabid bere doai guzietan aldatu zuen. Arterraño mutil gaztetxo, artzantzian baizik etziekiena zan; baña geroz gizon sendo, indartsu, argi, iztun eder, azkar, eta beste doai asko, bere aldian ondo agertu zituenakin gelditu zan. Ingurumai aiek guziak bere kanzio gozo eta soñu pozgarriakin zoraturik zeuzkan. Kontrara Saul, Jainkoak utzi zion ezkerro, egin zan gizon biotz-gogor, izugarri, gozakaitz, infernutik irtena zirudiena. Errege onen serbitzariak, nagusiari, ain damurriatia eta tristuraz betea ikusirik, esan zioten, ekarriko ziotela soñulari bat, poztu eta alaituko zuena. Serbitzariak Erregearen bizitza atsekabezkoa onela arindu uste zuten; eta Saulek baiczkoa eman zienean, batek esan zuen, mendian ikusi zuela Isairen seme bat, arpa txit ondo jotzen zuena. Saulek bereala mandatariak aitari seme-eske bialdu ziozkan. Dabid etorri zan, eta Saulek bere eskutari edo eskudero egin zuen. Onek Sauli arpa jotzen zion, gozakaitz-aldiak eta barrungo illuntasunak artzen zuenean, eta alaitu eta poztutzen zuen. Gisa onetan bizi zirala, filistintarrak abiatu ziran Sauli eraso naiez, eta Saul ere bere aldetik prestatu zan, eta bidera irten zitzaien. Filistintarrak Terebintoko ibarrera joan ,eta mendi goitu bat artu zuten. Saul ere beste batera igo zan, eta luzaro aurkez-aurke menditik mendira egon ziran. Elkarri erasotzeko bata edo bestea ordekara jatxi, eta etsaiaronz igo bear zan; baña lanbide au perill andikoa zan. Onela zeu-



dela, filistintarrak gogoratu zitzairen, alde bakoitzetik gizon bana ipiñi, eta garailari irteten zana, bazaren jabe izan zedilla.

## 2. Goliat

Filistintarrak zeukaten zentoi edo jigante izugarri bat, Goliat zeri-tzana. Luzean iru kana eta laurden zituen. Indar andi eta begiratu aserre-koa zan. Jaka edo amilla bost arropa eta erdi kobrerekin egiña zuen; bernazakiak ere kobrez estaliak zituen. Makilla luze, amasei libra eta erdiko eztena erpiñean zuena zerabillen. Onela janzi eta prestatu, Israeltarrak ikusi zezaketen lekura irten zan, deadar egiñaz: nai zuena, irten zedilla, ari arpegi ematera; eta bizirik gelditzen zanaren aldekoak bestekoen nagusi eta buru izan zitezela. Goliategen ots oietan berrogei egun igaro zituen, eta Saulek, filistintar onen iseka eta farrak ezin eramanaz, artu zuen, jendea prestatu eta erasotzeko asmoa; baña soldaduak laborrian zeuden. Saulek au ikusirik, esan zuen, baldin inork Goliati gogor egin, eta benzutzeko biotzik bazuen, bere alaba emaztetzat, eta ondasun andiak emango zioz-kala. Dabid ordu artan Saulekin etzan, ezpada bere aita Isairen ardiak zaintzera itzulia. Ala bearrez, aitak bialdu zuen, bere iru anaia Saulekin soldadu zebiltzanetara zerbait jan-gauzarekin, nola zeuden jakitera. Dabid ara zan unean, soldadu-talde guzia prest zegoan, filistintarrak erasotzeko. Ordu berean Goliat, len bezala, lagun-artetik irten, eta betiko ausardi eta keñakin deadarka ziardun. Dabidek galdetu zuen, ea ala zer zuten? ea filistintar hura iltzeagatik, zer emango zuten? Eliak bere anaia zarrenak itz-keta au adituta, esan zion, ea an zer egiteko zuen? eta zertako ara joan zan? Ezagutzen zaitut, bai: gerratzen ikusi naiak onara ekarri zaitu. Dabidek anaigandik aldegin zuen, eta bere itzean zegoan. Saulek jakin zuenean, Dabidek zer zion, beregana erakarri zuen. Saulek, noizbait bere morroi izan bazuen ere, etzuen ezagutu, artzai-soñekoakin eta eguzkiak belztua zegoalako. Dabidek, bada, esan zion: Ez bedi filistintar argatik inor izutu; nik, joan, eta erasoko diot. Saulek erantzun zion, gatzetxoa zala, gerran oitutako filistintar bati, arpegi emateko. Orduan Dabidek arpegiko suarekin Sauli adierazo zion, bere biotz andia, eta Goliati erasotzeko zeukan eresia. Esan zion artzantzaz zebillela, otso edo leoiak ardia zeramaionean, ondora joan, eta ilda kentzen ziola; eta bereronz abiatzen bazitzaion, matraill-ezurak autsi eta uzten zuela. Orain berean, zion, filistintar orri joango natzaio, eta leoi eta otsoen atzaparretatik atera ninduen

Jainkoak, orren eskuetatik gordeko nau. Saulek erantzun zion: Zoaz, bada, eta Jaunak lagun dagizula. Baña Saulek etzuen nai artzai-soñekoakin joaterik, eta gerrako janzi eta armak eman ziozkan. Dabid etzegoan alako soñekoakin oitua, eta oiek utzirik, artu zituen artzai-soñekoa eta aballa bost arrirekin, eta Goliaten aurrera joan zan. Goliategen ikusi zuenean, makilla eta aballarekin beste arma gabe, Dabid zijoakiola, deadar egiten zion: Zakurra naizala uste al dek, makilla utsarekin niganatzeko? Ator, ator, mutikoa, ire aragiak aireko egazti eta lurreko pistien janari laster izango dituk. Dabidek erantzun zion, ikusiko zala, geiago nor zan. Biak prestatu ziran, elkarri erasotzeko. Goliat Dabidi bazijoakion, bere lanza luzearekin lenengo ukituan sabela zulatzeko ustean: baña Dabidek, zorrotik arri bat artuta, aballarekin erabilli batzuek gora-beera eman-ondoren, Goliati bota zion, eta bekokiaren erdi-erdian eman zion golpearekin, illotza lurrean ezarri zuen. Dabid korrika joan zitzaion, eta Goliat berari, gerrian zeukan ezpada, kendurik, burua ebaki zion. Filistintarrak, beren lagunik errutsuena ilda ikusi zutenean, igesari eman zitzaiozkan, eta Israeltarrak orpoz-orpo zerraizkiela, ilkintza izugarria egin zieten. Dabidek Goliaten burua Jerusalemenera eraman zuen, eta filistintar guziak izu-ikara andiak artu zituen, eta Israel pakean gelditu zan. Saulek bereala Dabidi lanbide onegatik ondo-nai edo amorio andia agertu zion, laster iguindu bazuen ere. Jonatas, Erregearen semearekin ordu onetatik Dabid adiskide egin zan, eta eskuerakutsi asko ere Jonatasek eman ziozkan.

Israel guziari egindako mesede au Saul Erregeak gogoan artuta, Dabid maite izan bearrean, bereala asi zan, gorrotoz begiratzen. Filistintarren ondamen onen ondoren Saulek Jerusalemenean egun batzuek eginda, gero Gabaa, bere errira joateko gogoa artu zuen eta bidaje onek Saulen biotzean Dabidganako aierkune bizia sortu zuen. Albo-errietatik Erregeari bidera irteten zitzaiozkan emakumeak, pandero-soñuan kantatzen zuten: *Saulek milla il zitu, eta Dabidek amar milla*. Itz oiek Sauli etzitaiozkan ondo erori, zeren uste izan zuen, Dabid geiagotzat zeukatela, Errege baño: eta ordutik izan ziran Dabiden eramankizun andiak. Emakume aiek etzituzten itz oiek, Sauli gaitz naita, esaten, ezpada adierazteko, Saulek millarekin baño, Dabidek Goliat utsa illarekin, filistintarrak kalte geiago egin ziela, eta Israeltarrak irabazi andiakoak izan zituztela; baña Saulek, dirudienez, gaiztoenera jo zuen, eta etzion geroz Dabidi begi onez begiratu.

Biamonean Saul bere gozakaitz-aldiak artu, eta Dabid arpa jotzen ari zitzaioa, il naiez lanza egotzi zion; baña Dabidek kolpeari aldegin zion; eta ezaguturik, zer perillean zegoan, Saulen etxetik irten zan. Saulek



bazekusan, Dabidek Jainkoa bere alde zuela, eta bildur zitzaion: eta begietatik bein kentzeko, milla gizonen agintea eman zion, eta aginte oni zegozkion lanak zintzo eginaz, Dabid bizi zan, Israelarren ondo-naia irabazten zuela; baña berebat Saulen gorrotoa anditzen zala.

### 3. Mikolekin Dabiden ezkontza

Saulek bere gogoz bertatik ilko zuen; baña ainbeste nai zitzaion gizon bat, agirian iltzeak ikaratzen zuen, eta filistintarren eskuetan galera-zotzeko asmoa artu zuen. Onetarako morroi batzuei deitu, eta esan zien, berez bazebiltzan bezala, Dabidi sinistertzat, Erregea adiskidetu zala, eta aren sui egin ere bazitekeala. Dabidek erantzun zien, ea hura Erregearen sui izateko nor edo zer zan? Morroiak esan zioten, etzala ansi ezer ez izana edo idukia. Erregearen sui-gaiak izan zezakean gauzarik gogokoena zala, eun filistintarren giza-siñaleen zatiak eramatea, Erregearen etsaiak zegoen kastigua, eman zitzaiea adierazteko. Saul etzebillen Dabiden onagatik, ezpada ea filistintarren eskutan erortzen ote zan. Dabidek esan au morroiak ondo artu zien. Bereala prestatu zan, eta bere kontuko milla soldaduakin filistintarri eraso, eta il zituen berreun, zeñai, gizona dan edo ez, ezagutzen dan lekutik zatitxo bana kendu, eta Erregeari eraman ziozkan. Saul bere itza jan bearrean arkitu zan, Dabidi alaba emaztetzat ematen ezbazion. Eta Merob lenengo alaba lenagoko aldiari ukatu zion bezala, orain Mikol ukatzea etzitziaion ondo iruditzen, eta, gogo gaiztoz bederik, eman zion, eta Dabid Mikolekin ezkondu zan.

Dabid zorionez betea zegoan: irabazi zituen garaipenak ots andia egiten zioten: Erregetzako, isillik bederik, igortzia zan: Erregearen alabarekin ezkontuta zegoan; eta Mikolek txit maite zuela, bizi zan: baña zorion onek berak eramankizun andiak zekarzkie: suiaren onak aitagiarrabaren biotzean itzautzi andiak idikitzen zituen, eta sua ezin ikusiak su ta su ematen zion.

Onetan filistintarrak, Dabid eta bere jendeari, ordaindu naiez, prestatu ziran, erasotzeko. Dabid bidera irten zitzaion, eta len bezala, agintari aditu eta trebarean lanak egin zituen. Orduan suiaganako gorrotoak eta ezin eramank Sauli gañez egin zion, eta ezkutuka ibilli gabe, bere seme Jonatas eta morroi batzuei agindu zien, Dabid il zezatela. Dabidekin Jonatasen arteko adiskidetasunaren berririk Saulek etzuen. Jonatasek, bada, adiskide onaren aldetik Dabidi gaztigatu zion, aita il nai zuela, eta ezku-

tatu zedilla. Aitari aren alde itzegingo ziola, eta zertan gelditzen ziran, adierazoko ziola. Jonatasek Sauli itzegin, eta esan zion, Dabidi, arren, ez gaitzik egiteko: bera zala Erregearen serbitzaririk leialena, okerririk egin etzuen; Goliat il, eta filistintarrak ondatuaz, mesede andiak egin zituen. Zergatik, bada, aitari ziotsan, kulpa gabeko Dabiden odola isuri nai dezu? Jonatasen itzak Sauli ukitu zioten, eta esan zuen; Jainkoak badaki, ez dedala ilko. Jonatasek bereala Davidi gaztigatu zion. Dabid joan, eta len bezala, aitagiarrabaren serbitzoan jarri zan.

### 4. Saulgandik Dabiden igesa

Filistintarrak, berriz ere, Israeltarri eraso zieten, eta Dabidek, igesi joandako banakak, ez besteak, il zituen. Garaipen onek len emandako itz ziñeztua, Sauli azterazo zion; aserretu, eta berriz il naiez asi zan. Bere gelan bein batean eserita zegoan, lanza eskuan zuela. Zakar-aldiak artu zuen; eta Dabid bere arparekin gozatzen, eta alaitzen ari zitzaiea, lanza luzatu zion; baña Dabidek gorputzari alderagin eta lanza paretean josi zuen. Dabid Saulen etxetik irten, eta berera igesi gauerako joan zan. Saulek Dabiden etxera kontuartzalleak bialdu zituen, ondo ingurutu eta gorde zezaten, biaramonean iltzeko asmoan. Mikol leialak zer zan, igerriz zionean, senarrari esan zion; baldin gaur arratsean gordetzen ezbazera, biar il bearko zera. Atetik ezin irten zitekean, zeren kontuartzalleak zaintzen zuten; eta Mikolek berak leiotik beira eratsi, eta Dabidek iges-egin zuen. Gero zer zatekean ere, Mikolek Dabiden oiean ipiñi zuen zur puska bat, buru-aldeetik larru illetsu batekin, eta gañerakoa oi-janziakin ondo estalita. Egun-sentian kontuartzalleak Dabid irten-zai zeuden, iltzeko, eta Saulek il-berria ez artzeari luzetsirik, berriz bialdu zituen, berealaxe, zetzan lekuan, eskuak ezartzeko, aginduta: baña erantzun zitzaion oiean eri zetzala. Berak ere ikusi zutenean gizonaren antzean zura estalita, Saul-gana itzuli ziran, berri bera ematera. Saul geiago sutu zan, eta agindu zien, ordurik ere galdu gabe, bere oiarekin eraman zitzaiea, bere begietan iltzeko. Joan ziran, eta maindirea kendu zutenean, Dabiden orde, Mikolek ipiñitako zur puskarrekin arkitu ziran. Uste gabeko eta farragarrik berri onekin Sauli ezin geiagoraño irazeki zitzaion: Mikol bereala erakarri zuen, eta esan zion; ea zergatik ala aita isekatu zuen, eta Dabid etsairik andienari iges-egiten utzi zion? Mikolek aitaren bekosko illuna ikusi, eta itz aserreak aditu zituztenean, etsi zuen, il bearko zala. Bildur onekin aita-



ren aurrean gezurrez bere burua garbitu nai izan zuen, esanaz, senarrak agindu ziola, iges-egiten uzteko, bestela ilko zuela. Saulek onenbestez utzi zion, eta Mikol bere larritasun anditik irten zan.

Ordurako Dabidek bideak egin, eta Ramatara Samuelgana joan zan. Profeta andi onek, Israelko Erregetzat igortzi zuen ezker, txit asko nai zion; eta Dabidek esan zionean ara zerk zeraman, obeto bearrez, Naiotera bialdu zuen, emen etxe ezkutu batean gorde zedin. Saulek bereala jakin zuen, Dabid noronz zan, eta morroiak bialdu zituen, arrapatu zezaten; baña Jaunak mirari baten bidez, gorde zuen. Gero Saul bera joan zitzaion; baña berebat gertatu zitzaion. Bitartean Dabidek iges-egin zuen, eta Gabaarara Jonatas bere adiskide maitagarriagana itzuli zan, Saulek hura galtzeko zerabilzkien alegiñak adieraztera. Nik zer egin det, Jonatasi esaten zion, zure aita nere biziaren billan ibiltzeko? Ez orrelakorik, ez; Jonatasek erantzun zion; nere aitak ez du, niri esan gabe, ezer egingo. Dabidek esan zion, bien arteko adiskidetasuna aitak baziekiela, eta bere lana isillik egin naiko zuela. Jonatasek berriz ere esan zion, aren bizia bere kontura artzen zuela, eta etzala galduko. Dabid gai onetan beti bildurtiak, Jonatasi esan zion, bi eguneko pestak biaramonean asten zirala. Bera etzala Erregearekin bazkatzera joango, eta Dabid an etzala, Saul oartzen zanean, aserretzen bazan, gorrotoak bazirauela, eta Jonatasek Dabidi gatzigatzeko, onek bere bideak artu zitzaion. Ala egin zuten; eta Saulek Dabid, ez ezik, Jonatas bera ere, aren alde irten zalako, iltzeko asmoak artu zituen: eta Jonatasek au ikusirik, etxetik irten eta joan zan, zer gertatzen zan, Dabidi esatera. Etsirik, etzegoala Saulen biotza biguntzerik, eta Dabidi zion iguiña oztutzerik, elkarrri esan zioten, obena zala, Dabid ez geiago Saulen begietaratzea, eta laztan gozo eta diosal kariñozkoa batak besteari eginda, banakatu ziran Jonatas bere aitaren etxera, eta Dabid Nobe, Jaunaren Tabernakulua zegoan errira, bien artean zer egin zan, iñori ez esateko, eta elkarrri beti-betiko adiskidetasuna gordetzeko itzean.

Dabid Nobera eldu zanean, Akimelek Apaizari esan zion, Erregearen agindu estu batek bidean ipiñi zuela, janik eta armarik artzeko ere beta gabe, ez beretzat eta ez bere lagun atzean utzi zituenezat, eta eskatu zion zerbait jaten. Akimelekek, ala bearrez, etzeukan *proposizioko* ogi santuak beste zer janik; eta Dabidi galdeturik, ea bera eta bere lagunak garbiak ote zeuden, batez ere, emakumeetatik; eta baiezkoa arturik, eman zion, beste erre-berriak ipintzeko atzeneko aldiandura kenduta zeuzkan ogi bedeinkatuetatik jaten. Ogi oiek apaiz etzanak ezin jan zitzaizkan; baña Akimelekek Dabiden estupena ikusirik, eta onen ibillerak etorkizun andiak ekarrri zitzaizkeala, pentsaturik, eman ziozkan. Gero ezpata bat eskatu zion, eta besterik

etzeukalako, berak Goliati kenduta, an gordetzen zegoana, eman zion. Gauza oiek guziak egiten begira zegoan, zorigaitzean, Saulen morroi kutun Doeg zeritzan, eta bost negar gero eragin zituena.

## 5. Dabiden joanera Jetera aurrena, eta gero Moabera

Dabid bere lagunetara itzuli, eta partitu zien Akimelekek emandako ogi bedeinkatua, eta lagunak Israelko lurrian utzirik, Jet zeritzan filistinartaren erri urreenera joan zan, bere burua gordetzera. Jeten zerbait denbora egin zuen, iñork ezagutu gabe, Akis Erregearen soldadu sartuta: baña egunen buruan, nor ete zan, surmurra asi zan, eta Erregeari esan zioten, ainbeste kalte egin izan zien Israelko agintari Dabid, bere soldaduen artean zegoala. Dabid oartu zan; ikusten zuen, an egoterik etzeukala. Nola, ordea, irten? Esturasun onetan gogoak eman zion, bere burua zoro egin bear zuela, eta Errege berak erititik zorotzat boterazoko zuela. Jaunaren eskua, beti bezala, bere alde zuen, eta uste au ondo irten zitzaion. Erregearen aurrera eraman zuten, eta ikusirik, esan-egin guzietan zoro garbi-garbia zegoala, Erregeak esan zien, ea zertako ikusgarri hura aren aurrera zeramaten? Agindu zuen, aren begietatik kendu, eta bere tokira bialdu zezatela: bertan ere, alabañan, zororik asko izango zituztela, auzo-errikoak eta atzeak gabe. Filistinartaren artetik onela irten, eta Judako Tribuan Odolako leize-zulo batean gorde zan.

Emen jarrita bereala, bere etxeak eta aideak jakin zutenean, joan zitzaiozkan, beste zenbait adiskide arturik, ikustera. Dabiden odoleko edo adiskide zantzukoa izatea asko zan, Saulek gorrotatzeko, eta neke gogorak eramanezotzeko: beragatik Saulen gogortasunarekin txit aspertuak zeuden, eta lareunen bat gizon batu zitzaiozkan, ark agintzen ziena egiteko prestaturik. Dabidek gizon oiek bere mendean ikusi zituenean, auzo-erreinu Moabko Erregeagana joan zan, eta eskatu zion, Jainkoak artzaz zer egiten zuen, ikusi artean, aren ait-amak lur artan bizitzeko baimena. Moabko Erregea Saulekin gaizki zetorren, eta onen mendetik igesi zijozkion guziak, arrera ona egiten zien. Dabid, orrezaz gañera, auzoetan txit ots andikoa zan, filistintarrari eman izan ziezten eraso latzen bidez, eta gatzelu sendo bat eman zion, nai zuen arteraño bere jendearekin gorde zedin.





Atze bati ainbeste eskualdi ematea txit egoki ez dirudi; baña Jainkoak gizon andi au gorde nai zuen; eta bere lurrean eta aitagiarrabaren alde-tik etzuen, erbetean eman nai izan zion. Emen zegoala, Jainkoak Gad Profetaren bitartez gaztigatu zion, gaztelu artatik irten, eta Judara joan zedilla. Dabidek ala egin zuen, eta Haretko eremuan sartu zan. Saulek berri au artu zuenean, biotzeko su-aserreak bazirakion, eta lanza arturik, eman zion deadarrari, eta bere seme Jonatasgandik asita, beste guziakgatik gaizki esateari, guziak eskuetan txikitu nai bazitukean bezala. Begira zeudenak, etzioten itzik trukatu. Bakar-bakarrik morroi losentxari biotz gaitzoko batek itzezin, eta su geiago eman zion.

## 6. Jaunaren apaizen iltzea

Losentxari galgarri au zan Doeg len aitatu dana, eta ogi bedeinkatua eta Goliaten ezpata artzen, Dabid ikusi zuena. Doeg zorigaiztoko onek, bada, Sauli esan zion, Noben gertatu zan guzia. Saulek bere bereala Akimelek eta onen odoleko apaiz guziak bere aurrera erakarri, eta Akimeleki esan zion: Zertako zu, eta Isairen semea nere kontra jaiki zerate, eta ogia, eta ezpata eman diozkazu? Akimelekek erantzun zion: Zein Dabid zure suia baño, Erregearen serbitzari leialagorik? Ez nik, eta ez nere etxeoak gauzarik txikiena ere zure kontra egin degu.

Akimelekek argitasun guziarekin itzezin zion, Dabid kulpa gabea zala zikielako; baña etzuen Saulen sua irazekitzea baizik egin. Saulek Akimeleki esan zion: oraintxe bertan zu eta zure etxeo guziak il bearrak zerate. Bereala ondoan zeuzkan soldaduak agindu zien, Jaunaren apaizak iltzeko, zeren Dabid igesi zebillela jakinda, aditzera eman etzioten. Au gezurra zan. Akimelek berak ere etzuen jakin, Dabid nola zebillen, ezpada uste zuen Erregearen aginduak egiten zituela. Beste apaizak are gitxiago ziekiten, eta batere obenik etzuten. Au guzia Erregearen soldaduak ezaguturik, etzuten apaiz aien odolean eskurik kutsutu nai izan, eta uko onekin Sauli lotsa au ere eman zioten. Etzan ordea ansi: Saulek nork egin bazuen. Doeg losentxari zorigaiztokoak aien utsunea bete zuen, eta larogeta bost apaiz egun batean bere eskuz il zituen.

Ilkintza izugarri onek guziak arri-egiñik utzi zituen; ez ordea Saul bigundu. Bereala soldaduak Nobera bialdu, eta erri onetan bizi ziran zar eta gazte guziak, bularreko aurrik ere utzi gabe, ilerazo zituen. Berebat egin zuen aberekin ere. Bakarrik apaiz bat, gelditu zan, guziak galdu-zale

zan Saulen damuz bederik, Akimeleken seme Abiatar, zeñak berri negargari oiek Dabidi eraman ziozkan. Dabidek, berri oiekin biotza erdiraturik, deadar egin zuen: Ezagutzen nuen, bai, egun artan Doeg Tabernakuloan egon ezker, Sauli esango ziola. Zure etxeo odol-isurtze onen su-traia ni naiz: nerekin geratu zaite, ez ikaratu; iñor nere biziaren billan badabil, zure eske ere ibilliko da, eta nerekin batean gordeko zera.

Egun oietan filistintarrak eraso zioten Dabiden egon-lekutik legua banaka batzuetara zegoan erri Zeila zeritzanari. Dabidek jakin zuen. Abiatar Apaiz-nagusiaren bitartez Jainkoari galdetu zion, ea filistintarren kontra joango ote zan? eta Jainkoak erantzun zionean, joateko, eta esku-ratuko zituela, bereala joan, eta ondatu zituen, iges-egindako banakak, ez besteak, illaz, eta abere eta gauza guziak kendu ziezen. Gero Zeilan sartu zan, eta emengo biztanleak, garailari bati zegokion gisan, artu zuten.

Saulek Dabiden egiteko andi au jakin zuenean, su eta gar bere soldaduak bildu, eta Dabid Zeilan atzitzeko asmoan abiatu zan. Dabidek, arestian bezala, Jainkoari galdetu zion, ea Saul joango zitzaion, eta Zeilarrak bera eta bere lagunak Saulen eskuetan ipiñiko zituzten?; eta Jainkoak, baiez, erantzun zionean, bere seieun gizonekin baso batera irten zan, eta or-emen zebiltzan, iñon egon-lekurik artu gabe. Saulek au ere jakin zion, eta eskua ezarri naiez, egunoro zerraikion. Saulen semeak jakin zuen, Dabid bere adiskidea nola zebillen, eta isillik joan zitzaion, ikusi bat ematera. Esan zion, ez ikaratzeko; Jainkoak aren aita gogorraren eskuetatik gordeko zuela; Israelko Errege izango zala, eta Jonatas bera aren bigarren; au guzia Saulek baziekiela. Eta beren adiskidetasuna berriturik, Jonatas etxera itzuli, eta Dabid Zif-ko basoan gelditu zan.

## 7. Saul Dabiden billan

Ziftarrak Sauli bereala aditzera eman zioten, Dabid non zebillen, eta eskuratzeo era ona eskiñi ere bai. Uste onekin Saul soldaduak arturik joan zan, eta Dabid arkaitz batean jarri zan, gogor egiteko asmoan. Saulen lenbiziko lana izan zan, arkaitzari alde guzietatik kontuartzalleak ipintzea, Dabidek iges-egin etzezan. Saulen jendeak, ain andia izanik, mendi guzia estali zuen, eta Dabid erpin batean zegoan, il edo bizi, norabait irten bearrean. Baña Dabiden biotza poz etzan, bizirik irtenda ere, zeren zekusan, nozitzen zutenak Israeltarrak zirala, eta ez Israelen etsaiak. Esturasun onetan Dabid zegoala, Sauli gaztigatu zitzaion, filistintarrak Israelen sar-



tuta, topatu guzia erre eta ondatzen zutela. Saulek Dabidi uztea min zuen: bere gogoz filistintarrai, nai zutena egiten, lenago utziko zien, Dabidi iges-egiten baño: ez ordea Saulen soldaduak. Jakin zutenean, filistintarren eskuetatik, aien anaiak zer ondamen zeramaten, zegoana zegoan lekuan utzi, eta bideari eman zitzaiozkan, eta Dabid Saulen atzaparretara gabe gelditu zan.

Dabid arkaitz-tontor artatik irten, eta Engadira joan zan, eta emen zebillen, mendi onek zituen aitz-pe edo ar-zulo luze-zabaletatik batean etzitegia egiñik. Saulek, filistintarrekikoa eginda, itzuli zanean, bereala Dabiden aztarna artu zuen; baña lengo aldia, ez ezen, oraingoan ere eza-gutu zuen, Jainkoa Dabiden alde zala. Onen billan Saul zebillen bein batean, frakak askatu bearrak eman zion, eta isillik egin naiez, ar-zulo oietatik batean sartu zan. Dabid bere soldaduakin ala bearrez! onen barruan zegoan; baña Saulek, argitik illunera sartu zalako, etzuen inhor ikusi; bai ordea barrukoak Saul. Bereala soldaduak Dabidi esan zioten: Ara Jainkoak izentatutako eguna, esan zizunean; etsaia eskuan nik ipiñiko dizut, gogoak dizuna egiteko.

Dabid arkitu zan, zer egin etzikiela. Soldaduak bein eta birretan zio-tsaten, eskuan zeukan ezker, ain aier zitzaion etsaia il zezala; baña aren odolarekin eskuak loitzea Dabidi gogor egiten zitzaion. Dabid jaiki zan, bada, eta Saulen ondora joanda, au oartu gabe, soñean zeraman Errege-janziaren ertza ebaki zion, eta soldaduai itzuli zitzaien, au eskuan zuela. Soldaduak gitxienaz uste zuten, ilko zuela. Baña ikusirik, ezez, nagusiaren orde, berak ilko zuten, baldin Dabidek Jaunaren igortzi bati soñekoaren ertz utsa ere kenduaz, damua agertu ezbalie, eta bere ondo-esanakin atzeratu ezbalitu.

Saul ar-zulotik irten, eta Dabiden billan bazijoan. Dabid ere Saulen ondoren irten zan, eta atzaldetik oska jarri zitzaion: Ene Errege, eta ene Jauna! Saulek atzeron begiratu zuen, eta Dabidek, auzpez jarririk, agur andi bat egin zion. Gero esan zion, ea gizon gezurti eta losentxarri leku-emand, hura galdu naiez zergatik zebillen? Esan ere bazion, aren bizia orainago eskuan iduki zuela, eta soñekoaren ertza bezala, bere egunak ebaki litzazkiokela; baña etzuela nai izan, ezagutu zezan, Saulen etsaia etzala, ezpada txit asko nai ziona. Saulek Dabiden itz-otsa aditu zuenean, galdetu zion: Dabid ene semea, itz-ots ori zurea da? Au esan, eta Saulek negarrari eman zion, esanaz: ni baño ohea zera. Saul aldi onetan, gogoz ezbazan ere, arkitu zan, Dabiden biotz andia, eta ark etzuen, aitortu bearran: begietan zeukan, alabañan, bizia barkatu zion adieragarria. Saulek ezagutu zuen, eta aitortu ere bazion, Israelko Errege Dabid izango zala,

eta eskatu zion, aren ondorengoak, arren, orduan ez ondatzeko mesedea. Dabidek gaitzik ez egiteko itza eman zion; eta Saul Gabaara itzuli, eta Dabid basoan leku ez-jakin batean geratu zan, Sauli berriz ere damututa, galdu naiez etzijoakion.

## 8. Samuelen eriotza. Nabalen gertaera

Egun oietan Israeli Samuel illarekin kalte andiak erori zitzaiozkan. Profeta santu au, aitatu degu, Israelen zein ongille andia izan zan, eta beraren il-berria eraman ziotenean, Dabidek ere negar andiak egin zituen, zeren esturasun guzietan onen bear izan zan, eta Israelko Erregetzan asten zanean ere, bere argiak zer bait egin uste zuen.

Dabidek Faran-go basoetan egunak zeramatzkien, Saulek zer egiñik eman gabe, eta inguruetakoak beretzat eta bere soldaduentzat zer jana ematen ziotela, aren ontasun, eta soldaduen doai onai begirata. Dabidi bear zan guzia eskeñtzen zioten. Ala ere askoren artean bazan gizon txit aberats bat, Nabal zeritzana, baña guziz zurra, eta inhor on egiteko eutsia. Dabidek egun batean aditu zuen, Nabalek Karmeloko mendian ardimozketa zuela, eta amar mutil gazte bialdu ziozkan, zer esan erakutsita. Gazteak joan, eta Nabali esan zioten, Dabiden aldetik agur egitera zijoazkiola. Aditu zuela, nola aiekin basoan bizi ziran artzaiak ardimozketa zuten. Elkarrekin egondako egunetan etziela gaitzik egin, ez ezer ere artu, eta ain ondo egin zuelako, eskura zetorkion zer bait eskatzen ziola. Nabalek arrokeria andian erantzun zien: Dabid ori nor da? Gaurko egunean ez da ikusten, nagusien igesi dabilzan morroiak baizik, eta nongoa dan ezdakidan bati emango diozkat motxalleentzat prestatu ditudan ogi eta ardikiak? Erantzura lotsa gabeko oni gazteak etzioten itzik trukatu, eta Dabidgana itzuli ziran, Nabalek zer zion kontu-ematera.

Dabidek baziekien Erregetzat igortzia zegoala, orduraño artakotzat inhor ezbazekuan ere, eta mendeko batek ain ausardi andiarekin erantzutea, etzitzia ondo erori; eta lareun gizon arturik, besteak tresnai kontu egiten utzita, Karmeloko mendionz abiatu zan, Nabali zegokion kastigua ematera. Dabid aserrez zijoan; baña Jainkoak egin zuen gozatu eta pake-tzeko bidea. Nabalen morroi bat aditzen zegoan, nagusiak Dabiden mutilai esan ziezten itzak, eta Abigail Nabalen emazteari aditzera eman zion. Esan zion, basoan txit onak izan ziral, bai Dabid, eta bai ere bere lagunak; etziotela kalterik txikiena ere, on ezpada, egin, eta Nabalek egin zien



begitarte eta arrera txarrak ondore negargarriak izan zitzakeala; eta ondo begira zezala, Nabalek bere gozakaitz-aldian zer egin zuen. Abigailek morroiari gauza oiek entzun ziozkanean, senarraren isillik prestatu zituen ogi, ardo, ariki, mats eta piku leorrak, eta janari oiek guziak astoetan arturik, bera beste batean jarrita, bazijoan. Dabid ikustera eldu zanean, astotik jaxi, auzpez jarri eta agur-egin zion, esanaz: Jauna, gaitz au nigana betor. Nabal zoroari ez begiratu: burua nastua dauka, eta nik zure serbitzari onek zuk bialdutako mandatariak ez nituen ikusi. Oiek eta beste gauza asko ain egoki eta jakintsuro esan ziozkanakin, Dabiden su guzia itzali zuen; eta Dabid poztu zuen, bidera irten, eta odol-isurtzetik atzeratu zuelako. Abigail itzuli zanean, senarra osotoro orditua arkitu zuen, eta biaramoneraño etzion itzik esan. Burua oztu, eta loak ardoa eramanean zionean, senarrari esan zion, bere lagunakin jan-edanetan pozez zegoan ordu berean, zer perilletan arkitu zuen, eta bere zurkeriagatik Dabidek zer egingo zion, baldin bidera irten ezbazitzaion, eta bere erreguakin atzeratu. Emaztearen esan oiek ainbesteraño bildurra biotzean Nabali sartu zioten, non arri eta zur egiñik, geratu zuen, eta amargarren egunean il zuen. Dabidek Nabalen il-berria laster izan zuen, eta ezaguturik, Jaunaren lana zala, esan zuen; Bedeinkatua izan bedi, niri egindako lotsagabekeria bere eskuz kastigatu, eta kutsutu gabe gorde nai izan nauen Jauna.

## 9. Abigailekin Dabiden ezkontza

Dabidek, Abigailekin izan zuen itzaldi laburrean, ondo ezagutu zuen, doai ederrez janzitako emakumea zala, eta gogoan sartu zitzaion. Dabidek len ere bazituen bi emazte, bat Mikol, Saulen alaba; baña aitak Dabidi kenduta, Falti zeritzan batekin ezkonera zuena, onekin gaizki ezkondu, Saulek ikusi naiago zuelako, arekin menaz baño. Bestea zuen Akinoan, zeñarekin pake eta amorio onean bizi zuen. Ala ere, legeak ematen zuen eskuarekin, artu zuen Abigailekin ere ezkontzeko eresia. Nabalen proguko egunak joan da gero, Dabidek mandatariak bialdu ziozkan, bere gogoia agertzera. Abigailek gaztigu au artu zuenean, aitatu zuen bere beeratasuna, eta Dabid baten diña etzala: baña ezkontzera jarri zuen; eta mandatariakin batean basora joan, eta Dabidekin ezkondu zuen.

Farango eremuan Dabidek iru urte zeramazkien, Saulek zer egiñik eman gabe, Engadiko ar-zuloan soñekoaren ertza kendu zionean bien arteko pakeak egin ziran ezkerero. Aurrera ere ala izateko ustean, bere erri-

ra alderatzeko asmoa artu zuen. Farango basotik Zifkora aldatu zuen. Uste zuen, Ziftarrak iru urtez lenago ikusirik mirari baten bidez Dabid Zeruek gordetzen, pakean utziko ziotela; baña engañatu zuen, eta bere biotz andia, berriz ere erakusteko bide onean laster arkitu zuen.

Ziftarrak Sauli gaztigatu zioten, Dabid berriz ere aien lurrera agertu zala, eta Hatxilako arzuloetan ezkatututa zegoala. Saul iru milla soldadu aukerakorekin Dabiden billan joan zuen. Dabidek jakin zuenean, zelatariak bialdu zituen, Saul non gelditzen zuen, jakitera. Non zegoan, esan ziotenean, Abisai bere illobarekin, besterik inor gabe, gautu zanean, isill-isillik jaxi zuen, Saul zetzan etzantzara, eta Saul topatu zuen lo bete-betean, lanza burukoan zuela. Abner agintari nagusia, eta soldadu guziak ere inguruan zetzaion. Orduan Abisaik Dabidi esan zion: Jainkoak zure etsai ori eskura eman dizu: orain, bada, lenengo kolpearekin bigarrenaren bear gabe, lurrari josiko diot. Ez orrelakorik Dabiek erantzun zion: ez il: zergaitik, ze, nork Jaunaren igortzi bati eskua ezarriko dio, loitu gabe? Dabidek Saulen lanza eta edanontzia artu, eta itzuli ziran, inor oartu gabe.

Zerbait aldegin zutenean, Dabid deadarka jarri zuen, esanaz: Abner! Abner! Au otsera esnatu, eta aserrez erantzun zion: Nor aiz Erregea esnatzen oska agoen ori? Dabidek esan zion, begira zezala, Erregearen kontuartzalle batek zer eginkizun zeukan, ea nola zaindu zuen? Ea bera eta bereak zergatik lo zetzaion, inor kontuan ipiñi gabe? Atzenean esan zion, norbait beren artean ibilli zitzaizela, Erregea il naiez; eta au egizat artzeke, esan zion: Begira, Erregearen lanza eta edanontzi burukoan zeuzkanak, non dituzun. Saul ere berebat esnatu zuen, eta Dabiden itz-otsa aditu zuenean, lanza eta edanontzia ipiñitako lekura begiratu zuen; baña etzitu arkitu, eta ezagutu zuen, oraingoan ere aren bizia Dabiden eskuan egon zala, eta barkatu ziola. Orain entzuten dedan itz-ots ori nere seme Dabidena ez da? esan zuen. Bai, Dabidek erantzun zion, nere otsa da, ene Jaun, eta Erregea. Zergatik, nere Jauna, ni bere serbitzari oni orrela darraikit? Zer txarkeria nik egin det, nere bizia orrela galdu nai izateko? Jauna, ots, itz bat. Baldin Jainkoak nere kontra ipiñi bazaitu, ara emen nere bizia; baña gizonak ipiñi bazaituzte, Jaunaren aurrean madarikatuak dira, ni nere Jainkoaren lurretik kanpora atzean artean bizitzera beartu nautenak. Gaizki egin det, Saulek esan zuen. Atoz, ene seme Dabid, eta ez dizut geiago gaitzik egingo, zeren nere biziari begiratu diozun, eta zoro andi bat izan naizan. Orduan Dabidek esan zuen: Ara emen Erregearen lanza eta edanontzia; bat betor, jasotzera. Jainkoak nori bere dagokan saria emango dio. Eta nik gaur eskuan neukan zure biziari begiratu diodan bezala, Jainkoak nere gabe dezala, eta gaitz guzietatik atera nazala.



Jainkoak bedeinka zaitzala, ene seme; Saulek erantzun zion. Bereala bana-katu ziran, Dabid basoronz, eta Saul bere errira.

Zenbat, eta zein ikasikizun ederrak Dabidek ematen ote digu, gure etsai diran, eta diralakoakin izan bear degun eginbidearen gañean! Saul iltzen zan egunetik, Errege-aulkian eseri zitekean: Jainkoak bi aldiz, ain aier zitzaion biotz gogorreko gizon hura, eskuan ipiñi zion; eta ala ere, soñekoaren ertza, lanza eta edanontzia kendu utsarekin, beste gaitzik egin gabe, uzten du. Ay, au gogoan beti bagenerabil!

## 10. Dabidek Jetera bigarren aldian iges-egiten du

Dabidek etzien Sauleen adiskidetasuneko itzai sinismen andirik eman, eta Saulen mendeko lurrean egon ezker, berriz ere esturasunen batean arkitzeko bildurrez, gogoak eman zion, Jetera joatea. Artarako Akis ango Erregeari baimen-eske mandatariak bialdu ziozkan: eta baiezkoarekin itzuli zitzaiozkanean, bere etxeko eta soldadu guziakin Jetera joan zan, non sei urtez lenago zorotzat erritik atera zutena, txit onore andian artua izan zan. Saulek Dabid Jetera joan zala jakin zuen ezker, etzitzaion eske ibilli. Zerbait denbora Jeten eginda, Erregeari beste bizileku bat eskatu zion, eta Sizelekera aldatu zan. Emen Dabid bere jendearekin bizi zala, Filistingo bost Erregeak elkartu ziran, Israeltarrai erasotzeko. Dabid nola Jeteoaren mendean, eta onen agindura zegoan, naigabe andian arkitu zan, bere erritarrai eraso bear zielako; baña Jainkoak naigabe au kendu zion. Filistintarrak, beren soldaduakin batuta, Dabid beren artean ikusi zutenean, Jeteo Erregeari besteak arpegian eman zioten, zergatik Israeltar hura an zeukan; eta etzioten besteakin joaten utzi, zer zan Dabiden gogokoena; eta agindu zioten, bere lengo lekura itzuli zedilla. Bitarte onetan Amalektarrak jakiñik, Dabid Sikelektik aldegiña zala, sartu, eta erria erre, eta emazte eta seme-alaba guziak katibu eraman zituzten; eta beste askoren artean Dabiden bi emazte Akinoan eta Abigail ere bai. Dabid eta bere lagunak Sikelekera itzulita, ondamen au ikusi zutenean, zer naigabea artuko zuten esatea erraz ez da. Guziai ukitu zitzaion; baña Dabidi alderik garratzena erori zitzaion. Bere emazteak gabe geratu, ez ezik, bere soldaduak ere arrikatu nai izan zuten, berak neke aietarako bidea eman izan balu bezala. Dabidek, bada, alde guzietatik estura larrian bere burua ikusirik, Apaiz-nagusi Abiataren bitartez Jainkoari galdetu

zion, zer egingo ote zuen; eta Jaunak erantzun zionarekin, bere seieun gizonekin Amalektarren ondoren abiatu zan, eta ordu gitxiren epean Besorko ibaiera eldu ziran: baña Sikeleken negar egiteko adiña denbora baizik, atsedeteko artu etzutelako, bideko nekeak easan, eta berreun auna-turik, ibaia igaro gabe geratu ziran. Beste lareunakin Dabid bazijoan, etsaia non topatu etziakiela: baña Jainko Laguntzalle betikoak Dabidi eratu zion, guzia jakiteko, eta ondo irteteko bide ona. Arkitu zuten Ijito bat, bidean erdi-illean zetzana. Dabidi eraman zioten, eta jaten emanik, bizkortu zan; bada, iru egun aictan etzuen ezer jan, eta ez edan. Dabidek galdetu zion: Norena zera, nondik zatoz, eta nora zoaz? Ni nerez, erantzun zion, Ijitoa naiz, Amalektar baten katibua, eta nere nagusiak orain iru egun, bidean utzi ninduen, gaxotu nintzalako. Juda eta Kaleberonz joan giñan, eta Sikeleko erriari su eman giñion. Dabidek esan zion, ea erakutsiko zuen jende su-emalle hura non zegoan? Ijitoak erantzun zion, baldin bizia barkatzen bazion, eta nagusiaren eskuetan uzten ezbazuen, esan-go ziola. Dabidek bi gauzak itz ziñeztuaren azpian agindu ziozkan.

## 11. Amalektarrak ondatuak

Dabidek, gidari onekin zijoala, ordeka zabal batean ikusi zituen jan-edanetan, eta pesta andiak egiten, Sikelektik zeramazkiten ondasunen pozean: baña gozoa laster mindu zien. Dabid bere jendearekin itsumus-tuan, armarik artzeko lekurik ere eman gabe, sartu zitzaion, eta arratsaldea asita, biaramoneko illunabarreraño iltzen aritu ziran, eta etzan iñor ere bizirik gelditu, asieran gamelu-gañetan iges-egin zuten lareun mutil gazte baizik. Emazte, seme-alabak, eta ondasun guziak, ezer ere galdu gabe, beretu zituzten. Orrez-gañera Amalektarren ardi eta bei-samalda andiak ere artu, eta Besoren aulduta geratutako lagunetara itzuli ziran.

Oiek Dabidi bidera irten zitzaiozkan, eta txit arrera ona egin zien; baña Dabidekin ziran batzuei etzitzaion au ondo erori, eta esan zuten, beren emazte eta humeak baizik, etzitzaia eman bear; bada, besteai etze-rraizkielako. Amalektarrai kendutako gauzarik etzegokiela. Ez dezute orrelakorik egingo, Dabidek esan zien, Jaunak eskura digunarekin; eta joan ziran, eta etziran guzien artean, gauzak partitu zituen: eta Saulen igesi zebillen ezker laguntzen zioten beste guziai ere, beren zatiak bialdu ziezen. Geroztik Dabidek emen egiña, Israelen legetzat artu, eta gorde izan zan.



Dabid Sikelekeronz abiatu zan goiz berean, filistintarrak ere Jezraele-ra igo ziran; eta Saul, andik urrean zegoanak ikusi zituenean, osotoro sustatu zan, eta biotza illundu zitzaion. Bereala Jainkoari galdeak egin ziozkan, baña erantzun etzion, ez ametsetan, ez apaizen, eta ez Profetaen bitartez. Orduan guzia aserreturik, egundaño egin zuen gaiztakeriarik andienezan erori zan. Jainkoari utzita, deabruai deitu zien, nai zuena jakiteko.

## 12. Saul Endorko sorgiñari galdezka jartzen zaio

Denbora gutxiz ononztik Saulek sorgintza eta aztitzan zebiltzan guziak bere mendetik kendu izan zituen, eta orain bere suan oietara dijoa. Esan zieten, Endoren bazala emakume bat, Piton, au da, deabrua berekin zuena. Errege-janziak bereala utzita, bi lagun arturik, emakume argana gauaz joan zan, eta esan zion, berak izendatzen ziona aurrera erakarri zezala. Emakume gaizkindun au eskari onekin ikaratu zan, zeren baziekien Erregeak debekatuta zeukala, sorgin eta aziak Erreinuan egotea; eta etzuen igerri, Errege berarekin itzketan zegoala. Saulek gaitzik etorriko etzitziaion itza eman zion, eta uste onetan sorgiñak esan zion, Nor ikusi nai dezu? Samuel, Erregeak erantzun zion. Andre gaizto ark baziekien, illak agerterazitzeko eskurik etzuela; baña aurrean zeukanari zerbait esan bear, et asi zan bere itz-modu eta dei batzuek egiten, eta arkitu zan berak uste baño geiago! Samuel, aspaldian illa, aurrean zuela. Orduan ezagutu zuen, itzegiten ziona nor zan, eta deadarka esan zion: Saul zertako engañatu nazu? Ez izutu, Saulek erantzun zion. Zer ikusi dezu? Ikusi det, emakumeak erantzun zion, Jainkoa dirudien gizon bat, lurpetik irteten. Zer arpegi du? Zar beneragarria eta mantuz janzia da. Ori Samuel da, Saulek esan zuen, eta auzpez jarririk, agur andi bat egin zion. Zertako ni onara erakarrita, neukan pakea galdu didazu? Samuelek Sauli esan zion. Estura larrian arkitzen naiz, Saulek erantzun zion, zeren filistintarrak eraso didaten, eta Jainkoak utzi nau, eta ez dit aditu nai izan, ez Profetaen bitartez, ez ametsetan. Deitu dizut, bada, esan dizadazun, zer egin bear dedan. Jainkoak egingo du, nere bitartez esanik zauzkana, Samuelek erantzun zion. Erregetza zuri kendu, eta Dabid zure lagunari emango dio, zeren Jaunaren esana etzenduen egin, eta aren aserreak eskatzen zuen eran Amalektarrakin etziñan izan. Argatik zuri datorkizuna Jaunagandik

da, eta zu eta Israel filistintarren eskuetan ipiñiko zaituzte. Biar zu eta zure semeak nerekin zerate.

Samuelek aldegin zuen, eta Saul erdi-illean luze-luze etzan zan. Sorgiña gelan sartu zan eta egoera onetan ikusi zuenean, jaten eskeñi zion, zuzpertz zedin, baña etzion artu. Gero Saulen bi lagunak eta emakumeak ondo esanaz jaikierazo, eta oiean erazo zuten. Bereala batean andreak maneaturako jana donario andi gabe artuta, gau guzia bidean egiñik, egun-sentirako soldadu-taldea zegoan lekura eldu ziran. Erregearen ibillerez etzan iñor oartu, eta goiz berean jendea berak zuzendu, eta presta-tu zuen, batallarako.

## 13. Saulen eriotza

Filistintarrak lenbizian eraso zuten, eta Israeltarrak gogor egin zioten. Elkar ezin menderatuz, luzaro aritu ziran; baña geroenean Israeltarrak atzeratzeari eman zioten. Filistintarrak au ezagutu zutenean, gogor-rago eta alde guzietatik eraso zieten. Orduan Israeltarrak igesi abiatu ziran, eta ondoren zerraizkien filistintarrak ilkintza izugarria egin zuten. Jenderik indartsuena eta geiena, Saul eta bere iru seme Jonatas, Abinadab eta Meltxisua zeuden aldera sartu zan, eta Saul laster arkitu zan, zauriz beteta odola zeriola; eta ezagutu zuenean, etzeukala geiago bizirik, bere morroi bati esan zion, iltzeko, orpoz-orpo zetozkion etsaiak atzitu eta iseka eta farraz il etzezaten; baña morroiak, izuturik, etzuen nagusiaren esana egin nai izan. Orduan Saulek bere buruari ezpata sartzeko kemenik etzeukalako, ezpata zutik eskulekuz beera ipiñi, eta auzpez onen gañean etzanda, il zan. Morroiak ere nagusia onela ikusi zuenean, au bera egin zuen.

Filistintarrak osotoro garaitu zuten, eta ordu gitxiren epean Jezraelko bazter, eta Gelboeko mendietan etzan gorputz-illak baizik ageri. Errege bera, onen iru semeak, bere agintaririk obenak, gordetzalleak, aideak, adiskideak... guziak, igeslari banaka batzuek, ez besteak, il ziran, eta igeslari oiek alde guzietara izu-ikara zabaldu zuten. Erri guziak iñor gabe, eta filistintarren mendean geratu ziran. Ilkintza onen biaramonean gorputz-illen janzi eta gauzak biltzen zebiltzala, Saul eta bere iru semeen gorputzak Gelboeko mendian illotzik arkitu zituztenean, Sauli burua kendu, eta bere beren erreinura bialduta, ipiñi zuten Dagonen elizan, eta armak Astarote-



nean. Lau gorputz-illak Betsango murruan zentoi batzuetatik eseki edo zinzilika ipiñi zituzten, eta beren errietara itzuli ziran.

Betsandik urrean zegoan Jabes-Galaadko biztanleak Saul eta bere semeen zorigaitza jakin zutenean, Amontarren Errege Naasen mendetik libratzarekin egin izan zien mesede andiaz oroiturik, naigabe andia artu zuten; eta zioten amorioagatik gizonik indartsuenak bildu, eta Betsanera gauaz joanda, gorputz-illak jatxi zituzten: gero erre eta ezurrak arte-pe batean ipiñi zituzten, eta Galaadtar guziak beltzez janzita, zazpi eguneko barauakin progua egin zioten.

Dabidek Sikeleken bi egun zeramazkien, Amontarrak deseginda itzuli ezker, eta etzuen Saulekin filistintarren artean ezer gertatu zanik jakin: baña irugarrenean aurkeztu zitzaion gizon bat, soñeko urratu, eta buru autsez betearekin, eta auzpez jarrita, agur egin zion. Nondik zatoz? Dabidek galdetu zion. Israeldik iges-eginda nator, erantzun zion. An zer berri da? mintza zaite. Jauna, jende asko galdu da, eta oien artean Saul eta bere seme Jonatas ere il dira. Nondik dakizu, Saul eta Jonatas il dirala? Ustez-uste gabe Jelboeko mendira nintzan, eta Saul ezpata-gañean zetzan, eta ikusi ninduean, otsegin eta esan zidan, etsaien eskuetan erori baño lenago, il nezala. Orduan gañean jarrita, il nuen, ezagutzen nuelako, ezin bizi izan zitekeala; eta arturik buruko koroa eta eskuturrekoa, ara non dakarzkizudan, ene Jauna. Dabid eta bere lagunak, berri au aditu zutenean, soñekoak urratu zituzten, eta negarrari eman zitzaiozkan, Saul, bere seme Jonatas eta gañerakoen iltzeagatik. Dabidek Amalektar berri-emalle ari esan zion Zergatik Jaunaren igortzi bati eskuak ezartzeak izutu etzaitu? Bereala bere soldadu bati otsegin, eta ilerazo zuen Amalektarrak, berak zionez, Saulen eriotzan kutsutu zalako.

Bazirudien, eta Amalektar ark uste izango ere zuen, Dabidgandik sari andiren bat artuko zuela, legez eta bidez zegokion Errege-aulkia Saul illarekin ustu zala, eta berak eseri baizik etzuelako berria eraman zuenean; baña Dabid zuzen-onak etzuen era artan odoldutako aulkirik nai, eta are gitxiago odol-isurle batgandik albista hura artzerik: bada, Dabid Israelko Errege egiazkoa izanak etzion Saul iltzeko eskurik iñori ematen, eta eskua ezarri ziona, kastigatu nai izan zuen. Zein biotz onekoa etsairik andienarekin ere!

## EMEZORTZIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Dabiden bigarren igortzitzea

Saul il zanean, Dabidek ogeita amar urte zituen, eta amalau ziran Samuelek Erregetzat igortzi zuela. Au Dabidek ondo ziekien, baña Jaunaren berri gabe etzuen ezer ere egin nai: eta Jainkoari galdetu zion ea nora joango zan? Jaunak erantzun zionean, Hebronera joan zan bere bi emazte Akinoan eta Abigail eta beste zenbat lagunekin, gañerakoak Sikeleki kontu-artzen utzita. Hebron Judako uri sendo eta ondoena ornitua zan. Judako gizon eldu eta zar guziak onara batu ziran: Abiatar Apaiz-nagusiak berriro igortzi zuen, eta Erregetzat ezagutu zuten. Emen jakin zuen, Jabes Galaadtarrak Saul eta bere semeak lurpetzeaz egin zuten lanbide ona, eta eskerrak eman ziezten.

Abner Saul zori gaiztakoaren soldadu guzien agintari edo burua, Jelboeko ondamenetik iges-egin zuten gizon banakakin, Manain zeritzan urira joan zan, bere burua emen gordetzeko ustean, eta filistintarrak beren tokira itzuli ziralako, etzuen zer egiñik izan, eta pakean geratu zan. Saulen lekuan beste bat bereala ipiñi nai izan zuen. Mifiboset Jonatasen semeari, zirudienez, zegokion; baña oraindik bost urte baizik etzitu, eta iñudeak igesi zeraman bein batean, eroriko bat artuta, ankak elbarrituta zeuzkan.

Abner-ek, bada, oni utzirik, Isboset Saulen laugarren eta atzeneko semeari begiak ezarri ziozkan. Soldaduai aurkeztu zien, eta Erregetzat ezagutu zuten. Israelko erri guziak ere, Judako Tribuak, ez besteak, berebat egin zuten; eta Judako Tribu onek, esan dan bezala, Dabid Erregetzat artu zuen, eta au izan zan beti despitan gero ibiltzeko bidea.

Israeltarrak bertatik arkitu ziran bi Erregerekin; ala ere bi urte pakean igaro zituzten. Bitartean Isboset bere alderdiarekin pozik zegoan, eta Dabidek etzuen Israel guziaren agintean sartu nai, Jaunak erakusten zion garai eta eran baizik. Geroenean ere pakearen edea eten zan, ez Dabiden, ezpada Isboseten aldetik. Abner Isboseten agintari nagusiak, ezaguturik, urte batzuek pakean igarotzea asko zala, Isboset iñor gabe gelditzeko, zeren onen banderako asko Dabidi egunoro zijozkion, artu zuen erasotzeko asmoa. Dabidek laster jakin zuen, Abner-ek zer zerabilen, eta prestatu zan, arpegi emateko. Beste gerrari on askoren artean



Dabidek zeuzkan iru iloba, Sarbia bere arreba zarrenaren semeak, Joab, Abisai eta Asael, zeritzatenak. Joab iloba zarrena eta soldadu guzien Agintaria gizon aditua eta bulardetsua zan; ez ordea osaba bezain sotilla. Joabi zegokion gerra onetan agintzea, Dabid bera joan nai etzalako, zirudienez, Israelarren odola elkarren artean isurtzen ez ikusteagatik.

Joab, soldadu-talde bear ainbat zeritzan bat arturik, Gabaongo putzu-ondora joan zan. Abner ere urreratu zitzaion, eta Joabi esan zion, alde bakoitzetik mutil gazte batzuek irten zitezela, eta elkarri bat-banaka guzien aurrean eraso zizaicela. Joab bereala artara jarri zan. Alde bakoitzetik irten ziran amabi mutil gazte, zeñak, batak besteari itsatsirik, etzioten elkarri utzi, alik eta ogei ta lau mutillak illotzak gelditu ziran arteraño. Batalla onek etzuen auzia erabaki. Bereala bi Martiztiak betero izan zuten beste andiago bat, zeñetan Abner-en jendea txit abarrakitua izan zan; baña Joabek ere bere naigabea izan zuen. Asael, Joaben anaia gazteena zan lasterkari, izan diran obenetakoa; eta Abner-ek ikusi zuenean berari orpoz-orpo zerraikiola, itzulita, lanza sartu zion, eta il zuen. Andik laster Joabek ere, anaiari egiña gogoan zeukala, Abner saldukeriaz il zuen, zeñaren berriak Dabidi biotza erdiratu zion, zeren etsaiaren burua bazan ere, etzuen nai bere agintari batek alako bidegabeko langai negargarririk egitea. Isboseti ere Abner iltzeak txit min eman zion, eta eskuak illik geratu zitzaiozkan. Baña gertaera oien guzien artean Isboset beraren eriotzak ondore negargarrienak izan zituen.

## 2. Isboseten eriotza

Isboset Manainen bizi zan, eta bi Benjamintar Martiztian zerbait aginte zutenak. Manainera joan, eta Erregearen gelan, atezai zabartu zalako, iñor oartu gabe, sarturik, oiean lo zetzala, il, eta lepoa ebaki zioten; eta buruarekin Hebronera joan, eta Dabidi aurkeztu zitzaiozkan, zio-tsatela: Ara emen Isboset, Saul zure etsaiaren semearen burua. Ikuskarri negargarri onek Dabiden biotza erdiratuta utzi zuen. Bereala esan zuen; baldin Saulen il-berria eraman zuenari, albista-saria artu-ustean, bizia kendu banion, zenbat bidezago izango zan, gaitzik egin etzien Erregeari, zetzan lekuan, lepoa ebaki ziotenai, au bera egitea? Bere gordetzalleai, bada, agindu zien, bere-bereala il zitzatela, eta esku-oñak ebakirik, Hebrongo putzuan zinzilika ipiñi zituzten. Isboseten burua, zegokion eran, Hebronon lupetua izan zan.

Zazpi urte zeramazkien Dabidek Judako, eta Isbosetek gañerako Israel guziko Erregetzan. Lenengo bi urteetan pakean egon baziran ere, beste bostetan autsi-oso andiak izan zituzten, ez Dabidek biderik emanda; etzuen iñola ere odolik isuri nai: baziakien Israel guziko Errege Jainkoak egingo zuela, eta lanbide au onen eskuetan utzita zeukan, egunak betetzen ziranean, berak guzia egingo zuen uste oso-betean: beragatik etsai baten il-berria zetorkionean, bereala garbitzen zan, adieraziaz, etzala odol artan kutsutu; argatik, ez Saulen, ez Isboseten, eta ez onen agintari Abner-en iltzerik ezarri zitzaion.

Israel guzia Dabidgana aspaldian etziña zegoan; baziakien, alabañan, Jainkoak Israel zaintzeko autua zala. Bere doai andiak agerikoak ziran; Jainkoak lanbide guzietan eskutik zerabillen, eta Israelko Erregetzara ez-arian zeraman, Sauli esan izan zion ezkerro, onen etxetik Dabidenera aldaturko zuela. Isboseten il-berria, bada, barreatu zanean, Israelko buru eta andizki guziak bildu ziran, eta Dabidi aurkeztu zitzaiozkan, esanaz, bera Erregetzat ezagutzen zutela, eta bertatik bere mendeko jartzen zirala.

## 3. Dabid irugarren aldiaren Erregetzako igortzia

Samuelek igortzita zegoan Israel guzirako; gero Abiatarek Judako Triburako: eta oraingo aldiaren berriro eta argiro Israel guzirako igortzia izan bear zan. Lanbide au, zegokion anditasunarekin egiteko, batu ziran, gizon eldu eta agintea zuten guziak, irurenda berrogei milla soldadu, eta beste jende asko, eta guzien aurrean igortzia eta Erregetzat ezagutua izan zan.

Dabid, bada, Israel guziko Buru arkitu zanean, lenbizi ekin zion lana izan zan, Siongo gaztelua beretzeta. Sion zan Jerusalemgo uriaren erdian zegoan mendi-tontor bat, zeñaren gañean Jebustarrak zeukaten gaztelu bat eginda, eta emendik Jerusalem bizi ziranai kalte andiak egiten ziezen; eta lareun urte aietan Israeltarrak gaztelu au beretzeko al-egiñak egin bazituzten ere, alperrik nekatu ziran: eta Dabid, bereala asi zan, arteraño-koak ezin izan zutena, egiteko prestamenak artzen.

## 4. Siongo gazteluaren artuera

Abner, Isbosetek agintaritzat zeukana, il zan ezkerro, etzan bere lekuan iñor jarri, eta Dabidek Israelko soldadu guzien artean zabaldu



zuen, Siongo gaztelura igota, lenbiziko Jebustarra iltzen zuena, Martizti guziaren buru egingo zuela. Bereala elkarren leian irten ziran, sari andi bat irabazi nai zutenak. Joab izan zan lenbizi sartu, eta Jebustarrak il zituen: onen ondoren bere lagunak sartu ziran, eta Siongo gaztelua beretu zuten: eta Dabidek Abner saldukeriaz il zuen Joab au, bere Martiztiaren buruzat ipintzea gogo ezbazuen ere, bere itza bete bear izan zuen.

Gaztelu onen mendetzeak Dabiden otsa bazter guzietara barreatu zuen. Dabidek, berriz, aitor zuen Jainkoari bakarrik zor zitzaiola, lareun urtean ezin izan zutena, ain aisa iristea. Gaztelu onetan egin zuen erri berri bat, etxe eder-galantak inguruan zituena, eta deitu zion, *Dabiden Uria*. Onetarako Tiroko Errege Hiranek, Dabiden lanbide andiak aditurik, bialdu ziozkan zur-gai onak, eta arotzi eta argintzan ondo trebatutako langilleak. Gauza oiek onela zuzenduta, artu zuen Jaunaren etsai filistintarrak erasotzeko asmoa. Bi ekin-aldi gogor egin, eta bietan ondatu zituen, eta izu-ikara latza auzoetara bialduta, Israel pake gozoan jarri zan.

## 5. Jaunaren Kutxa santa aldatzea

Jerusalen zan Israel guziko Erri-burua, non Dabidek bizi-lekua ipiñi zuen; eta pensatu zuen, egoki zala Kutxa santa Kariatiarindik onara aldatzea. Bere iritzi au Israelko Andizki eta agintariak agertu zien, eta guziak Dabidekin bat egin ziran. Lanbide au, zegokion anditasunarekin egiteko, Israelko jendeak bildu, eta Apaiz eta beste Eliz-gizon asko arturik, joan zan, ogeita amar milla soldadu aurretik zituela, Kariatiarinera, non arkitzen zan Jaunaren Kutxa santa Abinadaben etxean gordeta, filistintarrak Israeli itzuli zioten ezkerro. Apaiz eta Lebitak gurdi berri batean ipiñi zuten, eta abiatu ziran, Oza eta Ahio Abinadaben bi semeak gurdi-zai zirala. Gurdia jende guziaren erdian zeramaten, Dabid eta beste soñulari eta kantariak Kutxa santaren aurre-aurretik zituztela, soñu-joaz eta dantzatuaz. Nakor-en larrañera eldu ziranean, idiak ostikoka asita, Kutxa santa zearkatu zalako, erori etzedin, Ozak eskua luzatu zion, eta Jainkoak kastigatu zuen, bertan illaz; debekatua zegoan, alabañan, apaiz etzanak Kutxa santari ukitzea, eta Jainkoak agertu nai izan zuen, debeku au aus-tea zein gaizki zan. Gertaera onek Dabidi naigabe andia eman zion. Jainkoari txit bildur zitzaion; baña oraingoan, sekulan ez bezala ikaratu zan, eta esan zuen: Nola Jaunaren Kutxa nik nere etxean artu dezaket? Argatik etzuen bere etxera eraman, ezpada Obededonenera.

Obededon gizon ona eta zuzena zan; eta bere etxean iduki zuen iru illabeteetan, Jainkoak ondasunak ugaritu, eta bedeinkazioz bete zuen. Obededonen zorion au Dabidek jakin zuenean, bereratzeko asmoa artu zuen. Onetarako Moisesek egindako Tabernakuloaren orde, berri bat eragin, eta bere Erriari ipiñi zuen. Israelko jendea bilduta, apaiz eta Lebitak berekin arturik, Obededonen etxera joan zan. Oraingo aldian etzuten, Kutxa santa gurdian ipiñita, lenagoko utsegiterik egin, ezpada Lebitak sorbaldan artu zuten. Israelko gizon eldu, Prinzipe eta jende guziak Kutxa santaren ondoan zijoazen, Dabid, arizko soñeko bat artuta, soñulari askorekin soñu-joaz, kantatuaz, eta dantzan Kutxaren aurretik zala. Sei pausotik sira idi bat eta bildots bat Jaunari eskeñi edo sakrifikatzen zitzaiozkan, eta Dabidek dantza-aldia egiten zuen. Modu onetan Kutxa santa Obededonen etxetik Dabidenera aldatuta, Dabidek prestatutako leku ederrean ipiñi zuten. Dabidek, zerraikion jende guzia, Jaunaren izenean bedeinkatu zuen, eta atsegin andian etxera zan; baña laster naigabe bat izan zuen. Nikol bere emazteak, Kutxa santaren aurrean dantzan Dabid ibiltze hura, etzuen ontzat artu, eta etxera zaneke, arrokeriaz beterik, arpegira eman zion, gauza lotsagarri bat egin izan balu bezala. Baña Dabidek erantzun zion; Zure aita eta aide guziak utzirik, Jainkoak bere jendearen buru izateko autu ninduen, eta Jaunaren aurrean dantzatuko det, eta beeratuko naiz, lenago beeratu naizan baño ere geiago: onore anditzat daukat mundu guziaren aurrean bee eta umill agertzea. Onela Dabidek bere emaztearen arrokeria beeratu nai izan zuen. Ezdakigu, Mikolek erantzueru au nola artuko zuen; baña bai, emakume arro oni Jainkoak etziola aurrik eman, bere andinaia nozitu zezan.

## 6. Eliza egiteko asmoa Dabidek artzen du, eta Jaunak eragozten dio

Dabid biotz andikoa jarri zan, bera zer etxetan bizi zan, eta Jaunaren Kutxa santa zer lekuan zegoan, begira; eta egoki etzeritzan, beretzat ain beste, eta Jaunarentzat ain gitxi izatea, eta artu zuen Eliza andi-eder bat Jerusalemenean egiteko asmoa. Bere gogo au Natan Profetari agertu zion; baña Jainkoak Profeta onen beronen bitartez esan zion, etzuela Jaunarentzat etxerik egingo, ezpada hura ildakoan, bere lekuan ipiñiko zuela bere seme bat, eta onek egingo ziola. Bere asmoari, bada, utzi zion, eta Jaunaren esanera gogoz jarri zan. Ezagutu zuen, Jaunak gerrarako zeuka-





la autua, eta onen garaipenak gozatzeko, eta biltzen zituen gaiakin Eliza egiteko, semea zala izendatua.

## 7. Dabiden gerrak

Abraham eta bere ondoreari Jainkoak promestutako lurra, oraindik arrotz guzietatik osotoro garbitu gabe zegoan, eta Dabidi gogoak eman zion, oiek guziak bota, eta Israeltarrak uts-utsik gelditzea. Onetarako filis-tintarrak, Moabko eta beste Errege askori eraso zion, eta guziak menderatu eta ondatu zituen, eta oiei kendutako urre eta gañerako ondasun ugariak gorde zituen, denborarekin Eliza egiteko. Baña beste gerra askoren artean izan zuen bat, txit kalte andia, eta bere egunetako negarbidia eka-ri ziona. Ara nola.

Israelekin ondo etzeuden guziakin, Dabidek eraso gogorak izan zituen; ez, ordea, Amontarren Errege Naasekin. Oni asko zor zion, Saulen igesi zebillela, berari eta bere etxekoai egin izan zion arrera onagatik, eta mesede oiek gogoan zeuzkala, beti adiskidetasunean zegoan. Naas il zanean, Hanon bere Semea aitaren lekuan jarri zan. Naasen il-berria artu zuenean, Hanoni mandatariak bialdu ziozkan, bere damua adieraztera, eta semea aitaren lekuan jartzeaz, artzen zuen atsegiña, erakustera. Errege gazte onek, berez besterik egingo bazuen ere, aldamenekoen esanai leku eman zion. Losentxari oiek, bada, sinisterazo zioten, Dabidek etzituela, ari ondo naiez, mandatariak bialdu, ezpada bere bazterrak nola zeuden, jakitera, besteai bezala erasotzeko. Errege ezer-ez ikusiak agindu zuen, mandatari oiek atzitu, eta bizar erdi-ebakiakin, eta gerriak beeko soñekokak moztuta, beren Erregeagana bialtzeko. Lotsagorrian etxerantz abiatu ziran, eta Dabidek jakin zuenean, zer gertatu zitzaien, agindu zion, Jerikora joan, eta bizarrak luzatu artean, egon zitezela, eta orduan Jerusalemara itzuliko zirala. Iseka onek Dabid aserretu zuen, eta prestatu zan, zegokien kastigua, Amontarrak emateko.

Amontarrak ere prestamen andiak egin zituzten, arpegi emateko; baña Dabidek bialdutako agintari Joabek geiago zezakean, eta bereala igesi bialdu zituen. Berriz ere etsaia, Siroarrak lagun artuta, gerrarako prestatu zan, eta Dabidek oraingoan etzuen inor buru bialdu, ezpada bera joan zan, agintzera: bai laster erakutsi ere, nork agintzen zuen. Berrogei milla oñezko, eta beste ainbeste zaldizko il, eta zazpieun gurdi amarna gizon gerrararekin artu ziezten. Ilkintza izugarri au bakarrik Siroarrak

nozitu zuten, eta Amontarrak geiago laguntzeko gogo gabe gelditu ziran. Dabidek Amontarrak ere beren zigorrada nai zion eman; baña negua alde-ratu zalako, asmo au udaberrirako utzi zuen. Egunak eldu ziranean, agintari Joab bialdu zuen, bera zorigaiztoan etxean geldituta. Israeltarrak bazi-joazen etsaia eskuratzen, eta Raban sarerazotzen, emen beren atzen-patua artzeko. Dabid bitartean etxean bizi zan, deabruari bideak zabaltzen.

## 8. Dabiden erorikoa

Egun batean, bada, Dabid bazkalondoko lo-susta eginda, etxeko barandan pasean zebillela, ikusi zuen emakume eder bat, putzuan garbitzen ari zana, eta gogoan sartu zitzaion. Nor zan galdetu, eta jakin zuenean, Uriasen emazte Betsabee zala, etxera eramanez, eta lotsagarriko bekatuan erori zan. Betsabee bere buruari laster igerru zion, aurdun zala; eta bere senarrak kanpokoakin zebiltzanentzat ipiña zegoan iltzeko kastiguaren bildurrez, Erregeari gaztigatu zion, galdua zala. Errege ere esturasun larrian arkitu zan, beren gaiztakeria estaltzeko, zer egin ezin asmatuz. Iru illabete ziran Urias senarra Amontarren kontra gerrara joan zala, Raba artu artean, etxera ez itzultzeko asmoan.

Dabidek Joabi gaztigatu zion, gerrako berri jakiteko aitzakiarekin Urias bialdu zizaiola. Urias Dabidi aurkeztu zitzaionean, itzaldia eginda, Uriasi esan zion, etxera joan, eta emaztearen ondoan atsedean zezala: bada, ezaguturik zeukala, arteraño zein asko egin zuen. Urias Erregeagandik irten, eta etxera gabe, Errege-etxeko atean gelditu zan, eta gordelariakin batean lo egin zuen. Dabidek au jakin zuenean, bereganeraz, eta esan zion: Zergatik etxera etzera? Uriasek erantzun zion: Jaunaren Kutxa, Israel eta Juda estalpe uts batean daude; Joab nere nagusia, eta nere Jaunaren serbitzariak lurrean dautza, eta ni nere etxean sartu, jan, edan, eta emaztearekin etzatera? Ez orrelakorik, ez. Dabidek bertan geldierazo zuen, biaramonean bialduko zuela, esanda. Bitartean bere maiean ipiñi zuen, eta eman zion edaten, burua nastuta, Jaunaren Kutxa, Israelko soldaduak, eta esan zituen beste gauzak aztu zekizkion, eta etxeratuta emaztearekin etzan zedin, onela bere gaiztakeria estaltzeko: baña Urias kontu andikoa zan, nola-nai burua nastutzerano edateko, eta Errege-etxetik irtenda, arratseko lekuan atean gelditu zan.

Dabidek ikusirik etzuela ezer aurreratzen, egin-alak alperrik zirala, gizon animotsu hura bere esanera ipintzeko, eta Betsabeeren aurduntza



agertzera zijoala, biaramonean Urias Martiztira bialdu zuen, Joabentzat txartel bat emanda. Txartel onetan Joabi esaten zion, perillik andieneko leku batean Urias ipiñi zezala, eta emen uzteko, etsaiaren eskuetan il zedin. Dabidek esana Joabek egin zuen, eta etsaiak emandako eraso-aldi batean, inoren laguntza gabez, Urias il zan. Uriasen iltzea Dabidi gaztigatu zion, eta Dabid, azaletik agertu ezbazuen ere, barrunen poztu zan. Betsabeek senarraren il-berria artu zuenean, oitura zan bezala, zazpi egunean negar egin zuen: gero proguko egunak igarota, Dabidek etxera eramian, ezkondu, eta seme bat egin zuen.

Zein lauso lodiak bekatuak sortzen dituen, bear bezala begiratzeko! Dabiden gaiztakeriak laster barreatu ziran: Errege onen eroriko galgarria, au estaltzeagatik eragindako eriotza, bere gaiztakeri-laguna etxera eramanda, onen seme egitea, Erreinuko eta auzoetakoak aotan zerabilzkiten: bakarrik Dabid itsua zegoan; baña zetzan itsumenetik, Jainkoak mugonez atera nai izan zuen.

## 9. Natan Profetak itzegiten dio

Bekatua eginda, urte beteren buruan Natan Profetaren aotik Dabidi itzegin zion onela: Erri batean bi gizon arkitzen ziran, bat aberatsa, eta beste beartsua. Aberatsak ardi eta idi asko zituen, eta beartsuak etzuen ardi bat bakarra baizik, erosi eta etxean semeakin batean, bere ogitik eta edanontzitik jaten eta edaten emanaz, eta berekin etzanaz azi zuena, eta alaba bat bezala zeukana. Arrotz bat ostatuz joan zitzaion bein batean, bere ardi eta idiai utzirik, aberats onek beartsuaren ardi bakarra artu, il, maneatu eta arrotzari jaten eman zion. Dabid, itzketa au aditutakoan, aberatsaren kontra aserretu zan, eta Natani esan zion; Jainkoak barka dagidala, ori egin duen gizonak iltzea merezi du. Kendutako ardi bakarra laurakin ordaindu bear dio. Orduan Natanek esan zion: Ori zu zera.

Dabid gelditu zan, zer esan etziakiela; eta Natanek, Jaunaren izenean zijoakionak bezala, zorrotzkiro itzegin zion, esanaz: Begira Israelko Jainko Jaunak zer dion: Nik Israelko Erregetzat igortzi zindudan; Saulen eskuetatik atera ere bai. Zure Jaunaren etxea eta emazteak eman nizkizun. Israel eta Judako Buru egin zaitut; eta gauza oiek asko ezbadira, geiago emango zatzu. Zergatik, bada, nere esanak ostikopetu dituzu, nere aurrean gaizki egiñaz? Urias ganibitaz josi, eta Amontarren ezpataz ilera-zo dezu. Orregetatik zure etxean negarra beti izango da, utzi nazulako, eta

zere Uriasen emaztea zeretzat artu dezun. Zu zerorren etxean, zuri gaitz egingo dizuna sortuko da: Zuk zerorrek dakusula, zure emazteak bestek artuko ditu, eta oiekien eguzki-argitan etzango da, zuk isillik egin zenduelako: eta gauza oiek guziak Israel guziaren aurrean, eta egun-argiz egingo ditut.

Dabidek, osotoro izuturik, etzuen izan itz oiek besterik esateko biotzik: Jaunaren begietan gaizki egin det. Natanek, luzaro egon gabe, adierazo zion, Jainkoak Dabiden damua ikusirik, bekatua barkatzen ziola; baña Israel guziari gaizki itzegiteko bidea eman ziolako, bere gurari gaiztotik izandako semea ilko zitzaioa. Natanek, gaztigu min au emanda, Dabiden etxetik berera aldegin zuen: eta Dabidi bereala esan zioten, bide gaiztoko semea gaitzak artu, eta iltzeko zorian zegoala. Dabid lurreen auzpez jarri zan; barautu zuen, eta semearen onagatik Jaunari eskatu zion; baña zazpigarren egunean aurra il zan.

Dabidek bere bekatuaren lenengo kastigua artu zuen egunetan, Joab agintariak Amontarrakiko eraso aurrera zeraman, eta Raban laster sartzeko bideak garbitu zituen, Dabidi gaztigatu zion, sarrerarako joan zedilla, garaipen onen izena Errege berak eramian zezan. Dabid, gerrari asko arturik, joan zan, eta egun gitxiren epean artu zuten Rabako uri sendo eta ondo itxia, non arkitu zituzten ezin esan ainbat ondasun: bada Erreinuko Andizki, aberats, eta zerbait zezaketen guziak, emen sartu izan ziran, beren buruak gorde naiez; eta guzien artean begiragarrikoa izan zan Erregearen koroa, zeñak larogeta bi libra urre zituen, asko diamante balio andikoaz landara.

Amontarrak, Dabiden mandatariari egindako isekakin, Israeltarrai eragindako gaiztakeriakin, eta erakarrirako kalteakin irabazi zuten kastigu gogorra, artu zuten. Dabid txit biotz andikoa zan; baña idoloitale aiek Jainko egiazkoari egindako bidegabekeriak esku zorrotza eskatzen zuten, eta Dabidek ondo nozierazo zien. Amontar guziak ezpataz josi, eta burnizko narra orzdun-pean txeatuak izan ziran, garia larranean trallatu edo irabiurtzen dan gisan. Onela Amontarrakiko gerra bukatutik, Dabid bere Martiztiarekin Jerusalemara itzuli zan.



## EMERET'ZIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Salomonen jaiotza

Garaipen onen ondoren Israel pake onean zegoan; lenbiziko lau urteetan Dabidek etzuen eramankizun edo ez-bear andirik izan. Uste zuen, bere penitenziarekin Jaunaren aserre zuzena itzali zuela, eta Natan Profetaren bitartez egin ziozkan zemaia edo amenazak, itz utsetan geldituko zirala. Uste onetarako asko laguntzen zion, alde guzietatik gauzak ondo zetorzkola, ikusteak. Lau urte oietan, Betsabee bere lengo bekatulagun, eta orain egiazko emazteagandik, lau seme izan zituen, eta oietatik atzenekoa *Salomon* zeritzana, eta Jainkoak Natan beraren bidez *Jaunaren maitagarria* deitu ziona. Aur onen jaiotzak Dabiden biotza zabaldu, eta pozez bete zuen, zeren begiratzen zion bere oñordeko, eta Israelen buru gogoangarri izan bear zanari bezala. Baña laster asi zitzaiozkan, bere bekatuari zegozkion kastiguak, erortzen, eta Jaunaren esanak betetzen.

Amnon Dabiden seme zarrenak, bere arreba-erdi Tamar zeritzanagana amorio galduari, biotzean leku eman, eta gogoa bete naiez zebillen. Egun batean eri-irudia eginda, Tamar-en eskuz maneaturtako sendagarriren bat artzeko aitzakitan, gelara eraman, eta donzella gaztea galdu zuen; eta arteraño amorio loia gorroto bihurturik, lotsa gorrian begietatik kendu zuen. Tamar, Amnonen etxetik irtenda, beste anaia oso Absalonenera joan zan, negar-malkoak zeriozkala. Absalonek egin-al guzian arreba alaitu nai izan zuen; baña Tamar ezin poztuz, eta artutako lotsa burutik ezin kenduz, egun gitxiren epean il zan. Dabidek Amnonen okerra aditu zuenean, damu izan zuen; baña semeari atsekaberik etzion agertu, txit maite zuelako, eta zegokion kastigua Jaunaren eskuetan utzi zuen; Absalonek ez ordea; eta arrebari egindako bidegabekeria eta lotsakizuna, lenbizi zetorkion era onean, berak nozierazo nai izan zion; eta pensatu zuen, onetarako ordurik obena ardi-mozketako eguna zala. Asmo onetan bi urte joan ziran.

### 2. Absalonek Amnon iltzen du

Israeltarrak onelako lan-egunetan beren aide eta adiskideak deitu oi zituzten; eta Absalonek ere Errege eta senide guziaz otsegin zien, bazkari

andi bat egitera. Dabidek erantzun zion, ea aideak zertako zituen, eta kostu aiek zergatik ziran? Eta etzan joan nai izan. Absalonek ikusirik, aita etzitzaiola joaten, esan zion: Zuk nai ez dezun ezkerro, Amnon nere anaia gurekin betor. Aita etzan beingoan jarri, Amnoni joaten, uztera; baña Absalonon leia ain andia izanik, bere baimena eman zuen, eta Amnon eta beste senide guziak Absalonon etxera joan ziran. Absalonek Errege bati dagokion bazkari andi bat ipiñi zuen, eta bere morroiai esan zien: Kontuan zaudete, Amnoni ardoak burua noiz nasten dion, eta nik keñu egiten dizutedan; orduan eraso, eta bereala ilko dezute. Nagusiaren esana morroiak egin zuten. Beste senide guziak eriotza onekin arri-egiñik, mandoetan jarrita, aitagana Jerusalemenera igesi itzuli ziran.

Absalonek ere bere aitasaba Gesurko Errege Tolmaigana iges-egin zuen. Dabidek il-berrri negargarri au artu zuen, beste semeak eldu baño lenago; baña ez Amnon bakarria illa zala, ezpada onekin batean beste seme guziak ere bai. Aita gizaxoak soñekoak urratu, eta auzpez jarri zan: aldamentean zeuzkanak ere berebat egin zuten. Estura larri onetan Jonadab biurri, arreba Tamar beretzeko Amnoni, zer egin bear zuen, erakutsi zion konsejari zorigaiztoko ark, Dabidi esan zion: Ez orrelakorik; Amnon da bakarrik il dana. Itzketa onetan zeudela, igesi zetozenak sartu ziran: aita-semeak elkarganatu ziranean, negarrak eta aieskak geitu ziran: aitak guziak laztandu zituen: biotzik biguñenarekin begiratzen zien: baña Amnon illa eta onen iltzalle Absalon etziran ageri. Ikusgarri negargarria!

Dabidek seme zarrenaren iltzea txit min zuen, eta are miñago beste semea iltzalle izatea; eta Absaloni zein ere ondo nai zion, ezagutzen zuen, kastigurik gogorrenaren diña egin zala, eta au bear bezala emateko, Gesurko Erregeari askotan gaztigatu zion, bialtzeko; baña bero artan etzion bialtzen. Onetan iru urte joan ziran: bitartean Dabiden sua zerbait epeldu zan; biotza bigundu zitzaion; eta eman zion, Jerusalemenera etortzeko baimena; ordea aren begietan ez jartzeko itzean. Jerusalemen bi urte igaro zituen, aita Dabiden aurrera gabe. Izaera onezaz asperturik, Joabi bi aldiz deitu zion, aitari bere alde itzegiteko; baña Joabek etzion erantzun. Orduan Absalonek bere morroiai agindu zien, Joaben garagar-soroetara joan, eta su emateko. Joabek, bere morroiak esanda, jakin zuenean, Absalononak zer egin zuten, Absaloni joan, eta galdetu zion, ea zergatik aren garagardiak erreerazo zituen? Absalonek erantzun zion, bi aldiz gaztigatu, eta etorri etzitzaiolako, morroiai lan hura agindu ziela. Orduan Joabek, gogo gaiztoz bederik, Absalonon alde Dabidi itzegin zion. Aitak semeari otsegin zion; semea aitagana sartu eta auzpeztu zan; aitak semea laztandu zuen; eta bien arteko pakeak egin ziran.



### 3. Absalonen Erregetzeko asmoak

Absalonek, aitaren adiskidetasunera itzuli zanean, bere gaizki-egiñaren damurik etzeukan, aitak uste zuen bezala; ezpada bereala artu zuen, aitaren aulkian bera jartzeko asmoa. Onetarako asi zan bideak egiten. Ipiñi zituen kotxe ederrak, eta serbitzari asko, zeñakin Errege baten anditasunean irteten zan. Dabidgana zerbaiten eske, edo auziren batekin zijozaz enai leunki, eta loseintxa andian itzegiten zien, esanaz, aitaren lekuan bazegoan, etzuela inork gaizki zer esanik izango; nori berea eman, eta guziaz on egiten, nekatuko litzakeala. Onelako leunkeria eta loseintxakin Israelarren gogoak irabazi eta beretu zituen.

Seme galdu onek ezagutu zuenean, zerbait zezaketenak beregana ipiñi zituela, aitari Hebronera joateko baimena eskatu zion, erbestetuta zegoanean, Jaunari egindako promes bat betetzeko aitzakitan. Dabidek gaitz-uste gabe, baimena eman zion, esanaz; Pakean zoaz. Jerusalemetik irten bezain laster, Absalonek bazter guzietara mandatariak bialdu zituen, tronpeta-soñua aditzen zutenean, Absalon Hebroneren Errege jarri zala, ezagutu zezatela, gaztigatzera. Hebronera zanean, bereala bere burua Errege egin, eta tronpeta-soñuarekin jende eta soldadu-talde andiak beregana batu zituen, eta guzien buru jarri zan.

### 4. Dabiden igesa

Dabidek jakin zuenean, semeak Hebroneren zer egin zuen, bere serbitzariak esan zien: Emendik igesi goazen, Absalonen eskuetan erori ez gaitezen. Dabid Jerusalemetik oñez irten zan, bere lau emazte lenengo mallakoak, semeak eta etxeakoak artuta, uriaren kontuartzalle guziak, eta Saulen igesi zebillenean, berekin izaten zituen seieun gizon indartsu aiek laguntzen ziotela. Beste amar emazte bigarren mallakoak etxeari kontuartzatzen utzi zituen. Dabid bere lagunakin negarrez eta aieskaz eremuronz bazijoan, eta Zedrongo ibaia igarotzean, alderatu zitzaizkan Sadok eta Abiatar beste Lebita guziakin, Kutxa santa berekin zutela, zeñak Dabid txit poztu zuen: baña gerrako gora-beeraetan okerrik izan etzezan, Sado-ki esan zion, Kutxa santa Jerusalemenera itzuli zezatela; eta bera Olibeteko

mendirara joan zan oñutsean, eta burua autsez beteta, Jaunaren aserre bidezkoa itzaltzeko penitentzia egin naiez.

Bauringo urira urreratu zanean, bidera irten zitzaion Benjamintar bat, Saulen aidea, eta Semei zeritzana, iseka eta burlaz betetzera; asi zitzaion madarikatzen, eta atzenerako arrika ematen. Ez da itz lotsagarri-rik, ao gaizto ari jaulkitzen etzizaionik: Oa, oa, esaten zion, odolzale ori. Orain, orain, nozitu bear dek, Saulen etxean isurera uen odola. Bide gabe eretu uen erreinua, ire semearen eskuetan Jainkoak orain ipiñi dik. Dabidekin zijoan bere illoba Abisaik, ainbeste burla eta lotsagabekeria ezin eramanaz, Erregeari esan zion: Zergatik gizon orrek Errege nere Jaunari ain gaizki itzezin bear dio? Joanda, lepoa ebakiko diot. Dabidek etzion utzi, eta Abisai, eta beste lagunai esan zien: Gizon orri zer nai diozute? Dakusute, ni neronen semea nere biziaren billan dabillega, eta Benjamintar batek ori egitea, zer miresteko da? Utzi zaiozute, madarikatu nazan, Jainkoak utzi dion ezker. Dabid bere aginte guziaren bearrean arkitu zan, Semeiri gaitzik egiten, bere lagunai eragozteko; eta nekez bederik, Baurinen sartu ziran, eta atsedean zuten.

Dabidek zuen adiskide leial, eta esturasun guzietan iritzia eskatzen zion bat, Kusai zeritzana. Kusai Dabidi bere igesian jarraitu nai izan zitzaion; baña Jerusalemenera itzuli zuen esanaz, mesede andiak menturaz egin litzazkiokeala. Kusai Jerusalemenera sartu zan, Absalon bere anditasun guzian sartzen zan ordu bere-berean, eta Absaloni bereala joan zitzaion, agur egitera, eta bere serbitzoak eskeñtzera. Absalon poztu zan, bere aitaren adiskide andi eta konsellari aditu onek Erregetzat ezagutzen zuela, ikusita, zeren onen argiaz uste zuen, bear-orduetan baliatuko zala.

### 5. Dabiden emazteen galera

Absalonek bereala Akitofeli esan zion, Kusairekin egon, eta itzezin zezatela, zer egin bear ote zan, asitako lanean ondo irteteko, eta aita Dabiden koroa osotoro beretzeko. Akitofel gizon galdu biotz gaiztoko, eta ezeri begiratzan etziona zan, berea egin ezker. Dabiden denboran Jainkozko edo bertutetsu egiten zan, eta Absalonekin ikusiko degu, infernuitik irtendako baten lanak egiten. Absaloni esan zion, bada, aitaren koroa beretu, eta sendotzeko, bide obeagorik etzuela, aitak etxe-zai utzi zituen amar emazteak artu, eta galtzea baño. Au Israelko jendeak ikusten zutenean, ezagutuko zutela, aita-semeen arteko adiskidetasunak betiko autsiak



zirala, eta bein artutako aldeari jarraitzea beste biderik etzala, beren buruak gordetzeko. Konsellurik gaiztoena eta galgarriena zan; baña Absalonek, ez lotsari, ez zer-esanari, ez onoreari, ez konzienziari begiratzen zion. Aitaren amar emazteak bere etxe-gañoeko leku ageri batera eramenerazo, eta, guziak zekustela, an bertan galdu zituen, eta esan ere ezin ditezkean zatarkeria likits eta loi guziak egin ziezten. Israel guzia, ikusteko negargarri onekin, arri-egini gelditu zan, eta Akitofelek esan bezala, Absalon Erregetzat artu zutenak, jarri ziran, il edo bizi, berari jarraitzera, aitagandik barkaziorik izango etzala, etsita.

Akitofelek loikeria ez-aditu au epeltasun andian bere begiakini ikusi ondoren, Absaloni joan zitzaion esatera, on zala, armadunak bere-bereala bilduta, Dabidi zegoan lekuan, prestatzeko lekurik ere eman gabe, erasotzea. Nik neronek, esan zion, amar milla gizon bizkorrenak artuko ditut; gaur arratsean itsumustuan sartuko natzaio, bera eta bere lagunak auldu eta nekatuta dauden lekura; lagunak iges-egingo diote; eta orduan Erregea ilko det, eta gañerakoak ondatuko ditut, eta zu pake oso-betean geldituko zera. Akitofelen esana Absalon eta bere aldeko zarrak ondo iruditut zitzaien; baña Absalonek, ordu onean, Kusairi ere iritzia eskatu nai izan zion. Kusaik erantzun zuen, Akitofelek etzuela oraingo aldian ondo erakusten. Badakizu, Absaloni esan zion, zure aita, eta oni darraizkionak txit dirala bulardetsuak, bizkorrak eta biotzean min dutenak: gañera zure aita gerrari ona da, eta era onik galtzen ezdakiena. Orain berean menturaz arzuloren batean ezkatututa dago: eta zureetatik bat asieran galtzen bada, edozeñek jakingo du, eta esango du, Absalonen jende guzia ondautua da: eta biotzik andiena ere laborrian jarriko da. Nere iritzian obena litzake, Israel guzia bildu, eta guziok batean, zu erdian zaitugula, erasotzea, eta Dabid, eta onen lagunai, bat bakarrik ere utzi gabe, eskuak ezarriko dieztegu. Oiek eta onelako beste gauza asko Kusaik Absaloni esan ziozkan, ez indar andikoak zirala, uste zuelako, ezpada, bitartean Dabidi zer zerabilten gaztigatzeko lekua izan zezan, jakiñean jarri, eta presta zedin. Absalon eta onekin ziran zarrak Kusairen iritzia obeagotzat artu zuten, Akitofelena baño, zeña, ikusirik bere esanari begiratu etzitzaiola, etxera joan, eta urkatu zan.

Kusaik Dabidi bereala gaztigatu zion, semeak zer asmo zuen: eta Dabid bere lagunakin Jordango ibaiatz beste alderantz joan zan, Absalon itsumustuan etzetorkion. Manainera zanean, jakin zuen, Absalon Martiztiarekin billan zijoakiola. Seme baten kontra ezer egiteak min ematen zion; baña bearrean arkitu zan. Bere soldadu banakak iru zatitan, bakoi-tzari agintari bana emanda, ipiñi zituen. Bera ere guzien buru joan nai izan

zan; baña etzioten utzi, esanaz, aren biziak beste guziak baño geiago balio zuela, eta gora-beera guzietan, etsaiaren eskuetan erori gabe, gorde bear zala. Martiztia, bada, Manaindik irten zan, eta Dabid erriko atean jarrita zegoan, bere soldadu apurak nola zijoazen begira, eta aita zala aztu gabe, agintariak, beste guziak dantzutela, esan zien, Absalonen bizia, arren, gorde zezatela. Garaipena eskuan bazeukan bezala, Dabidek itzegiten zuen; baziekien alabañan, Jainkoaren lana zala eta ondo irteteko indarrak emango ziozkala, eta etzuen utsegin.

## 6. Absalonen eriotza

Absalonek bere Martiztiarekin Jordango ibaia ordurako igaro zuen, eta bi Martiztiak Efraingo ordekan aurkez-aurke jarri ziran: eta elkarri eraso bezain laster, ezagutu zan, Absalonen Martizti andia Dabidenaren eskuetan eroriko zala. Igesari eman zitzaiozkan, eta Dabidenak ilkintza izugarria egin zuten. Ogei milla eraso-lekuan, eta beste ogei mila eta geiago urreneko basoan illotzak geratu ziran. Absalonek basorantz iges-egin zuen: eta Dabiden soldaduak, nola zijoan, ikusi bazuten ere, etzioten ezer egin nai izan, aita agindua gogoan zeukatela. Baña Zein patu gaiztoak itxedoten zion! Mando-gañoan igesi zijoala, arte-pe adartsu batean igarotzean, besanga edo adarrean buruko ille luzeak nastuta, zinzilika gelditu zan, et mandoa korrika aurrera joan zitzaion. Soldadu batek ikusi zuen, nola airean zegoan, ez zerurako eta ez lurrerako; baña etzion onek ere ukitu, aitaren esanaz oroituta; Joabi joan zitzaion berri ematera. Joabek esan zion: Ikusi zenduen ezker, zergatik lurrari josi etziñion, eta amar amar-erreako eta gerriko eder bat emango nizkizun? Soldaduak erantzun zion: Milla zillar-diru eskuan ipiñiko baziñizkit ere, Erregearen semeari ez nioke eskurik ezarriko; bada, guziok dantzugula, zuri zerori, Abisai eta Etairi agindu zituzten, Absalon bizirik gordetzeko. Joab etzan ain leiala izan, bere nagusiaren esana egiteko: eta soldaduari esan zion: nik neronek, zuk nai izan ez dezuna, egingo det; eta zure aurrean erasoko diot. Iru gezi edo ezten artu zituen, eta biotzaren erdian sartu ziozkan. Ala ere oraindik asnasa bazuela ikusita, Joaben morroi batzuek joan, eta il zuten. Orduan Joabek gerra-soñua jota, igeslariak jarraitzeari utzi zion, odol geiago isuri etzedin. Bereala zulo bat eragin zuen, eta emen Absalonen gorputz-illa sartuta, arri-meta andi batekin estali zuen.



Berri au zeramaion mandatariak, soldaduak irten ziranean, begira jarritako erriko atean aita arkitu zuen, eta Dabidek bereala galdetu zion: Absalon bizi da? Beti au gogoan zeukan: ezagutzen zuen, alabañan, lanbide aietan zebilela, iltzen bazan, gorputzaren aldetik, ez ezen, animarenetik ere illa, eta sekula guzian galdua zala, eta berak bezala, penitentzia egiteko lekua opa zion. Mandatariak erantzun zionean, Absalon il zala, gela batean sartu, eta negarrari eman zitzaion, ziola: Ene seme Absalon! Absalon ene semea! Ai zure bizia nerearen truke erosi al-baneza! Absalon ene semea! Ene seme Absalon! Berri negargarri au soldaduetan barreatu zan, eta egun artan Martiztia errian etzan sartu, Erregeak bere negar-aldia egiteko lekua izan zezan.

## 7. Joaben ausardia

Joab, Erregearen esana ezertan artu gabe, Absaloni bizia kendu zionak, aditu zuenean, Dabid negarrez zegoala, lotsagabekeria andian gelara sartu zitzaion, eta ausardiz esan zion: Zure bizia, zure semeen eta emazteenak gorde dituzten zure serbitzariak gaur biotzak illundu dieztezu. Iguintzen zaituztenak maite dituzu; eta maite zaituztenak iguintzen dituzu. Gaur argiro adierazo dezu, zure soldadu eta agintarien kontu gitxi daukazula; eta Absalon bizirik gelditu ezker, gañerakoak il bagiña ere, ez bide zenduen naigaberik artuko. Dabidek etzion itzik trukatu. Joaben lotsa galdua etzan onenbestean gelditu: are geiago esan zion: jaiki eta kanpora atoz, eta zure serbitzariak agertu zatzakie, eta erakutsi, pozez zaudela, eta aiek egiña ontzat ematen dezula; bestela, ala Jainkoak salba nazala, etzatzu bat bakarrik ere gaur arratsean geratuko. Dabid, negar-malkoak utzirik, erriko atera jatsi zan; eta agintari, soldadu, eta beste jende guziak jakin zutenean, aurkeztu zitzaiozkan; txit arrera biguña eta kariñotsua egin, eta beren leialtasun eta bizkortasunagatik esker-onak eman ziezten, eta elkarri diosal-egiñik, nor bere lekura aldegin zuen.

Absalon, eta oni zerraizkion asko il, eta gañerakoak igesi joan ziranean, ezagutu zan, gauzak beren bidean zijoazela, eta Jainkoak Dabidi Errege egiazkotzat begiratzen ziola. Onek, bazirudien, Jerusalemara bereala joan baizik etzuela; baña langai au donarioz artu zuen. Dabid utzita, Absalon Erregetzat ezagutu zuten guziak, bide zuzenera itzuli zitezen, eskeñi zuen pake ona, eta egin ziozkaten bidegabekeria guzian aztu osoa. Aren biotz andiak beste gauzarik ezin zezakean!; eta etzuen ezer galdu.

Bereala Israel guziko mandatariak, Erregetzat ezagutzen zuten berriarekin alderatu zitzaiozkan. Jende guzia bildurik, Manaindik irten, eta Jerusalemeneron abiatu zan, eta Jordango ibaia igarotakoan, egonaldi edo atsedeen luze bat egin zuen, arteraño batu etzitaiozkanak erortzeko lekua izan zezaten, anditasun guziarekin Jerusalemeneron sartzeko.

## 8. Jerusalemara Dabiden itzulera

Geraldi edo atsedeen onetan bere biotz andia zertan erakutsi izan zuen. Absalonen igesi basora zijoala, bidean ainbeste iseka eta burla egin, eta atzenik arrika eman izan zion Semei hura, onetan barkazio-eske jarri zitzaion: eta Dabidek bertatik guzia barkatu zion. Onetan eta beste zenbat gauzaetan bere zuzentasuna agertu, eta Jerusalemeneronko bidean jarri zan; baña bidean zijoazela, Judako Tribuaren, eta Israelkoen artean despita gogor bat sortu zan, eta elkarrekin itz latzak trukatu zituzten, eta despita onetan izan zan gizon sutsu eta nasle andi bat, bere burua agertu nai izan zuena. Seba gizon biurri onek soñu-joaz, Israelko guziak bildu, eta deadar egin zuen, aiek Dabidekin zer egiñik etzeukatela, eta Dabid utzirik, Judakoak ez, beste guziak, Sebari jarraitu zitzaiozkan, eta Dabid Jerusalemeneron Judarrakin sartu zan. Sarrera au Dabidentzat etzan uste zuen bezain gozatsua izan despita berri argatik; eta are mingarriagoa izan zan, bere etxera joanda, seme Absalonek galdutako amar emazte aiek ikusi zituenean, zeñak bizileku ederretan ipiñi zituen, Errege beraren maietik jaten zutela, eta geroztik bizi-alargun izan ziran, eta Dabid etzan geiago aiekin nastu.

Langai triste au onela erabakita, asi zan bideko despita banakatu zituen jendeak bateratzeko prestamenak artzen. Lanbide oni bear bezala buru emateko, Joab baño agintari obeagorik etzan: ordea gizon urgullutsu eta goi-zale onen arrokeriak eta gaiztakeriak Dabid gogaituta zeukaten, eta Martiztiaren agintea Joabi kendurik, onen lengusu Amasari emateko asmoa artu zuen.

Amasa Absalonen aldekoa izan bazan ere, hura il ezker, Dabid leialkiro serbitzen zuen; bideko despitan pakeagatik asko nekatu zan, eta orain ere Seba jaiki zanean, Dabiden alde agertu zan. Amasa oni, bada, agindu zion, Judako soldadu guziak iru egunen barruan bilduta, bera aien buru jarri zedilla. Amasa irten zan, Erregearen agindua egitera; baña iru egun izendatuetan ezin egin izan zuen; eta Dabidek aren etorrerari luze-



tsirik, eta Sebari prestatzeko leku geiago ematen bazitzaion, Absalonek baño ere zer egin andiagoa emango ziola, bildurrak arturik, Abisai bialdu zuen Joaben aginteko soldaduakin, Sebari erasotzera. Abisaik, Gabaongo arrokara zanean, topatu zuen Amasa jende-talde gogor batekin zetorrena, guzien agintea artzera.

## 9. Joabek Amasa iltzen du

Joabek usandu zuenean, Erregeak agintean Amasa ipintzen zuela, galtzeko asmoak artu zituen. Onetarako ezpata zorrotz bat gerrian ondo estalia ipiñi zuen. Amasa alderatu zanean, Joab eta Abisairi agur egitera, Joabek «Agur ene anaia» esanda, eskuiarekin okotzeko bizarretik eldu zion, laztantzeko irudian. Amasak etzuen gaitz-pensatu, eta ez ezpatarik ikusi ere; baña Joabek zorrotik aterata, kolpez saietsean sartu zion, eta erraiak lurrera erori zitzaiozkan, eta ezertarako leku gabe il zan.

Erregeak Martiztiaren burutzat ipiñitako gizona Joabek ain odol beltzean illarekin, ezer egin izan ezbalu bezala, gorpuz-illa, odola zeriola, bide erdian utzirik, guzien buruan Sebaren billan joan zan. Bidean jakin zuen, batzuek Abelan, eta besteak Bekaman gorde zirala, eta anaia Abisai Bekamara bialdurik, bera Sebaren ondoren Abelara joan zan, au eskuratu ezkerro, arterañoko biurkeria guziak Erregeari aztuko zitzaiozkalako ustean.

Abelara urreratu zanean, erria ertsitu edo setiatu zuen, eta barrunen laster sartzeko lanak aurreratu zituenean, emakume iztun eder bat murrugañera oska irten zitzaion, eta esan zion: Joab zu zera? Zertako erri au galdu nai dezu? Joabek erantzun zion, etzuela alakorik nai, ezpada Erregearen kontra jaiki zan Sebari zerraikiola, eta onen eske zebillela: errian sartu zala, eta onen burua ematen bazioten, bere-bereala itzuli, eta pakea emango ziela. Emakume onek ain ondo errikoai itzezin zien, esanaz, Sebaren burua Joabi eman bearrean zeudela, non, eskuak ezarri, eta lepoa ebakirik, burua murrutik beera bota zuten. Joabek ikusi zuenean, Seba illa zala, anaia gaitzigtatu zion, eta biak Jerusalemenera itzuli ziran, eta naspilla guzia zuzendu, pakea egin, eta Israelko eta Judako guziak Errege baten mendean jarri ziran.

Dabidek geroz etzuen alde onetatik zer eraman andirik izan; baña Israelek, Gabaontarren odola isuriaz, egindako bekatuaren zorra etzegan oraindik osotoro kitatua, eta Jainkoak iru urteko gosete latz bat bialdu zuen. Filistintarrak ikusirik, Israeltarrai zer gertatzen zitzaien, lau aldiz

eraso zieten; baña lauretan Israeltarrek ondo irten ziran, eta filistintar asko il zituzten. Lenbiziko eraso-aldian Dabid irurogeita iru urteetan arkitzen zan: ala ere, Martiztiaren buru bera joan zan, eta gitxik egin zuen, etsaiaren eskuetan bizia ez uztea: bada, bere illoba Abisaik oñ-oñetan il zion, lanza sartzera zijoakion Erraldoi andi bat. Gerozkoetan etzioten Dabidi joaten utzi, berriz ere galtzeko bidean arkitu etzedin.

## 10. Zenbat jende daukan Dabiden jakin-naia

Filistintarrakiko gerrak bukatu ziranean, Dabidek iñoren ere bildurrik etzukan. Mendekoak begirune andia zioten, eta pozez zeuden, gauza guziak zuzen eraentzen zituelako; eta atzeak eta auzoak etzuten burua jasotzeko alik, zeren Dabiden gerrarako argia eta indarrak baziakizkiten. Egoera zorioneko onetan bizi zala, gogoak eman zion, erreinuan zenbat armadun zeuzkan, jakitea. Gogo onek, berez, gaitz gabea zirudien; baña zerbait arrokeria edo antuste nonbait bazeraman; Jainkoak etzion, beintzat, ontzat artu. Dabidek agindu zuen; baña serbitzariak uzkur zeuden, Erregearen esana egiteko: esan ere bazioten, lan ari uzteko, zeren ondo etzirudien. Dabid leiatu zan, eta atzenean egin bearrean arkitu ziran. Andizki batzuek, bada, Israelko bazterretan zabaldu ziran, agindua egitea, eta Israel guzia ikusirik, bederatzi illabete, eta ogeigarren egunean Jerusalemenera itzuli ziran, eta Erregeari esan zioten, Judan lareunda irurogeita amar milla, eta Israelen milloi bat, eta eun milla armadun, guziak gizon sasoikoak, eta gerrarako txit egokiak zeudela, kopuru onetan Lebi eta Benjamingo Tribukoak sartu etzituztelarik, gogo gabeko lan onetan aspertu ziralako.

## 11. Izurritea

Ainbeste armadun mendean zeuzkalako berria Errege baten gogoia bete, eta biotza zabaltzeko adiña bazan; baña Dabidek etzuen poz andirik artu. Bereala ezagutu zuen, bere jakin-nai guzia antuste eta arrokeria utsuts bat zala, eta Jaunaren begietan ikuskizuna egin zuela. Eta Jaunaren aurrean jarriarik, esan zion: Oker-egin det, eta barkazio-eske nagokizu. Jainkoak aditu zion, eta biaramonean-goiz Gad Profeta aurkeztu zitzaion, Jaunaren izenean esatera: Aukeran iru gauza ipintzen zazkitzu: erreinu



guzian iru urteko gosetea: etsaiaren igesi iru illabetean ibiltzea; edo iru eguneko izurria. Aukera negargarria! Dabidek, anbatik-anbatean, izurria autu zuen. Alde guzietatik naigabeak dauzkat, zion; baña obe det Jaunaren eskuetan, gizonenetan baño, jarri. Etzuen gosetea autu, zeren Erregeen naiera ez dan iristen: ez iges-ibiltzea, zeren etsaiak biotz-gogorrek izan oi diran. Izurria aututzen du, zeren ain laster Erregeari, nola mende-koari ukitzen dion; eta bere burua eskeñtzen du, Jaunaren aserre bizia itzaltzeko, aserrera diotenetan lenengo bera dan ezker. Izurria sortu zan, eta Israel guzian lagun asko zeramatzkien. Onetan Dabidek Jerusalem gañean ikusi zuen Aingeru ondatzallea, ezpata eskuan zuela, eta kolpea ezartzera zijoala, eta auzpez jarririk, Jaunari itz-egin zion: Jauna ni nerau ez naiz erria zenbatetzeko agindu zuena? Jende onek zer egin du? Ene Jaun eta Jainkoa! Jo ni nerau, eta besteai utzi! Jainkoak Dabiden itzak aditu zituen, eta Aingeruari etzion Jerusalem ondatzen utzi; baña iru egunak bete artean, izurriak iraun zuen: bitartean Israel guzian irurogeita amar milla lagun il ziran, eta Dabidek Jaunari ofrenda bat eskeñita, izurria gelditu zan.

## 12. Eliza egiteko asmoa

Ordurako Dabiden egunak aurrera zijoazen; eta geroz gogoan etzeukan, Jaunari egin bear zitzaion Elizako lanak, aurreratzea baizik. Lenagoko urteetan gai asko bildu izan zituen; eta orain langilleak Jerusalem eraerri, eta nor bere lanean ipiñi zituen. Ikusten zuen, bere oñordeko seme Salomon oraindik gaztea zala, eta utzi nai izan ziozkan, mundu guzian otsa barreatuko zuen Eliza bat egiteko, bear zituen gai guziak ondo prestatuta. Salomoni deitu, eta esan zion, Eliza eder bat egiteko eresia izan zuela; baña Jainkoak etzuela nai, ark, ezpada semeak, egitea; beragatik etzedilla lan andi ari ekiten ikaratu; Jaunak emango ziozkala bear zituen argia eta jakinduria, aren bildurrean bizi bazan. Bere ezer-ezean bildu, eta uzten ziozkala irurenda ogeita zortzi milla arroba urre: iru milloi, berreunda larogei milla arroba zillar: ezin pisatu-al kobre eta burni, eta beste gai asko. Ekin, bada, ziotsan, ekin lanari, ni ilda bereala Erregetzen zeranean; Jauna zurekin izan bedi. Gero Israelko Andizkia ere esan zien, lanbide andi artan semeari laguntzeko.

Ondo-esan oiek semeari eta aldamenekoai eginda, isildu zan. Etzeukan geiago itzegiteko kemenik. Indartsua eta sendoa izan bazan ere,

nekeak, iges-ibilliak eta beste eramankizunak txit oztu zuten, eta iltzeko zorian zegoala zirudien. Serbitzariak nagusia onela ikusi zutenean, elkarrekin itzegin zuten, donzella gazte bat eman bear ziotela, bere zarzaroan berotu zezan. Emaztetzat artu zuen, bada, Sunako neskatx eder bat, Abisab zeritzana, eta onekin etzaten zan, ezkontzak ematen zion eskualdia emaztearen gorputzarekin artu gabe.

## 13. Adoniasen Erregetzeko eresia

Adonias Dabiden seme zarrenak ikusirik, aitaren egunak bazijoazela, artu zituen, bera Erregetzat ezagutuerazotzeko asmoak: uste zuen, alabañan, zarren-izateak artarako eskua ematen ziola, Israelko Erregetza, ez jatorriz, ezpada Jainkoaren aukeraz ematen zala, begiratu gabe. Joab Martiztiaren burua, eta Abiatar Apaiz-nagusia ere bere alde zituen. Irten zan, bada, Jerusalem urtean zegoan iturri-ondo batera, non bazkari andi bat ipiñi zuen, eta au jatera Salomon ez, beste senideak, Andizkiak, eta aintzat artzea merezi zuten guziak deitu zituen, menturaz Erregetzat ezagutuko zutelakoan. Ala gertatu ere zan. Berri au Dabiden etxera bereala zabaldu zanean, Natan Profetak Salomonen ama Betsabeeri esan zion, Dabidgana joan zedilla, eta esateko: Jauna, etziñidan itz ziñeztuaren azpian esan, zure ondoren nere seme Salomon Errege izango zala? Zergatik, bada, Adoniasek erreinatzen du? Betsabeek itzketa onetan Erregearekin ziarduela, Natan gelan sartu zan, eta Betsabee gelatik irtenda, Dabidi esan zion: Jauna, zuk eman dezu, Adonias zure ondorengo izateko, eta Errege-aulkian jartzeko itza? Beintzat bazkari andi batean Erregetzat ezagutua izan da, eta otsegin dute: Errege Adonias bizi bedi! Dabidek ikusi zuenean, zer gertatu zan, Sadok Apaizari eta Natan Profetari agindu zien, Salomon Israelko Erregetzat igortzi zezatela, eta tronpetasonua joaz, esateko: *Errege Salomon bizi bedi*. Ordurik galdu gabe, Dabidek agindu guzia egin zan.

Adonias eta bere lagunak maietik altxatuta, jakin zutenean, Salomon Erregetzat ezagutua izan zala, laborrian jarri ziran; eta beren asmoak gaizki irten zitzaiztenean, iges-egin zuten, nork bere al-zuen ezkuta-tokira. Adonias elizara joanda, aldare-ertzari zitxekala egon zan, alik eta Errege berriak, bere gaitakeriaren barkazioa eman zion artean; eta Salomonek agindu zion, gaitzik ez egitea, baldin geroz zuzen eta leialkiro bizi bazan.





Salomon Erregetzat igortzita ikusi-ondoan, laster Dabidek bere buruari igerri zion, munduan luzaroko etzegoala. Seme oni deitu, eta lenagoko aldiaren egindako ondo-esanak eta erakutsiak berritu ziozkan; baita Israelko gizon eldu eta andizkiai ere. Atzenean len atzera egon bazan ere, Jaunaren legea beteko bazuen, iru gauza agindu bearrean arkitu zan. Badakizu, semeari esan zion, Joabek Abner eta Amasari zer egin zien, odol otzean ilda: zere jakinduriak erakusiko dizuna, onekin egingo dezu, bada: ez utzi mundutik berez joaten. Absalonen igesi nebillela, Berzelairen semeak egin zizkidaten mesedeaz ez aztu, eta zere maiean artuko dituzu. Igesi berebat ninjoala, bidean madarikatu ninduen Semei eskuan daukazu. Jordango ibaia igarotakoan, agertu zitzadalako, nik ez iltzeko itza eman zion; baña zuk kastigu gabe ez utzi. Agindu oietatik batean bere esker-ona erakusten zuen; eta beste bietan bere zuzentasuna, eta bien emandako itza godetzeko leiala; baña ezagutzen zuen, zegokien kastigua, oiei ematea, txit bidezkoa zala, eta lanbide au semearen kontura utzi zuen.

## 14. Dabiden eriotza

Geroenean irurogeita amar urtekoa Dabid Jerusalemen il zan. Erregetzan berrogeita bat egin zituen; Judan bakarrik zazpi, eta Juda eta Israelen ogeita amalau. Gizon andi onek utzi zuen munduaren atzeneko egunetaraño iraungo duen izena. Jainkoaren serbitzari leiala izan zan; eta inoiz bekatuan erori bazan ere, bere umiltasun gogoangarri, eta penitentzia latzarekin, barkazioa iritsi zuen, eta Jaunaren adiskidetasun gozora itzuli zan. Errege santu onen gorputz-illa bere seme Salomonek Siongo mendi *Dabiden Uria* zeritzanean, Errege andi bati zegokion proguarekin, lurpetu zuen.

## OGEIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Salomonen Erregetza

Salomon Israelko Erregetzan sartu zan, eta laster bere argitasun guziaren premian arkitu zan, Erregetzari eusteko. Adonias Dabiden bizitzan ere Erregetu naiean ibilli zanak, etzeuzkan bere asmo galduak utzita, aldarearen oñean barkazio-eske jarrita, damu-irudia egin bazuen ere. Errege berriari bere ama Betsabeeren bitartez emaztetzat eskatu zion Abisag, Dabidek zarzaroan ezkontzaz beretutako donzella gazte hura. Adoniasek, alabañan, uste zuen, onekin ezkondu ezkeru, biotza irabaziko ziola, eta bere aldeko nai zituen gauzak esanerazoko ziozkala, Dabidi adituak bezala: gisa onetan jendea nastu, eta leku egingo zuela, bera Errege jartzeko. Salomonek bereala igerri zion, ezkontza onen irudian gauza onik etzerabilela, eta oker-egin-nai onegatik Adonias egun artan berean ilerazo zuen. Salomonek lenagoko utsegitea barkatu bazion ere, gero zuzen izateko itzean barkatu zion; beragatik kastigu au bidezkoa izan zan, Adoniasek berak itza jan zuelako. Berebat ilerazo zuen, Dabid il zanean Martiztiaren buru utzi zuen Joab, ots andiko gerrari Abner eta Amasa odol otzean il zituen hura, zeñaren biziak zer egin andiak Salomoni ekarri zitzazkiokean. Semei isekari eta madarikatzalle lotsagabe ark etzuen oraindik bere zigorrada artu. Salomonek Jerusalemenera erakarri, eta agindu zion, uri onetan etxe bat eginda, emen bizi zedilla. Emen zegoan bitartean, etziola ezer egingo, itza eman zion bezala; baña Jerusalemendik bein irteten bazan, naita nai ez, il bearko zala. Jerusalemen iru urte egin zituen, eta igesi joan zitzaiozkan katibu batzuen billan Jerusalemendik irten zala, Salomonek jakin zionean, beste biak bezala, ilerazo zuen. Gisa onetan aitaren atzeneko aginduak bete zituen, eta Jainkoari zor zitzaiona, kastigu oiekin kitatu zan.

### 2. Jainkoak Salomoni jakinduria ematen dio

Salomon, gaitz egin zitzaioketean guziak begietatik kendurik, Erregetzan irmotu eta sendotu zanean, Israelko Agintari, andizki, eta zerbait



zezaketzen guziak Jerusalemara bildu zituen; eta berekin arturik, Gabaongo mendira, Tabernakulora igo zan, eta Jaunari eskeñi eta ofrenda andiak egin ziozkan. Salomonen langai au jainkoari txit oniritzi zitzaion, eta gauean ametsetan zetzala, esan zion, nai zuena eskatzeko. Salomonek eza-gutu zuen, Erri andi baten buruan zegoana, doai askoren bear zala, eta guzia ondo eraentzeko, Jainkoari eskatu ziozkan biotz umilla, auziak zuzen erabakitzeko argia, eta ona gaiztoagandik berezi eta banatzeko jakiunde. Jainkoak erantzun zion, eskatu guzia ematen ziola ain ugarioro, non, jakindurian eramaten zionik etzan izan, eta ez izango ere: eta bere Erria ondo eta zuzen eraentzeko doaiak baizik eskatu etzizozkalako, egundano inork izan ez dituen ondasunak emango ziozkala. Albista au Jauna-gandik artuta, Jerusalemara jatsi zan.

Bere jakinduria erakusteko bidea, laster izan zuen. Bi emakume galdu, elkarren artean despita artuta, aurkeztu zitzaiozkan, eta batek esan zuen: Jauna, andre au eta ni etxe batean bizi giñan, eta nik bion gelan seme bat egin nuen. Irugarren egunean onek ere beste bat izan zuen. Andik laster biak oiean zetzatela, aurra ito zitzaion, eta illunpean isillik nerea bere kolkora arturik, bere illa niri ipiñi zidan. Goizean bularra nere semeari ematen asi nintzaionean, aur illarekin arkitu nintzan. Eguna argitu zanean, ondo begiratuta, ezagutu nuen, nere erraiaetik irtena etzala. Orrelakorik ez da, besteak erantzun zion: illa zure aurra da, eta bizi dana nerea. Gezurra da, lenengoak zion. Gisa onetan Erregearen aurrean itzak trukatu zituzten, auzia erabakitzeko, nor bere esana baizik, etzutela. Batak ziona, besteak gezurtatzen zuen; oien esanean, aur bizi biena zan, eta illa inorena ez. Salomonek, bada, jakiunde andiarekin janzirik, auzia erabaki zuen, esanaz: Nere semea bizi da, batak dio, eta illa zurea da. Ez, besteak dio, zurea il zan, eta nerea bizi da. Ots, ganibita bat ekartzute. Eraman zioten; eta bere gordelariari esan zion: Aur ori artu, eta erdibitu ezazute, eta batek erdi bat, eta besteak bestea eramane bezate. Ama egiazkoa larritu zan, eta biotza erdiraturik, deadarrari eman zion: jauna, arren, aurra bizirik, eta erdibitu gabe eman bekio. Erditu bedi, besteak zion, eta ez bedi zurea, eta ez nerea izan. Erregeak orduan agindu zuen, aurra erdiratzea nai etzuenari eman zekiola, zeren ama egiazkoa bera zan. Erregearen erabakia Israel guziari oniritzi zitzaion, eta guziak ezagutu zuten, inoren gogoko berri jakiteko, eta nori berea emateko, Jainkoak eman zion argi andia. Egikera onek eta beste asko onelakok, Salomonen jakinduria banatu zuten, eta aitortzen zan, munduan izan zan jakintsunik argiena Salomon zala.

### 3. Salomonen aberastasuna

Jakinduria bezain andiak ziran ondasunak eta beste zorionak. Neuririk eta mugarik etzuten, eta mendeko guzietara ere zabaltzen ziran. Salomonen anditasunari alderatzekorik etzan: lurreko beste Errege guziak onen parean utsak ziran. Au ezagutzeko ez da bere etxean bear ziran jan-edanak eta beste gauzak gogoratzea baizik. Egunoro bear ziran eunda berrogeita amar anega ogi-irin obenekotik, eta irureun anega bastoxeagotik: amar idi gizendu, eta ogei zebatu gabe edo larre-idi: eun txikiro; eta mundutze bat egazti eta eize lurreko eta aireko. Okelluetan zeuzkan berrogei milla zaldi uzarririko, edo kotxeak eramateko, eta amabi milla azpian erabiltzeko. Guziaz ordu jakinean garagarra eta lastoa kontuz ematen zitzaiezen. Bere mendeko guziak pakarik gozoenean bizi ziran; argatik *Salomon paketsuaren* izena zeraman. Ondasun ezin ainbateko oien, eta pake ezin obeagoaren bearra Salomonek bazuen, gogoan zerabillen Eliza ots andiko hura egiteko.

### 4. Jerusalemgo Elizaren asiera

Lanbide gogoangarri oni asiera eman baño lenago, gai guziak ugari bildu nai izan zituen, alako eran, non, Eskritura Santak dionez, Jerusalem urrea eta zillara, arria bezala, eta zedrozko zur ederrak, basa-pikuak bezala, ziran. Onetarako Hiran Tiroko Erregeari eskatu zion, Libango zedroak ebakierazo zitzala; baita zurgin edo arotzak ere bialdu zitzaiozkala bere mendekoekin batean zuageak landu, eta apaintzeko. Len-lenago auzoerrietatik etorrita, Israelen bizi ziranetatik eunda berrogeita amairu milla gizon langille artu zituen. Oietatik irurogeita amar milla ipiñi zituen, gaiak bizkarrez batera eta bestera eramateko; larogei milla, arrobian arria atera eta landutzeko; eta beste iru milla eta sei eunak langilleai kontu artzeko. Gañera Israelen bertakoak ogeita amar milla gizon autu, eta Libango mendira, illean amar milla, bialtzen zituen. Gizon-talde arrigarri onek guziak, Hiran Tiroko Erregeak ipiñiaz landara, lan-egiten zuen, bear zan guzia prestatzeko.

Gauzak zuzendu ziranean, munduaren asieratik bi milla, bederatzia eun, larogei amairugarren urtean, Ejiptotik irten ziranetik lareunda larogegarrenean, Salomon Errege zantetik laugarrenean; Jesu-Kristo jai



baño milla eta zazpi urtez lenago, Eliza egiten asi ziran. Eliza au, Jainkoak berak erakutsita, Moisesek egin zuen Tabernakuloaren antz-antzekoa zan, andiagoa izatea beste desberdintza gabe. Zer ondasunak eraman zituen, esatea erraz ez da. Zerbait ezagutzeko asko da jakitea *Leku guziak santua* zeritzan zatiaren barruna estaltzeko azal edo txapak milla, seieun larogeita emezortzi arropa urre eraman zituztela, eta ilze bakoitzak amar ontza eta erdi urre zuela. Gañerako zati guziak ere gisa onetan egiñak ziran: argatik ez du lenbiziko Eliza onek bere parekorik izan, gizonaren eskuetatik irten ditekean lanik oberena, eta ederrena zalako. Elizari oña artzen asi ziraretik bukatu artean, zazpi urte eta erdi igaro ziran, lenago gaiak zuzentzen igarotako bi urteak kontuan sartu gabe, eta Salomonek Erregetzan zeramakien amaikagarren urtean bukatu zan.

## 5. Elizaren donekida edo bedeinkazioa

Salomonek, ain bere gogoko lan andi hura bukatu zuenean, beraren donekida edo bedeinkazioa egin nai izan zuen, eta Jaunaren Kutxa santa, aita Dabidek ipiñi izan zuen Siongo menditik, onara aldatu. Lanbide au, zegokion anditasunarekin egiteko, Israel guzia, batezere zarrak, Tribueta-ko Prinzipeak, eta etxe-jaunak deitu zituen, eta guziak, egun izendaturako Jerusalemen batu ziran. Salomon jende guziarekin igo zan Siongo mendira, non, Dabidek Tabernakulo berri bat eginda, Kutxa santa ipiñita zegoan. Apaizak Kutxa santa sorbaldaetan artu zuten: lebitak ere, bai, Tabernakuloa, eta oni zitzokan gauzak, eta guziak, nor bere endanan edo errenkadan, jarrita, Jerusalemeneroz abiatu ziran, Dabidek Obededonen etxetik Sionera aldatu zuenean bezala. Sadok Apaiz-nagusia eta beste eunda ogei apaiz zijoazen Kutxa santaren ondoan zillarrezko tronpetakin soñu-joaz. Kutxa santa zeramatenen sei pausotik sei pausora, apaizak ofrendatzen edo iltzen zituzten, Salomon eta gañerakoak zeramazkiten ezin esan-al jauskañi edo biktima, au da, abere.

Onela Eliza berria eldu ziranean, apaizak Kutxa santa Leku guziz santuan sartu, eta bi Kerubinen egoetan egindako jar-leku edo trono txit eder batean ipiñi zuten, eta atea itxirik, irten ziran. Bereala odei illun batek Eliza guzia estali zuen, adieraziaz, Jainkoak etxe santa hura beretzat artu zuela, eta apaizak, Lebitak, kantari eta beste guziak ikusteko onekin arri-turik, gelditu ziran, ezer egin ezin zutela, alik eta, denbora batean Moisesen Tabernakuloaren gañetik bezala, odeiak aldegin zuen arteraño.

Salomonek poz eta atsegin andia izan zuen, siñale agerriko onetan ikustean, berak egindako egonleku eder hura Jainkoak ontzat eman ziola, eta aldarera begira belaunikaturik, eta eskuak zeruronz jasorik, Jaunari bere errekuak egin ziozkan, Israel guziak zekusala: Jauna, sinistekoa da, Jainkoa gizonakin lurrean bizi dala! Zeru guziak zu idukitzeko adiña ez badira, nola nik egin dizudan etxe onetan egon al-zaitetzke? Gero eskatu zion, arren, aditu zitzala, Israel guziak an egingo ziozkan errekuak. Iñoiz bere bekatuakgatik zeruak euria ukatuta, ur-eske; goseteak artuta, ogi-eske; auzo edo beste atzeak, etsai egiñik, erasota, laguntza-eske; bekatuaren egiatzko damuarekin barkazio-eske ara bazijoakion, arren, aditzeko, eta bere aserre bidezkoa atzeratzeko.

Gero zutitu, eta jende guzia bedeinkatu zuen. Bereala guziak asi ziran, Jaunari ofrendak egiten, eta langai onetan arazorik andienarekin ziarduten denboran, zerutik sua jatsi, eta ofrenda eta jauskañi guziak erre zituen: Jaunaren anditasunez Eliza bete zan, eta apaizak geratu ziran Elizan sartu ezinean. Israeltar guziak auzpez jarri, eta Jainkoa adoratu zuten. Sua itzali, eta Jaunaren Gloriak aldegin zuenean, ofrenda eta jauskañiak berriz ere eskeñi zituzten.

Amalau egun Eliz-gauza oietan igaro ziran; bitarte onetan Jaunari eskeñitako gauzak zenbatik ez dute. Salomonek bakarrik ogei milla idi, eta eunda ogei milla txikiro ofrendatu zituen. Lan oiek bukatutakoan, nor bere etxera, poz andian itzuli zan.

Jainkoak Salomoni ametsetan laster adierazo zion, eskariak entzun ziozkala, eta itzeman zion, baldin berak eta Israelek aren legea zintzo gordetzen bazioten, begi onez begiratuko ziela, eta eskatzen ziotena, iritxiko zutela; bestela gortuko zitzaiea, eta zigorrak joko zituela.

## 6. Sabako Erregiñaren etorrera

Denbora gitxiren barruan, beretzat ere egin zuen etxe eder galant bat, alde guzietatik urrea zeriona, eta beste gauza askoren artean Errege-aulki bat, Eskritura Santaren esnean, ez edertasunean, eta ez balioan pare-rik izan duena. Oiekin eta beste gauza ikusgarriakin bere izena, jakinduria, eta aberastasunen ota mundu guzian barreatu zan; eta Errege, Prinzipe eta Andizki asko zetozkion, ikustera, eta zoraturik itzultzen ziran. Oien artean eresirik geiena agertu zuena, eta emen aitatzeta merezi duena, Sabako Erregiña izan zan. Emakume ots andiko au Arabia-aldetik Jeru-



salenera etorri zan, Salomonen jakinduria eta izanak bere begiak in ikustera. Anditasun guziarekin Jerusalem sartu zan. Salomoni aurkeztu zitzaion, eta esan zion, ara zerk zeraman; nola zijoan, aren anditasuna ikusteko, eta ipiñiko ziozkan zer-esan edo itz estali batzuek asmatzen ote zituen, jakiteko eresiarekin. Salomonek galde-isill guziak asmatu ziozkan; eta Erregiña onek ikusi zuenean, Salomonen jakinduria batetik, bere Eliza, etxe, serbitzari, ontzi, jan eta beste gauza guzien ederra eta ugaritasuna bestetik, arritu zan, eta Erregeari esan zion; Egiak dira zure esan eta jakinduriaren gañean nere lurrean aditu nituenak, eta ez nituen sinisten, alik eta nik neronek ikusi ditudan arteraño, eta orain ezagutzen det, erdirik ere etzidatela esan. Doatsuak zurekin dauden serbitzariak, eta zure jakinduria entzuten dutenak. Bedeinkatua izan bedi, zu Israelko Erregeztat ipiñi zaituen zure Jaun eta Jainkoa. Bereala eman ziozkan eskuertutatzat, zeramazkien irureun larogeita amairu arroba, eta amabost libra urre, diamante eta perla asko, eta sekulan iñork ikusi ez dituen ainbat usai gozo. Salomonek ere berebat erantzun zion, eta bere anditasunari zegozkion erako emaitza edo erregaloak egin ziozkan, Erregiñak eskatutako gauza guziak emateaz gañera, eta emakume andi au bere etxerontz itzuli zan, ikusi zuenarekin txit arritua eta lilluratua.

## 7. Salomonen erorikoa

Salomonen anditasuna denbora onetan gañ-gañekoa zan; baña laster asi zan gañez egin eta makurtzen; arteraño agertutako jakiunde miragariaren argia lausotzen; eta bere ondasun neurri gabeen distiazioa illuntzen. Salomonek irurogei urtean bide zuzenean iraun zuen: bitartean debruaren eraso gaizto guziak gogor egin zien; baña bestek ezin duena, iristen duen emakumeen eresi geiegikoan irristatu zan, eta eroriko andi bat artu zuen. Lenago Jainkoari zion amodio guzia, emakumeetaronz irauli zuen; oietarako eresi zoro bat sartu zitzaion, eta oiek maitetzetik jainko gezurrezkoak adoratzera jatsi zan.

Zazpieun emakume Erregiñaen izenarekin, edo lenengo mallako emaztetzat artu zituen, eta beste irureun bigarrenekoak. Emazte-talde au andia izateaz gañera, guziak ziran arrotzak, edo Israelez kanpokoak, idoloak edo jainko gezurrezkoak zituztenak. Emakume oietara osotoro jarrita, alako eran itsutu zan, non, ainbeste jakinduri eta ondasun eman ziozkan Jainkoari utzita, emakume aien gezurrezkoak eta idoloak, aiei

atsegin emateagatik, adoratu zituen; eta mundua arritzeko adiñako lanak arteraño egin izan zituen Salomon andia, jarri zan abereturik, eta lokazti likits bat egiñik. Au asko, ez ezik, aien jainkoai ere elizak egin ziezten. Emakume aien gogora jarri zalako, agur egin zien Astarte, Sidontarren jainkoari; Molot, Ammontarrenari; eta Kamos, Moabtarrenari.

Salomonen egiteko onekin Jainkoa txit aserretu zan, eta laster adierazo zion, etzuela kastigu gabe utziko. Agertu zitzaion, eta esan zion: Nere esanak eta aginduak zergatik gorde ez dituzun, zure erreinua erdiratuko det, eta kentzen diodan zatia, zure serbitzari bati emango diot. Guziaz ere zure aita Dabidi begiratuta, au zure bizian ez det egingo, ezpada zure semearenean, zeñari zure aita Dabid eta Jerusalemgo nere Erri autuari diedan amodioagatik, zati bat utziko diot. Jainkoak Salomoni itz oiek esan, eta bereala asi ziran beteko ziranen aztarnak.

## 8. Salomonen zigorrada

Idumearrak eta Siriarrak asi zitzaiozkan zirikatzen, eta bere agindupetik irten naiez; baña Salomoni oiekgatik ezer etzitziaion, urruti zeudelako, eta etzan esnatzen. Bereala alderagotik beste golpea izan zuen. Jeroboan zeritzan Efraingo Tribuko gizon bat Salomonek bere serbitzoan zeukan: eta igerririk gizon argi eta doai txit onetakoa zala, Tribu bateko agintean ipiñi izan zuen. Jeroboanek ezagutzen zuen, mendekoak len zioten amodioa, Salomonek bere gaiztakeriakin asko galdu zuela; eta ikusirik, auzoak ere asi zitzaiozkala gogor egiten, uste izan zuen, Salomonen koroa zalantzan zebillela, eta bera jabe menturaz egin zitekeala. Onetarako bazuen bere aginduko Tribukoak zerbait laguntza emango zioten ustea, Salomonek egindako bidegabekeriaren bat gogoan zeukatelako. Jeroboan asmo oietan zebillen egunetan, Jerusalemdik irten zan bein batean, Ahias Siloko Profetarekin topo-topo egin zuen. Profeta onek soñean zeraman kapa berri-berria eskuetan artuta, amabi puska egin zuen, eta Jeroboani esan zion: Amar artu izatzu, eta begira Israelko Jainkoak zer dion: Nik erreinua Salomonen eskutik puskatuko det, ni utzita, Sidontarren, Moabtarren, eta Ammontarren jainkoak adoratu dituelako, eta nere esana, Dabidek bezala, egin ez duelako, eta amar puska zuri emango dizkizut, eta beste biak aren semeari utziko diozkat, Dabiden izeinak iraun dezan. Bide onean bazabiltza, eta nere esanak egiten badituzun, Dabid nere serbitzariak bezala, zurekin izango nazu, eta Israelko Errege



izango zera. Au esanda, Ahiasek Jeroboangandik aldegin zuen. Jeroboanek etzuen geiagoren bearririk, Erregetzeko bere eresia aurreratzeko; eta itzketa au bien artean, isillik inor gabe, izan bazuten ere, Salomon jakintsun egin zan, eta Jeroboan il nai izan zuen; baña Ejiptora iges-egin zion, eta emen gorde zan, Salomon il arteraño.

## 9. Salomonen eriotza

Gertaera onen ondoren laster, Salomon irurogei urtekoa, berrogeitan erreinatuta gero, Jerusalemen il zan, eta bere aita Dabiden Errian lurpetua izan zan. Salomonek asiera ona izan zuen; Jainkoaren bideari zerrai-kion bitartean, mendekoak maite zutela, eta auzoak bildur zitzaiozkala, bizi izan zan: baña gero lasaikeria iguingarrietan sartu zanean, kanpokoak ezertan etzuketela, eta errikoak gogaitua eta gorrotatuta izaten zan, eta negar andirik utzi gabe, Jaunari kontu eman zion, ordu onean eman zion ez, oraindano inork ezdakiela.

## OGEITABATGARREN IRAKURGAIA

### 1. Israelko erreinuaren erdiratzea

Salomon ilda bereala, Juda eta Benjamingo tribuak Roboan Salomonen seme zarrena erregetzat ezagutu zuten; eta Israel guziak ere ezagutu zezan, Sikemera joan zan. Uri onetan lanbide onetarako jendetza andia bildu zan, baita Jeroboan ere Egiptoko bere gorde-lekutik. Roboan, errege zanaren semea Jeroboanek eta beste israeltarrak ikusi zutenean, itzezin zioten onela: Zure aitak uztarri txit astuna ezarri zigun; orain, bada, arindu zaguzu eta serbituko zaitugu. Roboanek erantzun zien: Orain zoazte, eta emendik iru egunera atozte.

Jendeak aldegin zuenean, Roboanek aitaren ondoan egon oi ziran gizon zar elduai iritzia eskatu zien. Zer deritzazute jende oni esan bear diodala? Zarrak esan zioten: Gaur jende orri gozotero aditzen badiozu, eta eskatzen duena egin, bein betiko eskuratuko dezu. Zarren iritzi au Roboani etzizaion ondo erori, eta berekin azitako lagun gazte batzuei galdetu zien zer egingo zuen. Gazte oiek, ezer ikusi gabeko eta munduko berri etziekitenak bezala, esan zioten: Jende orri au erantzungo diozu: Nere beatzik txikiena nere aitaren gerruntza baño lodiago da. Nere aitak uztarri astuna ipiñi zizuten, eta nik astunagoa emango dizutet. Nere aitak zigorrakin zeatu zinduzten, baña nik ubal burnizko orz-dunakin zeatuko zaituztet. Jeroboan eta besteak irugarren egunean joan zitzaiozkan, eta Roboanek erantzun zien bere lagun gazteak erakutsia. Ikusirik Roboanek etzuela eskatzen zitzaionik egin nai, asi ziran esaten: Guk Dabidekin zer egiteko degu? israeltarrak, zeron etzauntzaetara itzuli zaitezte, eta zuk Dabid zere etxean nai dezuna egizu. Israeltarrak joan ziran, eta erregetzat Jeroboan artu zuten. Orduan Roboanek bere serbitzari andientsu bat bialdu zien itzegitera; baña etzioten ezer esateko lekuri eman, eta arrika il zuten. Roboanek berri txar au jakin zuenean, igesari eman zion eta Jerusalemen sartu zan. Eta egun au ezkerro, Jainkoak Abrahami eskeñitako lur eta bazter autua bi eskuetan jarri zan. Amar triburekin Israelko erreinua egin zan, eta beste biakin Judakoa. Jeroboan Israelko Errege gelditu zan, eta Roboan Judako.

Orain aurrera bear dan argiarekin ekiteko, on deritzat errege bakoi-tzaren gañean banaka itzegitea: lenengo Israelko eta gero Judakoakgatik.



Eta emen guziak erabat ezarriko ditut, Salomongandik asita Babiloniako katibutasunerañokoak.

### SALOMON

#### Israelko Erregeak

1. Jeroboan lenengoa.
2. Nadab.
3. Basaa.
4. Ela.
5. Zambri.
6. Tebni.
7. Amri.
8. Akab.
9. Okozias.
10. Joran.
11. Jehu.
12. Joakaz.
13. Joas.
14. Jeroboan bigarrena.
15. Zakarias.
16. Selum.
17. Manaen.
18. Fazeia.
19. Fazee.
20. Oseas, Israelko atzeneko erregea.

#### Judako Erregeak

1. Roboan.
2. Abia.
3. Asa.
4. Josafat.
5. Joran.
6. Okozias.
7. Atalia.
8. Joas.
9. Amasias.
10. Ozias.
11. Joatan.
12. Akaz.

13. Ezekias.
14. Manases.
15. Amon.
16. Josias.
17. Joakaz.
18. Joakin.
19. Jekonias.
20. Sedezias, Judako atzeneko erregea.

## 2. Jeroboan, Israelko Errege lenengoa

Roboan Jerusalemenera igesi joanda, Jeroboanek bere burua Israelko Errege egiña ikusi zuenean, esan zien Ahias profetarekin zer gertatu zitzaion, eta guziak ezagutu zuten langai artan Jaunaren eskua zebillela, eta ordutik Jeroboanek bere erregetza sendotu zuen.

Roboan bereala asi zan Judako eta Benjamingo jende guzia biltzen, eta eunda larogei milla gizon armadun baturik, Jeroboangana joan nai izan zan eta Israel guzia bere mendera ekarri; baña Jainkoak aginduta, Semeias profetak esan zion: Jaunak ara zer dion: israeltar zure anaiai ez eraso: nor bere etxera itzuli bedi, zeren lanbide au nik egin dedan. Erregeak eta soldaduak Jaunaren esana aditu zuten, eta etxeetara biurtu ziran.

Jeroboan Israelko lenengo errege onek, ezer utsetik erregetzara igotzearekin ain mesede andia egin zion Jainkoari esker onak eman bearrean, bide gaiztoai laster ekin zien; eta Jaunaren aserrea beretu zuen. Israeltarrak urtean zenbat aldiz Jerusalemenera joan oi ziran, Jaunari Elizan ofrendak egitera. Jeroboani buruan jarri zitzaion, baldin bere mendekokak, len-lenago bezala, Jerusalemenera bazijoazen, aren erreinua Dabiden etxera laster itzuliko zala; Roboan erregetzat ezagutu eta bera ilko zutelala. Bildur au kentzeko uste izan zuen biderik obena zala, erlejio egiazkoa utzita, beste bat artzea. Onetarako urrezko bi txal egin, eta bata Betelen eta bestea Danen, bi pillare-gañetan, ipiñi zituen; eta israeltarrak esan zion: Ez geiago Jerusalemenera joan: ona Egiptotik Israel atera zuten Jainkoak. Israeltarrak idolo oiek ikusi zituztenean, Jainko egiazkoa utzirik, artakotzat artu zituzten; eta oiek adoratzera joaten ziran.

Ikusirik bere usteak zein ondo irten zitzaiozkan, eguna izendatu zuen Betelen ipiñitako txal idoloari pesta andi bat egiteko. Jendea bildu zan, eta Jeroboan ere bai. Errege au asi zan Jerusalemengoa Elizan egiten zan



guzia egiten; eta aldare gañera igo rik, inzensu-ontzia eskuan artuta idoloa adoratzten ari zala, Jainkoak bialduta, Judatik zijoan gizon bat alderatu zitzaion eta deadar egin zuen: Aldarea! Aldarea! Ara Jainkoak zer dion: Dabiden etxean jaioko da seme bat, *Josias* deituko dana, zeñak zure gañean ilko ditu zu orain inzensatzen zaituzten apaizak; eta gorputz-illen ezurrak zure gañean erreko ditu. Jaunaren izenean itzegiten dedala ikusi dezazuten, aldare ori puskatuko da eta bere gañeko autsak zabalduko dira. Jeroboanek ikusi zuenean gizona onela itzegiten, eskua onengonz keñatu zuen, esanaz: Itsatsi zaiozute; baña luzatuta zeukan eskua igartu zitzaion eta gelditu zan ezin bereganatuz. Profetak esan bezala, aldarea puskatu zan eta autsak bazterretara banatu ziran. Jeroboanek ezagutu zuen kastigu lotsagarri hura nondik zetorkion, eta profetari esan zion Jaunari aren aide, arren, erregutzeko. Esan eta egin: profetak eskatu, eta Jainkoak erregearen eskua sendatu zuen. Jeroboanek, esker onekoa agertzeko, gizon santu hura etxera eraman nai izan zuen bazkaltzera eta eskuerakutsiak egitera; baña erantzun zion: Zere etxearen erdia ere ematen baziñiket, ez nintzake zurekin joango; eta ez ogirik jan, eta ez urik emen edango nuke: Jainkoak, alabañan, bialdu ninduenean, au guzia debekatu zidan; eta esan ere bai, etorritako bidetik ez itzultzeko. Itz oiek esanda, Judaronz beste bide batetik joan zan.

Betelen bizi zan profeta zar bati bere semeak gauza oiek guziak esan ziozkaten, eta galdetu zuen ea noron artu zuen. Erantzun ziotenean zein bideri eman zion, bere astoari igota ondoren joan zan, eta arbola-pe batean topatu zuen. Profeta zar onek jakin zuenean hura zala berak billatzen zuena, esan zion aren etxera joateko, berekin batean bazkaltzera. Ori ezin dezaket, besteak erantzun zion, bada debekatu zat. Profeta zarrak esan zion: Ni ere profeta naiz, eta Jaunaren izenean aingeru batek esan dit nere etxera eraman zaitzadala, jan eta edatera. Gaitzuste gabe sinistu zion; joan eta profeta zarraren etxean jan-edanak artu zituen. Oraindik maiean zeudela, profeta zarrari Jainkoak belarrira itzezin zion, eta profeta zarrak Judakoari, esanaz: Zergatik Jainkoak debekatu tutako lekuan jan eta edan dezun, zure gorputz-illa ez da zure gurasoen obian lurpetuko. Egiaz, Jainkoaren gizona maietik altxatuta, bera asto gañean jarririk, etxeronz abiatu zan. Bidera leoi bat irten zitzaion eta il zuen. Gorputz-illa bidean bertan gelditu zan; baita leoia ere, ez gorputz-illari eta ez astoari geiago ukitu gabe. Bidenabar an sortu ziran gizon batzuek ikusi zutenean gorputz-illa, leoia eta astoa aldamenen zituen, berri onekin Betelera joan ziran. Profeta zar ark bereala igerri zion gizon illa nor izango zan, eta asto gañean jarririk joan zan ikustera. Alderatu

zanean, leoiak iges egin zuen, eta gorputz-illa astoan artuta, Betelera eraman eta bere obian lurpetu zuen. Proguko negar-egunak igaro ziran, semeai esan zion: Ni iltzen naizanean, nere ezurrak Jainkoaren gizonarekin dautzan ondoan ipiñiko dituzute: bada, ark Jainkoaren izenean esana, Betelko aldareari gertatuko zaio. Aurrerago ikusiko degu Jainkoaren gizon ark nola asmatu zuen.

Gauza oien berriak Israel guzian banatu ziran; ezagutu zitekean Jainkoaren eskua zebillela, bide gaiztoak utzita, onean jartzeko; baña alperrik: Jeroboan eta bere lagunai biotzak gogortu zitzaiozkaten, eta idoloak adoratzeari zerraizkion. Jeroboanek bere gaiztakeriaren kastigua alderagoan ere laster ikusi zuen. Bi seme zeuzkan, Abia eta Nadab zertzenak. Abia gaizkitu zan, iltzeko zorian jartzeraño. Aitak jakin nai zuen gaitz artan nola irtengo ote zan; baña artu zituen jainko gezurrezkoai galdetzea alperrik zan; eta gogoak eman zion billatzea Ahias profeta, erregetuko zala len-lenago asmatu ziona. Gizon onen aurrean agertzeko arpegirik etzuen, bere esker-gaiztoa gogoratuta; eta emaztea bialdu zion, ezagutu etzezan, iñoren soñekoak jan zita. Baña Ahias, ordurako itsutua bazegoan ere, bereala igerri zion Jeroboanen emaztea zala, eta esan zion: Zu poz-billan zatoz; baña ni berri txarrak zuri emateko nago. Gero agindu zion senarrari esateko, zeren ain esker gaiztokoa izan zan eta ainbeste mesede egin izan ziozkan Jainko egiazko bakarria utzirik gezurrezkoak artu zituen, aren etxe zakurretaraño guzia ondatua izango zala, iñor ere bere odolekorik gelditu gabe. Errian iltzen ziranak zakurrak janak, eta kanpoan illak egaztiak iretsiak izango zirala. Zoaz, esan zion, etxera itzuli zaitte, eta errian oñak sartzen dituzun ordu berean Abia ilko da, eta Jeroboanen humeetatik au bakar bakarrik lurpetua izango da. Ahias, esan guzia zearo gertatu zan. Abia il zan. Jeroboanek bazekusan bere gaiztakeriakin etxeari zer buruzpide eman zion; baña begiak etziztaiozkan argitu egia ezagutzeko; eta nola bizi, ala il zan, gaizki-egiañaren damurik adierazteko gabe.

### 3. Nadab, bigarren Erregea

Jeroboanen seme Nadab, aita bezain gaiztoa eta idoloalea, erregetzan sartu zan; baña Basaa zeritzan batek, urte bete baño asko geiago erregetzan egin gabe, il zuen; eta onen iltzearekin Israelko erregetza beste etxe batera aldatu zan, Ahias profetak esan bezala.



#### 4. Basaa, irugarren Erregea

Basaa, Nadaben iltzalea, etzan Jeroboan baño obea izan, eta gaiztakerian jarraitu zitzaion: argatik Jainkoak Jehu profetaren bitartez adierazo zion, aren jatorria ere Jeroboanena bezala, desegingo zuela. Basaak bere erregetza sendotu naiez, Jeroboanen odoleko guziak il zituen; baita Jehu profeta ere, onen itzegite garbia ezin eraman zuelako. Basaa, bizi bezala, il ere zan.

#### 5. Ela, laugarren Erregea; Zانبri, bostgarrena; Tebni, seigarrena; eta Amri, zazpigarrena

Ela, Basaaren semea, aitaren ordeztatu sartu zan. Au ere aurrekoen bideetan ibilli zan, eta bere zaldizkoen agintari Zانبri zeritzana kontra altxatu zitzaion, eta il zuen. Zانبri errege jarri zan, eta Basaaren odoleko guziak il zituen, bat bakarrik ere biziarekin utzi gabe, Jehuren bitartez Jainkoak esan bezala.

Egun aietan israeltarrak filistinarren kontrako gerran zebiltzan, eta Jebeton-go erria setiatuta zeukan martiztiak, jakin zuenean Zانبrik zer egin zuen, Amri bere agintaria erregetzat ezagutu eta Zانبriren eske abiatu zan; baño Zانبrik bere buruari igerrri zionean aien eskuetan erortzera zijoa, etxeari su eman eta etxeko gauza guziakin bera an erre zan. Erregetzan zazpi egun bakarrak egin zituen, eta bitartean Jeroboanen bideai jarraitu zitzaion. Onen aldekoak erregetzat Tebni artu zuten. Gisa onetan, batzuek Amri eta besteak Tebni gorde naiez, elkarren artean despitan iru urtean ibilli ziran; eta atzenez Tebni ilda, Amri bakarra gelditu zan.

Onak eragin zuen Samariako uria, gerora Israelko erreinuaren erriburu eta Israelko Erregeen bizi-leku izan zana. Amabi une erregetzan egin zituen. Bitarteko onen gaiztakeriak lenagokoenak baño areagoak izan ziran eta, besteak bezala, gaiztakerian il zan.

#### 6. Akab, zortzigarren Erregea

Aitaren lekuan Akab sartu zan. Onen gaiztakeriak lenagoko guzien azkarriak izan ziran. Idolozalea zan, eta beste guziak baño bekatu geiago berak egin, eta Israeli eragin ziozkan. Eta gaiztoa izateaz gañera, bera bezain biurri eta idolozale itsutu Jezabel zeritzanarekin ezkondu zan. Emakume urgullutsu eta biotz gogorreko onak, ezkonduetako egunetik senarraz nai guzia egin zuen, eta gaiztakeria guzietan lagundu zion. Emakume zorigaiztoko au Akaben etxean sartu zan, Jainko egiazkoaren serbitzari bat bakarra ere Israelen ez uzteko infernuak botatuko baten antzean. Sidon bere errikoak jainkotzat zeukaten Baalen idoloa, beste guzien aurretik Samarian ipiñi zuen eta Baalen izenean eliza eta aldare bat senarri eragin ziozkan; eta etregeak eta mendekoak emen adoratzten zuten. Bazirudien Jainko egiazkoak Israelen adoratzallerik etzuela. Ala ere, Jainkoak Akabi begiratu nai izan zion, bai ondo esanaz eta bai kastiguen bitartez, zentzutzen ote zan ikusteko, eta onetarako Eliasez baliatu zan.

#### 7. Elias profeta

Galaadko lurtean bizi zan profeta bat, *Elias* zeritzana. Jainkoak Akabi, errege egin zaretik laugarren urtean, Elias au bialdu zion esatera: Israelko Jainkoa bizi dan bezain egiaz, urte oietan ez intzik, ez euririk egingo du, nik esanda baizik. Geiago ezer esan eta agurrik egin gabe, erregearen aurretik aldegin zuen eta Karitko erreka-ondora igesi joan zan, Jainkoak agindu bezala. Profeta au Karitko bazterretan bizi zan, jan-edanen kontu gabe; bada, goiz-arratsaldeetan ogi-aragiak beak ekartzen ziozkaten eta erreka ura edaten zuen; baño urte bete baño lenago erreka agortu zan, euririk eta intzik egin etzuelako. Orduan Jainkoak esan zion: Sarepta deritzan sidontarren errira zoaz, eta an zaude; bada, ango andre alargun bati agindu diot zure jan-edanen kontua izan dezala. Karit Israelko ertz batean eta Sarepta bestean zeuden; beragatik ibillikizun andia. Ala ere, Elias etzan izutu; eta Israelen erdi-erditik bideari ekin zion; eta erregearen mandatariak aren eske aide guzietan bazebiltzan ere, etzan Eliasez iñor oartu.

Sareptarantz alderatu zanean, ikusi zuen emakume alargun bat, egur-biltzen zebillena. Deitu eta esan zion: Ur piska bat indazu, edateko.





Andrea ur eske abiatu zanean, Eliasek atzetik otsegin zion: Ogi zerra bat ere ekarzu. Andreak erantzun zion: Jainkoak badaki etzadala ogirik arkitzen, ezpada eltze batean eskua-bete irin, eta oliontzian olio apur bat; egur-billan emen nabil, oiek egosita, neronek eta nere semeak jateko, eta gero biok iltzeko. Israelen sortutako gosetea Jezabelen erri Sidonera ere ordurako zabaldu zan; argatik alako etsipenean emakumea mintzatu zitzaion. Eliasek esan zion: Ez ikaratu; zoaz, eta esan dezuna egizu; baña irin piska orretatik su-azpian erretako opiltxo bat lenago egin zadazu; eta gero zurekin zure semearentzat egingo dezu; bada, ara Jainkoak zer dion: Zure eltzeko iriñak eta ontziko olioak, Jaunak euria egin arteraño iraungo dute. Andre ark Eliasen esana sinistu zuen. Etxera joan zan; ogia egin zuen; Eliasek, berak eta bere semeak jan zuten, eta etziran irina eta olioak geroz gitxitu.

## 8. Sareptako alargunaren aurrerantz

Andik laster emakume onen semea gaitz gogor batek artu eta il zan. Ama gaxoa naigabez beterik Eliasi joan zitzaion, eta esan zion: Zer egin dizut, Jainkoaren gizona? Nere etxera etorri zera nere bekatuen oroipe-na berritzeko, eta oiekgatik nik nere semea galtzeko? Seme ori indazu, Eliasek esan zion. Eliasek artuta, etzaten zan gelara eraman zuen: bere oiean luze-luze ipiñita, deadar egin zuen: Ene Jaun eta Jainkoa! Ain atsekabe andia emango zinon bada, ni bazkatzen bere egin-al guzian ari dan alargun biotz oneko oni, bere seme bakarrena kenduta? Au esanda gero, oiean sartu zan, eta gorputz-illari gañean iru aldiz jarri zitzaion, eta berriz ere otsegin zuen: Ene Jaun eta Jainkoa! Gorputz oni, arren, bere anima itzuli zaiozu. Jainkoak entzun zion eta seme illa biztu zan. Eliasek besotan artuta, amaren gelara eratsi zuen eta eman zion, esanaz: Orra zere semea bizirik. Amaren poza zenbat zan ezagutzeko, ez da seme bakarrena gabe gelditu zanean artutako atsekabeari begiratu baizik. Jauna, esan zion, ezagutzen det Jainkoaren gizona zerala eta Jainkoak zure aotik itzegiten duela.

Eliasek alargunaren etxean bi urte ondo eginak zeramatzkien, esan dan eran bazkatuaz; eta iru urte eta erdi urrean ziran euririk egin gabez goseteak zirauela. Denbora onetan Jainkoak Eliasi itzegin zion, esanaz: Zoaz, eta Akabi aurkeztu zatzakio, nik euria lurrera bialdu dezadan. Israelen sortutako gosetea izugarri eta asko eta asko mundutik zeramaz-

kiena zan. Ala ere, Akabi etzion onek buruko min andirik ematen; etzan gizonen jana nondik eta nola eratuko zuen nekatzen, ezpada onen ardurarik andiena zan bere zaldi eta mandoak bear zutena eratzea. Onetarako Abdias bere ozendari edo maiordomoa putzu billan eta belar eske aide batera bialdu zuen, eta bera bestera joan zan. Egun negargarri oietan ere Akaben emazte Jezabelen eresi eta pozik andiena zan Jaunaren profetaen billan ibilli eta topatzen zituenak iltzea; eta bildur onekin Abdias maiordomo ark berak ere, biotz onekoa eta aurtasunetik Jainkoaren bildurrekoa izanik, eun profeta bi arzulotan gordeak zeuzkan, bear zuten jana ematen ziela.

Eliasek, alargunaren etxetik irtenda, Akabgana Samariara Jainkoaren aginduz zijoala, topatu zuen Abdias abereentzat jan-edan eske zebillala. Onk Elias bereala ezagutu zuen, eta auzpez oñetan jarri zitzaion, esanaz: Zu Elias nere Jauna etzera? Bai, erantzun zion; zoaz, eta nagusiari esan zaiozu emen naizala. Abdias uzkur zegoan mandatu hura egitek: Akaben beni, alabañan, baziekien, eta bizia galtzez bildur zan; eta Eliasi esan zion: Zugandik aldegiten dedanean, Jaunaren espirituak nik ez dakidan lekura eramango zaitu; Akabi zure berriak ematera ni sartuko naiz, eta arkitzen ez bazaitu, ilko nau. Eliasek eman zion egun artan berean Akab ikusteko itza, eta onekin Eliasen esana egin zuen.

Akabek albista au artu zuenean, Eliasi bidera irten zitzaion, eta esan zion: Zu etzera Israel nastutzen zabiltzana? Ni ez, Eliasek erantzun zion, ezpada zu eta zure aitaren etxeko, Jainkoaren aginduak utzita, Baali zarrakizkionok. Gero esan zion Karmengo mendian Israel guzia bilerazo zezala eta Baalen lareunda berrogeita amar profetak berebat aurkeztu zitezela. Karmengo mendian guziak batu ziranean, Eliasek deadar egin zien: Noizdaño bi aldetako izan bear zerate? Nere Jainkoa egiazkoa bada, oni zarrakizkio; eta Baal bada, orobat oni jarri zatzakizkio. An zeudenak etzioten itzik atera. Eliasek, isiltasun au ikusirik, esan zuen: Jaunaren profetaetatik ni bakarrena gelditu naiz, eta Baalek orra lareunda berrogeita amar non dauzkan. Bi idi eman bekizkigute; berak nai dutena artu, zatitu eta puskak egur gañean su gabe ipiñi bitzate. Nik ere bestea artuko det, zatitu eta puskak egur gañean su gabe ipiñiko ditut. Nork bere Jainkoari erregutuko diogu, eta ofrenda au erretzeko sua bialtzen duena, Jainko egiazkoa izan bedi; eta guziak esan zuten: Ondo da.



## 9. Baalen profetaen ondamera

s Baalen profetak lenengo asi ziran. Idia puskatu eta aldare gañean ipiñirik, eguarte guzian beren jainkoari aritu zitzaizkan oska: Entzun zaguzu! Entzun zaguzu! Baña Baalek etzien erantzuten; gorra eta mutua zan, alabañan, aien otsak entzun eta erantzuteko. Elias farraz zegoan, lareunda berrogeita amar profeta aiei begira, nola elkarri txanda egin eta aldia emanaz leiatzen ziran geroago eta ots andiagoak egiten. Ots-ots gogotik, Eliasek esaten zien: Zuen jainko ori, menturaz, norbaitekin itzketan edo ostaturen batean dago, edo bidean dijoa, bestela lo datza eta aditzen ez dizute. Ikusi zutenean arterañoiko egin-al guziakin ezer etzutea atera, ganibitak eta eztenak arturik, beren gorputzak ebaki eta zulatea zituzten odoltzeraño; baña guzia alperrik. Baal sor eta gor zegoan.

Eguerdia eldu zanean, Eliasek amabi arriekin aldare bat egin zuen, eta aldareari inguru guzian erreten bat idiki zion: aldare gañean egurra, eta egurraren gañean idi puskatua ipiñi zuen. Gero lau lusull ur erakarri zituen, eta ur au egur eta idikiari egotzi zien. Bi eta iru aldiz au bera egin zuen: atzenerako idikia eta egurra osotoro busti eta ura zeriela jarri ziran, eta isurtzen zitzaaien urarekin, inguruan idikitako erretena ere bete zan. Garaia edo ordua zanean, Elias aldarearen aurrean belaunikatu zan, eta begiak zeruronz zituela, asi zan esaten: Abraham, Isaak eta Jakoben Jainkoa, gaur erakutsi ezazu Israelko Jainkoa zu zerala, eta ni zure serbitzaria, eta zure izenean au guzia egin dedala. Entzun, bada, Jauna.

Eliasek eskaera au eginda bereala, zerutik sua jatsi zan eta erre zituen aragi, egur, arri eta lurra, eta erretena ere leor-leor egin zuen. Orduan jende guziak, auzpez jarrita, aitor bear izan zuen Jainko egiazkoa Eliasena zala. Eliasek aitormen au ikusi zuenean, esan zien: Baalen profeta guziak, batere utzi gabe, bere-bereala artu itzatzute. Eskuak ezarri ziezteen, eta Zisongo ibaiera eramanda il zituzten. Akab erregeak lanbide oiek guziak zekuskizan, bitartean ezer ere jan gabe; eta luze zijoalako, Eliasek esan zion: Zoaz, eta zerbait ar ezazu; bada, euri-jasa gogor baten otsa da. Akab jatera joan zanean, Elias ere Karmengo mendi tontorrera igo eta eseri zan, burua belaun artean zuela. Egoera onetan bere erregualdia eginda, morroiari esan zion: Zoaz, eta itsas-alderonz begira ezazu. Morroiak begiratu zuen eta itzuli zitzaion, esanaz: Ez da ezer ageri. Eliasek beste egonaldia bat, lenago bezala, egin zuen; berriz ere morroia itsas-alderonz bialdu zuen: eta berri berarekin itzuli zitzaion. Sei aldiz bialdu zuen, eta seiretan irauli zitzaion, ziotsala: Ez da ezer ageri. Zazpigarre-

nean bialduta, itzuli zitzaion, esanaz gizonaren oña zirudien odeitxo bat itsasotik zeruronz irteten zala. Orduan agindu zion Akabgana joan eta esateko, bere-bereala gurdia prestatuta etxera zedilla, euriak artu etzezan. Gurdia prestatzen ziardutela, aize-bolada bat irten zan, zerua odei illunez belztu zan, eta Akab gardian jarri zaneke, euriari goien-bean eraso zion. Elias, soñekoa gerriari lotuta, Akaben aurretik Jezraeleraño joan zan, bederatzi orduko bidean, euri guziakin ere, gelditu gabe.

## 10. Eliasek igesa

Iru urte eta erdiren buruan ain euri gozoa Jainkoagandik iritsita, goseteari atea ltxitzen ziozkan ongille andi ark, zer arrera ona eta sariak uste bear etzitzen? Ala zirudien; baña guziak kontra jaiki zitzaizkan. Akab, Jezabel eta gañerakoak geiago begiratu zioten profeta gezurrezko aien iltzeari, euriaren bitartez zetozkien ondasunai baño; eta Elias iges egin bearrean arkitu zan, batez ere Jezabel biotz gogorrekoaren eskuetan ez erortzeagatik.

Jezraeldik irten eta berrogeita amar legua-bide zeuden Bersabeera joan zan. Emen utzi zuen arterañoiko guzian zerraikion morroia, eta oraindik ere beste egun bateko bidea berak eginda, basoan sartu eta likabra edo enebro-pe batean eseri zan. Naigabez beterik, egindako mirariakin israelarren biotzak bigundu eta ezagueran sartu etziralako, Jainkoari itzegin zion: Askot det, Jauna, eta mundutik kendu nazazu; eta arbolaren itzalean etzanda, loak-artu zuen. Onela zetzala, aingeru batek ukitu eta esan zion: Jaiki zaite eta jan zazu. Elias esnatu zan, alboetara begiratu zuen, eta etzuen inor ikusi; baña bai bere buruko-ondoan su-azpian erretako ogia eta txarro bat ur. Jan eta edan zituen, eta berriz ere loak-artu zuen. Aingeruak bigarren aldian ukitu zion, esanaz: Jaiki zaite eta jan zazu, zeren oraindik bide asko egin bearra daukazun. Jaiki eta ogi-urak jan-edan zituen. Oiek ain indar andikoak izan ziran non, besterik gabe, berrogei egunean eta berrogei gauean basoz baso beti igesi ibilli zan, Jau-naren mendia zeritzan Horeb-kora joan zan arteraño. Emen arzulo batean gordeta egon zan, Jezabelen mandatari, eske zerraizkionak, atzitu etzezat.

Arzulo onetan zegoala, Jainkoak adierazo zion atakara irteteko, andik igaro bear zuela-ta. Irten zan, arpegia bere mantuarekin estalirik; eta Jaunak esan zion: Elias, or zertan zaude? Zure amorez kiskaltzen



nago, ene Jauna, Eliasek erantzun zion; zeren israeltarrak zu utzi, zure aldareak desegin eta zure profetak il dituzten, eta ni bakarrik geratu naitzan, eta ni ere il naiez nere billan dabiltzan. Zoaz, Jaunak esan zion, ekarri dezun bidetik biurtu zaite, eta Damaskon sartzen zeranean, igortziko dituzu Hazael Siriako Erregetzat, Jehu Israelkotzat eta Eliseo zure ordeko profetatzat. Badator eguna, Hazaelen ganibitari iges egiten diona, Jehuk ilko duena; eta Jehuren eskuak atzitzen ez duena, Eliseok ilko duena; eta Baali belaunikatu etzaiozkan zazpi milla gizon Israelen gordeko ditut.

## 11. Eliseoren aukera

Elias Israelera itzuli zan, eta Jaunak esana egin zuen. Topatu zuen Eliseo amabi uztar-idirekin arean ari zala. Elias alderatu zitzaion eta bere mantuarekin estali zuen, Jaunak profetatzarako autu zuela adierazteko, eta Eliasek aldegin zuen. Eliseo idiak utzirik ondoren joan zitzaion, ziotsala: Ontzat ar zadazu nere ait-amaetara joatea, atzen laztana ematera, eta gero jarraituko natzazu. Zoaz, eta itzuli zaite, Eliasek erantzun zion; bada, Jainkoak agindua nik egin det. Eliseo joan zan gurasoai atzen agur egitera. Bere bi idiak artu, il, are-etxearekin su eginda, egosi eta bere erritarrai jaten eman zien, eta gero zebillen leku guzian Eliasi jarraitu zitzaion.

Profeta bi oiek bakardadean bizi ziran, otoitz, barau eta beste gauza on askorekin prestatzen, Jaunaren Izen santuaren aide eta idolozaleen kontra denboraz irteteko. Akab eta onen emazte Jezabelek ere Elias billatzeari utzi zioten, lenagoko egin-al guziakin topatu etzutenean aspertuta. Amar urte ziran profeta oiek bizitza jainkozkoan, eta Akab eta bere mendeko israeltarrak idoloak adoratzan ziardutela. Ala ere oiei Jainkoak bere deiak egin nai izan ziezten, itzultzen ote zitzaiozkan ikusteko.

## 12. Benadad Siriako Erregearekin Akaben arteko gerra

Benadad Siriako erregeak, beste ogeita amar errege, beren gizon armadun ezin esan adiñakoakin, lagun arturik, Akab Israelkoari eraso zion, eta itsumustuan oartzaka ateetaraño sartu zitzaion: eta aurrena urre

eta zillar guziak, gero beren emazte gta semeak eskatu ziozkan. Akab, Jainko egiazkoaren kontra ainbeste aldiz altxatu zanak, etzuen biotzik izan Benadadi eske oiek ukatzeko, eta urre zillar, emazte eta semeak agindu ziozkan. Biaramonean berriz mendekoenak eskatu ziozkan; baña Akabek oraingoan ukatu ziozkan, eta zenbait itz garratzekin uko au gazitatu zion. Benadadek bereala Samariako uria setiatu zuen.

Akabek, esturasun onetatik irteteko, Jaunaren laguntza beste bideirik etzeukan; ala ere, gogor zegoan idoloak utzita Jainkoronz itzultzeko. Jainko errukiorrak oraindik ere biguntasunez begiratu zion. Profeta bat bialdu zion adieraztera, aurrean zeukan jendetza izugarria egun artan berean eskura emango ziola, ezagutu zezan Jainko egiazkoa bera zala. Akabek berri gozatsu oni etzion esker andirik eman. Ala ere, Jainkoak lagundu zion, eta Benadaden jendea bere banakakin abarrakituta, igesi bialdu zuen. Berriz ere profetak itzegin zion, esanaz: Zoaz, atsedean ezazu, eta ondo begiratu, urte beteran buruan Siriako Erregea datorkizunean, zer egin bear dezun. Egiaz, bigarren aldian Benadad bere jende andiarekin joan zitzaion, eta oraingoan ere Jainkoak profeta beraren bitartez esan zion menderatuko zuela. Bi aldeetakoak zazpi egunean aurkez aurke egon ziran, eta atzenean elkarri erasota, eun milla Siriako eraso-lekuan bertan il ziran, eta bizirik irtendako ogeita zazpi milla Afeko urira, gorde naiez, joan ziran, eta murruiak, azpian artuta, lertu zituen. Benadad morroi batzuekin gela ezkutu batean gorde zan, eta Akabi gazitatu zion ea bizirik utziko zuen. Akabek baiezkoa eman zionean joan zitzaion, eta ondo artu zuen. Gero elkarren arteko adiskidetasunak eginda, Benadad bere errira bialdu zuen.

Jainkoak etzion lanbide au ontzat artu. Benadadek, Jainko egiazkoari egin izan ziozkan bidegabekeriakin, eriotza ondo irabazia zeukan, eta Akabek, zegokion kastigua Jaunak eskuan ipiñi zion ezkerre, eman bear zion, etxera joaten utzi gabe. Baña Akabek Jaunaren esanai gitxi begiratzan zien; eta atzenean Akabek Benadadi egin bear izan ziona, Benadadek Akabi egin zion, laster ikusiko dan bezala.

## 13. Naboten mastia

Aitatu diran bi garaipen oiek baziruditen Akab ezagueran sartu bear zutela, eman ziozkan Jainkoronz itzultzeko eta eskerrak emateko; baña langai onen kontu gabe, Akaben gogo guzia zan bere anditasuna nola



agertuko zuen. Jezraelen zeukan jauregi edo etxe eder bat, non bizi izaten zan une geianean, eta geiago edertzeko asmoa artu zuen. Onetarako Nabot zeritzan bati deitu, eta esan zion: Zure mastia indazu, nere etxe-ondoan baratza bat egin dezadan, eta beste bat ohea trukean edo balioa dirutan emango dizut. Jainkoak gorde nazala nere gurasoen ondadea zuri ematetik, Nabotek erantzun zion. Jainkoak israeltarrai debekatua zeukan beren asabaetatik zetorkien lurra saltzea; eta erregeak nai zuen Nabot beartu debeku au austera. Akab, uko onekin txit aserreturik, su bizian gelara sartu eta oiean etzan zan, eta bazterreronz begira jarrita, etzuen ezer jan nai. Onela zegoala, Jezabel gogorra sartu zitzaion, eta esan zion: Au zer da? zerk estutzen zaitu? edo zergatik jaten ez dezu? Senarrak erantzun zion baratza egiteko Naboti mastia eskatu ziola, naiz dirutan, naiz beste obeago baten truke; baña itzetik ortzera ukatu ziola. Emazteak esan zion: Nonbait txit gitxi dezakezu! Israelko zure agintea ondo erakusten dezu! Ots, ea jaiki, jan eta zure barrun ori lasa ezazu, eta Naboten mastia nik eratuko dizut.

Emakume biurri au oitua zegoan gizonak ezer gitxigatik galtzen, eta Nabotekikoa ere laster egin zuen. Au bizi zan erriko gizon zar eta elduai bialdu zien txartel bat, senarraren izenean egin eta onen erraztunarekin sillatua, zeñetan esaten zien: Barau bat egiteko agindu ezazute, eta erriko lenen edo andientsuen artean Nabot ipiñi ezazute. Gero irabaziko dituzte bi gizon gezurti, esango dutenak Nabotek Jainkoagatik eta Erregeagatik gaizki itzegin duela, edo Jaunaren Izen santua aotan artu eta Erregea madarikatu duela. Gero erritik bota eta arrika ilko dezute. Gizon gaizto eta Jainkoaren bildur gabeko oiek, erregiñak gaztigatua osotoro egin zuten. Bi lekuko edo testigu gezurtiren esanaren gañean Nabot arrikatua il zan. Jezabelek ilberri au artu zuenean, senarrari joan zitzaion esatera: Ea jaiki, eta zoaz Nabot jezraeltarraren mastia zeretzera, zeren Nabot illa dan.

## 14. Eliasek Akabi itzegiten dio

Naboten il-berriarekin, onen mastiaren jabe egitera Akab Jezraelera zijoala, Elias profeta, errege ark ainbeste izutzen zuena, eta aspaldian Jezabelek galdu nai izan zuen ezkerro, ikusi etzuen, Jainkoaren aginduz bidera irten zitzaion, eta esan zion: Nabot il dezu, eta onen mastiaren jabetzera zoaz: ara bada, Jaunak zer dion: Txakurrak Naboten odola

millizkatu duten leku ber-berean, zurea ere millizkatuko dute. Au eta onelako beste etorkizun negargarri asko, Eliasek esan zion izango zituela. Bera, bere emazte Jezabel eta bere odoleko guziak, bat ere utzi gabe, ondatuak izango zirala, Jeroboan eta Baasarekin gertatu zan bezala.

Berri ikaragarri oiek Akab ipiñi zuten penitenzia-antz bat egitera. Zenbat egunean buru makurtu, soiñ urratu eta damuaren beste siñalea-kin ibilli zan; eta umillatze au Jainkoak ontzat artu zion; baña Akab luzaro egon gabe, bere lengo gaiztakeriaetara itzuli zan, eta geroz, biziak irauñ zion artean, etzan ondu.

Akabek Jezabelgandik bi seme zituen, Okozias eta Joran, eta emazte azkarrak biak bere errege-lagun ar-erazo ziozkan, iltzen bazan ere, bata bestearen urrena sartu zedin. Andik laster Akab eta Siriako Erregearen artean gerra sortu zan. Ara zergatik.

## 15. Akab eta Benadaden arteko gerra

Benadad Siriako erregea Akaben eskuetan, len esan dan bezala, erori zanean, etxera joaten utzi zion, Ramot Galaadko erria bereala emateko itzean; baña Benadadek iru urteren buruan ere erri au uzteko gogorik etzeukan, eta Akabek emendik Benadadi erasotzeko oña artu zuen. Asmo oietan zebillen denboran, etorri zitzaion ikusi bat ematera Judako errege Josafat bere guraskidea, zeñaren seme zarren Joran Akaben alaba Ataliarekin ezkontuta zegoan. Elkarrekin zeuden batean, Akabek Josafati esan zion, Siriako Erregeari ematera zijoañ auzian aren aide jarri zekiola. Josafatek bere laguntza bertatik agindu zion.

Baña Josafatek, Jainkoaren bildur andiko gizon on bat izanik, utsegiterik izan etzezan, nai zuen jakin ea gerra hura Jainkoaren gogokoa izango ote zan. Josafaten eresi au Akabek ikusita, Jezabelen maietik jaten zuten lareun profetai deitu eta galdetu zien ea Ramot Galaadkori erasotzera joango zan edo ez. Guziak erantzun zioten baietz, eta erria artuko zuela. Josafatek etzuen lareunen artean Jaunaren profetarik ikusten, eta Akabi esan zion: Jaunaren profetarik emen ez dago, onen bitartez zer egin bear dan jakiteko? Bat bakarra gelditu da, Akabek erantzun zion, eta au Mikeas; baña iguin det, beori onik beñere ematen ez didalako. Josafatek orduan esan zion: Ez orrelakorik esan, o Errege!



## 16. Mikeas profeta

Akabek Mikeasi mandatari bat bialdu zion etortzeko esatera. Bitartean beste profetak etzioten pakean uzten, esanaz Ramot Galaadkora joan zedilla eta beretuko zuela. Mikeas aurkeztu zitzaionean, Akabek galdetu zion: Ramot Galaadkora joan bear gera, edo geldi geldi egongo gera? Mikeasek erantzun zion: Ardi artzai gabekoen gisan, Israel guziaz mendietan banatua ikusi nuen, eta Jaunak zion: Oiek gidaririk ez dute. Nor bere etxera pakean itzuli bedi. Orduan Akabek Josafati esan zion: Ez nizun esan, Mikeasen aotik ez nuela berri onik adituko, ezpada txarrak beti? Mikeas onenbesterekin etzan isilldu: esan ziozkan beste gauza asko ere, Akabi eta bere profetai min ematekoak, eta oietatik batek masallako bat eman zion. Akabek, Mikeasen esanak ezin eramanaz, agindu zuen itxian sartuta ogi-urak beste gauzarik eman gabe iduki zedilla.

Akabek Jaunaren profeta bat onela erabiltzea etzan anbat mireste-ko, zenbat gauza aiek guziak Josafatek ikusita, Akabi jarraitzea: Akabek, alabañan, aitortzen zuen iguin zuela eta bere itzean zijoan; baña Josafat, lenago Akabi gogor egiteko biotza izan zuenak, etzuen orain itzik atera, eta jarri zan gerra artan Akabi laguntzera. Errege biak Samariatik irten ziran, Ramot Galaadkoari erasotzera. Akabek gogoan zerabilzkien Mikeasek egindako eriotzaren keñadak, eta bildur zan geiegi sartzen; bes-tetik baziakien Siriako Erregeak agindua zeukala Akab beraren kontra indarrrik geiena egiteko, eta inola ere al bazitekean, gañerakoak utzita, ber-bera galtzeko.

Akabek, bada, berea gogoan zeukala eta onore andi bat ematen bazion bezala, Josafati esan zion errege-janziak artu eta martiztiari agintzen jarri zedilla: eta Akab bera beste edozein agintari beeragokoen antzean joango zala. Josafatek etziekien Akaben gogoko berri, eta gaitz-uste gabe errege-soñekoak janzita, buruan koroarekin lenengo gurdian sarturik, asi, zan erasotzen. Siriarrak ikusi zutenean, Errege Akab zalakoan, beste guziaz utzita, aide guzietatik ingurutu zuten, eta siriarren eskue-tan erortzeko zorian Josafat arkitu zanean, Jainkoari eskatu zion lagun-tzeko: eta egin zuen deadarretik ezagutu zuten etzala biliatzen zuten Akab, eta onen eske, Josafati utzita, beste alderonz joan ziran. Gisa one-tan eriotzaren amutik Josafat irten zan, Jainkoak siriarrak adierazo zielako Akab etzala. Onak bitartean ustez bere burua ondo gordea zeukan: baña siriarrak batek menturara largatutako gezia edo fletxa batek jo zuen eta bularrean sartu zitzaion. Bereala Akabek ezagutu zuen zein gaizki zego-

an, eta bere gurdi-zai edo kotxeroari agindu zion lagun-artetik atera eta albo batera eraman bezala; eta illunabarrean il zan. Josafatek martiztia atzeraerazo zuen, eta nor bere lekura itzuli zan, eta Josafat bera ere bai bere soldaduakin Jerusalemenera. Siriako Erregeak ere, Akaben ilberria artu zuenean, lanbide ari utzi zion, eta soldadu guziak etxeetara bialdu zituen.

Akab Samariara eraman eta bere gurasoen obian lurpetua izan zan. Bularreko idikitik irtendako odolez, gurdia eta ubalak busti ziran, eta txakurrak miaztu zituzten, Eliasek leenaz esan zuen bezala. Erregetzan ogei urte egin zituen.



## OGEITA BIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Okozias, bederatzigarren Erregea

Akaben aulkian bere seme Okozias eseri zan. Ait-amaen bide berberak artu zituen, eta aien gaiztakeriaetan bereala erori zan. Aita ilda, agintean bera bakarrik jarri zanetik illabete gitxiren epean, etxeko baranda goi batetik erorita gaizkitu zan; eta bera sendatzerik gizonetan etzegoala etsirik, Akarongo jainko Belzeburi mandatariak bialdu ziozkan, bizirik irtengo ote zan galdetzera. Jainkoaren Aingeruak esanda, Elias mandatari oiei bidera irten zitzaien eta esan zien: Israelen Jainkorik ez da, Belzebu Akarongoagana galdeak egitera joan gabe? Zoaz eta erregeari esaiozu: Israelko Erregeari Jainkoak ara zer dion: Zergatik mandatariak Belzeburi bialdu diozkazun galdetzera, zautzan oietik etzera irtengo: naita nai ez, il bear zera. Au esanda, Elias bere bakarrera itzuli zan; eta mandatariak ere bai Okoziasgana. Onek ikusi orduko, esan zien: Zertako itzuli zerate? Erantzun zioten: Gizon bat bidera irten zagu eta esan digu biurtzeko. Gero zearo esan ziotenean gizon arekin zer itzketa izan zuten, galdetu zien: Zer tajukoa zan edo zer janzkera zuen topatu dezuten gizon orrek? Illez janzia eta ubal batekin gerrian lotua, esan zioten.

Okoziasek Eliasen antza bereala eman zion, eta berrogeita amar soldadurekin agintari bat aren eske bialdu men. Agintari onek Elias mendi tontorrean ikusi zuenean, esan zion: Jainkoaren gizona, Erregeak agintzen du jatsi zaitezela. Jainkoaren gizona banaiz, Eliasek esan zuen, zeruko suak zu eta zure berrogeita amarrak erre zaitzatela. Ordu berean sua zerutik jatsi eta guziak kiskaldu zituen. Erregeak, berriz ere, beste berrogeita amar gizonekin agintari bat bialdu zuen: lenagokoak bezala, Eliasi itzegin zion; eta zerutik berebat jatsi zan suak guziak erre zituen. Erregeak irugarren aldian beste berrogeita amarrekin agintari bat bialdu zuen: baña oraingo agintaria besteak baño buru obeagokoa izan zan. Mendiaren oñera zanean, bere lagunakin belaunikatu eta Eliasi erregutu zion onela: Jainkoaren gizona, ni eta nere lagun belauniko gauden zure serbitzariok, bizirik gorde gaitzatu.

Orduan Jainkoaren Aingeruak Eliasi esan zion: Gizon oriekin zoaz eta ez ikaratu. Elias menditik jatsi eta Samariara joan zan. Okoziasi aurkeztu zitzaion eta esan zion: Zergatik mandatariak bialdu ziñituen Aka-

rongo jainko Belzeburi galdeak egitera, Israelen Jainkorik ez balitz bezala, zautzan oietik etzera irtengo: barkazio gabe ilko zera. Au esanda, Eliasek aldegin zuen. Andik laster Okozias Erregea il zan; eta Joran bere anaia erregetzan sartu zan.

Geroz etzan Elias ere munduan luzaro egon. Au ondo ezaguturik, bere ikasle Eliseorekin Galgalatik irten zan, eta bide zati bat biak egin zutenean, Eliasek Eliseori esan zion: Emen gelditu zaite: bada, Jaunak Betelera bialtzen nau. Eliseok igerrri zion mundutik bazijoala eta an egoteko esaten ziola nola zijoan ikusi etzezan. Ikasle leial onek erantzun zion: Etzaitut, ez, utziko. Betelera biak jatsi ziran, eta emen bizi ziran profeta-semeak Eliseori esan zioten: Ez dakizu zure maisu gabe gelditzen zerala? Badakit, erantzun zien. Isillik zaudete. Emen ere Eliasek aldegin nai izan zion; baña Eliseo ernai zebillen, eta etzion utzi. Emen-dik Jerikora joan ziran, eta emengo profeta-semeak ere Eliseori berri bera eman zioten, eta esan zien isillik egoteko. Eliasek Eliseori irugarren aldian esan zion: Emen gelditu zaite; bada, Jaunak Jordanera bialtzen nau; baña Eliseok oraingoan ere, lengo bietan bezala, esan zion etziola utziko.

Eliasek ikusirik Eliseoren leia begietatik ez uzteko eta nora nai ondoren zerraikiola, biak Jordango ibai ondora joan ziran: Eliasek kapa tolestatu eta onekin ura jo zuen, eta ibaiaren erdian idiki zitzaion bide leorretik biak beste alderonz igaro ziran, ondoren zerraizkion profeta-semeak atzean utzita. Emen Eliasek Eliseori esan zion: Zer nai dezun eskatu zadazu, zugandik aldegin baño lenago egin dizazudan. Eliseok erantzun zion: Zure bi espirituak nai ditut. Espiritu bi oiek, Santo Tomas dionez, etorkizunak asmatzeko eta mirariak egiteko eskua ziran. Askoi nai izatea da, Eliasek esan zion: guziaz ere, zugandik aldegiten ikusten banazu, bi gauzak izango dituzu; bestela ez.

### 2. Mundutik Eliasen ezkutakera

Moabko zelaietaronz biak itzketa gozo-gozoan zijoazela, bat-batean agertu zitzaion suzko gurdi bat, berebat suzko zaldiak zerabiltena, eta Elias gurdi onetan sartuta zeruronz igo zan. Eliseok zekusan nola Elias gurdiak zeraman, eta atsekabez beterik, deadar egin zion: Ene Aita! Ene Aita! Israelko gurdia eta bere itzaia!!! Baña Elias ezkutatu zan, eta Eliseok etzuen geroz ikusi.



Eliseo bere maisu on Elias gabe arkitu zanean, negarrari eman zitzaion, eta lantu eta zispuruz zegoala, jatsi zitzaion Eliasek erortzen utzitako kapa, eta Eliseok ezagutu zuen eskatu ziozkan bi eskualdi, etorkizunak asmatzeko eta mirariak egitekoak, berekin zituela. Kapa au artuta, Jordanera itzuli zan, eta bere maisuak bezala, Jordango ura jo zuen; baña biderik etzitzaion idiki. Orduan deadar egin zuen: Eliasen Jainkoa orain non da? Berriz ere jo zuen eta urak bi aldeetara zabaldurik, bidea idiki zitzaion: eta ibaia oñ-leorrez igaro zuen.

Profeta-seme Jordango ibaieraño Elias eta Eliseori lagundu zietenak, aietatik banakatu ezkeroko egikera oiek guziak zekuskiten, eta Eliseo bereetaratu zitzaientean, esan zuten: Eliasen espiritua Eliseori sartu zaio; eta auzpezturik, agur eta arrera txit andia egin zioten. Eliseo Jerikora joan zan, eta erri onetakoak eskatu zioten ango urak, arren, ondu zitzaile: guziz ziran, alabañan, gaiztoak, edale asko il eta lurra elkortzen zutenak. Jerikokoak eskatua eginda, Beteleronz abiatu zan. Errira urreratu zanean, mutillak irten zitzaiozkan, buruan illerik etzuelako iseka eta farra egiñaz, ziotsatela: Ator, buru zuria! ator, buru zuria! Eliseok begiratu zien eta Jainkoaren izenean madarikatu zituen. Bereala basotik bi artz izugarri irten ziran, eta berrogeita bi mutil triskatu zituzten. Eliseo emendik Samariara joan zan.

### 3. Joran, amargarren Erregea

Israelko amargarren errege Joranek, anaia Okozias ilda, arestian esan dan bezala, erregetzan sartu zanean bereala, artu zuen Akab bere aita zanaren mendetik irten naiez abiatu ziran moabtarrai erasotzeko asmoa. Joranek Judako errege Josafat eta Edongoa bere aide zituen. Iru errege oiek Eliseo Samarian sartu zan egunetan, lanbide artarako elkar-gana batu ziran; eta Jordango ibaia igarotzea baño, leorrez joatea aisago izango zutelakoan, Moabko Erregearen billan Idumeako basoetatik abiatu ziran. Bidean zazpi egun egin zituztenez, ura aitu zitzaient, eta egarriak zaldi asko iltzen ziezten, eta gizonak ere iltzeko zorian zeuden. Estura larri au ikusirik, Joran asi zan bere jainkoakgatik gaizki esaka eta espa miñak agertzen. Baña Josafatek besterik egin zuen. Emen ez da, galdetu zuen, Jaunaren profetarik emen ez da, bere bitartez ura eskatzeko? Israelko Erregearen morroi batek erantzun zuen: Eliasen serbitzari Eliseo ementxe da. Ori Jaunaren profeta da, Josafatek erantzun zuen, eta iru

erregeak joan zitzaiozkan. Eliseok aurrean ikusi zituenean, Jorani esan zion: Nik zurekin zer eginkizun det? Zure ait-amaen profetaetara zoaz. Joranek bere kejurak aurrera zeramatzkien, esanaz: Zertako Jainkoak iru erregeok emen bildu gaitu, Moabkoaren eskuetan erortzeko? Joranen esakera onekin Eliseo aserreturik, erantzun zion: Baldin Josafati diodan begiruneagatik ez balitz, ez nizun, ez, entzungo, ez eta begiratuko ere. Gero esan zion: Erreka onetan erreten-zulo batzuek egizkizute. Aizerik eta euririk ez dezute ikusiko: ala ere, Jaunak urez beteko ditu: eta gañera Moab eskuratuko dizute. Biaramonean guzia gertatu zan Eliseok esan bezala. Erreten-zuloak urez bete ziran, eta gizon eta abereak nai adina edan zuten.

### 4. Eliseoren mirariak

Moabtarrek beren lurreko sarrerara irten zitzaiezen arpegi ematera. Baziekiten bazter aietan aspaldian urik etzala; eta erreten-zuloetako urak ikusi zituztenez, eguzkiaren goizeko irteerako argira, gorritarakoak iruditu zitzaiezen, eta esan zuten: Odola da: Erregeak elkarrekin aserretu eta eskuetara dira. Moabtarrek bereala joan ziran, besteak gogor egiteko eran etzeudelakoan; baña txit gaizki irten zitzaient. Illak il, eta gañerako guzia iru erregeak aurrean artu, eta etziran gelditu alik eta iges egin zezaketan banakak, beren erregearekin Moaben sartu ziran arteraño.

Eliseok esan guziak gertatu ziranean, Samariara itzuli zan; eta andre alargun bat aurkeztu zitzaion, esanaz, senarra ilda, gelditu zitzaiozkan bi seme, artzekodun batek kendu nai ziozkala, zorra kitatu artean bere morrontzan idukitzeko. Eliseok esan zion: Zer nai dezu, bada, nik egi-tea? Etxean zer daukazu? Andreak erantzun zion: Nik ez daukat ezer ere, iltzen naizanean nere gorputza igorritzeko olio apur bat baizik. Zoaz, Eliseok esan zion, eta al dituzun auzoetako ontzi guziak bildu itzatzu, eta olio apur hura ontzi oietan sar ezazu, eta gordeko dituzu. Eliseok esana andreak egin zuen, bere semeak laguntzen ziotela, eta olio apur arekin ontzi guziak bete ziran. Miran andi au ikusita, Eliseori joan zitzaion, esatera; eta Eliseok agindu zion, zorra pagatu eta gañerakoarekin bera eta bere semeak bizi izan zitezela.

Eliseok bere eskualdi andia erakusteko bidea, berriz ere, laster izan zuen. Bere maisu Elias ibilli izan zan bezala, erlejioko gauzak erakusten eta Jaunaren bildurra biotzetan sartzen zebillen bein batean, Siriako



emakume israeltar on baten etxean ostatuz gelditu zan. Emakume biotz oneko onek Eliseoren ontasuna ezaguturik, senarrari esan zion Jainkoaren gizonen bat zala, eta txit ondo zeritzala gelatxo bat bere oi, aulki, mai eta beste gauzakin ipintzea, zetorreanean, nai zuen eran emen egon zedin. Senarraren baimenarekin emazteak ala egin zuen.

Ibilli-aldiak eginda, etxe onetan sartu zan bein batean, etxeoandrearri eskerrak eman naiez, deitu, eta gelako atera zanean, esan zion ea erregeari edo soldadu-agintariari aren aide itzegitea nai zuen. Andreak erantzun zion errian pakean bizi zala, eta iñori itzegin bearrik etzeukala. Bigarren aldian Jiezi bere morroiarekin gaztigatu, eta atera igo zitzaionean, esan zion: Gaur urtebete, ordu onetan berean, seme bat egingo dezu. Ez zure serbitzari oni orrelako losentxakeriarik egin, erantzun zion. Lenago aurrik izan etzuen, eta senarra urteetan aurreratua zan; ala ere, andik urtebetera, Eliseok esan bezala, seme bat izan zuen.

Seme au azitzen zijoan, eta egun batean aitagana, igitariakin ari zan sorora bialdu zuen, eta eguzkiak burua artuta, esan zion buruan min zuela; eta aita bereala morroi batekin etxera bialdu zuen. Etxera zanean il zan, amaren egin-alak ezer iritxi gabe. Ama on hura bere semea gabe arkitu zanean, astoan jarririk, Karmelora joan eta Eliseori auzpez jarri zitzaion, oñetatik itsatsita. Jiezi Eliseoren morroiari etzitziaion ondo erori oñetan ala egotea, eta kendu nai izan zuen: baña nagusiak eragotzi zion, esanaz: Utzaiozu bere barruna penatan daukanari. Negar-malkoz oñak bustiaz bere miña erakusten zion, eta Jaunagandik semearen biztutzea iritxitzeko zeukan eresia agertzen zion. Eliseo aurra zetzan lekura joan zan, ama ondoren zerraikiola. Gelan sartu eta atea itxi zuen. Aur illa ikusirik, oiean sartu zan, eta gañean etzan zitzaion musuz-musu, aoz-ao, begiz-begi eta eskuz-esku, eta aurra asi zan berotzen. Oietik jaiki, eta etxean oronz-ononz bazebillen. Eliseo berriz ere oieratu zan eta aurrari gañean etzan zitzaion. Aurra aozabalka asi zan, eta zazpigarren aozabalkarekin batean, begiak idiki zituen. Eliseok bereala aman otsegin eta seme bizia eman zion.

## 5. Naaman Siriakoaren sendatzea

Mirari oiek eta onelako beste asko egiten Eliseo zebillenean, Siriako lapur batzuek, Israelen egindako sarrera batean, katibu eramane zuten Israelko neskatz gazte bat, zeñaren ederra eta argia ikusita, Naamanen

emazteak neskametzat artu zuen. Naaman zan Siriako Erregearen martiztietako agintaria, gizon aditua, bere erriari on asko egin izan ziona, aberatsa eta erregearekin siriar guzien biotzak bere zituen; baña legendar edo lepraz josia eta arteraño artutako sendagarri guziak ezer egin etziona. Neskatz katibu onek bein batean etxeoandrearri esan zion: Ah, Samarian bizi dan profetagana nere nagusia joan izan balitz! Dudarik gabe onezkero sendatuta zegoan. Emazteak bereala senarrari aitatu zion neskameak ziona, eta Naaman egitera jarri zan. Erregeari joan zitzaion, esanaz: Nere neskatzak au eta au dio; eta baimena eskatu zion. Erregeak baimena ez ezik, Israelko Erregearentzat txartel bat eman zion, ziotsala: Txartel au artzen dezunean jakingo dezu nola Naaman nere serbitzaria bialtzen dizudan legendarra sendatzera. Israelko Erregeak, txartel au artu zuenean, soñekoak urratu eta deadar egin zuen: Bizitza eta eriotza eskuan dauzkadan Jainkoren bat ni al naiz, gizon onen gaitza sendatu dezadala niri gaztigatzeko? Begira, bere serbitzariai esan zien, errege au apuko billan dabil niri erasotzeko.

Eliseok jakin zuenean Israelko Erregeak zer egin zuen, gaztigatu zion: Zertako soñekoak urratu dituzu? Naaman nigana betor eta jakin beza Israelen profeta badala. Naaman joan eta Eliseoren etxe-atarian gelditu zan. Eliseok, arpegirik eman gabe, morroi batekin Naamani gaztigatu zion Jordango ibaiean zazpi aldiz garbitu zedilla eta sendatuko zala. Naamanek etzion bera agertu gabe gaztigu au bialtzea ontzat artu, eta aserre bizian atzeronz bazijoan, esanaz: Nik uste nuen gizon ori aurketuko zitzaudala, bere Jainkoari erregutuko ziola eta nere gaitza eskuz ukitura sendatuko zuela. Zer? Damaskoko urak Israelkoak baño ni garbitzeko obeak ez dira? Morroiak ikusi zutenean etxerontz bazijoala, esan zioten: Baldin profetak gauza gogor eta nekez bat agindu izan balizu, osasunagatik egin bearko zenduen. Zergatik, bada, egingo ez dezu ark agindutako gauza erraz ori, nola dan ibaiera joan eta garbitzea? Naamanek ezagutu men morroiak ondo esaten ziotela. Jordango ibaiera jatsi eta zazpi aldiz garbitu zan, eta legendar guzia joan zitzaion, bere aragi-azal guzia aur jaioberrri batena bezain leuna eta ederra gelditzen zala.

Naamanek bere burua onela garbitua eta sendatua ikusi zuenean, bere lagun guziakin Eliseori joan zitzaion eta esan zion: Orain ezagutzen det Israelkoa beste Jainkorik lurrean ez dala. Bereala eskeñi ziozkan berekin zeramazkien urre, zillar eta balio andiko janzi asko; baña Eliseok artu nai izan etzizozkan. Naaman, berriz eta berriz ere leiatu zitzaion, artzeko; baña alperrik. Geroenean, bi mandoz eramane lur eramateko baimena eskatu zion, esanaz, aldare bat egiteko zituela, eta egundaño Jainko





egiazko bakarra baizik etzuela ezagutuko; eta agur andi bat eginda Eliseogandik Naamanek aldegin zuen.

## 6. Jiezi lepraz betea

Onek aldegin bezain laster, Jiezi Eliseoren morroiak beregan esan zuen: Nere nagusiak Naamani ez dio ezer artu nai izan: baña ni ondoren banoakio eta eskeñtzen didana artuko diot. Naamanek ikusi zuenean Jiezi bereronz zijoakiola, bidera irten zitzaion. Jiezik esan zion: Nagusiak bialdu nau zuri esatera Efraingo bi mutil gazte profetakumeak etorri zaiozkala, eta talentu bat diru eta bi soñeko emateko. Naamanek bat baño bi obe zituela esan, eta bi talentu eta bi soñeko bi zakutan sarturik bialdu zuen, bere bi morroi jasalletzat emanda. Jiezi illunabarrean etxera itzuli zan; gorde zituen, eta morroiak nagusiagana biurtu ziran.

Jiezi, ezer egin ez bazuen bezala, Eliseori aurkeztu zitzaion, eta nagusiak galdetu zion: Nondik zatoz? Zure serbitzaria ez da inon izan, erantzun zion. Zer? nagusiak esan zion, nere espiritua begira etzegoan Naaman bidera irten zitazunean? Orain, bada, olibadiak, mastiak, ardiak, idiak eta morroi-neskameak erosteko asmoan diru eta soñekoak Naamangandik artu dituzun ezkerro, Naamanen gaitza ere zurekin eta zure ondorengoakin beti izango da; eta Jiezi, bereala Eliseoren ondotik legenez edo lepra zuriz osotoro josia irten zan. Geroz ez dakigu, Eliseok bere serbitzora artu zuenik; ondorengo berrogeita amar urteetan, beintzat, ez da aren aitamenik egiten.

Denbora onetan Israelko eta Siriako Erregeen artean gerra agerikorik ez bazan ere, Israelkoak eta Siriakoak beti elkarri asko txarkeria eta dollorkeria egiten zebiltzan. Eta oiek guziak beingoan bukatzeko, Siriako Erregeari gogoak eman zion biderik obena zala Israelkoari eskuak ezartzea. Jakin zuen noiz eta nora bere egurastuak artzera eta ibilli-aldiak egitera irteten zan. Alde oietara zelatariak bialdu zituen, agindurik kontuan egon zitezela, Israelko Erregea zijoanean atzemateko.

Eliseo illabete batzuek lenago Galgalatik Dotan-era aldatu zan, eta Israelko Erregeari Siriakoaren asmo gaizto guziak Dotandik salatzen ziozkan, eta siriarrak zabaltzen ziozkaten sare guziak ezereztutzen zituen. Siriako Erregeak uste izan zuen bereetakoren batek saltzen zuela, eta bein batean txit aserreturik bere serbitzari nagusiai esan zion: Zertak agertzen ez didazute Israelko Erregearen aide saldukeriaz dabilkidan

ori? Ez dago, ez, Jauna, emen saldukeriarik, batek erantzun zion. Israelko profeta Eliseok salatzen diozka zuk zure bakarrean esaten dituzun itzik isillena ere. Siriako Erregeak salati au nor zan jakin zuenean eta Dotanen zegoala, soldadu zaldizkoak bear ziran prestamen guziakin bialdu zituen erria inguratzerara. Gauaz joan eta Dotan aide guzietatik setiatu edo esitu zuten.

Biamonean egunsentian Eliseoren morroi bat etxetik irtenda inguru guzian soldaduak ikusitakoan, nagusiar joan zitzaion, esanaz: Ai, ai, ai, jauna! Zer egin bear degu? Eliseok ordurako igerri zion zer zan, eta erantzun zion: Ez ikaratu; bada, aiekin baño gurekin geiago dira. Bereala jarri zan Jaunari erregutzen eta eskatzen, arren, morroiaren begiak argitu zitzala. Morroiak mendi bat ikusi zuen, eta onen erpiñean Eliseo bera suzko gurdi eta zaldiz inguratua. Eliseo bere morroi bizkortu onekin Samariarantz irten zan; baña siriarren artean laster sartu zan. Eliseok orduan Jaunari eskatu zion, arren, siriarren begiak illundu zitzala, eta guziak bereala jarri ziran ezer ere ezin ikusi zutela. Itsumen onetan berberari galdetu zioten Eliseo non zan, eta erantzun zion: Eliseo arkitzeko lekua au ez da: nerekin atozte, eta nik erakutsiko dizutet non dagoan; eta Samariara eraman zituen. Errian sartu ziranean, Eliseok eskatuta, Jainkoak begiak argitu ziezten, eta ikusi zuten Eliseo bera zala ara eraman zituena eta Samarian beren etsaien erdian zeudela.

Israelko Erregeak il nai izan zituen; baña Eliseok etzion utzi; eta jaten eta edaten emanda, beren tokira bialdu zituzten.

## 7. Israelko gosetea

Siriarrak Israelen ikusi zuten gizabide andi onek, badirudi ordain ona merezi zuela; baña Siriako Erregeak etzuen aintzat artu. Andik laster Samaria setiatu zuen. Jainkoak Israeli bialdutako gosete izugarriak bostgarren urtea zeraman, eta setio luze onekin samariarren estura eta gosetea are geiagotu zan. Ango jan-gauzaen ez-izana zenbaterañokoa zan ezagutzeko, ez dago begiratzea baizik asto-buru batek seieunda ogeita amar erreal egiten zituela, eta gisa onetan beste gauza guziak ere saltzen ziran. Baña ara beste gertakari bat, esan dana obeto egizdatzeko. Egun batean erregea murru gañean zebillen, bazterrak nola gordeta zuden ikusten, eta emakume batek atzetik deadar egin zion: Ene Jauna eta Erregea! gorde nazazu. Erregeak erantzun zion: Jaunak gordetzen ez



bazaitu, nola nik gorde zaitzaket? Zer nai dezu nik egitea? Emakumeak esan zion: Onako andre onek esan zidan: Zure semea gaur jan dezagun eta gero nereza jango degu. Egosi eta jan genduen; orain esan diot berea ere jan dezagula, eta ez du nai, eta ezkutatu du. Itzketa izugarri eta gogor onek erregeari biotza erdiratu zion eta etzuen ezer erantzuteko kemenik izan. Soñekoak urratu zituen, eta errikoak ikusi zioten burni zorrotzez egindako atorra edo zilizioa aragian sartuta zeramana: ezagutzen zuen, alabañan, Jainkoa aserreturik zegoala; ordea penitenziaren siñale oiek eman arren, Jaunaren sua itzaltzeko bidean etzebillen; eta gaitz guziak Eliseori ezarri ziozkan, eta au ilerazo naiez borrero bat bialdu zuen, topatzen zuen lekuan lepo-moztutzeko aginduta. Jainkoak Eliseori agertu zion erregeak zer agindu zuen, eta bere lagunai esan zion nola iltzera gizon bat zetorkion, eta atea kontuz itxi zezatela sartu etzedin, eta errege bera ere ondoren zetorrela, len agindua eragoztera.

Erregea Eliseoren gelan sartu zanean, Eliseok erregeari hura iltzeko emandako aginduaren gañean itzegin gabe, esan zuen: Biar ordu onetan Samariako atean iriñik obena lakaria, errealean salduko da. Erregeari eskua laguntzeko ematen zion batek, Eliseori esan zion Jainkoak zerutik euri-jasaren gisan garia bialduta ere, etzala alakorik gertatuko. Profetak erantzun zion: Zure begiak ikusiko dute; ez dezu, ordea, jango.

Denbora onetan lau lepradun Samariako atez kanpora egon oi ziran, miñantz onetakoak errian bizitzea debekatuta zegoalako; eta ainbesteraño gosetea zabaldu zan non inõrgandik ere laguntzarik etzuten, eta elkarri esan zioten: Zertako erioaren begira emen egongo gera? Siriarrretara goazen. Bizirik uzten bagaituzte, bizituko gera, eta iltzen bagaituzte, ez da ansi, emen ere denboraz il bear geran ezkerro. Illunabar batean irten ziran, eta siriarren etzauntzaetara alderatu ziranean, siriarren artean, Jainkoak ala naita, sortu zan ots ikaragarri, soldadu-talde andiak beren zaldi gurdi eta tresnakin egin oi duen antzekoa, eta siriarrak iskanbilla hura entzun zutenean uste izan zuten Israelko Erregea, auzokoak lagun artuta, gañean zutela, eta zegoana zegoan toldan utzirik, gau illunean igesari eman zitzaiozkan.

Lepradunak txaoila batean sartu ziran, eta jan-edanak, urrea, zillarria eta beste gauzak txit ugari arkitu zituzten. Beste batean ere sartu ziran, eta berebat gauzaz betea eta iflor gabe topatu zuten. Bereala erriko atera itzuli eta erregeari gaztigatu zioten zer gertatzen zan. Gizonak bialdu zituen egia zan edo ez jakitera, eta berri onakin biurtu ziranean, samariarrak joanda, siriarrak utzitako ondasun guziak artu zituzten ain ugari non lakari iriña errealean saltzen zan. Gauzaz beteta zetorren jendea errian

eraz sartu zedin, erregeak atean kontu-artzen ipiñi zuen aurreko egunean Eliseori sinistu nai izan etzion gizon agintaria, eta urdurikerian sartzen zan jende-talde batek azpian artu eta lertu zuen; eta Eliseoren esana bete-betean gertatu zan: Zure begiak ikusiko dute; ez dezu, ordea, jango.

Aitatu diran gauza miragarri oiek baziruditen Israelko Erregea eta israeltarrak zentzatzeko bear adiña; baña ondu bearrean beren bide galduari zerraizkion, eta idolo-adoratzeari uzten etzioten. Andik laster Eliseo Damaskora joan zan, eta Benadad Siriako erregeak Hazael serbitzari nagusia eskuerakutsi askorekin bialdu zion galdetzeraz ea oatuta zeukan gaitz eta miñantz artatik sendatuko zan. Eliseok Hazaeli erantzun zion: Erregeari esaiozu sendatuko dala; baña Jainkoak adierazo didanez, laster ilko dala. Au esan, eta arpegia zurikaturik negarrari eman zion. Hazaelek galdetu zion ea zertako negar egiten zuen. Dakidalako, erantzun zion, Israelko semeai gaitz andiak ekarri bear dieztezula. Gero atzenean esan zion bera Siriako Errege izango zala, eta Eliseok aldegin zuen.

Hazael au anziñatik zegoan Eliasek erregetzat isillik igortzia, eta orain Eliseok emandako albistarekin, bertatik errege izateko gutuziak artu zuen. Mandatua eginda, errege Benadadgana itzuli zan, eta Eliseok zer erantzun zuen esan zion. Biaramonean erregea ikusteko aitzakitan gelan sartuta, oestalki busti-busti batekin arpegia estali zion, eta itzik ere esateko leku gabe, ito zuen. Benadad onela ilda, bereala Hazael bera onen lekuan jarri zan, eta andik urteetara erakutsi zuen Eliseok egindako negarrak zein bidezkoak izan ziran.

## 8. Israelko Erregeak Siriakoari emandako gerra

Joran Israelko erregea siriarrari beti aier zitzaian, eta uste izan zuen erasotzeko erarik obena erregea odol otzik ala ilda, onen aulkian iltzallea jarritako orduan zala: etzirala, alabañan, gogor egiteko egongo. Asi zan Hazaeli erasotzen, Ramot Galaadkoa setiatuaz. Onetarako Okozias Judako erregea laguntzat artu zuen. Lenbiziko erasoetan Joraneke zenbat zauri artu eta Jezraelera itzuli zan sendatzeraz. Judakoa ere geroago joan zitzaion ikusi bat ematera, bitartean bere lekuan utzirik Jehu, zeña gerrari aditua eta argia zan, eta bere bizilekua emen artu zuen.

Egun oietan Eliseok profeta gazte bati esan zion: Oliontzi au artuta, Ramot Galaadkora zoaz: Jehuren etxean sartuko zera; gela ezkutu



batera eramango dezu; eta olio au burura isuriko diozu, esanaz: Ara Jaunak zer dion: Israelko Erregetzat igortzi zaitut. Au esanda bereala, atea idikiko dezu eta igesi joango zera. Eliseok agindua profeta gazteak egin zuen, esanaz: Jaunak au dio: Israelko Erregetzat igortzi zaitut: Akaben etxea ondatuko dezu. Gero adierazo zion Jezabelen odoleko guziak, sabeleko aurrai ere barkatu gabe, Jehu beraren bitartez Jaunak ondatu nai zituela, aren profeta eta serbitzari asko ilerazo zituelako; Jezabelen gorputz-illari nor lur-emanik izango etzala: Jezraelko kanpoan zakurrak jango zutela. Gauza oiek guziak esanda, iges egin zuen. Jehu bere lagunetara itzuli zanean, oiek galdetu zioten ea zoro hura zertara joan zitzaion. Idolozale aiek Jaunaren profetari izen au ematen zioten. Jehuk agertu zion profetak esan eta egindako guzi-guzia; eta bereala Jehuren oñpean kapak ipiñita, erregetzat ezagutu zuten.

Jehu argia eta lendanik gauzai begirutzen ziekiena zan, eta lenbiziko lana izan zan, Jezraelen zeuden Israelko errege Joran eta Judako Okoziasen aurrean jartzeko ondo prestatzea. Bera baño lenago besterik joatea debekatu zuen, zer gertatzen zan esan etzezan. Mendean zeuzkan soldadu guziak artuta, Jezraelerantz bazijoan. Uritik ikusi zutenean jendesamalda andi bat alderatzen zala, Joranek iru mandatari, elkarren urrena edo bat-banaka bialdu zituen jakitera ea gisa artan zer zekarten. Baña iru mandatariak berekin gelditu, eta Jehu, egin-al guzian, aurrera zijoan. Orduan ezagutu zuten Jehu zala. Bereala Joran eta Okozias, nor bere gurdian, bidera irten zitzaiozkan. Joranek Jehuri, ikusi orduko, esan zion: Jehu, pakea degu? Zer pake? Jehuk erantzun zion. Jezabel zure amaren lasaikeria eta likitskeriak bere oñean diraute. Joranek au entzun zuenean, iges egin zuen, eta Okoziasi deadar egin zion: Okozias, salduak gera! Onetan Jehuk gezia edo fletxari utzi zion, eta Jorani bizkarraren erdi-erdian biotzeraño sartu zitzaion; eta illotza erori zan. Bereala gurditik artuta, Jehuren morroi Badazer-ek Naboten larrañera bota zuen.

Okozias Judako erregeak ere, Joranen patua ikusitakoan, iges egin nai izan zuen; baña ondoren zerraizkionak zaurituta, igeska zijoala Majedon il zan. Bere morroiak gurdian artuta, Jerusalemenera eramane eta bere gurasoen obian lurpetu zuten.

## 9. Jehu, amaikagarren Erregea

Ona emen Jehu Israelko amaikagarren erregearen sarrera eta asiera: sarrera odolezkoa, asiera gogorra; baña gero isurerazo zituen odolezko

ibaien parean, iturri txiki eta tantaka baizik etzeriona, laster ikusiko degun bezala.

Jehu, bada, Joran eta Okozias ilda gero Jezraelera zijoala, Jezabel Joranen ama biotz gogordun ark jakin zuenean, begiak belurituri eta burua ederki apaindurik leio batean jarri zan Jehuri begira, esanaz: Pakerik ekarri dezake, Zanbrik bezala, bere erregea ilda datorren orrek? Jehuk, begiak leiorantz jasota, esan zuen: Andre ori nor da? Jezabelek berekin zeuzkan morroiak agur egin zioten, eta igerri zionean Jezabel zala, agindu zien leiotik beera botatzeko. Bereala bota zuten; kolpearekin gorputza lertu zan; inguruko pareta guziak odolez gorritu ziran, eta gorputza zaldia oñazpian erabilli zuten. Jehu jauregian sartuta bere lagunekin bazkaltzen zegoala, Jezabelez oartu zan eta morroiak esan zion: Zoazte eta emakume madarikatu hura lurpetu ezazute: nolabaitekoa izan bada ere, erregearen alaba zan. Joan ziranean etzuten buru-ezurra, oñak eta eskuko beatzak besterik arkitu; bada, gañerako guzia ordurako zakurrak jan zuten. Berri onekin morroiak Jehuri itzuli zitzaiozkanen, esan zuen: Jaunak Eliasen aotik esana gertatu da.

Jezabel iltzea asko etzan: Akaben odoleko guziak berebat il bear ziran, Jainkoak esanda zeukan bezala. Akaben irurogeita amar seme Samarian arkitzen ziran; eta Samariako andizki eta agintari guziaz Jehuk txartel bat bialdu zien, esanaz: Nereak bazerate eta nere esana egin nai badezute, biar ordu onetarako zuen erregearen seme guzien buruak onara ekarzikidazute. Agindu gogorra eta buruko illeak zutitzeko adiñakoa zan; baña zioten bildurrak beartzen zituen egitera. Akaben irurogeita amar semeak ilerazo eta oien buruak saskietan ipiñirik, Jehuri Jezraelera bialdu ziozkaten. Erriko atera ziranen, zeramazkitenak emen gelditu ziran, eta Jehuk gatzigatu zien buru guziak erriaren sarrerako bi alboetan bi metatan ipiñi zitzaizela. Biaramon goizean Jehu bera atera joan, eta ikusteko negargarri ark ara eramane zituen guziaz esan zion: Zuek lan onetan ikuskizunik ez dezute. Baldin ni nere erregearen kontra altxatu banintzan eta il banuen, nork oiek guziak il ditu? Ezagutu ezazute, bada, Jainkoak Akaben etxearen kontra esandakorik, ezer ere egin gabe utzi ez dala. Itz oiek erakutsi nai izan zion Jaunaren eskua zala, aren esanak aintzat artu gabe, gaiztakerian bizi nai ziranak kastigatzen zituena. Etzan onenbesterekin gelditu.

Jezraelen zeuden Akaben odoleko eta etxeke guzi-guziak ere ilerazo zituen. Ilkintza au eginda, Samariarantz zijoala artzai-txaola batean arkitu zituen arestian il zuen Okozias erregearen berrogeita bi illoba, eta berebat il zituen. Samariara zanean, Jezraelen bezala, Akaben jatorriko



guziak in lanbide bera egin zuen. Gero erriko jende guzia bere ondoan artu eta esan zien Baali ofrenda andi bat egin eta Akabek baño obeto adoratu nai zuela. Onetarako Israelen ziran jainko gezurrezko onen apaiz guziaz biziaren azpian agindu zien egun izendatuan Samarian egoteko. Apaizak bilduta elizan ofrendak egin zituztenean, eliz-atarian lendanaz ipiñita zeuzkan larogei gizon armaduni agindu zien barrena sartu eta guzi-guziak, batere utzi gabe, il zitzatela. Ala egin zuten, eta gorputz-illak kanpora botarik guziak ikusi zituzten, eliza errerazo zuen: eta gisa onetan Jehuk ondatu zuen Akab bere aurrekoak Israelen zabalduetako Baalen adoratzeara.

Jainkoak bereala adierazo zion lan andi au zein gogokoa zuen, esanaz, Israelko Erregetzak aren ondorengoetan laugarren belauneraño iraungo zuela. Baña Jehuk gauza on bat egin bazuen ere, Baal bere apaiz eta serbitzariakin ondatuaz, etzuen bear zuen guzia osotora egin. Baalez gañera, Israelen urrezko idolo asko ziran, jainkotzat artu eta israeltarrak agur egiten zietenak, eta Baalena bezala oiek botatzeko Jehuk biotzik izan etzuelako, geroko bizi guzian Jaunaren esku zorrotza bere gañean ikusi zuen.

Hazael Siriako erregeak Eliseoren esanak eta negarrak egiztatu zituen. Soldadu-talde andiak in Jehuri eraso zion, eta bazter andiak kendu ziozkan, aide guzietatik sua, eriotza eta ondarena ereinda; eta Jehuk naita-nai-ez ikusi bear izan zituen erri ederrak erreta; mutil gazteak bur-niz josita; aurrak arri-pean lertuta; emakumeak sabelean zituzten aurrakin ganibitaz erdiratuta; eta izaera negargarri onetan, Hazaelek nai guzia egiten ziola, bizi izan zan ogeita zortzi urte erregetzan bete artean, eta Samarian il zan, eta gurasoen obian lurpetu zuten.

## 10. Joakaz, amabigarren Erregeak; eta Joas, Amairugarrena

Joakaz bere semea aitaren lekuan sartu zan. Au ere Jeroboanen bideai jarraitu zitzairen: jainko gezurrezkoak adoratu zituen, eta il zan, erregetzan egindako amazapi urteetan bere errian asko erakutsita.

Bere lekuan Joas utzi zuen. Au ere aitaren antzekoa izan zan, eta oberik etzuen egin, eta jainko gezurrezkoak beren oñean iraun zuten. Biak ziekiten eta ezagutzen zuten Jainko bakarrari baizik inñori agur egin

bear etzitzaiola; baña munduko izanak galtzeko bildurrak atzeratzen zituen gezurrezko jainko aiek Israelen osotora galtzetik.

## 11. Eliseoren eriotza

Denbora onetan israeltarrak etorri zitzairen neke-pena guzieren erdian poztu oi zituen galdu bearra. Eliseo, Jainkoaren profeta andi eta israel-tarren aide ainbeste mirari egindakoa, atzeneko egunetara alderatu zan. Gaitz gogor batek artu zuen; Joas erregea ikustera joan zitzaionean, bere atzeneko itzetan zenbat etorkizun esan ziozkan, eta eunda geiago urtekoa il zan. Bizitzan ain mirari andiak egin izan zituenak, ilda gero ere erakutsi zuen zein eskualdi andiak Jainkoak eman izan ziozkan. Gizon il bat zeramatan lurpetzera, eta illoi-zaleak ikusi zituztenean Siriako lapur-lister batzuek alderatzen, oien bildurrez, gorputz-illa Eliseorena zetzan lekura bota zuten, eta onen ezurrai ukitu bezain laster biztu zan.

Eliseok Joasi adierazo ziozkan etorkizunetatik bat zan, siriarrak ondamen-aldi andiak emango ziezela, eta Joasek esan au gogoan arturik, siriarrak eraso eta lenago Siriako Erregeak Israelkoari kendutako bazter andiak beretu zituen. Geroz Joasek Israel zintzo eraendu zuen, eta il zan erregetzan amazapi urte eginda.



## OGEITA IRUGARREN IRAKURGAIA

### 1. Jeroboan, amalaugarren Erregea

Joas aitaren aulkian Jeroboan semea eseri zan, eta berrogeita bat urtean agindu zuen. Bitarte onetan beretu zituen lenagoko erreina-aldietan Israeli auzoetakoak kendu izan ziozkaten bazter guziak; baña mundurako lan andiak egin bazituen ere, idolozealea zan, eta bere denboran gaiztakeria asko Israelen egiten ziran.

### 2. Jonas profeta

Alde guziak gaiztakeriaz beteta zeuden egun onetan, Eliseoren orde, Jainkoak Jonas sortu zuen. Profeta andi onek bere esan eta erakutsi onakin israeltarrak zentzatu eta gaiztakeriaetatik atera nai izan zituen; baña bere alegin guziak alperrik ziran, eta naigabe onekin zegoala, Jainkoak agindu zion Ninibe zeritzan errira joan eta Jainko egiazkoaren lege garbia erakusteko, bada, Ninibetarren biurrikeriak belarriak bete ziozkatela. Jonasek etzuen agindu au ontzat artu: bildur zan, alabañan, erri gaizto Jainko egiazkorik ezagutzen etzuen batera lanbide arekin joaten, eta Jaunari iges egin naiez, Jope-ko portura joan eta Tarsisera zijoan ontzi batean sartu zan. Ontzia abiatu zan, eta itsas-erdira zanean aizebolada batekin itsasoa aserretu eta ontzia galtzeko bidean jarri zan. Mariñelak ikaratu ziran, eta nork bere jainkoari eskatzen zion, arren, estura latz artan gorde zitza. Traste eta gauza asko urera bota zituzten, eta eginalean guziak nekatzen ziran ontzia arintzeko; baña Jonas onziaren be-beeko zoruan lo zetzan. Ontzikidaria joan zitzaion esnatzera, eta esan zion: Ain lo gozoan nola zaude? Jaiki laster, eta zure Jainkoari eska zaiozu guzaz oroitu dedin eta gorde gaitzan. Jonas bere etzauntzatik irten zan, eta Jaunari erregutu zion, baña alperrik; eta itsasoa anditzen zijoan. Mariñelak eta gañerako ontzian zijoazenak bizirik irteteko zer egin ezin asmatuz zebiltzala, gogoak eman zien zotz egitea, esturasun artan nork ipiñi ote zituen. Zotza edo suertea Jonasi erori zitzaion. Orduan ontzikoak galdetu zioten: Perill onetan zergatik gaude? Nongoa

zera? Zer langintza dezu? Noronz zoaz? Jonasek erantzun zien: Ni zeruetako Jaun, itsaso eta lurraren Egilleari bildur natzaion eta igesi nabillion hebrear bat naiz. Itsas-gizonak ikaratu ziran, eta esan zioten: Zertako au egin dezu? Zer egin bear dizugu, itsasoa ontzeko? Urera bota nazazute eta itsasoa gozatuko da, zeren ni naizan ekaitz oni bideak eman diozkadana, esan zien.

Itsas-gizonai gogor egiten zitzaien inor urera botatzea, eta ontziarekin or-emen bazebiltzan, ur-ertzeera eramaten ote zuten ikusten, leorreen uzteko; baña ekaitza geroago eta gogorrago zan, eta alperrik nekatzen ziran. Atzenean Jonas urari eraso zioten, eta itsasoa bere neurrietara bereala zan. Jonas itsas-ondarrean bale batek iretzi edo tragatu zuen; eta arrai portitz onek sabelean iru egun eta iru gauean idukita, itsas-bazterrean leorrera bota zuen.

Jainkoak berriz ere agindu zion bere lege santa Niniben erakutsi zezala. Ninibe zan munduko erririk andienetatik bat, ogei leguako inguru zuela. Jonas erri zabal onetan sartu eta egun guzian oska ibilli zan: *Gaurtik berrogei egumera Ninibe ondaturia izango da*. Itz bakar oiek ain indar andikoak izan ziran non ninibearrak bereala beren gaiztakeriaen damu eta miñez negarrari eman zitzaiozkan. Errege berak, errege-soñekoen orde, zaku zar bat janzirik, autsetan eserita agindu zuen bere mendeko guziak barautu zezatela eta zakuz estalita ibilli zitezela, eta debekatu zuen abereai ere jan-edanik ematea, esanaz: Nork bere aldetik Jaunari barkazioa eskatu bizaio: Nork daki, Jainkoa guzaz errukitu eta barkatuko badi-gu ere?

Erriko zar eta gazte guziak, erregeari jarraituaz, barautu zuten; negar andiak egin zituzten; gaiztakeria guziak utzirik, bide onean sartu ziran, eta erregeak uste bezala, Jainkoa erri artzaz errukitu zan, eta gañean zeukaieten esku zorrotza atzeratu zuen.

Jonas Niniben bere predikua eginda, erritik irten zan eta kanpoko txaola batean egon zan, berrogei egunak igarotakoan zer gertatzen zan ikusteko. Egunak joanda, ikusi zuenean aren esanak bete etzirala, Jainkoari bere espa miñak agertu ziozkan, esanaz, bera eta bere profeta Jainkoaren izenean itzegiten zuten guziak, gezurtizat idukiko zituztela; baña Jainkoak mirari batzuek egiñaz erakutsi zion etzutela zergatik esparik artu; Jainkoaren zuzentasunari zegokiola bekatari egiaz damutuai barkatzea. Jonas Israel bere errira joan zan, ninibearrai zer gertatu zitzaion esateko asmoan, berri onekin Jaunaganon izultzen ote zituen ikusteko; baña aren esan-egin guziak alferrik izan ziran; eta Jainko egiazkoa beñe-



re ezagutu gabeko ninibearren biotzetan geiago egin zuen, Israelko Jaunaren Erri autuarenetan baño.

Jeroboan erregeak, eta onen erakutsira bere mendekoak, Jonas eta beste profeta Jaunak bialdu zieztenen esanai begiratu gabe, gaiztakeriai zerrazkien, eta bideak idiki ziezteen geroago etorri bear zitzaizten gaitz eta ondamen negargarriai.

Denbora onetan Asiriako Erregeak Israelkoari Samaria aldean eraso zion, eta Jeroboanek Jezraelko ibarrean batalla emanaz gogor egin nai izan bazion ere, ondatua izan zan; eta Asiriako Erregeak atzemandako israeltar asko berekin katibu eraman zituen, eta geroz Israelko erreinuak etzuen onik izan. Andik laster Jeroboan il zan, eta bere lekuan Zakarias semea utzi zuen.

### **3. Zakarias, amabostgarren Errege; Selum, amaseigarrena; Manahen, amazpigarrena; Fazeia, emezortzigarrena; eta Fazez, emeretzigarrena**

Zakarias amabostgarren erregea, aita il zitzaionean txit gaztea zan, eta agintzeko urterik etzuelako, Israelko andizkietan despita andiak sortu ziran, eta amabi urtean irauun zuten nork bere kutuna agintean iduki naiez. Geroenean Zakariasen aldekoak garaitu zuten; baño seigarren illabeteen Selumek il, eta bera amaseigarren errege jarri zan. Selumi ere Manahenek au bera egin zion, eta erregetzan sartu zan. Manahen Israelko amazpigarren errege izan zan. Onek bere aginteari odol-isurtze izugarri batekin asiera eman zion. Tapsa-ko erriak, erregetzat ezagutu nai etzuelako, ateak itxi ziozkan; baño Manahenek bere indar guziakin eraso, eta indarrez beretu zuen; eta errian bizi ziran guziak iltzea asko ez ezik, argiteko zeuden emakumeak erdibitu zituen.

Manahenek Tapsako erriaren gogor egitetik ezagutu zuen, israeltar guziak bere aide etzituela, eta gitxiena uste zanean norbaitzuek kontra jaikiko zitzaizkela. Mentienta onetan, bere agintea irmotu naiez, Asiriako Erregeari laguntza eskatu zion, eta onek dirutza andiaren truke egiten zion babesean, amar urtean agindu zuen, eta il zan, bere eriotzarekin min andirik utzi gabe. Fazeia bere semea aitaren lekuan sartu zan, ez israeltarren gogoz, ezpada Asiriako Erregearen itzalean; baño au il zanean,

Fazez kontra altxatu zitzaion; il zuen, eta Fazeiaren orde, Fazez bera sartu zan.

Fazez agintzen zuela, Teglafalasar Asiriako erregeak Israeli eraso zion; bazter andiak beretu, eta Israelko jendearen erdia eta geiago Asiriara katibu eraman zuen. Fazez onek ere, besteri emandako patu bera izan zuen. Oseek Fazez ilda, erregetza beretzat artu zuen.

### **4. Osee, Israelko ogeigarren eta atzeneko Erregea**

Osee au ere aurrekoen antzean, idolokoia zan, eta jainko gezurrezkoai agur egin zien, eta Israelen gaiztakeria andiak eragin zituen. Onek bere oiekin, besteenakin batean, Jaunaren errukimentuaren neurriari gañez egin, eta beretu zuen katibutasun lotsagarri, Israelku erregetzari betiko buru eman zion. Oseek ikusi nai etzuten asko izan zituen, erregea bere eskuz ilda koroaz bera jabetu zalako. Errege zanaren adiskideak etzioten zortzi urtean pakerik eman; baño atzenean ere, etsai oiek garaitu zituen; agintean betero jarri zan, eta beste bederatzi urtean irauun zuen.

Bitarte onetan errikoak aisa eskuratzen bazituen ere, Salmanasar Asiriako erregeak nai guzia egiten zion, eta dirutza eta eskuerakutsi andiak zeuzkan urteoro eman bearrekoak. Mendetasun lotsagarri onetatik irteteko, Sua Egiptoko erregeari gaztigatu zion Asiriakoari eman uste zuen auzian lagundu zizaiola; baño Salmanasar-ek Oseeri, asmo oiek usandu ziozkanean, aurre-arturik, soldadu-talde andiakin eraso zion, erri andi guziak kendu ziozkan, bazter guziak soildu zituen eta Samaria esitu eta itxi zion, erregea irteteko lekuri ere eman eta utzi gabe. Samaria zan Israelko erri-buru nagusia, gosez baizik, indarrez ezin artu zitekene; baño au artu ezker, erreinu guzia menderaturik zegoan. Salmanasar-ek au ondo ezaguturik, erri oni eraso zion, eta esituta iduki zuen iru urteetan, ekin-aldi latz askoren ondoren, Oseen erregetzako bederetzigarren urtean menderatu zuen: eta erregea, gañerako guziakin, bere errira katibu eraman zuen.

Ara zer patu lotsagarria izan zuten, bada, Israelko amar tribu berreunda berrogeita amalau urtez lenago Salomonen semea bide gabe utzita, erregetzat beste bat artu zutenak. Bitarte luze onetan guzian etzuten onik izan, ez gauza zuzenik ere egin: Jeroboan lenengo erregeak egin-dako jainko gezurrezkoak etzituzten beñere utzi; eta atzenean beren



gaiztakeria eta billaukeriakin Jainkoa beartu zuten erreinua osotoro gal-tzera eta arrotz gogorren mende iguingarrian ipintzera. Israel guzian etzan, nekazari eta mastidun banaka batzuek baizik, geratu, eta oiek ere denborarekin Asiriara katibu eraman zituzten. Salmanasar-ek israeltarren lekura, oien ordeztu, bialdu zituen asiriarrak, zeñak beren jainko gezurrezko asko berekin eraman zituzten, eta urte gitxiren epean, Jainko egiazko bakarra, ainbeste mirari eta gauza arrigarri egin izan zituen bazter autu artan, txit atzendu zan. Orra zertara ziran israeltarren idolo-naiak eta gaiztakeriak! Baña oiek beren katibutasun lotsagarrian utzi, eta zerbait derragun *Job* santu pazienziako maisuaren gañean.

## 5. Job Santua

Gizon andi au jaiou eta bizi izan zan Hus zeritzan Judako tribu ondoko erri batean. Noiz mundura zan esaten, jakintsunak bat ez datoz. Batzuek diote Jakobon humeak Egiptoko morrontza gogorrean sartu baño lenagokoa dala; besteak, Oseen denboran israeltarrak asiriarren mendean erori bear ziran aurretik izan zala. Gai onetan dana dala, Jainkoak, beintzat, bialdu men bere pazienza andi eta paregabearekin lurreko nekeak nola eraman bear diran erakustera; eta badirudi, israeltarrai egun oietan agertu zitzaiea Asirian, edo beste izenez *Babilonia*-n, igaro bear zituztenak eramaten erakustera.

Gizon ona, zuzena eta Jainkoaren bildur andikoa zan. Jainkoak zazpi seme eta iru alaba eman ziozkan. Lurreko ondasun eta izanetan besterik ez bezalakoa, eta iñor baño aberatsagoa zan. Bera ona izanik, semeak ere Jaunaren bildur onean azi zituen.

Zazpi seme oiek oraindik ezkongai zeuzkan eta, zergatik ez dakigu, zazpiak banaka, nor bere etxean eta bera beste etxe batean, iru alabak berekin zituela, bizi zan. Zazpi anaiak aldizka, nork bere txandan, bazkaria ipiñi eta zazpiak eta iru arrebak elkarrekin jaten zuten; eta guziak aldia egindakoan, aitak etxera deitu eta Jaunaren aurrean izan zitzaiketen ats guzietatik garbitzen zituen. Gisa onetan aberastasun eta zorion guzien erdian bizi zala, bein batean morroi bat etorri zitzaion, esanaz: Jauna, idiak arean ari zirela eta astoak larrean zebiltzala, sabeoarrak etorri dira, eta guziak berekin eraman dituzte, ni ez, beste morroiak illik utzita. Berri negargarri au ematen ari zitzaion bitartean, beste bat etorri zan, esanaz: Oñazkar batek ardiak eta artzaiak kiskaldurik utzi ditu, eta ni

bakarrik geratu naiz berri au zuri emateko. Bereala beste bat etorri zitzaion, esanaz: kaldearrak, iru samaldatan zabaldua, morroiak il eta gamelu guziak eraman dituzte; bakarrik nik iges egin diet zuri gaztigu au emateko. Au esaten ari zala, laugarren mandataria agertu zan, eta esan zion: Zure seme-alabak zarrenaren etxean bazkaltzen zeudela, bat-bate-tan sortu dan aize-bolada batek etxearen lau eskiñak oñetik atera eta etxe guziak lur-jo du, eta zure amar seme-alabak azpian lertu dira; nik bakarrik iges egin det.

Job egon zan lenengo berri mingarri aiek entzuten, itzik ere egin gabe, eta semeak il zitzaiozkala esan zionean, jaiki zan, soñekoak urratu zituen, illea moztu zuen, eta lurrean auzpez jarrita, Jaunaren egiñak adoratu zituen, esanaz: Amaren sabeletik larrugorrian irten nintzan. eta larrugorrian itzuliko naiz. Jaunak eman zidan, eta Jaunak kendu dit: Jaunak nai zuena egin da: Jaunaren izena bedeinkatua izan bedi.

Zer eraman miragarria! Esan diran Joben neke-penak, dudarik gabe, andiak eta miñak ziran, ez ordea atzenekoak: berriak itxedoten zioten. Gorputz guzia, oñ-puntatik bururaño, zauriz bete zitzaion, eta gelditu zan aragi bizi-bizian, zoma aide guzietatik zeriola. Gisa onetan bere burua ikusirik, zimauretegi batean bizi bearrean arkitu zan, bere kirats eta gaitz itsaskorragatik jende artean ezin egon zitekealako, eta zimaurretan egoten zan, tella latz batekin zaurietatik zeriozkan zoma eta zikiñak kenduaz.

Oraindañokoak bear adiña badirudite, gizon baten eramana gaintzueko; baño Job geiagou ikusteko jaiou zan. Emazteak, dirudi neke oiek arindu bear ziozkala; baño etzion mindu baizik egiten. Oraindik zere txorakeriakin zaude? emazteak esan zion. Ots, bada, Jainkoa madarika ezazu, eta etsi-etsian il zaite. Emaztearen itzketa au Jobek etzuen ondo artu: biotzean txit min eman zion; etzan beretik irten; eta donario ederrean emazteari esan ziozkan itz oiek: Emakume zoroen antzean mintzatu zera. Baldin Jaunaren eskutik onak artu baditugu, zergatik gaitzak artuko ez ditugu? Esan gogoangarria, neke artean poza nai duenarentzat!

Joben izaera errukarria auzo-errietan banatu zan eta iru adiskide, Elifaz, Baldad eta Sofar zeritzatenak, joan zitzaiozkan ikustera. Lenbiziko begiratuan etzuten ezagutu: ain antz txarrekoa, alabañan, zegoan; eta albora joanda, ikusi zutenean zauri bat egiñik zimaurretan zetzala eta zeriozkan zorna eta gesal zikiñak tella puska batekin kentzen zituela, negarrari eman zitzaiozkan, buruak autsez bete zituzten, eta Joben ondoran lurrean jarrita, zazpi egun eta zazpi gau igaro zituzten, itzegiteko biotz gabe. Atzenean Job bera asi zitzaien itzegiten: Jaunaren lanbide guziak adoratu zituen, eta esan ziezten itz estali asko bere miñaren anditasuna



adierazteko. Itzkerera onek bazirudien ezineramanak erasaten ziola: Elifaz iru adiskideetatik batek ere ala uste izan zuen; eta atzeratu naiez, esan zion berak besteri inoiz emandako ondo-esanak, beretzat ar zitzala, eta asko lagunduko ziotela neke aiek Jaunaren izenean eramaten.

Arterañoeko Elifazen itzketak, gogortxo esana bazan ere, etzion Jobi miñik eman; baña esan zionean Jainkoak munduko nekeak bekatuakgatik bialtzen zituela eta zer egin ote zuen barruna ondo aztertu zezala, aren esanak ezin eramanez gañez egin zion eta asi zitzaion bere burua garbitzen: esan zion, Jainkoak bekatariari penitentzia egin dezaten ez ezik, onai ere nekeak bialtzen ziezela, Jaunaren begietan irabazi geiago izan zezaten eta onean areagotu zitezten; askotan bekatariak lurtean ondasunez beteak daudela, onak menturaz zer janik gabe arkitzen diran aldi berean, eta mundu au ez dala obra onen saria artzeko. Oiek eta onelako beste gauza asko esan ziozkan, eta atzenean adierazi zion argala eta erorkorra bazan ere, ark uste zuen gaiztakeriarik etzuela egin.

Baldad beste adiskidea ere bereala asi zitzaion gisa berean itzegiten, edo are geiago esaten: arpegira eman zion bere izaera hura eta semeen eriotza bere gaiztakeriakin nonbait ekarri zituela. Sofar irugarrenak ere berebat egin zuen. Baña Jobek jakinduri andiarekin iruai erantzun zien, erakutsiaz Jainkoak zertako nekeak bialtzen dituen eta nola igaro bear diran. Iru oiek isilldu orduko, ustez-uste gabe an sortutako gizon gazte, Eliu zeritzanak, besteak bezala, lotsagabekeria andiarekin eraso zion; eta ikusirik iru adiskide aiei esandakoakin etzuela ezer aurreratu, uste izan zuen obena isillik egotea zala, eta Eliuri esan-al guziak aditu ziozkan itzik ere trukatu gabe.

Atzenean Joben umiltasunaz eta eramanez Jainkoa errukiturik, aide irten zitzaion, eta Elifazi esan zion: Zu eta zure bi adiskideekin aserretu naiz, Job nere serbitzari leialak bezala, ondo itzegin ez dezutelako. Zoazte, eta zazpi idi eta zazpi ari arturik, Jobgana itzuli zaitezte, eta zuen onerako eskeñi edo ofrenda zazkidazute. Job nere serbitzariak zuekगतिक erregutuko dit, eta adituko diot, zuen ergelkeria aintzakotzat artu ez dizazutedan. Jainkoak gizon itsu oiei onela erakutsi zien zein gaizki itzegiten zuten eta Joben esanak ontzat nola artu zituen. Jainkoak agindua egin zuten. Jobi bere adiskideen aide egindako eskaerak aditu ziozkan, eta etxerontz itzuli ziran, geroko gauza asko Jobi ikasita.

Joben izaerari eta urte betean igaro zituen nekeai Jainkoak buru eman zien. Zauri eta gaitz guziak bat-batetan orbaindu zitzaiozkan, eta zetzan zimaurtegitik biurtu zan bere etxera, non bere senide, aide eta adiskideak ongietorri andia egin zioten. Jainkoak bereala eman ziozkan

len izan zituen ondasun guziak. beste ainbeste geiagorekin. Izan zituen zazpi seme eta iru alaba, lenago il zitzaiozkanen orde. Oien hume eta laugarren belaunerañoeko ondorengoak ikusi zituen; eta berreunda amar urtekoa il zan ondasun asko eta ondasun ederraren erdian, geroko guziaz neke-penak eramaten ikasteko eskola eta ispillu txit egokia utzirik.





## OGEITA LAUGARREN IRAKURGAIA

### 1. Judako Erregeak. Roboan lenengoa

Jeroboan Israelko lenengo erregearen gañean 219-garren orrian itzegitean, esan zan, Judako errege Roboani Jainkoak agindu ziola Israelkoari ez ezer egiteko, eta Roboan bere soldaduakin etxera itzuli zala. Roboan bere erri-buru Jerusalem jarrita, bereala asi zan erri berriak egiten, zarrak berritzen, agintari onak oietan ipintzen eta beste prestamen asko, auzoak erasotzen bazioten ere, artzen.

Jeroboan denbora berean leiatzen zan Israelen idoloak egiten eta jainko gezurrezko oiei agurrak eragiten, israeltar onai debekaturik Jainko egiazko bakarra adoratzera Jerusalemara joatea. Israelen oietako asko ziran, eta Jainko egiazkoa ez ukatzeagatik, Judara aldatu ziran. Lebiko tribukoak lenbiziko joan ziran, beren ondasunak Israelen utzita, naiago zutelako Jainko egiazkoa ukatu baño, ezer gabe gelditu. Tribu onen eta oni zerraizkion beste askoren aldatzeak, Judako erreinua asko irmotu zuen, eta Roboan erregeak txit ondo artzen zituen. Lenbiziko iru urteetan erregea eta mendekoak Dabid asabaren bideetan ibilli ziran, eta bitartean onetan gauza guziak naierara zetozkien: asieran bi tribu baizik etzituen erreinu txiki bat, batu zitzaiozkanakin azi zan, eta bere itzala auzoetara ere banatzen zuen; baño zorion eta doatsuera onek berak laster galtzeko bidea eman zien. Erregea andrekoitu zan, eta onen gaiztakerian mendekoak ere kutsutu ziran. Gero jainko gezurrezkoak artu zituzten, aldareak egin ziezteen, oitura on guziak illundu ziran eta Judako erreinua jarri zan naspillarik negargarrienean eta likitskeria izugarrienak egiten zirala.

Jainkoak judarren bekatua kastigatu naiez, Sesak Egiptoko erregea soldadu-talde andiak bialdu zien: bideko erri guziak artu eta Jerusalemgoari eraso zion. Roboan Judako erregearekin batean andizki guziak, Sesaken igesi joanda, an sartu ziran, murruen babesean gordetzeagatik. Emen Roboani aurkeztu zitzaion lenago Israeli pakean uzteko esan izan zion Semeias Jaunaren profeta, eta esan zion: Ara Jaunak zer dion: Zuek utzi nazuten ezkerro, nik ere Sesaken eskuetan utziko zaituztet. Berri au aditutakoan, errege eta andizkiak esan zuten: Jaunak ez du bide ez danik egiten. Gaizki-egiña aitortu zuten, Jaunaren aurrean umillatu ziran eta Jaunak Semeias beraren aotik esan zien etzituela galduko, etzala Jerusa-

lenen odolik isuriko; baño Sesaken mendean egon bearko zirala, ezagutu zezaten Jaun Zerukoa serbitzetik errege lurrekoak serbitzera zer desberdintza zegoan. Sesak Jerusalem sartu zan; baño etzien, ez beren buruetan, ez izanetan gaitzik egin; Elizari eta oni zitxekan ezer etzien ukitu; bakarrrik artu zituen Dabid eta Salomonen denboran ara bildutako ondasunak, zeñakin Sesak Egiptora itzuli zan.

Roboanek bere bekatuen damua agertu zuen; len-lenago bezala, Elizara joaten zan; andizki eta gañerakoak okerrean bezala, onean ere zerraizkion, eliz-lan guziak egundaño bezain ondo egiten ziran; idoloak ere kendu zituen; eta jainko gezurrezkoai agur egitea atzeratu zuen. Baña aldaketa eta damu onek etzuten luzaro iraun. Berriz ere idolozaletu zan, eta geroz etzan ondu, eta il zan erregetzan amazapi urte eginda, eta Jerusalem bere gurasoen ondoan obia eman zioten.

### 2. Abia, Judako bigarren Erregea

Abia Roboanen semea Judako bigarren errege izan zan. Onek bere soldaduak prestatu zituen aitzak Jeroboanekin asitako gerra-lanari ekiteko. Joan zitzaion, eta Jeroboanen soldaduai ondo-esanak egiten ari zan bitartean, atzetik inguratu zuten, eta etsaien eskuetan bere jende guziarekin erortzeko zorian ikusi zanean, Jaunari bere laguntza eskatu zion, eta israeltarren artean bat-batetan ain izu-ikara andia sortu zan non igesari eman zitzaiozkan, eta Abiak ondoren erasota, bosteun milla gizon indartsuenak il zituen. Garaipen au batzuek eta besteak zentzatzeko adiña bazan: baño, ez Jeroboanek ezagutu zuen bide gabe errege egin zala, ez Abiak Jaunari leialkiro serbitzea zor ziola. Jeroboan len bezain idoloak gelditu zan; eta Abia, aita bezain gaiztoa eta eskergabea. Iru une betetzaka erregetzan eginda, Jerusalem il zan.

### 3. Asa, irugarren Erregea

Asa bere semea Judako irugarren errege sartu zan. Bere aginteari asiera ona eman zion: Jainko gezurrezkoai egindako aldare guziak kendu zituen, eta zorrotz agindu zuen Jainko bakarraren legea erreinu guzian zintzo gorde zedilla. Pakean luzaro bizi izan zan, erreinuko gauza guziak ondo egiñaz, Etiopiako errege Zarak gerra eman zion artean. Onek indar



andiakin eraso zion, baña Asak laster ondatu zuen; eta Zarari kendutako ondasunakin, Jerusalemara garailari itzuli zan.

Asa eta bere mendekoak zorionez aide guzietatik beteak bizi ziran; eta israeltarrak au ikusita, Judara samaldaka zetozen, Asaren babesean bizitzera, Israelko idolo-gosea eta oitura galduak ez ikusteagatik. Baasa Israelko erregeak aldaketa au ezin eramanik, Judari erasotzeko asmoa artu zuen. Asak ikusi zuenean Baasak Rama zeritzan uria artu ziola eta onekin israeltarrai Jerusalemara joateko ateak itxitzen zieztela, bildurrak eman zion. Asak biderik asko bazuen, Zararen kontrako gerran lagundu zion Jainkoagan aurrera ere uste osoa idukitzeko; baña ala egin bearrean, Siriako Erregeari diru askoren truke laguntza eskatu zion: eta onek bialdutako indar andiak Israelkoak ikusi zituenean, atzeratu zan eta Judari pakea eman zion.

Langai au Asak ustez ondo egin zuen: baña Jainkoak profeta baten aotik erriertan eman zion, berari utzita idoloazale bati laguntza eske jarri zitzaiolako. Profetak esan ere bazion, andik aurrera gerran beti izan bear-ko zala. Asak, itz oiek aditutakoan, asaba Dabidek Natanek itzegin zionean bezala, gaizki-egiña ezagutu eta barkazioa eskatu bear zion; baña etzuen nonbait uste, iñork itzik trukatu edo ezer esan bear zionik, eta profetaren esanak ausardizat arturik, zepo batean ipiniarazo zuen. Jainkoak gaizki artu zion bere mandatari bati dollorkeria au egitea, eta oñetako oñaze guziz miñak artu, eta iru urtean asko erakutsi zion. Geroz, profetak esan bezala, Baasa Israelko erregearekin etzuen pakerik izan, eta erregetzan berrogeita bat urte eginda, Jerusalemen il zan.

Asa gizon ona eta Jaunaren lege santagatik asko begiratu zuena izan zan: beragatik, aitatu dan utsegitea atzenean izan bazuen ere, sinistekoa da bear dan damutasuna artu zuela, eta Jainkoagandik barkazioa iritsirik, zorionean il zala. Jerusalemen berak eragindako obian lurpetua izan zan.

#### 4. Josafat, laugarren Erregea

Josafat laugarren erregea bere aitaren aulkian jarri zan. Bere gura-soak emandako aziera onari ondo erantzunda, Josafat gizon zuzena, Jaunaren bildur andikoa eta erlejio egiazko bakarragatik zintzo begiratu zuena izan zan. Idolo guziak kenduerazo zituen. Misiolariak erreinu guzian zabaldu zituen Jainkoaren lege santa erakustera, oiturak ontzera eta jende guzia eskolatzera. Erri asko murru eta dorre andiak sendotu

zituen eta martiztia ere txit oñ onean ipiñi zuen. Bere mendean milloi bat eunda irurogei milla gizon, bost taldetan ipiñiak eta gauza guziaz ondo ornuak zeuzkan. Auzoetako erregeak, indar andi oiek ikusita, bildur zitzaiozkan, eta etzan iñor oni ezer egitera benturatzen. Auzo askok eskuerakutsi andiak bialtzen ziozkatzen. Gisa onetan Josafat lenbiziko emezortzi urteetan zorion eta doatsuera guzian bizi izan zan.

Baña denbora onetan egin zuen bear etzan gauza bat, bizia laburtzeko bidean ipiñi zuena eta bere ondorearen txit nozigarria. Joran seme zarrena ezkonduerazo nai zuen, eta Israelko errege Akabi Atalia zeritzan alaba eskatu zion; eta Joran eta Atalia ezkondu ziran. Josafat izanik Jainko egiazko bakarraren serbitzoari ain eresi andiarekin begiratzen ziona, uste izan bear degu ezkontza hura on andiak ateratzeko asmoan baizik egin etzuela; baña utsegin zuen. Gazteak ezkondu ziranetik urte batzuetara, Samariara joan zan bere guraskide Akab ikustera; eta Akab onen gañean 234-garren orrian itzegitean esan zan Josafaten bizitza ikusi onek zer perillean ipiñi zuen. Jainkoak bere serbitzari leial au bizirik gorde nai izan zuen; baña bere aserrea agertu zion.

Ramot Galaadkotik etxerenz zetorrela, profeta batek bidean Jaunaren izenean esan zion: Siniste gabeko bati laguntzen diozu eta Jainkoari gorroto diotenakin adiskidetzen zera? Jaunaren aserrea merezi izan dezu; baña gauza onak egin izan dituzu eta Jainkoa billatzeko biotza prestatu dezu. Josafat Jaunaren agiraka edo erreprentio onekin asko lotsatu zan. Gaizki-egiña ezagutu zuen: Jaunari barkazio eske jarri zitzaion; eta Jerusalemen sartu zan lenago baño ere gogo geiagorekin Jainkoa maite izateko eta aren lege santa berak gordetzeko eta besteai gorderagiteko. Onetarako lendanaz misionatzera bialduta zeuzkan apaizaz gañera, bera ere irten zan, eta bazter guziak ibilli zituen Jaunari zer eta zenbat zor zitzaion eta nola serbitu bear zan erakusten; zeñaren bidez galduta zebiltzan guziak Jainkoarentzat irabazi zituen.

Erreinu guzia jirabiratu zuenean Jerusalemara itzuli, eta pakean bizi zan, gauza guziak bear bezala eraenduaz. Onetan zegoala, Jainkoak ikusi nai izan zuen Josafatek argan zeukan ustea zenbaterañokoa zan. Moab, Ammon, Idumea eta siriarrak bat-batetan eraso zioten, eta jendetza andiak Engadin jarri zitzaiozkan. Josafatek, ustekazeko berri au artutakoan, agindu zuen erreinu guziak barautu zezala, eta Jerusalemara Jaunari erregutzeroa etorritako guziakin Elizan sartu eta Jaunari eskatu zion estura larri artatik, arren, bera eta mendekoak atera zitzala. Eskari au egiten ziarduela, Jaaziel, Zakariasen semeak, Jaunaren izenean esan zion: Ez ikaratu: oraingo auzia, ez zuena, ezipada Jainkoarena da; biar jatsi zatza-



kizkiete eta Jaunaren laguntza ikusiko dezute. Josafat eta gañerakoak auzpeztu ziran eta Jainkoa adoratu zuten.

Biramonean Josafat jende guziarekin etsaiaren billan irten zan, eta zerbait bide egin zutenean gelditu ziran, eta Josafatek guzien erdian zutik jarrira, esan zien: Zuen Jaun Jainkoagan sinistu ezazute eta gordeko zerate: bere profetai sinistu zaiezute eta guzia ondo irtengo zatzute. Gero soldadu-taldeen aurrean kantariak ipiñi zituen, eta biderei eman zitzaiozkan, kantatuaz: *Jaunari gloria, zeren bere errukimentua betikoa dan;* eta gañerakoak au bera erantzuten zuten. Onela Jainkoa laudatuaz eta alabatuaz bidean zijoazen bitartean, etsaiak elkarren artean aserretu eta elkar iltzeari eman zioten. Gain batera ziranean, ikusi zuten aurre guzia gorputz-illez estalia, bat bakarrik ere bizirik gelditu gabe. Bereala iltokira joan, eta iru egunean bildu zituzten ondasun andiak in Jerusalemenera itzuli ziran; Jaunari eskerrak eman ziozkaten, eta pakean jarri ziran.

Andik laster Okozias Israelko erregeak gaztigatu zion on izango zala saldu-erosiaren gañeko elkertasun bat egitea; eta Josafat beretzen erraza izanik, artara jarri zan. Itsas-ontzi andiak egin zituzten, Salomonek denbora batean bezala, urre eta zillar eske bialtzeko; bafia ontziak itsasoan barruna zijoazela Josafatek uste zuen garaiean, Jaunaren profeta batek esan zion: Zergatik Okoziasekin adiskidetasuna egin dezun, Jainkoak zure lanak ondatu ditu. Ontziak Tarsisera baño lenago puskatu dira. Josafatek berri au Jaunaren zigorradatzat artu zuen; eta etzan Okoziasen esanera ontziak berriz egiteko jarri nai izan. Beste elkartze bat ere Josafatek egin zuen, Joranen gañean itzegitean 237-garren orrian esan zan bezala; baño oraingo au Jainkoak ontzat artu zion; eta emen ikusi diteke zenbat naiera serbitzari on oni agertu zion. Josafat denbora gitxiren epean il zan, Judako erreinua ogeita bost urtean zuzen eta zintzo eraenduta, eta bere aurrekoen ondoan lurpetua izan zan.

## 5. Joran, bostgarren Erregea

Josafatek bere lekuan Joran semea utzi zuen, ez ordea aita bezain ona eta zuzena. Judako bostgarren errege onek aitaren erakutsi onai etzizaien jarraitu, ezpada bere emazte idolokoi Ataliaren gogoeta eta gurari gaitzoi. Aitak Joran doai andietako semetzat zeukan, hura bizi zan artean bere biotz galdua isillik estali zuelako. Aitak, il baño bi urtez lenago, seme zarrena zalako, erregetzan lagun artu zuen; eta beste bere sei

semei erri andi bana eta ondasun ugariak eman ziezten, errege andi baten semeak bezala, naierara bizi izan zitezten; baila aitak begiak itxi orduko, Joran asi zan bere biotz galdua agertzen. Sei anaiek eta oien adiskide on guziak il zituen, idoloetara jarri zan, aurrekoen erlejio santa utzi zuen, jainko gezurrezkoai aldareak egin ziezten, eta are lotsagarriago zana, Jainko egiazkoaren Eliz-ondoan Baali ere bereak altxatu ziozkan. Gaiztakeria oiek guziak zeruari oska zegozkion, Akab Israelko erregearen etxea bezala, Joran Judakoarena ere ondatu zezala; baño Jainkoak Dabidi onen odolean erregetzak irauteko itza emanik zeukan, eta autsi nai etzuen.

Jainkoak Jorani bere deiak egin ziozkan. Idumearrak asi zitzaiozkan mendetik irten naiez, eta Joranen egin-alai gogor eginda, bere-gaño jarri ziran. Gero erreinuan bertan Lobna-ko uria bere inguru guziarekin altxatu zitzaion, eta errege idolokoiari utzirik, orobat bere-gaño jarri zan, eta Judako erregearen mendera itzuli etzan Joranen humeak iraun zuten bitartean. Kolpe oiek Joran ezagueran sartzeko ziran; baño etzan zentzatzten. Oraindañoakoak alperrik zirala ikusirik, Jainkoak Elias profetari esan zion itz oiekin eskribatzeko: Jainkoak ara zer dion: Zure aita Josafat eta asaba Asaren bideetan ibilli etzeralako, eta bai Israelko erregeenetan, eta Judan eta Jerusalemen bizi diranak gaiztotu, eta zure senide, zu baño obeak, il dituzulako, Jaunak zu zerori, zure erriari, zure seme eta emazteai, eta dezun guziari gaitz andi bat bialduko dizute; zu sabeleko urmin gogorrek artuko zaitu, eta erraiak egunean piska-bana irtengo zazkizu. Ordurako Elias mundutik ezkutatua zan: baño batzuek diote txartel au lendanaz egiña utzi zuela; besteak, profetaren bati agertu eta eman ziola: gai onetan dana dala, Joranek, beintzat, Eliasen txartel au artu zuen; baño gogor topatu zuen; etzan ondu, eta asi ziran txartelak esaten zituenak egiztatzten. Filistintarrak eta arabiarrek laster eraso zioten, Jerusalemen sartu zitzaiozkan, bere etxeko ondasunak artu zituzten, eta eraman ziozkaten emazte eta semeak, Okozias seme gaztetxoa utzita, zeña bakar bakarrik bizirik geratu zitzaion. Ondamen onek ere Joranen biotza etzuen bigundu. Ur-miñak artuta, sabel guzia urez bete zitzaion, eta bi urtean iraun zuen barrun guzia piskaka zeriola, oñazez ezin egon zala eta botatzen zuen usai likitsagatik iñor ezin alderatu zitzaiola. Atzenean izaerarik lotsagarrienean, ogeita emeretzigarren urtean il zan, zazpi eta erdi erregetzan eginda. Etzioten progurik egin, bere aurrekoai oitu bezala, eta ukitze utsak ere nagatzen zituen; eta lurpetua izan zan Dabiden Urian, ez ordea erregeen obian.



## 6. Okozias, seigarren Erregea

Jerusalentarrak Okozias Judako seigarren erregea aitaren lekuan bereala ipiñi zuten. Joranen gaiztakeriakin aspertuak zeuden, eta errege berri onekin zerbait aurreratu uste zuten; baña laster ikusi zan semea aita bezain gaiztoa zala. Bere ama Ataliaren esanetara osotoro jarri, eta erregetzan egindako une bateko denbora laburrean etzuen gaiztakeria eta gaiztakeria baizik egin. Bitarte onetan Siriako Erregearekin Israelkoak zerabillen gerran, oni laguntzeko elkartasuna egin zuen, eta Joran Israelko erregearen gañean itzegitean 247-garren orrian esan zan bezala, igesi zijoala, etsaiak egindako zaurietatik il zan.

## 7. Atalia, zazpigarrena

Atalia Okoziasen ama, semearen orde z erregetzan sartu zan. Atalia bere aurtasunetik zan gaizki azia eta Jezabel Israelko erregeña zorigaizto-koaren eskolan ikasia. Bera idolozailea eta guziz biurria izateaz gañera, Joran senarrari eta Okozias semeari bere gaiztotasuna itsatsi zien. Emakume gaizto onek semea il zitzaionean erregetza artu zuen, eta eskualdi onetan nork auzia emanik izan etzezan eta bera bakarrik geratzeagatik, eskuratu zitzaiekan bere seme Okozias zanaren hume guziak ilerazo zituen. Lenago esan da Joranek bere senide guziak il zituela. Arabia eta filistintarrak ere Joranen seme, Okozias ez, beste guziakin orobat egin zuten. Dabiden ondorengorik etzegoan Okoziasen humeak besterik; beragatik oiek guziak il ezker, Dabiden odolak, Jainkoak esanik zeukan bezala, *Mesias* munduratzen zan artean ezin iraun zezakean: baña ondamen negargarri onetan Jainkoak berak izan zuen bat gordetzeko kontua, eta au Joas Judako zortzigarren erregea zan.

## 8. Joas, zortzigarren Erregea

Josabet, Okoziasen arreba-erdiak, ikusi zuenean bere anaiaren aur guziak iltzeari Ataliak eman ziola, zetzan seaskatik Joas aurra artu, eta bere inñudearekin Elizaren bazter ezkutu batera eraman zuen. Atalia, erre-

gearen hume guziak ustez il zituenean, gaiztakerian lenago baño ere gogozago asi zan. Idolo edo jainko gezurrezkoak leku agirikoetan ipiñi zituen, eta Juda guzia ondatzen zijoan. Lanbide negargarri onetan sei urte zeramazkien, eta judarrak negarrez begiratzen zioten, inñondik ere pozik uste etzutela; bada, aur gorde onen berririk etzuten, eta etsita zeuden Dabiden odoleko guziak il zirala.

Aurra Joiada apaiz nagusiaren kontura zegoan, eta ardua guziarekin azitzen zuen. Judak zeraman ondarena eta erreki gaiztoa ikusirik, artu zuen legez eta bidez zegokion Dabiden aulkian aur hura ipintzeko asmoa. Irrisku andiko lana zan; baña uste izan zuen Jainkoak lagunduko ziola, eta bere gogozko asmoan etzuen utsegin. Erreinuko lebita edo eliz-gizon, eta beste bere gogoko guziak egun batean Elizara bilduerazo zituen. Agertu zien buruan zer zerabillen. Erakutsi zien nork zer egin bear zuen; eta guziak bere endanan ipiñirik, Okoziasen seme zazpi urteko aur ezkutuan zeukana agertu zuen. Errege-koroa eta soñekoak janzi ziozkan, eta otsegin zuen: Erregea bizi bedi. Guziak poz andiarekin erantzten zioten: Erregea bizi bedi; Dabiden jatorria bizi bedi; Joas Okoziasen semea bizi bedi. Berri au Eliz-inguruan eta urian bereala barreatu zan, eta aide guzietatik jendeak Elizaronz zijoazen, errege berriari agur onak egitera.

Atalia ere goardatzaldez inguratua joan zan, eta ikusi zuenean errege berria errege-aulkian eserita, guziak agur egiten ziotela, deadar egin zuen: Saldukeria, saldukeria! Bereala il nai izan zuten; eta ain aier zitzaiozkan emakume gaizto hura ilko ere bazuten, baldin Joiadak utzi izan bazien; baña aren odolarekin Eliza ez kutsutzeagatik, agindu zuen Elizatik atera eta zerraizkion guziakin il zezatela. Ala egin zuten; eta andre gogor galgarri hura bere etxe-atarian illa izan zan.

Joiadak ikusirik bere lana zein ondo irten zitzaion, jende guziari errege berriaren aide itzegin, eta leialak izateko itza kendu zien. Bereala Ataliak eragindako Baalen elizara joan, eta idolo eta gañerako gauza guziak bota eta ondatu zituzten. Gero errege-etxera guziak joan ziran, eta errege berria emen ipiñirik, Jerusalem eta Juda guzia pakean jarri ziran.

Joiadak erregeaz kontu andia zeukan; eta onek ere apaiz ongille maitagarriari begirunez begiratzen zion, eta biak ekkarri lagunduaz, Atalia gaiztoaren aginte-aldian erreinuak izandako ondamen negargarriak orbaindu zituzten; batez ere Jerusalemgo Eliza, zeñari esku galgarri ark geiena ukitu zion, eta galdua utzi zuen.



Gauzak ondo zijoazen; baña Joiada zartu zan, eta eunda ogeita amar urtekoa il zan, Juda guzian negar andiak utzita, eta erregeen obian lurpetua izan zan. Joiada iltzeak Judako erreinuari kalte asko ekarri ziozkan. Apaiz andi au bizi izan zan bitartean Joas bide zuzenetan ibilli zan; baña il zanetik laster, erreinuko andizkiak losentxa eta leunkeriakin beretaronz itzuli zuten, eta erreinu guzian idoloak ipintzeko baimena kendu zioten, eta idoloak adoratzeari berriro eman zitzaiozkan.

Lanbide onekin Jainkoa txit aserretu zan: adierazo ere bazien, baldin ez bazituzten gaiztakeria aiek uzten, kastigu latzak etorriko zitzaiez-tela. Gaztigu oiekin profetak bialdu zituen, baña alperrik: Jaunaren dei ondo-naikoak etzituzten aditzen. Orduan Hazael Siriako erregea Jet-eko urian indarrez sartu zan, eta asiera on onekin arroturik, Jerusalem ere menderatzeari ekin zion. Joasek erregetzan zeramazkien ogeita amar urteetan etzuen gerra-gizonik ikusi; gerra zer zan ere etziekien, eta aurre-ra gisa bereko pakean bizitzeagatik, Elizan eta bere jauregi edo etxean lenagokoak ipiñitako ondasun andiak artu eta Hazaeli bialdu ziozkan; zeña, aberastasun oiekin Jerusalem artzeari utzirik, bere etxeronz itzuli zan. Kastigu au, ezagutu zitekean Jainkoagandik zetorrela; baña, ez Joas erregea, ez erreinua, zentzatu ziran.

Ostera ere Jainkoak profetak bialdu ziezten, eta oien artean begirune andiko Zakarias Joiadaren semea, zer egin bear zuten erakustera; baña idolokoi gogor aiek, beste profetak ezertan artu ez, eta Zakariasen kontra altxatu ziran, eta etzioten arrika il artean utzi. Judari ainbeste mesede egin izan zion Joiada apaiz nagusiaren semeak onela bizia galdu zuen, eta judarrak beren gaiztakerian jarraitu zuten, Jainkoaren deiakgatik oñik atzeratu gabe.

Andik urtebetera Siriako Erregearen soldaduak berriz ere eraso zieten; Jerusalemen sartu ziran; andizki guziak il zituzten, eta Joas erregea zauri bat egiñik utzi zuten, oñaze asko geroz eraman bearrean. Oñazemin oiekin iru unte igaro zituen, eta atzenean bere serbitzariak zetzan oiean il zuten. Errege onek asiera ona izan zuen: Joiada apaiza gidaritzat iduki zuen artean zuzen ibilli zan; baña gero gaiztakeria asko egin eta egi-teko lekua eman zuen. Etzioten erregeen obian lurpetzea opa izan.

## 9. Amasias, bederatzigarren Erregea

Amasias, Joasen semea, aitaren lekuan jarri zan. Erregetzan sartuta bereala, bere aitaren eralle edo iltzalleak il zituen, zeñaren bidez uste izan

zan, gero ere bide zuzenean ibilliko zala; baña lenengo urteetan on asko egin bazuen ere, gerora okertu zan. Ara zertatik. Lenengo urteetan pake onean bizi izan zalako, ipiñi zuen soldadu-talde itzaltsu, zenbat etsairi arpegi emateko adiñakoa. Oroitzen zan idumearrak Joran asabaren mendetik irten eta geroz bere-gaño bizi zirala, eta gogoak eman zion oiek beretzea. Juda eta Benjaminen bildutako irureun milla gizon gerrari, asko izango etzituelako bildurrez, irureunda ogeita zortzi arropa zillarren truke beste eun milla israeltar erosiak artu zituen: baña eun milla oiek Jainko egiazkoari utzita idoloetaronz etziñak ziralako, Jainkoak etzion lanbide au ontzat artu, eta profeta baten bitartez esan zion israeltarren ustean etzedilla gerran asi; garaipena etzala beti giza-indarrean izaten. Gaztigu au biotz onarekin artu eta israeltarrak bertatik etxera bialdu zituen, zeñak itzuli ziran Judako errege eta mendekoen kontra aserre bizian. Amasias bereala bere uts-utsakin idumearrai eraso zion, eta batzuek il, besteak atzeman eta gañerakoak, osotoro abarrakituta, basoronz igesi bialdu zituen. Baña garaipen au Amasiasentzat txit kaltetsua izan zan. Etsaiari artutako gauza askoren artean, idumearren idoloak arkitu zituen: eta Jerusalemenera eramanik, berak ere agur egin zion, eta onen ondoren beste gaiztakeria askotan erori zan.

Jainkoak profeta baten bitartez adierazo zion idoloak adoratzeari zein gaizki egin zuen: baña Jainkoaren deia ontzat artu bearrean, arestian esandako garaipenarekin illarrañdurik profetari erantzun zion ea erregearekin zer egiteko zuen. Aren begietatik bereala kendu zedilla, il nai ez bazan. Profetak aldegin zion, esanaz, egindako gaiztakeriagatik Jainkoak erabaki zuela aren egunak laburtzea. Geroz onik etzuen izan. Israelko Erregearekin gerra gogor bat sortu zitzaion, eta aren mendean jarri zan. Israelko Erregea Jerusalemen sartu zan; muru-zati andiak bota zituen eta ondasun asko eraman ziozkan, Amasias lotsa gorrian utzirik. Atzenean errikoak ere kontra altxatu zitzaiozkan; eta Lakis-era igesi joanda, il zuten. Erregetzan ogeita bost urte egin zituen, eta gurasoen obian lurpetua izan zan.

## 10. Ozias, amargarren Erregea

Ozias, Judako amargarren erregea, Amasias bere aitaren lekuan amasei urtekoa sartu zan, eta bere aginteak berrogeita amabi urtean iraun zuen. Ozias bereala agertu zuen Jaunari atsegin emateko eta gauzak



ondo egiteko gogo; eta Jainkoak Zakarias profeta, beste Zakariasen seme eta Joiada apaiz andiaren billobagan gidari on bat eratu zion. Oziasen lenengo lana izan zen Jerusalem pareta sendoz inguratzea, uria eta Eliza etsaiaren erasoetatik gordetzeko. Maasias eta Hananiasen kontura soldadu-talde andiak gordetzalle ipiñi zituen. Armategiak egin eta beste prestamen asko, bear ziranerako, artu ere bai. Bere ardura zintzoa erreinu guzira zabaldu zuen, eta non-nai ezagutzen zan.

Bere aita zanaren eta lenagokoen denboran galdutako bazterrak beretzeko asmoa artu zuen. Idumea, Filistin, Arabia eta Ammontarrak eraso zien, eta guziak eskuratu, eta beartu zituen batzuek bere mendean izatera, besteak zegozkiten urteoroko eskuerakutsi eta petxak matera. Lanbide oiekin jarri zan errege batek opa dezakean izaerarik onenean; baña asi zan makurtzen, eta eroriko andi bat eman zuen.

Oziasen maisu nagusi, une askoan zer egin erakutsi ziona, Zakarias profeta zan, zeñaren eriotzak Ozias galmena ekarri zion; eta Joas bere asabari Joiada il zanean gertatu zitzaion berbera, Ozias ere gertatu zitzaion. Ainbeste zorionekin arkitu zanean, biotza uanditu zitzaion, eta arrotu zan Jainkoaren aginduai kontra egin nai izateraño. Nai zuena egin da ere etzuen uste iñork ezer esan bear zionik, eta are gitxiago eragozterik. Uste onetan Elizan sartu eta asi zan apaizak baizik ezin zezaketen lanbidea egiten, inzensua lurriñen aldarean erretzen. Azarias apaiz andia eta beste larogei apaiz joan zitaiozkan esatera, hura etzala aren egitekoa, ezpada Aaronen ondorengo eliz-gizonena. Leku santutik irten zaite, esan zioten, eta gure esanak ezer gitxian ez artu, zeren Jaunak ontzat eramango ez dizun. Ozias apaizen kontra sutu zan, eta inzensu-ontzia eskuan zuela, keñadatzen zien, adierazoaz ez-egitekoren bat egingo zuela. Baña, Jaunaren eskua zein andia dan! Ozias bekokian lepra nazkagarri bat batbatetan agertu zitzaion, eta Azarias eta bere lagunak beartu ziran Elizatik bere-bereala ateratzera, eta Ozias bera ere, Jaunaren esku zorrotzak ikaratuta, igesi abiatu zan.

Geroko lau urteetan legendar zikin nazkagarri onegatik jende-artetik aldegin, etxe bakar batean bizi izan zan, bere bekatuari zegokion penitentzia egiten; eta il zanean, etzioten erregeen obian lekuri eman, lepratsu il zalako.

## 11. Joatan, amaikagarren Erregea

Oziasen seme Joatan, amaikagarren errege izan zan, zeña bai aita-ren gaxoan, bai geroko amasei urte erregetzan egindakoetan, txit zuzena

eta Jainko egiazkoaren serbitzari leiala izan zan. Il zanean erregeen obian lurpetu zuten. Judarrak negar andiak egin ziozkaten, eta are andiangoak eta miñagoak izango ziran ordeko zer seme uzten zuen jakitera.

## 12. Akaz, amabigarren Erregea

Au Akaz amabigarren erregea zan. Erregetu zanean, ogei urte zituen. Etzuen Joatan aitaren ontasunik, ez Dabid aurrekoaren antzik, ezpada gaiztakeria andiai leku eman zien. Idoloak egin eta mendi-tontor guzietan ipiñi zituen. Baal eta Molok jainkotzat adoratu zituen, eta bere erakutsi gaiztoarekin mendekoak ere lan bera egitera ekarri zituen.

Jainkoa, ainbeste gaiztakeria ikusita, aserretu zan eta Rasin Siriako erregeaz baliatu zan Akaz kastigatzeko. Rasin itsumustuan Akazi bere lurrean sartu zitzaion eta Akaz, gogor egiteko nekatu bazan ere, Rasinek ondatu zuen, eta siriarrak Judan kalte andiak eginda ondasun andiak beren lekuronz itzuli ziran.

Etzan Akaz zigorrada onekin zentzatu; eta Fazee Israelko erregearen semeak soldadu-talde andi batekin eraso zion; egun bat bakarrean eunda ogei milla gizon gerrari, eta oien artean Akazen seme Maasias, il ziozkan; eta ondamen negargarri onen ondoren berreun milla emakume, mutil eta neskatx gaxte katibu artuta, ondasun andiak Samariarantz itzuli zan.

Egun oietan Samarian arkitzen zan Obed profeta bidera irten zitzaion eta esan zien Jainkoaren gogokoa izango etzala emakume eta aur errugabeko aiek katibu idukitzea, eta beren etxera bialdu zitzatela. Ala egin zuten. Gaxoak erdi-billosak, goseak alduak eta bideko nekeak txit makalduak arkitzen ziran: jaten eman, janzi eta abereetan ipiñirik, Jerikora beren senideetara biurtu zituzten eta berak Samariara joan ziran. Ispillu argia, gerran garaillari irteten diranak zer egin bear duten ikasteko!

Bi zigorrada oiekin Akaz etzan ezagueraz janzi; bere gaiztakeriai zerraikien, eta uste zuen etzuela aurrera zer bildur izan. Baña, lenagoko aldi banaka bezala, oraingoan Rasin eta Fazeek batetan eraso zioten, eta Jerusalem ondora joanik, uria inguratu eta setiatu zuten. Bere burua estura onetan ikusi zuenean, Akaz asi zan gogor egiteko prestamenetan. Jaunaren Elizan eta bere etxean ziran urte eta zillarrak bildu zituen eta Asiriako errege Teglafalasar-i bialdu ziozkan, esanaz zein estu arkitzen zan, eta laguntzeko. Teglafalasar-ek eske onekin atsegin andia artu zuen,



zekusalako iru errege aien auzia aren onean izango zala; eta bere lagun-tza eskeñi zion; baña iruai zerbait denboran utzi zien, elkar zatituaz argaldu zitezten.

Urtebeteren buruan Teglafalasar soldadu-taldearekin Samariako erri-buru Damaskoronz joan zan, topatzen zuen guzia ondatuaz. Siriako Erregeak berri negargarri au artu zuenean, Jerusalemni utzirik joan zan bere etxeari kontu artzera. Asiria eta Siriako Erregeak elkarri eraso zioten, eta Siriakoaren soldadu-taldea osotoro galdua eta errege bera ilda geratu ziran. Orduan Teglafalasar erreinu guziaren jabe egin zan; Damaskon sartu eta emengo biztanle eta gauza guziak Zirenera eraman zituen. Israelko Erregea ere denbora berean, Jerusalemgo setioa zegoan oñean utzita, bere etxeronz itzuli zan, erreinuari kontu artzeko asmoan, alperrik bederik: bada, Teglafalasar-ek Israelko jendearen erdia eta geiago menderatu eta berekin eraman zuen.

Akaz poztu zan, bere etsaiak pakea eman ziotelako; baña etzuen ezagutu mesede hura Jainko egiazkoari zor ziola; ezpada Teglafalasar-en eskuak gorde zuela; eta errege oni Damaskora joan zitzaion eskerrak ematera. Emen ikusitako idoloen aldareaz lilluraturik agindu zuen beraren antzeko bat egiteko, eta Urias apaiz andiari Jerusalemgo Elizakoaren aurrean ipiñierazo zion. Damaskotik Jerusalemnera itzuli zanean, ofrendak eskeñi eta beste lanbide asko egin zituen, Jainko egiazkoari utzita gezurrezkoetara jarri zala adierazten zutenak. Urias apaizak, bere eginkizunari begiratu gabe, Akaz erregeari lan oiek guziak ontzat ematen ziozkan. Geroenerako Eliz-barruan aldare andiak eragin zituen, Jainkoak ain argiro debekatuta zeukanaren kontra.

Teglafalasar-en garaipen andiak zekuskizan, eta uste zuen aren jainkoak laguntzen ziotela, eta bera ere jarri zan aiek adoratzera. Jerusalemgo Eliza itxi zuen; erreinu guzian idoloak eta oien agur-emalleak ipiñi zituen, eta gisa onetan zebillela, Jaunaren aserre guzia gañera ekarri zuen.

Teglafalasar, Jerusalemni bere ikusia emanda, ondasun andiak in etxeronz zanean, idumearrak Judan sartu ziran eta kalte latzak egin zituzten. Filistintarrak berebat sartu ziran eta bazter zabalak beretu zituzten. Ondamen oien erdian etzan Akazen biotza biguntzen eta, bere gaiztakeriaetan ondo josia zetzala, bere erreinaldiaren amaseigarren urtean il zan, mundu guziak gorroto ziola. Jerusalemen lurpetu zuten; ez ordea erregeen obian.

### 13. Ezekias, amairugarren Erregea

Akazen lekuan bere seme Ezekias amairugarren erregea sartu zan. Aita gaiztakerian aurreratua bezala, semea onerako grinaua zan. Erregeztan sartu zanean ogeita bost urte zituen. Onen lenbiziko lana Jerusalemgo Eliza zegokion oñean ipintzea izan zan. Aitak itxitako ateak idiki, garbierazo eta aitaren denboran kendutako gauzak egin zituen. Jerusalemgo karrikaetan ipiñitako idolo eta oien aldare guziak kendu zituen: eta Jaunari zor zitzaion agur eta adorazioa obeto emateagatik, bere erreinuko eta Israelko guziaz otsegin zien, Pazkoa egiteko asmoan. Jendetza andia batu zan eta lanbide onetan egun asko igaro zituzten, errege eta mendekoak, nor bere aldi, Jaunari eskeñtza andiak egiten ziozkatela.

Errege prestu onek Jainko egiazkoaren ezaguera eta sinistea erreinu guzian zabaldu eta erlejo santa bere aita baño lenagoko oñera itzuli zuen. Onen gogoa eliz-gauzaetan bakarrik etzan: erreinukoetan ere txit ardura eta kontu andia zuen, eta bere eraen zintzoarekin etsaiari gogor egiteko oñean jarri zan.

Denbora onetan asiriarrak zebiltzan Israelko erreinua beretzen, eta Israelko guziak katibu arturik etxeronz ziran, ezagutu zuen filistintarrak eskuratzeko erarik obena zetorkiola. Eraso zien eta ekin-aldi guzietan garaiturik, bazter guziak berriz kendu ziezten, eta utzi zituen bere ondorengoari buruaste andirik ez emateko eran.

Ezekias-ek onean ezin eraman zuen bera eta bere erreinua Asiriako erregearen zordun bezala egotea, eta urteoroko eskuerakutsia egin berrean arkitzea: eta artu zuen lotsa gaizto au kentzeko asmoa. Senakerib Asiriako erregea auzoakin orañago izandako gerrakgatik txit eroria, eta iñori gogor egiteko kemen gabe zegoan. Ezekias-ek, au gogoan zeukala, urteoro bide gabe eskatu oi zion dirutza ukatu zion, eta urte batzuetan uko onetan, ezer eman gabe, bizi izan zan. Baña Senakerib zerbait ornitu, eta lenagoko gerraetan galdutako indarrak orbaindu zituenean, Ezekias beartu nai izan zuen len bezala zerbait dirutza ematera.

Asmo onetan eunda larogeita bost milla gizonekin, gitxienez, Judako erreinuan sartu zan: Lakis-ko gaztelu sendoa setiatu zuen eta erasoaldi latzak ematen ziozkan. Ezekias-ek etzuen odolik isuri nai, eta eresi onekin, eskatu guzia Senakeribi eskeñi zion, baldin bere etxera itzuli eta pakean uzten bazion. Baiezkoa eman zion, eta Ezekias-ek Eliza eta bere etxeko diru guziak bildu zituen; baña ikusirik oiekin etzala osatzen, Elizateari berak jositako urrezko azal edo txapak kendu ziezten eta Senakeri-



bi, gaitz-pensatu gabe, diru guzia bialdu zion. Senakeribek diru au artuta, etxeronz joan bearrean, utsune guziak onekin estali zituen, eta Lakisi gogotikago eraso zion, Jerusalem gero bereala ekiteko asmoan.

Onetan Ezekias gaitz batek artu zuen, eta Isaias profeta joan zitzaion esatera: Etxeko egitekoak zuzendu itzatzu, zeren zureak egin duen eta il bear zeran. Itz oiek esanda, geiago gabe, Isaias itzuli zan. Berri onekin Ezekiasek naigabe andia artu zuen, ez ainbeste iltzen zalako, zenbat seme edo ondorengorik uzten etzuelako; eta zetzan oiean, bazterreronz jarrita, esan zuen: Jauna, oroitu zaite, arren, zure aurrean menaz eta biotz dolezgabearrekin ibilli naizala, eta zure gogoko gauzak egiten saiatu naizala. Au esanda negar-ots andi bat egin zuen, eta isilldu zan. Isaias atarira baño lenago, Jainkoak ala aginduta, Ezekiasgana itzuli zan eta esan zion sendatu eta irugarren egunean Elizara igoko zala: beste amabost urteko bizia bazeukala, eta asiriarrrik etzala urian sartuko. Gauza oiek guziak sinisteko Ezekiasek Isaiasi siñale bat eskatu zion. Isaiasek erantzun zion ea aren aita Akazek ipiñitako eguzki-erlojuan errañoa aurreratzea edo atzeratzea nai zuen. Naiz bata, naiz bestea mirarizkoak ziran; eguzkia mirari gabe ezin aurreratu, ez atzeratu zitekean: baño Ezekiasek esan zion itzala atzeratzea naiago zuela. Orduan Isaiasek Jaunari erregutu zion eta eguzkia amar mallaz sort-alderonz atzeratu zan, eta eguzki-erlojuaren itzala amar mallaz atzerago jarri zan, eta egun hura amar orduz luzeago izan zan. Ezekias egun berean sendatu eta irugarrenean Elizara igo zan.

Ezekias jarri zan, bada, Jainkoak gañerakoa ere egingo zion uste oso-osoa; baño bera ere egin-alean nekatu nai izan zan. Jerusalem sendotzeko prestamenak artu zituen. Bere ondo-esanakin mendekoai biotzak bizkortu ziezten. Senakeribek, ostera, Lakisko lanak aurrera zera-mazkien, eta Jerusalem mandataria bialdu ere bazituen, geroko begira egon gabe, aren eskuan jarri zitezela esatera.

Ezekiasek igerritzen zion Senakeriben aldetik zein eraso Iatza zetorkion, eta Elizako aldare-aurrean jarririk, Jainkoari erregu umill bat egin zion; baita Isaiasek ere orobat bere bakarrean; eta Jainkoak bi serbitzari on oien eskariak aditu zituen. Isaiasek Ezekiasi gaztigatu zion ez bildurrik izateko: Jainkoak aditu ziola: etsaia Jerusalem etzala sartuko, ez urreratuko ere, eta ekarri zuen bidetik Senakerib itzuliko zala.

## 14. Senakeriben ondamena

Berri onekin jerusalentarrak poz eta atsegiñez jostaketan zebiltzala, Senakeriben soldadu-talde guzia lo zetzan gau batean, Jainkoaren Aingeruak, iñor ere oartu gabe, eunda larogeita bost milla gizon utzi zituen lepo-moztuta. Biaramonean Senakeribek ikusi zituenean bere soldadu guziak itzik esateko eta aieska bat ere egiteko leku gabe ilda, igesari eman zion, zer egiten zuen edo noronz zijoa etziokiela: Niniben itsumustuan sartu zan; eta denbora gitxiren buruan Nesroe bere jainko gezurrezkoaren elizan, bere bi semek ganibitaz josita, soldadu guziak ilda ikusteko Jainkoak utzi zion bizia kendu zioten.

Jerusalentarrak biaramonean egunsentian gorputz-illak zetzaten lekura joan ziran, eta artu zituzten, ez bakarrik orañoago Ezekias erregeak pakean uzteagatik etsaiari bialdutako dirutza andia, baita beste ondasun ezin neurtu ainbat ere, zeñakin estali zituzten erreinuan etsaiak egindako kalte guziak. Ezekias ere txit aberastu zan. Jerusalem Eliza edertu, uria sendotu eta beste gauza ikusgarri asko egin zituen, zeñaen bidez bere izena alako eran auzoetara barreatu zan non jendeak urrutietatik Jerusalem millaka zetozen, onen inguruan gertatutako mirari arrigarriak entzunda. Ezekias lanbide onekin opa zitekean mallarik goenenekora igo zan; baño anditasun onek berak arrotu eta ipiñi zuen amiltegi pikoan, eta bere ezereztasuna agertu zan. Ara nola.

Beroda-Baladan Babiloniako erregeak aditu zituenean Ezekiasen sendatze mirarizkoa, eguzkiaren bat-batetako atzeratzea, ainbeste milla gizon gauaz, iñor oartu gabe, iltzea eta onelako beste gauza asko, eskuerakutsi askorekin mandataria bialdu ziozkan, aren on eta atsegiñetan zer poza artzen zuen adieraztera. Ezekias mandataria oiei bere ondasuntegi andiak agertu ziezten, berak guzia egin bazuen bezala, Jaunaren esku, zorion guzien iturria, ezertan artu gabe. Andik laster Isaias profetak, Jaunaren izenean, Ezekiasi zorrotz itzegin zion, bere arrokeria arpegira emanaz, ziotzala, gauza oiek guziak berak egiñak bazituen bezala erakustearrekin, etzuela ondo egin; etorriko zala eguna gauzak ez ezen seme-alabak ere, Babiloniara eraman eta ango erregearen serbitzoan eta morrontza lotsagarrian egongo zirana.

Gogor-itzegite edo erreprentio onen ondoren Ezekiasi bere arrokeria damutu zitzaion, eta Jaunaren aurrean umilldurik, barkazioa iritsi zuen, eta geroz bizi izan zan Jauna alik ondoena serbitzen. Berrogeita amalau urtekoa, ogeita bederatzi erregetzan eginda, il zan. Ezekiasek Jau-





naren gogoia egin zuela eta Dabid bere asabaren bideetan ibilli zala, Espiritu Santuak dio. Mendekoak il-berri onekin negar andiak egin ziozkaten: eta progu onratsuaren ondoren, gorputz-illa beste guziak zetzaten baño goratuagoko obian ipiñi zuten.

## 15. Manases, amalaugarren Erregea

Manases, Ezekiasen semea, amalaugarren errege izan zan. Aita on baten izaera ikusita, seme gaizto batena aitatu bearra neke egiten da: baño zerbait esan dezagun. Erregetzan sartu zanean, amabi urte zituen, eta berrogeita amabostean agindu zuen. Okerrean bereala asi zan. Arteraño-ko gizonak sortutako idolo guziak adoratu zituen. Aldareak altxatu ziezten eta adora-lekuak egin zituen. Auzoerrietako azti, sorgin eta deabruakin bat-egindako asko erakarri zituen, oien bitartez gauza isillak jakiteko. Bera gaiztoa izateaz gañera, erreinu guzia eta Jerusalem bera gaiztotu zituen. Ain biotz gogorrekoa zan non Jainko egiazkoa ez ukatzeagatik aren bide gaiztoai etzerraizkienak, neke askoren ondoren iltzen zituen.

Joel, Oseas, Nahum eta beste profetak, batez ere Isaiasek, Jaunaren izenean zorrotz itzegiten zioten; baño alperrik: etzuen ezerk ere ikaritzen eta bide gaiztoetatik atzeratzen; eta profetak, esan oien saritzat, eriotza artzen zuten. Isaiasi berari, diotenez, bizia kenduerazo zion, zurezko zerra batekin burutik beera erdiratuta.

Jainkoak ikusirik itz utsak Manases etzutela zentzatzten, egiñetara zan. Asiriako Erregearen agintari batzuek bialdu zituen, eta Manases atzemanik, eta girgilluz eta katez ondo loturik Babiloniara eraman eta ziega illun batean sartu zuten. Orduan begiak zabaldu zituen, noizbait bear da, bere gaiztakeriak ezagutzeko: Jaunari barkazio eske jarri zitzaion, eta biotz umilldu eta damutuarekin Jaunaren errukimentua irabazi zuen. Emen ziega illun onetan zuzendu zuen *Manasesen orazioa* deritzana; eta Jainkoak, eskariak ondo arturik, Jerusalemara laster itzuli zuen.

Jerusalenera zanean, jerusalentarrak uste izan zuten, ez seme Manases, ezpada aita Ezekias zijoakiela: bada, bereala asi zan aitaren lanetan; bere lenagoko oker-egiñak zuzentzen eta egindako kalteak orbaintzen. Deabruari eregitako aldareak bota eta idoloak autsi zituen. Eliza garbitu eta beste gauza on asko egin zituen erreinua Jaunaren bide zuzenera ekartzeko eta zor zitzaiozkan agur onak egiteko. Itz batean, bere lenagoko ogei urteetako ondamen guziak, atzeneko ogeita amairuetan orbain-

du zituen, eta irurogeita zazpi urtekoa Jerusalemene il zan. Bere baratzan lurpetu zuten, nerekiko, berak ala agindurik, erregeen obian etzatea bere gaiztakeriakgatik etzegokiolako umilltasunez.

Denboratsu onetan Niniben bere egunak bukatu zituen Tobias santuak ere; zeñaren bizitza emen ezartzea deritzat egoki izango dala.



## OGEITA BOSTGARREN IRAKURGAIA

### 1. Tobias

Munduaren iru milla berreunda irurogeita batgarren urtean Neptali-ko urian Tobias jaio zan. Gurasoak il zitzaiozkan gaztetxoa zala; baña beti gogoan iduki zituen aurtasunean eman izan ziozkaten ikasbide eta erakutsi onak. Israelko errege Jeroboanek egindako urrezko txalak adozterazera besteak zijoazenean, Tobias Jerusalemenera zijoan eta Jainko egiazkoari agur onak egiten ziozkan, eta Jaunak agindu guzia kontuz gordezten zuen.

Salmanasar Asiriako erregeak israeltarrak katibu eramanean, Tobias ere bere emazte eta seme Tobias gaztearekin eramanean izan zan Ninibera, non bere lan onai zerraikien, len bere etxean bezala; eta etzan kutsutzen israeltarrak eragiten zitzaiezten gauza debekatueta.

Beren etxeetatik irten ziranean, Salmanasar-ek utzi zien nori bere zezakean ondasuna eramanean, gero zerekin bizi izan zezan. Tobiasek ere egin-alean artu zituen; baña izan oiek, esan ditek beretzat baño besterentzat obeto eramanean zituela; bada, zezakean guzia, beartsuetan eta onegiten zabaltzen zuen. Salmanasar-ek, Tobiasen ontasuna ikusirik, bere gogoan artu zuen; esku-erakutsiak egiten ziozkan, eta noranai joateko eta nai zuena egiteko eskua eta baimena eman zion. Eskubide onekin katibutik katibura zebillen, lagunak ikusten, laguntzen eta ondo-esanak ematen.

Bein batean joan zan Rajes-ko urira, non Gabelo bere erritarra eta aidea topatu zuen, eta esturasun larri batean ikusirik, berekin zituen diru guziak eman ziozkan, bere eskuz egindako agiri baten azpian. Egun aietan Salmanasar ilda, Senakerib sartu zan; baña semea ez aita bezain biotz onekoa katibu zeudenentzat, eta ikusi ere nai etzituen.

Tobiasek trukaera onekin lengo eskubideak galdu, eta etzeukan bere senide eta lagunai zerekin lagundu: baña, ala ere egunoro zebillen ikusten, eta piskan ere, beartsuai zerbait laguntzen, goseai jaten eman, billosak janzi eta illak lurpetzen zituen. Senakerib erregeak Jerusalem ondoan izan zuen ondamen andiaren ondoren bere etxera igeska joan zanean, katibu asko iltzen zituen, eta Tobiasek oiek lurpetzeko kontu andia zeukan. Senakeribek lanbide au jakin zionean, zuen guzia kendu zion eta agindu

zuen il zezatela. Orduan Tobias bere emazte eta semearekin, asko nai zioznenetik baten etxean ezkutatu zan, eta gorde zan alik eta Senakerib, berrogeita bostgarren egunean, bere semeak il zuten arteraño.

Il-berri onekin Tobias bere ezkuta-lekutik irtenda etxera joan zan, eta gauza guziak itzuli zitzaiozkanean, len bezala errukizko lanai ekin zien, eta onela beste amasei urte pakean igaro zituen.

Jai batean bazkari andi bat ipiñi zuen, erritar batzuekin jateko, eta aien billan bere seme Tobias bialdu zuen. Bidean zijoala, Israelko gizon bat ilda topatu zuen, eta etxera itzulita. aitari esan zion zer ikusi zuen. Aita, maiean lagunak utzita, illagana joan zan, sorbaldan artu eta bere etxeko zulo batera eramanean zuen, gero lurpetzeko asmoan. Lanbide au lagunak eta aideak etzioten ontzat artu eta esan zioten len ere gauza argatik galtzer jarri zala, eta ea orain zergatik artan asten zan. Baña Tobias erregeari baño Jainkoari bildurrago zitzaion, eta aien esanak kontuan artu gabe, gizon illa illunabarrean lurpetu zuen: eta gero ere lanbide berean jardun zuen, katibuen kontra berriro jaikitako esesi edo persekuzioak galtzen zituen gorputz-illakin.

Goiz batean illak lurpetzen txit nekatua etxeratuta, pareta baten babesean atsedeten zegoala loak-artu zuen, eta gañeronz zegoan enadakabi batetik zirin berri apur bat begietan sartu eta itsututa utzi zuen. Jainkoak neke berri au bialdu nai izan zion aren eramanean zenbaterañoakoa zan ikusteko, beste denbora batean Jobena bezala. Tobias, bada, arkitu zan izaerarik negargarrienean eta besteri egin oi ziozkan mesedeak, berak artzeko premian. Ezer gabe, nola irabazi etzuela eta osotoro itsutua zegoan, eta ala ere Jaunaren kontra etzuen itzik egiten, eta neke guziak aren izenean artzen zituen.

Aideak asi zitzaiozkan gaizki-esaka, eta utzi zuten baztertua, eta aren galderik ere egiten etzutela; eta Tobias jarri zan Ana bere emazteak eunetan ateratzen zuen irabazi piskaren begira, jateko. Gisa onetan iru urte zeramazkien, eta bein batean emazteak bere lanaren truke edo erosita edo norbaitek mesedez emandako antxume bat bizirik etxera eramanean zuen. Tobiasek antxumearen beeka-otsak aditu zuenean emazteari esan zion begira zezala antxume hura ostua ote zan, eta jabeari itzultzeko ala izan ezkeri; bada, gauza osturik etzezaketela jan. Anak arterañoakoa nekeak onean eramanean bazituen ere, orain neurria gañeztu zitzaion, eta senarrari asko lotsagabekeriarekin eraso zion.

Tobiasek ikusirik emaztea ere besteen antzean asi zitzaioala gaizki-esaka eta eginbide zuzenaren kontra itzegiten, negarrari eman zion eta



Jaunari eskatu zion, arren, Jaunaren kontrako ainbeste gauza ez ikustea-gatik mundutik kendu zezala.

Egun onetan berean, eta andik urrean Rajes-en bizi zan Rakelen alaba Sara zeritzanari naigabe andi bat gertatu zitzaion. Sara onek zazpi senar, bat-beraren urrena, izan zituen; baña Asmodeo deabruak zazpiak il ziozkan, berari ukitu baño lenago. Aitaren neskame batek senarraren iltze onekin arpegian eman zion, aditzera emanaz, senar gabe bere gaizto-izanagatik geratu zala. Sarak zorrotz artu zuen eta erreprentio gogor bat eman zion; baña neskameak lotsagabe geiagorekin erantzun zion: Ez al dizugu, arren, seme edo alabarik sekulan ikusiko, senar-iltzalle orri. Neskamearen lotsa galduko itz oiek Sarari naigabe andia eman zioten, eta etxeko gela ezkutu batean iru egun eta iru gau egin zituen, ezer jan eta ez edan gabe, Jaunari eskatzen, arren, lotsabide artatik berrizko kendu zezala: au da, ondorengo bat izateko modua egin zezala, eta mesede au konbeni ez bazitzaion, mundutik eraman zezala; lan au aren eskuetan uzten ziola; bada, lenagoko senarrak ere etzituela aragiari begiratuta artu, ezpada beraren serbitzorako.

Jainkoak Tobiasen eta Sararen eskariak denbora bat-berean aditu zituen: eta Tobiasek au ezaguturik, bereala il bear zalakoan, Tobias semea beregana erakarri zuen, eta guraso jainkozko batek eman ditzazkiokean ondo esanik obenak eman ziozkan: erakutsi zion, aita ilda, onen gorpuztarekin zer egin bear zuen, zer bere amarekin, eta gañerako Jainkoaren bidean ibiltzeko egin bear zuen guzi-guzia. Atzenezan esan zion, semea oraindik gartzetxo zala, Rajesen bizi zan Gabelori diru batzuek eman ziozkala, eta Rajesera joanda, artzeko.

Semeak eman zuen aita agindu guzia egiteko itza; baña esan zion etzuela Gabelo ezagutzen; Gabelok ere ez Tobias, eta biderik ere etziekiela. Guziaz ere aitaren esana egiteagatik, Rajeserantz abiatu zan. Bidean jarrita, laster topatu zuen galai eder bat, bideantea zirudiena, eta diosala egiñik, galdetu zion ea nondik zetorren. Israelko semeetatik, galaiak erantzun zion. Medos-erantzoko bidea badakizu? Bai, galaiak erantzun zion. Bide oriek askotan ibilli ditut; Rajesen gure senide Gabeloren etxean egon izandu naiz. Tobiasek esan zion: Piska bat itxozu beni oiek nere aitari eman artean. Aitak bereala semea itzuli zuen galaiari eskatzera aren etxera joan zedilla. Galai gaztigu oiekin Tobiasi aurkeztu zitzaionean, esan zion: Atsegiñetan beti izan zaitezela. Zer atsegin izan dezaket, Tobias aitak erantzun zion, itxututa nagoan eta zeruko argia ikusten ez dedan onek? Biotz on, galaiak esan zion; bada, Jainkoak laster sendatuko zaitu. Tobiasek eskatu zion aren semeari, arren, kontu egin eta

Gabeloren etxera-bidea erakusteko. Galaiak baietzkoa eman zion, eta biderako anoia edo jana prestaturik, biak abiatu ziran.

Amak ikusi zuenean semea bidean jartzen, negarrari eman zion, eta senarrari asi zitzaion esaten, naiago zuela diru hura sekulan ikusi izan ez balu; beintzat, semea begietan beti idukiko zutela eta neke guziak onekin aztuko zitzaieztela, eta orain semea joatearekin poz gabe geratzen zirala. Senarrak emaztea ondo-esanaz isildu zuen, eta ondo itzuliko zan uste oso-betea eman zion.

Tobias eta bere laguna lenengo egunean Tigrisko ibaiera alderatu ziranean, Tobias asi zan oñak urean garbitzen, eta arrai izugarri batek eraso zion, iretsi naiez. Tobiasek deadarrari eman zion, laguntza eske. Lagunak esan zion egatsetik elduta, leonera atera zezala. Tobiasek ala egin zuen, eta arraia bereala il zan. Orduan lagunak esan zion biotza, beazuna eta gibela ateratzeko, eta noizbait ondo etorriko zitzaiozkala zenbat miñan sendatzeko. Aragi zati bat en zuten bereala jateko, eta gañerako gaziturik artu zuten biderako.

Sartu ziranean Rajes zeritzan erri, ez Gabelo bizi zanean, ezpada izen bereko beste batean, Tobiasek lagunari galdetu zion ea gau hura non egin nai zuen. Lagunak erantzun zion, erri artan bizi zala Rakel zeritzan gizon Tobiasen tribu eta odolekoa; onek Sara zeritzan alaba bakarra zuela, gizonetzko edo beste emakumerik gabe, eta onen izan guziak legez Tobiasi zegozkiola, eta Sararekin ezkondu zedilla. Aitari alaba eskatzen bazion, etziola ukatuko.

Tobias lagunaren itzketa onekin ikaratu zan, eta erantzun zion aditu izan zuela emakume ark zazpi senar bat-banaka artu eta zazpiak deabruak il ziozkala, eta berari ere au bera gertatzeaz bildur zala; eta onela gertatu ezker, gurasoak, beste semerik etzutelako, naigabe andia artu eta zarzaro negarrezkoaren begira jarriko zirala. Orduan lagunak erantzun zion etzuela zer bildur izan: Jainkoaren bildurrean ezkontzen ziranetan deabruak etzezakeala gaitzik egin, eta lenagoko zazpi senar aiek patu hura izan zutela aragiaren gurari gaiztoakgatik ezkondu ziralak.

Tobiasek lagunaren ondo-esan oiek aditurik, Rakelen etxera biak joan ziran. Rakelek txit begitarte ona egin zien: elkarri aditzera eman zioten nor ziran, eta Rakelek Tobias bere aidea zala ezagutu zuenean laz-tandu zuen. Bereala afari on bat maneacrazo zuen; baña Tobias etzan maican jarri nai izan, esanaz, etxe artan etzuela ez jan eta ez edango, alik eta Rakelek Sara emaztetzat agintzen zion artean. Eskaera onek Rakel izutu zuen, zeren bere alabaren beste zazpi senarrai gertatua gogoan zeukan: baña Tobiasen lagunak esan zionean aren alabaren senartzat



Jainkoak hura zeukala autua, eta ez besterik, jarri zan emateko. Tobias eta Sara bereala ezkondu ziran, eta aideagatik ipiñitako afaria, eztaifari biurtu zan. Ezkontza guziak ontzat artu zuten, eta lan artan Jainkoaren eskua zebillela aitortu zuten. Tobias eta Sara ezkonberriak, lagunak lenda naz esana zeukan bezala, elkar-artu eta lenengo iru gauak igaro zituzten otoitzean eta ezkontza ona izateko grazia eta mesedea Jainkoari eskatzen. Zer ikasbide ederra zenbat kristau jentillen gisan ezkondu eta bizi diranentzat! Rakel eta bere emazteak biaramonean zer aditu bear zuten bildurrez, Tobias eta Sararen gelara serbitzari bati begiraerazo zioten, eta biak lo zetzatelako albistarekin pozturik Jaunari eskerrak eman ziozkaten, zeren lengo zazpi senarren patua Tobiasek izan etzuen.

Tobias ait-amagiarrabaen etxean txit ondo ikusia eta maitetua zegoan; baña bere ait-amak ere gogoratzen zitzaiozkan, eta ezagutzen zuen aren itzulerari luzeiritzirik neketa egongo zirala, eta kezka min onetatik atera nai zituen.

Oraindik egin gabe zeukan bidean ipiñierazo zuen lanbide nagusia, zeña zan Gabeloren dirua beretzea; eta au egiteagatik laguna, bideko prestamenak emanik, Gabelogana bialdu zuen; diruak artu eta Gabelori bere agiri itzuli zion; Tobiasen ezkontza eta gañerako gertaera guziak esan ziozkan, eta laguna eta Gabelo biurtu ziran, eztaifari ondoak oraindik zirautela. Gabelok ikusi zuenean bere ongille Tobias zarraren seme Tobias gaztea, laztandu zuen, eta negar-malkoak zeriozkala Jainkoa adoratu zuen, eta ezkonberriak bedekinkatu zituen, ondore luze-luzea opa ziela.

Tobias gaztea bildur zan bezala, bere ait-amak kezka askorekin zeuden, semearen etorrerari luzeiritzita. Semea ageri etzanean, negar egiten zuten. Aitak beregan zion: Zergatik nere semea ez ote dator? Ama gaxoak berriz: Ai ene semea! deadar egiten zuen. Zertako bialdu zindugun erromes baten gisan, gure begien argia, gure zarzaroko laguntza, gure bizitzaren pozgarria eta gure ondorearen ustea? Ez ginizun, ez, utzi bear, gugandik aldegiten! Tobias beti eraman andiko eta neke guziak Jaunaren eskukotzat artzen zituena, jarri zan emaztea poztutzen, esanaz, etzedilla estutu; semea ondo zala, lagun ona eraman zuela; baña ama ezin alaiturik, bazterrik bazter zebillen, semea noiz agertuko zitzaion begira.

Bitartean Tobias gaztea eta Sara prestatu ziran bideari ekiteko. Rakelek bere izan guzien erdia eman zien, eta ait-amak alaba maitea laztandurik, utzi zioten senarrarekin joaten, esanaz, ait-amagiarrabak onratu zitzaela, senarra maite izan zezala, etxeakoak zuzen azi zitzaela, etxea zintzo eraendu zezala eta gauza guziak barruko kezka gabe egin zitzaela.

Ezkonberriak beren lagun, serbitzari, abere eta beste gauza guziak irten ziran, eta bide zati bat egin zutenean, lagunak Tobiasi esan zion: Badakizu zer gisatan zure aita utzi zenduen. Ondo baderitzazu aurrera goazen, eta emaztea, morroi-neskameak eta gañerakoak ondoren donarioroz etorriko dira. Bidean biak zijoazela, Tobiasi esan zion: Etxean sartzen zeranean, zure Jainkoa adoratu dezue, eskerrak emanaz; zerekin daramazun arrai-beazunarekin aitari begiak igortzi zaiozkazu eta argituko zaiozka.

Tobiasen ama mendi-tontor batean zegoan, semeak eramandako bideron begira, eta nekez bederik, ikusi zituenean bi gizon Niniberon zetozenak, gogoak eman zion semea eta laguna izango zirala. Geiagoko gabe joan zitzaion senarrari berri ematera, eta ama orduko txakurra sartu zan, eta nagusi zarrari itsatsarekin palaoka asi zitzaion. Onetan zeudela, Tobias eta laguna sartu ziran; Jainkoa adoratu zuten; semeak aitari begiak beazunarekin igortzi ziozkan eta argitu zitzaiozkan, eta bere semea lenengo ikusi zuen. Bereala berak eta an baturik zeuden aide eta adiskide guziak Jaunari eskerrak eman ziozkaten.

Tobias gazteak zearo eta bat-banaka esan ziezten etxetik irten zaneetik itzuli arteraño lagunak egindako mesede guziak eta miragarriak, eta poz onetan zeudela, zazpigarren egunean Sara bere serbitzari, abere eta gauza guziakin osasun onean iritsi zan. Sarak zer begitarte izan zuen eza gutzeko ez da esatea baizik, Jainkoak Tobiasen emaztetzat autua zeukan bati zegokiona egin ziotela. Aide eta adiskideak elkarrekin zazpi egun igaro zituzten Jainkoagandik artutako mesedeen pozean, eta bitarte onetan Tobiasen laguna ere an egon zan, guzien buru egiten zuela: baña oni, bere lanak eginda, aldegin bearra etorri zitzaion.

Orduan Tobias aitak semeari bazterrerara otsegiñik, esan zion ea lagun on ari zer emango zioten. Aitak ez ezik semeak ere etziekien galaiak egindako mesedeak zerekin saristatu. Zerekin bere mesedeak ordaindu? semeak zion. Berak osasunarekin eraman eta ekarri nau; berak Gabeloren dirua eskuratu ziran; berak emaztea eratu dit; berak onen etxetik deabrua aienatu du eta gurasoak poztu ditu; berak arraiaren ortzaginetatik gorde ninduen; berak zuri, ene aita, begiak argitu dizkizu; eta berak ondasun andien jabe egin gaitu. Zer ordain eman dizaiokegu? Ekarririk ditugun gauza guzien erdia eskeri dizaiogun. Semeak itzaldi au eginda, beretaronz otsegin eta esan zioten gauza aiek, arren, artu zitzaela.

Galaiak isillik belarrira erantzun zien: Zeruetako Jauna gizonen aurrean bedekinkatu eta alabatu ezazute, zeren errukitu zaituzten. Gero esan zien Tobias zarraren errukizko lanak Jainkoak zein ontzat artu



zituen; eta neke oiek izan zituela zenbaterañoako eramana zuen ikusteko. Jainkoak bialdua zala hura sendatzera eta ikusi zituzten gauzak egitera. Atzanean esan zien: Ni Rafael Aingerua naiz. Itz oiek aditu zituztenean, aita-semeak izaturik, auzpeztu ziran; eta Aingerua «Pakea zuekin» esanda ezkutatu zitzairen, eta etzuten geiago ikusi.

Tobias zarra gero ere beste berrogeita bi urtean bizi izan zan, betiko lan onak egiten eta Jainkoaren bildurti. Bere semearen humeak ikusi zituen; eta ezagutu zuenean bere laster il-bearra, bere ondora guziaz deitu eta aditzera eman zien mundutik bazijoala. Esan zien Jainkoa ondo serbitzeko zer egin; esan zien Niniberi ondarena bere gaiztakeriakgatik bazetorkiola, eta ama iltzen zanean, aitaren ondoan lurra eman, eta bazter aietatik iges egin zezatela. Au esan eta bereala Tobias il zan, eunda bi urtekoa. Emazte Ana ere denbora gitxiren buruan il zan.

Tobias gazteak, eriotzako orduan aitak esana gogoan zeukala, ama il zitzaionean, Sara eta ondorengo guziak arturik ait-amagiarraben etxera Rajesera joan zan, non elkar maitetuaz eta atsegin andian urte batzuek igaro zituzten; eta larogeita emeretz urteetan il zan, bizitzan izan zan bezain Jainkoaren bildur andikoa. Ondore luze eta ona utzi zuen; eta bere ontasun eta doai ederrai zegokien eran lurpetu zuten.

Jainkoaren zein gogokoak ziran Tobiasen illak-lurpetze eta beste barrak! Jabe andi ari ezer ere oartzaka ez dijoakio: ez du ezer ere ordain gabe uzten. Tobias izaerarik samiñenean jarri zan; baña atzenerako gauza guziak oneratu zitzaiozkan eta bizitzarik doatsuenean arkitu zan.

## 2. Judit

Eskritura Santan Tobiasen bizitzari Juditena darraikio; beragatik emen zerbaít zearo ezarri nai det, esanaz asiera nondik izan zuen. Medoarren errege Arfaxad-ek bazter andiak menderatu eta egin zuen uri eder bat, Ekatanes zeritzana. Oraindañoakoakin aren biotza etzan ase, eta Niniben Asiriako errege Nabukodonosor-i eraso zion, hura onek benzutu eta il zuen, eta aren mendeko erri guziak beretu zituen. Garaipen onekin Nabukodonosor arroturik, artu zituen auzo guziak bere eskupera ekartzeko asmoak. Bere soldaduen buru nagusi Holofernesi otsegin eta esan zion gogoak ematen ziola bazter guziak beretu, guzien nagusi jarri eta bera besterik jainkotzat ez ezagutzea, eta agindu zion soldadu-talde andi baten buruan jarri zedilla. Holofernesek arturik eunda ogei milla

gizon oñezko eta amabi milla zaldizko, bear ziran gerrako iminzio eta gauza guziakin, bere lanbidean abiatu zan. Alderdi andiak eta probinzia osoak menderatu zituen; gaztelu askoren jabe egin zan, eta zebillen leku guzian ondarena ereintzen zuen, erregeak agindu bezala.

Judarrak eta Israelen gelditutako ondarrak izutu ziran ain etsai gogorra eta gaiztoa alderatzen ikusita, zeren ezagutzen zuten, baldin Jerusalem sartzan bazan, Jainko egiazkoaren Eliza ondatuko zuela, Nabukodonosor bakarrik jainkotzat ezagutzeko. Eliazin apaiz nagusiak aide guzietara mandatariak bialdu zituen, nor bere aldetik Jainkoari eskatzeko esatera; eta gaztigatu zuen, Holofernes sartu zitekean aldeko gañ guziak artu zitatzela. Holofernes, prestamen oien berriarekin, jarri zan su eta gar zeriola, eta Moab eta Ammango agintari guziaz deiturik, galdetu zien ea hura zer jende zan, ari gogor egiteko. Akior amontarren agintariak erantzun zion, esanaz israeltarrak zer ziran; Egiptotik asita, geroz Jainkoak oien aide eta onean egindako mirariak; Jainkoarekin ondo zeuden aldietan, irabazi izan zituzten garaipen andiak; eta gañerako Israeli gertatutako guzia. Atzanean esan zion, baldin jende hura bere Jainkoarekin ondo ez bazegoan, menderatuko zituela; bestela, alperrik erasotzea zala: etzuela ezer egingo.

Akior-en itzketa au Holofernes eta beste agintariak etzitzaien ondo erori; bereala il nai izan zuten; baña bizirik utzi zioten, gero israeltarrakin batean aien usteetan il zedin: onetarako Betuliaron z eramanik, zuaítz bati lotuta utzi zuten, israeltarrak zetozenean, eraman zezaten. Oiek gizon hura gisa artan lotua ikusi zutenean, Betuliera eraman zuten eta Holofernesekin zer gertatu zitzaion esan zien. Jende guziak Akior-i txit begitarte ona egin zion, eta poztu zuten, esanaz aien Jainko egiazkoak aiekin batean gordeko zuela.

Holofernesek Betulia setiatu zuen eta ur-bide guziak itxi ziozkan, barrungoak egarriak ito zitzan. Ogei egunean gordeta zeuzkaten urak urritu ziran, eta urikoak Ozias beren nagusiari esan zioten obe zutela Holofernesen eskuetan jarri, berak, beren emazte eta humeak, egarriak itotzen ikusi baño. Oziasek erantzun zien Jainkoagan uste osoa ipiñi zezatela, eta esturasun latz artatik berak aterako zituela. Beste bost egunean, esan zien, itxedon ezazute, eta bitartean laguntzarik iñondik ez badator, zuek diozutena egingo da.

Betulian bizi zan emakume alargun txit aberats eta arpegi ederreko bat, *Judit* zeritzana. Iru une eta erdi zeramazkien alargunduta, etxeko leku bakar batean, bere neskameakin baizik itzezin gabe bizi zala. Jaiak ez beste egun guzietan barautzen zuen; gorputza zatitzen zuen; gerria zur-



dazko soka latzakin lotzen zuen, eta Jainkoaren bildur andian bizi zan, ezertan ere maixiatzeko eta gaizki-esateko biderik eman gabe, guziak begirune ona ziotela. Emakume onen belarrietara zan, bost egunen barruan laguntzarik ez bazetorkien, uria Holofernesen eskuetan ipintzeko Oziasek eman zuen itza. Erriko zar edo buru Kabri eta Karmi-ri deiturik, esan zien: Zertako Oziasek eman du asiriarren eskuetan erria ipintzeko itza, bost egunen barruan laguntzarik ez badator? Zuek zer zerate Jauna tentatzeko? Jaunaren errukia neurtzea zuen egitekoa ez da. Ar ezazute, bada, gaizki-egin onen damua; eta Jaunari bere laguntza eta errukimantua eskatu dizaiogun. Bekatariak gera, eta gure bekatuak esturasun au ekarri digute. Oiek eta onelako beste esan askorekin, aien biotzak lasatu zituen, eta Jainkoak laguntzeko ustea eman zien, baldin umiltzen bazitzaiozkan.

Bere itzaldia Juditek egiterako, Ozias ere sartu zan, eta onek eta gañerakoak esan zioten txit ondo mintzatu zala; baziekitelera zein emakume ona eta Jainkoaren bildurtia zan, eta Jaunari, arren, oiekgatik eskatzeko. Juditek esan zien erritik bazijoala; baña etzitezela ibilli galdez zer egin asmo zuen, eta Jaunari erregutzeko gogoan zerabillena ondo irten zekion.

Ozias eta bere lagunak irten ziranean Judit auzpezturik, jarri zan Jaunari erregutzen. Bere otoitz-aldia egindakoa, soñekorik ederrena janzi, illea poliki txirikordatu, burua apaindu, belarrietakoak eta eskumurturretakoak ipiñi eta jarri zan al zuen ederrena; eta neskamea jan-gauza batzuekin arturik, Betuliatik egunsentian irten zan, bere edertasunak zekusten guziak arritzen zituela. Holofernesen soldadu erriaren urrenena zeudenak bereala artu zuten, eta galdeturik nondik zetorren edo noron zijoan, erantzun zien aien agintariari arpegiz arpegi itzegin nai ziola zenbat gauza isill agertzeko. Holofernesi eraman zioten, eta onen aurrean jarri zanean, agur andi bat eginda, esan zion bere erritarrak utzita zijoala, beren bekatuakin Jainkoa aserretu zutelako, eta Jainkoak bialdua zala ari zenbat gauza isill agertzeko. Oiek itz estaliakin esan ziozkan: baña Holofernes Juditen edertasun eta itzketa argiarekin lilluraturik, etzuen gaitz-pensatu; eta agindu zuen, bere gelarik obenera eraman eta Holofernes beraren maietik jaten emateko. Juditek esan zion ango janariak ezin artu zitzakeala: zer-jana berekin zuela, eta ez artara beartzeko. Eta dakarzkizun jan-gauza oriek aitzen bazazkitzu, zer egingo dezu? Holofernesek esan zion. Ez orrelakorik, ez; dakarzkidanak jan baña lenago, Jainkoak nik asmo dedana nere eskuz egingo du, erantzun zion.

Juditek Holofernesi eskatu zion bere Jainkoari otoitz egitera kanpora irteteko baimena. Onekin illundutakoan Betuliako ibarrera joanda, arpegi, esku eta oñak garbitzen zituen, eta Jaunari eskatzen zion bere asmoan ondo irteteko mesedea. Gero gelara itzuli eta etzan, berriez, urrengo gaueraño irteten.

Laugarren egunean Holofernesek adiskideai afari andi bat eman zien, eta Judit ere maiean zegoan; baña etzuen ezer ere, neskameak ematen ziona baizik, artu. Holofernesek, Judit aurrean zeukalako pozean, iñoiz ere baño geiago jan eta edan zuen eta osotoro orditurik, oera bes-tek eraman bear izan zuen. Adiskideak ere maietik erdi-ordituak jaiki eta nor bere etzantzara joan ziran. Judit Holofernesen gelan sartu zan, eta biak bakar-bakarrik utzita, morroiak atea itxi zuen. Juditek neskamea esana zeukan gelako ate ondoan kontuan egoteko; eta igerrri zionean ordurik obena zala, lenengotik gogoan zerabillen eta Jainkoarekin bakarrik jo zuen lanbide andia egiteko, begiak zeruronz jaso zituen, eta mal-koak zeriozkala, bere biotzean Jaunari esan zion: Israelko Jaun eta Jainkoa, indarra indazu eta Jerusalemgo zure erria libratzeko nere eskuak egitera dijoazen lan oni begira zaiozu. Au esan eta ilzetik zinzilika zegoan Holofernesen ezpata esku batean arturik eta buruko illeetatik bestearekin eldurik, bi kolpetan lepoa ebaki zion. Gorputza zorura bota, eta buruarekin gelatik irten zan; ate ondoan zelatan zegoan neskameari zakura eman zion; eta biak lenagoko iru gauetan joandako bidean joan ziran, bere otoitz-aldia egiteko aitzakitan. Betuliako atetara eldu ziran, zer eginda zijoazen asiriarrak oartu gabe; eta atean zeuden soldaduai otsegin zien: Ateak idiki itzatzute, zeren Jainkoa gurekin degun eta bere esku altsua Israelen aide agertu duen. Bereala erriko buruai gaztigatu zieten Judit atean zegoala. Otsa barreatu zan eta jende guzia zuzi-argitan joan zitzaion ikustera. Errian sartu zan eta leku goitu batetik itzegin zien, esanaz, Jauna alabatu zezatela egin zien mesede andiatatik. Gaur arratsean, zion, bere erriaren etsaia nere eskuz il du; eta burua zakutik aterarik, esan zien: Ara emen Holofernesen burua. Lanbide andi au egin det Jainkoak lagundu didalako, nere gorputza ezerekin ere loitu gabe. Eskerak, bada, berari eman zaiozkazute, zeren errukiz begiratu dizuten.

Akiorekarri zuten eta Juditek esan zion: Jakoben Jainko, bere erriaren etsaia ondatuko zituela esan zenduen ark, gaur arratsean nere eskuz sinits-gogor guziaz burua ebaki die, eta egia diodala dakusun, ara emen Israelko Jainkoa ezertan etzeukan eta zu il nai izan zinduen Holofernes arroaren burua. Akiorek, ikaraturik, lur-jo zuen, eta berera zanean, Juditi oñetan auzpez jarri zitzaion eta alabatu zuen. Bereala jain-



ko gezurrezko guziak utzita, egiazko bakarra aitortu zuen. eta geroz Israel leialtasun andiarekin serbitu zuen.

Juditek bein asitako lana bere bidean eramateko, esan zien prestatu zitezela biaramonean goiz asiriarrak, zeuden tokian, Holofernes illa ikusita, bere ordekoa ipintzeko lekuri eman gabe erasotzeko. Ala egin zuten, eta Juditek esan bezala, eguzkia argitzerako prestatu ziran. Armatots eta iskanbilla andian erititik irtenda asiriarrak soldaduak ikusi zituztenean beretaronz zijozkiela, agintarien eske itsumustuan abiatu ziran. Holofernesen gela aurrera joan ziran; otsegiten zuten, beste gauzarik bezala, zeren esnatzea debekatuta zeukaten; baña ezeren zantzurik etzan: etsi zutenean etzala irteten eta etsaia aurreratzen zala, Holofernesen morroia etzauntzan sar erazo zuten; oiera begiratu zuen, eta ezer ikusten etzueanean, belarria ipiñi zion asnasa-otsik ote zan; baña etzan aditzen. Atzueanean burtina edo kortina kenduta, nagusia lurrean lepo-moztua zetzala ikusi zuenean, negarrari eman zion. Juditen gelara begiratu zuen eta ezer topatu etzueanean deadarka irten zan, eta aditzera eman zien Holofernes Israelko emakume ark ilda utzi zuela.

Berri mingarri onekin asiriarrak, zegoana zegoan lekuan utzita, asnas-bakarrean beren errironz igesi joan ziran. Israeltarrak ere asiriarren etzauntzaetan sartu ziran, ondoren jarraitu zitzaiezen, eskuratzen zituzten guziak illaz, eta gañean zeukaten gorra gogor ondagarria gauetik goizera bukatu zuten. Asiriarren etzauntzaetan ondasun andiak artu zituzten. Holofernes berarenak Juditi eman ziozkaten, eta egun askoan erabilli zuten noraño altxatu etzietela. Gero Jerusalemara Jaunari eskerrak ematera joan ziran, eta Elizari eskuerautsi andiak egin ziozkaten. Holofernesi artuak Juditek Elizari utzi ziozkan; eta guziak nor bere etxera pake gozoan itzuli ziran.

Judit ere bere bakarrera joan zan, eta geroz len-lenagoko eran Jainkoaren serbitzo onean beti bizi izan zan, neskameakin baizik itzegin gabe. Jai-egunetan bakarrik leku agirikora agertzen zan, artara beartzen zutelako, jendeak ikusi zezan. Onela bizitu, eta eunda bost urtekoa il zan. Erregeai zegokien progua eginda, ondoren lurpetua izan zan. Emakume andi onek Israeli pakea eratu zion, eta luzaro etzion iñork zer egiñik eman.

## OGEITA SEIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Amon, amabostgarren Erregea

Tobias eta Juditen bizitza eta mirari andien aitamena egiteagatik utzi genduen Judako Erregeen sallari, orain garraizkion. Amon, amabostgarrena, bere aita Manases ilda sartu zan. Amon txit biurria izan zan, eta lenagokoak egindako gaiztakeria guzietan erori zan, eta Jainkoak mundutik kendu zuen, bi une bakarrik erregetzan eginda, bere bekatuen damurik, aitak bezala, artutako siñale gabe.

### 2. Josias amaseigarren Erregea

Josias zortzi urteko semea Amonek bere aulkian utzi zuen, eta ogeita amaika urtean agindu zuen, Jainkoaren bidetik beñere aldegin gabe. Irureun urtez lenago, Israelko lenengo errege Jeroboanen bizitzan aitatu zan bezala, esana zegoan, Dabiden etxean jaioko zala *Josias* zeritzan bat, bere denboran lan andiak egingo zituena; eta etzuen gezurtatu.

Erregetzan sartu zanean, oraindik gaztea bazan ere, Jainkoa ondo serbitu naia laster agertu men. Judako erreinuan ezagutzen ziran idolo edo jainko gezurrezko guziak kendu, oiek adoratzeko erabilli oi zituzten ontziak puskatu, aldareak porrokatu, eta oietan inzensua eskeitzen zuten apaizak aldare gañean ipiñita erre zituen. Idoloen onran utzitako baso eta zuaiztiak ebaki eta kiskaldu zituen. Idoloen aldeko gauzarik txikiena ere egitea debekatu zuen. Jerusalemgo Eliza garbitu, arterañoeko errege gaizto guziak egindako okerrak orbaindu eta Judako erreinua, Jainko egiazkoa baizik ezagutzen etzuela, txit oñ onean ipiñi zuen. Gero Israelen ere, katibutasunera joan gabe gelditutako banaka eta ondarrakin lanbide oiek guziak egin zituen: bada, legez eta bidez aien errege zan aldetik, biotzik obenarekin begiratu zien, eta Jainkoa serbitzeko bide zuzenean ipiñi zituen.

Josiasen gogoa etzan onenbesterekin bete. Juda eta Israelko jende andiak Jerusalemen bildurik, egun askoan egin zuen Pazkoako pesta, lenagoko erregeak iñoiz ere egin izan zuten andiena. Lanbide oiek guziak



pozik andienarekin egiten zebillela, Jainkoak Holda Profetizaren bitartez adierazo zion Juda eta Israelen gañera gaitz andiak eta kastigu mingarriak erori bear zirala, beren gaitzakeriak onela merezi zutelako; ez, ordea, Josias bizi zan artean; bada, bere ontasun eta doai ederrakgatik pakean utziko ziola.

Josiasek agintean ogeita amaika une zeramazkien, ustez-ustegabeko il-bearra etorri zitzaionean. Ara nola. Nekao Egiptoko erregeak Nabukodonosor Asiriakoari gerra eman zion. Nekaok Nabukodonosorgana biderik galdu gabe, zuzen joateagatik, Josiasen lurretik ibiltzeko asmoa artu zuen; baña Josias etzeritzan utzi zizaiokeala, zeren, ez batarekin, eta ez bestearekin zuen zer egiñik; eta bestetik bildur zan, Nekaori leku eman ezker, Nabukodonosor aserretuko zitzaiola, eta kalte andiak etorri ere bai. Prestatu zan bada, Nekaori gogor egiteko, baldin bere lurrean sartzen asitzen bazitzaion. Nekaoren gaztigua ezertan artu gabe, Josiasek bere soldaduakin Majedo-ko zelaietan eraso zion, eta gezia edo fletxa batek jo eta bereala il zan. Eriotza onek judar guziaz min andia eman zien, eta progu ederrak egiñik, Jerusalemen lurpetu zuten. Josias zein ona eta jainkozkoa zan jakiteko ez daukagu aditu baizik Espiritu Santuak zer dion: Josias baño lenago, dio, ez da izan oni zirudien erregerik, eta Jainkoagana biotz guziarekin, anima guziarekin eta indar guziakin jarririk, eta Moisesen legea onek bezala gorde zuenik, eta geroz ere bere parekorik etzuen izan. Argatik ainbeste negar egin zioten, eta areagoak egingo ziozkaten, bere eriotzak zer gaitz eta kalteak zekarzkien jakin izan balute.

### 3. Joakaz, amazpigarren Erregea

Josiasek lau seme utzi zituen: Joanan, Joakin, Sedezias eta Joakaz. Arteraño ikusi zanez, erregetza Joanan seme zarrenari zegokion; baña erreinuko andizki eta buruak Joakaz gazteenari begia ezarri zioten, nai zutena egiteko eskurakoiagoa izango zan ustea artuta; eta aitaren aulkian ipiñi zuten. Erregetzan igarotako iru illabeteetan etzuen okerra baizik egin, mesedegille biurri aien gurariai zerraikiela.

Nekao Egiptoko erregeak, Majedoko eraso ezker, nai zuena egin bere eskuan zeukanak bezala, bide gabe errege egin zalako aitzakitan, gaztigatu zion bere-bereala aurkeztu zekiola. Joakaz joan zitzaion, eta katez ondo loturik Egiptora eraman zuten, eta etzan Judara geiago itzuli.

### 4. Joakin, emezortzigarren Erregea

Nekao gero Jerusalemenera joan zan, bere etxera baño eragozpen gei-go gabe, zeren nai guzia egiteko eran zegoan, eta Josias aita eta Joakaz anaiaren lekuan, Joakin seme bigarrena ipiñi zuen, eta etzion iñork itzik atera. Judako erreinuari dirutza andi bat eskatu zion; eta au arturik, Egiptora itzuli zan.

Joakinek, erregetu zanean, ogeita bost urte zituen. Berez txit maku-rra eta oitura gaiztoetakoa zan, eta bereala asi zan, bere len-lenagokoan antzean, gaitzakeria eta gaitzakeria egiten. Idoloen adorazioa erreinu guzian zabaldu zuen, eta iñork itzik trukatu edo ezer esaten bazion, nekepenarik gogorrenak eman eta ilerazotzen zituen. Profetak otsegiten zioten erreinuari zer kastigu latzak zetozkion baldin bekatuan baziarduten; baña ots oiei sor eta gor egiten zitzairen. Beste askoren artean Urias profeta il zuen, onekin gañerakoak ikaratu eta isillduko ziralakoa; baña bataren lekuan bestea agertzen zitzaion egiak esatera.

### 5. Jeremias profeta

Berri-emalle oien artean lenengo lekua merezi duena, Jeremias izan zan. Profeta andi onek Jaunaren mandataritza Josiasen denboran asi zuen, eta errege on oni asko lagundu zion. Urias il zutenean berriro agertu zan, eta Jainkoaren izenean adierazo zuen Juda eta Judakoai kastigu andi eta latzak zetozkiela, baldin ondu eta Jaunaren esanera jartzen ez baziran; baña bekatuai utzi ezker, Jaunaren eskua atzeratuko zutela. Profeta gezurti eta zenbait apaiz gaizto oska irten ziran, esanaz, Jeremias, iltzea merezi zuen gizon bat zala. Erreinuko buru edo prinzipeak artu zuten; baña ezaguturik Jaunaren izenean itzegiten zuela, etzioten gaitzik egin. Iru urte igaro zituen gaztigu ikaragarriak ematen; baña alperrik: Joakin erregea eta bere mendeakoak egunetik egunera zihoazen gaitzotzen. Jainkoak, egia aditzeko judarren gogortasuna ikusita, erabaki zuen kati-butasun latz batekin kastigatzea, eta onetarako Nabukodonosor Babiloniako erregea autu zuen.

Errege onen eta Egiptokoaren arteko despita aspaldian zirauten: biak indar andien jabe ziran, eta elkar ezin-ikusi gogorra zeukaten. Juda





bien erdian zegoan. Joakin emengo erregea len egindako pake eta elkartasunagatik Egiptokoaren erdi-mendean edo zordun arkitzen zan. Nabukodonosor-ek anaiatasun au ezin eraman zuen, eta kastigatu naiez, Jerusalem, Judako Erregearen bizilekuari eraso zion, eta asko nekatu gabe menderatu zuen, eta Joakin erregea eta gorteko andizki batzuek arturik Babiloniara katibu eraman, eta erregea ondo lotuta presondegi estu batean ipiñi zuen.

Jeremias etzan isiltzen judarrai otsegiten, arren, gaiztakeriai utzirik ondu zitezela, eta Jainkoaren errukia beretuko zutela: bestela, zekusten erregearen eta onen laguneren katibutasuna, asiera baizik etzala: Juda guzia ondatuko zala; eta Nabukodonosor-en morrontza gogor eta lotsagarrian irurogeita amar urte egin bearko zituztela. Baña Jeremiasen esan guziak alperrik ziran. Judarren biotzak okerrean gogortuak zeuden, profeta santuaren esanak aditzeko. Bitartean Nabukodonosor-ek Joakin erregea urte betean katibu idukita, Judara bialdu zuen, dirutza andiak ari emateko, Egiptoko Erregearekin ez berriz adiskide izateko eta beste zenbat gauza, ark aginduak, egiteko itzean. Erregea bakarrik Judara itzulita, gañerako bere lagunak Babilonian gelditu ziran, emandako itzaren segurantzarako.

Jainkoak errege biurri oni urtebeteko katibutasunarekin bear ainbat adierazten zion zer kastiguen begira zegoan ez ontzekotan; baña joan bezain gaiztoa edo gaiztoagoa itzuli zan. Jeremiasen kontra losentxiariak bereala itzezin zioten, esanaz, gizon onek jendeari itzegiteko eskua izatea konbeni etzala; nastu baizik, alabañan, etzuela egiten. Erregeak itxian sar erazo zuen, eta profeta gezurtiai onekin indar andia eman zien, eta jendea beretarazten zuten.

Gauzak onela zeudela, Jeremiasek itzezin edo predikatzeko baimen eta eskurik etzeukan ezker, bere ikasle Baruk-i liburu bat eragin zion, zeñean, maisuak erakutsita, ipiñi zituen Judari zetozkion kastigu izugarriak, baldin ez bazan ontzen. Baruki agindu zion Elizara joan, eta jendebildurik andiñean liburu irakurri zezala, guziak Jainkoaren esana aditu zezaten. Baruk, Urias profetari zer egin zioten ikusita, uzkur zegoan; baña Jeremiasek esan zionean etziotela ezer egingo, liburu guzia Elizan irakurri zuen: bereala barreatu zan zer egiak esan zituen. Erregeak liburu eramanerazo zuen, eta irakurtzen asi orduko, aditzen zuena ezin eramanaz liburu erre eta bere morroiai agindu zien Jeremias eta Baruk arrapatu eta lotu zitzatela; baña Jainkoak ezkatutu zituen, eta arkitzeko erregearen egin-alak alperrik izan ziran.

Jainkoak Jeremias agindu zion, len bezalako beste liburu bat berriro egin zezala, eta erregeari aurkezturik, esateko: Ara, zuk erre zenduen

Babiloniako Erregea onara laster etorriko dala eta guzia, gizonik eta abererik utzi gabe, ondatuko duela zion liburu. Begira, bada, Jainkoak Joakin Judako erregeagatik zer dion: Dabiden eser-lekuan jarriko dan ondorengorik ez du izango, eta bere gorputz-illa egunaz eguzkitan eta gauaz izotzetan egongo da. Gaztigu ikaragarri au erregeari eman zion ezker, Jeremiasek izan zuen jendeari egiak esateko lekua; beintzat, Eskritura santak ez digu esaten erregeak gaitzik egin zionik; baña etzioten aditzen.

Urte batzuek onela igarota, Joakin aspertu zan urteoroko dirutza eskeñia Nabukodonosor-i ematez; ukatu zion eta jarri zan gogor egiteko prest. Nabukodonosor uko onekin txit aserretu zan: baña aspaldian izan zituen gora-beerakin, etzegoan nai zuena egiteko; eta besterik ezinean, Kaldea, Siria, Moab eta Amongo zenbat litsarero bialdu zituen, zezaketen kaltea Judari egitera: eta dollor oiek guzia ondatzen zuten, lendanaz profetak Jaunaren aldetik esanik zeukaten bezala.

Erreina gisa onetan utzirik, Joakin ogeita amaika urtekoa il zan, bere bizitza gaiztoaren damu gabe, eta bere lenagokoak zetzaten lekurik merezi etzuelako, gorputz-illa zaldi, asto eta zakur ustelduen ezurtokira bota zuten.

## 6. Jekonias, emeretzigarren Erregea

Jekonias aitaren lekuan, Judako emeretzigarren errege jarri zan, eta iru illabete eta amar egunean agindu zuen. Bitarte labur onetan, aitik bezala, idoloak adoratu zituen. Jeremiasek erakutsi zion zer egin bear zuen: baña alperrik. Atzenean esan zion erbestera joan eta an ilko zala.

Joakin il zan egunetan, Nabukodonosor-ek Egiptoko Erregearekin zerabillen gerra bukatu zuen, eta arkitu zan nai guzia egiteko lenago baño era obean. Joakin aitik orañago egin zion ukoa gogoan zeukala, Jekonias semea agintean sartu zanean, soldadu-talde andi batekin Jerusalem setiatu zuen. Barrungoak gogor andirik egin gabe, erregea, bere ama, aideak, andizkiak eta serbitzariak Nabukodonosor-i barkazio eske aurkeztu zitzaizkan. Errege onek gozakaizkeria andian artu zituen. Gero Jerusalem sartu zan, eta Elizan eta errege-etxean arkitutako urte, zillar eta beste ondasun guziakin errege, bere etxeko, andizki eta gerrari guziak arturik, Babiloniara katibu eraman zituen, ezer gitxi zuten beartsuenak baizik Jerusalem utzi gabe. Bereala Judako erregetatik Jekonias ken-



duta, onen osaba Sedezias ipiñi zuen, Nabukodonosor-en mendeko izateko eta dirutan zerbait ondo emateko itzean.

## 7. Sedezias, Judako atzeneko Erregea

Sedeziasek ogeita bat urte zituen, eta amaikan agindu zuen. Bitartean, anaia Joakinek eta illoba Jekoniasek bezala, idoloak adoratu zituen Jeremiasen otsak ezertan artu gabe, eta mendekoak ere gaiztakerian buruari zerraizkion: etzan itsusikeriarik an egiten etzanik: Eliza bera ere, lotsarik gabe loitzen; zuten. Jeremias isiltzaka beti ziardun esaten Jainkoronz itzuli zitezela; bestela, galduak zirala: Babilonian katibu laster arkituko zirala; baña etzioten aditzen. Sedeziasek auzoetako erregeakin isillik adiskidetasunak egin zituen, Nabukodonosor-i gogor egiteko asmoan. Uste zuen, profeta gezurrezkoak ala erakutsita, indarrez eskuratuko zutela; eta Jeremiasek, Jainkoaren partetik esan arren etzezatela alako lanik artu: eta ala Jerusalem entzat nola Judarentzat txit kaltetsu izango zala; zetorkien jasa bildurgarria beren bekatu eta gaiztakeriak zekarkietela; Babiloniara joan eta emen irurogeita amar urte bete artean, askotan esan izan zien bezala, egin bearrean zirala, sinisten etzioten.

## 8. Ezekiel profeta

Jeremias, Jerusalem eta Judan bizi ziranai au esaten eta erakusten ziardun denboran, Ezekiel profeta ere Babilonian berebat zebillen katibu zeudenai adierazten, arren, Jainko egiazkoa serbitu zezatela, gezurrezkoai agurrik egin gabe; bestela, arkitzen ziran katibutasuna gogorrago izango zutela. Nabukodonosor-ek Jerusalem artuta, Joakin eta beste askorekin Babiloniara katibu joan zan Ezekiel, zeñari katibutasunaren bostgarren urtean Jainkoak profetaren eginkizuna eman zion. Onen bitartez, bada, bere lagunai etorkizunaren gañean itzegiten zien, Jainkoaren bildur santuan idukitzeko. Jerusalematik ere txit berri negargarriak eman ziezten, ziola, Jainkoak egindako besteri ez bezalako mesedeak ezertan artu gabe, ain lotsa gitxirekin aren aginduak autsi zituztelako kastigu ikaragarriak bialduko zituela; baña Jaunaren profeta guziak ezer etziran aien biotzak zuzentzeko, eta atzenean Jainkoaren aserrearri beren gaiztakeriak gañez eragin zioten, eta atzeneko kolpea erori zitzaizen.

Sedezias, erregetzan zeramazkien zortzigarren urtean, Babiloniako Erregearen kontra jaiki zan, auzoakin, batez ere Egiptokoarekin, egindako adiskidetasunarekin Nabukodonosor-i arpegi emateko adiña bazala sinisturik, eta urteoro eman bearra zeukan dirutza ukatu zion. Nabukodonosor-ek uste gabeko beni au artu zuenean, Judako erreinuari aide guzietatik eraso zion. Lakis eta Azeka ez, beste erri guziak artu zituen, eta oiei kontu egiteko adiña jende utzita, Jerusalem era joan eta setiatu zuen. Sedeziasek esturasun larri onetan Jeremias gaztigatu zion Jaunari, arren, aiekगतिक eskatzeko. Jeremiasek, aurkez aurke jarrita, Jainkoaren partetik erantzun zion etzuela gauza onik zer uste izan. Guziak Babiloniara katibu joan eta Jerusalem en bearrean zirala. Sedeziasek orduan bere mendekoakin batean ondu-irudi bat egin zuen, Jainkoak agindutako zenbait gauza egiñaz; baña ez biotzetik, ezpada bildurrak estututa.

## 9. Jerusalem eta Jerusalemgoen ondamena

Egiptoko Erregea abiatu zan Jerusalemgoari laguntzera, eta Nabukodonosor-ek, bidera irtenda erasorik, porrokatu eta igesi bialdu zuen. Garaipen onen ondoren bereala itzuli zan Jerusalem setiatu eta inguru guzietatik itxitzera. Bitartean, jerusalentarren lenagoko on-irudia egiazkoa izan etzala adierazo zuten; bada, etsaiak aldegin bezain laster, jolas eta jostaketari eman zitzaiozkan, berriz zer ikusirik izango etzutelakoan: Jeremias, egiak beti esaten ziezten profeta, itxian sartu eta asko neke erakutsi zioten, eta beste gaiztakeria eta oker andiak egin zituzten. Jeremiasek esaten zien: Zuei laguntzera zetozten soldaduak beren errironz itzuliko dira. Kaldearrak, berriz ere, onara badatoz, eta erri au erreko dute. Ez uste izan kaldearrak etxeronz itzuliko dirala, ez, ez; elbarri banaka batzuek ez, beste guziak ondatuko bazinituzte ere, elbarri oiek asko izango dira erri au erretezeko. Jeremiasen esan guziak zearo gertatzen ziran. Nabukodonosor-ek zenbat estutuagotu, barrungoak anbat larriago zeuden. Oien nekeak zein gogorrek ziran ezin bear adiña adierazo diteke. Erri doakabe eta zorigaitoko artan etzan gosea, egarria, gaitza, izurritea, likitskeria eta iltzea besterik ageri. Nola zeuden zerbait antz-emateko asko da esatea amak sabeleko aurtxoa jai begira zeudela, bereala il eta jateko, eta neke oiek guziak beartsuak ez ezen, aberatsak ere bazeramazkiten.

Sedeziasek, gauza onik etzegoalako etsimenarekin, bere seme eta etxeok arturik, ate isill batetik gauaz iges egin zuen; eta atzenean



Nabukodonosor urtebete eta geiagoren buruan Jerusalemen sartu zan. Onen soldaduak zegoan guzia artu, eta gizon eta emakume, zar eta gazte guziak il zituzten; eta Jerusalem ederrak, illen lurpe-leku edo ezurtoki bat baizik etzirudien.

Bereala erregearen eske irten ziran, eta Jerikoko zelaietan atzituta bere seme eta serbitzariakin Nabukodonosor-i eraman zioten: Onek semea eta serbitzariak, aita begira zegoala, Rablatan ilerazo zituen, eta aitari begiak aterata, Babiloniara eraman eta itxian usteltzen iduki zuen il arteraño.

Orra zer patua Sedezias Judako ogeigarren eta atzeneko erregeak izan zuen. Jaunaren profetak askotan esan izan zioten zer gertatuko zitzaion; baña aien deadarrai sor eta gor egiten zitzaion, eta atzenean Babilonian il zan, Babilonia, Ezekielek auzer esan bezala, ikusi gabe.

Lanbide oiek guziak eginda, Jerusalemengatik lenaz esanak bete bear ziran. Onetarako Nabuzardan agintariari agindu zion Jerusalemenera joan eta soldaduak lenagoko aldian sartu berrian egindako ondamentetik gorde ziran gauza guziak artu zitzala, Elizako eta errege-etxeak ere, lenago bezala, barkatu gabe; eta erriari eta Elizari su emateko. Nabuzardanek nagusiaren esanak zintzo egin zituen. Elizako urte eta zillar-gauzak, errege-etxeak eta gañerako guziak atera zituen, eta eze-igarrai su emanik, guziak kiskaldu eta auts-egin zuen, zaborrak eta pareta erre-zarrakatuak baizik utzi gabe.

Nabukodonosor-ek, nai guzia egin zuenean, edo obeto esateko, Jerusalem eta Judari zer zetorkien Jaunaren partetik profetak esandako guzia bete zanean, bere errironz itzultzeko asmoa artu zuen; baña ondo etzeritzan Juda bezain alderdi gozo guri, gauza guziak emateko ain ugarria, inor gabe uzteari, eta zenbat gizon beartsu lur-lanean trebatu ipiñi zituen, beren izerdiarekin zer jana atera zezaten eta, bidenabar, berari ere eskuerakutsi batzuek egin zizaiozkaten. Buru eta nagusizat eman zien Godolias Jerusalemgo semea eta Jeremiasen esanari begiratuta iges egin zutenetako: eta inork txarkeriarik egin etzizaion, bear anbat soldadu utzita, Nabuzardan Babiloniara joan zan.

Nabuzardan Jerusalemen sartu zanean, Jeremias itxian zegoanaz etzan aztu: kate-petik atera zuen eta eman zion Geliasekin gelditzeko baimena eta zerekin bizi: profeta santu oni, alabañan, nai zion, jersalamentarrak odolik isuri gabe Nabukodonosor-en eskuetan jartzeko, alperrik bederik, egin zituen alegiñakgatik. Nabuzardanen arrera on onezaz baliatu zan Ramata-ra joan eta andik Babiloniara katibu zijozan bere

lagun maiteai atzen agur egin eta nola bizi bear ziran erakusteko. Gero Jerusalemenera itzuli zan, beste egiteko andi batera. Ara zer.

## 10. Jeremiasek Elizako zenbat gauza gordetzen ditu

Jerusalengo erria auts egin bear zan aurrean, bere gogoko eta Jainkoaren bildurreko apaiz batzuek beregana deitu eta Jaunaren partetik agindu zien Elizan zeuden elkartasuneko Kutxa, Tabernakuloa bere Kerubinakin, beti zizekan sua eta beste zenbat gauza artuta, berak izentatu zien lur-zulo batean gorde zitzatela. Apaizak ala egin zuten; eta Jeremiasek orain, Nabuzardanek nekazaritzan egiteko utzitako gizon jainkozkoenak berekin arturik, bada apaizik batere geratu etzan, lur-zulora joan zan; eta su irazekia emen bertan utzirik, beste gauza gogoangarri aiek guziak gizonen sorbaldaetan eraman zituen, eta lagunai aide eragiñik, berak bakarrik zulo batean sartu zituen, eta atea edo sarlekua itxi zion, inork ezin igerrri zizaiokean eran, eta lagunai esan zien: Leku au ez da ezagutua izango, Jainkoak bere erria bildu eta adiskidetu arteraño: eta gaur dan eguneraño koba eta kobako gauza miragarri aien berri inork ez daki.

Jeremiasek, bere lanak eginda Jerusalemenera itzuli zanean, zer nekepenak eta naigabeak izango zituen esatea erraz ez da. Erri ots andiko mundu guziaren burua, edertasunean besteri ezer zor etziona, Jainko egiazkoaren Eliza bere erdian zeukana, Jainkoak israeltarren aide egindako mirari eta mesede paregabeak agertzen zituzten gauza guziak beregandik aterata, jauregi, etxe eta gañerako guziak auts eginda, aide guzie-tatik bakardaderik mingarriena ikusita, nork Jeremiasen biotz illuna eta miña adierazo? Orduan ipiñi edo zuzendu zituen *Jeremiasen negarrak edo lamentazioak* deritzaten itz triste, aste santuko eliz-lanetan irakurri oi diranak, eta biotzik gogorrena ere erdiratu gabe ezin aditu ditezkeanak.

Gero Jerusalemik Masfat-era, Godoliasen ondora, joan zan, eta bere lagun banaka aiekin bizi zan, guziaz Jaunaren bide zuzena erakutsiaz: baña laster izan zuen zergatik berriro negar egin. Asi ziranean beren buruak sakabanatuta gorde zituzten banakak auzoetatik Judara biltzen, etorri zan gizon bat, Ismael zeritzana, eta Godoliasen nagusitza ontzat ezin eraman zuena. Onek, afaltzen zeuden batean, Godolias il zuen, eta amontarretara igesi joan zan. Lagunak gelditu ziran zer egin etziekitela,



edo Babiloniara barkazio eske, edo Egiptora igesi joatea ezin erabakiz zalantzan. Jeremiasek esan zien, ez bata eta ez bestea egin zezatela, ezpada Judan bertan egoteko, eta etziela inork gaitzik egingo. Jeremiasen esan guziak alperrik ziran, eta arteraño bildutako andi eta txiki guziak arturik, Egiptora igesi joan ziran. Jeremias ere berekin eramane zuten; eta emen bizi izan zan, judar desleialai beren billaukeriak arpegira ematen eta Jaunaren esanak ezertan artu etzituztelako zetozkien kastigu latzak adierazten: eta atzenean profeta santu au arrika il zuten.

Ismael eta besteak Judatik aldegin zuten ezkerre, or-emendik Jerusalem ondora zenbat judar bildu ziran, bizimodua ateratzeko asmoan; baña Nabuzardanek artuta, Babiloniara, lenagokoak bezala, katibu eramane zituen, eta Judako erreinu ederra soll-solla geratu zan, nekazari banaka batzuek baizik gabe. Egiptora igesi egindakoai ere makillada iritsi zitzaizen. Nabukodonosor-ek auzoetako erregeakikoa egin eta menderatu zituen, Egiptokoari ere eraso zion, eta egin zuen ilkintza andian Judako igeslari asko erori ziran, eta gañerakoak eramane zituen Babiloniara, beren senide eta erritarrak lenagotik zeuden tokira, non morrontza gogorrean sartu ziran, profeta santuak aurreeraz esan izan zieten bezala.

## OGEITA ZAZPIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Babiloniako katibutasuna

Judarrak beren buruak katibu ikusi zituztenean, etsi zuten izaera onetan igaro bearko zituztela Jeremias profetak esan izan ziezten irurogeita amar urteak. Ezagutu zuten neke aiek guziak beren gaiztakeriak ekarri ziezitela, eta Jaunari eginda ko irain edo ofensaen damua bertatik agertu zuten, eta asi ziran Jainko egiazko, ainbat aldiz Judan baztertu zutena, egiaz adoratzene eta zezaketeneraño serbitzene. Onetarako asko lagundu zieten Jeremiasen lenagoko ondo-esanak eta gaztiguak; eta onen ikasle Baruk, Ezekiel eta beste profetaen erakutsiak.

Judarrak nekazaritzan eta edozeñ esku-lanetan txit azkarrak eta argiak ziran; eta beren izerdiarekin zer jana atera zezaten, Nabukodonosor-ek lur-erlora andi eta bazter zabalak oparo eman ziezten, maneatu, laboreak ereñ eta abuztu onak izan zitzaizten. Onela urte batzuetan bizi izan ziran. Bitartean Nabukodonosor-ek Persiako probintzia bi beretu zituen eta oietako jendeak Judara bialdu, eta Babilonian zeuden judarren erdiak Persian ipiñi zituen, eta trukaera onen bidez, erdiak arkitu ziran Babilonian eta besteak Persian, non berriro asi bear izan ziran eman zitzaiezten bazterretan nekatzen eta bizia ateratzene; eta bi lekuetan Jainkoak begiratu zien errukiz eta mesede andiak eginaz.

### 2. Daniel profeta

Arestian esan da judarrai Babilonian asko lagundu zietela profeta santuak, zeintzuen artean Daniel ipiñi bear da. Daniel, oraindik gaztetxoa zala, Joakin Judako erregearekin batean eramane izan zan Babiloniara, non Joakin erregea etxera itzuli arren, beste katibuakin geratu zan, eta Juda guzia ara zanean, an bizi zan. Onen izen andia laster agertu zan, eta begira zergatik.



### 3. Susana

Susana, Helzias-en alaba eta Joakin zeritzan gizon aberats baten ernaztea zan. Guziz ederra eta moduzkoa izateaz gañera, gurasoak eman zioten aziera onari zintzo erantzunda, Jainkoaren bildur andikoa zan, eta ez munduak nai duen, ezpada Moisesen legeak eskatzen zuen eran bizi zan. Joakinek bere etxe ondoan zeukan baratza eder batean judarrak biltzen ziran egurastu-aldiak artzera. Urte artan jueztzat bi gizon zar-eldu ipiñi zituzten, eta juez oiek eta zer esana zuenik bazan, Joakinen etxean batu eta ezdabaida edo auzi guziak erabakitzen zituzten. Jendeak aldegiten zuenean, Susana baratzara irten eta ibilli oi zan, egurastutzen. Andre onen edertasunak zar aiek lilluratu zituen, eta Susanaronzko amorio zoroa biotzetan sartu zitzairen; eta, nor bere aldetik, era billan zebiltzan, elkarri beren barrun galdua eta zoramena agertu gabe. Bero andia egingdako bein batean, Susana baratzako putzuan mainatu nai izan zan, eta ain begiratu izanik, neskameak baratzatik kanpora bialdu zituen, putzuan zegoala ikusi etzezaten, eta atea bere aldetik itxi zuen.

Gizon zar aiek eginkizunetatik irtenda, elkarri etxerako agur egiñik, ustez banakatu ziran; baña nor bere aldetik, isillik baratzan sartu eta elkar laster topatu zuten. Orduan batak besteari bere eresi galdua agertu zioten. Leku ezkutu batean jarri ziran, Susana bakarrean atzitzeko eraren zai, beren gurari likitsa asetzeko. Oartu ziranean Susana baratzan bakarrik gelditu zala, biak joan zitzaiozkan eta beren gogoa agertu zioten, esanaz: Ateak itxita daude; inork ez gaitu ikusten; eta guk nai degunera jarri zaitte: bestela, guk gerok esango degu galai batekin zeundela, eta onekin gozaroago egoteagatik neskameak baratzatik atera dituzula. Itzketa lotsagabe au aditu zuenean, aieska min bat egin zuen, ziola: Alde guzietatik estu nago; zuen esana egiten badet, anima ilko zat, eta ez badet, gorpuzta ilko da: baña obe det zuen eskuetan il, Jaunaren aurrean utsegin baño.

Itz oiek esanda, laguntza eske deadar egin zuen. Zarrak ere oska asi ziran; baratzako atea idiki zuten; eta Susanaren modian txit antsiatua eta itz gabe ikusi zuten. Zar likitsak, beren gaiztakeria besteri ezarri naiez, gezurra zeriotela asi ziran, eta morroiak lotsaturik etzuten biotzik izan esateko baizik, alako gauzarik etxeoandregatik sekulan etzala aditu.

Susana garbia etxera itzuli zan, neskameak laguntzen ziotela, eta etsirik mundukoak etzietela gauza onik egingo, Jaunaren eskuetan jarri zan eta eskatu zion aren garbitasunari, arren, begiratzeko. Susanaren senar, guraso eta ezagunai aldats egiten zitzairen onelako gauza bat Susa-

nak egin zuela sinistea; baña zar berdeak lana aurrera zeramaten; eta Susanak ikusikizunik ez izan arren, lekuko edo testiguak esan ezkeru, judarren legeari zegokanez, arrika il bear zan.

Biamonean oi bezala Joakinen etxean batu ziran, auziak ikusi eta erabakitzaera. Susana bereala erakarri zuten, eta eskuak oni buruan ipiñirik, zartzar aiek esan zuten: Emakume au, atzo baratzan genbiltzala, bere neskameakin sartu zan, neskatak bereala bialdu eta ateak itxi zituen; gero galai bat ezkutututa zegoan lekutik irten zitzaion, eta biak gaiztakerian ibilli ziran. Guk galaia atzitu nai izan genduen; baina gu baño geiagoko zalako, iges egin zigun, eta oni eldurik, galdetu giñion zein zan, eta etzigun esan nai izan. Guk gerok au guzia ikusi genduen. Bilduta zegoan jendeak zar aiek ziotena sinistu zuen, gezurrik esango etzutelakoan, eta erabaki zan il zedilla.

Susanak etzuen itzik atera, eta biotza zeruronz jatorik, Jaunari onela erregutu zion: Ene Jainko betiko, gauza isillak ezagutzen eta egin baño ere lenago dakizkizuna; badakizu egin ez dedan gaiztakeria ezarri didatela, eta oiek nigatik esan dituzten gezurragatik iltzera noala. Jainkoak entzun zion, ez ordea gizonak ezertan artu. Lotu zuten, eta urkamendira zeramatela, Daniel gazteak deadarrari eman zion, esanaz: Ez naiz ni andre onen odolean kutsutzen. Itz oiek aditu zituztenean, Danieli ingurukoak esan zioten: Orrela zer diozu? Danielek orduan esan zion: Burutik jauziak al zaudete, geiagoko gabe eta ikusikizunik ez duen gauza bateagatik, Judako alaba bat iltzeko? Itzuli zaitezte, eta gauzari ondo begiratu, berriro erabaki ezazute: andre oni ezarritako guzia gezurra da. Erabaki-leku edo tribunalera itzuli ziran; jendeak Daniel erdian artu zuen eta bere iritzia eskatu zioten. Danielek erantzun zion salatzaileak banakatu zitzaizela, eta ark bere galdeak bai bat-banaka egingo ziezitela. Banakatu ziranean, Danielek bati otsegin, eta galdetu zion: Zer arbola-petan galaia-rekin emakume ori ikusi zenduen? Legeltxorra-pean, salatzaileak erantzun zion. Danielek esan zion: Ori, zer gezurra. Gero besteari deitu eta galdetu zion, ea Susana eta galaia zer arbola-petan ikusi zituen. Arte-pe batean, bigarren onek erantzun zion. Zer gezurra diozun, oni ere Danielek esan zion. Aditzen zeudenak ikusirik esanetan biak bat etzetozela, ezagutu zuten gezurretan zebiltzala, eta Susanaren aide jaiki ziran, esanaz, oni nai zioten eriotza bera, agure gezurti aiek merezi zutela. Susana askatu zuten; zar salatzaileak lotuta urkalekura eramane eta arrika il zituzten. Daniel zeruetaraño altxatu zuten, eta onen azkartasun argia bazter guzietara barreatu zan; eta Susanaren garbitasuna ere agirian geratu zan: geroz len-lenagoko begirunea gorde zioten, emakume on eta jainkozko-



tzat iduki zuten, eta oraindano aitortu eta sekula guzian aitortuko da deabruaren amuetatik gorde nai diranen maisu eta ispillu garbia dala.

Susanaren kontu au gertatuta laster, Nabukodonosor-i gogoak eman zion ain aginte andia zeukan erregeari zegokion gorrea edo serbitzari asko ipintzea, oietatik bere anditasuna ezagutu zedin. Mendean zeuzkan erreinuetako mutil gazte ederrenak bere etxera eramanerazo zituen, bere maietik jan eta edanaz, eder eta galant azi zitezen; eta kaldearren itzkuntza eta eskola ikasita, gero etxean serbitu zezaten. Judarren artean Daniel, Ananias, Misael eta Azarias onetarako autuak izan ziran.

Daniel bereala bildurak artu zuen, ematen zitzaian janarian izango ote zan zerbait Moisesen legeak debekatua edo idoloai eskeñi edo ofrendatua, eta ezertan ere ez kutsutzeagatik beren agintari edo kontuartzalleari esan zion beste jan-gauza batzuek emateko. Beingoan beste janaririk etzian eman nai izan, erantzunaz, baldin jan gabez gañerakoak baño ubeltxeagoak bazeuden, erregeak ari nozierazoko ziola, eta ezin egin zezakean gauza eskatzen ziola. Danielemek etsi etzuen; bigarren kontuartzalle Malasar-i mesede bera eskatu zion, esanaz: Amar egunean baberrumak jaten eta ura edaten iguzkizu, eta gero begira zaguzu, erregearen maietik jan dutenak edo gu ederrago geran. Malasar-ek ala egin zuen; eta amar egunen buruan besteak baño ederrago eta galantago arkitu zituen; eta iru urte, artarako izentatueta, baberruma eta ur utsarekin bizi izan ziran; eta Malasar ere onela ondo zijoan, men erregearen maietik zetozi-kion jan-edanak saldu eta oien dirua beretzat zuen. Bitarte onetan, gortutzeko edertasuna ez ezen, jakinduria eta gauza isillak asmatzeko doaia ere lau gazte aiei, batez ere Danieli, Jainkoak eman ziezten.

Iru urteen buruan, nork bere kontukoak erregeari aurkeztu ziozkan eta erregeak ikusirik ederrenak Daniel eta bere lagunak zirala, eta itzketan ere argienak, bertatik bere serbitzora artu zituen.

#### 4. Nabukodonosor-en ametsa

Andik zerbait denborara, Nabukodonosor-ek gau batean amets izugarri bat egin zuen, eta esnatu orduko, aztu zitzaion zer zan. Erreinuko sorgin, azti eta asmatzalle guziak bildu zituen eta agindu zien zer amets egin zuen asmatu eta zer esan nai zuen azaldu zezatela; bestela, ilerazoko zituela. Azti oiek ezin zuten asmatu zer amets zan; eta erantzun zioten, munduan au zezakeanik etzala, eta asi ziran guziak iltzen. Daniel eta

bere lagunak ere asmatzalletzat zeuzkaten, eta besteak bezala, billatzen zituzten iltzeko. Orduan Daniel erregeari aurkeztu zitzaion eta esan zion, baldin epea edo leku ematen bazion, asmatuko ziola. Itz onetan Daniel bere lagunakin jarri zan Jaunari erregutzen, eta Jainkoak naiko guzia agertu zien. Bereala erregeari joan eta esan zion: O errege! Zu jarri zera ondoren zer datorren pensatzen, eta gauza isillen berri duenak etorkiñak agertu dizkizu. Niri ere adierazo dit zure ametsak zer esan nai duen. Guziak begira jarri zitzaiozkan, eta gisa onetan itzegin zuen.

O errege! Sunbil edo giz-antz begiratu ikaragarriko bat zure aurrean ikusi dezu. Burua urrezkoa, bularra eta besoak zillarrezkoak, sabela eta isterrak kobrezkoak, bernazakiak burnizkoak eta oñak erdi-burni eta erdi-lurrezkoak zituen: eta zu begira zengokiola, amildu zan arkaitz batek oñetan jo eta guzia porrokatu zan: une, zillar eta beste gaiak aizeak daraman autsa bezala aienatu ziran; baño arkaitza mendi egin zan, eta mundu guzia estali zuen. Zure ametsa au da. Erregeak ezagutu zuen Danielemek egia ziola eta ezertan ere utsegin gabe amets guzia asmatu zuela.

Onen ondoren azaldu zion zer adierazten zuen, esanaz, urrezko buruak bere erreinaldia aditzera ematen zuela; zillarrezko bular eta besoak gero sortuko zan beeragoko erreinaldi bat; kobrezko sabel eta izterrak irugarren erreinaldi mundu guzian zabalduko zana; eta burni eta lur nas-teko bernazaki eta oñak laugarren erreinaldi erdibituko zana. Atzanean arkaitz ark adierazten zuela lau erreinaldi oien buruan sortuko zala beste bat, gañerako guziak desegiten ikusi eta berak beti iraungo zuena.

Danielek itzketa onetan gero berriak eman zituen, bere begiak ikusitakoak izan balira bezala. Nabukodonosor-en agintearen ondoren medo edo persaena izan zan; gero greziarrena; atzanean erromarrena. Eta oien guzien ondoren eta buruan Jesu Kristo gure Jaunak ipiñi zuen bere Elizako erreinu, beti iraungo duena eta gañerako guzien gora-beerak eta autsi-osoak ikusiko dituen.

Nabukodonosor Danielen azkartasun eta argiarekin arritu zan eta auzpeztu zitzaion, adoratu eta inzensua eskeñi naiez, baño Danielemek etzian utzi, esanaz, agur hura Jainko egiazkoari bakarrik zor zitzaiola. Ordutik Daniel goeneko mallan jarri, eta erregearen lenengo serbitzariaren aulkian eseri zan, denbora batean Egipton Jose egon izan zan era ber-berean; eta Danielen lagunak ere erregeak agintean ipiñi zituen.



## 5. Nabukodonosor-en giz-antza

Nabukodonosor-ek Danielen erakutsi onakin erreinuko gauzak txit zuzen eraentzen zituen; eta Israel eta Judako katibu guziak ere beren erri-tar ain gora zegoanaren babesean, lasaitasun andian eta eskurantz asko-ekin bizi ziran. Baña urte asko baño lenago, ezinikusiak leku egin zuen. Babiloniarrek onean ezin eraman zuten Daniel eta bere lagunak, arrotzak izanik, alako eskubideak izatea. eta asi ziran Nabukodonosor-i iguineratzen. Erreinuko lanbideetan eta eraenean nondik eldurik etzuten arkitzen. eta erlejioaren aldetik sartu ziran. Erregeari esan zioten lenago izandako amets ark merezi zuela ondorengoai oroipen bat uztea, eta eragin zezala lotan iruditu zitzaionaren erako giz-antz bat, guzia urrezkoa, eta erreinuko andizki guziak hura adoratzera beartzeko.

Erregeak esan au ondo artu zien, eta eragin zuen urrezko giz-antz bat, ogeita amar kana luze eta iru zabal zana, eta Dura-n ipiñi zuen. Erreinuko andizki eta buru guziak Duran bildu eta giz-antz oni belaunikatu zitzaiozkan; baña ikusi zutenean Danielen iru lagun Sidrak, Misak eta Abdenagok etzutela besteak bezala egin, erregeari salatu zioten iru gazte aiek etzutela aren agindua ezertan artu, eta giz-antzauren aurrean ez ere belaunikatu.

Nabukodonosor-ek beregana otsegin eta esan zien: Egia da nere jainkoai ez diezutela agur egiten eta nik eragin dedan idoloa adoratzen? Orain, bada, baldin ez badezute nik agindua egin nai, labe goritu batean sar erazoko zaituztet: eta, zein Jainkok nere eskutik aterako zaituzte? Gazte santu oiek, Jainkoaren amorioarekin suturik, esan zioten: Ez dago-kigu gai onetan zuri ezer erantzutea, zeren gure Jainkoak labe goritutik eta zure eskuetatik atera gaitzakean; eta au egin nai ez balu ere, jakin ezazu, O errege! ez diegula agurrik zure jainkoai egingo, ez zure idolorik adoratu ere.

## 6. Danielen lagunak labe gorituan

Mundu guziak baietz esaten oituta zegoan Nabukodonosor arroak, ez da zer esan erantzuer a nola artuko zuen. Begiratu zorrotz bat egin-da, berai itzik esan gabe, agindu zuen labe bat sutu zedilla besteetan baño zazpi aldiz beroago jartzeraño, eta iru gazte oiek ondo loturik botatzeko, erre eta auts egin zitezten. Zerbitzariak ala egin zuten, eta ain goritua ipiñi

zuten non gana ogeita lau kana eta erdian igotzen zan, errekinak ematen ari zitzaiozkan guziak erretzen zituela. Iru gazteak garretara bota zituzten, eta lotura guziak Aingeruak askaturik, labe gorituan zelai eder batean bezala or-emen zebiltzan Jainkoa alabatzen, akatsik txikiena ere suak egin gabe.

Nabukodonosor-i au esan zioten, eta bere begiak mirari au ikus-teagatik labe ondora joanda, begiratu zien eta esan zuen: Au zer da? Ez dituzute iruak, ondo ootuta, labera bota? Ala ere nik neronek dakuskit, lokarri guziak askatuta, batera eta bestera dabiltzala, Jainkoaren semea dirudien bat lagun dutela. Nabukodonosor arkitu zan zer egin edo zer esan etziekiela. Geroenean labera alderatu zitzairen eta otsegin zien: Jainko andiaren serbitzari onak, irten zaitetze eta atozte. Laugarren lagun Aingeruak bereala aldegin zuen, eta iru gazteak garartetik irten ziran. Errege, andizki eta gañerako guziak arriturik gelditu ziran, ikusi zutenean ille-izpi bat ere etzitzaiaela erre: eta Nabukodonosor-ek agindu men, baldin Sidrak, Misak eta Abdenagoren Jainkoagatik iñork gaizki esaten bazuen, il zedilla; bada, beste Jainkorik ez da, zion, labeko su-garretatik onela gorde ditzakeanik. Len-lenago baño ere geiago altxatu zituen, eta oiek ezin ikusiz eta galdu naiez zebiltzan biotz dollorrekoak lotsaturik geratu ziran.

Mirari onen ondoren urte batzuetara, izan zuen beste amets bat txit ikaragarria, eta lenagokoa baño obeto gogoan geratu zitzaiona. Bazter guzietan zeramazkien garaipenakin arroturik, etzuen uste bera ainbat iñor zanik, eta Jainkoak urgulleri au beeratu nai izan zion. Lotan iruditu zitzaion zekusala zuaitz edo arbola bat zeruraño iristen eta munduaren lau ertzetatik ikusten zana. Orri txit ederrak eta fruta asko zituen. Lurreko abereak onen itzalpean eta aireko egaztiak adarretan egoten ziran. Zer jana guziaz ematen zien. Nabukodonosor amets onetan zegoala, kon-tuartzallea zerutik jatsi zan eta otsegin zuen: Arbola ori ondolik ebaki, adarrak autsi, orriak astindu, frutak barraiatu edo zabaldu, abereak bere itzaletik eta egaztiak adarretatik igesi joan bitez; baña epait-ondoari lurrean utzi bekio, burnizko eta kobrezko kateakin lotuta, belar artean, intzak busti dezan. Gizon-biotza, biotz basati itzuli bedi, eta gisa onetan zazpi denbora edo urte igaro bitza. Ametsa au zan.

Zer esan nai ote zuen jakiteko, erreinuko sorgin eta azti guziaz Nabukodonosor-ek deitu zien, baña etzion iñork azaltzen. Atzenean Danieli otsegin eta onek agertu zion. Ara nola. Arbola ori zu zera, O errege! Danielek esan zion. Zure anditasuna zeruraño igo eta zure agin-tea mundu guzira zabaldu da. Gañerako iruditu zazkitzun arbola-ebaki-



tze, adar-auste eta besteak, ara zer adierazten duten. Giza-artetik botako zaituzte eta lar-abereekin bizituko zera, belarra idiak bezala janaz eta intzak bustitzen zaituela, eta gisa onetan zazpi urte joango zazkitzu, Jaun Zerukoak gizonen aginteak eskuan dauzkala, eta nori nai, ari ematen diozkala ezagutu dezazun artean. Epait-ondoa bere sustraietatik uzteko esateak adierazten du zure erreinua zuretzat izango dala, eskualdi guziaz zerutik datorrela ezagutzen dezunean. Nere esana orain ar ezazu: zure bekatu eta gaizakeria truke limosnak egin itzatzu, beartsuak lagun-duaz, eta Jauna menturaz zuzaz errukituko da.

Nabukodonosor-ek albista onekin ikara andia artu zuen, eta Danielek esandako gauza onai ekin bearrean, gerrako iskanbillakin zerbait aztutzen ote zitzaion ikusteko, Egiptoko eta auzoetako beste erregeei indar andiak eraso zien, eta guziak naierara menderaturik, Babiloniara itzuli zan, arrokeriaz beteta, mundu guziaren jabetzat bere burua zeukala.

## 7. Nabukodonosor abere egiña

Garaipen oien ondoren, Danielek ametsa azaldu zionetik amabi illa-betera, egun batean etxean egurastutzen zebillela, Babiloniako erri ederrari begira jarri zan, esanaz: Zer? Babiloniako uri eder au ez da, nere anditasun guzian bizituzeko nik eragin nuena? Itz oiek esan orduko, zeruko ots bat aditu zuen, ziola: Zure erreinua zugandik badijoakizu: giza-artetik irtenda, abereetara zoaz. Danielen esanak bereala asi ziran gertatzen. Burutik jauzitako amorratu baten eran, uste du aberea dala, eta abereen griñak artzen ditu; soñekoak urratzen ditu, itzegin nai ez du, eta idiak bezala *muu* egiñaz, lau-oñetan abiatzen da.

Etzetik irtenda, gizonetatik iges egin zuen; basora joanda, sasiteetan sartu zan eta lar-abereen eran belarra jaten zuen; eta gisa onetan zazpi urte igaro zituen, izotz eta inziarrak, eguzki eta euriak, kaskabar eta beste ekaitz guziak aragian artuaz: larrua kaskartu eta illea, egaztaiak lumak bezala, azi zitzaion, gorputz guzia estaltzeraño; azkazalak luzetu eta kakotu zitzaiozkan. Gauza ikaragarria! Mundu guzia bere mendean jotzen eta anditasunean inor alderatzen ere etzitzaiola uste zuen Nabukodonosor, bere arrokeria, antuste eta urgulleriak bas-abere biurtzen du.

Bitarte onetan biotza zeruronz jaso zuen, eta ezaguturik Jainkoa dala zeru-lurren jabea eta erreinu guziak nori-nai eta noiz-nai eman eta

kentzen dituen, alabatu eta adoratu zuen, eta aitormen onekin giza-antzera itzuli zan. Daniel kontuan zegoan zazpi urteak noiz betetzen ziran, eta orduan, onen gaztiguz, erreinuko andizki guziak baturik, errege bere etxean artu zuten, eta egundaño baño goratasun andiangoan jarri zan. Jainkoak arekin egindako mirari andiak aitortu zituen, oiek adituta, bere agintepe guzian Jainko egiazko bakarra adoratu zedin. Andik bi urteren buruan il zan, Jainkoagana menaz biurtu zalako ezagunbide eta aztarnak utzirik; len-lenagoko arrotasunik, benik bein, etzuen agertu, eta Jaun Zerukoari lurreko guzien buru eta jabetzat begiratu izan zion.

Aitaren lekuan Babiloniako errege Ebilmerodak sartu zan, eta bereala adierazo zuen Danieli eta onen katibu-lagunai aita bezain begiramendu ona ziela: txit pake onean eta Jainkoak nai zuen arteraño erbeste egon bearra, beste nekerik etzutela bizi ziran. Erregeak begi onez begiratzen ziran denbora berean, berak ere alegiñean etzioten inori gaitzik egiten eta naigaberik ematen, eta ardura guziarekin Jainko egiazkoaren legea osotoro gordetzen zuten.

Joakin Judako erregeak kateetan ogeita amazazpi urte zeramazkien, Nabukodonosor bildur zitzaiolako, berriz ere odol-isurtzeren bat eragin zezan; baño Ebilmerodak semeak, agintean sartu zaneko, ainbeste urtean itxian usteltzen zegoana atera zuen, bere etxean bizilekua ipiñi zion eta bere maican artu zuen; baño etziran luzaro elkarrekin egon; bada, Ebilmerodak urtebeteren buruan eta Joakin andik laster, lenago ez bazan ere, il ziran.

Ebilmerodaken seme Baltasar aitaren aulkian eseri zan; baño oraindik aurra zalako, bere ama Nitokris-ek agintea artu zuen. Emakume au, ain argia eta azkarra izanik, ogeita lau urtean eraenduta, semeari eskua eman zion. Bitarte onetan judar katibuak, lenagoko erreinaldian bezala, beren izaeran ondo zijoazen: eta au bera esan dezakegu Persian zeudenai ere gertatzen zitzaiea.





## OGEITA ZORTZIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Ester eta Mardoeko Persian

Lenago esan da, katibusunean zeuden Juda eta israelarren erdiak Nabukodonosor-ek, Persiaz jabetu zanean, bazter oietara bialdu zituela. Beste askoren artean Mardoeko zeritzana joan zan. Mardoeko Juda bere erritik Babiloniara errege Joakinekin eraman zuten, eta persiara aldatu zanean Susako urian bizi zan, Ester zeritzan illoba bat bere ondoan zuela. Mardoeko gizon zuzena eta Jainkoaren bildurrekoa izanik, aita ilda, umezurtz geratutako illoba bere kontura zeukan, eta txit oitura onetan azi zuen.

Mardoeko onela bizi zala, izan zuen amets bat zer pensatu andiak eman ziozkana eta, etorkizuna ikusi artean, igerri etziona. Lo zetzala, iruditutako zituaiozkan ots, iskanbilla eta inusturiak; lur-ikara eta zambulua; gero ikusi zituen bi erensugetzar, elkarri eraso naiez zebiltzanak. Oien txistueta, on guzian kontra jendeak jaiki ziran, eta mundu guzian izurikara latza sortu zan. Onak ere ikaratu ziran eta Jainkoari otsegin zioten. Orduan ikusi zuen iturtxo bat ibai andi egin eta ur asko zeriona. Eguzkia eta illargia agertu ziran, eta umillak goratu eta arro urgullutsuak aien azpira erori ziran. Ametsa au zan.

Denbora onetan Persiako uri Susatik Asuero erregeak eunda ogeita zazpi probintzia bere mendekoetan agintzen zuen: eta arestiko Mardoeko-aren ametsetik urtebetara, bere anditasun eta izanak erakusteko, eman zuen bazkari bat, egundaño ikusi dan andiena. Eunda ogeita zazpi probintziaetako buru eta agintariak, erreinu guziko errege-gizon eta andizkiak bere etxera bildu zituen, eta eman zien bazkariak eunda larogei egunean iraun zuen: bitarte luze onetan ezeren ere utsunerik ikusi etzan. Jan-edianak eta beste gauza guziak lenengo egunean bezala atzenekoan agertzen ziran, mundu guziak Asueroaren anditasun eta aberastasuna jakin zezan.

Bazkari au bukatutakoan, Susako gizon guziaz ere beste zazpi eguneko bat eman zien. Onetarako aulki, mai eta bear ziran beste tresna guziak etxeatarian ipiniarazo zituen, eguzkiak jo etzitzan, urrea eta zillarra zeriozkien kortina ederrakin estalpeak eginda. Atzenean, guzia erabat joan zedin, nai izan zuen bere emazte Bastik ere Susako emakume guziaz ere beste etxe batean beste zazpi eguneko bazkari bat eman zizaien.

Atzeneko egunean, errege Asuero, ardoz kaskoa ondo berotuta zeukala, erregeinari gaztigatu zion zituen soñeko eta edergarrik obena janzi eta koroa buruan zuela aurkeztu zekiola, an zeuden guziak arendertasuna zekusatzen. Erregeiak etzion gaztigu au ontzat artu, eta etzitzaiotan joan nai izan, debekatua zegoalako arendako emakumeak atzen begietan jartzea. Senarra txit aserretu zan, eta alboan zeuzkan ondo-erakusleai galdetu zien ea erregeiak zer kastigu merezi zuen. Emaztearen erantzuerak bidezkoa zan; baña ondo-erakusle losentxariak etzioten erregearen suari errekeiak emateari baizik begiratu. Mamukan-ek, guzian izenean, erregeari erantzun zion, Basti erregearen ukoak erregearen onoreari ez ezik, erreinu guziaz ere ukitu ziola. Bastiri ezer egin gabe uzten bazitzaiotan, bazter guzietan barreatuko zala; emazte guziak jarraituko zitzaiozkala, au bera eginaz, eta senarrak nai zutenik ezinean arkituko zirala: beragatik erregearen aserrea bidezkoa zala, eta baldin ondo bazeritzan, agindu zezala arendetxean Basti ez geiago sartzeko, eta beste emazte bat artu zezala. Lanbide au erreinu guziaz zabaldu zedilla eta senarren aginduak emazteak txotillago egingo zituztela. Esan au erregeak ondo artu zuen, eta erreinu guziaz gaztigatu zion zer neurri artu zuen.

Asuero, andik laster burua oztu eta ardoaren indarrak beeratu zitzaiozkanean, ezagutu zuen agindu hura ematen izandako arintasuna eta Bastik atzen aurrean jartzeko uzkuratasunarekin erakutsi zuen onetasuna: baña legeak debekatzen zion bein utzi ezkerokoa berriz artzea; eta bere erakusleak buruan sartu zioten, Basti zan baño ere neskatz ederrago bat emazte egin bear zuela. Agindu zuen erreinu guziaz arkitzen ziran neskatzik ederren eta moduzkoenak bildu eta bere etxera ekarri zitezela. Neskatz oiek Ejeoren kontura ipini zituzten, eta beste askoren artean Mardoekoaren illoba Ester. Urte betean errege-etxean iduki zituzten, edertzen; eta guziak bat-banaka erregeari eraman ziozkanean, Ester-ek begiak bete ziozkan; ederrentzat autu zuen; eta koroa buruan ipini zion, zeñak adierazten zuen, emazte nagusi edo lenbiziko zala. Ezkontza onen berna erreinu guziaz bereala eman zan; ezta andiak egin ziran; eta ezkontza onekin erreinu guziak mesede bat izan zezan, eman-kizunak gitxitu zituen.

Mardoeko, bere illobari txit nai ziolako, beti errege-etxe-atarian zebillen, erak agintzen zion guziaz Ester-i bere ikasbideak emanaz. Ester ezkondu zanetik iru urteren buruan, errege-etxe-atean kontu egiten zuten biri, Mardoekoek igerri zien erregea iltzeko asmoan zebiltzala, eta Ester-i esan zion senarra kontuan ipini zezan. Gaztigu onekin asmo gaizto guziak agertu ziran; eta bi gizon biurri aiek il zituzten. Mesede pare-



gabe onegatik bazirudien Asuerok Mardokeori ondo begiratuko ziola; baña eskuerakutsi labur batzuek baizik egin etzizozkan eta agindu zion etzezala jauregi ondotik aldegin. Jainkoak Mardokeoren saria geroko gordeta zeukan; eta bitartean Asuerok bere penzudea edo konfianza guzia etsairik gaiztoenean zeukan, eta au Aman zan.

Aman, Asuerok goeneneko mallan zeukan serbitzaria eta errege beraren urreneko zan. Arestian esan dan errege iltzeko asmo artan, Amanek zer-ikusia bazuen, Lidiako errege Amanen aidearekin Asueroren illoba Mediako Erregeak zerabilen gerran osaba illobaren aide zalako: bada, Asuero il ezkeru, Amanen aideak ondo irteteko ustea zeukan; eta badira diotenak Asuero galtzeko Susara joan zala. Ala ere, Amanekin Asuero itsutua zegoan, Jainkoari egiten zitzaiozkan agur berak Amani egiteko agintzeraño.

Agindu onen bidez, erregearen etxe-atariratzen zanean, Mardoqueo ez, beste guziak belaunikatzen zitzaiozkan eta adoratzen zuten. Amani esan zioten Mardokeok etzuela besteak bezala egiten, eta bere begiak in ikusi zuenean salatu ziotena egia zala, artu zuen Mardoqueo eta onen lagun Juda eta Israelko guziak ondatzeko asmoa; eta Mardokeoren argi eta leialtasunak Asuero bizirik zeukala gogoratzeak lanbide onetarako su geiago ematen zion.

Amanek Asuerori sinisterazo zion, bada, katibu aiek Persian zeuden bitartean, gauza onik etzegoala; asko ugaritu eta indar andia artu zutela, eta erreinu guzia nastu eta pakea austeko zorian zebiltzala. Asuerok, serbitzari gaizto onen esanai belarriak idikita. agindu zuen egun jakin batean guziak il zitezela, eta probintzia guzietara aginte au bialtzeaz gañera, leku agirietan txartelak ipiñi ere zituzten.

Juda eta israeltarrak berri min au artu zutenean, negarrari eman zitzaiozkan; zaku eta penitenziako beste soñekoak janzi zituzten, gorpuzak zatitu, zilizioakin nekatu, barauak atera zituzten, eta estura larri artan zer egin etziekitel zebiltzan. Mardoqueo ere erregearen etxe-atarian oska bazebillen, bere miña Ester-i adierazo naiez. Mardoqueo gisa onetan zekustenak baziekiten Ester-en txit adiskidea zala, osaba zanik jakin ez arren, eta aditzera eman zioten nola zebillen. Ester-ek igerrri zion naigabe andiren batek artaratuko zuela, eta soñeko bat bialdu zion, zerabilenaren orde z janzita joan zekion. Ester-ek lan au egin zuen alako janzkerarekin erregearen etxean sartzeko eskurik inork etzuelako; baña Mardokeok etzuen aldatu nai izan. Geroenean Ester-ek bere morroi Atak bialdu zion, zer zuen jakitera. Mardokeok gaztigatu zion zer lanbide estu eta

larrian bera eta lagun guziak arkitzen ziran, eta erregeagana sarturik eskatu zizaiola, arren, agindu gogor hura atzeratzeko.

Erregearen gelan inor, erregeak gaztigatu gabe, sartzea, biziaren azpian debekatuta zegodn, eta osabari erantzun zion: Nola egin dezaket zuk diozuna, baldin ogeita amar egun oietan ez banau deitu? Osabak esan zion: Ez uste izan, ez, erregearen etxean zaudelako zu bakarria bizirik geratuko zerala, beste judar guziak ilda: bada, zu orain isillik bazaude, judarrak beste biderik izango dute ondo irteteko: orduan zu eta zure aitaren jatorriak ilko dira. Eta, nork daki, zu erregeñatzara igo ote zeran, esturasun latz onetan gu gordetzeko? Atzenean oiek eta onelako osabaren beste esan askorekin, aurrenetik uzkur bazegoan ere, jarri zan erregeagana agertzera. Onetarako osabari gaztigatu zion, Susan arkitzen ziran Judako guziak bildurik, iru egun eta iru gauean barautu zezatela; berak ere bere neskameakin ala egingo zuela; Jainkoari gogoz eskatu zizaiotela bere lanbidean ondo irten zedin.

Ester-ek gaztigatua Mardokeok egin zuen; biotza Jainkoronz jasorik, eskari au egin zion: Jauna, Jauna, Errege guziz Altsua: gauza guziak zure eskuan dituzu, eta zure naiari gogor egin dizaiokeanik ez da. Zerulurren Egillea zu zera; gauza guzien Jabea zu zera. Badakizu Amanek nai zuen agurra ez diodala nere arrokeriaz eta ezertan ez daukadalako ukatu: Israelen onerako ala bear izan ezkeru, beraren on-pean pozik jarriko nintzaion; baña zuri bakarrik zor zatzuna besteri emateak bildurtzen ninduen. Orain, bada, Abrahamen Jainkoa, zure erriaz errukitu zait; dakusu etsaiak il nai gaituztela.

Ester-ek ere eskari bera Jaunari egin zion, eta iru egun negar eta nekekoak igarotakoan, prestatu zan; soñekorik ederrenak janzi zituen; gorputza un gorritz eta arri distiatuz apaindu zuen; eta neskame batek besotik eutsi eta besteak mantuaren ertza jasotzen ziola, senarra erregeaulkian eserita zegoan lekura sartu zan. Erregeak, gaztigatu gabe sartu zalako egin zion begiratu zorrotzak desganatu zuen, eta korde gabe lurrera jauzi zan.

Gisa artan Ester ikusteak Asueroren biotza bigundu zuen, eta aulkitik jaikirik eldu zion, esanaz: Ester, zer egin zatzu? Ez ikaratu: legea ez da zugatik ipiñi, ezpada besteakgatik. Atoz eta urrezko koroa janzi ezazu. Ester-ek etzion itzik egiten: eta senarrak koroa buruan ipiñi zion, esanaz: Zergatik itzegiten ez didazu? Ester, itz oiek adituta, berera zan eta erregeari esan zion: Jauna, uste izan det Jainkoaren aingeru bat zukan ikusten nuela, eta nere biotza zure anditasunak ikaratu du. Berriz ere desganatu zan, eta itza etorri zitzaionean, Asuero poztu zan, eta esan zion:



Ester, zer nai dezu? erreinuaren erdia eskatzen badezu ere, emango zatzu. Ester-ek erantzun zion: Eskatzen dizudana da, nik nere gelan prestatuta daukadan bazkari bat, zuk eta Amanek jan dezazutela. Itza bereala eman zion: Asuero eta Aman gelara joan ziran bazkaltzera; eta Asuerok, ardoz zerbait berotu zanean, berriz ere galdetu zion: Zer nai dezu edo zer eskatzen dezu? Ala bear bada, erreinuaren erdia emango zatzu. Ester-ek erantzun zion: Zure gogoa bada, gaur bezala biar ere atozte nere gelan bazkaltzera.

Aman poz andian irten zan, eta etxera zanean, bere adiskideak deitu zituen eta esan zien erregeak zer goratasun andian zeukan, zer ondasunen jabe zan; nola egun artan berean erregeñaren gelan, bestek ez, eta erregearekin bazkaldu zuen; eta biaramonerako esanda zegoala; baña zorion oiek guziak ezertan etzeuzkala, Mardoqueo judarra erregearen etxeko ateetan zekusan bitartean: etzion, alabañan, orduan ere, gañera-koak bezala, agurrik egin.

Zarez bere emazteak eta adiskideak esan zioten ogeita bost kanako zentoi bat prestaerazo, eta erregeari aginduerazo zizaiola zentoi onetatik zinzilika Mardoqueo ipintzeko, eta onela biaramonean pozago joango zala bazkaltzera.

Asuerok gau hura igaro zuen esnai eta irakurtzen ziozkaten bere erreinaldi-ari zitxeokan gauzak aditzen, eta irakurri ziotenean erregea iltzeko ateko kontuartzalleak artu izan zuten asmo gaizto, Mardokeok agertu zuena, galdetu zuen ea zer sari leialtasun aregatik Mardoqueori eman zitzaion. Ezer ez, serbitzariak erantzun zioten. Itzketa onetan ziar-dutela, erregeari gela aurrean norbait iruditu zitzaion eta galdetu zuen nor zan. Aman gizon biotz gogorrekoa zebillen erregeagana sartu naiez, Mardoqueo zinzilika ipintzeko erregeari agindu erazotzeko asmoan; baña Mardokeoren kontua Jainkoak zeukan, eta Amanek aren kontra ezin zuen ezer egin. Erantzun ziotenean, bada, Aman zala, gelan sar erazo eta galdetu zion: Erregeak onratu nai duen bati zer egin bear zaio? Amanek uste zuen bera onratu nai zuela, eta erantzun zion: Erregeak onratu nai duenari, errege-soñekoak janzi, errege-koroa buruan sartu eta erregearen zaldirik obenean ipiñirik, erreinuko prinzipa eta andizki guzietan lenen-goak zaldia bridatik duela, leku agirikoetan erabilli bear da, otsegiñaz: Erregeak onratu nai duena, onela onratua izango da.

Egizu, bada, ezer ere utzi gabe, erregeak esan zion, atarian eserita dagoan Mardoqueo Judakoarekin. Asuerok agindu guzia Amanek egin zuen, eta etxera lotsaturik biurtu zan, negar-malkoak zeriozkala. Emaz-

teari esan zion zer gertatu zitzaion, eta emazteak erantzun zion, baldin Mardoqueo judua bazan, ezin arpegi emango ziola eta eroriko zala.

Senar-emazteak itzketa onetan ziar-dutela, erregearen morroiak Amani esan zioten erregeñaren gelara bazkaltzera joan zedilla. Iruak bazkaldu ondoan, Asuerok Ester-i galdetu zion: Zer eskatzen didazu? Zer egitea nai dezu? Ester-ek erantzun zion: Baldin ni zure gogokoa banazu, O errege! ni eta nere erritarrak bizirik utzi gaitzatu. Nork il nai zaituzte edo zuen etsai ori nor da? erregeak txit su biziarekin galdetu zion. Gure etsaia Aman ori da, Ester-ek erantzun zion. Erregea aserre bizian jaiki, eta baratzara asnas-bakarrean joan zan. Amanek bereala igerrri zion aren-tzat gauza onik etzala, eta Ester-i barkazio eske jarri zitzaion. Asuerok, gelara itzuli zanean, Aman arkitu zuen Ester-en eser-aulkian bere burua botata, eta deadarra eman zion: Zer? Nere etxean bertan ere erregeñari gogor egin nai dio? Itz oiek esan orduko, Amanen eske bazkaltzera etortzeko esatera joandako morroi batek esan zion nola Amanen etxean ikusi zuen zentoi luze bat, Mardoqueo zinzilika ipintzeko jarria; eta erregeak esan zuen: Zentoi orretan zinzilika Aman bera ipiñi bedi. Ala egin zuten, eta Amanek eraman zuen Mardoqueo errugabeari eman nai izan zion patu bera.

Egun artan berean erregeak Mardoqueo beregana eraman zuen, zeren Ester-ek esan zion osaba zuela. Bereala Amanen lekuan bere lenengo serbitzari edo ministrotzat ipini zuen. Juduen kontra lenago emandako agindu odoltsuak kendu zituen; eta berri onekin mandatariak bazter guzietara zabaldu zituzten, eta juduen negarrak isildu ziran. Orre-gatik zeregin guziak batetan aitu etziran. Persiako legean bein agindua egin bear zan; eta Amanen adiskideak, egun jakiña etorri zanean, onen denboran agindutakoa egin nai izan zuten eta asi ziran juduak iltzen: baña juduak ordurako bizkortu ziran eta gogor egiteko prestatu rik zeuden, eta Amanen aldeko asko il zituzten, eta oien artean Amanen amar seme il eta aitaren gisan zinzilika ipini zituzten.

Gertakari andi onegatik, katibu zeuden Judako eta Israelko guziak pesta andiak egin zituzten, Jainkoak ain argiro gorde zituelako Amanek guziak galtzeko artu zuen asmo gaiztotik; eta egun onen oroipenak beti iraun zezan, agindu zorrotz batekin beartu ziran urteoro bezperan barauakin eta egun berean eta biaramonean pestakin berritzera. Geroz Persian txit pake onean bizi izan ziran. Asuero Ester-ekin ezkondu zane-tik amar urtera il zan. Eskritura santak ez digu Ester noiz il zanik esaten; baña etzan andre andi gogoangarri au, nere kiko, luzaro bizi izan. Asue-rok bere lekuan utzi zuen Dario, zeñak aitari zerraikiola, juduai asko nai izan zien eta bere serbitzari leialenekotzat Mardoqueo berekin beti iduki zuen.



## OGEITA BEDERATZIGARREN IRAKURGAIA

### 1. Babiloniako gertaerak. Baltasar-en afaria

Persian esan diran gauza oiek gertatzen ziran bitartean, Babilonian ere zer ikusi eta esan bazan. Lenago esan degu Babiloniako agintea eta erregetza Nabukodonosor-en seme Baltasar-ek artu zuela. Onek etzuen bere gogo gaiztoak nondik eta nola beteko zituen ibilli baizik egiten. Arterañoako asko ez baziran bezala, gau baterako afari andi bat pretaerazo zuen, eta au jatera deitu zituen erreinuko milla andizki, zeintzuekin maican zegoala, erakarri zituen aitasaba Nabukodonosor-ek Jerusalemgo Elizatik eramandako urre eta zillarrezko ontziak, eta berak, andizki, emazte, emazte-ordeko eta beste emakume galdu, an zeuden askok, ontzi oietatik ardoa edaten zuten.

Poz eta atsegiñik andiengan maican jaten eta edaten ziardutela, agertu ziran gizonaren eskuko beatz-antz batzuek, paretean zerbait eskribatzen zutenak. Erregeak au ikusi zuenean, izutu eta ikaratu zan: erreinuko sorgin eta aztiak sar erazo zituen, asmatzalleari sari andiak eskeñita; baña etzion inork ez irakurri eta ez asmatu zer esan nai zuten. Naigabez onela beterik eta biotzak txit illundurik zeudela, ama erregeña sartu zan eta seme Baltasar-i esan zion: Ez ikaratu, o errege! Babilonian bada zure aita Nabukodonosor-en denboran gauza isill asko asmatzen zituen, eta gizon au Daniel da; otsegiozu eta eskribu oriek azalduko dizkizu.

Daniel afal-tokian sartu zan, eta erregeari esan zion: Jaun Zerukoak zure aita Nabukodonosor-i erreinua, anditasuna eta aberastasuna eman ziozkan, eta erri eta jende guziak begirune andia zekarkioten: nai guzia egiten zuen; biotza uanditu zitzaion, eta bere arrokeriak basora bota zuen zazpi urtean lar-abereen gisan bizitutzera, Jaunaren almena edo esku altsua ezagutu zuen artean. Zuk, Baltasar, zure aitari gertatu guzia baziñiekien, eta ala ere umildu bearrean, Jaun Zerukoaren kontra jaiki zera: bere etxeko edanontziak erakarri dituzu eta afari onetan oietatik edan dezute, eta beste gaiztakeria askori leku eman diezu.

Beragatik paretean itz oiek eskribaerazo ditu: *Mane, Teceel, Fares;* zeñak ara zer esan nai duten. *Mane:* Jainkoak zure erreinua neurtu du eta

bukatu da. *Teceel:* Pisatu zaitu eta bear baño ariñago arkitu zera: erioa gañean dezu. *Fares:* Zure erreinua erdiratu du, eta Media eta persiarrai emango die. Azalduera onen ondoren bereala Danieli erregeak saritzat agindutako janzi ederrak ipiñi ziozkatzen eta erreinuko irugarren gizontzat ezagutu zuten. Baltasar gau artan berean illa izan zan, eta ikusi zituzten gauza miragarri oiekin, guziak arri egiñik geratu ziran.

### 2. Dario, Babiloniako Erregea

Baltasar-ek etzuen semerik utzi, eta onen lekuan bereala Dario Babiloniako erregea sartu zan, zeñak poz andia artu zuen Daniel juduari arestian emandako goratasun andiarekin; eta gañera erreinuko agintaritzat goitu bat bertatik eman zion.

Daniel, lenagoko erreinaldian asko ikusia eta erreinuko gauzaetan ondo trebatua zan; beragatik erregeak lanbide guzietan iritzia eskatzen zion, eta txit egoki erabakitzen zituen. Zeukan baño ere eskualdi geiago erregeak eman nai zion, bere doai ezin obeagoakgatik, eta onek berak beste andizkietan Daniel ezin ikusia eta galdu naia sortzen zuen. Danielek etzuen gaizki esateko eta eltzeko biderik ematen: baña biotz dollordunak berritu zuten Nabukodonosor-en denboran egin izan zuten lanaren antzeko bat.

Dariori aginduerazo zioten ogeita amar egunean etzezala inork, ez Jainkorik eta ez gizonik Dario baizik adoratu, eta agindu au austen zuena, leoietara bota zedilla. Danielek, Jerusalemeneroz begira jarrita, egunean iru aldiz otoitz edo orazioa egin oi zuen. Darioren agindu onen berria artu zuenean, bere oitura ona etzuen utzi, zeren zion, bere eginkizunak betetzetik etzuela ezerk ere atzeratuko. Bein batean, bada, gelan sartu zan, eta bere etsaiak zelatu zuten, eta belaunikatuta zegoan tokira sartu zitzaiozkan. Erregeari-bereala esan zioten Daniel zertan arkitu zuten, eta erregeak, uzkur eta gogo gaiztoz bederik, agindu zuen leoi artera bota zedilla, eta begietatik bialdu zuen, esanaz: Zuk beti adoratzan dezun Jainkoak gordeko zaitu.

Daniel leoi artera bota eta atea itxi zioten. Dariok gau guzia, begirik itxi gabe, esnai egin zuen, eta biaramonean Danieli joan zitzaion, eta ikusi zuenean leoiak ukitu etzietela txit poztu zan eta bere-bereala zulotik ateraerazo zuen. Agindu zuen Daniel galdu nai izan zutenak aren lekuan bota zitezela; eta berak, beren humeak eta emazteak arturik, bota



zituzten, eta lurrera alderatu ere baño lenago, zuloko leoiak atzaparrak ezarri, eta ezur eta mami zeatu zituzten.

Orduan Dariok Jainkoaren esku altsua ikusirik, agindu zuen etzedilla Danielen Jainkoa besterik ezagutu eta adoratu. Agindu onekin Israelko eta Judako katibu guziak txit atsegin andian eta naiera guzian jarri ziran. Dario epe laburrean il zan, eta bere lekuan Astiajes semea utzi zuen; baña au ere zortzi edo bederatzigarren illean il, eta onen ordeztzi Persiako Errege Ziro sartu zan. Ziro bere bi aurrekoen bideai jarraitu zitzairen Daniel eta beste juduakin, zeñak pakean bizi ziran, bai Babilonian eta bai Persian, beren errira itzultzeko ordua lenbaitlen ikustea beste opa gabe.

### 3. Ziro Persiako eta Babiloniako Erregea

Zirot serbitzari nagusitzat Daniel artu eta jaten bere maiean iduki oi zuen, eta lanbide guzietan onezaz beartzen zan, eta Danielek ere erregearen amorioari leialkiro erantzuten zion. Zirotan utsune negargarri bat ikusten zuen. Jainko gezurrezkoetara etziña zan, eta Danielek artu zuen errege berri au lege onera ekartzeko asmoa. Neke andiak ekarri ziozkan lanari ekin zion; baña atzenean ere ondo irten zitzaion.

Zirot, Babiloniara etorri zanean, topatu zuen idolo bat *Bel* zeritzana, eta babiloniarrek txit begirune andian zeukaten. Zirot ere agur eta adorazioak egunoro egiten ziozkan: Danielek ez ordea. Zirot bein batean Danieli galdetu zion: Zergatik Bel ez dezu adoratzan? Danielek erantzun zion etzuela ark gizonak egindako jainkorik ezagutzen, ezpada zeru-lurrak egin zituena eta gauza guziak eskuan dituen Jainko bizia. Zer bada? erregeak esan zion: Uste dezu Bel jainko bizia ez dala? Ez dakusu egunoro zenbat jan eta edaten duen? Idolo onentzat egunean milla eta larogei libra ogi, berrogei ardi eta emezortzi arropa ardo bear ziran. O errege! Danielek, farra axal batekin, erantzun zion: Ez itsutu eta gezur ori sinistuta egon; bada, Bel orrek mamia lurrezkoa eta azala bronzekoa du, eta ez du ezer jaten. Danielen esan onekin Ziro suak artu zuen; Belen apaizak deitu eta esan zien: Baldin ez badidazute agertzen Bel egunoro ematen zaiozkan gauza oiek nork jan eta edaten dituen, il bear zaituztet; eta sinisterazotzen badidazute Bel berak jaten dituela, Daniel ilko da, zeren Belgatik ain gaizki itzegin duen. Danielek erregeari esan zion: Zuk diozuna egin bedi.

### 4. Belen apaizak

Belen apaizak aldarepean zeukaten ate isill bat, ustez inork etzietzena. Ate onetatik apaizak beren emazte eta humeakin gauaz sartu, eta Bel egunaz ipintzen zitzaiona jaten zuten. Apaiz oiek erregeari esan zioten Belen aurrean jan-edanak ipini zitzaela eta eliz-atea bere silluarekin itxitzeko, eta biaramonean ikusiko zuela nola ipini guzia Belek jan zuen.

Apaizak elizatik irten ziran, eta erregeak zekusala, Danielek eliza guzian galbairarekin autsa zabaldu zuen, zertako zan iflori esan gabe, eta erregea eta Daniel elizatik irtenda, atea itxi zuten eta erregeak bere sillu ipini zion. Lan au, inork, biak bestek, etzietzen. Apaizak beren etxekoekin ate isilletik oi bezala gauaz sartu ziran, eta arkitu guziak jan zituzten, zer amutan erortzen ziran gaitz-pensatu gabe. Biaramonean errege eta Danielek atea bere silluarekin, illunabarrean utzitako eran, topatu zuten, andik inor sartutako antz gabe. Eliza idikita, erregeak aldarera begiratu zuen eta ezer ikusi etzuenean deadarrari eman zion: O Bel, andia zera, bai, eta ez dezu, ez, gezurrik! Danieli farra joan zitzaion, eta sartu etzedin besotik eldu eta erregeari esan zion: Lurrera begira. Erregeak erantzun zion: Nik emen, gizon, emakume eta aurren on-arrastoak dakuskit. Bereala ezagutu zuen au gezurra baizik etzala; apaizak artu zituen; beren isill-lana agertu zuten eta ilerazo zituen. Bel Danieli eman zion nai zuena egiteko: eta Danielek puskatu eta eliza arras ondatu zuen.

Babilonian bazan erensuge edo dragoi andi bat, babiloniarrek jainkotzat zeukatena; eta Bel galduta ondoren, erregeak Danieli esan zion: Orra jainko Dragoia, Babilonia guziarekin nik ere adoratzan dedana. Ezin ukatuko dezu, ori, benik-bein, jainko bizia dala. Zuk ere adora ezazu. Nik, Danielek erantzun zion, nik nere Jaun eta Jainko bizia adoratzan det. Dragoi ori Jainko bizia ez da, eta zuk nai badezu, nik, makilla eta ganibita gabe, ilko det. Gogoak dizuna egizu, erregeak erantzun zion. Danielek baimen onekin, pikea, seboa eta illea batean guziak egosi, eta opiltxo batzuek egin zituen; Dragoiari aoran sartu ziozkan, eta bereala ler egin zuen. Ara emen zuen jainkoa, Danielek esan zion; eta erregea lotsaturik gelditu zan. Babiloniarrek Bel eta Dragoia Danielek ondatu zituela ikusi zutenean, matxinada gogor bat sortu zan; erregeari eskatu zioten Daniel emateko; bestela bera eta etxeko guziak iltzera zijozala.



## 5. Daniel leoi-zuloan

Erregeak, gogo gaiztoz bederik, Daniel eman zien, eta eskuak bereala ezarririk, bota zuten zazpi leoitzar gosetu zeuden zulora, oien ortz-agiñetan triskillatu zedin. Baña lenagoko aldiaren ez ezik, oraingoan ere Jainkoak bere profeta leialaren ardura bazeukan. Egun oietan Habakuk profeta Judan bizi zan, eta igitarien zat elzaria eta ogiarekin sorora zijoala, Jaunaren aingeru bat aurkeztu zitzaion eta esan zion janari hura leoi-zuloan zegoan Danielentzat Babiloniara eramateko. Jauna, ni Babilonian egundano ez naiz izan, eta leoiak non dauden ere ez dakit, profetak erantzun zion. Aingeruak bereala illeetatik eldu zion, eta begien itxidiki batean, irureun leguaz aparte zegoan Babiloniara eraman zuen eta leoi-zulo ganean ipiñi zuen. Habakuk profetak otsegin zion: Daniel Jainkoaren serbitzaria, Jaunak bialdutako jan au ar ezazu. Danielek, zeruronz begiak zuzendurik, esan zuen: Nizaz oroitu zera, ene Jainkoa, eta maite zaituztenak aztu etzazkizu! Jaikita, jan zuen. Gero aingeruak Habakuk illeetatik eldurik, itzuli zuen Judara, artutako lekura.

Erregea zazpigarren egunean Danielgana joan zan, ilda egongo zanez etsita; baña, zer miraria! ikusi zuen Daniel leoiaren erdian eserita. Biotzak pozez ganeztu zion, eta deadar egin zuen: Danielen Jainko Jauna, andia zera! Bere-bereala ateraerazo zuen, eta erregearen aginduz, Daniel galdu nai izan zutenak bota zituzten, eta leoi gosetuak bat-batean iretsi edo tragatu zituzten, erregeak zekusala. An bertan agindu zuen Danielen Jainko miraritsua mundu guziak aitortu eta adoratu zezala.

## 6. Babiloniako katibutasunaren bukaera

Danielek, ikusirik mirari oiekin Ziroren biotza Jainko egiazkoron z griañatu zala eta ezagaturik bere lagun judar eta israeltarrak Jainkoak profetaren bitartez izendatu izan ziezten irurogeita amar urte katibutasunekoak bete zituztela. asi zitzaion ez-arian esaten, Jainkoaren borondatea zala bere mendean, bai Kaldean eta bai Persian, zeuzkan katibuak beren lurrera itzultzeko eskubidea ematea. Isaiasek berreun urtez lenago aditzera eman zuela nola lanbide andi onetarako Jaunak Ziro erregea esleituko zuen; argatik Kaldea eta Persiako erregetzak eskuan ipiñi ziozkala. Eskari onek Zirori, dudarik gabe, atsekabe latza emango zion, zeren bere

mendeko guzietan etzuen katibu oiek baño leialagorik, edozein gauzatarako artetsuagorik eta zer egin gitxiago bere erreinaldian ez ezik, lenago koetan ere eman zuenik. Ala ere, ezagaturik Jainkoak ala nai zuela, beren tokira itzultzeko baimena eman zien.

Onen ondoren laster il zan Daniel, ainbat mirari egin zituen, eta ainbat egia erregeai esan, eta zer egin ain ondo erakutsi izan ziena.

## 7. Israeltarrak prestatzen dira Israelera itzultzeko

Israeltarrak erregearen baimen au jakin zutenean, asi ziran biderako prestamenak egiten. Beren atzerapen eta eragozbidetaz bazituzten, bere bereala irteteko. Bazter aietan egondako irurogeita amar urteetan, bertako egiñak zeuden: beren bizia ateratzeko erak, batzuek nekazaritzan, besteak saldu-erosian, nor bere gisan artuta zeuzkatzen, eta guziak zerbait zer galdu-gorde zuten. Baña Jaunaren borondatea ala izanik, eta Jerusalemgo Eliza berriren eresian, erabaki zuten bideari ekitea. Etxegokien guziak batean abiatzea, ezpada txandaka, gelditzen ziranak irten ziranen gauzai buruzpidea emateko.

Juda eta Benjamingo tribuetakoak lenbiziko prestatu ziran, Jainkoak onela adierazorik. Buru edo gidaritzat artu zituzten Josue edo Jesus, Aaronen ondorengo edo odolekoa; eta Zorobabel, Josias erregearen seme zarren eta erreinuko naspillakgatik errege izan etzan Joanen biloba edo semearen semea. Beren lekuratzen ziranen, Jerusalemgo Eliza berriren bereala egin bear zuten. Onetarako erbestean gelditzen ziranak urre eta zillartza andiak eta beste gauza asko eman ziezteen. Erregeak ere, Nabukodonosor bere lenagokoak Jerusalemgo Elizatik Babiloniara eramandako ontzi guziak itzuli ziezten. Ara zenbat: ogeita amar katillu urrezko eta milla zillarrezko; ogeita bederatzi ganibita zillarrezko esku-dun; ogeita amar kopa edo edanontzi urrezko eta lareunda amar zillarrezko, eta beste milla ontzi, txiki askoz gane; guzitara bost milla eta lareun edanontzi edo baso urrezko eta zillarrezko baziran.

## 8. Babiloniatik Jerusalemenerako irteera

Abenduaren lenengo egunetan irten eta martxoaren atzenekoetan beren lurrera iritsi ziran, Babiloniatik Jerusalemenerako irureun leguak lau



illabetean egiñik. Bideante oien buru Josue apaiz nagusia eta Zorobabel prinzipia ziran. Berekin ere zituzten Esdras, Nehemias eta ots andiko Mardoqueo, Ester erregiñaren osaba, zeñak beren buru zuritu eta zartuakin gizalde andi hura edertzen zuten.

Judako lurrean oñak ipiñi zituztenean, auzpez jarrita, Abraham, Isaak eta Jakoben Jainkoa adoratu zuten eta esker onak eman ziozkaten. Jende guzia bereala zenbatetu edo kontatu zuten, eta berrogeita bederatzita milla seieunda larogeita amabost arkitu zituzten, emazte eta aurrak kopuru onetan sartu gabe, zeñakin eun milla ondotoxo baziran.

Jerusalenen sartuta, zaborrak eta ondakiñak baizik ikusi etzuztenean negarrari eman zitzaizkion; gauza batek biotzak zerbait lasatzen ziezten: noizbait berritzeko usteak. Ofrenda edo eskeñtza andiak eginda itzuli ziran nor bere etxeoakin anziñako beren erri eta bazterretara: baña aspaldian lur aien jabe egiñik bizi ziran arrotzak etzieten eman nai izan, berentzat nai etzutena baizik, eta labakiak joaz eta otadiak okuntzatuaz, luzaro txolaetan bizi izan ziran, alik eta erriak egin eta etxeak jasotzen asi ziran arteraño.

Josue apaiz nagusia bere aideakin eta Zorobabel erriko burua Dabiden ondorengoekin Jerusalenen gelditu ziran; estalpeak egin zituzten, ekaitzetatik beren buruak gordetzeko. Elizaren orua garbitzeari bereala ekin zioten, Aldarea egiteko; eta egun gitxiren buruan zerbait moldatu eta asi ziran Jaunari ofrendak eskeñtzen.

Israeltarrak poz eta atsegin andia zuten erlejioko gauza oiek egiten, zeren, geienak erbestean jaiok ziralako, etzituzten egundaño ikusi, eta zarrak ere atzerrian igaro zituzten irurogeita amar urtean etzuten alako-rik egin.

## 9. Elizaren berritzea

Bereala Eliza berritzeko langilleak eta gaiak biltzeari ekin zioten, eta urtebeteren buruan guzia zuzendu zuten. Bigarren urteko bigarren illean asi ziran zimenduak ateratzen. Elizari oña ipiñi ziotenean, Israel guzia Jerusalenen batu zan, eta egun asko igaro zituzten Jauna alabatzen. Baña lanari jarraitzeko eragozpenak laster sortu zitzaizten. Israelkoak Babiloniar joanda, Israel eta Judan jarri ziran arrotzak etzuten Jerusalengo Eliza berritzea ontzat artu, zeren zioten, israeltarrak an jarri ezker,

beren lenagoko lurak artu naiko zituztela, eta geroenean guziakin jabe-tuko zirala.

Ziro israeltarren ongillea bizi izan zan artean, etsai oiek etzuten nai guzia egin osotoro eragozteko; baña Ziro il zanean, onen ondorengo-gandik atera zuten aginde bat, Jerusalengo uria paretaz itxitzea bakarrak debekatzen zuena. Langilleak berri onekin Elizako lanari ere utzi zioten, eta Eliza erdi-egiña gelditu zan. Zorobabel eta beste gidariak eragin nai zuten, esanaz, Eliza egiteko debekurik irten etzala, baña bildurtu ziran; eta Elizari utzirik, asi ziran lur-lanetan eta etxeak berentzat egiten.

Jainkoak lanbide au etzien ondo artu, eta bost urte ondorengoetan etzuten abustu onik izan, eta neke guziak alperrik egin zituzten. Zeruak etzien euririk bialtzen, eta lurak ere, iñongo obena eta goxoena izanik, etzien elkorrenak baño geiago ematen. Ala ere etzuten gaitz onen sus-traia ezagutzen. Andik laster Jainkoak Ajeo profetaren bitartez Zorobabeli esan zion: Erri onek dio Jaunaren etxea egiteko denbora oraindik ez dala. Zer bada? Zuek etxe ederretan bizitzeko denbora noiz-nai da, eta nere erorita egongo da? Eskua kolkoan ipiñi ezazute eta ikusiko dezute zuen laborerik eza eta beste neke negargarri, aspaldian daramazkizutenak, nere etxea egiteari uztetik datozkizutela. Mendira igo, bada, zurak ekarri eta etxea egin zadazute, eta gogoan artuko dizutet.

Zorobabelek Jaunaren gaztigu au guziaz adierazo zien, eta ezaguturik txit gaizki egin zutela aibestez lanari uzten, eta geldi-aldi onetako nekeak ondo irabaziaz zituztela, Eliza egiteari berriro ekin zioten, bukatu arteraño ez geiago uzteko asmoarekin. Orduan ere etsaiak etziran zabartu eragozteko. Dario Babiloniako erregeari gaztigatu zioten Jerusalenen zer lanbideetan ari ziran: baña Dariok ez debekatu ezik, zorrotz agindu zien aren izenean langilleai bear zuten guzia emateko. Ajeo profetak Zorobabeli berriz ere itzegin eta esan zion Eliza hura lenagokoa baño gogoangarriagoa izango zala. Jende guziaren *Opatuak* beteko zuela. Ala gertatu zan, bada munduaren Salbatzalle Jainkoaren Semea Eliza onetan egon zan, eta bere bizitzako mirari andiak emen egin zituen.

## 10. Jerusalengo Elizaren bukaera

Bost urteren buruan Eliza bukatu zan, eta Israel guzia Jerusalenen bilduta, eliz-gauza edo funzio andiak eta pesta asko egin zituzten, eta geroz Jainko egiazkoa emen onratzen zan.



Esdras, Zorobabelekin batean Babiloniatik Jerusalemenera joan zana, Babiloniara itzuli zan, eta emen geratutako katibu-ondarrak arturik, Jerusalemenera biurtu zan. Uri onetara ziranean, eskeñi zituzten Babiloniatik ekarritako ofrenda andiak, eta beren lagunakin poz andian bildu ziran. Esdrasek langai au eginda laster, ezagutu zuen israeltar askok beren odolako etziran emakume atzeak emaztetzat artu zituztela, eta berri onek naigabe andia eman zion, zeren legeak debekatzen zien arrotzakin ezkontzea: beragatik erriko zar eta buruak bildurik, erabaki zuten, emazte oiek guziak seme-alabakin beren tokira bialtzea, eta israeltar uts-utsak gelditu ziran, iñorekin ere nastu gabe.

Eliza eta eliz-inguruko lanak egin zituztenean uria ere berritu nai zuten; baña Babiloniako Erregeak, noren mendean oraindik zeuden, debekatuta zeukan, eta onek atsekabe andia ematen zien: ikusten zuten, alabañan, Jerusalemengo uri santa zaborraz eta pareta erdi-errez betea, eta Elizan zeuzkaten ondasun andiak, etsaia etorrita, galtzeko bidean; eta artu zuten baimena eskatzeko asmoa.

Nehemias judarra denbora artan Babiloniako Erregearen etxean zegoan, eta erregearen txit kutuna izanik, eskatu zion emateko, arren, bere errira itzuli eta bere gurasoak zetzaten Jerusalemengo uria berritu eta paretaz sendotzeko eskua. Erregeak baimen au ez ezik, eman ere baziozkan biderako kontuartzalleak eta Israelko agintarientzat bere aldeko kartak, esaten ziela Nehemias esturasun guzietan laguntzeko.

## 11. Jerusalemenera iskera

Jerusalemenera zanean iru egunean atsedean eta uriari ertz guzietara gauaz isillik begiratu zion, eta gogoan artu zuen nola egin. Bearren-bearrenekoa auzoetako etsaiak oartu baño lenago uriko paretak aurreratzea zan: onetarako langilleai lanean asi ziranetik etzian atsedetan utzi, eta arierazo zituen eskurik ere kendu gabe. Etsaiak alegin asko egin zuten eragozteko, baña alperrik; eta berrogeita amabigarren egunean Jerusalem guzia pareta eta murre lodiz inguratua eta ate sendoakin itxia agertu zan. Bitarte onetan langilleak esku batean atxurra eta bestean etsaiari arpegi emateko arma zuten; edo batzuek lanean ari ziran bitartean, besteak kontuan zeuden, etsaia bazetorkien gogor egiteko; benik-bein, Nehemiasen azkartasun eta argiak etsai guziak arriturik utzi zituen, eta argiro igerrizioten Jainkoaren lana zala eta bere esku altsua zebilela.

Lan andi oiek egindakoan, Israelko eta Judako jende guziak Jerusalemenera bildu ziran, egun askoan eliz-gauza edo funzio andiak egin zituzten, Jakobenen ondorengo Erri autuari Jainkoak egin izan ziezten mesede miragarrien oroipenean.

Ogeita seigarren irakurgaican 300-garren orrian esan zan Jererniasek Jerusalemengo Elizatik atera eta lur-zulo batean gordeta zeuzkan gauza santak Neboko mendira eramanean zituela, su santua ez beste guziak. Eliza eta uria berrituta gero, arestian aitatu diran eliz-gauzaetan zebiltzan egunetan, Nehemiasek lur-zulo artara suaren billan bialdu zituen, eta neke asko eginda, lur-zuloa topatu zuten, ez ordea sua, ezpada ur arrezko putzua. Nehemiasek ur puska bat erakarri zuen; eta ur onekin aldare gañeko egur eta jauskañi edo biktimak busti zituen. Gero eguzkiak odopetik irtenda ukitu zieneko, irazeki zitzaien, eta egur eta beste gauzak erre ziran, eta su au gelditu zan lur-zuloan arkitu ezin izan zuten suaren orde. Jerusalemenera batutako Israelko seme guziak, mirari onekin arriturik, Jainkoa alabatu zuten, eta ezagutu ere bai bere Erri autuari bezala begiratzen ziela, eta artu zuten geroz leialak izateko asmoa eta eman zioten bere agindu guziak zintzo gordetzeko itza.

Gauzak onela prestaturik, Nehemiasek esan zien txit konbeni zala Jerusalem jendez jaztea, eta amarretatik bat emen gelditu eta gañerakoak Israel guzian zabaldu zitezkeala. Nor gelditu zotz egin zuten, eta guziak pozez geratu ziran, bai lenagoko beren lekuak utzirik, Jerusalemenera bizi bear ziranak; eta bai nor bere tokira joan ziranak. Uri guzia bedeinkatu zuten, eta nork bere lan eta bizimoduari ekin zion.





## OGEITA AMARGARREN IRAKURGAIA

### 1. Makabeoen kondaira edo historia

Ikusi degu Nehemias, Persiako Erregearen serbitzoa utzirik Jerusalemenera bere lagunakin etorri zala; eta orduan erregeari emandako itza betetzeagatik, lenagoko eginkizunera itzuli zan, non urte batzuek igaro zituen, erregearen txit gogoko. Jerusalemenera geiditu ziran israetarrek ez-arian zijozzen Jainkoari leialak izateko itza jaten, eta Nehemiasek berri au artu zuenean, utzirik ain maite zeukaten nagusiak, Jerusalemenera biurtu zan, eta zuzenbideak artu zituen.

Oiek eta beste gauza asko eginda, Nehemias Jerusalemenera il zan; baita bere lagun maite Esdras eta Zorobabel ere, zeñak, esan dan bezala, katibutasunetik etorrita, berri-berri zituzten Eliza santa eta Jerusalemeko uria; Israel guzian bizilekuak egin zituzten eta Jainkoaren Erri autua txit oñ onean utzi zuten. Geroz irureunda geiago urtean israeltarrak Persiako Erregearen babesean aurrena eta Greziakoarenean gero, bere-gaño bizi izan ziran, inork ere gaitzik egiten etziela, eta Jainkoaren esku altsua beren aide argiro zekustela.

Baña pake gozoaren mingarria uste etzuten aldetik izan zuten. Simon zeritzan Elizako burua, auzo-erri Siriako errege Seleukori joan zitzaion esatera Jerusalemeko Elizan dirutza andiak eta aisa artu zitezkeanak zeudela. Errege au, juduai ondo nai zielako, uzkur zegoan gaztigu onekin nai zana egiteko; baño geroenean dirutza aren eske Heliodoro bere serbitzaria bialdu zuen.

Heliodoro Jerusalemenera sartu zan emen inork gaitz-pensatu gabe; baño bere asmo galdua agertu zuenean, guziak, Onias apaiz nagusia aurrena zutela, negarrari eman zitzaiozkan. Apaizak aldare aurrean eta besteak al zuten lekuan Jaunari eskatzen zioten, arren, esku lapurti aietatik bere etxe santa gorde zezala. Jainkoak aditu zien. Esan-al guziak Heliodoro etzuen atzeratu Elizan bere oñ zikiñak ipintzetik, eta Jainkoak bere almena erakutsi zion. Heliodoro Elizan sartu zanean, lagunak ikusi zuten zaldi eder bat zalduntzar izugarri bat gañean zuela, zeñak bere ankakin joaz, Heliodoro lurrean ezarri zuen. Bi gazte eder, aldi berean, alboetan jarri zitzaiozkan, eta zatitu eta bana-banatzen zuten erdi-illean uzteraño. Bereala eldu eta kanpora atera zuten, Elizan il etze-

din. Juduak mirari au ikusi zutenean, Elizan sarturik, Jainkoari eskerrak eman ziozkaten, eta arestiko negarrak leortu ziran.

Heliodororen lagunak, nagusia iltzen ikusirik, Onias esan zioten, arren, aren osasuna Jaunari eskatzeko. Onias erreguan jarrita berealaxe, len zatitu zuten gazte aiek alboetan agertu zitzaiozkan, eta osotero sendatu zuten, eta esan zioten: Zure bizia Onias zor diozu, eta Jainkoaren eskubide andia ezagutu ezazu. Au esan eta ezkutatu zitzaiozkan. Heliodoro bere errironz itzuli zan, Jainkoak arekin egindako mirariak barreatuaz. Erregeari guzi-guzia esan zion eta berriz diru eske inor bialtzetik atzeratu zuen: baño Simon salduak etzuen bere asmo gaiztoa utzi. Bere iguin guzia Oniasen kontra agertu zuen. Jerusalemenera sinisterazo zien, Heliodoro Onias berak erakarri zuela, eta onelako beste gezur askorekin jendea nastu zuen, Onias il naican abiatzeraño; eta arkitu zan Seleukogana joan eta nasle aiei, ez, arren, eskurik emateko eskatu bearrean. Seleukok txit begitarte ona egin zion; baño nai ziran zuzenbideak artu baño lenago il zan; eta bere lekuan sartu zan anaia Antioko gizonik errebesena eta biurrienetakoa.

### 2. Antioko

Oniasiek ikusi zuenean Antioko zein gizon gaiztoa zan, eta ezer iritxiko etzueenez etsita, bazter batera bakartu zan eta etzan ostera Jerusalemenera itzuli, geiago nastutzeko oña artu etzezaten.

Jason, Oniasen anaia, ez ordea oituraetan anaiaren antzekoa, bereala asi zan anaiaren ordeaz apaiz nagusitzan sartu naiez. Antiokori diru askoren truke laguntza eskatu zion. Antiokok beste gauzarik naiago etzuen, eta pozik lagundu zion. Jasonek, bera gaiztoa izan ez ezik, besteak ere gaiztotu zituen: baziakien, alabañan, egiazko apaiz nagusia etzala eta irauango bazuen, indarrak naspillatik etorri bear zitzaiozkala. Errege Antiokoren laguntzarekin jentil edo idolozaleen legeak Jerusalemenera ipiñi zituen; eta urte gitxiren buruan, guzia gora-beeratu zuen, eta Jerusalemeko jende zuzena eta jainkozkoa, lenagoko antzik ere etzuela ipiñi zuen.

Antioko, juduen gogoko berri jakin naiez, Jerusalemenera joan zan, eta txit begitarte andia eta gozoa egin zioten. Jason, batez ere, egin-al guzian nekatu zan erregea onratzeko, eta erregea bere errironz bereala itzuli zan.



Ikusi au Jerusalem eman zionetik iru urteren buruan, Jasonek, len bezala, urteoroko emankizuna bialdu zion, arestian aitatutako Simon zorigaiztokoaren anaia Menelaorekin. Onek ezaguturik erregearekikoa zerbaiz diru geiago eman ezker egin zezakeala, apaiz nagusitzagatik eskeñi bat egin zion. Antioko artara jarri zan, eta Jasoni kendurik Menelaori eman zion, apaiz nagusitza eman edo kentzea bere egitekoa bazan bezala.

Menelao Jerusalemenera alderatu zanean, Jasonek amontarretara iges egin zuen, oroiturik burniarekin iltzen duena burniak ilko duela dion esazeraz: eta Menelao jarri zan apaiz nagusiaren izenean, ez ordea izatez, zeren etzegokion. Menelaok bereala erakutsi zuen urteoroko dirutza emateko uzkurra. Au erregeak gaizki artu zion, eta Menelaoren lekuan Lisimako ipini zuen. Onela apaiz nagusitza eskutik eskura zebillen, eta guziak ziran zein baño zein gaiztoagoak eta biurriagoak, eta oitura guziak galtzeko, Elizako ondasunak ostutzeko eta guzia naspillatzeko egokiagoak. Gora-beera oietan saldukeriaz il zuten Onias apaiz nagusi gogoangarria, Jaunaren aide egiak esatera bere bakarretik irten zalako. Juduak ezagutu zezaketen naspilla guziak zertatik zetozkien; baño etzuten ontzeko asmorik artzen. Egunetik egunera gaiztotzen zijozzen.

Denbora onetan Jerusalemene gañean agertu ziran eta berrogei egunean airean ikusi zituzten zaldizko gizon-samalda andi urrez janziak, elkarrri erasotzen ziotela eta arma-ots ikaragarriak egiten zituztela. ala ere Jerusalemengo biotzak etziran biguntzen. Odeietako siñaleak ukitzen etzieten ezker, lurreko zigorrada gogorrek jo zituen.

Antiokoren il-berria gezurtiren batek Jerusalemene barreatu zuen, eta egia zalakoan, txit poztu ziran, zeren bildur zitzaizkan. Antiokok aditu zuenean berri onek zer poza eman zien, soldadu-talde andiarekin eraso zien, eta Jerusalemene indarrez sartuta, txiki eta andi, eskuratzen zituzten guziak il zituzten. Ilkintza onek iru egunean iraun zuen; bitartean larogei millak bizia galdu zuten. litzez asperturik, berrogei milla atzeman, eta beste berrogei milla katibutzat saldu zituzten.

Ain ilkintza izugarria eta ainbeste odol isurtzeren ondoren, Antioko Elizan sartu zan, eta urrezko aldare eta kandeleroa, urrezko eta zillarrrezko ontzi eta beste gauza guziak artu zituen, eta Antiokiara itzuli zan, bost milla eta bederatzi eun arropa eta geiago un eta zillar Elizakoakin txit arrotu eta uanditua. Ilkintza eta lapurreta oiekin etzeritzan oraindik ere Jerusalemene nai adiña ondamen egin zuela. Urte biren buruan ogeita bi milla gizonekin Apolonio bialdu zuen, eta jai-egun batean Elizan otoitz-aldian zeudela, jerusalentar guziak il zituen. Kariaketara irten

ziran, eta gizon larri guzia ere il, eta arkitu guzia ostu zuten; etxerik obena erre eta uriaren inguruko paretak bota zituzten, eta Jerusalem osoturo ondatua gelditu zan.

Andik laster agindu zuen etzedilla greziarren jainko Jupiter baizik adoratu; eta aginte au bazter guzietan betetzeko, bialdu zituen mandataririk gogorrenak eta egin nai etzuten guziak iltzeko prestatuak. Juduetatik, zenbait artara jarri baziran ere, askok naiago izan zuten bizia galdu, eta beste askok baso eta eremuetara joanda nekepe latzean bizi, Jainko egiazkoa ukatu baño. Jerusalemengo Eliza berean jainkotzat Jupiter ipiñi zuen, eta lasakeria eta urdakeriarik itsusienak leku santuan egiten ziran. Baña, nork esan Antioko biotz gogorreko ark zein estura larri eta negargarrian juduak ipini zituen? Amak, aurtxoak bularrean zituztela, kariakaz-karrika erabilli eta murrutik beera botata, ama-humeak lertzen ziran, Jainkoaren legeak agindua egin nai zutelako. Beste asko bizirik erretzen zituzten. Jainko egiazkoaren onran zerbaiz egitea asko zan, zelatariak bereala ikusi eta bizia kentzeko. Iñor ozta menturatzen zan Judakoa zala esatera ere.

### 3. Eleazar-en irmotasuna eta eriotza

Biotzak aide guzietatik naiagabez beteta zeuden denbora onetan, Jainkoak eman zien, beste askoren artean, ikasbide edo ejenplo eder bat, bildurti guziak lotsatu zitzaiekana. Eleazar zeritzan gizon zar jakintsu eta aditu bat Jerusalemene bizi zan. Oni agindu zioten legeak debekatzen ziozkan gauza batzuek jan zitzala; aoa indarrez zabaldua, janerazo nai izan ziozkaten; baño gizon sendo eta jainkozko onek etzien nai zutenik egin, eta naiago zuen eriotza on bat artu, bekatuaren truke gordetako bizia baño. Urkaberara bazeramaten, eta adiskideak errukiturik esan zioten debekatzen etzitzaziozkan jan-gauza batzuek eramango ziozkatela, eta idoloai eskeñitako gauzak jan-irudia egin zezala. Baña etzuen au ere egin nai izan, eta erantzun zien: Naiago det bizia galdu, zuek diozutena egin baño: gezurrezko irudipenik nere adiñari ez dagokio: ondorengo gazteak ez dute esango Eleazar larogeita amar urtekoak. bizia gordetzeagatik, legeak debekatua egin duela, eta emendik oña artu au bera egiteko, ez: gaur gizonen eskuetatik irtenda ere, Jainkoarenetatik, ez bizirik eta ez ilda irtengo naiz; nere zarzaroa ez det illundu nai: beragatik biotz andiarekin erioa artzen badet, adierazoko det nere buru zuriari dagokiona naizala,



eta gazte guziaz erakutsiko diet Jainkoaren lege santa eta zuzenagatik bizia onroso galtzen.

Itz oiek entzun ziozkatenean, asi zitzaiozkan makillakin zeatzen, ezurrak agertzeraño. Atzeneko asnasa eman baño lenago, deadar min bat egin zuen, eta itz oiek esan zituen: O Jaun, guzia dakizuna! Dakusu bizia gorde nezakeala, iltura edo tormenturik gogorrenak daramazkidala; baño pozik daramazkit, zure bildur naizalako. Au esan eta agure santu hura il zan, sekula guzian bizitzeko zarrai ez ezen, gazteai ere irmotasunaren erakutsi ederra emanaz.

#### 4. Ama batekin zazpi semeen eriotza

Antiokok uste izan zuen bere esanera Eleazar etzala jarri bera begira etzagoalako, eta artu zuen urrengoan begira egoteko asmoa; eta era laster izan zuen. Ama bat zazpi semerekin aurkeztu zioten. Agindu zien aragi debekatuak jan zitzatela; baño guziak erantzun zioten etzutela Jaunaren legerik autsiko, eta agindu zuen idi-zillakin zeatzeko. Seme zarrenak orduan esan zion: Gugandik zer nai dezu? Iltzeko prest gaude Jainkoak gure gurasoai emandako legea ez austeagatik. Erantzuera onekin Antioko su eta ga egiñik, burnizko zartagiak eta kobrezko eltzeak gorituerazo zituen, garra zeriela; bitartean seme zarren, itzegin zuenari, mingaña ebaki zioten, burua larrutu eta oñ-eskuetako beatzak moztu ziozkaten, ama eta anaiak zekustela; gero zartagi eta eltze gorituak erakarritta, txigortu eta frejitu zuten, il arteraño. Lenengo itzegin zuen seme zarrena onela iltzen zegoala, ama eta beste semeak elkar poztu eta bizkortzen zuten, patu bera artzeko. Txanda iritsi zitzaianean, beste bost semek eriotza bera izan zuten, Jainkoaganako amoriorik irazekiena agertzen zutela.

Gañerakoak ilda, Antiokok zazpigarrena onez onean artu zuen, eta itz leun eta losentxakin asi zitzaion beretzen: baño Jainkoaren lege santagatik bizia galtzeko besteak bezain irmo arkitu zuenean, amari deitu eta esan zion aren esanera ipiñi zezala. Leku onean zebillen! Ama paregabe ark semetxoari belarrira itzegin zion, ez Antiokok nai zuena egiteko, ezpada Jainkoaren lege santagatik bizia galtzeko geiago eta geiago irmotzeko eran. Amaren esan onak aditu orduko, semea deadarka asi zan, ziola: Zer nai dezute? Nik erregearen esanik ez det egingo, eta bai Moisesek eman zigun Jainkoaren legea. Antiokok zazpigarren au, besteak

baño ere gogortasun geiagorekin ilerazo zuen. Atzenean seme guziak bizkortzen aritu zan ama ilerazo zuen, eta onela etxe bat osoa ondatu eta zortzi doatsu zerura bialdu zituen.

#### 5. Matatias Apaiz Nagusiaren irmotasuna

Martiri oien eta beste askoren odola Juda guzian txirrian zijoan, eta israeltar egiazkoak ikusgarri negarrezko au ezin eramenez bizi ziran. Oien artean eta guzien buru arkitzen zan Matatias apaiz nagusia, zeña, odol-isurtze onekin biotza erdiraturik, Jerusalemendik irten eta Modingo mendietara joan zan, bost seme eta zenbait adiskide berekin arturik, baso bakarrean bizia igarotzera. Muño batetik begira jarrita, negarra zeriola zion: Ai ene errukarria! Zertako jaiio nintzan, nere erriaren galmena eta uri santa ondatua eta etsaien mendean ikusteko? Gauza santak arrotzen eskuetan eta Eliza, gizon desonratua bezala, daude. Guzia galdua dago: Zertako geiago bizi? Eta soñekoak urratu eta negar egiten zuen bere semeekin batean.

Bere negar-aldiak eginda, ondo etzeritzan mendiai bakarrik bere miña adieraztea: Modingo urira jatsi zan, emengoak bere esanakin sendotu eta Jainko egiazkoaren aide eta onen lege santa aitortzera ipintzeko asmoan. Modintarrak poz andia eman zioten aren esana egiteko prest zeudela agertzearekin, eta elkar bizkortu zuten Jaunaren etsaien erasoai arpegi emateko, eta premian laster arkitu ziran.

Antiokok jakin zuenean Matatias eta Judako beste asko Modinen batu zirala, agintari bat bialdu zien, beren Jainkoaren legea utzita Antio-korena aitortu eta adoratu zezatela esatera. Antiokok eta onen agintariak baziekiten Matatias eta bere lagunakin gogorrean etzutela ezer egingo; eta asi zitzaion losentxaro itzegiten eta eskuratzeko egin-al guziak egiten: baño gizon santu onek erantzuten zion, beste guziak Antio-koren esanera jartzan baziran ere, bera, bere seme eta lagunak etzirala Jaunaren legea austera jarriko.

Itzketa onetan zeudela, Judako galdu bat agertu zan idoloari ofrenda egitera. Matatiasen biotza suak artu zuen, eta gizon gaizto hura eskue-tan artuta, aldare gañean porrokatu zuen. Bereala Antio-koren agintariari ere eskuak egotzi eta il zuen, onela Jainkoaganako amorioa eta onratu naja agertuaz. Lan onen ondoren etzeritzan Modinen egon zitekeala, eta bere bost seme Juan, Simon, Judas, Eleazar eta Jonatas eta beste laguna-



kin eremura edo basora iges egin zuen; eta Antioko eta Matatias, nor bereakin, ordutik elkarren kontra jarri ziran, eta sortu zan israeltarrak Jainko egiazkoaren aide eta Antiokok gezurrezkoak ipintzeagatik erabilli zuten gerra gogor, ainbeste odol-isurtze ekarri zuena.

Modindik Jerusalemenera Antiokori laster joan zitzaiozkan mandataria-riak Matatiasek zer egin zuen eta basora nola igesi joan zan esatera. Antiokoren soldaduak beren errabia bereala agertu zuten, eta jai-egun batean otoitz-aldia Elizan egiten zeuden tokian, milla jerusalentar il zituzten. Matatiasek ere bildu zitzaiozkan banakak trebatu zituen etsaiari erasotzeko, eta asi zan berearekin irteteko zuzenbideak artzen. Erriz erri zebillen Jaunaren legea erakusten eta bide zuzenean irauteko sendotzen. Idoloen aldareak bota, idoloak puskatu eta onelako beste gauza asko egin zituen. Baña lanbide onetan artutako nekeak auldua eta gelgetua zegoan, eta ezagutu zuenean iltzera zijoala, bost semeak oe aurrera deitu eta ondo-esan asko egin ziezten. Erakutsi zien nola iraun bear zuten; Judas anaia burutzat ezagutu bear zutela; eta onen esanak egin eta onen mendean ibilli zitezela; eta onela beste gauza asko bere semeakin jo, eta txit zartua il zan, eta Modingo bere errian lurpetu zuten.

## 6. Matatias ilda, Judasen agintea

Judas Makabeok, aita ilda bereala, aita utzi ziozkan soldadu banakak kopuratzeari eman zion: onetarako errietan sartu eta israeltar egiazkoai otsegiten zien, eta denbora gitxiren epean sei milla gizon bizkor zuzendu zituen, eta prestatu zan etsaiari arpegi eman eta gogor egiteko, aurrena Jainkoari biotz biotzetik indarra eta laguntza eskaturik.

Lenbiziko batalla, Jerusalemen ainbeste gizon Elizan ildako biotz gogorreko Apoloniorekin izan zuen, zeñari lagun guziak abarrakitu eta bera ilda kendu zion ezpata, geroz eraso guzietan eskuan oi zerabillen. Onen ondoren are soldadu-talde andiagorekin Seron agintaria aurkeztu zitzaion, Apolonioren utsegiteak zuzentzeko uste oso-osoan, eta gitxiagorako etzan, bi aldeetako jendeen desberdintzari begiratu ezker. Seronen soldadu-taldea agertu zanean, Judasi lagunak esan zioten: Nola guk, ain gitxi izanik, eta banaka oiek ere barauak makalduak, arpegi eman dizaiokegu? Judas Makabeok erantzun zien ansi etzala: Jainkoaren aurrean gitxi-ainbat zezaketela, zenbat askok: etsai asko zetozkiela berak, amazteak, humeak eta zuten guzia ondatzera; baña Jainkoaren

lege santaren aide zebiltzan ezker, etzutela zer bildur izan: Jainkoak lagunduko ziela. Itz oiek esanda, Seronen jendeari eraso zioten; zortzi eun il zituzten, eta gañerakoak igesi joan ziran.

Antiokok Seronen ondamenaren berria artu zuenean, Nikanor erreinu guzian goeneneko andizki eta Gorjias gerra-gizon adituari deitu zien, eta ogeina milla gizon emanik prestatu zituen juduai erasotzeko. Garaipena ain eskuan ustez zeukaten non, itsas-erri guzietara gaztigatu zuten merkataria-riak joan zitezela judu katibuak erostera, txit merke salduko ziozkatelako itza emanda.

Judas Makabeok bere soldaduak bereala esan zien nola etsaia indar andiak in zetorkien. Etzuela soldadu bildurtirik nai, eta baldin bereetan inor bildur zanik bazan, andik joan zitekeala. Sartu berri banaka batzuek irten zitzaiozkan; eta gelditu ziranai bere itzketa onarekin, aien lenago-koai Jainkoak eman izan ziezten indarrak, eta eunda larogeita bost milla soldadu Senakeribenak illaz egindako mirariak, eta denbora guzietan bere serbitzariai emandako laguntza andia gogoraerazoaz biotzak txit bizkorturik, prestatu ziran etsaiari arpegi emateko Jainkoaren legea zain-tzeagatik eta beren etxe eta erriak gordetzeagatik.

Zazpi milla soldadu, ordurako zeuzkanak, Judas Makabeok anaiaen kontura ipiñi zituen, nori bere samalda emanda, eta berak ere saldo bat artuta. Etsaiari eraso zion *Jaunaren laguntza* otsegiñaz, eta Nikanor eta bere lagunak bereala ondatu ziran; batzuek il eta besteak iges egin zuten; eta ozta bat bakarra bizirik irtengo zan, baldin Makabeoren soldaduak jai-eguna sartu zanari begiratu ez bazioten, zeñagatik etziran igeslarien ondoren geiagu joan nai izan.

Juduak garaipen onekin ondasun andiak beretu eta guzian, eta batez ere beartsuenean artean zabaldu zituzten. Andik laster Timoteo eta Baki-des agintari adituak soldadu-talde andiak in agertu zitzaiezten erasotzera; baña asi bezain laster, lenagokoen patua izan zuten. Berebat egin zuten Lisias agintari ots andiko eta beste askorekin ere; eta atzenerako garaipena garaipenaren gañean irabazita, etsai guziak Judatik bialdu zituzten, Antiokoren soldadu-ezurrez bazterrak ondo ereinda.

Judas Makabeo Juda guziko buru egiñik, eta etsaiak gaitz andirik egiteko bildur gabe jarrita, bere jendearekin Jerusalemenera joan zan. Baña, zer naigabea soldadu bizkor eta Jaunaren lege santagatik ainbeste neke artu eta garaipen irabazi zuten aiek izango zuten, Jerusalemgo ondamen negargarria ikustearekin? Uria jentil banaka batzuek baizik gabe, Eliza loitua, aldarean idolotzar bat ipiñita, eliz-ateak erreta, apaiz-etxeak lur-jota, eliz-inguruak sasituta, ondasunak ostuta, itz batean, guzia ondatua



zegoan, eta alderatu ziranean, negarrari eman zitzaiozkan, zakuz janzi ziran, buruak autsez bete zituzten, auzpez jarri ziran, malakoak zerietzela, eta beste era askotan biotzeko miña eta damua agertu zuten.

Bereala auturik apaizik obenak eta Jainkoa ondoena serbitzen zutenak, Eliza garbitu, idoloa zeukan aldea kendu, berria egin eta bedein-katu zuten: eliz-barruko eta atariko gauza ondatu guziak berriro zituzten, eta atzanean guzia zuzendutakoan zortzi eguneko pestak egin zituzten, Jaunari eskerrak ematen eta bere Etxe santa geroz alako ondamentetik gorde zezala eskatzen eta erregutzen. Oien ondoren, auzoak zer egiñik eman etzizaien, eta Jerusalemgo Eliza eta uria etsaien erasoetatik gorde-zeagatik, uria pareta sendoz berriro ingurutu zuten, unetik unera gazte-luak jaso zituzten, eta edozeñi arpegi emateko eran jarri zan. Andik aurrera ere Judas Makabeo auzoekin gerra asko egin bearrean arkitu zan; baña Jainkoaren laguntzarekin beti garaipentsu irteten zan, eta Israelen etsai guziak laborrian ipiñi zituen.

Antioko, agintariak Judan utzirik, Judas Makabeo eta lagunai eraso eta ustez galtzeko adiña jenderekin, Persiara joan zan, diru eta ondasun andiak andik ateratzeko asmoan; baña persiarrak ere, igerri ziotenean zertara zijoan, gogor egin eta lotsa gorrian estieragin zioten. Gauzak Persian uste ez bezala irteten zitzaiozkan egunetan, artu zuen bere jendeari Judas Makabeok emandako ondamentaren bernia, eta Jerusalem zer oñ onean ipiñita zegoan albista; eta su eta gar egiñik, judu guziak galtzeko itza eman zuen, eta Jerusalemeneron abiatu zan. Baña, Jainkoaren kontu andia! Une berean sabeleko miñak eman eta etzion pakean uzten. Ala ere etzan bigundu, eta bere asmo gaiztoarekin bazij Joan.

## 7. Antioko gaizkitua

Azkar baño azkarrago Jerusalemeneratzeagatik, kotxean korrika zijoa-la erorita, ezur guziak porrokatu zitzaiozkan, eta zeruak baño gorago igo nai zan gizon on hura, andetan ibilli bearrean arkitu zan, Jainkoaren esku andia eta gizonen ezereztasuna mundu guziari erakusten ziola. Gorputza usteldu eta arrak zeriozkala jarri zitzaion. Oñazez ezin zegoan, eta gorputzeko usai gaizto eta kiratsa ingurukoak ere ezin eramane zuten. Aragi ustelduakin nazkaturik, errietan sartzera ere menturatu gabe, gelditu ziran Persiako baso eta bakardadeetan, non egon zan il arteraño. Biotze-ko illuntasun eta tristurak artu zuen, lanak ondo irten etzitzaiozkalako;

eta oñazeak batetik eta tristurak bestetik, etzioten atsedeten ere uzten, eta bere eskuz ilko zan, baldin gauza izan balitz.

Gisa onetan zetzala, bere adiskideak deitu eta itz langiak esan zien: Loak iges egin dit, biotza tristuraz betea daukat, eta kordea badijoakit. Ah, ene adiskideak! Orain gogoratzen zazkit Jerusalemenean egin nituen oke-rrak; ostu nituen un eta zillarrezko ontziak eta diruak; judu guziak bide gabe iltzera mandatariak bialdu nituela. Ezagutzen det orain daramazki-dan gaitzak andik datozkidala. Begira, ene adiskideak, nola leku anotzean, tristuraz josirik, iltzen nagoan. Arrokeriak artu ninduen eta orain dakust gizona Jainkoaren mendean egon bear dala, eta lotsagabekeriarik beltze-na dala gizon ilkorra Jainko betikoaren parean jani nai izatea.

Antioko ezin gaizkiago zegoan: ala ere bizi-eresiak eta zeraman lotsa andia kendu naiak, zerbait bigundu zuen Jainkoari enegutzera: baña Jainkoak baziekien aren damu-antz edo irudiak etzetozela egindako gaiz-takeriaen aldetik, ezpada egoera ark ematen zion miñetik; eta etzion bizia luzatzeko usterik ematen, Antiokok nai bezala. Gauzak bere bidean zijoa-zen, eta ezagutu zuenean iltzen zala, bere adiskide Filipino oe aurrera era-karri zuen eta eman zion, Antioko bederatzi urteko semea adiferatzen zan bitartean, erreinuan agintzeko eskua. Esan zion, baldin aren illoba Demetriok erregetzan sartzeko asmorik artzen bazuen, gogor egin eta erregetza semetxoarentzat gorde zezala.

Beldur zan juduak aitaren gogortasunarekin asperturik, etzutela semea naiko, eta au gogoan zeukala, bialdu zien karta bat itz oiekin: «Antioko erregeak judu onai, osasuna, bizitza ona eta zorion guzia. Txit atsegin izango det zuek eta zuen humeak ondo izatea eta gauza guziak naierara zuei irtetea. Persiatik nentorrela, ustez-uste gabe artu ninduen gaitz andi batekin eri banago ere, uste det nere egitekoa dala zuen onaga-tik begiratzea, ez sendatuko ez naizan etsimena artu dedalako; bada, oraindik sendatu uste naiz; ezpada nere aitak probintzia goietan zebille-nean, erabaki zuelako nor aren oñordeko izan bear zan, ez-bearren bat edo gertaera gaiztoaren bat izanda ere, noren mendean gelditzen ziran jakin gabez pakea autsi etzezat. Begiraturik gañera auzoak ere eraren zai daudela berentzat zerbait egiteko, erregetzat aututzen det nere seme gazte Antioko, zeñaren kontura utzi zinduztedan goi-errira joan nintza-nean. Beragatik eskatzen dizutet, nork bere aldan, nigandik artu izan dituzuten mesedeen truke, nere semea nagusizat ezagutu dezazutela; bada uste det txit sotilla izango dezutela eta, niri darraikidala, arpegi ona-rekin begiraturiko dizutela».



Gezurrez eta losentzaz betetako karta oni bere sillua ezarrita laster, amabi urte erregetzan eginda, il zan Antioko biotz-gogorreko, bere mendeko eta gañerakoen gorroto eta iguiña bere gaiztakeriakin irabazi zuena. Antioko zein gaiztoa eta gogorra izan zan ezin esan ditekean gauza da. Etzuen odol-isurtzea besterik gogoan; eta bizitzari zegokion eriotza izan zuen: gorputz ustelduaren aide guzietatik zorna zeriola, iñork bere kiratsa ezin eraman ziola, basoan er-bestean eta lotsa gorri-gorrian il zan.

## 8. Antioko gaztea

Aita Antioko il zanean Antioko gazte, izengoitiz *Eupator* zeritzana, errege jarri zan. *Eupator* aurra zalako, Lisias juduen kontra aspaldian agertu eta ezagutuak agintea artu zuen. Judas Makabeori erasotzeko alegiñak bertatik egin zituen. Lisiasen agintari Gorjias eta Timoteo ere gai onetan etziran atzeratzen: baña Judasek Jainkoaren laguntzarekin gogor egin eta ondatzen zituen.

Judas Jerusalemara zan bein batean, jakin zuen Timoteo gerra-gizon aditua soldadu-talde oñezko eta zaldizkoakin zetorkiela. Len ere Judasek astin-aldi latza eman izan zion; baña oraingoan, iñoiz ez bezalako jendetza bilduta, alderatu zitzaion erasotzera. Judas bere soldadu guziakin Elizara joan, eta guziak buruak autsez beterik, Jainkoari aldare aurrean laguntza eske jarri zitzaiozkan. Prestamen onekin etsaiaren bidera irten ziran. Elkarri erasota, estuen-estuenean ari ziran denboran, bost aingeru, gizon-irudian, urrez apaindutako zaldi ederren gañean Judas Makabeori ondoan jarri zitzaiozkan, eta botatzen zituzten dardu edo ezten zorrotzakin Timoteoren soldaduetan ondamen izugarria egin zuten. Ogei milla eta bost eun oñezko eta sei eun zaldizko illotzik gelditu ziran, eta Timoteok Gazarara iges egin zuen, gaztelu onetan bere burua gordetze-ra; baña egun gitxiren epean juduak gogorrean sartu eta beste lagun askorekin batean il zuten.

Lisiasek berri au artu zuenean, larogei milla oñezko eta zenbat milla zaldizko, elefante askorekin artuta, joan zan Betsura, Jerusalemendik urrean zegoan uri ondora, juduai erasotzeko asmoan. Judas, beti bezala, Jainkoari erregututa prestatu zan; eta Jerusalemendik irten ziran Lisias gogor egiteko asmoan, agertu zitzaien zaldizko bat zuriz janzia, urrezko armakin eta lanzak distiatzen ziola. Ikusteko onekin sendoturik, otsoak ardiari bezala, Lisiasen jendeari eraso zioten, eta begien itxi-idiki batean amai-

ka milla oñezko eta milla eta sei eun zaldizko il zituzten, gañerako guziak lotsa gorrian igesi bialdurik.

Lisiasek ezagutu zuen juduen kontra etzegoala ezer egiterik Jainkoaren eskua beren aide zuten bitartean, eta pozik askorekin, izan zituen eraso-aldietan bizirik irten zalako, Judas Makabeori gaztigatu zion pakea nai zuela, eta geroz adiskide izateko eresia zeukala. Judas ere gerra billan etzebillen, Jainkoaren gauzaetan iñor sartzen ez bazitzaion, eta erriaren onari begiratuta, jarri zan pakeak egiteko.

## 9. Judasekin Antiokoren agintari Lisiasen arteko pake-egitea

Judasek kontu andia izan zuen juduai eskubide guziak uzteko, beren erlejio eta lege santaren azpian bizi izan zitezten, oiek debekatzen zieten gauzarik egitera iñork beartu gabe; eta berak ere eman zuten gañerako gauzaetan Siriako Erregeari ez kontra egiteko itza: eta elkartasun onekin, zirudienez, pakean jartzen ziran: baña juduak siriarren itzetan bildur ziran, eta billatu zuten bein emandako itza nork gorderazo eta esana eragin; eta erromarrai babesa eskatu zieten, asegurantza geiagorekin elkartasun hura egin eta gero bizi izateko.

Juduak utsegiñak etzijoazen siriarren itzetan uste osoa ez idukitzen. Laster ikusi zuten aien itzak aizeak eraman zituela. Denbora asko baño lenago soldadu-talde andiakin aide guzietatik eraso zieten; baña Judas Makabeok bere soldadu banakakin gogor egin eta menderatu zituen. Eraso oietatik batean ikusi zuen etsaiak oi baño gizon geiago galtzen ziozkala, eta illak lurpetzen asi zanean, arkitu zien zenbat gauza idoloai eskeñiak, eta garaipen-aldi batean siriarrai kenduak. Emendik ezagutu zuen gizon-galtze eta garaipenak oi baño geiago luzatzea, izan zala debeatuta zeuzkaten gauza aiek artu zituztenak Jainkoak kastigatu nai izan zituelako. Lagunai esan zien ildakoen aide Jaunari eskatzeko, errukimenez begiratu eta beren utsegiña barkatu zizaien. Agindu zuen illen onerako proguak eta erreguak egin zitezela, eta gisa onetan Judas Makabeok erakutsi zuen illak biztuko diran sinitsmena.



## 10. Siongo gaztelua artzeko prestamenak

Lanbide oietan zebillela, Jerusalemik gaztigatu zioten etzegoala uri onetan bizitzerik, Siongo gaztelua kendu edo menderatu gabe. Gaztelu au etsaiak zeukaten, eta urikoen zabar-aldirik txikienaren begira zeuden, itsumustuan jatsi eta kalte gogorrek egiteko. Eliza ere noiz-nai inguratu eta etzioten ñori sartzen uzten. Judas, bada, gaztigu onekin, zegoana zegoan eran utzita, Jerusalemenera joan zan, eta gaiari zegozkion prestamen guziak artu zituen, gaztelua setiatu eta menderatzeko.

Gaztelukoak ain estura larrian ikusi ziranean, Antioko Eupator beren erregeari gaztigatu zioten, eta erregea eun milla soldadu oñezko, ogei milla zaldizko, ogeita amabi elefante gerra-lanetan trebatu eta irureun gurdi-arma arturik, Jerusalemeneroz abiatu zan. Judas bidera irten zitzaion, iru eguneko barauakin Jainkoari laguntza eskatuta, eta izan zituzten eraso-aldietan, Judasek gizon asko galdu ziozkan. Baña Antioko eta bere jendea geien-geiena arritu zituen gauza izan zan, Judasen anaia Eleazar-en atrebindea. Elefante bakoitzak gañean zeramazkien gaztelu oso bana eta ogeita amabiña gizon. Eleazar-ek ikusi zuenean elefante guzien artean bat, besteak baño andiagoa, errege-armaz estalia eta gizon asko kontuartzalle zituela, iruditu zitzaion erregea elefante onek zekarrela, eta guzien onerako, bere bizia naiz galdu, etsaien artean sartu zan, ezker-eskuira topatzen zituen guziak illaz, eta elefantearen azpian jarrita, lantzarekin sabela zulatu zion eta lurrean illotza ezarri zuen, eta berak ere abere portitz aren azpian ler egin zuen, Sansonek denbora batean bezala. Eleazar-ek lanbide au errege Eupator an zalakoan egin zuen; baño ustea uts irten zitzaion: Erregea beste batean zebillen.

Au eta onelako beste kolpe kaltetsu askorekin, Judas Makabeok etsaiari zenbat milla gizon kenduta ere, zekusan ildakoen lekuan berriak bereala sortzen zitzaiozkala, eta Jerusalemeneroz atzeratu zan, etsaia Betsura ondoan utzita. Orduan Antiokok Betsurako gaztelua beretu zuen, elkarrri geroko itzak emanda. Onen ondoren Jerusalemenera alderatu, eta urja eta Eliza setiatu zituen.

Egun oietan Judas Makabeo egundaño baño estura larriagoan arkitu zan. Inguruan, etsai gogorra eta egin-al guziak egiten zituena zeukan; barruan ere betikoan txit nekatuak eta goseak erdi makalduak zeuden; baño Judas Makabeo beti zegoan Jainkoak lagunduko zion uste osoan, eta berak eskatu eta besteai ere eskaerazotzen zien, eta itxaropen onekin iritsi zuen estura larri artatik ustekabezan irteeta. Ara nola.

Antioko zarrak il aurrean erreinuko agintea seme Antiokoren aurrendorarako eman zion Filipori, zeña Persian bizi zan, Antiokoren ize-nean Lisiasek Antiokian agintzen zuen bitartean. Filipo, Persiako egitekoai buru emanda, Antiokiara joan eta legez eta bidez zegokion agintean jarri zan. Lisias Antioko erregearekin Jerusalemenera arkitzen zan, eta Filiporen etorrera jakin zuenean, erregeari sinisterazo zion Jerusalem utzita Antiokiara Filipori gogor egitera joan obe zala. Erregea artara jarri zan. Judas Makabeorekin pakeak egin zituen, eta oni bere legezpean bizitzeko eskubideak utzirik, Antiokiara joan zan; Filipo benzutu zuen eta Antioko gaztea jaun eta jabe, eta Lisias onen ordeko gelditu ziran.

Poz onek Antiokori etzion luzaro irauan. Garaipen onetatik urte betera, Demetrio bere lengusua, Erroman amairu urtean egonda, gizon banaka batzuekin Antiokiaroz joan zan, eta gauetik goizera Antiokori erregetza eta bizia kendurik, aren aulkian bera jarri zan.

## 11. Demetrio Erregea

Demetrio erregetzan sartu zanean, Alzimo judu, bere lege eta erlejiorekin ukatzalle biurria aurkeztu zitzaion, eta gezurrez errege juduen kontra su eta gar ipiñi zuen. Soldadu-talde andiakin agintaririk adituena Judara bialdu zituen, Judas eta onen lagunak eskuratzerako. Ilkintza andiak egin zituzten, saldukeriarik beltzenak ere lanbide onetarako utzi gabe. Beste askorekin batean, bialdu zuen Nikanor agintari aditua, zeñak lenengoan Judasi txit ondo begiratzen bazion ere, atzenerako erregearen esana egiteagatik etsaierik gogorrena bezala jarri zitzaion. Soldadu-talde andiakin eraso zion, Jerusalemgo uria eta Eliza ondatzeko keñadak egiñaz. Judasek bere soldadu apurrakin arpegi eman zion, eta eraso-aldi batean Nikanor eta bere ogeita amabost milla gizon il zituen, zeñaren bidez Judasen izen andia barreatu zan, eta Israelen etsai guziak izu-ikara latzak artu zituen, eta juduak nai adiña leku artu zuten aspaldiko neke gogorretatik atsedeteko.



## OGEITA AMAIKAGARREN IRAKURGAIA

### 1. Erromaren aginte andia

Denboratsu onetan erromarrak munduan txit aginte andia zeukaten; erreinu osoak mendean zeuzkaten; eta etzuten bein erasotakorik eskuratu gabe uzten. Demetrio Siriako erregeari Judas Makabeo bildur zitzaion, Nikanor eta onen soldaduak ondatu zituelako, eta noizbait egingo zionez etsita zegoan. Arteraño, ain argiro ikusi izan zuen Jainkoaren lmiuntzari begiratuta, etzuen lurrekoenik eskatu; baña oraingoan zerbait itsutu zan, eta erromarrak gaztigatu zien oien babesean jarri nai zala, baldin beren indar andien itzalpean artu nai bazuten. Erromarrak baietzkoa bereala eman zioten, eta bien arteko elkartasuna egin zuten, eta beartuak gelditu ziran erri biak elkarri estura-aldietan laguntzeko.

Demetriok Judasen kontra soldadu-talde andi bat bialdu zuen; eta bi aldeetakoak Jerusalem ondoan aurkez aurke laster arkitu ziran. Oiek txit izu-ikara andiak artu zituen, aien kopuru andia ikusita: eta bi milla eta berreunek Judasi iges egin zioten, eta gelditu zitzaiozkan zortzi eun bakarrak ere, ezurretaraño bildurra sartuta zeuden. Obe degu, esaten zioten, gure lagunetara joan, etsaiari arpegi emateko gitxi geralako. Ez ori, Judasek erantzuten zien; Jainkoari nai ez dakiola, guk gure etsaien aurretik iges egitea. Ordua bete bazagu, gure anaiakgatik garboz il gaitezen eta gure izen ona illundu ez dezagun.

### 2. Judasen eriotza

Judasek esan on oiekin eta Jainkoagan iduki bear zan itxaropenarekin bizkortu zituen, eta gauzak prestaturik, elkarri eraso zioten, eta goizetik arratsalderaño aritu ziran elkar iltzen: baña, o miña! Judas Makabeo, garaipena eskuan zuela uste zan unean, illotza erori zan, eta gañerakoak igesari eman eta batalla bukatu zan. Jonatas eta Simeonek, anaia maite Judasen gorputza arturik, Modinera eramane zuten, eta emen progu andiarekin lurpetua izan zan. Judasen iltzeak Juda guziari negarbide andiak eman ziozkan, eta deadar egiten zuten: Israelko gordetzalle indar-

tsua nola galdu da? Legearen zaintzalle eta Jainkoaren onra, eta bere erriaren onagatik ainbeste irriskatzen zanak, zer egin du? Eraso-aldi guzietan ondo irteten zana. nora da? Onelako esan askorekin adierazotzen zuten zer atsekabe eta miña eman zien Judas agintari biotz andikoren iltzeak. Gizon gogoangarri onen oroipena Eskritura Santak itz oiekin egiten du: Judasen beste gerrak, bertuteak eta biotzaren anditasuna eskribatuak ez daude, txit asko eta andiak izan ziralako.

Judas ilda, juduak ezin esan ere ditekean izaera negargarrian gelditu ziran, artzai gabeko artalde otsoz ingurutuaren antzean, etzeko lege-ukatzalleak eta auzotako etsai gaizto guziak nondik-nai erasotzen ziotela. Ain estura larrian beren buruak ikusita, Judasen lekuan agintarizat anaia Jonatas artu zuten, zeña alegin guziakin prestatu zan etsaiari arpegia erakusteko. Onetarako Judasi sakabanatu zitzaiozkan guziak billerazo zituen; Juan anaia bialdu zuen auzo adiskideetara laguntza eske, eta zenbat lagunekin etxera zetorrela, saldukeriaz bidean il zuten. Gauzak onela prestatuta, lenbiziko erasoetatik bat izan zuen Bakides agintari adituarekin, zeña, gizon asko galduta gero, beartu zuen Jonatasi pakea ematera. Jonatas eta Bakides adiskidetu ziran, eta elkarri gaitzik ez egiteko itza emanik, Bakides Antiokiara itzuli zan, juduai zer egiñik geiago ez emateko asmoan.

Pake onek Jonatasi lau urtean iraun zion. Bitartean lenagoko gerra eta gora-beerak utzitako naspillak garbitu eta egindako kalteak orbaindu, eta gauza guziak era onean ipiñi zituen: batez ere Jainko egiazkoari zegokion agur eta adorazioa emateko lanetan txit nekatu zan, eta iritsi zuen, aspaldian ez bezala, Jauna adoratzera eta bere lege santa gordetzera.

### 3. Antiokoren seme Alejandro

Denbora onetan Antiokoren seme Alejandro Demetriori erregetza kendu naiez irten zitzaion, eta ezaguturik, baldin Jonatas Alexandroekin adiskidetzen bazan, kalte izango zuela, aurrea artuta, bere adiskidetzara eskatu zion, soldadu-taldeak ipintzeko eta armak egiteko eskubidea eskeñiaz. Agindu ere bazuen Siongo gazteluan zeuzkaten atzeman guziak eman zekizkiola.

Jonatasek, baimen eta eskeñtza oiek ikusita, bere itza ezertarako Demetriori eman gabe, ekin zion Jerusalemgo uria sendotu, gerrarako gizonak egin eta trebatzeari, eta egun gitxiren epean jarri zan edozeñi





zer-pensatu emateko eta gogor egiteko bidean. Alejandrok ere bere aide iduki nai zuen, eta gaztigatu zion adiskide izan nai zala, eta siñaletzat janzi eder bat eta urrezko koroa bialduko ziozkala. Demetriok ere eskeñtza asko eta andiak egin ziozkan; baña Jonatas eta onen lagunak, Demetriok Israeli egindako kalteak gogoraturik, Alejandroren aide jarri ziran. Onek, laguntza berri onekin sendoturik, Demetriori eraso zion, eta au il eta jende guzia ondatu zuen, eta erreinu guziaz jabetu zan.

Alejandrok Tolemeo Egiptoko erregeari Kleopatra alaba emaztezarako eskatu zion, eta egin zituzten eztaiegunetan, Jonatas txit onra andian erabili zuen, arestiko gerran egin izan zion mesedeagatik. Gero-ko iru urteetan Sirian eta Judan etzan gerrarik izan. Bitartean Jonatas etzan zabartu bere jendea eraentzeko, oñ onean ipintzeko eta Jaunaren bildurra biotzetan irazekitzeko; baña iru urte oien buruan agertu bearrean arkitu zan.

#### 4. Demetrio Erregea

Batallan ildako Demetriok bi seme utzi zituen, eta zarren, aita bezala Demetrio zeritzanak artu zuen Alejandrori erregetza kentzeko asmoa, eta or emen zenbat soldadu bereturik, bere lurreen sartu zitzaion eta estura larrian ipiñi zuen, eta Jonatas Alejandrori lagundu bearrean arkitu zan.

Alejandroren agintari Apolonio, bere nagusia saldua, Demetrioren aide eta onen soldaduen agintean jarri zan. Jonatasi gaztigatu zion odollik isuri gabe argana jarri zedilla; bestela gaizki ibilliko zala; baña Jonatasek etzion aditu, eta bere adiskide eta ongille Alejandrori laguntzera, zor zion bezala, irten zan. Azoto-ko zelaietan elkarri eraso zioten, eta Jonatas eta bere anaia Simonek Apolonioren jende guzia ondatu eta Apolonio ipiñi zuten geiago onen izenik ez aditzeko eran. Alejandrok mesede au txit gogoan artu zion, eta Jonatasi onra andiak egin ziozkan.

#### 5. Tolemeo Egiptoko Erregea

Tolemeo Egiptoko erregeak bazirudien iñork baño obeto Alejandro bere suiari lagundu bear ziola, eta antz onetan, itsasoan are-bikor ainbat gizonekin Greziaronz abiatu zan. Alejandroren mendekoak ere

bazter guzietan txit arrera ona egin zioten. eta gaztelu guziak idikitzen zitzaiozkan, gogoak zion bezala sartzeko. Baña Tolemeoren asmoak berterik ziran; eta guzia eskupean, on-irudian, artu zuenean, bere saldukeria erakutsi zuen.

Seleuziako urira zanean, suiaren etsai Demetriori gaztigatu zion ara joateko; Alejandrorekin alaba ezkondua damaturik zegoala, eta oni kendurik, emaztetzat ari emango ziola. Demetrio joan zitzaion; alaba eman zion eta erregetzan ipiñi zuen. Alejandro une artan, eginkizunak ala aginduta, beste aide batean zebillen, alako gauzarik gaitz-uste gabe, eta aita-giarrabaren saldukeria jakin zuenean, zezakean jende guzia bildurik Antiokiaronz joan zan: elkarri eraso zioten, eta Alejandrok jende guzia ondatua ikusirik, iges egin zuen Arabiaronz, non gizon dollor batek il zuen, eta Tolemeo ere, batallan artutako zauri batekin irugarren egunean il zan. Demetrio Siria guziaz jabetu zan, eta Tolemeok Egiptotik ekarritako soldadu-talde andiak Egiptoronz bialdu zituen, bere esana egin nai izan etzioten guziak lenago ilda, eta bera bakarra agintean jarri zan.

Bitarte onetan Jonatas, bere bazterraren jabe zan bezala, bazebillen bere jendea nola obeto eraenduko zuen. Zekusan Jerusalemen zegoan Siongo gazteluak zenbat zer-egin eta buruauste Israeli ematen zion: eta aita Matatias eta anaia Judasen eresiarri zerraikiola, menderatzeko asmoa artu zuen, kostako zana kostarik.

Lanbide onetan asita, zerbait aurrera zeramanean, Siriako errege berri Demetriok gaztigatu zion, lanai ari utzirik, Tolemaidara joan zekio-la; bada, itzaldi bat egin bearra zeukala. Jonatasek bereala igerri zion neke hura nondik zetorkion; ezagutzen zuen bere artekoak zirala aren eginbi-deak onean ezin eraman zituztenak; eta galdu naiez, gezur askorekin Demetrio Jonatasen kontra aserre ipifli zutela. Beragatik uzkur bazegonan ere, atzanean erabaki zuen bere erria utzita joatea. Zenbat apaiz eta gizon eldu berekin artu zituen, eta bere uste eta itxaropena Jainkoaren eskuetan ipiñita, Tolemaidaronz abiatu zan.

Demetriok, uste baño arrera ohea egin zion, eta galdu nai izan zutenak aldi onetan atsekabe andia artu zuten. Biak elkartasun bizia egin zuten: Demetriok eskubide andiak eman ziozkan; baña Siongo gazteluari pakean uzteko itzean, esanaz berak aginduko ziela ez jerusalentarrak gaitzik egiteko. Demetriok Jonatas eta juduakin adiskidetasunak onela eginda, soldadu geienak etxeetara bialdu zituen, bearrik izango etzuelakoan; baña lanbide onek bere ondamera ekarri zion.



## 6. Antioko

Alejandrok, il zanean, utzi zuen semetxo bat, *Antioko* zeritzana: eta Emalkuelek isillik Arabian zeukan azitzen. Trifon Alejandroren serbitzari batek seme onen berri baziekien; eta nekez bederik, Emalkueli emanerazo zion, erregetzat aitaren lekuan ipintzeko asmoan. Demetriok etxeetara bialdutako soldaduak txit kejatiak zeuden, erregeak gisa artan utzi zituelako; eta begien itxi-idiki batean eunda ogei milla gizon bere kontra eta il naiez Antiokian altxatu zitzaiozkan. Esturasun latz artan Jonatasek bialdutako iru milla juduen babesean bizirik gorde zañ, eta altxatu ziran guziak il eta menderaturik, Jonatasenak Jerusalemara itzuli ziran.

Mesede andi au Demetriori laster aztu zitzaion: Jonatasi itzuli ziozkan bere burua gordetzeko utzitako soldaduak, eta asi zan juduai emandako itz guziak jaten. Trifon arestian aitatu danari, Demetriorekin Jonatasen arteko autsi-osoak ondo etorri zitzaiozkan. Etxeetarutako soldaduak erraz bildu zituen; erregetzat Antioko ezagutuerao zion, eta errege berri eta jendearekin Antiokiarako bidean jarri zan. Demetrio ere batu zitzaiekan irten zitzaion erasotzera; baña jende guzia abarrakiturik, igesi joan zan, eta Antioko Antiokian garailari sartu zan.

Trifonek, bere asmoak ondo irten zitzaiozkanean, bereala igerrizion lanik obena juduak bereganonz ekartzea zuela, eta Jonatasi bere eresia gaztigatu zion. Jonatas jarri zan Antiokorekin elkar artzera; eta asi zitzaiozkan aide batetik eta Simon anaia bestetik laguntzen; eta Antiokoren etsai indartsuak erasorik, garaitu zituen, eta Jonatas Jerusalemara itzuli zan.

Geroz juduak txit era onean arkitzen ziran beren legeak gordez bizitzeko. Etsaiak bildur zitzaiezen. Bakarrik Siongo gazteluak zer egin eta pensatu asko ematen zion. Judasek asitako lana, beren gogoz aurreturatu zuten; baña Antiokok bein aserrerazo ezkeru, ikaritzen zituen: eta gogoak eman zion, erromarrakin aurrena eta lazedemoniarrakin gero, adiskidetasunak ez-arian egitea, premian arkitzen baziran, oien babesean arpegi emateko. Erroma eta Lazedemoniara mandatariak isillik bialdu zituzten, eta elkartu ziran, nori bere bear-orduan laguntzeko itzak emanaz.

Jonatasek, adiskidetasun oiek eginda, pensatu zuen pake onean eta eskurantzaz guziakin bizitzeko biderik obena, Juda guzian or-emen gazte-

lu eta murrusendoak egitea zala. Gizon zar eta elduai bere eresia eta iritzia agertu zion, eta guziak bat zetozelako, lanari bereala ekin zioten.

## 7. Jonatasen Tolemaidara joanera

Trifonek artu zuen, Antioko ilda bera errege izateko gogoan. Lanbide onetarako eragozpenik andienekotzat Jonatas eta onen jendea zeukan; eta Jonatas bidetik kendu eta galtzeko asmoa biotzean isillik zeukala, soldadu-talde andi bat artu zuen eta Judan sartu zan. Jonatasi gaztigatu zion itz-aspertu bat egin nai zuela, eta Tolemaidara joan zekiola. Jonatas uzkur zegoan; baña aren losentxak adituta, Tolemaidan sartu zan, milla gizon berekin artu eta beste bi milla kanpoan utzita. Tolemaidarrak ateak bereala itxi zituzten, eta ezertarako lekurik eman gabe, eskuak ezarri ziozkaten. Trifon dollor biotz-tolezturazkoak eskupean zeuzkan Antioko errege eta Jonatas bildur zitzaiona, eta bere gogoan betetzeko erarik obenean arkitu zan.

Juduak jakin zutenean Jonatasi gertatua, uste izan zuten illa zala, eta negarrari eman zitzaiozkan. Simon anaia, gaztelu eta murruek egiteari utzita, Jerusalemenez joan zan, eta juduen biotz eroriak altxatu naiez, onela itzegin zion: Badakizute nere aita, anaiak eta ni zenbat nekatu geran gure legeak eta gauza santak gordetzeko, eta zer naigabeak izan ditugun. Nere anaia guziak lanbide onetan il dira; ni bakarria gelditu naiz; baña Jainkoari nai ez dakiola, neke-pena onetan gauden bitartean, nere biziari barkatzea; bada, ni nere anaiak baño ohea ez naiz. Guziak itzketa onekin bizkortu eta etsaiari erasotzeko prestatu ziran.

## 8. Jonatas eta bi semeen iltzea

Trifon Tolemaidatik irtenda, Judaronz abiatu zan, juduak bere alde-raztearekin izutuko ziralakoan; baña ikusi zuenean Simonek gogor egin nai ziola, oña atzeratu zuen. Simoni gaztigatu zion, baldin aren anaia Jonatasek zor utzitako dirua eta bere bi semeak bialtzen baziozkan, Jonatasi emango ziola nai zuen guzia egiteko eskurantzaz. Simonek Trifonen eskeñi gezurrezkoari igerrizion; baña mendekoak uste izan etzezaten berekoia zala, eta dirurik ez emateagatik etziola eskatua egiten, dirua eta Jonatasen bi semeak bialdu ziozkan. Trifonek oiek artu bezain laster, itza



janda, Judari soldadu-talde andiak eraso zion, eta Simonek gogor egin-dako batean, Jonatas eta bi semeak Trifonek il zituen, eta Antiokiara itzuli zan. Simonek anaia eta bi illobaen gorputz-illak artu eta ederki apaindutako obian Modinen lurpetu zituen. Trifon gaiztoak Antioko errege gaztea ere saldukeriaz il zuen, bera onen lekuan sartzeagatik.

Simon jarri zan anaiaren ordez Israel guziaren buru, eta alegin andiak egin zituen bere alderdiak sendotzeko eta oñ onean ipintzeko; eta gauzak zerbait zuzendu zituenean, Demetrio Siriako errege eroriarekin adiskidetasuna berritu zuen, laguntzeko itza ematen ziola. Bereala indarrez Gaza artu zuen, eta idolozale guziak botarik, Jainko egiazkoa adoratzeko eran ipiñi zuen. Andik laster eraso zion bere aita eta anaiak ainbeste aldiz artu nai izan zuten Siongo gazteluari, eta geroean beretu zuen, eta Jerusalem kendu zenbat kalte egin izan ziozkan auzo galgarri au; eta israeltarrak gaztelu onetan sartutako egunean pesta andiak egin zituzten, eta gero ere urteoro bere oroipena egiten zuten.

Israel guzia pake andian jarri zan, eta lanbide guzietan txit aurrerazten zuten; baña autsi-oso negargarri bat denboraz izan zuten. Arestian aitatu da Demetrio jaiki zala Siriako erregetzatik Trifon kendu eta legez eta bidez zegokion lekuan eseri naiez. Auzi onetan berearekin irteteko jende billan zebillela, Mediako Erregeak atzeman zuen eta katibu zeukan. Antioko anaiak berri au artu zuenean, zenbat gerrari bildu zituen eta gogor egiñik Trifon il zuen, eta Siriako erregetzan jarri zan.

Simon eta Israel guziari zor ziezten mesede andiak osotoro aztuta asi zan Juda esetsi edo persegitzen, eta soldadu-talde andi bat ere bialdu zuen Judako bazterrek beretzera. Simonek, abela au ikusirik eta bere zartasunez ezertako ere etzagoala ezaguturik, Judas eta Juan bere bi semeak bere lekuan soldaduai agintzen ipiñi zituen. Oiek bereala siriarren agintari Zendebeori arpegi emanik, ondatu zuten, eta batzuek il eta besteak igesi bialdu zituzten.

Juduak garaipen onen ondorengo bi urteetan etzuten neke andirik izan; baña gertakari izugarri batekin izaera doatsu au laztu zitzairen. Simonek iru seme eta alaba bat zituen. Adiñera zanean, bere kerako Tolemeo zeritzan batekin alaba ezkondu zuen. Tolemeo berez aberatsa, eta apaiz nagusiaren sui egiñik arkitu zanean, bear baño geiago arrotu zan eta aitagiarrabaren agintean sartzeko asmoa artu zuen. Simon, Judas eta Matatias bere semeakin, bazkari bat emateko aitzakitan, suiak eraman zituen *Doē* zeritzan gaztelu txiki batera, non bere egonaldiak Tolemeok egin oi zituen. Aita-semeak maiean ipiñi zituen, eta pozik andienean zeudela, Tolemeo irten zan; gordeta zeuzkan gizon-iltzalle batzuekin baz-

kaltokira itzuli zan, eta aitagiarraba, koñatoak eta zenbat serbitzari il zituen. Beste seme bakar Juangana ere iltzalleak bialdu zituen; baña Juanek jakiñik Tolemeok zer egin zuen eta mandatariak zertara zijozzen, aurrea artu eta il zituen. Juduai, Simon eta bere semeen iltzeak min andia eman zien. Bereala aitaren lekuan apaiz nagusitzat ezagutu zuten seme Juan Hirkanok, zeñak bere asaba, osaba eta aitaren doai on guziak erakutsi zituen.

## 9. Juan Hirkanok

Israel eraentzen asi zanean, Siriako Erregeak eraso zion; baña arpegi beltza erakutsirik, bien arteko pakeak egin zituzten. Geroz Israeli alderdi andi eta asko beretu ziozkan; bere agintea zabaldu zuen, eta il zan Jesu Kristo mundura baño eunda bi urtez lenago.

Juan Hirkanok ilda, onen aginte eta apaiz nagusitzan Judas Aristobulo semea sartu zan; baña anditasun oiek etziran, nereko, aren gogoa betetzeko adiña, eta artu zuen erregearen izen, lenagoko bost eun urteetan iñork izan etzuen. Bereala ama eta senideak itxian sartu zituen. Ama gosez il zan; Antigono anaia ilerazo zuen; eta beste senideak itxian iduki zituen bizi izan zan. arteraño. Erregetzan urte bete egin zuen, eta sabela lerturik odola zeriola il zan.

Alejandra emazteak senar zanaren senideak itxitik atera zituen, eta Alejandro zeritzan senide oietatik batekin ezkondu zan. Alejandro onek ogeita zazpi urte agintean igaro zituen, eta bitarte luze onetan bere anaia bat eta mendeko asko milla il zituen. Odol isurtzea baizik gogoan etzuen, eta atzenez bera ere, ordituta, il zan.

Alejandrak senarra ilda, agintea artu zuen. Bi seme zituen: bat Hirkanok asaba bezala zeritzana apaiz nagusi ipiñi, eta bestea Aristobulo zeritzana erregetzako lanetan laguntzeko artu zuen. Alejandra irurogeita amairu urtekoa il zan, eta bere lekuan Hirkanok, seme nagusia, utzi zuen. Emakume au il zan urtean jaio zan *Mesias* mundura zanean Judako Errege egiten zuen Herodes, Antipatroren semea.

Bi anaia oien artean auzi gogor bat sortu zan, Aristobulok apaiz nagusitza ez ezik, erregetza ere beretzat nai zuelako. Elkarri erasota, lenbiziko batallan Aristobulo garailari irten zan, eta anaiari apaiz nagusitza kendu zion, eta apaiz nagusi eta errege gelditu zan. Anaiaren txarkeria Hirkanok ikusi zuenean, erromarren agintari Ponpeiori Damaskora bere



espasunakin joan zitzaion. Ponpeiok bidezkatat artu ziozkan eta bere soldaduakin Judan sartu zuen. Jerusalemeneron abiatu zuen; baña Aristobuloren adiskideak gogor egin eta etzioten urian sartzen utzi alik eta iru illabetean setiatuta idukirik indarrez artu zuen arteraño. Apaiz nagusitzan berriro Hirkanon ipiñi zuen; baña etzion erregetzarik eman nai izan, eta Judako alderdi guzia erromarren mendeko egin eta Herodesen aita Antipatro buru eta eraentzalle ipiñi zuen. Eta Aristobulo errege eroria, onen semeak eta beste asko katibu arturik, Ponpeio Erromaronz itzuli zuen.

Aristobuloren seme Alejandrok Ponpeiori bidetik iges egin zion eta Judan gerra berriro irazeki zuen; baña Gabinio soldadu-agintariak bereala sua itzali zuen, eta Alejandro eta lagunak menderatu zituen.

Gabiniok orduan Juda guzia bost zati egin eta bakoitzari agintari bat ipiñi zion. Lanbide onen ondoren laster, Ponpeio Erromako agintaria izan, eta Zesar, Ponpeioaren ondorengoagandik Juda guziko agintaritzan Antipatrok iritsi zuen. Jerusalemenera joanda, Hirkanori apaiz nagusitza itzuli zion. Bere bi seme Faselon eta Herodes Jerusalemgo eta Galileako agintean ipiñi zituen. Galileako agintari Herodesek bere biotz gogorra bereala agertu zuen, asko gizon obena gabekoak ilerazotzearekin. Au eta onelako beste gauza askogatik bazter aietan iguin latza artu zioten, eta agintearen gañeko naspilla andiak sortu ziran, eta une gitxiren epean gai onetatik odol asko isuri zuen. Herodes Erromara iges egin bearrean arkitu zuen bizia gordetzeko.

Erroman Talde-agintzako jaunak bere aide ipiñi zituen, eta juduen errege egin zuten, eta Tolemaidara panda, emen arkitzen ziran Erromako soldaduak lagun artu zituen. Oiekin Jerusalemenera eraso zion, an agintzen zuten Antigono kenduta bera jartzeko. Lanbide onek luzaro iraun zuen; baña geroenean ere indarrez sartu zuen, eta Antigono ilerazorik, onen lekuan jarri zuen.

Erregetzat artzeko juduak uzkur jarri zitzaiozkan, arrotza zala ziekitelako, eta ogeita amaika urtean gogo gaiztoz onen mendean bizi izan ziran. Bitartean Herodesek juduen uzkurra ikusirik eta oien gogoan sartu naiez, Jerusalem pareta andiakin berriro zuzendu zuen, Eliza edertu zuen eta aien gogoko zeritzan beste gauza asko egin zituen; baña alperrik: eta atzenean gogorrean asi zuen. Bere aitaren adiskide andi Hirkanon apaiz nagusia eta erregeen odoletik zetozen guziak izan zituen: baita Batzar nagusi edo Sanderingo irurogeita amar juezak ere, beste askorekin batean.

Juduak, ainbeste gogortasunekin asperturik, ogeita amaika urteren buruan jarri ziran erregetzat Herodes eta onen odolekoak ezagutzera, eta oraindik bizi izan zuen geroko beste sei urteetan etzuten Herodesen kon-

tra ezer egin, eta paketsu egon ziran; eta errege arrotz au ezagutzera ziran munduaren Salbatzallea laster etorriko ziran sinalea, denbora gitxiren epean ikusi ziran bezala.

## 10. Joakin eta Anaren ezkontza

Joakin zeritzan judu eta Dabiden odoleko gizon bertutetsua, ogei urteetan ezkondu zuen amasei urteko neskatx Ana zeritzan batekin. Urte askoan seme gabe egon ziran; eta geroenean izan zuten alaba bat *Maria* deitu ziotena. Alaba parerik gabe au Nazaret zeritzan errian jaio zuen munduaren iru milla bederatzia eun eta larogeita laugarren urteko agorillaren zortzigarren egunean. Jaiotza onekin Zeruak poztu ziran, zein ziran ziekitelako; ez ordea mundua, nor etorri zitzaion oartu etzalako. Iru urte zituenean, gurasoak Jerusalemgo Elizan Jaunari bere serbitzorako eskeñi zioten, eta aurrak berak ere garbia izateko itza eman zion, eta geroz Elizan gauza onak egiten bizi izan zuen.

## 11. Jose eta Mariaren ezkontza

Denbora berean Dabiden odoleko gizon, *Jose* zeritzana, Nazaretan sortu zuen. Erregeen jatorria izanda ere, israeltarren artean lotsarik etzan bere eskuko lanarekin bizimodua ateratzen. Oietatik bat Jose zuen, eta arotziarekin bere ogia irabazten zuen. Jose, ogeita hamarren bat urteko adin edo edaderaño ezkontzaka egon zuen; baña ikusi zuenean Joakin eta Ana bere aideak alaba bat izan zutela, gogoak eman zion onekin ezkontzea ondo zetorkiola. Israeltarrek, aident artean ezkontzak egitea oituraz zuten. Bestetik ezkondu gabe gelditzea lotsa andia zuen, Mesias mundura emateko ustea onela galtzen zualako. Mariak garbia izateko emanik zeukan itza, Jainkoak bestek etziekien. Mariaren kontua zeukatenai ere gogoak eman zion Josekin ezkontzea, eta Jose eta Maria ezkondu ziran; eta gisa onetan prestatu zuen Jaunari garbiak izateko itza eman izan zioten senar-emazteen arteko ezkontza zorioneko, lau milla une aietan itxediten zuten Jainko gizon egiña mundura eman bear zuena.



## 12. Maria eta Joserren Adanganañoko asabak

Maria eta Jose zorioneko eta paregabeko senar-emazte oiek aitatu ditugun ezkerro, deritzat txit egoki dala beren aurrekoen errenkada luzea, Adangandik asita, emen ezartzea, Eskritura Santak dakarren eran, jakin dedin lenengo guraso argandik munduaren Salbatzalle Jesu Kristo nola datorren.

Adanek sortu zuen Set.  
 Setek sortu zuen Enos.  
 Enosek sortuzuen Kainan.  
 Kainanek sortu zuen Malaleel.  
 Malaleelek sortu zuen Jareb.  
 Jarebek sortu zuen Enok.  
 Enokek sortu zuen Matusale.  
 Matusalek sortu zuen Lamek.  
 Lamekek sortu zuen Noe.  
 Noek sortu zuen Sem.  
 Semek sortu zuen Arfaxad.  
 Arfaxadek sortu zuen Kainan.  
 Kainanek sortu zuen Sale.  
 Salek sortu zuen Heber.  
 Heber-ek sortu zuen Faleg.  
 Falegek sortu zuen Ragau.  
 Ragauk sortu zuen Sarug.  
 Sarugek sortu zuen Nakor.  
 Nakorek sortu zuen Tare.  
 Tarek sortu zuen Abraham.  
 Abrahamek sortu zuen Isaak.  
 Isaakek sortu zuen Jakob.  
 Jakobek sortu zuen Judas.  
 Judasek sortu zuen Fares.  
 Faresek sortu zuen Eson.  
 Esonnek sortu zuen Aram.  
 Aramek sortu zuen Aminadab.  
 Aminadabek sortu zuen Naason.  
 Naasonnek sortu zuen Salmon.  
 Salmonek sortu zuen Booz.

Boozek sortu zuen Obed.  
 Obedek sortu zuen Jesse, edo Isai.  
 Jessek sortu zuen Dabid.  
 Dabidek sortu zuen Salomon.  
 Salomonek sortu zuen Roboam.  
 Roboamek sortu zuen Abias.  
 Abiassek sortu zuen Asa.  
 Asak sortu zuen Josafat.  
 Josafatek sortu zuen Joram.  
 Joramek sortu zuen Ozias.  
 Oziassek sortu zuen Joatam.  
 Joatamek sortu zuen Akaz.  
 Akazek sortu zuen Ezekias.  
 Ezekiassek sortu zuen Manases.  
 Manasesek sortu zuen Amon.  
 Amonek sortu zuen Josias.  
 Josiassek sortu zuen Jekonias.  
 Jekoniassek sortu zuen Salatiel.  
 Salatielek sortu zuen Zorobabel.  
 Zorobabelek sortu zuen Abiud.  
 Abiudek sortu zuen Eliakim.  
 Eliakimek sortu zuen Azor.  
 Azorek sortu zuen Sadok.  
 Sadokek sortu zuen Akim.  
 Akimek sortu zuen Eliud.  
 Eliudek sortu zuen Eleazar.  
 Eleazarek sortu zuen Matan.  
 Matanek sortu zuen Jakob.  
 Jakobek sortu zuen Jose, Mariaren senarra.  
 Mariagandik jaio zan munduaren Salbatzalle Jesu Kristo.

Eskritura Santak sorterro edo genealogia luze onetan emakumerik sartzen ez du; eta Mariaren senarra Jose zala esatearekin sallari uzten dio; baña oraño esan dan bezala, israeltarrak oituraz edo legez, aideen artean ezkontzak egiten zituzten; beragatik Jose Mariaren senarra zala esateak adierazotzen digu biak aideak eta odol batekoak zirala. Oien bien artean zer aidetasun dan esaten, erakusleak bat ez datoz. Batzuek diote Joserren asaba Matan, Mariarena ere berebat zala, bitartean Josek Jakob eta Mariak Joakin besterik izan gabe; beragatik Jose eta Maria lengusuak



zirala. Besteak diote Joserren amargarren asaba Zorobabelen lenengo seme Abiudgandik Jose datorrela; eta bigarren seme Ressagandik Maria. Beste asko gorago dijoaz; baña guziak bien iturri edo sustraitzat Dabid jotzen dute; eta ezin ukatu diteke, errege andi oni Jainkoak itza eman izan zion bezala, Dabiden odoletik datorrela Jesusen Ama Maria guziz Santa; baita bere senar Jose ere.

Maria emakume andi, ainbeste erregeren ondorengo onek, bada, prest zeukan, Isaias profetak esandako birjiñatasuna autsi gabe semea egingo zuen sabel garbia. Jainkoaren Semea, Jainkotasuna utzi gabe, Mariaren errai garbian gizon egitera bazetorren. Jainko gizondua gizonen artera etorri eta gizonakin itzegiteko denbora alderatu zan; baña lanbide oni utzi dizaiogun, lege zarrari buru eman eta berriari bigarren zatian asiera emateko.